

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko ekainaren 13a

58-1. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeak 2005. urtean egindako lanari buruzko txostena
(2. or.).

(Txostena Aldizkari Ofizialaren hiru aletan argitaratzen da, 58-1, 58-2 eta 58-3. zenbakietan).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeak 2005. urtean egindako lanari buruzko txostena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 22an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeak 2005. urtean egindako lanari buruzko txostena jasotzat ematea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Txostenaren azalpena Foru Araubideko Batzordearen bilkura batean eginen dela xedatzea.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 22an

Lehendakaria, Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeak 2005. urtean egindako lanari buruzko txostena

58-1 ALEKO AURKIBIDEA

1. AURKEZPENEA (4. or.).

2. EGINDAKOAREN LABURPENEA (5. or.).

3. GARDENTASUNA ETA HERRITARREN ESKUBIDEAK SUSTATZEA (28. or.).

3.1. Oinarrizko kontzeptuak (28. or.).

3.1.1. Administrazio Jokabide Zuzenaren Europako Kodea (28. or.).

3.1.2. Nafarroako aurrekariak: Herritarren Eskubideen Gutuna (29. or.).

3.1.3. Kudeaketa publikoaren antolakuntza eta kontrola: arartekoak. Unibertsitate Konplutentsean emandako hitzaldia (29. or.).

3.2. Herritarren Eskubideei buruzko Toki Plana: "Zure eskubideen alde" (37. or.).

3.2.1. Proiektuaren helburuak eta metodologia (38. or.).

3.2.2. Tuterako, Lizarrako, Burlatako eta Zizur Nagusiko udalekin hitzarmenak sinatzea (40. or.).

3.2.3. Telefono bidezko inkestak eta elkarte-
ei egindako inkestak (41. or.).

3.3. Nafarroako Herritarren Eskubideen Gutunaren ildoko ekimenen jarraipena (42. or.).

4. HERRITARREN ESKUBIDEEN ZEHARKAKO DEFENTSA (44. or.).

4.1. Haurrak: "Haurren alde" (44. or.).

4.1.1. Hurrei buruzko kexei erantzutea (44. or.).

4.1.2. Haurren babesari buruzko txosten bereziaren hasiera (44. or.).

4.1.3. 0tik 3 urtera bitarteko haurren hezkuntzari buruzko txosten bereziaren jarraipena (46. or.).

4.1.4. Haurrak babesteko legeari buruzko proposamen txostena (47. or.).

4.1.5. Bigarren hezkuntzan balioak eta eskubideak txertatzeko estrategiei buruzko lantegia (48. or.).

4.1.6. Gizarteak bizikidetzan heztearen alde egiteko estrategia (53. or.).

4.1.7. Haurrak Interneten aurka babesteko kanpaina (58. or.).

4.1.8. Lehen hezkuntzako unitate didaktiko berriak argitaratzea (63. or.).

4.2. Emakumezkoak (64. or.).

4.2.1. Emakumezkoek aurkeztutako kexei erantzutea (64. or.).

4.2.2. Prostituzioari buruzko txosten bereziaren aurkezpena Parlamentuan (65. or.).

- 4.2.3. Emakumezkoen eskubideak sustatzeko jarduerak (67. or.).
- 4.3. Zaharrak (68. or.).
 - 4.3.1. Zaharrei buruzko kexei erantzutea (68. or.).
 - 4.3.2. Nafarroako zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntzari buruzko txosten bereziaren aurkezpena Parlamentuan (69. or.).
 - 4.3.3. Zaharren eskubideak sustatzeko jarduerak: zaharren eskubideen gutuna (71. or.).
 - 4.3.4. Mendekotasunari buruzko txostenaren jarraipena (72. or.).
- 4.4. Adimen osasuna (73. or.).
 - 4.4.1. Adimen osasunaren alorrean aurkeztutako kexak (73. or.).
 - 4.4.2. Adimen osasunari buruzko txosten bereziaren jarraipena (74. or.).
 - 4.4.3. Adimen gaixoen eskubideak sustatzeko jarduerak (80. or.).
- 4.5. Ezintasun fisikoak eta zentzumenezko ezintasunak (80. or.).
 - 4.5.1. Ezintasun arloan aurkeztutako kexak (80. or.).
 - 4.5.2. Eremu publikoan ibiltzeko aukerei buruzko txosten berezia (80. or.).
- 4.6. Pobrezia eta gizarte bazterketa (83. or.).
 - 4.6.1. Arartekoa eta pobrezia forma berriak (83. or.).
 - 4.6.2. Gizarte bazterketari buruzko lantegia (84. or.).

01 AURKEZPENA

Arartekoaren eginkizuna herritarren eskubideak babestea da eta, horretarako, keak zuzenean erantzun eta txosten bereziak egiten ditu, herritarren eskubideak sustatzeko ekimenak gauzatzen ditu haiek informatu eta ohartaraztearren, eta bitarteko lana egiten du; jakina, bitartekotza eragingarria izanen bada zinez, zuhurtzia handia behar du.

2005. urtean, haurren babesari izan da gure arduraren nagusietako bat. Izan ere, arartekoak zeharkako eta aurreranzko ikuspegia du herritarren eskubideen babesaren inguruan, eta horixe da erakundearen ezaugarri horren adibiderik onena. Horren lekuko dira haurrei buruzko keak lehentasunez erantzutea, Oitk 3 urtera bitarteko haurren hezkuntzari buruzko txosten bereziaren jarraipena, administrazioak haurrak babesteko gauzatzen dituen ekimenak ebaluatzeko txosten berezia hastea, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko 15/2005 Foru Legea bideratzeko bitartekotza lanak, balioetan hezteko sustatu eta haurrak Interneten aurka babesteko ekimenak eta, batez ere, gizarte guztiak bizikidetzan hezten parte har dezaten bultzatzeko koordinazio ekimena.

Urteko txostenak erakusten duenez, beste talde ahul batzuen eskubideak babestu eta sustatzeko ekimenak ere gauzatu ditugu, ikuspuntu beretik betiere. Horren adierazgarri dira Parlamentuan zaharren mendekotasunari buruzko txosten berezia eta giza eskubideei eta prostituzioari buruzko txosten berezia aurkeztea, adimen osasunari buruzko txosten bereziaren jarraipena, eremu publikoan ibiltzeko aukerei eta oztopo arkitektonikoei buruzko txosten berezia hastea, pobrezari eta gizarte bazterketari buruzko eztabaidak eta lantegiak antolatzea eta halakoetan parte hartzea.

2005. urtean bideratzen hasi diren kexa berrien kopurua eta 2004koa berbera izan dira ia; alde horretatik, 2004. urtea ohiz kanpoko urtea izan zen, kexa kopurua % 40 inguru handitu baitzen aurreko urtearen aldean.

Arloz arlo, osasunari buruzko keak izan dira ugariak, baina hirigintza eta etxebizitza arlokoak eta hezkuntza arlokoak ere oso ugariak izan dira; hain zuzen ere, hezkuntza arloko kexen ehunekoak (% 80) egin du gora gehien aurreko urtearen aldean, nahiz eta ingurumen arlokoa (% 57) eta justizia eta osasun arlokoak ere (% 40 inguru) nabarmen handitu diren.

2005. urtean, Kalitate Planari esker, Herritarren Arreta Hobetzeko Plana osatu eta jarri dugu abian, eta keak bideratzeko batez besteko epea % 30

baino gehiago murriztu da. Gainera, herritarrek ematen ditugun zerbitzuei buruz duten iritzia ebaluatzearen ondorioz, jakin dugu kearen bat bideratu duten pertsonen % 75,6k Nafarroako arartekoarengana jotzeko gomendatuko luketela.

Bestalde, eskubideen alde egiteko, administrazio publikoek gardentasunaren eta administrazio jokabide zuzenaren alorreko mekanismo eta sistema orokorrak susta ditzaten bultzatu behar da, herritarrekin dituzten betebeharrak bermatu eta ebaluatzeko sistemak etengabe hobetzeraren. Alde horretatik, erakunde honek Foru Komunitateko Herritarren Eskubideen Gutuna osatu du, eta erronka bota die Nafarroako administrazio publiko-
ei, euren eskubideen gutunak osatu eta zerbitzuen gutun espezifikoak osatzeko konpromisoa har dezaten; zerbitzuen gutun horiek konpromiso zehatzak onartu behar dituzte sektorez sektore ematen dituzten zerbitzuen kalitatearen alorrean. Gaur, pozik gaudela esan beharra dago, joan den urtean alor honetako ekimen askotariko eta esanguratsuak burutu direlako Nafarroan.

Herritarren eskubideen gardentasuna eta bermea sustatzeko ildoan, Herritarren Eskubideei buruzko Toki Plana ere jarri dugu martxan, udalek kalitatea etengabe hobetzeko estrategia honetan esku har dezaten, eta, horretarako, lankidetzaren hitzarmenak izenpetu ditugu Tuterako, Lizarrako, Burlatako eta Zizur Nagusiko udalekin. Hitzarmen horien ondorioz, udalerrri bakoitzeko herritarrek udalek jokabide zuzenaren eskuliburuetan ageri diren printzipioak eta balioak errespetatzen dituzten mailari eta udal zerbitzuei euri buruz duten iritzia ebaluatzeko txostena egiteari ekin diogu.

Gizarte eskubideak modu eragingarriagoan bermatze aldera, proposamen txosten garrantzitsu bat aurkeztu dugu Nafarroako Parlamentuan beste autonomia erkidego batzuetako arartekoekin batera, Nafarroako foru eraientza berrezarri eta hobetzeko Lege Organikoaren balizko aldaketa aprobeztatu eta gure oinarritzko legean foru erakundeek nafarrei bermatu behar dizkieten eskubideak eta askatasunak berariaz aipa daitezkeen gomendatzeko. Hain zuzen ere, beste idazpuru bat txertatzeko aholkatu dugu, "Nafarroako herritarren eskubideei, askatasunei eta betebeharrari buruzkoa"; eta testu zirriborroa ere proposatu dugu.

2005. urtearen laburpen honetan, Foru Parlamentuaren bi erabaki ere aipatu behar ditugu, berebiziko garrantzia izanen dutelako erakundearen etorkizunean: bata arartekoa hautatzeko sisteman izanen du eragina, eta besteak, erakundearen antolakuntza eta funtzionamendu erregelamenduan.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet Bulegoko langile guztiei, haien laguntzagatik izan ez balitz, ez baitzatekeen posible izanen ekimen horiei guztiei heltzea. Mila esker bihotz-bihotzez.

María Jesús Aranda Lasheras

Nafarroako arartekoa

02 EGINDAKOAREN LABURPENA

Arartekoaren eginkizuna herritarren eskubideak administrazio publikoen balizko gehiegikerien eta arduragabekeriaren kontra babestea da eta, horretarako, lau tresna mota erabiltzen ditu funtsean. Batzuk atzerantzko edo erreakziozkoak dira, eta beste batzuk, aurrerantzkoak:

- herritarrek aurkezten dituzten kexak (erakundearen eguneroko jardunaren muina)
- txosten bereziak egitea aparteko esangurako alorretan (oro har, talderik ahulenen esparruan)
- bitartekotza lanak (gero eta ohikoagoak eta, maiz, eragingarriak izanen badira zinez, herritarrek ohartu gabe egin beharrekoak)
- herritarren eskubideak sustatzeko ekimenak (gizarte osoaren baitan herritarren eskubideak sustatzen ahalegintzen direnak, herritarrek ohartaraziz eta informatuz)


2.1. HARTUTAKO KEXEN ESTADISTIKA OROKORRA

Joan den urtean bideratzen hasi diren kexen kopurua 415koa izan da, eta zifra hori 2004koaren oso antzekoa da, 416 kexa hasi baitziren bide-

ratzen orduan (erakundea abian jarri zenetik izan den kopururik handiena). Hala ere, guztira kudeatu diren kexen kopurua 508koa izan da, aurreko urtean baino % 10 txikiagoa; izan ere, trantsizio aldia izan da, erakundeko aholkularitza arloko hainbat langile ordezkatu egin direla eta.


Kexen % 44 (182 kexa) autonomia administrazioen aurkakoak izan dira; % 27 (112 kexa), Nafarroako toki erakundearen jardunaren kontrakoak; % 15 (64 kexa), Espainiako administrazioaren kontrakoak; eta % 14, beste erakunde batzuen jardunaren aurkakoak: zehatz-mehatz, 10 kexa, 14 kexa, beste 14 kexa eta 19 kexa epaileen, erakunde pribatuaren, bestelako erakundearen eta zehaztu ez diren beste erakunde batzuen jardunaren aurkakoak izan dira, hurrenez hurren. Nafarroako toki erakundearen esparruan, Iruñeko Udalak sorrarazi du kexa gehien (38 kexa).

Bideratu diren kexa guztien % 65,3 onartu egin dira, % 9,1 beste ararteko batzuei helarazi zaizkie kexa zein eremutakoa zen, eta % 25,6 ez da onartu, legezko eskakizunen bat betetzen ez zelako edo nabarmena zelako ez zegoela irregulartasunik; nolana ere, halakoetan, behar bezalako azalpena eta informazioa eman zaie herritarrei kexak ez onartzeko arrazoiei eta egin lezaketenari buruz. Bestalde, nabarmentzekoa da, hasiera batean 130 kexa (kudeatu diren kexa guztien % 25,6) ez onartzeaz gain, beste 51 kexari (guztira kudeatu diren % 10,0) ezezkua eman zaiela, kexaren egileak emandako datuak eta administrazioak espedientea bideratzearen ondorioz bidalitako informazioa aztertu ostean betiere. Ondorioz, onartu ez diren kexen kopurua kudeatu diren kexa guztien % 35,6koa da.



Kexak arloz arlo analizatuz gero, osasunari buruzko kexak ugarienak direla ikusten da, aurkeztu diren kexa guztien % 12,8 (53 kexa) baitira. Zehazki, honako hau da sailen hurrenkera bakoitzak eragindako kexa kopurua dela eta: osasuna


bera, hirigintza eta etxebizitza (% 12,5 –52 kexa–), hezkuntza (% 10,6 –44 kexa–), lana eta gizarte segurantzza (% 8,7 –36 kexa–), ingurumena (% 7,95 –33 kexa–) eta, azkenik, barnea (% 7,5 –31 kexa–) eta gizarte ongizatea (%7,2 –30 kexa–).



Alor bakoitzeko kexa kopurua aurreko urtean aurkeztutakoarekin alderatuz gero, berriz, ikusten da gehien handitu den ehunekoak hezkuntza arlokoa izan dela, % 83 hazi baita; gehien handitu diren hurrengo ehunekoak hezkuntza arlokoa (% 57) eta justizia eta osasun arloak (% 40 inguru) izan dira.

Nafarroako Gobernuaren aurka aurkeztu diren kexen % 70 bat hiru departamenturi buruzkoak izan dira: kexa guztien % 27 Osasun Departamentuari buruzkoak izan dira; % 25, Hezkuntza Departamentuari buruzkoak; eta % 16, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza departamentuari buruzkoak.


Kexen kopuruaren aldaketarik handiena jaso duten arloak 2005 - 2006



Bestalde, azken lau urteotan alor bakoitzean aurkeztu diren kexen kopuruaren bilakaera edo joerari erreparatuz gero, hirigintza eta etxebizitza arloa, osasun arloa, hezkuntza arloa, lanaren, gizarte segurantzaren eta atzeritarren arloa, herri

lanen eta zerbitzu publikoen arloa eta ingurumen arloa nabarmenki gora egiten ari direla ikusten da; Barne arloa, kultura arloa eta elebitasun arloa, berriz, behera egiten ari dira nabarmen; eta gainerako alorrak, azkenik, nahiko egonkorak dira.


Kexen kopuruaren joera lineala arloen arabera (I) 2002 - 2005



Hain zuzen ere, barne arloan izan den beherakada esanguratsua zirkulazio isunei buruzko keken kopuruak behera egin izanaren ondorio da, herritarrek gero eta hobeto dakitelako gure eginki-

zunen berri, eta elebitasun arlokoa, hasiera batean langileak hautatzeko prozesuei buruzko kekak pilatu izanarena.


**Kexen kopuruaren joera lineala arloen arabera (II)
2002 - 2005**



Kexa jakin bat onartzea erabakitzen denean, arrazoizkoa izan litekeelakoan, idatzizko informazioa eskatzen zaio administrazio publiko eskudunari eta, sarri, arartekoak jardunbideari buruzko informazioa eta arrazoiak eskatze hutsagatik, administrazioak herritarrek arrazoi duela onartu eta hasiera bateko erabakia zuzentzen du. Beste batzuetan, ordea, ez da halakorik gertatzen, eta administrazioak txostena egiten du herritarren

eskaria zergatik ez duen onartzen arrazoitzeke; halakoetan, erakundeak alderdien arrazoiak aztertzen ditu eta, azkenean, arartekoak ebazpena ematen du, gaiari buruzko irizpena emateko –administrazioak arrazoirik ez duela jotzen badu, dagozkion gomendioak egiten ditu–. 2005. urtean, guztira, administrazioek arartekoaren gomendioen % 76 onartu dituzte gutxienez, % 11 ez dituzte onetsi eta % 13 erantzuteke utzi dituzte.

**Arartekoaren iritzia administrazioak onartzea, %
2002tik 2005era bilakaera %**



Arartekoak ebazpena eman eta administrazio jakin bati gomendioak, iradokizunak edo legezko betebeharren gogorazpenak egin behar izan dizkionean, berriz, administrazioak ebazpenen % 64 inguru onartu ditu, baina ehuneko horrek gora egin dezake, gogoan izan behar da eta 19 ebazpen erantzuteke daudela oraindik.

2.2. KALITATEAREN HOBEKUNTZA ETA IRITZIAREN EBALUAZIOA

2005. urtean aurrerapausoa eman da Kalitate Planean; izan ere, Herritarren Arreta Hobetzeko Plana jarri da abian, Bekaduna Hartzeko Eskuliburu onartu da, albisteetarako eta komunikaziorako barne sistema jarri da martxan jakintza trukatzearren, eta arartekoaren zerbitzuen gutuna osatzen hasi da.

Ildo horretan, 2005. urtean amaitutzat eman diren kexak bideratzeko batez besteko epea % 31 murriztu da 2004koaren aldean eta, zehatz-mehatz, espedientea abiatu denetik amaitu den arte igaro den tartea 77,3 egunekoa izan da batez beste.

Aurrez ikusita zegoenez, herritarrek erakundeak ematen dizkien zerbitzuei buruz duten iritzia ebaluatze aldera, inkestak diseinatu eta kexa aurkeztu duten pertsona eta talde guztiei helarazi zaizkie, baita Informazio Bulegora jo dutenei ere, eta honako hau erakusten dute ebaluazio horren emaitzek:

- Informazio bulegora jo duten pertsonen % 98,2k zerbitzua erabiltzeko gomendatuko liekete beste pertsona batzuei.

- Informazio bulegora jo dutenen erdiak (% 50,9k) ikusi dute Nafarroako arartekoaren aukerak aurrez uste baino handiagoak direla, baina % 12,7ri kontrakoa gertatu zaie.

- Arartekoaren aurrean kexaren bat bideratu duten pertsonen % 79,8k "ontzat edo oso ontzat" jo dute Arartekoaren Bulegoak eman dien tratua eta adierazi duen interesa, eta proportzio hori % 100ekoa ere izan da Informazio Bulegoan bertan izan direnen artean.

- Herritarren % 56,5ek "arrazoizkotzat" dute euren kexa espediente bideratzen eman den denbora; % 25,2k, "laburtzat edo oso laburtzat"; eta % 16,8k, "luzetzat edo oso luzetzat".

- Informazio Bulegora jo duten herritarrek 8,2 puntu eman dituzte batez beste, baina kexa espediente bideratu dutenek 6,8 besterik ez dituzte eman; izan ere, arartekoaren azken ebazpenak ez badie arrazoirik eman, herritarren iritzia eskasagoa da.

- Kexaren bat aurkeztu duten herritarren bi herenek adierazi dute arartekoaren esku-hartzea "nahiko baliagarria edo oso baliagarria" izan dela azkenean.

- Kexaren bat aurkeztu duten pertsonen % 75,6k Nafarroako arartekoarengana jotzeko aholkatuko liekete beste pertsona batzuei, baina % 21,4k, berriz, ez; jakina, kontrako iritzi hori oso lotuta dago arrazoa eman ez izanarekin.

2.3. AHULENEN ESKUBIDEEN ZEHARKAKO DEFENTSA

Urteko txosteneko atal hau zeharka lantzearen helburua gure erakundeak talderik ahulenak babesteari heltzen dion modua ahalik eta osokien islatzea da.

2.3.1. "HAURREN ALDE"

Haurrak babestea 2005. urteko lehentasun nagusia izan da eta, "Haurren alde" leloari jarraiki, lehenengo urratsak eman dira alor esanguratsu honetan lan egiteko esparru propioa taxutzeko.

Eskematikoki, honako hauek izan dira 2005. urtean haurren eskubideen alde egiteko gauzatu diren ekimenik adierazgarrienak:

- **Lehentasunezko arreta eman zaie haurrei buruzko kexei**, hezkuntza arlokoei (hala nola, hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleei, haur hezkuntzari, ikastetxeetako instalazioei, hezkuntza plangintzari, ikastetxeen funtzionamenduari eta bizikidetzara arazoei buruzkoei) eta gizarte babesaren alorrekoiei (besteak beste, nazioarteko adopzioari, haurren babesari eta babesgabetasun egoerei buruzkoei) batik bat.

- **Txosten berezi bat hasi da, administrazioak haurrak eta nerabeak babesteko gauzatzen dituen ekimenak ebaluatzearen.** Txosten berezi berriaren helburu orokorra haurrak babesteko funtzio publikoa nola gauzatzen den eta epaileen zigorrek Nafarroako haurrak nola laguntzen dituzten ebaluatzea da, eta helburu espezifikoak, berriz, honako hauek ebaluatzea:

- Nafarroako administrazio publikoek haurren eskubideak urratzen diren egoerei aurrea hartu eta egoerok goiz antzemateko ekimenak behar bezala gauzatzen dituzten

- Nafarroako administrazio publikoek behar bezala eta behar bezala bermatuta gauzatzen dituzten babes prozedurak

- Nafarroako administrazio publikoek behar adinako arreta ematen dieten epaileek zigortutako

haurrei, nazioarteko adopzioari eta helduen laguntzarik ez duten haur atzeritarrei

• **Otik 3 urtera bitarteko haurren hezkuntzari buruzko txosten bereziaren jarraipena egin da.**

2005. urtean Otik 3 urtera bitarteko Nafarroako haurren hezkuntzaren jarraipena egin da. Hain zuzen ere, gai hori 2004ko urrian egin zen txosten berezi baten aztergaia izan zen eta, jarraipenaren bitartez egiaztatuenez, herritar taldeek eta plataformek planteatu zuten gizarte arazoak bere horretan jarraitzen du; hau da, Otik 3 urtera bitarteko haurren hezkuntzak gabeziak ditu oraindik ere. Ondorioz, 14.000 pertsonak baino gehiagok eta 67 udalek babestu duten legegintzarako herri ekimena aurkeztu da Foru Parlamentuan, baina Nafarroako Parlamentuko Mahaiak ukatu egin du.

Hezkuntza Departamentuak, berriz, ez du bete orain arte mapa eta itxaron zerrenda argitaratzeko gure gomendioa, eta toki publikorik ezak bere horretan jarraitzen du. Horren adierazgarri da Iruñeko egoera: 2005. urtean, eskaintza 540 tokioa izan zen, eta eskaria, 1.701ekoa.

Horregatik guztiagatik, 2005. urtearen amaieran aurkeztu diren kexa guztiak aipatu ditugu urteko txostenean. Bertan, administrazioak 3 urtetik beherako haurrak hartzen dituzten Nafarroako ikastetxeen esparruan zer egiten duen ikuskatzeko eskatzen da, batez ere, ikastetxeok bete beharreneko gutxieneko baldintzak eta eskakizun horien gaineko kontrola ikastetxeok jardunean dauden bitartean. Halaber, kexek egungo iragankortasun egoera nabarmentzen dute berriro ere. Izan ere, arau gabezia dago iragankortasun horren ondorioz, eta ezin da behar bezala kontrolatu Foru Komunitateko ikastetxeek 3 urtetik beherako haurrak zein baldintzatan hartzen dituzten. Hori guztia, ordea, oso arriskutsua da haurren garapenaren aldi honetan, aditu guztiek oso ahultzat baitituzte orduan.

• **Bitartekotza lanak eta proposamen txostena egin dira, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko 15/2005 Foru Legea bideratzearen kariatara.**

Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko 15/2005 Foru Legea haurrak babesteko lege proiektuaren ondorioz onartu da, eta aipatzekoa da arartekoak lege proiektua bideratzearen kariatara gauzatu duen ekimena. Hain zuzen ere, lege proiektuaren beraren garrantziaren ondorioz, arartekoak egoki jo du erakundearen iritzia adieraztea, eta Nafarroako Parlamentuko lehendakariak zuzenean esku hartzeko eskatu du, azken ahalegina egin eta Parlamentuko taldeen iritziek bat egin zezaten, ahal bezain legerik onenean adoste aldera. Alde horre-

tatik, esan dugunez, baliabideen eta araudiaren garapenaren alorrean hartutako konpromisoak aurrez ikusitako epean bete daitezzen zainduko dugu.

• **Balioetan hezteari buruzko lantegia antolatu da.** Arartekoak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak lankidetzaz hitzarmena izenpetu zuten gizarte eskubideei buruzko lantegiak egiteko batera eta, hitzarmen horren esparruan, eztabaida lantegia antolatu dute ekainaren 17an balioak eta eskubideak bigarren hezkuntzan txertatzeko estrategiei buruz. Era berean, Europako Kontseiluak Herritartasunean Hezteko Urte izendatu zuen 2005, hezkuntzak herritartasunean berebiziko garrantzia duela nabarmentzearen, eta lantegia haren esparruan ere egin da. Urteko txostenak lantegi horretan azaldutako ideia nagusien berri ematen du, nahiz eta erakundeak argitalpen bat ere kaleratu duen.

• **Bizikidetasunean hezteko gizarte ekimena gauzatu da.** Izan ere, gazteak eta nerabeak gero eta indarkeria ekintza gehiagotan nahasten dira, eta gizartea gero eta kezkatuago dago horregatik; horrek erakusten du erakundeek ekimenak egin behar dituztela elkarrekin, gizartean behar bezalako giroa sortu eta gizarte osoak hezkuntzan duen erantzukizuna har dezan bere gain.

Behar hori ikusirik, arartekoak baterako ekimena antolatzeko proposatu die zuzenean Parlamentuko lehendakariari, Hezkuntza kontseilariari, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreari, Udalen Federazioko lehendakariari, Prentsaren Elkarteak lehendakariari, guraso elkarteetako lehendakariari, institutueta zuzendariei, Eskola Kontseiluko lehendakariari eta Gazteriaren Kontseiluko lehendakariari, gizarte osoa bizikidetasunean hezteko gizarte proiektuan murgiltzen ahalegintzeko.

• **Haurrak Interneten aurka babesteko kanpaina antolatu da.** Europako Kontseiluak kezka adierazi du, haurrak babesgabe daudelako Interneten, eta gai honen ardura guztiona dela gogorazti du. Ildo horretan, autonomia erkidegoetako arartekoak eta Espainiako arartekoak haurrak teknologia berrien eta, bereziki, Interneten arriskuen aurka hobeto babesteko neurriak hartzeko gomendatu dute Alacanten egin duten bileran.

Azken batean, inkesta erantzun duten 10 urteko haurren % 10ek esan dute hitzordua egin dutela Internet bidez ezagutu dituzten pertsonekin, eta Interneten aldizka ibiltzen diren haurren % 44k sexu jazarpena sentitu dute inoiz.

Horregatik guztiagatik, arartekoak eta Protéges elkarteak gizartea ohartarazteko kanpaina jarri

dute abian 2005eko azken hiru hilabeteetan; hain zuzen ere, iragarki laburrak eman dituzte irratian eta gurasoek haurrak babesteko neurrien berri ematen duten 120.000 informazio diptiko banatu dituzte tokiko prentsan tarteko gisa. Gainera, kanpaina horren ildoan, ikasleentzako eta gurasoentzako hainbat solasaldi antolatu dituzte ikastetxeetan 2006. urtean.

• **Eskubideei buruzko unitate didaktiko berriak argitaratu dira lehen hezkuntzarako.** Aurreko urteetan gauzatutako ekimenaren ildoan, unitate didaktiko berriak argitaratu dira 2005. urtean lehen hezkuntzako ikastetxeentzat.

2.3.2. "EMAKUMEZKOEN ALDE"

Emakumezkoen eskubideen babes arartekoak etengabe landu dituen lehentasunetako bat izan da. Zehazki, honako ekimen hauek gauzatu ditu 2005. urtean alor honetan:

• **Lehentasuneko arreta eman die emakumezkoen eskubideekin harremana zuten kexei.** Alde horretatik, emakumezkoak osasun arloaz kezkatzen dira gehien, zehatz-mehatz, adimen osasunaren alorreko laguntzaz, antzutasunaren aurkako tratamenduz, itxaron zerrendez, ginekologia kontsultez, bularreko minbizia antzemateko azterketez... Laguntzak, gutxieneko pentsioak edota laguntza pentsioak eskuratzeko eskubidea ez onartzeagatiko kekek ere esanguratsuak dira, eta arartekoak behin eta berriro salatu duen gizarte egoera batekin lotuta daude askotan: nabarmenki eskasa den alarguntasun pentsiotik ozta-ozta bizi diren emakume helduenarekin.

Azkenik, emakumezkoek aurkezten dituzten kekek emakumezkoek zaintzaile nagusi diren aldetik antzematen dituzten gabeziei buruzkoak dira maiz, alegia, etxeko laguntzari, adimen osasunaren alorreko gizarte eta osasun laguntzari, hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleei, Otik 3 urtera bitarteko haurren hezkuntza zikloari, familientzako laguntzei, eta abarri buruzkoak.

• **Prostituzioari buruzko txosten berezia aurkeztu da Parlamentuan.** 2005eko apirilaren 13an, arartekoak giza eskubideei eta Nafarroako prostituzioari buruzko txosten berezia aurkeztu du Foru Araubideko Parlamentuko Batzordean, eta ekitaldiak oihartzun handia izan du komunikabideetan.

• **Emakumezkoen eskubideak sustatzeko jarduerak egin dira.** Ohikoa denez, arartekoak lehentasuneko arreta eman dio 2005. urtean ere emakumezkoen eskubideak sustatzeari, eta aurreko urteetako ekimenei heldu die. Gainera, parte hartu duen eztabaida guztietan gainerako erakundeetako eta elkarteetako ordezkariekin bat etorri

da, genero indarkeriaren aurkako borrokaren alorrean batik bat.

Arartekoak txostenean oroitarazten duenez, aurrera egin den arren, 2005. urtean 62 emakumezko hil dira Espainian genero indarkeriaren ondorioz, eta horietako hiru, Nafarroan. Hau da, egiteko asko dago genero indarkeriari aurrea hartzeko: kontzientzia harrarazteko kanpainak eskasak izaten jarraitzen dute, kultura menderatzaile eta posesiboak presente jarraitzen du gizarteko maila ugarian eta eskoletako hezkuntza ereduak heldu egin behar du oraindik ere baterako hezkuntza lortuko bada benetan.

Nafarroan, berriz, biktimak laguntzeko bitartekoak indartzen segitu behar da eta babes arloan antzematen diren gabezia handiak zuzendu behar dira: genero indarkeriarekin erlacionatutako auziak epaitzeko epaitegirik ezaren eta epaitegien baliabide eskasen ondorioz, epaitegiak ez dira behar adina bizkorak eta eragingarriak eta, horrenbestez, lehenbailehen esku hartu beharreko esparrua osatzen dute.

Bestalde, familia, norbere bizitza eta lana batearitzea konpondu gabeko arazoa da. Etxeko lanen banaketak desorekatua izaten jarraitzen du, emakumezkoak soldatapeko lan munduan sartu direlako baina gizonezkoek ez dutelako gehiago parte hartzen etxean, eta, ondorioz, emakumezkoek bi lanalditan egin behar dute lan.

Lan munduko diskriminazioak ere bere horretan jarraitzen du, baita erantzukizun handiko karguetan ere. Ildo horretan, emakumezkoak Nafarroako Gobernuak goi kargudunen % 24 eta Foru Parlamentuko kideen % 32 baino ez dira, eta emakumezko bakarra dago Nafarroako Gobernuak kontseilarien artean.

Emakumezkoek seme-alabak zaintzeko arduraren zaindaria izaten segitzen dute, eta gizarteak haien esku uzten jarraitzen du funtsean mendekotasun egoeran dauden senitartekoak lagundu eta zaintzea: zaharrak, adimen gaixoak, ezinduak, etab.

Alde horretatik, bereziki kezagarria da gure gizarteak bi modutan diskriminatzea emakume etorkinak, egonkortasunik txikieneko lanetan aritu behar dute eta euren jatorrizko kulturako eta hartzen dituen gizarteko balioen artean aukeratzeko dilemari aurre egin behar diote eta. Horregatik, administrazio publikoek emakumezko etorkin guztiek hezteko aukera izan dezaten bermatu behar dute, bereizkeria amaitu egin dadin, eta Konstituzioak onartzen dituen eskubideak (euren kutur balioak gorabehera, hitzartutako gutxieneko balioztat hartu beharrekoak) betiere berma daitezen zaindu behar dute.

2.3.3. "ZAHARREN ALDE"

Arartekoa lehentasunez jarduten den beste eremuetakoa bat zaharren eskubideen defentsa izan da eta, horretarako, honako ekimen hauek gauzatu ditu:

- **Lehentasunezko arreta eman die zaharren eskubideei buruzko kexei.** Gure informazio sistemak zaharrei buruz hartu ditugun kexak behar bezala zenbatzeko bide ematen ez badigu ere, gatazka iturri nagusiak antzemateko bide eman ematen digu. Hain zuzen ere, honako hauek izan dira, kexa gehien eragin dutenetatik gutxien eragin dutenetara ordenatuta: laguntzak hartzeko eskubi-dea ez onartzea, gutxieneko pentsioak, laguntza eta alarguntasun pentsioak, etxeko laguntza, osasun arloko itxaron zerrendak, zerbitzu medikoa, zahar etxeetan egoteko baldintzak eta ezintasunak onartzeko prozesuak.

- **Nafarroako zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntzari buruzko txosten berezia aurkeztu du Parlamentuan eta txostenaren jarraipena egin du.** 2005eko apirilaren 19an, arartekoa Foru Araubideko Batzordearen aurrean agertu da Nafarroako zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntzari buruzko txosten berezia aurkezteko. Agerraldian azalduakoa errepikatzea ekidinen dugu, 2004ko urteko txostenean ageri zela-eta, eta funtsezkoa baino ez dugu laburtuko.

Urtebete igaro den honetan txosten berezia aurkeztu zenetik, badirudi gure gomendioa gauzatu eginen dela; harekin bat, mendekotasunari aurre egiteko laguntza ongintzazkoa izateari utzi eta eskatzeko moduko eskubide bihurtuko da epe motzean. Gizartearen baitan norbere autonomia eta mendekotasun egoerei aurre egiteko laguntza sustatzeko lege proiektua aurkeztu ondoren antze-man den adostasun handiak eta, batik bat, administrazio publikoek elkarrekin lan egiteko adierazi duten arrazoizko borondateak, bederen, itxaropena pitzarazten dute. Alabaina, ezin esan daiteke gauza bera orain arte mendekotasunari aurre egiteko gauzatu diren ekimenei buruz eta, horregatik, haien premia errepikatu nahi dugu berriro ere.

Bestalde, orain arte ez dugu antzeman aldaketa esanguratsurik izan denik etxeko laguntzaren alorreko politikan, nabarmen areagotu behar dela uste baitugu; orobat, ez da ezarri gutxieneko arautegirik adituek lehentasunezkoztat duten zerbitzu hori baldintza beretan eman dadin lurralde batzuetan eta besteetan. Alde horretatik, etxeko gizarte laguntza argi eta garbi eskasa dela nabarmentzen da beti, baina alde batera uzten da etxeko osasun laguntza ere hobetu behar dela. Horregatik, salatu nahi dugu oraindik ere ez dela eman urrats esanguratsurik lehen mailako koordinazioa bermatzeko gizarte eta osasun arloan, osasun etxeen eta oinarritzko gizarte zerbitzuen artean. Izan ere, lehen mailako koordinazio plan, programa eta protokolorik ezaren ondorioz, ezin dira kasuak kudeatu eta norbere neurriera prestatutako laguntza plan osoak aplikatu.

- **Zaharren eskubideak sustatzeko jarduerak gauzatu ditu, hala nola, zaharren eskubideen gutuna.** Urtean zehar, arartekoak hainbat bilertan hartu du parte zahar taldeekin eta elkarteekin eta, bileroi esker, zaharren kezka nagusiak antzeman ditugu berriz ere; zehazki, Herritarren Eskubideen Gutuna egiteko prozesuan azaleratuak ziren. Areago, familiarrean eta gizartearen gero eta protagonismo txikiagoa izateari etsipenez aurre egiten diotela ikusi dugu.

Izan ere, zaharrek protagonismoa galdu dute egungo gizartearen, eta euren eskubideak ez dira beti errespetatzen; alde horretatik, ez da batere ohiz kanpokoa zaharrak haurrak bailiran tratatzea, eta euren bizimodua erabakitzeko aukera galdu eta bestek erabakitzea non bizi behar duten, euren logelan zein altzari izanen dituzten, eta baita euren baliabide ekonomikoak zertan erabiliko diren ere. Hori dela-eta, beste erakunde batzuek finkatu duten ereduari jarraiki, zaharren eskubideen gutuna osatu eta 2006. urtean adinean oinarritutako diskriminazioaren aurkako kanpaina egin dadin bultzatzeko proiektua lantzen ari gara 2005. urtearen amaieraz geroztik.

2.3.4. "ADIMEN GAIXOEN ALDE"

Jakina denez, arartekoak oso modu aktiboan esku hartu du adimen gaixo larrien eskubideak babesteko, eta 2004. urtean txosten berezia ere egin zuen haiei buruz. 2005. urtean, berriz, honako ekimen hauek gauzatu ditu adimen gaixoen alorrean:

- **Lehentasunezko arreta eman die adimen gaixoen eskubideei buruzko kexei.** Adimen osasunari buruzko kexak gero eta ugariagoak dira, eta adimen gaixo larriak denbora luzez ospitaleratzeko baliabiderik ezari eta nortasun arazoak tratatzeko aukera terapeutiko egokirik ezari buruzkoak dira batez ere. Gaixoak errehabilitatzeko baliabide eskariak ere nahiko ugariak dira, eta gero eta maizago heltzen zaizkigu gizarte eta portaera arazo larriak dituzten auzoak dituzten herritarren kexak; halere, halako egoeren oinarrian adimen arazo larriak eta babesgabetasuna edo gizarte bazterketa egoten dira sarritan.

Klinikaren batean denbora luzez egoteko toki premiari dagokionez, administrazioak ohiko kexa bati emandako erantzuna eman dugu urteko txosten honetan, ezerk ez baitu hobeto islatzen gaixo hauen senitartekoak zein babesgabe dauden.

Gaixoa itxaron zerrendan dago duela bi urtez geroztik baina, tarte horretan, foru administrazioak ez du arrazoizko irtenbiderik bilatu eta aurkitu salatutako arazo larriei aurre egiteko. Are gehiago, Gizarte Ongizateko kontseilariak izenpetu duen txostenak berak dioenez, "eskari askok" osatzen dute zerrenda hori, nahiz eta eskatzaileek laguntza espezializatua behar duten adimen arazo larriak dituztelako. Gainera, datu horien berri izan arren, gizarte zerbitzuen ardura duen administrazioak ez du arazoaren alderdi bat konpontzeko proposamenik ere egin, ekonomikoa bakarrik bada ere, gaixoen eta senitartekoen egoera neurri batean hobetzeko. Aitzitik, esan esan du ez dagoela toki nahikorik eta horretarako esleipen nahikorik aurrekontuan. Hau da, gaixo hauek hartzeko toki eskasia (dela administrazioarena berarena, dela itundutakoa) dagoela onartzen da, baina baita familiek beste konponbide batzuk bilatzeko laguntza ekonomiko nahikoak ez daudela ere.

- **Adimen osasunari buruzko txosten bereziaren jarraipena egin du.** Arartekoak orain bi urte, adimen osasunaren alorreko Nafarroako laguntzari buruzko txosten berezia aurkeztearen kariatara egin zituen gomendioak zenbateraino bete diren aztertu dugu, eta argi-itzalak antzeman ditugu.

Adimen Arazo Larriak dituzten Pertsonak Laguntzeko Programaren ondorioz, gizarte eta osasun baliabide berriak jarri dira abian urtean

barrena eta, ezbairik gabe, aurrerapauso handia da hori. Hala ere, baliabideok abian jartze hori polemikoa izan da, besteak beste, zerbitzuak kanpoko enpresei esleitu zaizkielako, baliabideak Gizarte Ongizateko Departamentuaren mendean daudelako eta, batez ere, gaixoen zenbait zerbitzuren zati bat ordaindu beharko zutela iragarri zelako. Kexa espedientea bideratu behar izan dugu ondorioz, eta oso ontzat jo dugu administrazioak iritziz aldatu eta, azkenean, errehabilitazio psiko-sozialaren doakotasuna bermatu izana. Nolanahi ere, alde handiak daude errehabilitazio psiko-sozialeko zentroen eta beste zentro batzuen artean:

- Adimen osasunaren alorreko sareko beste errehabilitazio sistema batzuen aldean, zentro berrien antolakuntza eskasa da argi eta garbi gutxieneko kalitatea izateko.

- Osasun Departamentuak ezin du bazter utzi laguntzaren zuzendaritza teknikoa eta jarraitutasuna bermatzeko ardura, Gizarte Ongizateko Departamentuak abiatu duen planak ez duelako bermatzen berez laguntza sistemen koordinazioa eta integrazioa.

- Ezinbestekoa da zerbitzuak (hala publikoak, nola itundutako pribatuak) ebaluatu eta zerbitzuen kalitatea kontrolatzeko sistemak askoz ere zehazkiago definitzea, eta inola ere ezin da ahanzi erantzukizun publikoa ezin dela utzi besteren esku.

Edonola ere, adimen gaixoak laguntzeko azken urteotako eskarien muina gizarte alderdiak izateak ez du esan nahi adimen gaixo larrientzako osasun laguntzaren alderdi ugari hobetu behar ez direnik. Ildo horretan, gure txosten bereziko gomendioekin bat, honako hauek beharrezkotzat ditugu oraindik ere:

- Nafarroak adimen osasunaren alorreko plan osoa izatea, zatitu ezin dena eta are gutxiago Gizarte Ongizateko Departamentuaren ardurapean soilik utzi.

- Askotariko jakintza arloetako taldea osatzea gaixo daudela jabetzen ez diren eta ospitaletik atera bezain laster tratamenduak utzi eta berriro gaixotzen diren gaixo larrientzat, eta etxeko laguntza osoa ematea.

- Arazo larria den aldetik, Osasun Departamentuak behar bezala erantzutea krisialdi akutuetako laguntzari, epaileen, Poliziaren eta adimen osasunaren alorreko sarearen arteko koordinazioa bideratuz, eta gaixoak euren borondatearen kontra ospitaleratzeko protokoloa lehenbailehen egitea.

– Nortasun arazoak dituzten gaixoez, patologia duala duten gaixo drogazaleek, eta abarrek planteatzen dituzten arazoei aurre egiteko laguntza hobetzea.

2.3.5. “EZINDU FISIKOEN ETA ZENTZUMENEZKO EZINDUEN ALDE”

Erakundea, adimen osasunaz ez ezik, ezintasun fisikoez eta zentzumenezko ezintasunez ere arduratzen da eta, horregatik, nahiko arreta handia eman die 2005. urtean. Hain zuzen ere, honako ekimen hauek gauzatu ditu alor honetan:

- **Lehentasunezko arreta eman die ezintasunari buruzko kexei.** Aparteko ahulezia egoeran dauden taldeen artean ohikoa denez, ezintasun fisikoei eta zentzumenezko ezintasunei buruz aurkezten den kexa kopurua txikiegia da oraindik ere. Nolanahi ere, aurkeztu direnak hezkuntza behar bereziei, batetik bestera mugitzeko aukerei eta oztopoak desagerrarazteari, gizarte laguntzei, gizarte etxeetarako garraioari, lanerako prestatzeko zentzoei eta enplegu zentro bereziei, eta abarri buruzkoak izan dira funtsean.

Alde horretatik, arartekoak gero eta arreta handiagoa jartzen du hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleengan, hala beharrezko dituzten zerbitzu osagarrietan, nola gizarteratze eta bereizte printzipioak Hezkuntza Departamentuak baino malguga uztartu beharrean, baina, edonola ere, hezkuntza berezia sakon aztertu behar da Nafarroan eta, hori dela-eta, gai honetan barnatzeko asmoa dugu 2006. urtean.

Administrazioak lanerako prestatzeko zentroetan eta enplegu zentro berezietan sartzeko siste-

men funtzionamendua ikuskatu eta kontrolatzeko lana ere aztertu dugu aurten, eta ohartu gara ez dagoela aurrez ikusitako askotariko alorretako profesional talderik; berebat, kontrol lanak hainbat departamenturi esleitzearen ondorioz, “nik emango, zuk emango”, salatu dugu departamentuok hainbatetan ez dituztela behar bezainbat hartzen euren gain dagozkien funtzioak.

- **Eremu publikoan ibiltzeko aukerei buruzko txosten berezia egin du.** 2005. urtearen erdialdean, Nafarroako erabilera publikoko zentroetan eta zerbitzuetan fisikoki eta zentzumenen bitartez ibiltzeko aukerei buruzko txosten berezia egiteari ekin diogu. Izan ere, ia 20 urte igaro diren arren 4/1998 Foru Legea xedatu zenetik, ez da guztiz betetzen. Horregatik, beharrezko jo da Foru Komunitateko administrazioek egin behar duten lana ebaluatzea, erabilera publikoko eremuetan, zentroetan eta zerbitzuetan nornahi ibil dadin, oztopo fisiko eta zentzumenezko oztopo berriak sortzen ez utzi eta aurrez zeuden oztopoak ken daitezzen bultzatzeko.

Txostena egiteko, Nafarroako Unibertsitateak txosten juridiko osoa egin du eta Nafarroako 164 udalek eta Nafarroako Gobernuoko departamentu guztiek 36 galderako galdeketa erantzun dute.

Txosten berezia amaitzeke dago oraindik, baina uda aurretik aurkeztuko da Foru Parlamentuan.

- **Ofiziozko kexa aurkeztu du elkarteei ematen zaizkien diru laguntzei buruz.** 2005. urtean ere bideratu da ofiziozko kexarik, ezintasunaren alorrean aritzen diren irabazi asmorik gabeko elkarteek, diru laguntza publikoen banaketa atzeratu egin dela eta zenbatekoa eskasa dela-eta, likidezirik ez dutelako.

2.3.6. "GIZARTE BAZTERTUEN ALDE"

Nafarroako Gobernuak bazterketaren aurka borrokatzeko plana jarri zuen abian 1998. urtean, eta aurrean amaitu da hura indarrean egon den artea. Hori dela-eta, hari buruzko lehenengo iritzia (batik bat, Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Sarearena) jendarrean jakinarazten hasi dira baina, txosten hau egiterakoan, ez dugu Gobernuak berak egin duen ebaluazioaren berri.

- Arartekoak bazterketari buruzko bilerak eta lantegiak antolatu eta haietan parte hartu du. Gai honetan dugun interesaren ondorioz, herritarrak ohartarazi eta beharrezko hobekuntzak jarduteko eztabaidetan eta bileretan parte hartzeaz gain, halakoak antolatu ere egin ditugu. Zehazki, 2005eko ekainean, arartekoak Kataluniako *síndic de greuges* delakoak herritarren eskubideei buruz antolatutako jardunaldietan parte hartu du Bartzelonan, eta "Pobrezia forma berriak" izeneko txostena aurkeztu du; era berean, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin batera, erakundeak gizarte bazterketari eta gutxienekoak bermatzeko sistemari buruzko lantegia antolatu du baina, denborarik ezagatik, atzeratu egin da eta, azkenean, 2006ko otsailaren 6an egin da. Bilera horiei guztiei esker, arartekoak aditu talde handi baten iritzia bildu eta erakundeak gai honi buruz duen iritzia alderatu eta osatu du baina, urteko txostenean errepikatu duenez, arazo honi baztertu bakoitzaren eskubideak urratzen direlako ikuspuntutik heldu behar zaio.

- **Erakundeak bazterketaren aurka borrokatzeko planaren jarraipena egin du.** Eztabaidetan parte hartuz, arartekoak pobreziaren eta bazterketaren Nafarroako egoerari buruzko iritzia emateko aukera izan du:

"Egia da Nafarroako egoera ona dela beste batzuen aldean, baina ezin ahantzi dugu zer duen gizarteak ontzat. Ildo horretan, oso pobrezia maila txikiek esan nahi dute 10.000tik 40.000 pertsonara bitartean pobrezia erlatiboko egoeran bizi direla gure Nafarroa aberats honetan. Pertsona horiek izen-abizenak dituzte, baina ez gara asmatzen ari Konstituzioak onartzen dituen eskubideak bermatzen.

Oso ontzat jotzen da Nafarroan plan osoa izan eta adierazleak aldizka argitaratzea, baina tamalgaria da planaren betearazpena ez dela espero zena lortzen ari eta ez direla departamentuen

(Osasun Departamentuaren, Hezkuntza Departamentuaren, Gizarte Ongizateko Departamentuaren eta beste departamentu batzuen) artean egon izan diren trabak gainditzen ari. Norberaren araberrako gizarte laguntza ere ez dirudi espero bezainbeste orokortu denik, planeko elementu giltzarria izan arren.

Bazterketari aurrea hartzeko ekimenak behar baino gutxiago landu izana bereziki kezagarria da, arartekoak behin eta berriro errepikatu duelako behar hori eta hainbat txosten berezi egin ere egin duelako horri buruz: adimen gaixoei buruz, eraso egin dieten emakumei buruz, etorkinei buruz, ezinduei buruz... Badirudi onartu egiten dela gizarte dual eta baztertutako gutxiengoekiko elkartasunik gabea bihurtzen duten faktoreak saihestezina direla. Ondorioz, gizarteak pertsonak baztertzen segitzen du, eta gizarte zerbitzuek bazterketaren ondorioak neurri batean bakarrik tratatzen jarraitzen dute, a posteriori gainera. Historian barrena, pobrezia gizarte bazterketa ekarri du beti baina, gaur egun, gizarte bazterketak dakar pobrezia.

Haurren egoera ere oso kezagarria da, bazterketa bizitzako lehenengo urteetan hasten baita gehienetan. Alde horretatik, oso kezagarria da hezkuntza sistemak ez lortu izana gizarte esparru jakin batzuetako eskola porrota areago murriztea. Izan ere, pobreziaren inguruko egungo ikuspegia-ekin bat, agerikoa da gizarte bazterketaren alorreko lehenetasun nagusiak haurrek oinarrizko hezkuntza izateko aukera izan dezaten bermatzea izan behar duela, munduari berdintasun egoeran aurre egiteko gai izan daitezen. Ildo horretan, beharrezkoa da eskolan porrot egitearen eta eskola uztearen banaketa geografikoan eta hori guztia eragiten duten faktoreetan sakontzea, arazoari aurrea hartzeko benetako plana egitearren zailtasun gehien antzematen den taldeen baitan eta ikastetxeetan. Ez ikusiarena egitea inoiz ere ez da konponbidea."

Espero dugu Nafarroako Gobernuak zorrotz ebaluatuko duela planaren betearazpena, antzematen dituen hutsuneak zuzentzearen, eta lehenbailehen beste plan bat egiteko gomendatuko duela, gizartearen izandako aldaketak (batez ere, migrazioaren boomak ekarritakoak) eta, planean xedatzen diren neurriak zinez ezartzen direla bermatze aldera, kontrol sistema hobeak kontuan hartzearen.

2.4. GARDENTASUNA ETA HERRITARREN ESKUBIDEAK SUSTATZEA

Arartekoek herritarren eskubideak babesteko erantzukizuna dute, baina ardura hori ezin da mugatu hartzen diren kezak erantzutera. Aitzitik, herritarren eskubideak bermatzeko, eskubideon errespetu orokorra bermatuko duten mekanismoak eta sistemak ezarri behar dira, eta mekanismo eta sistema horiek zinez aplikatu eta betearazten direla bermatu behar da.

Ildo horretan, Europako Parlamentuak Administrazio Jokabide Zuzenaren Europako Kodea onartu zuen 2001. urtean, eta Kodea zenbateraino betetzen den neurtu eta administrazio publikoek bertako balioak eta printzipioak aplikatzeko beharrezko ekimenak sustatzeko agindu zion Europako arartekoari eta, horrenbestez, herrialdeetako arartekoei.

2.4.1. HERRITARREN ESKUBIDEEN GUTUNAREN JARRAIPENA

Agindu hori betetzeko, erakunde honek Foru Komunitateko Herritarren Eskubideen Gutuna osa dadin bultzatu du, eta erronka bota die Nafarroako administrazio publikoei, euren eskubideen gutunak osatu eta zerbitzuen gutun espezifikoak osatzeko konpromisoa har dezaten; zerbitzuen gutun horiek konpromiso zehatzak onartu behar dituzte sektorez sektore ematen dituzten zerbitzuen kalitatearen alorrean. Egun, poza adierazi behar dugu, hainbat ekimen gauzatu delako ildo honetan: Foru Komunitateko administrazioari buruzko 15/2004 Foru Legea eta bertako II. idazpurua, herritarrek foru administrazioarekiko harremanetan dituzten eskubideak onartzen dituen; 21/2005 Foru Legea, politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzkoa; 72/2005 Foru Dekretua, zerbitzuen gutunak arautzeari buruzkoa; eta Iruñeko Udalak eskubideen gutuna eta zerbitzuen lehenengo gutunak onartu izana. Horien guztien eta beste batzuen berri eman dugu urteko txostenean, eta Nafarroako administrazio publikoek erronka euren gain hartu eta etengabe hobetu eta herritarrentzat lan egiteko estrategian parte hartze aktiboa duten adierazgarri dira.

2.4.2. HERRITARREN ESKUBIDEEN BURUZKO TOKI PLANA

2005. urtearen azken hiru hilabeteetan, gardentasuna eta herritarren eskubideak sustatzeko ekimenekin bat, erakundeak beste proiektu bati ekin dio udalez udal. Hain zuzen ere, "Herritarren Eskubideen buruzko Toki Plana" izena du ekimen horrek, eta honako hau da helburu orokorra: "uda-

lek herritarrekiko harremanak etengabe hobetzeko estrategia aplikatu dezaten lortzea, herritarrek administrazio zuzena izateko eskubidea bermatzeko, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunak eskubide horixe xedatzen duenez gero".

Nafarroako arartekoaren eginkizuna "gurpila" abian jartzea da funtsean eta, horretarako, txosten berezia egin behar hartu du bere gain, hasiera bateko ebaluazioa egin eta hobetu beharreko esparruak zein diren azaltzeko. Txosten berezia udal bakoitzeko herritarren iritzian oinarritu da, eta udalek jokabide zuzenaren kodeetan eta Herritarren Eskubideen Gutunean ageri diren printzipioak eta balioak zenbateraino neurtzen dituzten neurtu du; hau da, ebaluazioa herritarrek udalek ematen dituzten zerbitzuei buruz duten iritzian oinarritu da.

Hasierako ebaluazioa aurrez zehaztutako metodologiari jarraiki egiten da eta, harekin bat, udal arduradunak elkarriketatzeaz gain, bi inkesta egiten dira: bata telefono bidez egiten zaio ausaz aukeratutako herritarren lagin adierazgarri bati, eta bestea udalerrri bakoitzeko erakunde eta elkarte guztietako informatzaile giltzarriei egiten zaie.

Ekimen honetan parte hartzea guztiz borondatezkoa da baina, horretarako, dagokion hitzarmena formalizatu behar da aurrez. Ildo horretan, 2005eko abenduaren 21ean, lankidetzaren hitzarmenak sinatu dira Tuterako, Burlatako eta Zizur Nagusiko udalekin.

Lana bera 2005eko abenduan egin da. Bilerak egin dira hitzarmena izenpetu duten lau udaletan, eta udalerrriko herritar elkarte eta talde guztiak gonbidatu dira bertara. Guztira, 91 elkartek hartu dute parte ekimenean, eta bete beharreko bi galdeketak erantzun dituzte. Bestalde, ERYBA enpresaren zerbitzuak alokatu dira telefono bidezko inkesta egiteko, eta 400 inkesta egin dira gutxienez udalerrri bakoitzean.

Une honetan, txostenak egin egiten ari dira.

2.4.3. GARDENTASUN PUBLIKOAREN ALDEKO APUSTUA

Unibertitate Konplutentseak 2005eko udan antolatu dituen ikastaroen esparruan, arartekoak kudeaketa publikoaren gardentasunari buruzko hitzaldia eman du. Laburpena urteko txosten honetan txertatu dugu, eta gardentasun publikoaren eta herritarren eskubideak sustatzearen oinarritzko printzipioak sintetizatzen ditu; hain zuzen ere, gardentasun publikoa eta herritarren eskubideak sustatzea erakundearen lanaren funtsezko ardatzetako bat dira, eta alor honetan aurrez ikusi ditugun proiektuen euskarri lana egiten dute.

Gizartearen esparru guztietan boterearen ikuspegi demokratikoa izateak informazioaren gardentasuna eta erabakiak hartzeko prozesuetan, esparru publikoko eremu orotan parte hartze aktiboa izatea izan behar du oinarri.

Alde horretatik, gardentasuna, legezko betebeharrak ez ezik, beharra ere bada, etengabe hobetzeko, eta baita aukera ere, bereizkuntza faktorea den aldetik, herritarren konfiantza eskuratzeko, eta, ildo horretan, kultur maila handitzearen eta informazioa eskuratzeko aukera orokorra izatearen ondorioz, gardentasuna gero eta eskakizun handiagoa da.

Administrazio sistema gardenak ezin du legezko arautzea bakarrik izan oinarritzat, haren funtsezko helburua gehiegikeriak eta interesen arteko gatazkak saihestea baino ez delako. Aitzitik, kalitatearen inguruko printzipioak eta bitartekoak ere baliatu behar ditu, hala nola,

- Erabakiak hartzeko prozesuak gardenak izatea.
- Kontratazio prozedurak gardenak izatea.
- Administrazio jokabide zuzenaren kodeak.
- Prozedurak barnetik kontrolatzeko sistemak.
- Helburu eta xede zehatz eta publikoak.
- Kalitateari buruzko konpromiso zehatzak hartzen dituzten eskubideen eta zerbitzuen gutunak.
- Autoebaluazioa eta kontuak jendaurrean ematea.

- Informazio publikoa eskuragarri izatea.
- Kontuak kanpoko kontrol erakunde beregainek ikuskatzea.

Gaur egun, arartekoek nortasun juridiko garbia dute, eta horrek egiten dituzten ebaluazioen eta txosten berezien ezaugarriak baldintzatzen ditu, hein handi batean. Etorkizunean, baina, ombudsmanek alor gehiagotako ezaugarriak izanen dituzte eta, hartara, kanpotik ikuskatuko dute zinez administrazioek euren legezko betebeharrak zerbateraino betetzen dituzten eta herritarrek hartzeko eskubidea duten zerbitzuak egokiro bermatzen dituzten.

Erakundeek herritarren eskubideak kanpotik ikusatzeko, ordea, beharrezkoa da

- Kalitate eta gardentasun politika aktiboak sustatzea administrazio publikoetan.
- Administrazioak kanpotik ebaluatu eta eskubideak ikusatzeko metodologia berriak lantzea, alderdi ekonomikoak soilik ez ikusatzeko.
- Berme sistemak jartzea abian, herritarrek indar handiagoa izan dezaten euren eskubideak betetzeko eskatzerakoan (empowerment).
- Autonomia erkidegoek eskura duten informazioa konparatzeko sistemak (eta oinarrizko adierazleak) lantzea.
- Administrazio publikoei politika zehatzak izan ditzaten eskatzea, dagokion planean azaltzen direnak, aurrekonturik esleituta dutenak eta helburu eta jarraipen adierazle zehatz eta publikoak xedatzen dituztenak.

2.5. KEXAK, ALORREN ETA DEPARTAMEN- TUEN ARABERA

5. atalean, kexei buruzko ebaluazio orokorraren barnean, herritarrek alorrez alor eta departamentuz departamentu aurkeztu dituzten kexen arrazoi nagusien azterketa xehea egin da. Honako laburpen hau interes orokorreko alorrei buruzkoa da batik bat eta, ahal dela, 4. atalean azaldukoak ("Ahulenen eskubideen zeharkako defentsa") errepikatzea ekiditen du.

GIZARTE ONGIZATEA

Gizarte ongizateko alorrean, 2005eko kexa kopurua eta kexak eragin dituzten arrazoiak ez dira aldatu funtsean aurreko urtearen aldean. Jaki-na, alor honetako kexa gehienak 4. atalean azaldukoari buruzkoak izan dira, alegia, talderik ahulenei (haurrei, zaharrei, emakumeei, ezinduei, adimen gaixoei, eta abarri) buruzkoak, eta ez dugu uste beharrezkoa denik egindakoaren laburpen honetan errepikatzea. Horrenbestez, hitzarmenei eta diru laguntzei buruzko egungo politika berriro aztertu eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuarekin hitzarmena sinatu duten eta hark diruz laguntzen dituen zentroetako kalitatea ebaluatu eta kontrolatzeko sistemak hobetu beharra errepikatu besterik ez dugu egingo.

Alor honetan, urteko txostenak arartekoak 2005eko apirilean Nafarroako Parlamentuan aurkeztu duen proposamenaren berri ematen du. Hain zuzen ere, proposamena Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeko Lege Organikoa erreformatzeari buruzkoa da eta, txostenean diogunez, Legea erreformatu egiten bada azkenean, aldaketa testuan gizarte eskubideei buruzko atala txertatzeko aprobeixatu behar da; atal horri esker, botere publikoak areago lotuko litzateke euren betebeharrak (gizarte eskubideak modu eragingarrian bermatu beharra) betetzeko konpromisoari.

Beste horrenbeste esan daiteke Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuei buruzko legea egiteko oinarriko dokumentuari buruz. Helburua gizarte zerbitzuei buruzko foru lege berriak (gai honi buruzko lege zaharra ordezkatzeko) kontuan hartu beharko lituzkeen printzipioei eta edukiei buruz eztabaidatzen eta gogoeta egiten hastea da baina, erakundearen ustez, ezin da zerbitzuen zerrenda edo egokitzapen hutsa izan. Aitzitik, zerbitzuen kopuruari eta kalitateari buruzko estandarrak eta konpromiso zehatzak finkatzeko eskatu behar zaie botere publikoei, eta zerbitzu horiek lurralde guztian eskatu beharko liratekeen gutxienezko gizarte zerbitzuak bermatu behar dituzte. Horretarako, ordea, finantziazioa zerbitzu-

on kudeaketan esku-hartze zuzena duten toki erakundeekin hitzartu behar da.

Bestalde, uste dugu beharrezkoa dela, nazioarteko adopzioan parte hartzeko beharrezko gaitasun egiaztatzea eskuratzeko, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren aurrean jarraitu beharreko prozesua denbora eta forma aldetik berehala berrikustea, baita prozesu haue-
tan laguntzen duten erakundeen jarduna ere.

HEZKUNTZA

Aurrez adierazi dugunez, 2005. urtean hezkuntza arloan hartu ditugun kexen kopurua aurreko urteko kexen kopuruaren bikoitza izan da ia, eta hazkunde hori oso lotuta egon da instalazioen desegokitasuna behin eta berriro salatu izanarekin; izan ere, instalazioek gero eta akats gehiago dituzte, batetik, aurrekontua eskasa delako nabarmen eta, bestetik, instalazioak mantendu, amortizatu eta berritzeko irizpide teknikoak ez daudelako behar bezala finkatuta. Horren guztiaren ondorioz, norbere eskumenak ez daude behar adina zehaztuta eta, azkenean, "nik emango, zuk emango, amona goseak hil".

Bestalde, 2005. urtean hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleak laguntzeari buruzko kexen kopurua nabarmen handitu da, baina aurreko urteko kexa horiek aztertzearen asmoa. Era berean, bizikidetzari eta ikastetxeetan diziplina neurriak ezartzeari buruzko kexak aurkeztu dira lehenengo aldiz.

Hezkuntza arloko beste gai asko aurreko urteetako txostenetan jorratu ditugu baina, hala ere, azaleratzen jarraitu dute: ikastetxeetan tokia eskuratzeko, ikasle etorkinak ikastetxe jakin batzuetan metatzea eta behar berrien eta hezkuntzaren plangintzaren arteko harremana, besteak beste; hain zuzen ere, behar berri horiek D hizkuntz eredia ezartzeari eta instalazio zein ikastetxe berriak eraikitzeari buruzkoak dira batik bat, hala nola, Iruñeko Patxi Larraintzar ikastetxe publikoari eta Arturo Campión ikastetxe publikoko ikasleak García Galdeano ikastetxe publikora aldatzeari buruzkoak.

Gainera, Otik 3 urtera bitarteko haurren hezkuntzaren egoerak kexa ugari eragin ditu berriro ere 2005. urtean.

Azkenik, auzo berrietako ikastetxeen eraikuntza atzeratu egin dela-eta, hirigintza proiektuen eta horretarako beharrezko azpiegitura eta zerbitzu publiko berrien plangintza eta eraikuntza denbora aldetik koordinatu beharra planteatu behar da eta, alde horretatik, hirigintza plan berriak beharrezko ikastetxe eta zerbitzu publikoen plangintza onartzearekin bat baimentzea komeniko litzateke. Edo-

nola ere, jakin badakigu arazo hori ez dela hezkuntza arlokoa bakarrik, zentro eta zerbitzu publiko orori dagokion neurrian: osasunari, garraio publikoari, eta abarri.

OSASUNA

Lehenengoz, kexa kopururik handiena osasun arloari buruzkoa izan da, eta horren arrazoia da adimen osasunaren, zerbitzu mediko orokorraren, botika zerbitzuaren, itxaron zerrenden, eta abarren alorreko kexen kopurua handitu egin dela. Alde horretatik, adimen gaixoak laguntzeari buruzkoak izan dira ugarienak. Aurreko atalean aipatu dugu gizarte eta osasun arloko laguntza baina, zehatz-mehatz, Osasunbideak adimen gaixoak (batez ere, nortasun arazoak dituztenak) tratatu eta laguntzen ez dituelako aurkeztu dira kexak.

Lehenbiziko aldiz ere, kexa multzo handi bat atzerapenek eragin dute, espezialitate jakin batzuetan itxaron zerrenda luzeak daudela eta; izan ere, Foru Komunitatean ez dago medikuari kontsulta egin eta anbulatorioan azterketak egin arte gehiezin igaro daitekeen epea mugatuko duen araurik eta, ondorioz, gaixoak erabat babesgabe daude eta ez dute inolako bermerik osasun laguntza egokia hartzeko eskubidea erabiltzeko. Hori dela-eta, gomendioa egin diogu Osasun Departamentuari, baina hark entzungor egin du.

Bestalde, emakumezko haurdun batek aurkeztu duen kexaren berri eman beharrean gaude. Umekiari malformazio larria diagnostikatu ziotela-eta, emakumeak haurdunaldia eten behar izan du, eta Nafarroatik irtetera behartu izana eztabaidan jarri du. Gainera, iraintzat hartu du Osasun Departamentuak (hain zuzen ere, Nafarroatik kanpoko klinika batera bidali zuen hark) 130 euro ordaintzeari uko egin izana, bidaia gastuen, bidaian lagundu dionaren ordainaren eta klinikan eman dizkionten sendagaien trukean. Aitzitik, bere bidaia gastuak bakarrik ordainduko zaizkio (22,66 euro), goizeko bederatzietan operatu behar zutela-eta, ebakuntzaren aurreko egunean ospitaleratu eta hurrengo eguneko arratsaldeko zortzietan eman badiote ere alta; gainera, gauean ez du lagunik izan, klinikako barne arauekin bat, ezin delako beste pertsonarik egon eta, beraz, klinikara lagundu duenak klinikatik kanpo eman behar izan delako gaua.

Argi eta garbi dago zalantzan jartzen dugula Departamentuaren jokabidea. Berebat, Nafarroatik kanpoko erietxe batera bidali izana, azalpenen arabera, "Osasunbideko ginekologo batzuk kontzientzia eragozleak" izatearen ondorio izan denez gero, beharrezko neurriak har ditzan gomendatu diogu Osasun Departamentuari, kontzientzia era-

gozpenak prozesuan parte hartu behar duten langile guztien edo batzuen artean bere horretan jarraitzen duen egiazta dezan. Azkenik, halako egoeretan garraioa eta egunsariak ordaintzeko gastuak bere gain hartzeko gomendatu diogu eta, horrez gain, dagozkion hitzarmenak sinatzeko beste erietxeekin, gaixoek lagunik izan dezaten alboan halako egoera berezietan. Departamentuak eman duen erantzun bakarra izan da Nafarroako emakumezkoek haurdunaldia eteteko eskubidea dutela legediak xedatzen dituen egoeretan eta, bidaia, ostalua eta mantentzea ordaintzeko sariei dagokienez, uztailaren 30eko 212/2005 Foru Dekretua aplikatu baino ez duela egin, Osasun Departamentuak 2005. urtean egin dituen txostenak nabarmenki eskasak izan diren eta gure gomendioei jaramon gutxi egin dien adierazgarri.

Ospitaleetako larrialdi zerbitzuak geldirik egon direlako salaketa publikoak ere izan dira urte honetan barrena. Unean uneko arazotzat har daitezke geldialdi horiek, baina nabarmen hobetu daitezkeen sistema dute oinarri; izan ere, instalazioak eskasak eta desegokiak dira, eta gaixo gehiegik orduak eta orduak eman behar dituzte korridoretako andetan. Gainera, okerrera da ez dirudiela plangintzarik egin denik epe ertainerako eta luzerako.

Azkenik, lehen mailako profesionalen eskariak oihartzuna izan dute komunikabideetan 2005. urtean. Euren eskakizunak Parlamentuan bertan ere azaldu dituzte, eta Departamentuak konpromisoa hartu behar izan du zenbait baliabide handitzeko. Ez dirudi egokia denik hainbestetan azaldu ditugun arazoibideak berriro ere errepikatzea eta, horregatik, baliabideak mugatzeak herritarren eskubideetan duela eragina gogoratu besterik ez dugu egingo.

KULTURA, KIROLA ETA ELEBITASUNA

Kultur arloan izan diren kexa urriak ondare historikoaren kontserbazioari buruzkoak izan dira, eta kirol arloan, udal instalazioak erabiltzeko baldintzei buruzkoak. Elebitasun arloan, berriz, bi egoera jakin aipatu genituen aurreko urteko txostenean, eta berriz planteatu behar direla uste dugu; izan ere, administrazioaren eta herritarren arteko harremanean, eremu mistoan batez ere, administrazioak zehaztutako eredu eta irizpide homogeneorik ez izateak, batetik, eta epaileek hainbat motatako eta edukitako ebazpenak eman izanak, bestetik, ez du alor hau argitzen laguntzen batere. Alde horretatik, Nafarroako Parlamentuan eratu den batzorde txostengilea aukera handia zen, aurreko txostenean nabarmendu genuenez baina, zoritxarrez, ez ditu espero genituen fruituak eman. Hala

ere, erakundearen iritzia emanen dugu berriro ere: Nafarroako gizarteak adostasuna lortu behar du alor honetan, herritarren eskubideak argi zehazteko ez ezik, baita nafarren arteko bizikidetzaren normalizatu eginen litzatekeelako ere hartara. Guztiok bat gatoz haurrak bizikidetzan hezi behar ditugula; bada, ezin ahanntzi dugu etsenpluaren bidez predikatzen dela.

Azkenik, errepideetako seinaleak direla-eta, Nafarroako Gobernuak berak onartutako toponimia ofizialarekin bat gaztelaniazko eta euskarazko izenez osatutako izen ofiziala duten udalerrietan aplikatu beharreko xedapenak aztertu ondoren, gomendioa egin dugu udalen bi izen ofizialak ager daitezen seinaleetan.

OGASUNA

Ogasun arloan, aipatzekoa da errentaren gaineko zergaren alorreko araubide zehatzailea hobetu beharra, nabarmen bidegabeak diren egoerak jazotzen baitira hainbatetan, hala nola, batere proportziorik ez dagoenean subjektu pasiboak egiten duen arau-haustearen eta errenta ez adierazteagatik edo oker adierazteagatik ezartzen zaion zigorraren artean. Beste horrenbeste gertatzen da familien gutxieneko diru sarreraren alorreko kenkariekin (aurrekoengatikoeekin eta ezintasunagatikoeekin), urtean barrena zergadunen euren eta senitatekoen egoera aldatu egiten denean; esate baterako, aurrekoa familiarean bizi bada 364 egunez eta sortzapean egunaren aurreko egunean hiltzen bada, ez da inolako zenbatekorik arintzen, baina aurrekoa sortzapean egunaren aurreko egunean hartzen duenak, berriz, egun bakarrez bizi arren harekin, zenbateko osoa arindu dezake. Horrenbestez, egoki jo dugu neurriak aztertu eta hartzea zerga ordainketa zuzenagoa izan dadin, neurriok sortzapean unean ezartzearen ondorioak kontuan izanik betiere.

Ogasun arloko beste kexa iturri batzuk zergei buruzko informazioa, foru auzitegi ekonomiko administratiboan aurkezten diren erreklamazioak ebazten izaten diren atzerapenak eta, batik bat, toki zergen zenbatekoa bat-batean handitu izana izan dira.

HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

Hirigintza arloko kexak alor horretan diziplinarik ez izateari eta plangintza egiteko prozesuak ilunak izateari buruzkoak izan dira. Alde horretatik, berriro ere nabarmendu beharra dago hirigintza arloko administrazioak doakienaren eskubidea bermatzera behartuta daudela; hain zuzen ere, interesdunek hirigintza planak egin, bideratu eta kudeatzeko

prozesuetan parte hartzeko eta ekimenak aurkeztu eta informazioa izateko eskubidea dute.

Zalantzarik gabe, etxebizitza eskuratzeko arazoak eta zailtasunak gure gizartearen kezka nagusietako bat dira.

Aipatzekoa da babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko irizpideek zein baremoek eta irizpide eta baremo horiek zuzen ebaluatzeak etengabeko kexak eragiten segitu dutela. Besteak beste, eztabaidan jarri da gutxieneko diru sarrera jakin batzuk ez dituztenak sustapen hauetatik kanpo geratzea, halako etxebizitzak etxebizitza duina eskuratzeko zailtasunak dituztenentzat izan arren hain zuzen. Halaber, gutxieneko diru sarrera jakin batzuk izateko baldintza betetzen dela azken bi zerga aldietan egiaztatu beharra eztabaidatu da eta, batez ere, Nafarroan jarraituki errolatuta egon beharriaren aurkako iritzia eman dute dena delakoagatik aldi baterako Nafarroatik kanpo errolatu behar izan duten herritarrek, sustapen prozesu hauetatik kanpo gelditu direlako.

Bestalde, argi eta garbi jakinarazi behar da kexak helarazi zaizkigula alokatzeko babes ofizialeko etxebizitzaren alorrean kontratu bidezko harremanetan sortzen diren arazoei eta etxebizitzok erabili eta bertan bizitzeko baldintzei buruz.

Berriro ere, gogorarazi beharra dago administrazio publikoek ezin dituztela babes ofizialeko etxebizitzak sustatu bakarrik egin; izan ere, neurri horrek herritar ugariaren egoera konpontzen laguntzen badu ere, oraindik nahikoa ez dela ikusi da eta, gainera, berez, ez du etxebizitzaren prezioaren gorakada gelditzen laguntzen. Aitzitik, administrazio eskudunek lurzoru eta etxebizitza arloan esku hartzeko bitartekoak diseinatu eta ezartzeko aukera guztiak baliatu behar dituzte eta, batik bat, ahal dela, ez dituzte egin behar lurzoruaren prezioa handiarazten duten ekintzak. Esate baterako, Iruñeko Udalak zortzi udal orube enkantean jarri ditu, 258 etxebizitza eraikitzeko; 45 milioi euro baino gehiago ordaindu dira orubeen trukean eta, hori dela-eta, lurzoruak jasan duen kostua 180.000 eurotik gorakoa izan da etxebizitza bakoitzeko. Horren guztiaren ondorioz, erakundeak ofiziozko kexa aurkeztu du. Ildo horretan, gogorarazi diogu Udalari, udalen lurzoru ondareak besterendu behar badira, enkante publiko bidezko sistema bertan behera uzteko proposatu zela Arartekoak Koordinatzeko XVIII. Jardunaldietan, ez baitirudi sistema hori bateragarria denik udal lurzoruak berez izan beharko lukeen erabilerekin; hain zuzen ere, lurzoru hori babes ofizialeko etxebizitza sustatzeko erabili beharko litzateke, beste baliabide batzuen bitartez finantza daitezkeen beste hel-

buru batzuetarako erabili beharrean, helburuok interes publikokoak izan arren.

FUNTZIO PUBLIKOA

Funtzio publikoaren alorrean, administrazio publikoko lanpostuak lortu eta hornitzeko prozedurak, funtzionarioen mugikortasuna eta funtzionarioen eskubideak eta betebeharrak izan dira kexa arrazoi nagusiak.

LANA, GIZARTE SEGURANTZA ETA ATZERRITARRAK

Lanaren eta Gizarte Segurantzaren alorrean, alarguntasun pentsioak hartzen dituzten zenbait alargunek jakinarazi digute ez daudela batere ados Nafarroako Gobernuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko otsailaren 17ko 1/2004 Foru Legea aplikatzen ari den moduarekin eta aplikazio horren ondorioekin; hain zuzen ere, lege horrek arautzen ditu alarguntasun pentsioengatikoen kenkariak. Euren egoera ulertzeko, adibide bat aztertu besterik ez dago: 2005. urtean, Espainiako gutxieneko pentsioen hazkundea % 6,5ekoa izan da baina, 1/2004 Foru Legeak efektu anizkuneko errenta adierazle publikoa dela eta xedatzen duen osagarriaren gehieneko zenbatekoaren ondorioz, Nafarroako Gobernuak ordaintzen zuen osagarria hileko 53 eurotik hileko 29 eurora jaitsi da; hori dela-eta, alarguntasun pentsioaren zenbatekoa hileko 469 eurotik hileko 472 eurora pasatu da 2004. urtetik 2005era bitartean, hau da, 3 eurotan bakarrik handitu da urte batetik bestera.

Atzerritarren alorrean, bestalde, kexa kopurua nabarmen handitu da. Lehenik eta behin, aipatzekoa da Maroko eta Espainia arteko mugan gertatutakoa salatu dela; hain zuzen ere, bost etorkin hil ziren bertan. Ondorioz, kexa eta arartekoaren iritzia helarazi dizkiegu berehala Espainiako Atzerri Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioari eta arartekoari; izan ere, ez zaigu arrazoizko iruditu, hainbat egunen ostean, Espainiako eta Marokoko gobernuek gertatutakoari buruz azaleratutako informazio kezkgarriak gezurtatu edo behar bezala azaldu ez izana eta etorkinak horren kokaileku desegokietara eramateko arrazoi berri eman ez izana. Horrenbestez, hain egoera laidogarria amaiarazteko beharrezko neurriak lehenbailehen hartzeko eskatu diegu, uste baitugu Espainiako Gobernuak eta Europar Batasunak ezin diotela inola ere ez ikusiarena egin etorkinen zoriari, atea itxi eta arrisku handiko egoeran abandonatu ondoren. Autonomia erkidegoetako eta Espainiako arartekoek ere bat egin dute iritzi horrekin, baterako adierazpena onartu dute eta.

Azkenik, ohikoak izan dira, Espainiako hainbat kontsuletzetan bisak eskuratu nahian, laguntza eskasa eta atzerapenak izan dituztenen kexak eta, horregatik, bitartekotza lanak egin eta, gainera, emaitzak onak lortu ditugu hainbat kontsulatutan, Espainiak Ekuadorren eta Kolonbian dituen kontsuletxeetan batik bat.

INGURUMENA

Ingurumenari buruzko kexak nabarmen handitu dira, % 60 egin baitute gora, eta, aurten ere, alor honetako kezarik ugarienak zaratari eta beste igorpen gogaikarri batzuei buruzkoak izan dira. Alde horretatik, administrazio eskudunen esku-hartzeak eraginik izan ez duela antzeman dugu, dela arazo gutxietsi egin dutelako (jasan egin daitezkeen "eragozpen hutsak" izan direlako), dela euren legezko betebeharrak eta euren garrantzi edo esangura ahaztu egin dituztelako. Hori dela-eta, gogoan izan beharra dago jurisprudentziak gero eta gehiago jotzen duela zarata esparru pribatuaren inbasioa dela, pertsona orok esparru hori berezko eta ezin bortxatuzkotzat hartzeko eskubidea duen arren, eta, ondorioz, txosten berezi bat egiteari ekin diogu, baina oraindik ere amaitzeke dago.

Ingurumen arloko beste kexa iturri esanguratsu bat herritarrek ingurumenari buruzko informazioa eskuragarri izateko eskubidea da. Ildo horretan, aurkeztu den kexa batek aparteko interesa piztu du gure artean, eta gomendioa egin diogu Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari, beharrezko bitartekoak ezarri eta herritarrek (batik bat, ahulenek) airean (batez ere, Erribera aldean) dagoen ozono troposferikoaren kopuruari buruzko informazioa izan dezaten bermatzeko, indarrean dagoen legediak xedatzen duenarekin bat.

Sakelako telefono deien oinarrizko estazioek kexak eragiten jarraitu dute aurten ere. Maiatzaren 6ko 10/2002 Foru Legea onartu bazen ere Nafarroan sakelako telefono deien oinarrizko estazioak antolatzeke, ia lau urte igaro dira dagoeneko eta oraindik ere ez dira onartu lurraldeetako azpiegitura planak, beharrezkoak diren arren halako instalazioak baimentzeko. Gainera, Foru Legeak beste neurri batzuk ere xedatzen ditu, hala nola, instalazioak aldizka ikuskatu, instalazioek zenbat igortzen duten kontrolatu eta ikuskatu eta ikerkuntza epidemiologikoan aritzea eta, horregatik guztiagatik, ofizioz lan egiten hasi gara, baina eskatu dugun informazioa hartzeko zain gaude oraindik.

HERRI LANAK ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

Herri lanen alorreko kexa iturri nagusiak azpiegitura lanek besterengan dituen ondorio txarrekin, azpiegituren kontserbazio eta mantentze desegokiarekin eta nahitaezko desjabetze prozesuekin lotuta egon dira.

Bestalde, 2005. urtean hainbat kexa aurkeztu da zerbitzu publikoen alorrean. Gehienak telefonia finkoko oinarriko zerbitzuari buruzkoak izan dira, baita zerbitzu horren erabiltzaileek bezeroentzako bulegorik ez izateagatik dituzten arazoei, idatzizko erreklamazioak aurkeztu behar diren helbideari buruzko informaziorik ezari eta erreklamazioak telefono bidez egin beharri (eta, ondorioz, inon ez erregistratzeari) buruzkoak ere. Horregatik guztiagatik, telefonia zerbitzuak kontsumitzaileek beste sektore batzuetan baino askoz ere kexa gehiago aurkezten dituzten eragin du eta, gainera, ez da posible izan azken urteotako goranzko joera zuzentzea.

BARNEA

Barne arloan, kexa gehienak zirkulazioarekin lotutako espediente zehatzaileak bideratu izanari buruzkoak izan dira, nahiz eta kexa kopurua ia erdira murriztu den aurten. Halako prozeduren zehatze funtzio hutsetik kanpo, baina haren ildoan (ez, ordea, ildo berebean), agintaritzaren agenteen jokabidea oker edo desegoki jotzeagatik kexek ohiko izaten jarraitzen dute. Hori dela-eta, euren mendean polizia indarrak dituzten Nafarroako administrazio publikoei gomendio orokorra egitea erabaki da urte amaieran, agenteen balizko araz kanpoko jokabideak kontrolatzeko sistemak hobetu beharra nabarmentzearen.

Ohiko beste kexa iturri bat herritarrek (batik bat, atzerritarrek) beste herrialde batzuetan eskuratutako gidabaimenak trukatzeko edo baimenak Nafarroan onar daitezten lortzeko dituzten zailtasunak dira.

JUSTIZIA

Justizia arloko kexa kopurua % 40 inguru handitu da, eta erregistro zibileko espedienteak bideratu eta ebazteko atzerapenak eta epaileek zuzentzen dituzten prozeduretan izan diren atzerapenak izan dira alor honetako kexa arrazoi nagusiak.

Zorionez, badirudi Nafarroako Erregistro Zibileko arazoak konpontzeko egin diren zuzemenak fruitua ematen ari direla, baina ezin esan daiteke gauza bera Erregistro Zibil Nagusiari buruz; hain zuzen ere, hari buruzkoak izan dira kexa asko. Edonola ere, azaroaren 18ko 4/2005 Legearen ondorioz egin diren legezko aldaketek Erregistro Zibil Nagusiaren eta udal erregistro zibilen funtzio tradizionalak banatzeko arauetan izan dute eragina, eskumen gehiago esleitu baitzizkiete udaletakoiei, eta, aurrerantzean, litekeena da dinamika hori nolabait zuzentzea.

2.6. ZABALKUNDE JARDUERAK

Arartekoaren erakundea berria da oraindik ere eta, beraz, zabalkunde jarduerak gauzatzen jarraitu behar du, herritarrei bere eginkizuna eta mugak jakinarazi eta haiek zerbitzu publiko berri hau egokiro erabil dezaten. Izan ere, erakundea nahiko ezaguna da, baina bere eginkizunak, ordea, ez hainbeste.

Herritarren % 91k Nafarroako arartekoaren erakundearen berri entzun du, baina herritarren % 63k soilik daki bere eginkizunak zein diren.

Lehenengo aldiz erakundea martxan jarri zenez, komunikabideetan presente egoteaz gain, arartekoa tokiko komunikabideekin lankidetzan aritu da; izan ere, bi irratsaitotan parte hartzen du hilero.

Halaber, aurreko urteetan 900 702 900 doako telefono zenbakia ezagutarazteko egin diren kanpainak indartze aldera, erakundeak publizitate kanpaina jarri du abian; hain zuzen ere, "Egin" da kanpainako leloa.

Bestalde, indarrean dagoen araudiak euren web orrialdeak egokitu eta sarean ibiltzeko estandarrak 2005eko abenduaren 31 baino lehen betetzera behartzen ditu administrazio publiko guztiak. Betebehar hori arartekoaren erakundeari ere dagokio eta, hori dela-eta, kanpoko enpresa bat alokatu du, bere web orria eskakizun tekniko horietara egokitzearren.

Azkenik, Nafarroako arartekoak Alcalá de Henaresko Unibertsitateak giza eskubideak babesteari buruz antolatu ohi duen II. masterrean hartu du parte, txostengile gonbidatu gisa, eta hainbat gairi buruzko solasaldi eta hitzaldi publikoak eman ditu hainbat bileratan.

2.7. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA JARDUERAK

Erakundeen arteko lankidetzak jarduerak arartekoaren ezaugarrietako bat dira, are gehiago 2005. urtean; orduan, antzeko erakundeekiko jardueren kopuruak gora egin du, Foru Komunitateko bi unibertsitate nagusiekiko lankidetzak areagotu egin da, Nafarroako toki erakundeekiko eta elkarteekiko koordinazio lanean jarraitu da, etab.

Aurten ere arartekoak koordinatzeko jardunaldiak antolatuta dira eta, berriro ere, erakundeetako buruen eta aholkularien arteko bilgunea izan dira. Hain zuzen ere, Arartekoak Koordinatzeko XX. Jardunaldiak Alacanten egin dira, 2005eko urriaren 17tik 19ra bitartean, eta, lehenengoz, talde jakin baten arazoei buruzkoak soilik izan dira, haurren eta gazteek osatzen duten taldea besteak baino are ahulagoa delako eta, hortaz, arartekoek lehen-tasuneko arreta eman behar diotelako. Zehatz-mehatz, honako gai hauek landu dira bertan:

- “Haurrak eta errealtate teknologiko eta mediatiko berriak”
- “Justizia administrazioa eta haurrak”
- “Gazteen osasunaren alorreko erronka berriak”
- “Interneteko delituzko edukiak eta eduki kaltegarriak”
- “Eskolako eta familiarteko indarkeria”
- “Haurrak babesteko sistema eta indarkeriari aurrea hartzea”
- “Hiriko tribuak eta indarkeria”
- “Gazteria eta genero indarkeria”

Beti bezala, Nafarroako arartekoak oso parte hartze aktiboa izan du, proposamenak egin dituelako lantegietan eta, batik bat, txostena aurkeztu duelako Jardunaldietan; hain zuzen ere, “Eskolako eta familiarteko indarkeria” izeneko txostena aurkeztu du bertan, eta txostenak eta txostena aurkeztu osteko eztabaidak gizarteak bizikidetzan hez dadin esku hartzearen aldeko ekimena ekarri du ondotik.

Bestalde, maiatzaren 5ean eta 6an ohiz kanpoko koordinazio jardunaldiak antolatuta dira Baezan estatutuen erreformei, gizarte eskubideei eta auto-

nomia erkidegoetako arartekoei buruz. Arartekoen eta konstituzio zuzenbidean ikasiak diren zenbait adituren ikuspegiak erkatu dira bertan, eta bi ildo nagusi landu dira:

- Autonomia erkidegoetako arartekoak eta estatutuen erreformak
- Estatutuen erreforma, gizarte eskubideak areago bermatzeko bide gisa

Nafarroako arartekoak egindako ekarpena dela-eta, jardunaldian bertan banatu den dokumentua azter daiteke; hain zuzen ere, dokumentu hori Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeko Lege Organikoa erreformatzeari buruzko txostena eginen duen autogobernu batzordeari Nafarroako arartekoaren eskumeneko gaiei buruz eman zaion proposamen txostenaren oinarria izan da, eta sakonago jorratuko dugu, urteko txosten honetako 10.2. atalean.

Era berean, arartekoek ohiko hainbat koordinazio bilera egin dute 2005. urtean, pobreziari eta etorkinei buruzko adierazpen bateratua osatu dute, Herritarren eskubideak aldizkaria argitaratu eta kaleratu dute, adierazpide gisa, eta bilera egin dute Espainiako gobernuko presidentearekin.

Halaber, 2005eko azaroaren 14tik 17ra, arartekoa Espainiako autonomia erkidegoetako arartekoen ordezkari aritu da Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioko X. Batzarrean eta Biltzarrean; hain zuzen ere, bilera Asuncionen egin da, Paraguain.

2005eko irailaren 14an, berriz, Asturietako Printzerriko Biltzar Nagusiak Asturietako Printzerriko arartekoari buruzko lege proiektua aztertzen duen parlamentuko batzordearekin lan egitera gonbidatu du Nafarroako arartekoa.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta arartekoaren arteko esparru akordioaren ildoan, bi erakundeek herritarren eskubideei buruzko hiru lantegi antolatu eta egin dituzte 2005. urtean, herritarren eskubideak sustatu eta babestearren.

Azkenik, aurreko urteetako joeraren ildoan, 13 lankidetzak hitzarmen formalizatu dira Nafarroako toki erakundeekin eta, hartara, 94 hitzarmen daude indarrean gaur egun, aurrez sinatutakoak kontuan hartuz gero.

2.8. ARARTEKOAK NAFARROAKO PARLAMENTUAN IZANDAKO PRESENTZIA

Arartekoak egindako zuzemeneen berri ematen dio urtero Nafarroako Parlamentuari, urteko txostenaren bitartez; hain zuzen ere, ohiko bileretan aurkezten du berai. Gai jakin batzuk garrantzi handikoak edo larriegiak izanez gero, ostera, litekeena da txosten bereziak, ohiz kanpokoak edo monografikoak ere aurkeztea. Zehatz-mehatz, arartekoa hirutan agertu da Parlamentuaren aurrean 2005. urtean, 2004ko urteko txostena eta prostituzioari eta zaharrei buruzko txosten berezi bana aurkezteko.

Era berean, arartekoak Foru Parlamentuaren tzako ekimen esanguratsu bat sustatu du 2005. urtean: Nafarroako Gobernuko lehendakariarekin, Parlamentuko lehendakariarekin eta Parlamentuko taldeetako ordezkariarekin bildu da eta Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeko Lege Organikoaren erreformari (zehazkiago, Nafarroako arartekoaren eskumeneko gaiei) buruzko proposamen txostena helarazi die. Testuaren zirriborroak eta proposamena arrazoitzeko txostenak osatzen dute egindako proposamen txostena, baina bi ezaugarri nagusitan labur daiteke:

- Gure oinarrizko legeak foru erakundeek Nafarroako herritarrei bermatu behar dizkieten eskubideak eta askatasunak berariaz aipatzeko aukera, Konstituzioan ageri diren xedapen orokorrak (zehazkiago, gizarte eskubideei buruzkoak) behar bezain sakonki osatzearen

- Delako testuak Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa bera eta arartekoaren eskumenak azaltzeko komenigarritasuna

Bestalde, aurrez aipatu dugunez, arartekoak proposamen txostena egin du haurrak babesteko legea bideratu dela eta. Izan ere, lege proiektuaren beraren garrantziaren ondorioz, arartekoak egoki jo du erakundeak gaiari buruz duen iritzia adieraztea, eta Nafarroako Parlamentuko lehenda-

kariak zuzenean esku hartzeko eskatu du, azken ahalegina egin eta Parlamentuko taldeen iritziek bat egin zezaten, ahal bezain legerik onenean adoste aldera.

Azkenik, Foru Parlamentuak 2005. urtean hartu dituen bi erabakik berebiziko garrantzia izanen dute erakundearen etorkizunean, legezko eta arauzko aldaketa esanguratsuak onartu baitira honako alor hauetan:

- **3/2005 Foru Legea xedatu da**, Foru Komunitateko arartekoa hautatzeko sistema nabarmen aldatzen duena. Orain arte, Parlamentuko kideen hiru bosten behar ziren arartekoa izendatzeko baina, Foru Legeak ekarri duen aldatetaren ondorioz, lehenengo bozketan gehiengo osoa izatea besterik ez da beharko aurrerantzean. Bigarren aldiz bozkatu behar izanez gero, berriz, nahikoa izanen da, hautagai bakarra bada, gehiengo soila izatea eta, bi hautagai badaude, bestek baino boto gehiago lortzea.

- **Erakundearen antolaketa eta funtzionamenduari buruzko arautegia onartu da**, eta honako hauek dira berrikuntza nagusiak:

- Arartekoak urteko txostenaren laburpena egin behar du Parlamentuko osoko bilkuraren aurrean.

- Koordinazioko eta Barne Araubideko Batzordea ezarri da aholkularitza lana egin dezan.

- Arartekoak eman ditzakeen ebazpen motak zehatzago definitu dira.

- Adiskidetze edo hitzarmen formulak proposatzeko aukera onartu da, kexak behar bezala eta bizkor ebatz daitezten, baita bitartekotza lanak egiteko ere.

- Langileei eta araubide ekonomikoari buruzko hainbat gai arautu da eta Nafarroako Parlamentuak ordezkari bat izendatu du plantilako langileak hautatu eta izendatzeko prozesuetan esku har dezan.

2.9. INFORMAZIO EKONOMIKOA

2.9.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Erakundearen aurrekontuaren likidazioak 196.594,71 euroko finantziazio superabita eman du, eta gastuen aurrekontua (aitorturiko betebeharrak) 810.861,71 eurokoa izan da. Hau da, betetze maila % 80,75ekoa izan da.

2005eko ekitaldian, eragiketa arrunten aurrekontu betetzearen maila % 87,89koa izan da –gastuen egoera orriko I.-V. kapituluak– eta kapital eragiketen betetzeak % 27,96 egin du.

Eragiketa arruntak egiteko hitzartutako kredituen ehunekoa % 99,99koa izan da, eta kapital eragiketarako egiteko hitzartutakoa, % 100ekoa.

Langileak ordaintzeko aurrekontu bateratuak gastuen % 65,23 egin du.

Bestalde, Comptos Ganberaren txostenak erakundearen kontabilitatea eta jardun ekonomikoa ona dela egiaztatzen du:

- “2005eko aurrekontuaren likidazioaren egoera orriak behar bezala azaltzen du ekitaldi horretako jarduna”
- “Egoera balantzeak behar bezala agertzen du 2005eko abenduaren 31ko finantza eta ondare egoera”
- “Oro har, arartekoa legezketasun printzipioari jarraituz jardun da ekonomia eta finantza arloan”

2.9.2. 2006ko AURREKONTUA

2006ko aurrekontu proiektuaren arabera, gastua % 4,3 handituko da 2005eko aurrekontu bateratuaren aldean, inbertsio errealei buruzko atalean (VI. kapituluak) 42.000 euro esleitu direla-eta erakundearen egoitzako girote sistema berritzeko lanei aurre egiteko; bederen, horixe erabaki du eraikinaren jabeak, Nafarroako Gobernuak (zehazkiago, Toki Administrazio Departamentuak).

Alde horretatik, zenbateko hori aurkezten ari garen aurrekontu proiektutik kanpo utziko bagenu, aurrekontua 2005. urteko aurrekontuaren antzekoa izanen litzateke; izan ere, 2005. urtean ez da hazkunderik izan gastuen alorrean 2004ko aurrekontu bateratuaren aldean, eta erakundearen lan egiten duten pertsonen kopurua orduko berbera izan da.

2.10. LANGILEEI BURUZKO INFORMAZIOA

2005. urtean Nafarroako Arartekoaren Bulegoan lan egin duten langileen plantila organikoaren osaera aurreko urteetako berbera izan da; hau da, lau aholkulariz eta arartekoaren beraren idazkari batez osatuta egon da. Lanpostu horiek guztiak izendapen librekoak dira, eta funtzionarioei gordetako postuak, berriz, administrazio kudeaketako teknikari bat, bi administrari eta gelazain bat dira.

2005eko langileen plantila organikoa Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakiaren bidez onartu da, 2005eko urtarrilaren 24ko bilkuran, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu, 2005eko urtarrilaren 26an (4. zenbakian).

LANPOSTUA	KOPURUA	ARAUBIDE JURIDIKOA	MAILA	IZENDAPEN LIBREA	BATERAEZIN-TASUNA	LANPOSTUA	MAILA OSAGARRIA
Arloko aholkulari arduradunak	2	C	–	X	–	–	–
Aholkulari teknikoak	2	C	–	X	–	–	–
Arartekoaren idazkaria	1	G	–	X	–	–	–
Administrazio kudeaketako teknikaria	1	F	B	–	35	24	–
Administrariak	2	F	C	–	–	36,68	12
Gelazaina	1	F	D	–	–	27	15

F: Funtzionarioa

C: Arartekoaren bulegoko behin-behineko kargua, izendapen librekoa

G: Kabineteko behin-behinekoa, izendapen librekoa

2.11. 2006. URTEKO PLANGINTZA ETA HELBURUAK

2006. urtean, hiru urteko planean ezarritako ildo estrategikoekin bat datorren hainbat ekintza egin eta hainbat helburu lortzeko asmoa dugu.

2006ko helburuak finkatzerakoan, kontuan izan dugu egungo arartekoaren agintaldia 2007ko otsailean amaituko dela. Hori dela-eta, erakundearen erabateko jarraitutasuna eta normaltasuna bermatzearen, zehaztu dugun plangintza 2007. urtearen erdialdera bitartean gauzatu beharko dela kalkulatu dugu.

Honako hauek dira 2006. urtean lortu nahi ditugun helburu nagusiak:

1. Kexei ematen zaien erantzunen kalitatea hobetzea

- Erakundearen bulegoetan hasiera batean ematen den laguntza hobetzeko neurriak jartzea abian

- Kexak bideratzeko tartea gutxienez % 10 murriztea

- Prozedurak normalizatzea

- Erakundearekin aritzeko erraztasunak handitzea

- Erakundeko zerbitzuen gutuna osatzea, herritarrekiko kalitate konpromisoak arautzearen

- Herritarren iritzi orokorra eta erakundearen baliagarritasunaz duten iritzia ebaluatzea

2. Txosten bereziak

Hain zuzen ere, honako txosten hauek egin nahi ditugu 2006. urtean:

- Eremu publikoan ibiltzeko aukerei buruzko txosten berezia

- Zaratari buruzko txosten berezia

- Haurrak babesteari buruzko txosten berezia

- Honako hauei buruzko ofiziozko txostenak:

- Ingurumenari buruzko informazioa eskuratze-ko eskubideari buruzkoa

- Erradiazioei eta telefonia mugikorrari buruzkoa

- Osasun arloko eskubideen babesa bermatzeko sistemei buruzkoa

3. Herritarren eskubideak sustatu eta zabalitzea

- Bizikidetasunean hezteko ekimenak

- Zaharren eskubideen gutuna egitea

- Gardentasun publikoaren aldeko ekimenak

- Herritarren Eskubideei buruzko Toki Plana. Hain zuzen ere, honako hauek dira alor honetan finkatutako helburuak:

- Dagokion hitzarmena formalizatzea 10.000 biztanletik gorako udalekin –orain arte, Tuterako, Lizarrako, Burlatako eta Zizur Nagusiko udalekin formalizatu da–.

- Gutxienez sei udali buruzko ebaluazio txostenak aurten amaitzea.

- Zerbitzuen gutunei buruzko jardunaldiak antolatzea udalentsat, alor honetako adituekin eta erakundeetako ordezkariekin batera.

4. Herritarren eskubideak zabalitzea

- Eskuorria: herritarrek administrazio publikoen aurrean dituzten eskubide orokorrak

- Eskuorria: osasun zerbitzuak eskuratzeko eskubideak

2.12. LANKIDETZA BETEBEHARRA EZ BETETZEA

Urte hauetan eskuratutako esperientziari esker, esan genezake administrazioen eta arartekoaren arteko lankidetzaren nabarmen hobetu daitekeela oraindik ere, dela eskatzen ditugun txostenak igortzen atzeratzen direlako, dela txosten batzuen kalitatea eskasa delako.

4/2000 Foru Legeko 31. artikulua dioenez, arartekoaren betebeharrerako bat, edozein administrazioi ikerketa lana oztopatuz gero, horren berri urteko txostenean ematea da. Alde horretatik, arartekoak kexa espedienteen ildoan egiten dituen informazio eskariei eta ematen dituen ebazpenei behin eta berriro ez erantzutea dugu oztopotzat eta, horregatik, eginkizun hori hiru alditan edo gehiagotan bete ez duten administrazioen berri eman dugu urteko txostenean.

2005. urtean, espedienteen % 48ren ondorioz, informazio eskaria behin errepikatu behar izan diogu hainbat erakunderi, erantzuteko epea bete ez duelako; % 12ren ondorioz, birritan errepikatu behar izan dugu; eta, % 7ren ondorioz, dena delako erakundea arartekoaren lana oztopatzen ari zela ohartarazi behar izan dugu, hiru alditan errepikatu behar izan diogulako eskaria. Hala ere, azkenean, inongo administrazioek ez dio uko egin espedienterik bat ikertzeko eskatutako informazioa emateari.

Zehatz-mehatz, honako espediente hauen ondorioz egin behar izan dugu eskaria hiru alditan edo gehiagotan:

- Osasun Departamentua: Iruñeko Bideko Ama Birjina Ospitalean egindako eskanerraren emaitzak ematen atzeratu izanari buruzko espedientea
 - Hezkuntza Departamentua: ikasleak ikaste-txeetan onartzeko irizpide osagarriari buruzko espedientea
 - Vianako Printzea Erakundea – Kultura eta Turismo Departamentua: Baluarteko idazkunei, eskuorriari eta programei buruzko espedientea
 - Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua: Elizondoko Oilar Besta ospatzeko baldintzei buruzko espedientea
 - Tuterako Udala: etxebizitzetako garaieetako ateei eragindako eragozpenei buruzko espedientea
 - Atarrabiako Udala: pasabideko ate metalikoek eragindako eragozpenei buruzko espedientea eta udal gainbalioari eta premiamendu espedienteari buruzko informazio eskasari buruzko espedientea
 - Leitzako Udala: udal hodi biltzaileen funtzionamendu okerrak egindako kalteak erreklamatzeari buruzko espedientea
 - Erromantzatuko Udala: ehiza barrutia ustiatzeagatiko diru sarreraren erabilerari buruzko espedientea
 - Garesko Udala: eraikin bateko lanak udal baimenarekin bat etorri gabe egin izanari buruzko espedientea
 - Baztango Udala: Xehetasun azterketako edukiari eta lerrokatzei buruzko espedientea
 - Corellako Udala: gazte elkarteak tokian eragindako eragozpenei buruzko espedientea
 - Andosillako Udala: zeharbidea berritzeko lanek bertako etxebizitzetan izandako ondorioei buruzko espedientea
 - San Martin Unxeko Udala: herriko bide edo kale baten baldintzei buruzko espedientea
 - Andosillako Udala: zeharbidea berritzeko lanek bertako etxebizitzetan izandako ondorioei buruzko espedientea
 - Ollarango Udala: zergadun batek informazioa eskatu izanari buruzko espedientea
 - Irunberriko Udala: argi zerbitzu publiko eskasari buruzko espedientea
 - Murchanteko Udala: gazte biltzarrak tokian eragindako eragozpenei buruzko espedientea
 - Berriozarko Udala: sakelako telefono deien oinarritzeko estazioa abian izateko baldintzei buruzko espedientea
 - Arlegiko Kontzejua: Kontzejuko kide bati eman izan zaion informazioari buruzko espedientea
- Bestalde, Osasun Departamentuak eta Iruñeko Hiritarren Babeseko Alorrak eman duten laguntza eskasa nabarmendu beharra dago txosten honetan; izan ere, oso bestelakoa da Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udaleko beste departamentuak eta sail batzuen jarrera onaren aldean.

03 GARDENTASUNA ETA HERRITARREN ESKUBIDEAK SUSTATZEA

Arartekoaren eginkizuna herritarren eskubideak administrazio publikoen gehiegikerien eta arduragabekeriaren kontra babestea da eta, horretarako, lau tresna mota erabiltzen ditu funtsean. Batzuk atzerantzko edo erreakziozkoak dira, eta beste batzuk, aurrerantzkoak:

- Kexak erantzutea, zalantzarik gabe, erakundearen eguneroko jardunaren muina da, mekanismo horrek kanpoko erakunde batek administrazioaren jarrera ikuska dezan bermatzen baitie herritarrei euren eskubideak urratu egin direla uste badute.

- Alor esanguratsuei buruzko txosten bereziak egitea administrazioaren jardunaren egokitasuna ebaluatzeko biderik onena da baina, horretarako, prozedurak sakon ikertu behar dira, gomendio orokorrak egite aldera. Oro har, txostenok talderik ahulenei buruzkoak dira (zaharrei, haurrei, ezinduei, eta abarri buruzkoak), euren behar batzuei ez zaielako behar bezala erantzuten eta, ahulak direla-eta, zailtasunak dituztelako arartekoarengana jotzeko ere.

- Bitartekotza lanak (gero eta ohikoagoak eta, maiz, eragingarriak izanen badira zinez, herritarrek ohartu gabe egin beharrekoak)

- Herritarren eskubideak sustatzeko ekimenak, izenak berak dioenez, gizartearen baitan herritarren eskubideak sustatu nahi dituzten ekimenak dira. Hain zuzen ere, helburua herritarrei eta gizarteko buruei azaleratzen ari den eskubide bat onartu beharraz ohartarazi eta horren berri ematea, diskriminaziorik eza bultzatzea, administrazio publikoei jokabide zuzenaren kodeak eta gardentasun printzipioak aplikatzeko kontzientzia harraztea, etab. da.

Erraz asko uler daitekeenez, herritarren eskubideak sustatzeko ekimenak erakundeak herritarren alde hartu duen konpromisoaren gauzatzea dira; izan ere, uste sendoa dugu herritarren eskubideak babesteko biderik onena gizartearen kontzientzia aldarazten duten eta administrazio publikoak gardentasun balioak eta printzipioak eta jokabide zuzenaren kodeak aplikatzen has daitezten lortzen duten ekimenak direla.

Administrazio publiko guztien baitan gardentasuna eta herritarren eskubideak sustatzen dituzten ekimen orokorrak bakarrik azalduko ditugu atal honetan. Gizarteko talde jakin batzuen (hala nola, zaharren eta haurren) eskubideak sustatzeko ekimenak, berriz, 5. atalean azalduko ditugu, herritarren eskubideen zeharkako defentsari buruzkoan.

Lehenik eta behin, sustatu ditugun ekimenen kontzeptuzko oinarriei helduko diegu eta, jarraian, erakundearen ildo estrategiko honetan gauzatutako lehenengo ekimenak zehaztuko ditugu.

3.1. GARDENTASUNA ETA HERRITARREN ESKUBIDEAK SUSTATZEKO EKIMENEN KONZCEPTUZKO OINARRIAK

3.1.1. ADMINISTRAZIO JOKABIDE ZUZENAREN EUROPAKO KODEA

Arartekoek herritarren eskubideak babesteko erantzukizuna dute, baina ardura hori ezin da mugatu hartzen diren kexak erantzutera. Aitzitik, herritarren eskubideak bermatzeko, eskubideon errespetu orokorra bermatuko duten mekanismoak eta sistemak ezarri behar dira, eta mekanismo eta sistema horiek zinez aplikatu eta betearazten direla bermatu behar da.

Ildo horretan, Europako arartekoa (ombudsmana) "administrazio zuzena" definitzen ahalegindu da, justizia auzitegiaren jurisprudentzia eta Europako administrazio zuzenbidearen printzipioak oinarri hartuta. Premisa horiei jarraiki, botere publikoa erabiltzeko, ondasun publikoak egokiro administratzeko erantzukizun handia ez ezik, zerbitzuzko eta errespetuzko jarrera eta demokrazian tinko sinestea ere behar dira.

Europako arartekoaren lan horrek eman du emaitzarik, Europako Parlamentuak Administrazio Jokabide Zuzenaren Europako Kodea onartu baitzuen 2001eko irailan:

[www.euro-ombudsman.eu.int/code/pdf/es/code es.pdf](http://www.euro-ombudsman.eu.int/code/pdf/es/code_es.pdf)

Kodeak Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak xedatzen duen "administrazio zuzena izateko eskubidea" zer den zehazten du praktikan; hain zuzen ere, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna Nizako goi bileran onartu zen, 2000ko abenduan, eta Europako Konstituzioaren proiektuan txertatu da berrikitan. Orobat, Kodeak administrazioaren aurrean dituzten eskubideen berri ematen die herritarrei eta administrazioak bere funtzioak betetzean zaindu behar dituen printzipioak ezartzen ditu.

Administrazio Jokabide Zuzenaren Europako Kodea onartzearekin batera, Europako Parlamentuak ebazpen bat onartu zuen; harekin bat, Kodea zenbateraino betetzen den neurtu eta administrazio publikoek bertako balioak eta printzipioak aplikatzeko beharrezko ekimenak sustatzeko agindua Europako arartekoari eta, horrenbestez, herrialdeetako arartekoei.

Alde horretatik, koherentea da Administrazio Jokabide Zuzenaren Europako Kodea sustatu eta ebaluatzeko erantzukizuna arartekoei egokitu izana, azken batean, administrazio zuzena izateko herritarren eskubidea bermatzeko konpromisoak biltzen baititu Kodeak.

3.1.2. NAFARROAKO AURREKARIAK: HERRITARREN ESKUBIDEEN GUTUNA

Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak zabaltzeko eta sustatzeko estrategiaren harira, Foru Komunitateko arartekoak planteatutako lehenengo ekimenetako bat herri galdeketa egiteko prozesua martxan jartzea izan zen, Europako arartekoaren ekimenaren ildoan, Nafarroako Foru Komunitateko Herritarren Eskubideen Gutuna osatzearen.

Horretarako, erakundeak gizarteko taldeengana eta herritar elkarrengana hurbiltzeko prozesu handinahia jarri zuen abian eta, haien parte hartzeari esker, beharrezko galdeketen bitartez, talde horiek Nafarroako egoerari buruz duten iritzia berri jakin genuen. 40 udalerrri baino gehiago bisitatu genituen eta 300 elkartetan baino gehiagok hartu zuten parte, arartekoak herritarrek Gutuna egiten parte har zezaten egin zuen ahaleginaren adierazgarri.

Prozesuaren emaitza Eskubideen Gutuna xehea osatzea izan zen, elkarren artean oso besselakoak diren bi atalek eratzen dutena:

www.defensora-navarra.com/espanol/publicaciones.html

- Herritarrek administrazio publikoekiko harremanetan erantzun (harreman mota, administrazio zuzemenak, administrazioaren eragingarritasuna, komunikazio sistemak, etab.) egokia izateko eskubideari buruzko kapitulu batek

- Sektorekako (hezkuntzaren, etxebizitzaren, gizarte arazoaren, osasunaren... alorreko eta talderik ahulenen –hala nola, zaharren, haurren, emakumeen, etorkinen eta ezinduen–) oinarrizko eskubideak sustatu eta garatzeari buruzko kapitulu batek

Zehazki, lehenengo atala laguntza egokia izateko eskubideari buruzkoa da. Administrazio Jokabide Zuzenaren Europako Kodeko printzipioak barneratzen ditu eta, parte hartze prozesuaren ekarpenei esker, baita garatu eta osatu ere.

Ildo horretan, arartekoak Foru Komunitateko eskubideen lehenengo gutuna lantzeko erronkari heldu zion, eta erronka bota zien Nafarroako administrazio publikoei, ereduari jarraitu eta gutuna beteko zutela bermatu edo euren eskubideen gutunak osatzeko.

Bigarren kapitulua, berriz, sektorekako (hezkuntzaren, etxebizitzaren, gizarte zerbitzuen, osasunaren... alorreko) oinarrizko eskubideei buruzkoa da eta, ildo horretan, arartekoak zerbitzuen gutun espezifikokoak egiteko konpromisoa har zezaten proposatu zien administrazio publikoei; gutun horiek konpromiso zehatzak adierazi behar zituzten kalitate arloan.

Zorionez, ekimen hori hasi da ematen fruiturik, hala Nafarroako Gobernuaren baitan, nola udalez udal. (ikus Eskubideen Gutuneko 3.2. atala)

3.1.3. KUDEAKETA PUBLIKOAREN GARDENTASUNA ETA KONTROLA: ARARTEKOAK UNIBERTSITATE KONPLUTENTSEAN EMANDAKO HITZALDIA

Nafarroako arartekoak uztailaren 27an San Lorenzo del Escorialen Unibertsitate Konplutentsean 2005eko udan antolatu dituen ikastaroen kariatara eman duen hitzaldia oso-osorik transkribatu dugu atal honetan.

Izan ere, testu honek gardentasun publikoaren aldeko eta herritarren eskubideak sustatzeko ekimenen funtsezko printzipioak sintetizatzen dituela uste dugu; hain zuzen ere, horietatik dira erakundearen oinarrietako bat, eta alor honetan aurrez ikusi ditugun proiektuei eusten diete.

Arratsalde on:

Ohore handia da niretzat Unibertsitate Konplutentsean antolatu duen udako ikastaro interesgarri honetan parte hartzea, eta landuko dudana gaia "Esparru publikoaren gardentasuna" izanena da, ararteko oro erakartzen duen aldetik. Horregatik, gonbita eskertu nahi diet antolatzaileei. Eskerrik asko, Antonio (Díaz).

Ezin ukatu dizuet, ikastaroaren izen orokorra ("Administrazio publiko adimentsua") jakin nuenean, ausartegia nintzela iruditu zitzaizkidan, bilera honetan esku hartzeko beharrezko aginpidea eta gaitasuna niretzat hartu nahiagatik.

Hala ere, itxuraz hain handinahia den izena aukeratzeagatik, antolatzaileak "argiak" zirela uler-tu nuen berehala, gardentasuna herritarren zerbitzura dagoen administrazio adimentsuaren baldintza eta emaitza baita aldi berean, agerraldi honetan arrazoitzen saiatuko naizenez.

ZERGIATIK DA BEHARREZKOA GARDENTASUNA?

Legezko betebeharra

Miguel Sánchez irakasleak hain ondo adierazi duenez, legediak gardentasun eta parte-hartze printzipioekin bat jardutera behartzen ditu administrazio publikoak.

Legediaren aginduz, administrazioak objektibotasunez erantzun behar die interes orokorre, eta eragingarritasun printzipioarekin bat eta, jakina, zuzenbideari men eginez jokatu behar du.

Herritarren zerbitzura egoteak, zuzentasunak, fede onak eta konfiantza zilegiak gidatu behar dute zerbitzari publikoen zeregina eta, gainera, zerbitzariok alderdikierarik gabe eta beregainki jokatu eta euren ebazpenak behar bezala arrazoitu behar dituzte.

Herritarrek doazkien prozeduretako zuzemene eta edukien berri izateko eskubidea dute uneoro, baita prozedurak bideratzen dituzten agintariak eta langileak zein diren jakin eta, baldin badagokio, euren erantzukizuna onar dezaten eskatzeko ere.

Dena dela, administrazioa herritar guztiei prozedura, zerbitzu eta laguntza publikoei buruzko informazio orokorra eta administrazioaren beraren funtzionamenduari buruzko informazioa ematera ere behartuta dago, herritarrek ezer egiaztatu beharrik gabe. Horretarako, araudiak xedatzen du aurrerapen teknologikoek bide ematen duten bitartekorik egokienak erabili behar direla.

Nafarroan, legezko printzipio horiek Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeak indartu eta hedatu berri ditu, aparteko arreta eman baitie publizitate printzipioari eta administrazio zuzena izateko eskubideari, Europako Konstituzioaren proiektuan xedatzen den eskubideari jarraiki. Hitzaurreak berariaz dioenez, printzipio horiek administrazio jokabide zuzena izaten laguntzen dute, herritarren zerbitzura egoteak izan behar duelako administrazioaren jardun osoaren helburu eta, azken batean, administrazio publikoaren beraren existentzia arrazoitzen duelako.

Oso interesgarria da arau horrek informaziorako eskubidea arautzen duen modu berria. Izan ere, herritarrek ondasun eta zerbitzu publikoen erabilerari buruzko informazioa eskatu eta eskuratzeko eskubidea dute eta, gainera, administrazioa eskatzen zaion informazioa argi eta ulertzeko moduan ematera behartuta dago. Ildo horretan, Nafarroako Gobernuak eskubide honen erabilera arautzeko konpromisoa hartu du.

Ausardia demokratikoa

Zerbitzu publikoen baitan, legezko betebeharra ez ezik, gardentasuna konpromiso etiko eta politikoa ere bada, eta ez zaio ustelkeriari eta bidegabeko aberasteari bakarrik kontrajarri behar, herritarrek nola edo hala ematen duten boterea desegokiro erabiltzeko forma orori ere baizik:

botere abusuari, baliabideen erabilera eskas edo eragingarritasunik gabeari, eta abarri.

Botere publikoa erabiltzeko, ondasun publikoak egokiro administratzeko erantzukizun handia ez ezik, zerbitzuzko eta errespetuzko jarrera eta demokrazian tinko sinestea ere behar dira.

Egungo herritarra trebatuago dago, eta areago parte hartu nahi du berarengan zuzeneko eragina duten erabakiak hartzeko prozesuetan, baita informazioa eskuratzeko aukera gehiago izan ere.

Gizartearen esparru guztietan boterearen ikuspegi demokratikoa izateak informazioaren gardentasuna eta erabakiak hartzeko prozesuetan, esparru publikoko eremu orotan parte hartze aktiboa izatea izan behar du oinarri.

Nor harritu liteke gaur egun erraustegia instalatuko den herri bateko biztanleek informazioaren gardentasun osoa edo, are gehiago, erabakitzeko prozesuan euren iritzia kontuan hartzeko eskatzeaz?

Nolanahi ere, gero eta ohikoagoak dira administrazioaileen eta administratuen artean gero eta distantzia handiagoa dagoela ohartarazten duten ahotsak: hauteskondeetan gero eta abstentzio handiagoa izatea eta Frantziako eta Herbehereetako hauteskondeetako emaitzak horren adierazgarri baino ez dira.

Kezka hori alderdi politiko guztien hauteskunde programetan islatzen da, eta agerikoa da politikariak jakitun direla euren sinesgarritasunak eta zilegitasunak handiagoa izan behar duela.

Batzuk besteak baino zehatzagoak badira ere, guztiek egiten dute ordezkarien eta ordezkatuaren artean hurbiltasun handiagoa lortzeko formulen alde. Horrenbestez, badirudi herritarrei demokrazian sakontzeko prozesuan areago parte harraraztea konpondu gabeko arazoa dela oraindik ere.

Guztiek esparru publikoaren gardentasunaren aldeko konpromisoa adierazten dute, ondasun publikoak administratzen diren moduaren kontu eman behararen aldekoa, kontrol mekanismo eragingarriak eta kargudun publikoen jarrera ikuskatzeko neurriak bermatzearen aldekoa, demokrazia sendotu eta zilegitzeko formulak diren aldetik.

Kontu auzitegien eginkizuna areagotu beharra onartzen dute eta, horretarako, beharrezko bitartekoak esleitu beharra; bateraezintasun araubidea aipatzen dute; euren jarduerak eta ondasunak aitortzeko konpromisoa hartzen dute; eta alderdi politikoaren finantziarioa ikertzeko batzordeak sortu eta Alderdi politikoaren finantziarioari buruzko Legea erreformatzearen alde ere egiten dute.

Hortaz, esanenez, teoriarik bederen, gaur egun guztiek dakitela herritarrek informazio politika gardena eta botere publikoen jarduna orekatzeko kontrol mekanismoak eskatzen dituztela.

Tamalez, programari buruzko adierazpen horiek ez dira errealitatearekin bat etortzen sarri: hauteskundeetako programa egiten duenean edo oposizioan dagoenean, inork ez du ahazten gardentasunaren garrantzia, baina gobernua bere gain hartzen duenean, aldiz, ez da gauza bera gertatzen. Gardentasuna dela-eta, gobernua erasotzen errazagoa izateko beldurraren ondorio da hori.

Sir Anthony Jay Britainia Handiko telebistan eman zen saio ezagun baten (Yes, Minister saioaren) egilea da eta, umoretsu, zerbitzari publiko gehienak gardentasunaren beldurrak zergatik hartzen dituen azaltzeko hainbat gako argitu zuen burokraziak bizirik jarraitzeko dekalogoan:

- “Gorde ezazu isilpean. Jendeak ez badaki zertan ari zaren, ez da ohartuko oker egiten ari zarela”.

- “Ezerk ez dio kalte handiagoa egiten karrera burokratikoari salaketa publikoak baino. Horregatik, sekretua funtsezkoa da”.

- “Ahal dela, ez ezazu parametririk finka. Zure arrakasta neurtzeko irizpide objektiboak badaude, jendea porrot egin duzula ere ohar daiteke. Ezar itzazu parametroak besterentzat, baina frogatzen ezazu horietako bat ere ezin zaizula aplikatu”.

Ikuskera negatiboa hain orokorra izanik, ez da harrizkoa gardentasunaren alde egiteko apustu argia ausardia demokratikoaren seinale garbitzat hartzea oraindik ere.

Hala eta guztiz ere, gardentasuna adimen politikoaren adierazgarritzat zergatik dudatan arrazotzen ahaleginduko naiz.

Beharrezkoa eta egokia

Hainbeste mehatxu antzematen diren eta segurtasuna nola edo hala bilatzen den mundu honetan, sinesgarritasuna goranzko balioa da, eta goranzko balioa izanen da gero eta gehiago. Gardentasunik gabe, ordea, ez da sinesgarritasunik.

Kultur maila handitzearen eta informazioa eskuratzeko aukera orokorra izatearen ondorioz, gardentasuna gero eta eskakizun handiagoa da, politika arloan ez ezik, baita finantza arloan eta gobernu kanpoko erakundearen baitan ere.

Alabaina, GKE ugari jabetzen ari dira gardentasun irudia abian jarraitzeko faktore bihurtzen ari dela, gardentasuna giltzarria den aldetik herritarren

konfiantza bereganatu eta diruz lagundu dezaten lortzeko. Ildo horretan, 100 erakundek baino gehiagok euren funtzionamenduari eta gobernuaren, finantziarioaren gardentasunaren, funtsen erabilerearen, jokabide kodeen, urteko kontuen, eta abarren gaineko ebaluazioa kanpoko erakundearen baten bitartez egiten dute euren borondatez.

Ildo berean, finantza sektorean nagusi diren enpresak gobernu zuzena eta gardentasuna bermatzeko neurriak hartzen ari dira gero eta gehiago euren ekimenez, merkatuek eta akziodunek sozietateen gobernu eragingarri, bizkor, arduratsu eta gardena izan dadin galdatzen dutelako, euren interesak hobeto babestearren.

Erreforma mugimendu horren jatorria anglosaxoia da baina, globalizazioa dela-eta, mundu guztian barrena zabaltzen ari da, enpresen irudi publikoa erabakigarria delako inbertitzaileen konfiantza eskuratzeko eta, gainera, gardentasuna eta jarrera etikoa epe luzean errentagarriak direla ikusi delako.

Gardentasunaz baliatzeko aukera galduz gero Espainiako enpresa nagusien lehiakortasuna arriskuan dagoela ikusirik, Gobernuak administrazio kontseiluentzako kode etikoa aztertu eta finantza arloko merkatuetan gardentasuna eta segurtasuna sustatzeko batzorde bereziak sortzea erabaki zuen, baina batzordeak egindako txostenetako gogoeta asko administrazio publikoan ere aplikatu beharrekoak dira.

Bestalde, ezin ahaztuzkoa da burtsan kotizatzen duten enpresa nagusiak urteko kontuak kanpoko erakundearen bitartez ikuskatu eta txostenak argitaratzera behartuta daudela legez, gardentasuna bermatze aldera akziodunen aurrean.

Halere, harrizkoa da eskakizun hori administrazio publikoaren esparruan ere orokortu ez izana, herritar guztiok izan arren “akziodun” edo “zergadun”.

Azken batean, finantza arlo lehiakorren, gardentasuna modernotasunarekin eta enpresa nagusiekin lotuta dago, inbertitzaileen konfiantza eskuratzeko faktore bereizgarritzat hartzen den heinean.

Kultur aldaketa: kalitatearen kultura

Jokabide hori ez da funsgabea; aitzitik, kalitate osoaren inguruko ikuspegi modernoarekin lotuta dago eta, harekin bat, erakundearen iraunkortasuna esku hartzen duten eragile guztiak (bezeroak, langileak, akziodunak...) irabazian atera daitezkeen lortzearen arabera da.

Kontrola eta autoebaluazioa dira kalitatearen oinarritzko bitartekoak, eta kontuak gardenak izatea, elkarrekiko konfiantza lortzeko eskakizuna; hain zuzen ere, elkarrekiko konfiantza da eragile guztiek prozesuan benetan esku hartzeko elementu giltzarria.

Ikuspegi honek, baina, kultur aldaketa dakar zinez. Erakundearen helburua emaitzak etengabe hobetzea da eta, horretarako, erabakiak datuetan oinarritzen dira; norbere jarduna onenenarekin erkatu eta haiengandik ikasten da; bezeroa edo herritarra entzun egiten da, bere behar eta gogo errealean berri izateko; eta arazoak ez dira isiltzen, heldu eta konpontzen saiatu baizik.

Finean, gardentasuna, legezko betebeharra ez ezik, beharra ere bada, etengabe hobetzeko, eta baita aukera ere, bereizkuntza faktorea den alde-tik, herritarren konfiantza eskuratzeko.

Demokrazia benetakoa izanen bada, herritarrek informatuta egon behar dute eta, zerbitzu publikoetako "zergadun" diren aldetik, eskubide osoa izan behar dute erkidegoari ematen dizkion baliabideak nola erabiltzen diren jakiteko.

GARDENTASUNAREN EUSKARRIAK

Transparency International erakundeak dioenez, "sistemaren zuzentasun moralari hainbat euskarrik heltzen diote: botere banaketak, epaileen eta parlamentuaren kontrolak, guztiz beregainak diren kontrol erakundeak eta komunikabide askeak izatea eta bere burua antolatu eta bere eginkizunak betetzeko legezko esparruak dituen gizarte zibilak".

Edonola ere, herritarren kontzientziak eta gizartearen balioek finkatzen dute euskarri horien oinarria; hartara, herritarren kontzientzia handia bada eta gizartearen balioak irmoak badira, euskarriak heldu eta sendotu egiten dituzte.

Adierazi dudanez, gardentasunaren inguruko ikuspegia ustelkeriara mugatu behar ez badugu ere, ezbairik gabe, harreman argia dago bi kontzeptu horien artean.

GARDENTASUNAREN MEKANISMOAK: KONTRAPISUAUAK SORTZEKO TRESNAK

Gardentasunaren alorrean, beharrezkoa da hitza ekintza bihurtzea, beste edozein alorrean baino gehiago agian.

Gobernu modernoek barne funtzionamendua eta kontu-ematea kontrolatzeko sistemak, mekanismoak eta arauak dituzte, eta kanpoko erakunde beregainak ebaluatzen dituzte, boterea orekatzeko eta kalitatea hobetu eta neurrigabekoak diren edo eragingarriak ez diren jarrerak mugatzeko.

Nire ustez, agerraldi honetan azaldu dudanez, administrazio sistema gardenak ezin du legezko arautzea bakarrik izan oinarritzat, haren funtsezko helburua gehiegikeriak eta interesen arteko gatazkak saihestea baino ez delako. Aitzitik, kalitatearen inguruko printzipioak eta bitartekoak ere baliatu behar ditu, hala nola,

- *Erabakiak hartzeko prozesuak gardenak izatea*
- *Kontratazio prozedurak gardenak izatea*
- *Administrazio jokabide zuzenaren kodeak*
- *Prozedurak barnetik kontrolatzeko sistemak*
- *Helburu eta xede zehatz eta publikoak*
- *Kalitateari buruzko konpromiso zehatzak hartzen dituzten eskubideen eta zerbitzuen gutunak*
- *Autoebaluazioa eta kontuak jendaurrean ematea*
- *Informazio publikoa eskuragarri izatea*
- *Kontuak kanpoko kontrol erakunde beregainak ikuskatzea.*

Utz iezadazue, labur bada ere, aipatutako printzipio edo baliabide bakoitza aipatzen. Jarraian, kanpoko kontrol erakundeetan eta, batik bat, egun buru nauen erakundeak gaur egun duen, eta etorkizunean izan beharko lukeen, eginkizunean jarriko dut arreta.

Erabakiak hartzeko prozesuak gardenak izatea

Erabakiak hartzeko prozesuak gardenak izanzen badira, beharrezkoa da politika arloan hain ohikoak diren nagusikeria eta ilunzaletasun jarrerak gainditu eta zabaltasun handiagoaren eta demokrazian sendoago sinestearen alde egitea. Izan ere, zerbitzari publikoek herritarren eskariak entzuteko prest egon behar dute, baita talderik ahulenenak ere, eta euren erabakiak arrazoitu eta informazioa eskuratzeko eskubidea beharrezkoa denean baino ez murrizteko betebeharra hartu behar dute euren gain.

Alde horretatik, oso esanguratsua da Århusko (Danimarkako) Hitzarmena, ingurumen arloko informazioari eta herritarrek alor horretako erabakietan parte hartzeari buruzkoa. Espainiak ere berretsi zuen hitzarmen hori eta, bertan, herritarren iritzia ingurumenean eragina duten proiektuak erabakitzeko prozesuetan eragin erreala izan beharra onartzen da; horretarako, aukera guztiak oraindik ere posible direnean, proiektuok jendaurrean jartzeko gomendatzen da, herritarrek alegazioak aurkez ditzaten.

Nolanahi ere, administrazioa alor honetan eta beste batzuetan isilik gelditzearen ondorioz, kexa ugari aurkezten dira, eta boterearen erabileraren benetako helburua herritarrak zerbitzatea izateko bidea egiteke dagoen adierazgarri da hori.

Hala ere, hainbatek uste dugu oraindik ere litekeena dela partaidetzazko demokrazian aurrera egitea; izan ere, espiritu horrek Konstituzioa kutsatzen duen arren, aurrerapena oso eskasa izan da orain arte.

Kontratazio prozedurak gardenak eta eredugarriak izatea

Kontratazio prozedurak gardenak izatea legezko eskakizuna da baina, horretarako, lehia librea eta egiazko aukera berdintasuna bermatu behar da.

Alor honetan, arriskua hain handia da, zuhurtsuna inoiz ez da gehiegizkoa eta, ildo horretan, ezin ahaztuzkoa da goi zerbitzari publikoek in vigilando erantzukizuna dutela. Horregatik, oso komenigarria da egitura guztiari mezu argiak helarazi eta jarrera eredugarria izatea. Azken batean, sinesgarritasuna horren arabera da hein handi batean.

Sektore publikoaren jokabide zuzenaren kodeak

Jokabide zuzenaren kodeak sustatzea gardentasunaren alde egiteko borondate garbia adierazteko modurik eragingarrienetakoa izan liteke. Hori dela-eta, halako kodeek gero eta garrantzi handiagoa dute sektore publikoan eta pribatuan, gardentasun eta zintzotasun sistemak lantzeko.

Administrazioaren jarrera eta jokabide batzuk ezin dira eskatu juridikoki, baina zuzeneko eragina dute gardentasunean eta herritarrei ematen zaien zerbitzuaren kalitatean, administrazio publikoekiko tratuan espero eta galda litekeen jarrerari buruzko informazioa ematen dutelako.

Era berean, administrazio jokabide zuzenaren kodeak egitea funtzionarioentzat eurentzat ere da baliagarria, herritarrekiko harremanetan nola jokatu behar duten azaltzen dietelako; horregatik, funtzionarioek kodeak osatzen parte hartzea komeni da, xedatzen diren balioekin guztiz bat etor daitezten.

Gure esperientzia oso positiboa izan da alor honetan, Administrazio Jokabide Zuzenaren Kodea idatzi baikenuen 2002. urtean.

Hala ere, uste dut honelako erakunde batek ez lukeela kontentatu behar jokabide zuzenaren kode bat egitearekin; aitzitik, administrazio publikoek ereduari jarraitu eta euren kodeak jendartera

ditzaten bultzatzeko erantzukizuna hartu behar du bere gain.

Prozedurak barnetik kontrolatzeko sistemak

Prozeduren kalitatea eta gardentasuna bermatzeko, prozedurak barnetik kontrolatzeko sistemak jarri behar dira abian, zorionez ohikoa ez den ustelkeria antzeman eta, batez ere, askoz ere ohikoagoak diren akatsei aurrea hartu eta akatsok aldeztu aurretik antzematearren.

Nire ustez, administrazio askok eta askok barne funtzionamendua kontrolatzeko modu argi bat ezarri beharko lukete: kontuak hartu eta ikuskatzeko barne sistemak; funtzioak bereiztea, kudeaketaren, kontabilitatearen eta kontabilitatearen gaineko kontrolaren arteko interes gatazkak saihesteko; nahitaezko txosten juridikoak egin beharra ezartzea...

Izan ere, langileak gizakiak dira eta, beraz, huts egiteko eskubidea dute. Gogoan izan behar dugu hori, eta hutsak herritarrengan eraginik ez izateko mekanismoak ezarri.

Neurri handi batean, erakunde nagusiak, hutsak isildu beharrean, heldu egiten dietelako eta haietatik ikasten dutelako dira nagusi: "Huts egiten baduzu, onar ezazu eta azter itzazu arrazoiak".

Ez da errudunik bilatu behar, arazoaren arrazoiak baizik.

Helburu eta xede zehatz eta publikoak

Nire ustez, administrazio publikoaren gardentasunaren gabezia nagusietako bat programen arabera aurrekonturik eza da; izan ere, hauek izan beharko lukete kudeaketa publikoaren oinarritzko bitartekoa: helburu eta xededun aurrekontuak, arduradundunak eta adierazle zehatz eta publikodunak.

Jendaurreko konpromisoak dira sistemaren eragile eta akuilu nagusiak, eta gardentasun borondate argiaren seinale dira; konpromisorik gabe, aldiz, ez dago sistema objektiboki neurtzerik.

Ezbairik gabe, adierazle bilakaera aztertu eta finkatutako helburuak eta xedek betetzen diren ala ez egiaztatzeko informazio sistemak elementu erabakigarriak dira kontuak jendaurrean emateko sistema ororen barnean, ekonomia arloaz harago.

Kalitateari buruzko konpromiso zehatzak hartzen dituzten eskubideen eta zerbitzuen gutunak

Kalitateari buruzko konpromiso zehatzak hartzen dituzten eskubideen eta zerbitzuen gutunak

egin eta zabaltzea aurreko ildo beretik dator, nahiz eta interesgarriagoa den herritarrentzat.

Alde horretatik, eskubideen eta zerbitzuen gutunak erakundeek herritarren interesen eta eskubideen inguruko konpromiso zehatzak hartze-ko biderik aurreratuen dira gaur egun.

Izan ere, herritarrei euren eskubideen eta erakundeek hitzartzen duten kalitate mailaren berri emanez gero, herritarrok eskubide eta maila horiek gauza daitezkeen eskatzeko irizpideak dituzte eta, gainera, eskubideak eta kalitatea zenbateraino betetzen diren ebalua daiteke, hala kanpoan, nola barruan.

Zerbitzuen gutunen aldaerarik aurreratuenak eskubideak eta kalitatea bermatzen ez diren egoeren aurka babesteko klausulek ere osatzen dituzte.

Esate baterako, gizarte eskubide asko aukerakoak dira eta, ondorioz, ez dago zenbateraino galda daitezkeen ezarriko duen araurik; osasun arloan ere, osasun zerbitzuak izateko eskubidea hain araututa dagoen arren, ez da egoten gehie-nez itxaron beharreko denbora tarteari, laguntza- ren kalitatearen gutxieneko mailari, eta abarri buruzko araurik.

Hori dela-eta, erakundeak Foru Komunitateko eskubideen lehenengo gutuna osatzeko konpromisoa onartu zuen, eta erronka bota zien Nafarroako administrazio publikoei ereduari jarraitu zie-zaieten.

Zorionez, ekimen hori hasi da ematen fruiturik: Nafarroako Gobernuak zerbitzuen gutunak arau- tzeko dekretua xedatu du, eta Iruñeko Udalak, berriz, Herritarren Eskubideen eta Betebeharren Gutuna onartu du.

Eskubideen gutuna egite aldera, erakundeak gizarteko taldeengana eta herritar elkartengana hurbiltzeko prozesu handinahia jarri zuen abian. Prozesu horren ondorioz, erakundearen eta Nafarroako elkartearen arteko harremanak estutu egin ziren eta, haien parte hartzeari esker, beharrezko galdeketen bitartez, talde horiek Nafarroako egoe- rari buruz duten iritzia berri jakin genuen.

40 udalerrri baino gehiago bisitatu genituen eta 300 elkartek baino gehiagok hartu zuten parte, arartekoak herritarrek Gutuna egiten parte har- zezaten egin zuen ahaleginaren adierazgarri.

Autoebaluazioa eta kontuak ematea

Etengabeko hobekuntza emaitzak objektiboki neurtuz gero bakarrik da posible. Horretarako, ordea, nor bere burua ebaluatu eta kontuak jen- daurrean emateko sistema jarri behar da martxan,

eta sistema horrek adierazle aproposak izan behar ditu, finantza egoerari eta kostuen kontabili- tateari buruzkoak barne.

Nire ustez, txostena aurkeztu beharko litzateke urtero nahitaez zerbitzu eta administrazio orotan, eta urteko txosten horrek aurrekontuan finkatzen den helburu eta xede bakoitza zenbateraino lortu den argitu beharko luke.

Era berean, txosten orok ematen den zerbitzu- aren kalitatea zenbaterainokoa den, zerbitzuen gutuneko eskubideak eta konpromisoak zenbate- raino betetzen diren eta horri guztiari buruzko iri- tzia zein den adierazi beharko luke. Zoritxarrez, ohitura hau ez da orokortu oraindik administrazio publikoen baitan.

Informazio publikoa eskuragarri izatea

Administrazio publikoen kudeaketa gardena izanzen bada, jarrera aldatu egin behar da herrita- rrek informazioa eskatzen dutenean, eskariok desegokitzat jotzen baitira sarriegitan. Europako Kontseiluak berak ere hartu du neurririk alor hone- tan, informazioa eskuragarri izatea erabakigarritzat duen aldetik zuzenbide estatuko printzipioak (askatasuna eta demokrazia) sendotzeko.

Hasiera batean, informazioak publikoa izan beharko luke oro har, eta informazioa eskuratzeko murrizketak behar bezala arrazoitu beharko lirate- ke, legezko funtsetan eta beste batzuen interes zilegietan bakarrik oinarrituta betiere. Izan ere, zer- bitzu publikoaren baitan nagusi den "sekretuaren kultura" alde batera utzi eta "zabalkundearen kul- tura" aplikatzen hasi beharrean gaude.

Ildo horretan, ezin ahaztuzkoa da indarrean dagoen araudiak ingurumen arloan eskatzen den informazioa ematera behartzen duela dagoeneko, herritarrek ezer adierazi edo egiaztatu beharrik gabe.

Kanpo ikuskatzea eta kontrol erakundeak

Aurreko neurri horiek guztiak gardentasun publikoa lortzeko borondatearen adierazgarri dira, baina norbera kanpoko ikuskatze sistemek eta erakunde beregainek kontrola dezaten erabaki- tzea jotzen da ausardia demokratikoaren adieraz- pide gorentzat.

Horren lekuko da hainbat erakunde sortu eta abian jarri izana, hala nola, kontu auzitegiak eta ombudsman edo arartekoa. Halako erakundeak Parlamentuaren agindupean eta, horrenbestez, botere betearazlearengandik bereiz daude, haren boterea orekatzen dute eta zerbitzari publikoek zorrotasuna areagotu dezaten laguntzen dute berez.

Nafarroan, kontu auzitegiak Comptos Ganbera izena du, eta bere eginkizuna funts publikoen ekonomia eta finantza arloko kudeaketa, kontabilitatearen gaineko erantzukizuna eta kontratazio prozedurak kontrolatu eta aurrekontuak aldatzea da, besteak beste.

Arartekoaren erakundea, berriz, Parlamentuak sortu zuen duela lau urte baino ez, eskubideen eta askatasunen babesa bermatu eta hobetzearen, eta bere funtsezko egitekoa herritarren administrazioaren balizko gehiegikeriaren eta ardura-gabekeriaren aurka babestea da.

Erakunde horiek euren eginkizuna behar bezala beteko badute eta botere politikoaren zurigari huts bihurtuko ez badira, hobekuntza bitartekotzat hartu behar dira eta, horretarako, ezinbestekoa da hainbat baldintza betetzea:

- *Guztiz beregainak izan behar dute eta gehiengo indartuko aukeraketa sisteman oinarritu behar dute.*
- *Nahi bezala antolatu eta funtzionatzeko autonomia onartu behar zaie.*
- *Alderdikeriarik gabe jokatu behar dute eta alderdikeriarik gabe jokatzeko dutela eman behar du.*
- *Bateraezintasun araubide zorrotza ezarri behar dute.*
- *Erakundeko langileek zorrotzak izan behar dute teknikoki eta euren lana egiteko gai izan.*
- *Behar adina baliabide izan behar dute.*
- *Egiten dituzten txostenak iragarri behar dituzte, txostenok Parlamentuan aurkeztuz, Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta komunikabideei sistematikoki helaraziz.*

ARARTEKOEN EGINKIZUNA KONTROL PUBLIKOAREN ALORREAN

Espainiako arartekoek erabat betetzen dituzte beregintasan irizpideak, gure egitekoa autonomia osoz gauzatzen dugulako, legez inongo aginduren mendean ez gaudenez eta inongo agintarrik ezer agindu ezin digunez gero. Gainera, gehiengo indartuz aukeratu gaituzte, nahiz eta, tamalez, Nafarroako arartekoa gehiengo soilez aukeratu ahal izan den etorkizunean arautegia aldatu egin berri dela eta.

Arartekoaren irudia ezin bortxatuzkoa eta immunitateduna da, bateraezintasun araubide zorrotza bete behar du eta bere agintaldiak sei urte irauten du; horrek guztiak are autonomia handiagoa ematen dio.

Foru Komunitateko erakunde guztiak ikertzeko eskubidea du, baita toki erakundeak, erakunde autonomoak, sozietate publikoak, haien mendeko gainerako erakunde publikoak eta zerbitzu publikoetan jarduten diren erakundeek kudeatzen dituzten zerbitzuak ere, erakundeon araubidea dena delakoa.

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa ikertu edo ikuskatu egiten ari denean, bertako botere publiko eta erakunde guztiak lehentasunez eta lehenbailehen laguntzera behartuta daude, eta ezin diote ukatu administrazioaren alorreko edo ikergaiarekin lotutako txostenak eta dokumentuak eskuratzeko eskubidea; areago, laguntzeari uko egin edo laguntzen ez dutenek delitu penala ere egin dezakete.

Bere jardunaren ondorioz, arartekoak legezko betebeharrei buruzko gomendioak, iradokizunak eta gogorarazpenak egiten dizkie erakunde esku-dunei, eta legedia aldatzeko gomendioak ere egiten ditu. Ez da betearazlea. Aitzitik, limurtzen ahalgintzen den epailea da eta, hortaz, bere eragingarritasuna erakundearen prestigioan eta sinesgarritasunean eta txostenak jendartean zabaltzeak ematen dion indarrean oinarritzen da; gainera, txostenok Parlamentuaren aurrean aurkeztu dituzten sistematikoki, baita komunikabideen bitartez plazaratu ere.

Betearazlea ez den arren, arartekoek kexei ematen dieten erantzuna nahiko eragingarria dela ikusi da: esate baterako, Nafarroan, administrazio publikoek gure ebazpenen edo gomendioen % 70 onartzen dute azkenean.

Hala eta guztiz ere, kasu bakoitzaren gaineko kontrola ez da nahikoa gure egitekoaren eragingarritasuna bermatzeko. Izan ere, gizarteak baztertutakoek, haurrek, adimen gaixoek, mendekotasun egoeran dauden zaharrek, eta abarrek nekez aurkeztu dute kexarik arartekoaren aurrean eta, horrenbestez, herritarren eskubideak babesteko, erreklamazioei aurrea hartu eta arazo jakin batzuk sakonki ikertu ere egin behar dira; hain zuzen ere, txosten berezien bitartez heltzen diogu eginkizun horri.

Hartara, hainbat txosten berezi egin dugu, besteak beste, adimen gaixoei, sexu esplotazioaren, erasoaren eta tratu txarren biktima diren emakumei, etorkinei eta mendekotasun egoeran dauden zaharrei buruz; haurren egoerak ere bereziki kezkatu gaitu, eta zenbait txosten berezi egin ditugu haiei buruz.

Gaur egun, arartekoek nortasun juridiko garbia dute, eta horrek egiten dituzten txosten berezien ezaugarriak baldintzatzen ditu, hein handi batean.

Etorkizunean, baina, ombudsmanek alor gehiagotako ezaugarriak izanen dituztela uste dut eta, hartara, kanpotik ikuskatuko dute zinez administrazioek euren legezko betebeharrak zenbateraino betetzen dituzten eta herritarrek hartzeko eskubidea duten zerbitzuak egokiro bermatzen dituzten.

Erakundeek herritarren eskubideak kanpotik ikuskatzeko, ordea, beharrezkoa da

- *Kalitate eta gardentasun politika aktiboak sustatzea administrazio publikoetan;*
- *Administrazioak kanpotik ebaluatu eta esku-bideak ikuskatzeko metodologia berriak lantzea;*
- *Berme sistemak jartzea abian, herritarrek indar handiagoa izan dezaten euren eskubideak betetzeko eskatzerakoan (empowerment);*
- *Autonomia erkidegoek eskura duten informazioa konparatzeko sistemak (eta oinarritzko adierazleak) lantzea;*
- *Administrazio publikoei politika zehatzak izan ditzaten eskatzea, dagokion planean azaltzen direnak, aurrekonturik esleitura dutenak eta helburu eta jarraipen adierazle zehatz eta publikoak xedatzen dituztenak.*

Alor honetako gure esperientzia nahiko txikia da oraindik ere, baina ebaluazio prozedura berria jartzen ari gara abian, adierazle egokiak dituen, gizartean eragin handia duten esparru jakin batzuetan izandako aurrerapenaren jarraipena egiteko aldizka.

Bestalde, erakundeen arteko lankidetzaren autonomia erkidegoetako arartekoen nortasun ezaugarrietako bat da, zorionez. Ildo horretan, baterako jardunaldiak eta ekitaldiak antolatzen ditugu urtero, eta unibertsitateekin eta gobernuz kanpoko erakundeekin aritu ohi gara. Horri esker, gero eta ebaluazio tresna eragingarriagoak batera lantzen sakondu dezakegu, zalantzarik gabe.

GARDENTASUNA ETA ZERBITZUEN PRIBATIZAZIOA

Ez nuke agerraldi hau amaitu nahi autonomia erkidegoetako arartekoak izugarri kezkatzen dituen egoera bat aipatu gabe: "Enpresa edo sozietate publikoek kudeatzen dituzten herritarren eskubideen gaineko kontrolrik ezak kezkatu egiten gaitu".

Guztiok bat gatzoz gero eta formula eragingarriagoak behar direla zerbitzuak kudeatzeko baina, premia hori dela-eta, hainbat motatako erakunde ugari sortzen ari dira eta "administrazio zuzenbidearen ihes" izendatu den fenomeno gertatzen ari da. Hain zuzen ere, erakunde horiek zuzenbide

pribatuak arautzen ditu hein batean edo bestean, baina administrazioak sortu, kontrolatu eta arautzen ditu. Baliabide, kapital eta ondare publikoak dituzte, eta interes orokorreko beharrei erantzun eta interes orokorreko zerbitzuak ematen dituzte; hau da, funtzio publikoa betetzen dute.

Zalantzarik gabe, bide hori ezinbestekoa da neurri batean, baina zalantza eta galdera asko planteatzen ditu:

- *Zergatik sortzen dira halako erakundeak egoera jakin batzuetan baina ez antzeko beste batzuetan? Zein dira irizpideak?*
- *Zergatik ez dira administrazio guztiaren baitan orokortzen, zerbitzuak eragingarriago kudeatzen badituzte?*
- *Nola aplikatzen dituzte administrazio publiko zuzenaren printzipio orokorrak: haiekin harremanetan dagoen bestek aukera berberak izatea, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatzea, lehia librea izatea, kontratazioa objektiboa izatea eta jarduna arrazoitzea?*
- *Zein betebeharrak dituzte publizitate, kontu-emate, erantzukizun eta gardentasun aldetik?*

• Eta, batik bat, nola bermatzen dute herritarren eskubideak guztiz errespetatzea?

Nire ustez, ordea, garrantzizkoena da, "gehiegitan, enpresa publikoak sortu baina publikoki kontrolatzen ez" direla.

Inola ere ezin dugu ahaztu erantzukizun publikoa ezin dela beste inoren esku utzi eta ez dela txikiagoa, ezta gutxiago ere, zerbitzua ematen duen erakundea zuzenbide pribatuak arautzen duelako. Areago, kontrol mekanismo publikoak areagotu behar dira, halako erakundeei aplikatu beharreko araubidea eta herritarrek administrazioaren aurrean dituzten eskubideak bermatzen dituzten printzipioak, arauak eta neurriak betetzea bateraezinak ez direla bermatzeko.

Azken finean, aparteko garrantzia du administrazio publikoek sustatzen dituzten erakunde autonomoei, partzuergoei, sozietate publikoei eta fundazioei aplikatu beharreko gardentasun printzipioak arautzea.

AGURRA

Ezbairik gabe, euren eskubideak aldarrikatzen dituzten gizon-emakume ikasien gizartea administrazio askoz ere konplexuagoa da eta, horretarako, demokrazian sendo sinesten duten eta boterearen erabileraren inguruko ikuspegi demokratikoa duten zerbitzari publikoak behar dira.

Zoritxarrez, ez da erraza beharrezko aldaketa sustatzeko motibazio eta konpromiso nahikoa lortzea, ez zerbitzari publikoen artean, ez herritarren artean ere; izan ere, herritarren jarrera ere heldugabea izaten da askotan.

Etengabeko soka da, eta berdintasunezko baldintzetan erlazionatzen diren herritar arduratsuen artean beste konfiantza eredu bat bultzatuz bakkirik eten daiteke, informazioaren gardentasunean oinarrituta betiere.

Azken batean, zintzoki kontrolatu eta informatzea gure erantzukizuna da eta, horretarako, herritarrek zinez errespetatu behar dira”

3.2. HERRITARREN ESKUBIDEEI BURUZKO TOKI PLANA: “ZURE ESKUBIDEEN ALDE”

Gardentasuna eta herritarren eskubideak sustatzeko ekimenen kontzeptuzko oinarriari buruzko atalean azaldu ditugun printzipioekin bat, erakundeak eskubideak sustatzeko beste ildo bati jarraitu dio 2005eko azken hiru hilabeteetan. Hain zuzen ere, Herritarren Eskubideei buruzko Toki Planaren bitartez, udal esparruan jarri du arreta, eta helburua udalek herritarren eskubideak areago susta ditzaten erdiesteia izan da.

Zehatz-mehatz, abian jarritako ekimenaren xedea udalek Nafarroako Eskubideen Gutunean eta Administrazio Jokabide Zuzenaren Europako Gutunean ageri diren balioak eta printzipioak onartzea da eta, hartara, Europako Parlamentuak emandako agindua betetzea; izan ere, Europako Parlamentuak Kodea zenbateraino betetzen den neurtu eta administrazio publikoek bertako balioak eta printzipioak aplikatzeko beharrezko ekimenak sustatzeko agindu zion Europako arartekoari eta, horrenbestez, herrialdeetako arartekoei.

Nabarmendu dugunez, gizartea aldatu egiten ari da azkenaldian, eta aldaketa horrek berebiziko garrantzia du. Egungo herritarra trebatuago dago, eta areago parte hartu nahi du berarengan zuzeneko eragina duten erabakiak hartzeko prozesuetan, baita informazioa eskuratzeko aukera gehiago izan ere. Ikuspegi horrek, baina, kultur aldaketa dakar zinez, eta herritarrekin harremanetan egoteko beste modu batzuk ezartzea.

Alabaina, kultur eta jarrera aldaketa lortzea ez da samurra, herritarrek ohartarazi egin behar baitira eta kontzientzia eta konpromiso sendoa harraza behar baitzaie, demokrazian tinko sinetsita betiere.

Aurreko ataletan argitu dugunez, gobernu sistema modernoek gobernu bera etengabe hobetzeko mekanismoak eta arauak ezarri behar dituzte, onenengandik ikaste aldera. Arazoak ez dira isildu behar, heldu eta konpontzen saiatu baizik. Zerbitzari publikoek herritarren iritzia entzuteko prest egon behar dute, baita talde gutxituenak ere, euren behar eta gogo errealean berri izatearren, eta, horretarako, herritarrek zuzenean parte hartzeko neurriak hartu behar dira, gizarte arloan aurreratuago dauden herrialdeetan daudenak bezalakoak.

Ezbairik gabe, etengabe hobetzeko estrategia da aukerarik egokiena herritarren eskubideak aktiboki sustatzeko konpromisoa egiaz hartu nahi duten administrazioetan. Haren abiapuntua hasierako egoera ebaluazio tresna normalizatuen bitartez aztertzea metodorik onena delako premisa da, administrazioa unean uneko eskasiei buruz ohartarazi eta zerbitzari publikoei (funtzionario direnei eta ez direnei) zerbitzua hobetzeko planei ekin behar zaielako kontzientzia harrarazteko.

Aurrera egiteko estrategia guztiekin gertatzen den bezala, ordea, etengabe hobetzeko lehenengo pausoa norbere gabeziez ohartzea da, hobetu beharreko alorrak antzemanaz. Horretarako, metodorik onena erakundearen alor bakoitzeko hasiera bateko egoera norbere borondatez ebaluatzea da.

Ildo horretan, uste dugu agintariei arartekoak hasiera bateko egoeraren ebaluazio doako, hitzartutako eta positiboa egin dezan eskaintzea dela herritarren eskubideak sustatzeko lankidetzaren estrategiarik eragingarriena.

Kontzientzia harrarazteko lanaren muinak agintariei herritarren eskubideen sustapenean eta gardentasun publikoan inbertitzea errentagarria dela sinestaraztea izan behar du, etengabe hobetzeko mekanismoa eta, batez ere, besterengandik bereizi eta herritarren konfiantza lortzeko aukera den neurrian. norbere borondatez arartekoak kanpo ebaluazioa egiteko arriskua onar dezaten limurtzea, ausardia demokratikozko eta gardentasun publikozko mezu garbia helarazten diotelako hartara gizarteari.

Ombudsman erakundearen esperientzia oso txikia izan da orain arte administrazioak ebaluatzen, arartekoen baliabide eskasek eta, batik bat, esku- dauden baliabideen bitartez aplikatu daitekeen metodologia zorrotz eta ebaluazio tresnarik ezak mugatu egin dute eta.

3.2.1. PROIEKTUAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Lortu nahi izan dugun helburu nagusia udalek herritarrekiko harremanak etengabe hobetzeko estrategia aplika dezaten lortzea da, herritarrek administrazio zuzena izateko eskubidea bermatzeko, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunak eskubide horixe xedatzen duenez gero.

Helburu espezifikoak, berriz, honako hauek izan dira:

- Udalek jokabide zuzenaren kodeak edo antzeko ekimenak onar ditzaten lortzea, herritarren eskubideak zorrozki errespetatu daitezzen bermatzeko
- Udalek eskubideen gutunak, zerbitzuen gutunak edo antzekoak egin ditzaten lortzea, zerbitzu publikoen kalitatearen eta gardentasunaren inguruko konpromisoak hartzeko jendaurrean
- Udalek komunikazio estrategia berriak aplika ditzaten lortzea, herritarrei ematen dieten informazio publikoa hobetzeko
- Udalek herritarrekin harremanetan egoteko bide eta modu berriak ezar ditzaten lortzea, herritarren iritziak gizarte demokratiko aurreratu batean merezi duen protagonismoa izateko

ZER DA?

Proposatutakoaren antzeko prozesu batean murgiltzean, zehatz-mehatz mugatu behar da proiektua zertan datzan. Zehazki, zer lortu nahi den finkatu behar da:

- Administrazioak herritarrekiko harremanak hobetzeko aukeraz ohartarazi nahi dituen proiektua da.
- Erakundeak eta herritarrak hurbiltzen dituen proiektua da.
- Arreta eskubideetan jartzen duen proiektua da.
- Egin daitekeen ahalegina behar duen proiektu errealista da.
- Ebaluazio tresna estandarizatuak lantzen laguntzen duen proiektua da.

ZER EZ DA?

Udal esparruan herritarren eskubideak sustatzeko proiektua zer den eta helburua zein den ulertzea bezain garrantzitsua da zer ez den ulertzea:

- Helburua ez da ebaluazio osoa egitea; aitzitik, eskubideen esparrura mugatzen da.

- Helburua ez da inor kontrolatzea.
- Arreta ez du zerbitzuen kalitatean jartzen.
- Ez da beharrezkoa kalitate planik egitea.

IKUSPEGI POSITIBOA ETA HOBETZEA HELBURU

Kontrol bitartekoa izan ezean, eskubideak sustatu eta hobetzeko proiektua delako hain zuzen ere, proposatu dugun plana borondatezkoa da erabat eta, horrenbestez, erakundeen arteko lankidetzaren esparruan sartzen da.

Hala ere, lankidetzazko eta elkarrekiko konfiantzazko giroan gauzatuko bada, beharrezkoa da erakundeen arteko leialtasunaren alorreko hainbat printzipio eta eskakizun betetzea:

- Borondatezkotasuna
- Adostasuna
- Malgutasuna
- Doakotasuna
- Erakundeen arteko leialtasuna eta bi alderdien konpromisoa
- Ikuspegi positiboa eta hobetzea helburu

METODOLOGIA

Administrazio zuzena izateko eskubidea sustatzeko metodo nagusia aukeratzekoan, udal bakoitzean "etengabe hobetzeko ziklokako metodoa" aplikatzea erabaki da; funtsean, metodo hori unean uneko egoera ebaluatu, hobetu beharreko alorrak zein diren antzeman, alor horiek hobetzeko ekintzak lehenetsi eta antolatuz, ekimenok gauzatu eta berriro ebaluatzen hastean datza.

Nafarroako arartekoaren eginkizuna "gurpila" abian jartzea da funtsean eta, horretarako, hasiera bateko ebaluazioa egin, hobetu beharreko esparruak zein diren antzeman eta udalbatzari esparruok hobetzeko proposamenak egiteko modua aholkatzeko ardura hartu du bere gain.

Hasierako ebaluazioa egite aldera, aurrez finkatutako galdeketak eta formularioak erabili dira, Zerbitzu Publikoen Kalitaterako Behatokiarekin eta Kalitatearen Inguruko Konpromisoetarako Nazioarteko Fundazioarekin batera landutakoak.

Hain zuzen ere, honako hauek egin dira:

- Elkarrizketa erdiegituratu udal arduradunei
- Galdeketa informatzaile nagusiei
- Telefono bidezko inkesta herritar lagin bati

Elkarrizketa erdiegituratua udal arduradunei

Udal arduradunak elkarrizketatzearen helburua administrazio zuzenaren sistema onen egungo garapena ebaluatu eta udal bakoitzak egin dituen edo egin nahi dituen ekimenen eta, proiektuaren helburuen arabera, bideragarrien jotzen diren hobekuntza proposamenen berri izatea da.

Galdeketa elkarteei eta informatzaile nagusiei

Informatzaile nagusiak galdekatzearen helburua udalbatzarekin zerikusirik ez duten gizarteko buruek udal bakoitzeko administrazio zuzenaren balioen eta printzipioen garapenari eta udal zerbitzuei buruz duten iritzia berri jakitea da.

Halaber, proiektuaren helburuekin lotutako hobekuntza proposamenak biltzeko bidea ere bada.

Telefono bidezko inkesta udal bakoitzeko herritar lagin bati

Udal bakoitzeko herritar lagin bati telefono bidezko inkesta egitearen helburua herritarrek udal bakoitzeko administrazio zuzenaren balioen eta printzipioen garapenari eta udal zerbitzuei buruz duten iritzia berri jakitea da.

Udal bakoitzeko herritarren lagin adierazgarri bati egin zaio inkesta: herritarrok ausaz aukeratu dira, adinaren eta sexuaren arabera banatuta baina izena eman gabe. Esangura maila % 95ekoa izan da, eta errakuntza tarteak, % 5ekoa.

EBALUATU BEHARREKO EZAUGARRIAK

Bi alderdi mota ebaluatu dira:

- Nafarroako Herritarren Eskubideen Gutuneko balioak. Udal bakoitzak informazioaren gardentasunaren eta administrazio jokabide zuzenaren balioak eta printzipioak betetzen dituen aztertu da, herritarrekiko harremanetan hobetu egin daitezkeen esparruak antzematearren.

- herritarrek udal zerbitzuei buruz duten iritzia. Herritarrek udal zerbitzuei buruz duten iritzia ebaluatu da, kalitateari buruzko konpromiso zehatzak hartzen dituzten zerbitzuen gutun espezifikoak egite aldera.

Aurrez aipatu dugunez, sustatu eta ebaluatu nahi diren balioak Nafarroako Foru Komunitateko Herritarren Eskubideen Gutunekoak dira, hala Administrazio Jokabide Zuzenaren Europako Kodekoak, nola gure legediak gardentasunaren eta parte hartzearen printzipio demokratikotzat xedatzen dituen balioak.

Administrazio jokabide zuzenaren alorrekoak

- Adeitasuna eta bana-banako aholkularitza
- Hartu izanaren adierazpena eta prozeduraz arduratzen den funtzionarioa nor den jakitea
- Betiere erantzuna hartzeko eskubidea eta administrazioaren isiltasunik eza
- Zerbitzu eskudunera bidaltzea
- Jardunaren koherentzia eta esperantza zilegiak errespetatzea
- Hizkuntza ofizialetan hitz egin eta erantzuna hizkuntza ofizialetan hartzeko eskubidea
- Iritzia eman eta oharrak egiteko eskubidea eta herritarren iritzia aditzea
- Arrazoizko epean erantzun eta zuzemenak eta prozedurak ebazten bizkorrak izatea
- Herritarrek haiengan eragina duten espedientei buruzko informazioa eskuragarri izatea
- Erabakiak arrazoitzea
- Legediari lotu eta araudia betetzea
- Justizia, objektibotasuna, proportzionaltasuna, alderdikiarik eza, tratu berdintasuna eta diskriminazio zein botere abusurik eza
- Erabakiak egokiro jakinaraztea
- Apelatzeo aukeren berri ematea eta kexak aurkezteko erraztasuna
- Isilpekotasuna eta datuen babesa
- Artxiboak egokiro mantentzea

Beste printzipio eta balio demokratiko batzuk

- Zerbitzu publikoak oztoporik gabe eskuratzeko eskubidea (hurbiltasuna, ordutegi zabala, oztopo arkitektoniko eta bazterketarik eza...)
- Prozedurei, zerbitzuei eta laguntzei buruzko informazio publikoa eskuratzeko eskubidea
- Zerbitzu publikoei eska dakiekeen kalitate mailaren berri izateko eskubidea eta kalitateari buruzko konpromiso publikoak hartzen dituzten zerbitzuen gutunak
- Zerbitzu publikoetan parte hartzeko eskubidea
- Hartzen diren zerbitzuei buruzko iritzia aldizka emateko eskubidea
- Dokumentuak eskuragarri izatea, besteren eskubideak urratzen ez badira betiere

- Administrazioak egiten dituen ekimenen berri izan eta kontu hartzeko eskubidea

Ez da komeni eskubideen ebaluazioak alderdi orokorretan soilik jartzea arreta eta ematen diren zerbitzuei buruzko iritzia inola ere ez aipatzea. Aitzitik, erabiltzaileen iritzia aditu ere egin behar da, hartzen dituzten zerbitzuei buruz duten iritzia aldizka entzutea administrazioak bete behar dituen gardentasun eta parte-hartze printzipioak betetzeko biderik onena delako zalantzarik gabe.

Zerbitzuak oro har ebaluatzeko sistema lortzeko, beharrezkoa da zerbitzuon zerrenda sinplifikatu eta zerbitzurik esanguratsuenak eta herritarrek hobekien uler eta antzeman ditzaketenak bakarrik zerrendatzea. Hori dela-eta, honako zerbitzu hauei buruzko iritzia ebaluatzen da:

Udal zerbitzuei buruzko iritzia

- Emakumeari laguntzeko politikei buruzkoa
- Etxeko laguntza zerbitzuei buruzkoa
- Zahar etxeei eta zaharrentzako gizarte etxeei eta eguneko zentroeiei buruzkoa
- Haurren babesari eta laguntzari buruzkoa
- Etorकिन eta gutxiengo etnikoen gizarteratzeari buruzkoa
- Ezinduen laguntzari buruzkoa
- Pobreziari eta gizarte bazterketari buruzkoa
- Haurtzaindegiei eta haur eskolei buruzkoa
- Udal bakoitzean ematen den hezkuntza eta ikastetxeekiko zuzeneko lankidetzako hobetzeko interes mailari buruzkoa
- Udal bakoitzean osasun arloan ematen den laguntza eta osasun etxeekiko zuzeneko lankidetzako hobetzeko interes mailari buruzkoa
- Etxebizitza politikari buruzkoa
- Udal bakoitzaren garapen ekonomikoari (turismoari, merkataritzari eta industriari) buruzkoa
- Herritarren segurtasunari buruzkoa
- Zirkulazioaren antolamendu orokorrari, apar-kalekuei, seinaleei, eta abarri buruzkoa
- Udaltzaingoak zirkulazioa zaintzeko egiten duen lanari buruzkoa
- Hirigintzari eta baimenei buruzkoa
- Parkeei eta lorategiei buruzkoa

- Kaleen asfaltatzeari eta espaloien, kaleko argien, bankuen, eta abarren mantentzeari buruzkoa
- Kaleen garbitasunari buruzkoa
- Urari eta zaborrari buruzkoa
- Zarataren, isurketen, kearen, eta abarren gaineko ingurumen arloko kontrolari buruzkoa
- Kirol instalazioei eta jardueri buruzkoa
- Kultur instalazioei eta jardueri buruzkoa
- Gazteentzako instalazioei eta jardueri buruzkoa
- Haur parkeei eta haurrentzako jardueri buruzkoa
- Aldiriko auzoetako zerbitzuei buruzkoa
- Udal zergei buruzkoa

Azken txostena udal bakoitzari eman eta arartekoaren web gunean argitaratuko da. Era berean, Foru Parlamentuari kopia bat igorri eta ondorioak arartekoaren urteko txostenaren bitartez plazaratuko dira.

Jendaurreko aurkezpena, berriz, udal bakoitzeko alkateak eta arartekoak egiten dute.

3.2.2. TUTERAKO, LIZARRAKO, BURLATAKO ETA ZIZUR NAGUSIKO UDALAKIN HITZARMENAK SINATZEA

Bertatik bertarako lana eta ondoko txostena egiteko, erakundeak aparteko ahalegina egin behar du eta, horregatik, esku hartzen dugun udalen kopurua mugatu beharrean gaude. Ildo horretan, 10.000 biztanletik gorako lau udali (Nafarroako lau udalik handienetakoei) eskaini diegu hasiera batean hitzarmena formalizatzeko aukera. Eman diguten erantzuna bikaina izan da eta, azkenean, guztiek onartu dute esperientzian parte hartzea.

2005eko abenduaren 21ean, lankidetzako hitzarmena sinatu dugu Tuterako, Lizarrako, Burlatako eta Zizur Nagusiko udalekin (ikus eranskina) eta, Iruñean eta Tuteran antolatutako prentsaurreko banaren bitartez, sinadura ekitaldiaren berri eman diegu komunikabideei.

Pixkanaka-pixkanaka, erakundearen asmoa ekimen hau 10.000 biztanletik gorako gainerako udaletara hedatzea da eta, jarraian, 10.000 biztanletik beherako hainbat udaletara.

3.2.3. TELEFONO BIDEZKO INKESTAK ETA ELKARTEEI EGINDAKO INKESTAK. BERTATIK BERTARRAKO LANA, EGINA

Metodologiaren berri eman dugunean azaldu dugunez, lan handia egin da bertatik bertara hasiera bateko egoera ebaluatzearen. Hain zuzen ere, 2005eko abenduan egin da lan hori,

hitzarmena sinatu duen udal bakoitzean bilerak eginez, eta udal bakoitzeko elkarte eta talde guztiak gonbidatu dira bilerotara.

Honako egun hauetan egin dira bilerak:

- 2005eko abenduaren 13an, Zizur Nagusian
- 2005eko abenduaren 15ean, Burlatan
- 2005eko abenduaren 21ean, Lizarran
- 2005eko abenduaren 22an, Tuteran

Bilera horietan guztietan, gurekin batera lan egiteko eskatu diegu elkarte guztiei, eta bi galdeketa betetzeko:

- Administrazio jokabide zuzena izateko eskubidea zenbateraino errespetatzen den argitzeko iritzi inkesta

– 24 galderaz osatuta dago. Horietako 22 alderdi espezifikoak buruzkoak dira, eta beste biak, orokorrak: bata udalak administrazio jokabide zuzenaren balio eta printzipio orokorrak zenbateraino sustatu eta errespetatzen dituen ebaluatzen du, eta besteak, udalak herritarren arazoak konpontzeko balio duen.

– Gehienez ere zerbitzua hobetzeko 10 proposamen egiteko aukera ematen du.

- Udal jarduerari eta zerbitzuei buruzko iritzi inkesta

– 30 galderaz osatuta dago. Horietako 28k udal zerbitzuei buruzko iritzia ebaluatzen dute, banan-banan, eta beste biak orokorrak dira: bata iritzi orokorrari buruzkoa da, eta bestea, udal zerbitzuetako hiru arazo nagusiei buruzkoa.

– Gehienez ere zerbitzua hobetzeko 10 proposamen egiteko aukera ematen du.

Guztira, 91 elkarte hartu dute parte ekimenean, eta bete beharreko bi galdeketa erantzun dituzte.

Bestalde, ERYBA enpresaren zerbitzuak alokatu dira telefono bidezko inkesta egiteko zerbitzuen kalitateari eta administrazio jokabide zuzenari buruz.

Bertatik bertarako lana abenduan barrena egin da, eta 400 inkesta egin dira gutxienez udalerrri bakoitzean.

- 28 galderaz osatuta dago guztira. Udal zerbitzuei buruzko iritziaren alderdi espezifikoak eta orokorrak ebaluatzen ditu, administrazio jokabide zuzena izateko eskubidea zenbateraino errespetatzen den eta udal bakoitzeko hiru arazo nagusiak zein diren.

2006ko lehenengo hiru hilabeteetan analizatuko dira datuak eta idatzi txostenak eta, hortaz, urte horretako txostenean ageriko dira emaitzak.

3.3. NAFARROAKO HERRITARREN ESKUBIDEEN GUTUNAREN ILDOKO EKIMENEN JARRAIPENA

Aurrez azaldu dugunez, erakunde honek Foru Komunitateko eskubideen lehenengo gutuna osatu du, eta erronka bota die Nafarroako administrazio publikoei, euren eskubideen gutunak osatu eta zerbitzuen gutun espezifikokoak osatzeko konpromisoa har dezaten; zerbitzuen gutun horiek konpromiso zehatzak onartu behar dituzte sektore sektore ematen dituzten zerbitzuen kalitatearen alorrean.

Gehiegi luzatu gabe, Nafarroako administrazio publikoek erronka onartu dutela eta zerbitzua etengabe hobetu eta herritarrentzat lan egiteko estrategian murgildu direla erakusten duen hainbat ekimen zerrendatuko dugu jarraian. Espero dugu ekimen hauek guztiak gardentasun eta partaidetza publikoa lortzeko borondate argiaren adierazgarri izanen direla, behar bezainbesteko jarraipena izanen dutela eta behar adina sakonduko dela. Arartekoaren erakundeak, bederen, jendaurrean hartu diren konpromisoak bete egin daitezzen zainduko du:

- 15/2004 FORU LEGEA, abenduaren 3koa, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzkoa. II. idazpuruak herritarrek Foru Komunitateko administrazioarekiko harremanetan dituzten eskubideak xedatzen ditu eta, zehatz-mehatz, honako eskubide hauek biltzen ditu:

- Erantzun egokia izateko eskubidea
- Administrazio zuzena izateko eskubidea
- Publizitate printzipioa
- Konfiantza zilegia izan eta informazioa eskuratzeko eskubidea
- Herritarrek idatziak eta dokumentuak aurkezteko eskubideak
- Administrazio espedienteak, artxiboak eta erregistroak eskuragarri izateko eskubidea
- Eskatzeko eskubidea
- Zerbitzu publikoak baldintza berberetan eskuratzeko eskubidea
- Bana-banako tratu egokia izateko eskubidea
- Zerbitzu publikoen kalitatea nahikoa izateko eskubidea
- Iradokizunak eta erreklamazioak egiteko eskubidea
- Informazioa argia eta ulerterraza izateko eskubidea

- Ondasun eta zerbitzu publikoen erabilerari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea eta eskatzailearen nortasuna isilpean geratu den bermea

- Bideratzen ari diren prozeduren egoerari edo edukiari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea

- Prozedurak bideratzeko ardura duten agintariak eta funtzionarioak nor diren jakiteko eskubidea

- 21/2005 FORU LEGEA, abenduaren 29koa, politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzkoa

- 72/2005 FORU DEKRETUA, maiatzaren 9koa, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuen gutunak arautzen dituena

- 46/2004 FORU AGINDUA, uztailaren 15ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta haren erakunde autonomoek herritarrekiko harremanetan aplikatu beharreko administrazio jokabide zuzenen orientabidea onesten duena, Foru Komunitateko herritarrei ematen zaizkien zerbitzu publikoen maila handitzeko

- 119/2005 FORU AGINDUA, urriaren 11koa, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuen gutunen diseinua eta egitura arautzen dituena

- 151/2005 FORU AGINDUA, azaroaren 15ekoa, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen eskumeneko administrazio prozeduren inbentarioaren berri ematen duena

- 38/2006 FORU AGINDUA, otsailaren 23koa, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Kontseilariak emana, Nafarroako Foruzaingoaren zerbitzuen gutuna onesten duena

- Iruñeko Udalak onartutako herritarren ESKUBIDEEN ETA BETEBEHARREN GUTUNA

- Iruñeko Udalak 18 udal esparrutan onartutako ZERBITZUEN GUTUNAK, eskaintzen diren jardueren berri eman eta eskaintzen diren zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatu eta hobetzeko hainbat konpromiso hartzen dutenak

- Iruñeko Udalak argitaratutako ZERBITZUEN GIDA

- Tuterako, Barañaingo, Burlatako eta Atarrabiako udaletako zerbitzuen gutunen hasiera

- Herritarrak lagundu eta informatzeko sistemak, udal informazioari buruzko buletinak, web guneak, tokian tokiko informazioa emateko Infocal telefonoa, etab. osatzea pixkana-pixkana

- Herritarrek parte hartzeko ekimen berriak eta auzoek, besteak beste, emakume, osasun, hezkuntza, immigrazio, gazteria eta etxebizitza arloan parte hartzeko udal kontseiluen sustapena

04 HERRITARREN ESKUBIDEEN ZEHARKAKO DEFENTSA

Urteko txostenaren atal honetako zeharkako ikuspegiaren jomuga gizarteko pertsonarik ahulena dira (hala nola, haurrak, zaharrak eta ezinduak), eta helburua erakundeak talde horien eskubideak babesten dituen modua osorik islatzea da.

Aurrez argitu dugunez, arartekoaren erakundeak lau bitarteko motaren bidez egiten du bere lana: kexak erantzunez, txosten bereziak eginez, bitarteko arituz eta herritarren eskubideak sustatzeko ekimenak planteatuz.

Horrenbestez, 2005. urtean lehentasunezko talde bakoitzaren baitan aipatu bitarteko bakoitzaren bidez gauzatu ditugun ekimenak azaltzen ahalginduko gara.

4.1. HAURRAK: "HAURREN ALDE"

Zalantzarik gabe, haurren alde egitea izan da 2005eko lehentasun nagusia.

Biztanle kopuru txikia dela-eta, ez dirudi kome-nigarria denik Nafarroan haurrak babesteko arartekoa sortzea berariaz, ez litzatekeelako eragingarria gainera. Hala eta guztiz ere, arre-ta talde honetan jartzen duen lan esparrua taxutu behar da, haurrak babesteak ararteko ororen lehentasun nagusia izan behar duen aldetik ez-bairik gabe.

Euren eskubideak bete daitezzen zaindu, talde honentzat sortzen diren ekimenak etengabe lehenets daitezzen bermatu eta haurrek erakundeak eskuragarriago izan dezaten lortzea erakundeak epe ertainean haurrak babesteko dituen aholkularia izateko arrazoi nahikoak dira nabarmen.

Horrexegatik, lan esparru propioa eratzeko lehenengo pausoak eman ditugu dagoeneko, "Haurren alde".

Eskematikoki, honako hauek izan dira 2005. urtean haurren eskubideen alde egiteko gauzatu diren ekimenik adierazgarrienak:

- Hurrei buruzko kexei erantzutea
- Txosten bereziak
 - Nafarroako administrazio publikoek haurrak eta nerabeak babesteko gauzatzen dituzten ekimenak ebaluatze-ko txosten berezia egiten hastea
 - Oti-3 urtera bitarteko haurren hezkuntzari buruzko txosten bereziaren jarraipena
- Bitartekotza lanak
 - Haurrak babesteko legeari buruzko proposamen txostena

- Haurren eskubideak sustatzeko ekimenak
 - Balioetan hezteari buruzko lantegia
 - Bizikidetasunean hezteko gizarte ekimena
 - Haurrak Interneten aurka babesteko kanpaina

Xehe-xehe, ekimen bakoitzaren berri emanen dugu jarraian.

4.1.1. HAURREI BURUZKO KEXEI ERANTZUTEA

Hurrei buruzko kexak kexa guztien % 12 egin dute eta, jakina, hezkuntza arloari buruzkoak izan dira batez ere. Zehatz-mehatz, kexak honako alor hauei buruzkoak izan dira, kexa gehien eragin dutenetatik gutxien eragin dutenetara ordenatuta:

- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak
- Oti-3 urtera bitarteko haurren hezkuntza
- Ikastetxeen eta ikastetxeetako instalazioen egoera
- Ikastetxeetan tokia lortzeko sistemak
- Hezkuntza arloko plangintza
- Ikastetxeen funtzionamendua eta bizikidetasun arazoak
- Nazioarteko adopzioa
- Haurren babesa eta babesgabetasun egoerak

Kexen gaineko analisisia 5. atalean egingen dugu, "2005. urteko kexei buruzko ebaluazio orokorra" izenekoa; beraz, ezer errepikatzea saiheste aldera, urteko txosteneko atal horri lotuko gaitzaizkio.

4.1.2. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN HAURRAK ETA NERABEAK BABESTEKO GAUZATZEN DITUZTEN EKIMENAK EBALUATZEKO TXOSTEN BEREZIA EGITEN HASTEA

Adierazi dugunez, erakundearen lehentasunetako bat haurrak eta nerabeak babestea izan da betidanik. Ildo horretan, honako hauek izan dira alor honetako ekimenik adierazgarrienak:

- Haurren aurkako sexu erasoei eta tratu txarrei aurre egiteko laguntzari, prozedurari eta jarraipenari buruzko gomendioa egin izana 2003. urtean, alor honetan aritzeko protokoloa lehenbailehen aurkez zezan eskatu ziona Nafarroako Gobernuari
- Nafarroako botere publikoei haurrak laguntzeko foru legea xedatzeko proposatu izana 2003. urtean, orduan maila txikiagoko arauetan sakabanatuta zeuden araudiak testu bakarrean bateratze-arren

- Nafarroako Parlamentuan “Haurrentzako nor-tasun bat. Oitk 3 urtera bitarteko haurrentzako hezkuntza Nafarroan” izeneko txosten berezia aurkeztu izana 2004. urtean

- Arartekoak eta Nafarroako Unibertsitateak haurren eskubideak zabaltzeko egindako argitalpen bat, Haurren eskubideak izenekoa, plazaratu izana 2004. urtean

Hasierako ekimen horiek administrazio publikoek hurrei eman behar dieten laguntzaren eta babesaren zenbait alderdi nabarmentzen zuten, baina beharrezkoa zen haurrak babesteko Foru Komunitateko sistemaren gaineko ebaluazioaz eta azterketaz osatzea. Izan ere, babes sistemaren funtzionamendua da adierazlerik esanguratsua hurrei onartzen zaizkien eskubideak zenbateraino betetzen diren neurtu eta eskubideok bete egin daitezten bermatzeko, baita administrazioak alor honetan bere gain hartu behar dituen betebeharrak zenbateraino betetzen dituen neurtu eta betebeharrak bete egin ditzan bermatzeko ere.

Gainera, Nafarroako Foru Parlamentuak Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea onartu ostean, erakundeak are protagonismo handiagoa lortu du haurren eta nerabeen eskubideen defentsan eta zaintzan. Alde horretatik, 15/2005 Foru Legea onartu izanak une honetan oso labaina eta garrantzitsua den gaia azaleratu du berriro ere; hain zuzen ere, gai hau Haurren babes juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak eta Haurren erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak jorratu eta erreformatu zuten hurrenez hurren Espainian.

Ekimen horiek guztiak gizarteak haurren inguruan duen ikuspegi berriaren isla baino ez dira; harekin bat, haurrak subjektu aktiboak, parte hartzaileak eta sortzaileak dira eta euren ingurune pertsonala eta soziala aldatu, euren beharrak (azken batean, euren eskubideen eta eskubideon babesaren ardatza) bilatu eta beharroi erantzuteko gaitasuna dute.

Bestalde, haurrak nahasita dauden egoeren kopuruak gora egin du azken urteotan, gizarteak kontzientzia handiagoa hartu du pixkana-pixkana horri buruz eta, ondorioz, subjektu juridikorik ahulena babestu beharra dago. Horrek guztiak halako lan bati ekin beharra areagotu du.

Azkenik, Nafarroako Gobernuak eta Gizarte Arazoetako Nafarroako Parlamentuko Batzordeak Gizarte Egoera Zailan dauden Haurrak eta Nerabeak Laguntzeko Plana onartu zuten, 2001eko azaroaren 19an eta 2002ko irailaren 17an hurre-

nez hurren, eta, hori dela-eta, haurrak babesteko gure sistema publikoari buruzko azterketa orokor orok Planak xedatzen dituen programak eta ekimenak zenbateraino betetzen diren nabarmendu behar luke.

Horregatik guztiagatik, 2005. urtearen amaieran egoki iritzi diogu Nafarroako administrazio publikoek haurrak eta nerabeak babesteko gauzatzen dituzten ekimenak ebaluatzeko txosten berezia egiten hasteari.

Txostenaren helburuak eta garrantzia

Hasi berri dugun txosten bereziaren helburu orokorra haurrak babesteko funtzio publikoa nola gauzatzen den eta, Nafarroako Haurrak eta Nerabeak Laguntzeko Plana egituratzen duten programei jarraiki, epaileen zigorrek haurrentzako laguntza nola bermatzen duten neurtzea da.

Helburu espezifikoak, berriz, honako hauek dira:

- Nafarroako administrazio publikoek haurren eskubideak urratzen diren egoerei aurrea hartu eta egoerok (indarkeria fisikoa, abandonu fisiko edo emozionala, etab.) goiz antzemateko ekimenak behar bezala gauzatzen dituzten ebaluatzea
- Halako egoeretan jarraitu beharreko prozedura, argibide eta protokolorik dagoen eta, baldin badago, egokia den
- Esku har lezaketen zerbitzuen eta estamentuen (gizarte zerbitzuen, hezkuntza zerbitzuen, osasun zerbitzuen, Poliziaren, eta abarren) arteko koordinazioa egokia den
- Estatistika, kontrol eta ebaluazio sistemak nolakoak diren
- Baliabiderik dagoen eta, baldin badago, nahikoa den
- Nafarroako administrazio publikoek haurrak babesteko prozedurak irauten duen bitartean egiten duten lana ebaluatzea
- Ikertze eta bideratze fasea, erabakiak hartzeko sistema, etab.
- Erabakiak hartzeko irizpide teknikoak, protokoloak, etab.
- Babes neurriak aplikatu eta betearazteko plangintza
- Ezartzen diren neurrien, laguntza teknikoaren, bitartekoen eta planen jarraipena
- => Familiaren esku-hartzearena
- => Familiarteko harrerarena

- => Egoitzetako harrerarena
- => Adopzioaren aurreko harrerarena
- Zerbitzuen kontrola eta ebaluazioa
 - Nafarroako administrazio publikoek haurrak epaileen zigorren bitartez nola laguntzen dituzten ebaluatzea.
 - Hartzen diren neurriak
 - Neurriok betearazteko baliabideak
 - Nafarroako administrazio publikoek haurrak babesteko gauzatzen dituzten ekimenak ebaluatu eta aztertzerakoan kontuan izan beharreko beste egoera berezi batzuk ebaluatzea
 - Helduen laguntzarik gabeko haur atzerritarak
 - Nazioarteko adopzioa

4.1.3. Otiik 3 URTERA BITARTEKO HAURREN HEZKUNTZARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIAREN JARRAIPENA

Gogoan izan beharra dago Nafarroako arartekoak Otiik 3 urtera bitarteko Nafarroako haurren hezkuntzari buruzko txosten berezia aurkeztu zuela 2004ko urrian Foru Parlamentuaren aurrean.

Txostenak nabarmendu zuenez, borondatezkoa izan arren Otiik 3 urtera bitarteko haurrentzat, hezkuntzarako eskubidea beste edozein alderdi ekonomikori edo egiturazkori gailendu behar zaio. Horregatik, administrazio publikoek haur hezkuntzaren alorreko eskaintza eta kalitatea argi eta garbi hobetu beharra aldarrikatu zuen.

Zehatz-mehatz, honako hauek izan ziren txosten bereziaren gomendio nagusiak:

- Ikastetxe publikoek eta pribatuek Otiik 3 urtera bitarteko haurrei eskaintzen dizkieten tokien eskola mapa prestatzea, adinen eta udalerrien arabera
- Lehen haurtzaroko zerbitzuen egiazko eta ezkutuko eskaria aztertzea
- Jabetza publikoko ikastetxeetako itxaron zerrendak (tokirik lortu ez duten behin-behineko izen emateak) argitaratzea
- Otiik 3 urtera bitarteko haurren hezkuntzarako diruzko konpromiso publikoak areagotzea
- Familiarteko errentaren gehieneko kopurua handitzea, soldatapean lan egiten duten amen seme-alabak Otiik 3 urtera bitarteko haurrentzako hezkuntzan sar daitezten

2005. urtean barrena egiaztatu denez, herritar talde eta plataforma ugarik Otiik 3 urtera bitarteko

haurren hezkuntza dela-eta planteatutako gizarte arazoak bere horretan jarraitzen du; hau da, gabeziak ditu oraindik ere. Ondorioz, 14.000 pertsonak baino gehiagok eta 67 udalek legegintzarako herri ekimena aurkeztu ere egin dute Foru Parlamentuan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, ordea, ukatu egin du, 2005eko apirilaren 11n egindako saioan, Gobernuaren erabaki batean oinarrituta; harekin bat, Gobernuak aurka egin zuen, aurrekontuetako kredituak handitu beharra zekarrelako.

Hezkuntza Departamentuak, berriz, oraindik ez du argitaratu mapa eta itxaron zerrenda, eta toki publikorik ezak bere horretan jarraitzen du. Horren lekuko da Iruñeko egoera: 2005. urtean, eskaintza 540 tokikoa izan zen, eta eskaria, 1.701ekoa.

Bestalde, arartekoak hainbat bilera egin du Haur Hezkuntzako Profesionalek Plataformarekin; hain zuzen ere, haur hezkuntzako ikastetxeak arautu eta bertan kalitatea kontrolatzeko irizpide teknikoak aplikatu beharra aldarrikatu du Plataformak. Ildo berean, 2005eko amaieran aurkeztutako kexen berri eman nahi dugu; haien bitartez, doakienek administrazioak 3 urtetik beherako haurrak hartzen dituzten Nafarroako ikastetxeen alorrean egiten duen lana ikuskatu beharko genuke, batik bat, ikastetxeok bete beharko litzaketen gutxieneko baldintzak eta baldintza horien gaineko kontrola ikastetxeok jardunean dauden bitartean.

Kexa horiek planteatzen dituzten gaiak batera tratatze aldera, arloz arlo bilduz gero, administrazioak honako alor hauetan egiten duen lana jartzan da zalantzan:

- Ikastetxe guztiek bete beharreko gutxieneko baldintzak batera arautzen
- Gutxieneko baldintza horien gaineko kontrolean, 3 urtetik beherako haurrak hartzen dituzten ikastetxeak ireki eta abian jartzeko baimena emateko
- Ikastetxeek jardunean dauden bitartean gutxieneko baldintzak betetzen jarraitzen dutela ikuskatzen

Kexa horiek guztiek gai honi buruzko arautegiaren behin-behinekotasuna nabarmentzen dute, hezkuntzari buruzko lege organiko berria xeda litekeela-eta, baita auzi hau arautuko duen arautegi bateraturik ezak ekar litzakeen ondorioak ere.

Egiaz, jakitun gara gaur egun arau urriak dau dela Otiik 3 urtera bitarteko haurren hezkuntzaren alorrean, hein handi batean, hezkuntza sistema arautzen zuten lege organikoak bata bestearen atzetik aldatu eta indargabetu egin direlako. Gainera, egun dagoen araudia zatikatuta dago, ez zaio-

lako bateraturik eta, ondorioz, modu egoki eta koherenteago batean heldu.

Batetik, Hezkuntzarako eskubidea arautzen duen 1985eko Lege Organikoak eskolaurreko zentroak ikastetxeak direla onartu zuen, eta 1004/2001 Errege Dekretuak ikastetxeok bete behar dituzten gutxieneko arauak xedatu zituen. Hezkuntzaren kalitateari buruzko Lege Organikoak, ordea, Hezkuntzarako eskubidea arautzen duen Lege Organikoa indargabetu zuen eta, horren ondorioz, eskolaurreko hezkuntza ez da araubide orokorreko irakaskuntzen sailean sartzen eta eskolaurreko ikastetxeei ez zaie jada delako Errege Dekretua aplikatzen.

Bestetik, gai honi buruzko Foru Komunitateko arautegi bakarra 3086/2001 Ebazpenak, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzailearenak, eta 41/2005 Foru Aginduak, Hezkuntza kontseilariarenak, osatzen dute; hain zuzen ere, 41/2005 Foru Agindua 3086/2001 Ebazpenaren ondoren eman da, eta toki erakundeekin hitzarmenak sinatzeko oinarriak eta haur hezkuntzako ikastetxeek bete behar dituzten gutxieneko eskakizun edo irizpideak ezartzen ditu, teknikarien ustez, egungo eskakizun edo irizpideak eskasak baitira argi eta garbi eta inola ere ez baitatoz bat haurren garapenean erabakigarria den aldi honetan bete beharko lituzketenekin.

Azken batean, kezkatu egiten gaitu, hezkuntzari buruzko lege organiko berria xedatzearen ondorioz, arautegiaren behin-behinekotasuna gehiegi luzatu eta, horregatik, 3 urtetik beherako haurrak hartzen dituzten Foru Komunitateko ikastetxeetako baldintzak egokiro ezin kontrolatzea.

4.1.4. HAURRAK BABESTEKO LEGEARI BURUZKO PROPOSAMEN TXOSTENA

2004. urtean, erakundeak haurrak laguntzeko foru legea emateko gomendatu zuen, eta delako lege testuak gure ustez jorratu beharko lituzkeen oinarritzko ildoak biltzen zituen proposamen zehatza ere egin genuen.

Urte hartan bertan, geuk egindako proposamenari erantzunez, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko orduko kontseilariak haurrak babesteko foru legearen aurreproiektua helarazi zigun, eta Nafarroako Gobernuak hari zegokion lege proiektua onartuko zuela iragarri zigun.

Azkenik, 2005. urtean, Gobernuak aurrerapauso esanguratsua eman du, foru legearen behin betiko proiektua Nafarroako Parlamentuari igorri eta bideratu egin baitu. Hala ere, Parlamentuko hainbat taldek osoko zuzenketak proposatu dituzte, iritzi diotelako lege proiektuak ez diela egokiro

erantzuten haurren arazoei, eta haurren alorrean aritzen diren talde eta elkarte jakin batzuek ere arartekoarengana jo dute, euren ustez foru legearen proiektuak arazoak, gabeziak eta zailtasunak dituela salatzen.

Lege proiektuak haurren eskubideak babeste aldera berebiziko garrantzia izan lezakeela eta izan beharko lukeela ikusirik eta Gobernuak proposatutako testuaren egokitasunari buruzko desadostasunak ikusirik, arartekoak egoki jo du erakundeak gaiari buruz duen iritzia ematea, eta zuzemenak egin ere egin ditu, ahalik eta adostasun handiena lortzeko haurrak babesteko lege proiektua onartzerakoan; izan ere, lege proiektua bideratu egiten ari zen orduan.

Txostenaren bitartez, arartekoak poza adierazi du, erakundeak 2004. urtean egin zuen gomendioari jarraiki, haurren babes osorik arautuko duen lege testua existitzen delako azkenean, eta honako oharpen hauek egin ditu, besteak beste:

- Lege proiektuak hobetu egin litezkeen alderdi esanguratsuak ditu, eta horietako batzuk jendartean azaleratu dira, hala nola, osotasuna bermatu beharra, administrazioak alor jakin batzuen gaineko erantzukizuna besteren esku ezin utzia eta, batez ere, legea onartzerakoan, beharrezko baliabideak esleitu eta legea arau bidez lehenbailehen garatu beharra, administrazioak haur eta neraberik babegabeenen bizi baldintzak hobetzeko beharrezko bitartekoak izan ditzen.

- Uste dugu egokiagoa izan litekeela alor honetan jarduteko hainbat irizpide orokor legez xedatzea arau bidez garatzeko uztea baino. Izan ere, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak 2004. urtean egin zuen foru legearen aurreproiektua 169 artikuluz osatuta zegoen, eta foru legearen egungo proiektua, berriz, 102z; hau da, lehenengo proiektuak arautzen zuen hainbat alderdi ez da ageri Nafarroako Parlamentuari onartu egin dezan helarazi zaion proiektuan edo, bestela, laburrago agertzen da.

- Ildo horretan, uste dugu beste alderdi batzuk ere hobetu egin daitezkeela: babesgabatasun prozeduretako berme juridikoak, harrera familientzako laguntzak, helduen laguntzarik ez duten haur etorkinen laguntza, gizarte ekimenaren sustapena... Era berean, uste dugu legeak haurren eskubideak teknologia berrien, publizitatearen eta ikus-entzuzkoen aurka babestu beharra aipatzea komeni dela.

- Haurrak babesteko sistema eragingarria lortzeko aukera paregabea dugula uste dugu, gizarte babeseke sistema aurreratuaren muina lantzekoa.

- Helburua gure haurrak eta nerabeak babes-tea bada, uste dugu orain arte gizarte eragileen eta eragile politikoen artean izan diren iritzi desberdintasunak inola ere ezin direla izan ezin gaindituzkoak.

- Guztiok dugu ahalik eta lege onena lortzeko betebeharra eta, alde horretatik, nekez aurkituko dugu alderdi guztiek halako ahalegin handia egin behar duten beste esparru bat ahal bezain adostasunik handiena lortzeko.

2005eko urriaren 11n azaldutakoaren harira, arartekoak idatzia bidali dio Nafarroako Parlamentuko lehendakari Rafael Gurrea Induráin jaunari, zuzenean esku har dezan eskatzeko, Parlamentuko taldeek azken ahalegina egin eta euren iritziek bat egin zezaten, ahal bezain legerik onenean adoste aldera.

Era berean, honako hau zioen arartekoaren idatziak: "Jakina, arartekoak inola ere ez du sartu nahi Parlamentuko taldeek lege proiektua bideratzen jarraitzeari edo azkenean osoko zuzenketak onartu ala ezesteari buruz izan lezaketen iritzi zilegian. Besterik gabe, planteatu diren proposamen guztiek dena delakoak sustatu dituelako gutxietsi beharko ez lirakekeen ekarpen esanguratsuak dituztela gogorazi nahi dut".

Azkenean, Parlamentuko osoko bilkurak Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko 15/2005 Foru Legea onartu du abenduaren 5ean, Parlamentuko taldeek proposatutako hainbat zuzenketa txertatu ostean. Alde horretatik, hain garrantzi handiko testuak lortu beharko lukeen adostasuna erdietsi ez bada ere, testuak berak ez du aurkako inolako botorik hartu, nahiz eta, bitxia bada ere, izan izan den zioen azalpenaren aurkako botorik.

Nabarmentzekoa da arartekoaren gomendioa ageri dela Foru Legean:

14.3. artikulua. Arartekoak haurren eta nerabeen eskubideak babesteaz arduratu behar du eta, horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartu behar ditu, besteak beste, honako hauek:

a) jardutea, bere kabuz edo norbaitek eskubideak urratzeari buruzko kexa jarri duelako

b) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari foru lege honekin zerikusia duten gaietan jardun dezan eskatzea

c) Nafarroako Foru Komunitateko haurrek eta nerabeek duten egoera ebaluatzea urteko txostenean

d) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari legeak xedatzen dituen programak eta ekimenak benetan bete daitezzen eskatzea

Eskertzen dugu gure erakundearen uste osoa jartzea, eta haurren eskubideak are gehiago zaintzeko erronkari helduko diogu. Ildo horretan, aipatu dugunez, Nafarroako administrazio publikoek haurrak eta nerabeak babesteko gauzatzen dituzten ekimenak ebaluatzeko txosten berezia egiten hasi gara dagoeneko, eta egungo baliabideak ebaluatu eta hobetu egin daitezzen eta administrazioak hartu dituen konpromisoak bete eta legea arau bidez berehala gara dezan zainduko dugu bereziki.

4.1.5. BIGARREN HEZKUNTZAN BALIOAK ETA ESKUBIDEAK TXERTATZEKO ESTRATEGIEI BURUZKO LANTEGIA

Arartekoak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak lankidetzan hitzarmena izenpetu zuten gizarte eskubideei buruzko lantegiak egiteko batera eta, hitzarmen horren esparruan, eztabaida lantegia antolatu dute ekainaren 17an balioak eta eskubideak bigarren hezkuntzan txertatzeko estrategiei buruz.

Era berean, Europako Kontseiluak Herritartasunean Hezteko Urte izendatu zuen 2005, hezkuntzak herritartasunean berebiziko garrantzia duela nabarmentzearen, eta lantegia haren esparruan ere egin da.

Jardunaldia eztabaida bilera gisa antolatu da. Pedagogia Kaierak argitalpen entzutetsuko zuzendari Jaume Carbonell jaunak zuzendu du, txostengile nagusi eta eztabaidaren koordinatzaile gisa ere jardun denak, eta Balioetan Hezteko Kataluniako Sareko kide Isabel Carrillo de la Red eta Espainiako Filosofia Elkarteko lehendakari, CIVES Fundazioko patroia eta Paideia aldiakari zuzendari Luis María Cifuentes ere izan dira bertan, txostengile gisa.

Gai honetan itzal handiko esperientzia duten honako profesional nafar hauek ere aurkeztu dute txostenik lantegian: Hezkuntzaren Berriztapen Ataleko buru Germán González Estremad jaunak, Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioko Hezkuntza Saileko zuzendari Guillermo Herrero jaunak, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Psikologia eta Pedagogia Saileko kide Reyes Berruezo andreak, Hezkuntza Departamentuko Zeharkako Gaietarako eta Balioetarako aholkulari María Antonia García Gurria jaunak, Iruñeko Irakaskuntzarako Gaitasun Ikastaroko zuzendari Nicolás Uriz jaunak, Tuterako bigarren hezkuntzako institutuko zuzendari Manuel Campillo jaunak, Plaza de la Cruz institutuko irakasle Tomás Yerro jaunak eta

Hezkuntza Departamentuko Eskola Orientazioko teknikari Irene Labarta Calvo andreak.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektore jaunak eta Nafarroako arartekoak burutu dute ekitaldia, lantegia bi erakundeok sustatu duten neurrian, eta Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusi Fermín Villanueva Ferreras jaunak, Eskola Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzuko buru Pedro José González Felipe jaunak eta Institutu Zuzendarien Elkarteko lehendakari Pedro Antona jaunak ere hartu dute parte bertan.

Azkenik, Nafarroako irakaskuntzarako gaitasun ikastaroetako zuzendariak eta zeharkako hainbat gaitako (hezkuntza sexual eta afektiboaren, osasunerako hezkuntzaren, berdintasunerako hezkuntzaren, bakerako eta garapenerako hezkuntzaren, ingurumen hezkuntzaren, kontsumorako hezkuntzaren eta bide hezkuntzaren alorreko) adituak ere bertaratu dira, baita eztabaidan parte hartze aktiboa izan ere.

Agerraldiak eta ondoko eztabaida eztabaidak eta bilerak grabatzeko egokitutako areto batean egin dira, transkribatu eta, ondoren, jendartean zabaltze aldera, eta edukiak argitalpen bati ere bide eman dio.

Lantegiak interes handia piztu du irakaskuntzako profesionalen artean: arartekoa berotasunez zoriondu eta bat etorri dira lan bateratua sustatzen segitu behar dela alor honetan.

Gainera, hari esker, adostasun handia antzean da balioen hezkuntzaren eta gizarte eskubi-deen artean harreman estua dagoela eta:

“Gizarte eskubideek eta betebeharrak gidatu, argitu behar gaituzte giza eskubideei buruzko adierazpenetan eta abarretan ageri diren eta oinarriko kontzeptuen (hala nola, askatasunaren, berdintasunaren, justiziaren, aniztasunaren eta tolerantziaren) ingurukoak diren balio unibertsalak zein diren zehazteko bidean”.

Honako hauek dira lantegian azaldu diren ideia nagusiak:

LANTEGIAN AZALDUTAKO GAIEN LABURPENA

Zer eskatzen dio gizarteak eskolari balioen hezkuntzaren alorran?

- Ikasleek hainbat balioen eta kontrabalioren, eredu heterogeneo eta egituratu gabeen (eta, zenbaitetan, elkarren kontrako) eragina hartzen dute euren ingurunean, hainbat bitartekoren bidez, eta erlatibizatze arriskua dakar horrek.

- Arazo horri aurre egin nahian, gizarteak ikastetxetara jotzen du erantzun eske, eta egoeraren errua ere egozten dio.

- Izan ere, gizarteak hezkuntza egituratzen jakin dezan espero du hezkuntza sistemarengandik, balioen arteko lehentasuna egokiro ezartzen lagun dezan eta irakaskuntzaren eta hezkuntzaren helburuak egokiro konbina ditzan.

- Bestalde, familiek, administrazioek eta gizarte erakundeek alor, gai eta balio berrietan trebatzeko eskatzen dute etengabe, gero eta gehiago: baterako hezkuntzan, osasunerako hezkuntzan, bide hezkuntzan, ingurumen hezkuntzan...

- Europar Batasunak berak balioen hezkuntzarekiko konpromiso sendoa har dezagun eskatzen du eta, hezkuntza arloan ezagutzak irakasteaz gaindiko ikuspegia izan behar diren jakitun, Herri-tartasunean Hezteko Urte izendatu zuen 2005.

- Horrenbestez, beharrezkoa da balioen hezkuntzaren edukiak zehaztu eta balioen hezkuntza hedatu eta orokortzeko estrategiarik eragingarriak finkatzea.

Zenbateraino da baliozkoa Bigarren Hezkuntzako egungo eredu hori guztia lortzeko?

- Ikastetxeak gizartearen isla dira eta gizarteak dituen arazo eta kontraesan berberak dituzte. Kultur artekotasuna sustatzeaz mintzatzen da, baina hezkuntzaren antolamenduak berak ikasleak jatorriaren arabera bereizteari bide ematen dio sarritan. Era berean, balio demokratikoak sustatzeaz mintzatzen da, baina ikastetxe ugariak barne araubidea espero izatekoa denaren azpitik dago.

- Gure funtzionario sistemaren, gure rolaen, ikastetxeen antolamendu organikoaren, gure egitura hierarkikoaren, sail didaktikoetan banatutako gure sistemaren helburua irakastea da eta, hein txiki batean, hezteak.

- Curriculumak, programak gero eta eduki gehiagok beteta daude, eta hezkuntzaren esentzia galtzen ari da.

- Ikastetxeen arazo nagusia da eskari zenbateraino helden zaizkiela baina ezin dituztela kudeatu eta ebatzi, eskumen, baliabide eta gaitasunik ez dutelako.

- Era berean, irakasle gehienak gainezka sentitzen dira, gai jakin batzuk landu behar dituztelako ikasleekin baina ez dutelako euren burua prest ikusten. Ondorioz, egiturazko ezintasuna eta arbuioa sentitzen dute, eta horrek euren erruduntasun sentimendua handiagotzen laguntzen du.

- Egungo antolakuntza sistemak ez du bultzatzen heziketa arlokoak diren proiektuetan murgiltzerik, eta abian dauden ekimenek eragin eskasa dute sistema osoan, irakasleen borondatearen edo zuzendaritza batzorderen baten gogoaren araberrakoak besterik ez direlako eta ekimenok gauzatzeko ematen duen pozean bakarrik oinarritzen direlako.

- Abian dauden ekimen eskasak ez dira ia inoiz ebaluatzen eta, hortaz, ez dago jakiterik eragingarriak diren benetan ideiak eta jarrerak aldatzeko.

- Orain arte, kalitatearen kudeaketaren alorrean sartzen diren ebaluazioak ez dira nahikoak izan hezkuntzaren kalitateari dagozkion alderdiak (esate baterako, balioen transmisioa eta ikaskuntza) ebaluatzeko, nahiz eta bitarteko baliagarriak diren.

- Hala eta guztiz ere, onartu beharra dago hasiak garela balioetan hezten. Izan ere, gizarte ingurune orok, sistema orok eta ikastetxe orok balioetan hezten du, balioetan ereduaren bidez hezten denez gero funtsean. Kontua da zein balio mota transmititzen dugun eta horren jakitun ote garen.

Ados al daiteke hezkuntza erkidegoa landu beharreko balioei buruzko gutxieneko edukietan?

Aurretiatzko gogoetak

Gi honi buruz eztabaidatzeko, beharrezkoa da zenbait printzipiori eta kontzeptuari buruz hausnartzeari aurrez:

- Balioetan hezteak gizartearen baterako erantzukizuna izan behar du oinarri eta ezin da ikaste-txeetara mugatu; aitzitik, gizarte osora hedatu behar du.

- Askotariko ikuspegietatik hezi behar da balioetan eta, horretarako, hezkuntza, gizarte, kultur... arloko politikak elkarren artean lotu behar dira.

- Balioetan hezteak orientatzailea eta positiboa izan behar du.

- Balioetan hezteak aurrea hartzeko helburua izan behar du eta, horretarako, plangintza egin behar da; ezin da gizartearen baitako egoeraren araberrako aztoramenaren aurkako erreakzioa izan.

- Balioetan heztea inola ere ezin da doktrintatzailea izan.

- Arreta ez da jarri behar unean uneko interes eta egoera politikoetan.

- Balioetan hezteak gizartearen baitako sineskeria erlijiosoak eta kulturalak errespetatu behar ditu, giza eskubideen aurkakoak ez badira betiere.

- Izendapen eta adierazpen murriztaileak saihestu behar dira, balioetan hezteak eskolako eta gizarteko ingurune guztietara egokitu behar du eta.

- Hori guztia gorabehera, beharrezkoak dira mundu osoan onartzen diren balioetan oinarritutako gutxieneko komunak eta, horretarako, gizarteak adostasuna lortu eta izendatzaile komuna zehaztu behar du.

Lortu beharreko helburuak

Balioetan hezteak pertsona osotasunean garatzea izan behar du helburu eta, horretarako, ikasleen nortasun morala garatzea bultzatu behar da eta honako hauek nabarmendu behar dira:

- Norbere autonomia ohartuki eta jakinaren gainean eraikitzea

- Norbere jarrera kontrolatzeko gaitasuna lantzea

- Errealitatearen gaineko ulermen kritikoa

- Arrazoi dialogiko, sentikor eta enpatikoa

- Elkarrekin zuzen eta demokratikoki bizitzen laguntzen duten gaitasun sozialak

Sustatu beharreko balioak

Sustatu beharreko balioak aukeratu edota lehenesteko, honako irizpide hauek hartu behar dira aintzat, besteak beste:

- Gizarte eskubideek eta betebeharrak gidatu, argitu behar gaituzte giza eskubideei buruzko adierazpenetan eta abarretan ageri diren eta oinarritutako kontzeptuen (hala nola, askatasunaren, berdintasunaren, justiziaren, aniztasunaren eta tolerantziaren) inguruak diren balio unibertsalak zein diren zehazteko bidean.

- Hezkuntzak kultura artekoa izan eta mundu osora heda daitezkeen eredu edo etikak (herritar guztien gutxieneko komun etikoa) lantzeko helburua izan behar du.

- Hezkuntzak bizikidetasuna, gizarte harremanak eta gizarteratzea izan behar ditu helburu eta, horretarako, errespetua, indarkeriarik eza, duintasuna, elkarlana eta beste balio batzuk landu behar ditu.

- Hezkuntzak erantzukizuna, norbere ahalegina, borondatea eta norbere betebeharrak betetzea sustatu behar ditu.

- Hezkuntzak norbere autonomia eta oreka garatzeko oinarritzko gaitasunetan eta ahalmenetan trebatu behar du pertsona.

Zenbateraino egon behar du presente balioen hezkuntzak Bigarren Hezkuntzako curriculum formalean?

- Balioen hezkuntza hiru mailatan landu behar da: curriculumean, antolakuntza edo erakunde arloan eta norbere baitan.

- Balioen hezkuntza egokiro eta normaltasunez sistematizatu eta programatu behar da.

- Zeharkakotasunak beharrezkoa izaten segitzen du, baina curriculumaren helburu zehatz eta espezifikoen bitartez sistematizatu behar da, zeharkako ardatzen edo gaien bitartez baino gehiago.

- Tutoreen eginkizuna funtsezkoa bada ere, irakasle guztiek arduratu behar dute balioetan hezteaz.

- Irakasgaia beharrezko baldintza izan liteke, baina ez da nahikoa, ezta gutxiago ere. Izan ere, balioen hezkuntza ezin da irakasgai batera mugatu; aitzitik, lehenengo haurtzaroan hasi behar da, nahitaezko hezkuntzan jarraitu behar du eta hezkuntzaren ziklo guztietara (baita lanbide heziketara ere) hedatu.

- Irakasgai bat ezarri gero berariaz, arauak ere ezarri behar dira bigarren mailako bihur ez dadin, ikastetxera heltzen den azken irakasleak eman ez dezan edo edozein irakasle ordutegia osatzearen eman ez dezan.

Metodologia

Irakasleen metodologia erabakigarria da balioetan hezteko, harreman estua dagoenez gero irakasleen eta ikasleen artean eta ikasleek ordu ugari ematen dutenez gero ikasgelan:

- Irakasleen metodologiak aktiboa, partaide-tzazkoa eta eraikitzailea izan behar du eta elkarriketa, autonomia, enpatia, ekintza eta esku-hartzea sustatu behar ditu.

- Arrazoia eta emozioa, esperientzia eta ezagutza sistematikoa orekaz konbinatu behar dira, eskolako jakintza errealitatearen gaineko jakintza-rekin lotuz.

- Haurrengana eta nerabeengana heltzeko bide berriak bilatu behar dira: komunikabideak (prentsa eta abar) eta teknologia berriak erabiltzea, musika, irakurgaiak...

- Balioak eta jarrerak ingurune jakin baten barnean ikasten dira beti eta, horrenbestez, erreferentziazko eredu bitartez.

- Orientabideak positiboa izan behar du; ez, ordea, negatiboa. Horretarako, balio positiboen adibideak eman eta ikusarazi behar dira.

- Irakasgai kopurua murriztu behar da.

- Eskola liburuak ez dira nahikoak; finkatzen diren helburuetara egokitzen diren material espezifikokoak ere erabili behar dira.

Zenbateraino egon behar du presente Bigarren Hezkuntzako curriculum ez-formalean, hezkuntza proiektuaren, parte hartze demokratikoaren, harremanen eta bizikidetasunaren alorrean?

- Balioak transmititzerakoan, eskolako inguru-nea eta ikastetxeko kultura demokratikoa eta partaidetzazkoa giltzarriak dira, erreferentziazko ereduak baitira nerabeentzat.

- Esaten dena eta egiten dena bat etor daitezten ahalegindu behar da ahal dela eta, horregatik, ezinbestekoa da ikastetxearen antolaketak eta kudeaketak erkidego zuzen eta demokratikoak osatzen laguntzea, taldean lan egiteko esparruak sustatuko dituztenak hierarkia handiegiko egitura zaharren ordez.

- Curriculum proiektua eta hezkuntza proiektu erreala funtsezkoak dira, eta familiek eta ikasleek eurek hasiera batetik hartu behar dute esku proiektuok egiten.

- Hezkuntza proiektuak ingurunearen arabera eman behar die lehentasuna sustatu beharreko balioei eta landu beharreko gaiei. Hori dela-eta, esku-hartzea ikastetxe bakoitzean arrazionalizatu behar da, joratu beharreko gaiak lehenetsiz eta indartuz. Ez dago egun batetik bestera eginkizun berriak norbere gain hartu eta, gainera, errudun sentitzerik planteatzen diren eskari berriei erantzuten ez jakiteagatik.

Zer baldintza behar dira ikastetxean hezkuntza proiektu jakin bat gauzatzeko?

- Ikastetxearen funtzionamenduan txertatzen den eredu, edo ikastetxeko plana, landu nahi diren balioak eta lortu nahi diren helburuak berriaz zehazten dituena. Ikastetxeak eredu hori instituzionalizatzea. Hau da, ikastetxeak, erakunde gisa, eredu hori bere egitea; hezkuntza proiektuaren, tutoretza planaren, ordezkarien batzordearen eta ikasgeletako ordezkarien bitartez islatzea; ikastetxearen funtzionamenduari buruzko barne araudia- ren edo eskola kontseiluaren bitartez ere islatzea.

- Ikastetxearen helburuek udal, auzo edo esku-alde proiektuarekin bat etorri beharko lukete. Izan ere, "eskolak ezin du bere kasa hezi".

- Hezkuntza gaitasunak helburuekin bat zehaztu eta arloak, irakasleak, taldeak, etab. gaitasunon arabera antolatzea.

- Tutoreen, irakasle taldeen edo mailen arabera antolatu eta tutorea izatea irakasle taldeetako koordinatzaile. Izan ere, "ikasleak dira garrantzikoak; ez, ordea, ikasgaiak".

- Zuzendaritza batzordearen konpromiso publikoa.

- Koordinazio pedagogikoko batzordeak eta tutoretza sailak hezkuntza proiektua gauzatzen esku hartzea.

- Zuzendaritza batzordea, ikastetxeko orientatzailea, tutoreak eta irakasleak tekniketan eta abilezietan trebatzea.

- Ikasleei eta gurasoei helburuen berri eman eta ikasleek eta gurasoek proiektuan esku hartzea.

- Irakasleek gogoeta egin eta taldean lan egiteko esparruak sortzea, balioak osorik landu eta, gainera, euren kasa lan egiteko duten joera gainditzeko aldera.

Zer aldatu behar dute irakasleek?

- Irakasle guztiek balioen hezkuntzarekiko konpromisoa hartzea ezinbestekoa da eta, hortaz, ezin da norbere borondatearen arabera izan.

- Orain arte, bigarren hezkuntzako irakasleak ez dira hezitzaile izateko ez hezi, ez trebatu.

- Hezkuntzaren muina ikasleen eta irakasleen arteko harremana da eta izan beharko da eta, horregatik, oinarrizkoa da irakasleak metodologia didaktikoan eta gizarte eta hezkuntza abilezietan trebatzeko inbertitzea, honako helburu hauek lortzearen:

- Jarreraz aldatzea, ikasleen iritzia entzun dadin bultzatu eta ikasleekiko elkarrizketa eta lankidetzaren sustatzearen, eredu autoritarioak baztertuz

- Irakaspeneko eta doktrinamenduzko harremanen ordez, laguntzazko, orientaziozko, onespenezko eta balioespenezko harreman afektiboak sortzea ikasleen eta irakasleen artean

- Pedagogian, psikologian eta gatazkak konpontzen egokiro trebatu eta aniztasunari erantzutea

- Balioen hezkuntza, batik bat, adibideetan eta erreferentziazko eredu imitazioan oinarritzen dela ez ahaztea

- Bigarren hezkuntzako irakasleak balioetan heziak izateko moduan daude, ikastetxeetako egoera gero eta gatazkatsuagoa dela eta alor hauetan hasierako trebakuntzarik ez dutela antzematen baitute. Ildo horretan, trebakuntza mota hori unibertsitateko ikasketen hasieran eman behar da.

- Unibertsitateak askoz ere eginkizun aktibagoa izan behar du irakasleen etengabeko trebakuntzan.

Nola aldatu beharko litzateke hezkuntza sistema irakasleek aldatu beharra euren gain hartzeko?

- Ikastetxeek autonomia handiagoa izan behar dute ikastetxea bera antolatu eta kudeatzeko, curriculum, hezkuntza gaitasunak eta barne antolamendua hezkuntzaren helburuetara egokitzearen.

- Ikastetxeak kudeatzeko sistema aldatu behar da: zuzendaritza batzordearen lana indartu eta lagundu behar da, eta beharrezko eskumenak eman behar zaizkio, profesionalen eragingarritasuna sustatu eta hezkuntzaren helburuak argi eta garbi lantzen ez diren (edo hezkuntzaren helburuak lantzea galarazten den) egoeretan esku hartzea.

- Irakasle talde txikiagoak sortu behar dira, 10 irakasleren artean ez dagoelako ikasleak hezterik.

- Funtzio publikoari buruzko estatutuak neurriak ezarri behar ditu, lanpostuak hornitzeko sistemak hobetu eta irakasle talde egonkor eta eragingarriagoak sortzeko.

- Eskola kontseiluen inguruko egungo sistema aldatu beharko litzateke, errealista eta eragingarriagoa izan dadin.

- Ez litzaioke baliabide ekonomiko bat ere erabiltzeari utzi behar etorkizuneko herritarrak hezterik.

Zer sistemaren bitartez susta daiteke jokatze zuzena?

- Oso gutxi ikertu da hezkuntza ereduak eta hezkuntza arloko esku-hartzeak balioen eta jarrearen aldaketan duten benetako eraginari buruz.

- Hezkuntza ereduak eta hezkuntza arloko esku-hartzeen eragingarritasunari buruzko ikerkuntzan inbertitu beharra dago eta, horretarako,

ezinbestekoa da hezkuntza departamentuen eta unibertsitateen arteko lankidetzak.

- Irakaskuntzako profesionalek elkarteak sortu eta sarean lan egitea bultzatu behar da, jokabide zuzenaren inguruko esperientziak, materialak, etab. trukatzeko bilguneak sustatuz.

Bilerari jarraipena emateko proposamenak

- Ikastetxeetara hurbiltzen ari garen Nafarroako elkarte eta erakunde guztien artean gutxieneko curriculum hitzartzea, balioen hezkuntzari buruzko edukiak dituen, ikastetxeak eduki berriez eta lortu ezin dituzten helburuez ez jostearren.

- Nafarroako zenbait ikastetxe probatzen ari diren ereduak ("Bizikidetasunaren kudeaketa") abiapuntu gokia izan liteke.

4.1.6. GIZARTEAK BIZIKIDETZAN HEZTEAREN ALDE EGITEKO ESTRATEGIA

Gazteak eta nerabeak gero eta indarkeria ekin-tza gehiagotan nahasten dira, eta gizartea gero eta kezkatuago dago horregatik. Areago, bizikidetzak arazoak eta tratu txarrak eskolara ere heldu dira, eta horrek izugarri kezkatzen ditu gurasoak eta irakasleak.

Aditu guztiak bat datoz hezkuntza proiektu osoa planteatu behar dela indarkeriari aurre egiteko, ikuspegi sozial eta prebentziozkoa izan den duena, bizikidetzak balioak sustatuko dituen eta gizarte osoa erakarriko duena ahaleginera.

Izan ere, eskolak ezin du hezkuntza prozesua osatu berez eta, horregatik, erakundeek euren jarduna koordinatzeko gomendatzen dute adituek, giro egokia sortu eta gizarte osoak har dezan bere gain hezkuntza arloan duen erantzukizuna. Alde horretatik, irakasleek gizartearen zilegitasun eta babes moralak behar dute, eta gurasoek, irakasleek eta komunikabideek mezu koherenteak helarazi behar dituzte.

Behar hori ikusirik, arartekoak eta Unibertsitate Publikoko errektoreak baterako ekimena antolatze-ko proposatu diete zuzenean Hezkuntza kontseilariari, Parlamentuko lehendakariari, Udalen Federazio-ko lehendakariari, Prentsaren Elkarte-ko lehendakariari, guraso elkarteetako lehendakariari, institutu-ko zuzendariari, Eskola Kontseiluko lehendakariari eta Gazteriaren Kontseiluko lehendakariari, gizarte osoa bizikidetasunean hezteko gizarte proiektuan murgiltzen ahalegintzeko.

Honako erakunde hauek hartu dute parte ekimenean:

- Nafarroako arartekoak

- Nafarroako Unibertsitate Publikoak
- Nafarroako Gobernu-ko Hezkuntza Departamentuak
- Bigarren Hezkuntzako Institutuetako Zuzendarien Nafarroako Elkarteak
- Nafarroako Eskola Kontseiluak
- Guraso Elkarten Konfederazioak (CONCAPAK)
- Herri-ko Guraso Federazioak
- Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak
- Nafarroako Prentsaren Elkarteak
- Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioak

Erakunde bakoitzari, arartekoak hainbat ekimen sustatzeko konpromisoa hartzeko eskatu dio, gizarte osoak bizikidetzan hezteak bultzatzeko erantzukizuna har dezan bere gain.

Era berean, helburu hori bera lortzeko, gizarte-ak bizikidetzan heztearen alde egiteko estrategiei buruzko lantegia egin da 2005eko azaroan Nafarroako Unibertsitate Publikoan, eta aipatu erakunde horiek guztiek hartu dute parte. Gainera, ekimenaren berri eman zaie Parlamentuko taldeei eta komunikabideei, ezinbesteko iritzi baitiogu euren lankidetzari.

Arartekoak eta Unibertsitate Publikoko errektoreak inauguratu dute lantegia eta Nafarroako Gobernu-ko Hezkuntza kontseilariak eman dio amaiera, eta ekimenean parte hartu duten erakunde guztietako ordezkari nagusiek hartu dute parte bertan: gizarteak bizikidetzan heztearen alde egiteko estrategiak babestu dituzte eta euren eskumeneko esparruetan ekimen espezifikoak gauzatzeko konpromisoa hartu dute.

Berebat, Burgosko eta Gijongo udalen esperientziaren berri jakin dugu lantegiari esker; hain zuzen ere, hiriok gailendu egin dira, herritartasunean eta bizikidetzan hezteko proiektuetan parte hartze aktiboa izan dutela eta.

Arartekoaren eta parte hartu duten erakundee-tako arduradunen artean egindako bileren eta lantegiaren esparruan emandako hitzaldiaren ondorioz, honako printzipio hauek hitzartu dira:

Erakundeak koordinatzeko ekimena

Estrategia koordinatu eta aktiboa gauzatu beharra azaleratu da, gizarteak bizikidetasunean heztearen alde egin dezan eta irakasleek gizartearen babes moralak izan dezaten, eta, horretarako, beharrezko jo da

- Baterako adierazpena egitea, Nafarroako gizarteak modu aktiboan egin dezan bizikidetasunean heztearen alde eta irakasleen lana berariaz babes dezan, eta ekimenari ahal bezainbeste erakunde eta elkarte publiko eta pribatu atxiki dakizkion bultzatzea.

- Irakasleen lana eta bizikidetasunean hezteko estrategia jendaurrean babesteko aho bateko adierazpena egin dezaten proposatzea Parlamentuko taldeei.

- Udalak estrategiari atxiki dakizkion bultzatzea, bizikidetasunean hezteko udal kanpainak jarritz abian.

- Esku-hartze aktiboa izan dezaten eskatzea komunikabideei, euren lankidetzaz ezinbestekoa delako gizarte guztiok hezkuntza arloan dugun erantzukizunaz ohartarazi eta hezkuntza prozesuaren errealitate konplexua modu positibo eta arduratsuan, alarmismoan erori gabe transmititzeko.

- Bizikidetasuna Hobetzeko Plana (Hezkuntza Departamentuak irakasle taldeei beharrezko babesa emateko onartutakoa) indartu eta, hartara, Nafarroako ikastetxe guztietara hedatu eta bertan modu eragingarrian aplikatu dadin bermatzea.

- Irakasleak pedagogia arloan osorik (bizikidetasunaren, balioen hezkuntzaren, abilezia sozialen eta emozionalen eta entzumen aktiboaren alorrean) trebatzeko jarduerak indartu eta unibertsitateko ikasleek alor horietako gradu aurreko ikasketak egin ditzaten bultzatzea.

- Hezkuntza ez-formalaren alorreko gizarte ekimenak, aisialdiko jarduerak eta gazte bitartekoan lana sustatu eta babestea.

- Gurasoen heziketa lana babesteko ekimenak gauzatzea.

- Gurasoak ohartarazi eta motibatu eta hezkuntza prozesuan esku har dezaten bultzatzeko zuzeneko eta zeharkako estrategiak formulatzea.

- Ikus-entzunezko komunikabideek balioak, kontrabalioak eta jokabideak transmititzen dituzten aldetik, gizarteak komunikabideon garrantziaren eta, horrenbestez, seme-alabak komunikabideok arduraz erabiltzen lagundu behar diren kontzientzia hartzea.

- Bere eginen badituzte, ikasleek bizikidetzaren arauak, ikasgelako itunak, elkarren arteko itunak, etab. egiten parte har dezaten bultzatzea, zigorrak eta erlaziozko neurriak ere ezartzen dituen eredu osoa sustatuz gatazkak konpontzerakoan.

- Gizarte bizikidetasunean heztearen aldeko balioak sustatu behar diren ohartarazteko baterako

ekimenak gauzatzen laguntzea, prozesuan esku har dezaten eskatuz gizarte buru nagusiei.

- Haurren eta nerabeen bizikidetasun ohiturak eta jarrerak berariaz ikertzeko jarduerak sustatzea.

- Prozesuaren bilakaeraren eta ekimenean parte hartzen duten elkarteek eta erakundeek hartzen dituzten neurrien eragingarritasunaren urteko jarraipena egitea.

- Konpromisoa har dezaten eskatzea ekimenean parte hartzen duen elkarte eta erakunde bakoitzari, helburu horiek guztiak lortzeko ekintza espezifikoak jartzeko abian nor bere eskumeneko esparruan.

Lantegiaren egokitasuna eta egungo egoera

Lantegia egin ostean, bertan parte hartu duten erakundeek askotariko ekimenak abiatu dituzte gizarte gai honen kontzientzia harrarazi eta esku hartu egin dezaten bultzatzeko.

Ildo horretan, oker bada ere “eskolako indarkeria” deitu izan den arazoa etengabe agertu da azken hilabeteotan komunikabideetan, eta arartekoak proposatutako ekimena egokia dela eta indarrean jarraitzen duela adierazi du berriro ere horrek.

Bestalde, Hezkuntza Departamentuak, guraso elkarteek, Eskola Kontseiluak, eta abarrek hainbat jardunaldi antolatu dute bizikidetasunaren printzipioak eta balioak sustatzeko eta, asko badago ere egiteke, badirudi hasiak garela bide egokia egiten.

Azkenik, urteko txosten hau idazten ari garenerako, badugu Parlamentuko taldeei proposatu eta guztion artean hitzartu nahi dugun erakunde adierazpenaren zirriborroa, eta komunikabideen eta irakaskuntzako profesionalen artean eta guraso elkarteetan eta udalen artean jardunaldi bana antolatzea ikusi dugu aurrez, gizarte bizikidetasunean heztearen alde egin dezaten sustatzen jarraitzearen.

LANTEGIAN AZALDUTAKO GAIEN LABURPENA

Eskolako gatazken kopuruaren eta muntaren hazkundea gizartearen baitako indarkeriaren hazkunderekin lotu ohi da eta, ildo horretan, gero eta larritasun handiagoa eragiten du. Kezka hori plazara ere ateratu da eta, ondorioz, norbaitek zerbait egin beharko lukeela aditzen dugu sarritan.

Gizartearen baitako indarkeriaren hazkundea

- Gizartearen baitako indarkeriaren arrazoiak konplexuak dira, baina azkenaldian gora egin izana badirudi gure inguruko gizarte ereduaren eta

gure gizarteak transmititzen dituen balioen eta kontrabalioen fruitua izan dela; izan ere, gizarteak ez du asmatu erantzukizunean eta giza balioen banakako eta taldekako errespetuan oinarritutako printzipioak ezartzen gehiegizko autoritate printzipioen orde.

Gazte indarkeria, berriz, gazteek bizitze eta gizarteratze prozesua gauzatzen duten esparru guztietan jazotzen da; ez, ordea, eskolan bakarrik edo eskolan nagusiki. Izan ere, indarkeria eragiten duten arrazoiak eskolatik kanpokoak dira eta ikasle kopuru txiki batengan dute eragina, baina oso egoera kezagarriak sortzen dituzte eta, kontzentrazioaren ondorioz, ikusgarriagoak dira eskolaren esparruan.

Egoera horri guztiari aurre egiteko, gizarteak eskolara jotzen du beti erantzun bila, eta egoera horren gaineko errua egotzi ere egiten dio; badirudi ahaztu egiten duela ikasleak, ingurune horretan ez ezik, beste ingurune batzuetan eta beste bide batzuen bitartez ere hezten direla. Alde horretatik, eskolak apustu garbia egiten du bizikidetasunean heztearen alde baina, maiz, bakarrik sentitzen da ahalegin horretan.

Gizarte konplexua sortu da eredu bakarrean oinarritutako gizarteraren orde. Garai berriak autonomia, askatasun eta berdintasun balio berriak ekarri ditu. Ez ditugu inola ere gutxietsi behar, positiboak dira, baina, aldi berean, familia antolatzeke modu berria, familia zaintzeko denborarik eza, familiartereko heziketa ereduaren krisialdia eta komunikabideek transmititzen dituzten gizarte kontrabalioak gurasoek seme-alabei mugak ezarri ezina eragiten ari dira erlatibismoa nagusi den honetan.

Halako mundu konplexuan, heztea askoz ere zailagoa da, gurasoen eta irakasleen artean hezkuntza dela-eta dagoen nahasmendua lekuko.

Gero eta gatazka gehiago eskolan

Oro har, eskolan ez dago indarkeriaz hitz egiteko berez, gero eta gatazka gehiagoz eta diziplinari eza handiagoaz baizik, baina, hainbatetan, komunikabideen arreta bereganatzen duten gertakari izugarriak jazotzen dira, eta komunikabideok haien berri ematera behartuta daude.

Ildo horretan, bizikidetasun arazoak eta bullyinga betidanik existitu dira hezkuntza arloan baina, zorionez, gizarte kontzientzia handiagoa hartzen ari da azken urteotan arazo horiek guztiak direla eta.

Komunikabideen arreta bereganatzen duten gertaera nagusiak ohiz kanpokoak dira batez ere, baina ikasleen artean gehiegizko eta menderakun-

tzazko jarreraren ondorioz jazotzen diren bizikidetasun arazo eta tratu txar tradizionalak dituzte oinarri. Gehiegizko eta menderakuntzazko jarrera hori fenomeno orokorragoa da ez bairik gabe baina, zorionez, isilpekoa izateari utzi dio azken urteotan eta psikologia, hezkuntza eta gizarte arloko benetako arazo bilakatu da, errotik kendu beharrekoa.

Edonola ere, funtsezkoa da nabarmentzea gurasoek uste dugula ikastetxeak elkarrekin bizi-tzen ikasteko tokiak direla; uste dugu ikastetxeak indarkeria gune direla erakusten duen irudia ez datorrela bat errealitatearekin, bestela, seme-alabak ez genituzkeelako bertara eramango.

Gizarteak bizikidetasunean heztearen alde egitea, indarkeriaren aurkako antidotoa

Aditu guztiak bat datoz hezkuntza proiektu osoa planteatu behar dela indarkeriari aurre egiteko, ikuspegi sozial eta prebentziozkoa izan den duena, bizikidetzaren balioak sustatuko dituen eta gizarte osoa erakarriko duena ahaleginera.

Gogorarazten digute eskola ez dela nahikoa bere kabuz eta, haurrak hezteko, tribu osoa behar dela. Behin eta berriro esaten digute gizarte kontzientzia aktiboa hartu eta esku-hartze aktiboa izatea ez dela nahikoa egun hurrei eta nerabeei transmititzen dizkiegun balioak modu esanguratsu batean aldatzeko.

Dena dela, guztiok legez eta demokratikoki aukeratu eta onartzen ditugun arau garbiak xedatzen dituen, gurasoek eta irakasleek haurrak gizarteratzeko eginkizuna dutela argi eta garbi duten eta haurren iritzia aintzat hartzen den giroan, pentsatzekoa da indarkeriazko arazo gutxiago sortuko direla pertsonen artean arau arbitrario, inkoherente eta bidegabeko gizarteran baino.

Horrenbestez, ezinbestekoa da gizarteak bizikidetasunean heztearen alde egin dezan lortzeko estrategia abian jartzea baina, horretarako, erakunde guztiek eta gizarte eta ekonomia arloko estamentu guztiek hartu behar dute parte, guztiok garen neurrian egungo egoeraren arduradun. Prebentzio neurriak hartzeko garaiz gabiltza oraindik, baina ezin dugu denborarik galdu.

Gurasoen erantzukizuna eta esku-hartzea

Guztiz beharrezkoa da gurasoek gure seme-alabak heztearen arduradun nagusiak garela uler dezagun: gurasoek modu jakin batean (ongi ala gaizki) hezi ditugulako dira diren bezalakoak. Ildo horretan, irakasleen eginkizuna garrantzi handikoa da baina, edonola ere, osagarria.

Gure haurrak eta nerabeak besterenganako (hala nola, desberdina edo ezindua denarenganako) errespetuan hezi behar ditugu baina, batik bat, botere abusuak eta irainak biktimarengan pizten dituen sentimenduekiko eta saminarekiko enpatia sustatu behar dugu.

Muga argiak ezarri behar dizkiegu seme-alabei eta, batez ere, muga horiek beharrezkoak zergatik diren ulertzen lagundu behar diegu.

Euren ekintzen gaineko erantzukizuna indartu behar dugu gure haurren eta nerabeen artean, eta inola ere ezin diegu garrantzirik kendu euren gehiegikeriei, "haur kontuak" direlakoan.

Era berean, kontzientzia harrarazi behar diegu gehiegikeriak jazotzen jarraitzeko bide ematen dugula gure isiltasunaren bidez eta horren ardura guztiona dela.

Ezinbestekoa da administrazioak eta gizarte osoak erabakitasunez babestea familiak hezkuntza prozesuan parte hartzea eta gurasook argi eta garbi izatea funtsezkoa dela gure seme-alaben ikastetxeko hezkuntza eta bizikidetza planetan eta arauetan parte hartzea.

Gurasoek areago hartuko badute parte, beharrezkoa da hezkuntza sistemak hezkuntza arazoak konpontzen laguntzen diela antzematea. Izan ere, inork ez ditu horretarako trebatu, baina guraso eskolak irtenbide bat izan liteke.

Ildo horretan, gurasoek esku har dezaten lortzeko, zeharka hurbiltzeko estrategiak erabili beharko genituzke, alarmismorik piztu gabe. Izan ere, gurasook badugu interesik telebista, Internet eta bideo jokoak zuzen erabiltzeari buruzko argibideak eman diezazkiguten edo irakasleak gurekin bil daitezten ikasturte hasieran, ikastetxeko arauak edo bizikidetasun planean parte hartzeko modua argitzearren.

Ikus-entzunezko komunikabideen ardura balioen eraketan

Ikus-entzunezko komunikabideek gazterari proposatzen dizkioten mezu eta erreferentziazko eredu nagusiak arrakasta merkeari, azalkeari eta errealitatetik ihes egiteari buruzkoak dira. Lan merkatuak, ordea, prestakuntza handia, lehiakortasuna eta bizirik jarraitzeko banakako borroka saritu eta eskatzen du. Hau da, zentzugabekeria izugarria egiten dugu: gazteak erosotasunean eta ahalleginik ezan hezi baina, ondoren, ikaragarri lehia-korra eta latza den gizartean barneratu.

Esate baterako, 4tik 12 urtera bitartek haurrek eskolan ematen duten ordu kopurua telebista ikusten ematen duten ordu kopuruaren kopuru bera

da. Denbora horretan, haurrentzako programek programa guztien % 25 baino ez dute egiten eta, gainera, gurasoen bi herenek argi eta garbi onartzen dute ez dituztela kontrolatzen euren seme-alabek ikusten dituzten programak.

Hezkuntza sistemaren erantzukizuna

Eskola esparru ezin egokiagoa da kultura arteko bizikidetza sortzeko eta, hortaz, hezkuntza sistemak bizikidetza hori gauzatzeko beharrezko balibide guztiak erabili behar ditu.

Hezkuntza sistema herritartasunean heztearen alde egiten ari da jada baina, orain arte, eskola bakarrik sentitu da ahalegin horretan. Ildo horretan, irakasleek diote etengabeko tirabirari egin behar diotela aurre zenbait gurasorekin eta, tirabirari horretan, aginpiderik gabe, prezioz gainezka eta kontrolatuta sentitzen direla. Ondorioz, gizartearen berehalako babes morala aldarrikatzen dute.

Azken batean, bizikidetza gizartearen eraikuntza da. Harremana baldin badago, gatazka ere dago eta, beraz, inoiz gertatu beharreko gatazkei aurre egiten jakin behar dugu eskolan. Horretarako, hobetu nahia izan behar dugu helburu eta hezkuntza arloko aukeratzat hartu behar ditugu.

Eskolako bizikidetza arazoei aurre egiteko, finean, bizikidetza planak egin behar ditugu, eredu orokor eta osoa hartuta oinarri: orokorra, hezkuntzan parte hartzen duen erkidego osoa (ikasleak, gurasoak eta irakasleak) bereganatu behar duen aldetik, eta osoa, prebentzioa, harremanak eta, azkenik, sistema hertsagarriak biltzen dituen aldetik.

Gatazkei harremanen ikuspegitik heltzeko, euren arteko desadostasunak ebazten lagundu behar zaie gatazkan murgildu diren alderdiei baina, horretarako, haurrak eta nerabeak abilezia sozialetan eta emozionaletan hezi behar dira; gainera, heziketa horrek hezkuntza osoa ere osatzen du, zalantzarik gabe, prebentzio efektua duenez gero.

Hezkuntza sistemak aginpide positiboa sustatu behar du, haurra gizabanako edo taldekide gisa garatzen laguntzeko helburua duena benetan, baina hori ez da posible eskola ez bada ingurunean txertatzen. Alde horretatik, eskola erkidegoaren zati bat delako ideia sendotu behar dugu, eta hezkuntza prozesuan erkidego osoak parte hartu behar duelakoa.

Azken batean, mugak ezarri eta bizikidetza arauak bete beharra ulertzen lagundu behar diegu gazteei, eta muga eta arau horiek xedatzen parte hartzen irakatsi behar diegu, prozedura demokratiko eta partaidetzazkoen bitartez.

Komunikabideen eginkizuna gizartea ohartaraztea dela eta

Eskolako bullyingari buruzko informazioa oso egokia izan daiteke gizartea eta, batik bat, ikasleak eurak haren garrantzia ezin arbuiauz eta gehiegikeria eta menderakuntza mota oro baztertu beharraz ohartarazteko.

Komunikabideek ematen duten informazioak arazoa konpontzen lagunduko badu, baina, zorroztza izan eta behar bezala bereizi behar du eskolako gatazken eta diziplinari ezaren (eskolako bullyingaren) eta gizartearen baitako indarkeria areagotzearen artean, arrazoi batzuk komunak izan badaitezke ere, oso bestelako fenomenoak direlako bata bestearen aldean:

- Ez du alarmismoan erori behar.
- Arazoa ez du eskolan bakarrik ardatzu behar.
- Ez ditu ikastetxe eta talde jakin batzuk estigmatizatu behar.
- Eskolako bullyinga orain arte ezkutuan egon den eta, gizarteak arazoaren kontzientzia handiago hartu izanari esker, deuseztatu egin behar den fenomeno dela adierazi behar du.
- Eskolan gatazkarik edo indarkeria handiko egoerarik jazotzen bada, ez du xehetasun morbosorik eman behar, arazoa konpontzen ez laguntzeaz gain, salatzen diren ekintzak imitatze gogo piztu ere egin dezakeelako horrek, berriaren protagonista bihurtu nahi izate hutsagatik.
- Ez ditu alde batera utzi behar bizikidetzaren alderdi positiboak eta bizikidetasunezko giroa berreskuratzeko egindako ahaleginak.
- Gizarte osoak bizikidetasunean eta besterenganako errespetuan egokiro hezten esku hartu eta ardura hori onar dezan saiatu behar du.

Ikasleak, euren hezkuntzaren erantzunkide

Adinarekin bat, ikaslea bere hezkuntzaren erantzunkide sentitzen ez den artean, ezer gutxi dugu egiteko.

Izan ere, beharrezkoa da ikasleek sentitu egin dezaten bizikidetzaren garrantzizkoa dela, barne funtzionamenduari buruzko arautegia euren ere badela. Horretarako, ostera, prozesuan esku hartu behar dute, ikasgelako itunak eta elkarren arteko itunak ere egiten saiatuz.

Ez da nahikoa mugak ezartzea. Aitzitik, muga horiek beharrezkoak zergatik diren ulertzen lagundu ere egin behar zaie.

Azken finean, ikasleen eta irakasleen artean errespetuzko eta partaidetzazko giroa izatea ezin bestekoa da proiektuak arrakasta izanen badu.

Udalek bete dezaketen eginkizuna

Hiri Hezitzaileen Gutunak adierazten duenez, "hiriek, bai handiek eta bai txikiek, inoiz baino aukera gehiago dituzte hezteko".

Hori dela-eta, udalak bizikidetasunean hezteko proiekturen batean murgil daitezke, eta horixe egin behar dute, banakoarengandik hurbilen dagoen administrazioa osatzen dutelako eta, gainera, eskumen esanguratsuak dituztelako, besteak beste, segurtasunaren, gizarte zerbitzuen, gizarte sustapenaren eta gizarteratzearen, kulturaren, kirolaren, aisialdiaren, irakaskuntza sustatzearen eta nahitaezko eskolatzea bete egiten dela zaintzearen alorrean. Orobat, enpleguaren, gizarteratzearen, drogaren aurkako borrokaren eta gizarte eta kultur dinamizazioaren alorrean ere lantzen dute programarik.

Hau da, udalak euren gaitasunak aplikatu edo indartzeko moduan daude, indarkeriaren kultura errotik desagerrarazteko eginkizun komunean laguntze aldera, eta, horretarako, kultur, kirol eta aisialdi arloko programak dituzte eta, hainbatetan, baita Gazteria zinegotziak ere.

Berebat, gizarte eta kultur arloko eta enplegu arloko animazio programak ere dituzte, une jakin batean sistemak laguntzea behar dutenek aurrera egiteko, eta gizartea ohartarazi, informatu eta mobilizatzeko kanpainak abian jartzeko gaitasuna ere dute.

Azkenik, udaltzaingoa dugu, hurbiltasuna (hala hitzez hitz, nola hitzaren adierarik zabalenean) aintzat hartzeko moduko balio erantsi bihurtzen duena.

Udalek abian jar lezaketen programaren adibide gisa, konpromiso formala onartzeko proposa liezaioke lehenik eta behin osoko bilkurari, gizarteak bizikidetasunean heztearen alde egiteko foru estrategiaren esparruan lan egiteko. Proposamen horrekin batera, udalerriko egoeraz hausnartu eta hura ikertu ere egin beharko lukete, eta baita hainbat ekimen espezifiko abian jarri ere.

Udalen Federazioak, berriz, ekimen honi atxikitzen zaizkion udalek gauza litzaketen ekimenen zerrenda aztertu eta egin lezake.

Hezkuntza ez-formala: aisialdia

Ikastetxe batzuk, irakasle batzuk, emakumeak laguntzeko zentroak, osasun etxeak, gazte elkarteak, gobernuz kanpoko erakundeak, prebentzio taldeak, haur eta gazte taldeak, elkarteekin jarduten

direnak eta gizarte zerbitzuak egiten ari diren lana itzela dela onartu beharra dago.

Hala ere, apustu argiagoa egin behar da auzo-etako haur eta gazte elkarteetan, aisialdiko heziketa-aren, hezkuntza ez-formalaren alde, ezinbesteko lana egiten dutelako gizartetik kanpo geratzeko arrisku gehien duten taldeekin. Horretarako, bitarteko eta diru laguntza gehiago eman behar zaizkie, eta gazteentzako guneak eta baliabideak gehiago aprobetxatzeko politikak aplikatu behar dira.

4.1.7. HAURRAK INTERNETEN AURKA BABESTEKO KANPAINA

2005eko azken hiru hilabeteetan, arartekoak eta Protégeles elkarteak hainbat ekimen jarri dute abian, haurrak Interneteko eduki desegokiak aurka babesteko arauak zabaldu eta gurasoak bitarteko horrek hezkuntza arloan eskaintzen dituen aukera guztiak segurtasunez baliatu beharraz ohartarazteko.

Europako Kontseiluak berak ere adierazi du kezka gai honen inguruan, eta erantzukizuna guztioi dagokigula gogorarazi digu: sarriegitan euren seme-alaben kontsumo mediatikoaren gaineko erantzukizuna alde batera uzten duten gurasoei, bete lezakeen eta bete beharko lukeen eginkizun hezitzailea betetzen ez duen eskolari eta, dudarik gabe, sektore hau neurri batean edo bestean arautu beharko luketen administrazioei.

Era berean, joan den urrian autonomia erkidegoetako eta Espainiako arartekoa koordinatzeko jardunaldiak egin dira Alacanten, eta haurren eskubideak babesteari buruz bakarrik jardun dute. Bertan ondorioztatu denez, haurrak teknologia berrien eta, bereziki, Interneten arriskuen aurka hobeto babesteko neurriak onartu behar diren kontzientzia harrarazi behar zaio gizarteari.

Izan ere, mundu globalizatu honetan, Internet ezinbesteko bitarteko bilakatu da, eta hezkuntza eta kultur arloa ekarri dituen onurek mugari historikoa finkatu dute gizakiaren bilakaeran, inguruko errealitatearen gaineko pertzepzioa eta ulermena aldatu eta handiagotu baitute.

Hala ere, Internetek haurrentzat dituen abantailak ukaezinak diren neurri berean, arriskuak ere halakoxeak dira, euren heziketan desegokiak edo arriskutsuak diren edukiak ugaritu egin direlako. Haurrek teknologiaren aukerak baliatu dituzte, eta bakarrik nabigatzen dira guraso askori guztiz arrotza zaien harreman eta ezagutza mundu berri batean.

Galdekatu egin diren Europako haurren % 41 eduki kaltegarri eta galgarrietan (pornografia arloaz kanpokoetan ere) barrena ibili dira sarean, nahi gabe. Izan ere, ugariak dira indarkeriazko edukiak eta eduki arrazistak eta xenofoboak dituzten orrialdeak, bulimiaren eta anorexiaren apologia egiten dutenak, etab. Era berean, Internet bidezko delinkuentziaren ugalketa ere oso arriskutsua da haurrentzat.

Haurrek argi eta garbi sexuaz mintzatzen diren txatetan eta eztabaidetan parte hartzen dute sarri eta, bertan, jazarri egiten zaizkie edo, guztiz tolesgabe, euren datuak ematen dituzte. Ildo horretan, inkesta erantzun duten 10 urteko haurren % 10ek esan dute hitzordua egin dutela Internet bidez ezagutu dituzten pertsonekin.

Haurrek Interneten aurki ditzaketen arrisku gehienak ez dira berriak, baina bai, ordea, askoz handiagoak eta, batez ere, ugariagoak, balizko harremanen kopurua etengabe hazi da eta. Gainera, milaka orrialde berri sortzen da egun batetik bestera eta, ondorioz, izugarri zaila da guztiak kontrolatzea.

Internet enparantza publiko itzel batera begira dagoen leihoa da eta, hari esker, gure seme-alabek harreman berriak sor ditzakete, edozeri buruzko informazioa eskura dezakete, edonor ezagut dezakete eta edozer ikus dezakete.

Gurasook seme-alabak mundu errealean egoera arriskutsuei aurrea hartzeko gai izan daitezen hezteko kezka izan dugu beti eta arrotzekin ez hitz egiteko, ezezagunen oparirik ez hartzeko eta seguruak ez diren kaleetan ez ibiltzeko esan diegu behin eta berriro baina, sarritan, ez gara arduratzen Internet bidez dituzten harremanez.

Ulertu beharra dago, egun, Internet mundu erreala dela gure seme-alabentzat. Kanean dagoen guztia Interneten ere badago; dena: bai ona, bai txarra. Gure seme-alabak, ordea, euren gelan bakarrik daudela sartzen dira askotan Interneten, batere kontrol edo aholkularitzarik gabe eta, hainbatetan, oso txikiak direla.

Egoera hori ikusirik, arartekoak eta Protégeles elkarteak haurrak Interneten aurka babesteko kanpaina jarri dute abian, honako helburu eta ekintza hauek finkatzen dituena:

HELBURU NAGUSIA

- Gurasoek, hezitzaileek eta haurrek eurek Interneteko arriskuen aurka babesteko moduari buruz duten ezagutza hobetzea, bitarteko horren aukera paregabeak hobeto baliatu ditzaten.

EKINTZAK

- Gizartea ohartarazteko publizitate kanpaina
- Arazoa ezagutarazteko mahai ingurua
- Ikasleei eta gurasoei arazoaren berri emateko solasaldiak antolatzea ikastetxeetan
- Ziberzentro eta liburutegi publikoetan haurrak Interneten ibiltzeko aukerak arautzeko proposamena

GIZARTEA OHARTARAZTEKO PUBLIZITATE KANPAINA

Eguberriekin bat, arartekoaren erakundeak publizitate kanpaina jarri du martxan. Kanpainaren eslogana “Bakarrik utziko al nauzu?” izan da, eta helburuak honako hauek izan dira:

Helburu espezifikoak

Gurasoak Internetek eskaintzen dituen aukera onuragarriez eta gurasoen eta seme-alaben arteko eten digitala txikiagotu beharraz ohartaraztea

Haurrak nahi ez ditugun edukien aurka babesteko aholkuen eta bitartekoen berri ematea

Ekintzak

Xede biztanleria: 13 urtetik beherako haurren gurasoak

Publizitatearen bitartekoak: honako gidoi hau izan duten iragarki laburrak ematea irratian.

Soinua/giroa

Familia bat afaldu egiten ari da sukaldean, mahai tresnak entzuten dira... Bat-batean, agindu bat entzun da: “Eseri ondo!”

1. pertsonaia [haur ahots nabarmena duen haurra]
“Aita, ama, afalondoan ezagutzen ez dudan norbaitekin leku batera joatekotan gelditu naiz. Denerarik omen dago han!”

2. pertsonaia [aita edo ama]
“Zer?”

1. pertsonaia [haur ahots nabarmena duen haurra]
“Bai, Interneten ibiliko naiz!”

1. esataria

“Seme-alabak mundu errealean babesten badituzu, zergatik ez dituzu Interneten babesten? Ibil zaitezte batera mundu berri horretan, eta lagun iezaiezu seguruago nabigatzen!”

2. esataria

Nafarroako arartekoa. “Haurren alde!”

Gurasoek haurrak babesteko neurrien berri ematen duten 120.000 informazio diptiko argitaratu eta tokiko prentsan tarteko gisa banatzea

Kanpainako 5.000 kartel argitaratu eta banatzea

Kanpainaren kostua 12.000 eurotik gorakoa izan da, eta Nafarroako arartekoak ordaindu du osorik.



Diptikoak arriskurik ohikoenetako batzuei buruzko oinarriko informazioa ematen zuen, eta Interneten seguruago nabigatzeko aholkuak ere ematen zituen.

PADRES, HIJOS E INTERNET

Sea consciente de que a través de Internet sus hijos e hijas acceden a un nuevo mundo de relaciones y conocimientos. Las ventajas de Internet son indiscutibles, pero los padres y madres no debemos olvidar que:

- Un 41% de los niños acceden, sin buscarlos, a contenidos inadecuados.
- El 25% de los menores facilitan ingenuamente datos personales a través de Internet
- Un 15.5% de los alumnos/as de Primaria y un 47.5% de los de ESO se ha sentido acosado/a sexualmente en los Chats.
- Un 10% de los menores ha acudido solo a una "cita a ciegas" con personas que han conocido a través de Internet.

Trate de conocer y usar Internet para poder compartirlo con ellos. Pero si esto no es posible, sepa que los principios y actitudes que trata de inculcarles cuando se relacionan con su entorno, son perfectamente válidos para Internet:

- Establezca unas normas razonables de uso y tiempo dedicados a Internet.
- Mantenga un diálogo constante sobre sus experiencias en Internet.
- Aconséjele que no hable con extraños y evite los lugares peligrosos.
- Controle las posibles citas e insístale en que le informe de los intentos de contactar por parte de desconocidos.
- Recuérdle que no debe facilitar fotos ni datos como su nombre, edad, sexo, dirección, colegio, teléfono, etc. a personas o servicios desconocidos.
- Aconseje a sus hijos que no participen en debates o conversaciones agresivos, amenazantes u obscenos.

Si además usted ya es usuario de Internet, haga de su uso una experiencia familiar compartida. Es la mejor manera de ayudarles y protegerles poniendo en práctica algunos consejos:

- Ayúdeles a localizar lugares que se adapten a sus gustos, lugares seguros para niños, navegadores infantiles, como Amiweb, y portales y directorios para niños, como Cuervoblanco, Surfnetkids, Chaval.es, Kids-space, Yahoo!ligans o Kidsdomain.
- Diga a sus hijos que utilicen cuentas de correo gratuitas para tratar con personas o servicios desconocidos y que no faciliten la cuenta personal de su servidor.
- Cree una cuenta nueva de usuario para el niño y si lo cree oportuno instale en ella un filtro de contenidos inadecuados para menores como **Optenet** o **Filtrar**. Si no sabe cómo hacerlo visite las páginas www.navegacionsegura.es o www.internetsegura.net.
- El software de filtrado puede ayudarle también a controlar las horas del día en las que está conectado a la Red. No obstante tenga en cuenta que la utilización de estos filtros –que no son perfectos– no puede sustituir la labor educativa orientada a formar al menor no solo en su uso actual de Internet sino como personas adultas de la sociedad en la que van a vivir.
- Si se encuentran alguna página de contenido racista, que haga apología del terrorismo, que incite a la anorexia, que contenga pornografía infantil, etc. puede realizar una denuncia anónima en www.protegeles.com. Y si necesita ayuda o consejos sobre Internet puede solicitarlos en contacto@protegeles.com.

60

ARAZOA EZAGUTARAZTEKO MAHAI INGURUA

Kanpainaren edukietan sakontze aldera, egoki iritzi zaio arazoaren berri emateko mahai ingurua antolatzea, ikastetxeetako arduradunentzat eta guraso elkarteentzat batez ere.

Helburu espezifikoak

- Gurasoak gai honi buruzko ezagutzan sakondu beharraz ohartaraztea
- Kanpainaren harira finkatutako helburuak eta ekintzak ezagutaraztea
- Ikastetxeetan bertan jarduteko plana eskaintzea gurasoei eta irakasleei

Mahai ingurua abenduaren 20an egin da, Iruñeko Iruña Park Hotelean, eta haurrak teknologia berriek dakartzaten arriskuen aurka babesteko Protégeles elkarteko lehendakari Guillermo Cánovas Gailllemin jauna, Delitu Telematikokoetarako Guardia Zibileko Taldeko komandante Juan Salom Clotet jauna (Espainiako aditu nagusia gaizkile telematikoei jazartzen) eta Benjamin Tudela bigarren hezkuntzako institutuko irakasle eta zuzendari Manuel Campillo Meseguer jauna izan dira bertan.

Agerraldian, Manuel Campillo jaunak azaldu du informazio eta komunikazio teknologia berriak pixkana-pixkana unibertsal bihurtzea mugarri historikoa izanen dela gizakiaren bilakaeran, inguruko errealitatearen eta bizileku duen munduaren gaineko pertzepzioa eta ulermena aldatu eta handiagotuko baitute. Teknologia berriek ekarri duten gizarte iraultza horrek, ordea, ez du eragin berbera guztiongan. Izan ere, "eten teknologiko" delakoaren ondorioz, teknologia berriak euren errealitate pertsonalean eta profesionalean barneratu dituztenak eta, dela adinagatik edo dela gaitasunagatik,

etorkizuneko aukera hori galtzen ari direnak elkarrengandik bereiz daude.

Zoritxarrez, badirudi heldu asko eta asko ez direla ohartzen ari komunikazio teknologia berriek haurren nortasunaren eraketan dagoeneko duten eginkizun erabakigarriaz; izan ere, ez dute trebakuntza eta informazio nahikoa seme-alaben munduan hain presente dauden bitarteko berri hauek erabiltzeko.

Guillermo Cánovas jaunak, berriz, hainbat azterketa aurkeztu ditu. Azterketok egin berriak dira eta, diotenez, Internetek haurrentzat dituen abantailak ukaezinak diren arren, arrisku handiak ere egon badaude, kaltegarriak, desegokiak edo arriskutsuak diren edukiak ugaritu egin direlako esparru honetan. Pornografiaraino gain, indarkeriazko edukiak eta eduki arrazistak eta xenofoboak dituzten orrialdeak, drogazaletasunera eta delituak egitera bultzatzen dutenak, taldekideak suntsitzen dituzten sektetan sartzera bultzatzen dutenak eta bulimiaren eta anorexiaren apologia egiten dutenak ere ugariak dira sarean.

Interneten arriskuak are handiagoak dira haurrek beste pertsona batzuekin zuzeneko harremanak izateko sareko aukerak (eztabaidak eta txatak) erabiltzen badituzte baina, edonola ere, arriskurik handienari txatetako solaskideei euren datuak (hala nola, telefono zenbakia eta helbidea) erabat tolesgabe ematen dizkieten haurrek egin behar diote aurre.

Egia da ez dugula alarmismoan erori behar, baina egia da ere ez dugula errealitatea funsgabea edo hutsala bailitzan tratatu behar.

Hainbat datu aipatu ditu Guillermo Cánovasek, eta honako hauek dira esanguratsuenetako batzuk:

ANTZEMAN DIREN ARAZO NAGUSIAK

Inolako iragazkirik gabe sartzen dira sarean	% 86
Internet ez dute erabiltzen informazio eta heziketa iturri gisa; aisialdia emateko bakarrik erabiltzen dute	% 66
Zailtasunak dituzte haurrentzako berariazko edukiak aurkitzeko	% 60
Inork ez die eman oinarrizko segurtasun arauei buruzko informaziorik eta zailtasunak dituzte internet erabiltzeko	% 55
Txatetan sexualki jazarri zaizkiela diote	% 44
Kopia piratak eta legez kontrako beste ekintza batzuk egiten dituzte internet bidez	% 40
Haurrentzat egokituta ez dauden tokietan sartzen dira interneten (ziberzentroetan)	% 36
Maiz eskuratzen dituzte desegokiak diren edukiak	% 33
Jokabide arriskutsua dute txatetan eta euren datuak (hala nola helbide eta telefono zenbakia) eman dizkiete ezezagunei	% 27
Internet bidezko jokoekiko adikzioa dute neurri batean edo bestean	% 23
Helduentzako berariazko txatetan sartzen dira	% 18
Denbora gehiegi (astean 10 ordu baino gehiago) ematen dute interneten	% 15
Internetekiko adikzioan erortzeko arriskuan dago	% 11
Hitzordua egin dute internet bidez ezagututako pertsonekin:	% 14
Ez diote beste inori aipatu ezezagun batekin hitzordua egiteko asmoa zutenik	% 50
Espero ez zuen beste pertsona bat aurkitu du	% 64
Heldu bat aurkitu du	% 14

Azkenik, Juan Salom jaunak adierazi du gaizkileek berehala ikasi dutela izena eman gabe jarduteko sareko aukerak baliatzen, eta zailtasun tekniko eta juridiko handiak daudela gaizkileei jazartzeko; gainera, delitu asko eta asko Espainiatik kanpo egiten omen dira eta, horrenbestez, mugez haraindiko delituak dira. Bere ustez, ezinbestekoa da Internetek zigorrrik gabeko gunea izateari utz diezaion eta sarean jarduten diren gaizkileei ahal bezain modurik eragingarrienean jazartzea.

Hala eta guztiz ere, hori lortzea ez da nahikoa, haurrentzat kaltegarriak edo desegokiak diren baina legez kontrakoak ez diren gune ugari baitaude sarean. Guneok legezkoak direla-eta, epaileek ezin dituzte zigortu eta, horregatik, funtsezkoa da neurriak hartzea, haurrek halako edukiak eskura ditzaten galarazi edo, gutxienez, eragozteko.

Alde horretatik, haurrek eurek Internet arduraz eta seguru erabili beharraren kontzientzia hartu eta halako jokabideetara ohitzea ezinbestean egin beharreko lana da baina, horretarako, familiek eta ikastetxeek ere esku hartu behar dute.

IKASTETXEETAN BERTAN JARDUTEKO PLANA

Gomendioak ezagutarazte aldera, beharrezko jo da solasaldiak antolatzea Nafarroako udalerrietako ikastetxeetan bertan.

Helburu espezifikoak

- DBHko 2. eta 3. mailako ikasleei oinarrizko segurtasun arauak jakin eta errespetatu beharrraren garrantzia zuzenean azaltzea

- Irakasleei eta guraso elkarteei Interneteko aukerak zuzenean azaldu eta haurrak nahi ez ditugun edukien aurka babesteko aholkuen eta bitartekoen berri ematea

Mahai inguruan bertan, eta baita postaz ere, solasaldiak ikastetxeetan bertan egiteko aukera eman zaie Nafarroako ikastetxe guztiei. Solasaldioak 2006. lehenengo hiru hilabeteetan egin dira, eta arartekoak antolatu eta Protégeles elkarteko profesionalak eman dituzte. Txosten hau egin duguneko, Nafarroako hamabi udaletan baino gehiagotan egin dira baina, nolana ere, 2006ko urteko txostenean emanen ditugu ekimen honi buruzko datuak.

4.1.8. LEHEN HEZKUNTZAKO UNITATE DIDAKTIKO BERRIAK ARGITARATZEA

Aurreko urteetan gauzatutako ekimenaren ildoan, unitate didaktiko berriak argitaratu dira 2005. urtean lehen hezkuntzako ikastetxeentzat. Zehatz-mehatz, honako material hauek ekoitzi eta banatu dira:

Material guztien edukia duen CDA



Paper zorroa
5., 6., 7. eta 8. unitateak



Paper zorroa
9., 10., 11. eta 12. unitateak



Paper zorroa
13., 14. eta 15. unitateak



Paper zorroa
16., 17., 18., 19. eta 20. unitateak





Paper zorroa
21., 22., 23., 24. eta 25. unitateak



Paper zorroa
26., 27., 28., 29. eta 30. unitateak

Hainbat fitxa



4.2. EMAKUMEZKOAK

Arartekoaren eginkizuna herritarren eskubideak babestea da eta, horretarako, lau tresna mota erabiltzen ditu: kexak erantzutea, txosten bereziak egitea, bitarteko aritzea eta herritarren eskubideak sustatzeko ekimenak.

Jarraian, 2005. urtean tresna mota bakoitzaren bitartez emakumea laguntzeko gauzatu ditugun ekimenen berri emanen dugu.

4.2.1. EMAKUMEZKOEK AURKEZTUTAKO KEXEI ERANTZUTEA

2005. urtean barrena, emakumezkoek 182 kexa aurkeztu dituzte guztira erakundearen aurrean. Kexa horietako asko ez dagozkie berariaz emakumezkoek; aitzitik, askotariko arloei buruzkoak dira, hala nola, ogasunari eta hirigintzari buruzkoak. Beste kexa batzuk, aldiz, emakumezkoengan berariazko eragina duten arazoei buruzkoak dira edo, emakumezkoak familia zaintzeaz gehiago arduratzen direlako, nagusiki haiei egokitzen zaizkien arazoei buruzkoak.

EMAKUMEZKOEK AURKEZTUTAKO KEXAK ERAGIN DITUZTEN ALORRAK	Kexa kop.
Osasuna	37
Hirigintza eta etxebizitza	29
Lana, gizarte segurantzaren eta atzerritarren	19
Gizarte ongizatea	17
Hezkuntza	16
Justizia	14
Barnea eta zirkulazioa	9
Ingurumena	8
Beste batzuk	33
GUZTIRA	182

Ikus daitekeenez, emakumezkoak osasun arloaz kexatzen dira gehien, zehatz-mehatz, adimen osasunaren alorreko laguntzaz, antzutasunaren aurkako tratamenduez, itxaron zerrendez, ginekologia kontsultez, bularreko minbizia antzemateko azterketez...

Jarraian, hirigintzari eta etxebizitzari buruzko kexak ditugu, baina ez dirudi alde handia dagoenik gizonezkoen aldean.

Lanaren eta gizarte segurantzaren alorreko kexak ditugu ondoren, eta laguntza hartzeko eskubideak onartzeari eta gutxieneko pentsioei buruzkoak dira besteak beste. Hala ere, arartekoak behin eta berriro salatu duen gizarte egoera batekin lotuta daude askotan: nabarmenki eskasa den alarguntasun pentsiotik ozta-ozta bizi diren emakume helduenarekin.

Gizarte ongizatearen alorreko kexak laguntza pentsioei eta emakumezkoak zaintzaile nagusia den aldetik antzematen dituen gabeziak buruzkoak dira berriro ere; hau da, etxeko laguntzari, adimen osasunaren gizarte eta osasun arloko laguntzari, familientzako laguntzei, eta abarri buruzkoak dira.

Hezkuntza arloko gabeziak ere emakumezkoak salatzen ditu batik bat: batez ere, hezkuntza behar bereziak dituzten haurren eta 0tik 3 urtera bitarteko haurren hezkuntzaren alorrekoak.

4.2.2. PROSTITUZIOARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIAREN AURKEZPENA PARLAMENTUAN

2005eko apirilaren 13an, arartekoak giza eskubideei eta Nafarroako prostituzioari buruzko txosten berezia aurkeztu du Foru Araubideko Parlamentuko Batzordean.

Ekitaldiak oihartzun handia izan du komunikabideetan, lehenik eta behin, gaiarengatik berarengatik eta, bigarrenik, polemika piztu duelako prostituzio etxeen gaineko kontrol eta zerga ikuskatze eskasa dela eta.

Agerraldian, alor honetan lan egin beharri lehenetsua emanarazteko arrazoiak argitu ditu arartekoak:

“Prostituzioan aritzea ezkutuko jarduna denez gero, arautu gabekoa, “legez kanpokotzat” joenezakeen azpimundu propioa sortzen du, eta azpimundu horrek prostituzioan aritzen diren pertsonen esplotazioari eta euren oinarritzko giza eskubideak urratzeari bide ematen dio sarri.

Bestalde, jardun honek gizartearen baitan pizten duen gaitzespenak –maiz, hipokrisiaz betetakoak– euren eskubideak gainerako herritarrek aldarrikatzen dituzten modu berean aldarrikatzeko zilegitasunik ez dutela sentiarazten die kaltetuei, nolana hiko gehiegikeriak nozitu behar izan arren. Horrenbestez, ez da harrizkoa babesgabatasun eta bazterketa egoera oso iraingarriak jazotzea esparru honetan, eta askatasunari eraso egin eta tratatu txarrak ematea sarri. Egoera hori, baina, are larriagoa da haurren eta legez kanpoko etorkinen artean.

Prostituten ehuneko txiki batek euren kabuz erabakitzen dute prostituzioan jardutea baina, halakoetan ere, ezin diete ihes egin prostituzioa giza egoerarik iraingarrietako bat izan dadin eta prostitutek euren eskubideak babesteko indarririk izan ez dezaten baldintzatzen duten faktoreei.

Errealitate hau funsgabea bailitzan tratatuta ere, urratzeak oso larria izaten jarraitzen du, sexu

prostituzioan lan egiten duten pertsonak gutxien-goia osatu edo gizartearen zati bat gizarte bazterketako egoera behartu nabarmen hauei sorgor zaien arren. Alde horretatik, demokratikoa den eta gizarte arloan aurreratuta dagoen gizarte batek ez luke onartu behar ongizatea pertsonen kontura eta beste gizaki batzuen kaltean lortzerik, ezta oinarritzko eskubideak salerosterik ere.

Izan ere, erakundeek ez badute egiten, ez nago ziur inork ezer eginen ote duen herritar hauen eskubideak bermatzeko.

Gizarte eta ekonomia aldetik hain konplexua den eta giza eskubideetan halako eragina duen arazoari heltzerakoan, arreta ezin dugu banakoan erreklamazioen erantzun pasiboan jarri, oso litekeena baita halakorik ez izatea, ezta kasuan-kasuan jardutera mugatu ere.

Aitzitik, halako egoeretan, hain zuzen ere, dago arrazoi gehien erakundeek, oro har, eta arartekoak, batik bat, ofizioz esku hartzeko, babesgabetasuna eta gizartearen sentiberatasun eskasa baititugu aldi berean. Behinik behin, horixe ulertu zuen Parlamentuak, ofizioz jardun eta honako hau bezalako txosten bereziak egiteko beharrezko eskumenak eman baitzizkion erakundeari, Nafarroako arartekoa arautzen duen legearen bitartez”

Parlamentuaren aurrean egin duen agerraldian, arartekoak txostenaren atalak zerrendatu eta txostenari ekiteko zailtasunak aipatu ditu:

“Hain zuzen ere, egoera heterogeneo honen ondorioz, zailtasunak ditugu estrategia orokor bakarrean adosteko eta, hori dela-eta, prostituzioa debekatzearen aldeko sistemak, prostituzioa arautzearen aldeko sistemak eta prostituzioa ezeztatzearen aldeko sistemak ditugu aldi berean inguruko herrialdeetan. Asmo onekoak diren arren, sistema horiek guztiak desabantaila handiak dituzte eta, txosten honetan, desabantaila horiek azaldu eta inguruko herrialdeek prostituzioa arautzen duten moduaren ikuspegi zabala eman dugu.

Sistema horiek guztiak desberdintzen dituen bereizkuntza prostituzio askearen eta prostituzio behartuaren artekoa da.

Edonola ere, gizarte eta ekonomia arloan, eta baita etikaren alorrean ere, emakumea esparru honetan sartzera bultzatzen duten arazoiei buruz eztabaidatzen den arren, dakartzan ondorio larriak argi eta garbi daude: familiartetik eta gizartetik kanpo geratzea, osasun fisikoaren eta psikikoaren alorreko arazo larriak, indarkeria eta drogaletasuna.

Illo horretan, oso-oso larria da, behin prostituzioan sartuz gero, emakumezkoak (eta gizonezkoak) prostituziotik ihes egiteko gaitasuna galtzea ia erabat, proxenetek eta klubak jabeek ahal dutena egiten dutelako gehienetan halakorik eragozteko; izan ere, euren negozioa dago jokoan eta, emakumea hertsatu eta kontrolatu arren, jakin badakite inork ez dituela zigortuko. Horregatik, prostitutek ahituta daudenean, gaixotu egiten direnean edo proxenetari inongo etekin ekonomikorik ematen ez diotenean besterik ez dute uzten prostituzioa maiz”.

Arartekoaren ustez, gaiari heltzeko zailtasunak ez dira arrazoi nahikoa, inola ere ez, administrazioak pasiboak izan daitezten:

“Gizarte arloan aurreratuta dagoen gizarte batek gorpil zoroari aurrea hartu eta hura geldiarazten ahalegindu behar du, bazterketaren atzaparretan erori direnak babeste aldera”.

Ondorioak aurkeztu ostean, arartekoak txosten bereziaren **gomendioak** nabarmendu ditu:

1. prostituzioak Nafarroan duen eragin errealari buruzko azterketa osoa egitea

2. prostituzioan aritzen diren pertsonak laguntzeko plan espezifikoak prestatzea

3. zerga itzurtzearen eta harekin lotutako delituei buruzko ikerkuntza eta salaketa handitzea, enpresaburuen, lokalen eta proxeneten gaineko zerga ikuskatzea ugarituz.

4. sektoreko osasun beharrak sakonki aztertzea, emakumeari laguntzeko zentroetako prostituzioaren gizarte eta osasun arloko laguntza programa hedatu eta biziagotzea, osasun arloko ekimenak gai honetan aritzen diren gizarte erakundeekin koordinatuz, eta prostituzioan jarduten diren lokalen gaineko osasun ikuskatzea eta kontrola handitzea.

5. polizia zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzea, sektore honetako gaizkileei modu eragingarriagoan jazartze aldera

6. funtzionarioak prostituzioari buruzko gai espezifikoetan trebatu eta prostituzioan dabiltzan pertsonen aurkako indarkeriari eta tratu txarrei aurrea hartzen esku har dezaten lortzea

7. prostituzioan aritzen diren pertsonen salaketa jarri nahi izanez gero, informazioa eta justizia izateko aukerak hobetzea

Agerraldian, arartekoak txostenak jendartearen piztu duen polemika ere aipatu du. Izan ere, txostenak dioenez, “negozio hauek legezko permisibitatearen esparruan jarduten dira zerga arloan, eta

egoera hori amaiarazi behar dugu." Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak funsgabe iritzi dio baieztapen horri, eta zera erantzun du arartekoak:

"Lehenik eta behin, argitu beharra dago txostenak oinarri dituen datuak 2003koak direla eta, horrenbestez, ezin izan ditugula kontuan hartu Ogasun Departamentuak abian jarri berri dituen ekimenak. Dena dela, espero dugu ekimenok ez direla anekdotikoak soilik izango, eta sektore honetako zerga iruzurrari jazartzeko politika argiaren bat etorriko direla benetan.

Kontseilariak berak onartu duenez, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak 2004. urtean finkatu zuen lehenengo aldiz oker bada ere "ostatu" deritzen ikuskatze helburua, eta oraindik orain salatu du lehenengo (eta, orain arte, azken) aldiz prostituzio etxe bat zerga arloko delitua egiteagatik.

Bestalde, kontseilariari zuzenean helarazi nion idatzi baten bitartez adierazi nuenez, kontuan izan beharra dago txostenak giza eskubideen urratzean jartzen duela arreta nagusiki eta ez dituela arazoaren faktore eta ondorio guztiak xehe-xehe aztertu nahi, ezta ahal ere. Halere, Parlamentuak egoki irizten badio, arartekoak ez du inolako eragozpenik txosten bereziaren edukia zabaldu eta lan edo zerga arloko ikuskatze lanari buruz dagoen informazio osagarri oro txertatzeko bertan."

Azkenik, eskari bat egin du arartekoak:

"Ezinbestekoa da administrazio publikoek, oro har, eta Parlamentuak, batik bat, modu aktiboagoan esku har dezaten prostituzioak dakartzen arazoak konpontzen.

Azken finean, helburua prostituten gizarte eta osasun arloko beharrei erantzutea da, gizaki aske gisa dituzten eskubideak errespetaraziz, eta, aldi berean, Nafarroan aritu daitezen galaraztea herriar babesgabeak esplotatuz aberasten direnei, zerga arloko presioaren eta poliziaren presioaren bitartez.

Ez dago ahulezia egoera kolektiboak banaka konpontzerik. Sektore honetan antzematen den mugikortasun handia lurraldeen mugez haraindikoa da eta, horregatik, autonomia erkidego mugakideek euren ekimenak hitzartu egin behar dituzte.

Hain zuzen ere, banakako erreklamazioak aurkeztea zaila den babesgabetasun egoera hauetan da ezinbestekoa erakundeak eta, batik bat, arartekoa ofizioz jardutea. Izan ere, erakundeek ez badute halakorik egiten, nork eginen du?"

Ohikoaenez, erakundeak argitaratu egin du giza eskubideei eta Nafarroako prostituzioari buruzko txosten berezia, eta Parlamentuko aldizkari ofizialaren bitartez ere zabaldu du, 2005eko ekainaren 30ean (72. zenbakian). Gainera, gure web gunearen bitartez ere eskura daiteke:

www.defensora-navarra.com/espanol/publicaciones.html

4.2.3. EMAKUMEZKOEN ESKUBIDEAK SUSTATZEKO JARDUERAK

Ohikoaenez, arartekoak lehentasunezko arreta eman dio 2005. urtean ere emakumezkoen eskubideak sustatzeari, eta aurreko urteetako ekimenei heldu die. Gainera, indarrak gainerako erakundeekin eta elkarteekin batu ditu, genero indarkeriaren aurkako borrokaren alorrean batik bat.

Zalantzarik gabe, emakumezkoen eskubideen egungo egoerari buruzko azterketa orokor orok argi-itzal handiak ditu.

Batetik, ukaezina da gure gizarteak aurrera egin duela emakumeen eskubideen onspen formalean eta emakumeak hezkuntza eta kultura izan eta orain arte debekatu egin zaizkion esparruetan lan egiteko aukeretan.

Era berean, gizarteak kontzientzia handiagoa hartu du nabarmen tratatu txarrak direla-eta, eta biktimak laguntzeko baliabideak handitu egin dira. Ildo horretan, badirudi genero indarkeriari aurre egiteko hartu berri diren legezko neurriak hasi direla ematen fruiturik: Espainiako Kongresuak Genero indarkeriaren aurkako Legea onartu zuenetik, hil egin dituzten emakumeen kopuruak % 12 egin du behera, salaketa kopuruak % 18 egin du gora eta kendu egin diren salaketen kopurua % 12tik % 10era pasatu da.

Aurrerapen horiek guztiak ukaezinak dira baina, eskubideak bermatzeko eginkizuna duen aldetik, arartekoa emakume guztien eskubideak errespetatu daitezen galdatzera behartuta dago, eta oraindik ere nahikoa falta da horretarako.

Ildo horretan, aurrerapenak gorabehera, 2005. urtean 62 emakumezko hil dituzte Espainian, eta horietako 3, Nafarroan. Hau da, egiteko asko dago genero indarkeriari aurrea hartzeko: kontzientzia harrarazteko kanpainak eskasak izaten jarraitzen dute, kultura menderatzaile eta posesiboak presente jarraitzen du gizarteko maila ugarian eta eskoletako hezkuntza ereduak heldu egin behar du oraindik ere baterako hezkuntza lortuko bada benetan.

Nafarroan, berriz, biktimak laguntzeko bitartekoak indartzen segitu behar da eta babes arloan

antzematen diren gabezia handiak zuzendu behar dira: genero indarkeriarekin erlazionatutako auziak epaitzeko epaitegirik ezaren eta epaitegien baliabide eskasen ondorioz, epaitegiak ez dira behar adina bizkorrak eta eragingarriak eta, horrenbestez, lehenbailehen esku hartu beharreko esparrua osatzen dute.

Tratu txarrak hartzen dituzten emakume askok eta askok salaketak kentzeak ere pentsarazi egin beharko liguke, babes sisteman konfiantzarik ez izatearen adierazgarri izan litekeelako hainbatetan, baina, edonola ere, tratu txarrak emateagatiko salaketa kendu duten familien etengabeko jarraipena egiteko sistema ezarri beharko litzateke gizarte arloan.

Halaber, uste dugu beharrezkoa dela tratu txarrak ematen dituztenak laguntzeko programen eragingarritasuna ebaluatzea, egoki irizten bazaio, programok hedatze aldera.

Bestalde, familia, norbere bizitza eta lana batearitzea konpondu gabeko arazoa da oraindik. Etxeko lanen banaketak desorekatua izaten jarraitzen du, emakumezkoak soldatapeko lan munduan sartu direlako baina gizonaek ez dutelako gehiago parte hartzen etxean, eta, ondorioz, emakumezkoek bi lanalditan egin behar dute lan.

Lan munduko diskriminazioak ere bere horretan jarraitzen du: emakumezkoen soldata gizonaekoen soldata baino txikiagoa da batez beste, % 15 eta % 40 bitartean; emakumezkoen langabezia tasa % 12koa da, gizonaekoen langabezia tasaren bikoitza ia; eta emakumezkoen % 25ek lanaldi partzialean egiten dute lan, gizonaekoen artean % 5ek bakarrik egiten duten arren gauza bera.

Diskriminazio horrek erantzukizun handiko karguen alorrean ere jarraitzen du: emakumezkoak Nafarroako Gobernuko goi kargudunen % 24 eta Foru Parlamentuko kideen % 32 baino ez dira, eta emakumezko bakarria dago Nafarroako Gobernuko kontseilarien artean. Egoera, oster, are okerragoa da enpresa arloan: emakumezkoek goi mailako zuzendaritza postuen % 10 bakarrik dituzte Europan, eta Espainian, % 5.

“Emakumezkoak erantzukizun handiko postuetan izatea ezinbestekoa da. Izan ere, erabakiak hartzeko prozesuetan presentean ez dauden bitartean, desberdintasunak jarraitu egiten du euren bizitzako esparru guztietan”

Emakumezkoek seme-alabak zaintzeko ardura izaten segitzen dute, eta gizarteak haien esku uzten jarraitzen du funtsean mendekotasun egoeran dauden senitartekoak lagundu eta zaintzea: zaharrak, adimen gaixoak, ezinduak, etab.

Alde horretatik, bereziki kezkarria da gure gizarteak bi modutan diskriminatzea emakume etorkinak, egonkortasunik txikieneko lanetan aritu behar dute eta euren jatorrizko kulturako eta hartzen dituen gizarteko balioen artean aukeratzeko dilemari aurre egin behar diote eta. Horregatik, administrazio publikoek emakumezko etorkin guztiek hezteko aukera izan dezaten bermatu behar dute, bereizkeria amaitu egin dadin, eta Konstituzioak onartzen dituen eskubideak (euren kutur balioak gorabehera, hitzartutako gutxieneko balioztat hartu beharrekoak) betiere berma daitezen zaindu behar dute.

Espero dugu, Gobernuak emakumezkoen eta gizonaekoen aukera berberak izateko lehenengo plana onartu berri duela-eta, gizonaekoen alor esanguratsu honetako egoera hobetu egiten dela eta delako plana ez dela asmo oneko adierazpen huts izanen, gizarteak modu eragingarrian esku hartzeko beharrezko bitartekoez hornituko dela baizik.

4.3. ZAHARRAK

Honako ekimen hauek gauzatu dira zaharren eskubideak babestearren:

4.3.1. ZAHARREI BURUZKO KEXEI ERANTZUTEA

Gure informazio sistemak zaharrei buruz hartu ditugun kexak behar bezala zenbatzeko bide ematen ez badigu ere, gatazka iturri nagusiak antzemateko bide eman ematen digu. Hain zuzen ere, honako hauek izan dira, kexa gehien eragin dutenetatik gutxien eragin dutenetara ordenatuta:

- Laguntza hartzeko eskubidea onartzea
- Gutxieneko pentsioak
- Laguntza eta alarguntasun pentsioak
- Etxeko laguntza
- Osasun sistemako itxaron zerrendak
- Laguntza medikoa
- Zahar etxeetan egoteko baldintzak
- Ezintasunak onartzeko prozesuak

Aurrez esan dugunez, alor horien gaineko analisia 5. atalean egiten dugu, “2005. urteko kexei buruzko ebaluazio orokorra” izenekoan; beraz, ezer errepikatzea saiheste aldera, urteko txosteneko atal horri lotuko gatzazkio. Nolanahi ere, kapitulu honen beste atal batean aipatuko badugu ere, nabarmenezkoa da inguruko zahar askoren egoera ekonomikoa guztiz bidegabea dela eta, ezbairik

gabe, gizarteak onartu egiten duen diskriminazio mota baten isla dela.

Ohikoa denez, hainbat arazo daude gizarte ongizatearen alorrean, zahar etxeetako tokiak lortzeari eta, batez ere, etxeko laguntza eskasari dagokionez, eta gauza bera gertatzen da osasun arloan.

Jakin badakigu zaharrak oso tolerantzak direla eta ulertu egiten dutela sistema publikoak gabeziak izatea; gainera, kexak aurkezteko zailtasunak (fisikoak eta beste mota batzuetakoak) dituzte. Horregatik guztiagatik, talde ahulzat hartu behar dira eta arartekoaren lanak aurrea hartzea izan behar du alor honetan.

4.3.2. NAFARROAKO ZAHARREN MENDEKOTASUNARI AURRE EGITEKO LAGUNTZARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIAREN AURKEZPENA PARLAMENTUAN

2005eko apirilaren 19an, arartekoak Nafarroako zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntzari buruzko txosten berezia aurkeztu du Foru Araubideko Batzordean.

Txosten hori egiteko lana oso neketsua izan zen, 400 orrialdetik gorakoa baita, baina Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Laneko Sailaren laguntza izan genuen; hain zuzen ere, ikerkuntza lan handia egin zuen Nafarroako zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntzaren uneko egoerari buruz, gure erakundeak finantzatu zuena beharrezko hitzarmenaren bitartez.

Agerraldian, arartekoak delako txosten berezia egin izanaren egokitasuna arrazoitu du:

“Erakundera heltzen zaizkigun kexei esker, zaharrek ezintasunen bat sentitzen dutenetik euren etxean gizarte laguntzaren bat izatea lortzen duten arte egin behar duten bide latz eta konplexuaren berri izan dugu; gehiegitan zahar etxe batean sartzera etsitzera behartzen dituen prozesu mingarriarena; zahar etxeetan sartzeko itxaronaldi luzeena; eta zahar etxe batean sartzeko, hil ondoren ere, banakoarengan, familiarlean eta ekonomian dituen ondorioena.

Laguntza ez-formalaren krisialdiaren eta etxeko laguntza eskasaren ondorioz, familia askok eta askok tokia eskatzen dute bidegabeki zahar etxeetan, zaharren nahiei jaramonik egin gabe.

Era berean, laguntza behar dutenentzako tokiak itxaron zerrendak oso luzeak dira baina, aldi berean, jabetza publikoko zahar etxeetako tokien ehuneko handi bat euren kabuz ibil daitezkeen zaharrek betetzen dituzte oraindik ere, nahiz eta joera hori aldatu egiten ari den antza.

Bestalde, hainbat zahar etxetan egon gara, eta geure begiz egiaztatu dugu funtzionamendu araubidea inola ere ez dela izan beharko lukeena. Horietako batzuetan, inolako ezintasun fisiko edo psikikorik ez duten zaharrak ere haurrak bailiran tratatzen dituzte, gehiegi babestu eta, hartara, euren mendekotasuna areagotu eta euren askatasuna murrizten baitute; gainera, zaharrak idatz gabeko arau zorrotzei lotu behar zaizkie eta, arauok barne segurtasunaren edo bizikidetasunaren alorreko irizpideetan oinarritzen badira ere, hainbatetan ez dute izateko arrazoirik.

Arreta eman digu, merkataritza arloko zahar etxe pribatuak (antza, errentagarriak) hedatu egiten diren aldi berean, irabazi asmorik gabeko zahar etxeek zailtasun handiak dituztela finantza aldetik; areago, esan digutenez, instalazioak egokitzeko gutxieneko inbertsioei ere ezin diete aurre egin. Ondorioz, Foru Administrazioak bakoitzarekin duen harreman mota aztertu dugu, baita diru laguntzak eman edo ukatzeko irizpideak eta aplikatzen diren tarifak ere”.

Nafarroako zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntzari buruzko iritzirik ematera, arartekoak argi-itzalez beteriko errealtateari aurre egin behar diogula adierazi du:

“Foru Komunitateko zaharren egoera Espainiako beste eskualde batzuetako zaharren egoera baino hobea da baina, datu hori gorabehera, Nafarroako zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntza ez da egokia inolaz ere, eta sistemak eskaintzen dituen zerbitzuak oso bestelakoak dira gizarte arloan aurreratuago dauden herrialdeetan ematen direnen aldean.

Aurrera eginen badugu, ezin dugu onartu zahar askok eta euren familiek egunero sufritzen duten dramarekin ohitzea; izan ere, euren etxea eta erreferenteak dena delakoagatik utzi eta zahar etxe batean sartzera behartuta daudenean, zahar askok duten sentimendua euren baitan eta gizartean porrot egin dutela da, eta dramatzat besterik ezin da jo hori.

Gauza bera gertatzen da familia ugariarekin: familiarreko zaharrek etengabeko laguntza behar dute baina, dena delakoagatik, laguntza hori emateko gai ez direla sentitzen dute.

Mendekotasunak pertsonak (hala zaharrak, nola senitartekoek) bizitza osoan barrena izan litzakeen larrimin sentimendu asko eta asko biltzen ditu; barnean ezintasuna, erruduntasuna, uler tezintasuna eta beste asko hartzen dituen sentimenduen nahaspila da.

Halako egoeran dauden familia ugari huts egin dietela sentitzen dute: etxeko laguntza oso mugatua da edo, bestela, hutsaren hurrengoa; itxaron zerrendak amaiezinak dira; eta laguntza ekonomikoen araubidea hain da konplexua, eskasa eta, hainbatetan, bidegabea, familia askok ezin dute sinetsi hori denik eskain dakiekeen guztia.

Ezin dugu gure kontzientzia lasaitu ahal duguna egiten dugula esanez, besterik gabe, ez delako egia guztiz”.

Ezinbestean, agerraldiak mendekotasuna babesteko sistema berria taxutu beharrean jarri du arreta hein handi batean:

“Dударik gabe, administrazio publikoek erabaki esanguratsuak hartu behar dituzte, mendekotasunari aurre egiteko laguntza bermatzeko; izan ere, laguntza horrek ezin du aukerako edo norbere borondatearen araberrako ongintza publikoko eremuan oinarritzen segitu. Alegia, sistema unibertsal, zuzen eta solidario berria landu behar da epe motzean eta luzean baina, aldi berean, sistema horrek etorkizunean ekonomikoa bideragarri izaten jarraituko duela bermatu behar da”

Edonola ere, zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntza ezin da gehiago atzeratu, euren egoera dela eta:

“Gizarte zerbitzuek erabateko eskumenak dituzte eta, beraz, ezin argudia daiteke goi mailako karguek etorkizuneko ereduari buruzko erabaki egokiak hartzeko zain gaudenik, litekeena baita erabaki horiek hartu eta ezer ez gertatzea”

Hori dela-eta, arartekoak egoki iritzi dio Nafarroako administrazio publikoek epe motzean eta ertainean aplikatu beharreko hainbat gomendio egiteari. Laburbilduz, honako hauek aipatzen dituzte gomendiook:

1. Mendekotasunari aurre egiteko foru politikak legez arautzea, oinarritzko gizarte zerbitzuek herritarrek galdatzeko moduko eskubide bihurtu eta ongintzakoak edo aukerakoak izateari utz diezaiten

2. Mendekotasunari aurrea hartzeko plana lehenbailehen abiarazi beharra adieraztea

3. Etxeko laguntza (hala gizarte arlokoa, nola osasun arlokoa) nabarmen handitzea, mendekotasunari aurre egiteko laguntzaren lehentasun nagusia den neurrian

4. Zahar etxeen eta zaharrak laguntzeko zerbitzuen kalitatea hobetu, ikuskatu eta ebaluatzeko sistema berriak sortzea, zehapen araubidea xehe xehe xedatu eta ikuskatze sistemak indartuko dituztenak

5. Herritar heldu eta askeak diren heinean, mendekotasun egoeran dauden zaharren eskubi-deen errespetua bermatzeko prozedurak eta sistemak ezartzea

6. Zahar etxeen finantziario eta itun politika ikuskatu eta gardentzea, etxe guztien kalitatea eta bideragarritasuna bermatzearren

7. Laguntza behar dutenentzako tokiak lortzeko laguntzen zenbatekoa handitzea, erabiltzaileek eta familiek euren gain hartu behar dituzten ekarpen ekonomikoak txikiagoak izan daitezen

8. Enplegua sustatzeko politika aktiboak aplikatzea mendekotasunari aurre egiteko laguntzaren alorrean

Arartekoak gomendio bakoitzean sakondu eta, estrategikoak direla-eta, etxeko laguntza zerbitzuetan jarri du arreta bereziki. Areago, txosten bereziko gomendioak osatzen dituzten gomendio espezifikokoak egin ditu:

a) Zaharrak etxean bertan laguntzeko baliabideak (hala gizarte arlokoak, nola osasun arlokoak) nabarmen handitu behar dira, eskaintzen diren zerbitzuak halako bi bider izan daitezen gutxienez epe motzean eta ertainean.

b) 2004. urtean etxeko laguntza izateko laguntza ekonomikoak emateko irizpideetan eta baremoetan antzeman diren akatsak zuzendu behar dira.

c) Etxeko laguntza foru lege baten bitartez arautu behar da, eta foru lege horrek Nafarroako udalerrri guztietan bermatu beharreko gutxieneko edo oinarritzko gizarte zerbitzuak zehaztu behar ditu; egun zuzeneko laguntza eta laguntza ekonomikoak emateko dauden moduak aztertu behar ditu; sistema homogeenak ezarri behar ditu laguntza beharrak ebaluatzeko; erabiltzaileek euren errentaren arabera egin behar dituzten gehieneko ekarpen ekonomikoak finkatu behar ditu; eta kontrol sistemak ezarri behar ditu, administrazio publikoek egiten duten ekarpen ekonomikoa zaharrentzako zerbitzu zuzen, objektibo eta kalitatekoak sortzeko erabiltzen dela bermatzeko.

d) Oinarritzko gizarte zerbitzuek eta lehen mailako laguntza taldeek ematen duten etxeko laguntza koordinatzeko mekanismoak ezarri behar dira, kasuak batera kudeatuz, mendekotasun egoeran dauden inguruko zahar guztiek laguntza plan osoa dutela bermatzearren. Horretarako, Nafarroako Gobernu departamentuek eta toki erakundeek elkarrekin lan egiteko bide berriak asmatu behar dira.

Bestalde, arartekoak agerraldian nabarmendu duenez, Unibertsitate Publikoak egindako txostenak arreta ematen duen hainbat egitate aipatzen du zahar etxeen finantziarioa eta jabetza dela eta:

“Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zenbateko handiagoa ematen die itundutako toki bakoitzeko etekinak lortu nahi dituzten erakundeei irabazi asmorik gabekoei baino, baina ez dago argi zein diren itunen zenbatekoa finkatzeko irizpide objektiboak zerbitzuaren kalitatea dela eta.

Itundutako udal jabetzako tokien kopurua askoz txikiagoa da sektorean duten garrantzi erlatiboaren aldean, nahiz eta udal jabetzako zahar etxeetako tokiak sakabanatuago dauden eta, indarrean dagoen araudiaren arabera, lehentasuna izan beharko luketen itunak egiterakoan, publikoak direla-eta.

Funtsean, irabazi asmorik gabeko erakundeak bertan bizi diren pertsonak hartzen duten laguntzaren bitartez finantzatzen dira publikoki. Alde horretatik, ezin ahaztuzkoa da, laguntzak ez bezala, itunak aldi behin sinatzen direla zahar etxeen jabe diren erakundeekin eta, horrenbestez, etxeek denbora tarte jakin horietan diru sarrerak izanen dituztela bermatzen dela. Azken batean, laguntzek eragin zuzenagoa dute zaharrengan, eta itunek, berriz, zahar etxeen jabeengan.

Finantziario publikoa hartzen duten erabiltzaileek ordaindu beharreko kopurua ezberdina da tokia nola finantzatzen den: tokia publikoa edo itundutakoa den edo beste zahar etxe batean egoteagatiko laguntza ematen den.

Finantziario eredu edo zerbitzuak eroste hori ez da bidezkoa ez erabiltzaileentzat, ez zahar etxeen jabeentzat, eta badirudi irabaziak lortu nahi dituen ekimen pribatuari egiten diola mesede. Gainera, ez da frogatu lotura zuzen eta objektiboa dagoenik ematen den zerbitzuaren kalitatearekin.”

Hori guztia argi eta garbi ikusirik, zera gomen datu du arartekoak:

“Zahar etxeetako tokiak finantzatzeko egungo sistemak guztiz birdefinitu behar dira eta, horretarako, aukera bat itun edota hitzarmen sistema bateratua arautzea da, arautegia berariaz xedatuz, erabiltzaileen ekarpenen zuzentasuna bermatu, lehentasuna zahar etxe publikoei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei eman eta, jendaurreko estandar gardenen bitartez, kalitatearen hobekuntza diruz sustatzeko”

Ohikoa denez, arartekoak eskaria egin die parlamentariari agerraldiaren amaieran:

“Gizarte laguntzak ezin du aukerakoa izaten jarraitu. Ongintza publikoaren garaia amaitu egin da, eta Parlamentuaren esku dago (azken batean, zuen guztien esku) gizarteak eskatzen duen adostasuna lortu eta zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntza galdatzeko moduko eskubide bihurtzea.”

Ohikoa denez, erakundeak argitaratu egin du Nafarroako zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntzari buruzko txosten berezia, euskaraz eta gaztelaniaz, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren bitartez ere zabaldu du, 2005eko irailaren 28an (94.1., 94.2. eta 94.3. zenbakietan). Gainera, gure web gunearen bitartez ere eskura daiteke:

www.defensora-navarra.com/espanol/publicaciones.html

4.3.3. ZAHARREN ESKUBIDEAK SUSTATZEKO JARDUERAK: ZAHARREN ESKUBIDEEN GUTUNA

Ezinbestean, zaharren eskubideak sustatu eta babestea Nafarroako arartekoaren beste lehentasunetako bat da.

Urtean zehar, arartekoak hainbat bileratan hartu du parte zahar taldeekin eta elkarteekin eta, bileroi esker, geure burua zaharrei ezagutarazi diegu, zaharrek erakundea gutxien ezagutzen duten taldeetako bat osatzen dute-eta gazteekin batera (ikus 8.1. atala, “Arartekoa herritarrei ezagutaraztea” izenekoa).

Bilera hauen bitartez, zaharren kezka nagusiak antzeman ditugu berriz ere; zehazki, Herritarren Eskubideen Gutuna egiteko prozesuan azaleratuak ziren. Areago, familiarrean eta gizartean gero eta protagonismo txikiagoa izateari saminez eta etsipenez aurre egiten diotela ikusi dugu.

Izan ere, zaharrek protagonismoa galdu dute egungo gizartean, eta euren eskubideak ez dira beti errespetatzen; alde horretatik, ez da batere ohiz kanpokoa zaharrak haurrak bailiran tratatzea, eta euren bizimodua erabakitzeko aukera galdu eta bestek erabakitzea non bizi behar duten, euren logelan zein altzari izanen dituzten, eta baita euren baliabide ekonomikoak zertan erabiliko diren ere.

Zalantzarik gabe, egoera hau ekarri duten arrazoiak askotarikoak dira: tradizioz zahartzaroarekin lotu izan diren balioak gutxietsi egiten dira egun, baina ezin ahaztuzkoa da gauzak ez direla halakoa izan historian barrena, eta zaharrek sekulako eragina izan dutela iraganen gizartean.

Gaur egun, ordea, irmotasun osoz esan dezakegu gizarteak zaharrak diskriminatzen dituela. Ildo horretan, normaltzat ditugu adinagatiko diskriminazio forma askotarikoak besterik ez diren ego-

era asko eta asko, iraganean izan diren sexuagatiko diskriminazio formen antzekoak diren arren.

Normaltzat dugu zaharrek baliabide ekonomiko gutxiago izatea; soldatapeko jarduna egin dezaten ere debekatzea; aseguru polizetatik kanpo geratzea; lan eskaintza ugarik adinagatik diskriminatzten duten klausulak –45 urtetik gorakorik ez– izatea; zaharrei tratamendu jakin batzuk ez aplikatu edo ebakuntza jakin batzuk ez egitea, euren adinean merezi ez duelakoan...

Zaharrei, besteoi bezala, baliagarri sentitzea gustatzen zaie, eta gizarteak euren iritzia kontuan hartzen duela sumatzea, ez direla alde batera utzi eta gizartean ikusezin izatera kondenatzen.

Hala eta guztiz ere, talde bat osatzen duten heinean, zaharrek eurek izan behar dute lehenak euren pentsamoldea eta jokabidea aldatzen, bai euren baitan, bai taldearen barnean: jardunean jarraitzen ahalegindu behar dute, ez dute normaltzat onartu behar inork euren ordezt erabakitzea, modu aktiboagoan hartu behar dute parte gizarte bizitzan...

Horretarako, baina, erakundeek eta gizarteko talderik engaiatuenean laguntza behar dute. Azken finean, ez da zilegi zaharrek gizartearentzat ikusezin izaten jarraitzea.

Horregatik guztiagatik, zaharren eskubideen gutuna osatu eta 2006. urtean adinean oinarritutako diskriminazioaren aurkako kanpaina egin dadin bultzatzeko proiektua lantzen ari gara 2005. urtearen amaieraz geroztik.

Beste erakunde batzuek finkatu duten ereduari jarraiki, arartekoak Nafarroako zaharren eskubideen gutunaren oinarritzko proposamena egin du, zaharren oinarritzko eskubideak (Espainiako Konstituzioak pertsona guztiei onartzen dizkienak) eta Zaharren Giza Eskubideen Adierazpeneko printzipioak bete egiten direla bermatzen laguntze aldera: independentzia, duintasuna, norbere burua errealizatzea, laguntza eta parte hartzea.

Ildo horretan, partaidetzazko prozesu deszentralizatua jarri nahi dugu abian Nafarroako udalerrin nagusietan barrena, zahar elkarteekin eta taldeekin adostasuna lortzearren.

Izan ere, zaharrak nola sentitzen diren eta euren eskubideak zenbateraino errespetatzen diren uste duten jakin behar dugu, eta garrantzi gehien zein alderdiri ematen dioten eta epe motzean zer eskubide lortzea espero duten jakin nahi dugu. Horretarako, inkestan oinarritutako metodologia diseinatu dugu, euren iritzia berri izatearren.

Azken batean, uste dugu zaharrek sobera merezi dutela bakarrik ez sentitzeko eskubidea, baliagarri sentitu eta euren gaitasunak eta esperientzia erabiltzeko eskubidea, euren burua aski dutela sentitu eta horretarako beharrezko baliabideak izateko eskubidea, eta uste dugu zaharrek osatzen duten erkidegoko bizitza sozialean eta politikoan modu aktiboagoan parte hartzeko eskubidea eta betebeharra ere dutela.

4.3.4. MENDEKOTASUNARI BURUZKO TXOSTENAREN JARRAIPENA

Urtebete igaro den honetan txosten berezia aurkeztu zenetik, poza adierazi beharrean gaude, gure gomendioa gauzatu eginen dela baitirudi; harekin bat, mendekotasunari aurre egiteko laguntza ongintzazkoa izateari utzi eta eskatzeko moduko eskubide bihurtuko da epe motzean. Gizartearen baitan norbere autonomia eta mendekotasun egoerei aurre egiteko laguntza sustatzeko lege proiektua aurkeztu ondoren antzeman den adostasun handiak eta, batik bat, administrazio publikoek elkarrekin lan egiteko adierazi duten arrazoizko borondateak, bederen, itxaropena pizarazten dute.

Argi eta garbi dago prozesuan barrena ekonomia eta eskumen aldetik sortuko diren zailtasunak gainditu beharko direla, baina ezin dugu alde batera utzi gizarteak bere lorpen eztabaida ezintzat hartu duela proiektu hau eta aurrera eramateko gai izan gaitzen eskatuko digula guztioi, adostasun handia lortzeko beharrezko aldaketa guztiak egin ostean betiere.

Alabaina, ezin esan daiteke gauza bera orain arte mendekotasunari aurre egiteko gauzatu diren ekimenei buruz eta, horregatik, haien premia errepikatu dugu berriro ere: "Europako Iparraldeko herrialdeek jasan behar izan duten egoerari aurre eginen ez badiogu, ez da nahikoa urte gehiago ematea bizitzari; aitzitik, urteei bizi gehiago eman behar diegu" eta, zaharren bizi kalitatea hobetzeko, mendekotasuna dakarten osasun eta gizarte arloko faktoreei aurrea hartu eta goiz heltzeko programetan inbertitu behar da.

Halere, orain arte ez dugu antzeman aldaketa esanguratsurik izan denik etxeko laguntzaren alorreko politikan, nabarmen areagotu behar dela uste baitugu; orobat, ez da ezarri gutxieneko arautegirik adituek lehenetsunezkoztat duten zerbitzu hori baldintza beretan eman dadin lurralde batzuetan eta besteetan. Alde horretatik, etxeko gizarte laguntza argi eta garbi eskasa dela nabarmentzen da beti, baina alde batera uzten da etxeko osasun laguntza ere hobetu daitekeela. Horregatik, salatu nahi dugu oraindik ere ez dela eman urrats esan-

guratsurik lehen mailako koordinazioa bermatzeko gizarte eta osasun arloan, osasun etxean eta oinarritzko gizarte zerbitzuen artean. Izan ere, lehen mailako koordinazio plan, programa eta protokolorik ezaren ondorioz, ezin dira kasuak kudeatu eta norbere neurriara prestatutako laguntza plan osoak aplikatu.

Azkenik, Gizarte Ongizateko kontseilariak hitzemandako plan gerontologikoaren zain jarraitzen dugu, eta espero dugu urteko txostenean egin genituen gomendioak txertatuko dituela, nahiz eta oraindik ez zaien eman gure ustez merezi duten arreta. Ulertu egiten ditugu kontseilariak aurkezpena atzeratzeko eman dituen arrazoiak, mendekotasunari buruzko legearen ondorioak txertatu nahi dituelako antza, baina uste dugu horrek ez duela eragozten zahar etxeak finantzatu eta haiekin itunak sinatzeko egungo politika lehenbailehen berrikustea, etxe guztien gardentasuna, kalitatea eta bideragarritasuna bermatze aldera.

4.4. ADIMEN OSASUNA

4.4.1. ADIMEN OSASUNAREN ALORREAN AURKEZTUTAKO KEXAK

Adimen osasunari buruzko kexak gero eta ugariagoak dira, eta adimen gaixo larriak denbora luzez ospitaleratzeko baliabiderik ezari eta nortasun arazoak tratatzeko aukera terapeutiko egokirik ezari buruzkoak dira batez ere. Gaixoak errehabilitatzeko baliabide eskariak ere nahiko ugariak dira, eta gero eta maizago heltzen zaizkigu gizarte eta portaera arazo larriak dituzten auzoak dituzten herritarren kexak; halere, halako egoeren oinarrian adimen arazo larriak eta babesgabetasuna edo gizarte bazterketa egoten dira sarritan.

Adimen gaixoak denbora luzez ospitaleratzeko tokien premia larria dela-eta, ohiko kexa bat azalduko dugu, ziur baikaude ezerk ez duela hobeto islatzen gaixo hauen senitartekoen egoera eskizofrenikoa:

05/37 espedientea

Kexaren laburpena

2003ko otsailean, ama egokiro tratatuko zuten erietxe batean sartzeko eskatu zioten Gizarte Ongizateko Departamentuari. Bi urte igaro dira, baina amak zain jarraitzen du, Departamentuak jakinarazi dienez, inongo erietxetan ez dagoelako tokirik.

Administrazioaren erantzuna

“2005eko otsailaren 23an, _____ andreak aurkeztutako kexari (05/37/S espedienteari) buruzko idatzia helarazi zenidan; hain zuzen ere,

andreak amak (_____ andreak) laguntza behar dutenez tuki bat behar du Nafarroako erietxeren batean, eskizofrenia paranoide kronikoa duelako. Zure idatziari erantzunez, zera adierazi nahi dizut: .

1 °. 2003ko otsailaren 17an, Arrotxapeako Adimen Osasuneko Zentroak _____ andrea ospitaleratzeko eskatu zuen, denbora luzez errehabilitatu edo, bestela, erietxean egoteko. Medikuen hainbat txostenek egiaztatzen dutenez, andreak eskizofrenia paranoide iraunkor eta itzulezina du. Horregatik, % 66ko ezintasuna onartu zitzaion, eta onarpen hori 2002ko otsailaren 28an sartu zen indarrean; gainera, 2003ko apirilaren 4ko epai irmo batek ezindu egin zuen, eta alaba, Sonia Rubio Barrena andrea, izendatu zuen tutore.

2°. Dagokion espedientea aztertu ostean, 2003ko apirilaren 23an, bere eskaria aztertu ondoren, egokiena ama adimen gaixoentzako erietxe batean ospitaleratzera zela jakinarazi zitzaion doakionari.

Alabaina, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ez du tuki hutsik (ez propiorik, ez itundurik) gaur egun pertsona horren beharrei erantzuteko eta, horrenbestez, pertsona hori itxaron zerrendan dago, laguntza eman dakion tokiren bat libre geratzen denean.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren zentroetan ospitaleratu ordez, kanpoko zentroetan ospitaleratzeko laguntza ekonomikoak ematea ikusi da aurrez, eskari ugari ditugula-eta. Aukera hori, ordea, bi faktorek baldintzatzen dute: batetik, halako zentro asko Nafarroatik kanpo daude, eta Nafarroatik urrundu behar horrek arazo handiak sortzen ditu familiarrean; bestetik, laguntza horiek emateko aukera aurrekontuaren arabera da.”

Adibide hori inola ere ez ohiz kanpoko eta, ikusten denez, arrazoiak ditugu larri kezkatzeko, administrazioak helarazitako txostenak aipatzen dituen datuak eskatzaileak diogenekin bat datoze-lako. Gaixoa itxaron zerrendan dago duela bi urtez geroztik baina, tarte horretan, luzetxoa bada ere, foru administrazioak ez du arrazoizko irtenbiderik bilatu eta aurkitu salatutako arazo larriei aurre egiteko.

Are gehiago, Gizarte Ongizateko kontseilariak izenpetu duen txostenak berak dioenez, “eskari askok” osatzen dute zerrenda hori, nahiz eta eskatzaileek laguntza espezializatua behar duten adimen arazo larriak dituztelako. Gainera, datu horien berri izan arren, gizarte zerbitzuen ardura duen administrazioak ez du arazoaren alderdi bat konpontzeko proposamenik ere egin, ekonomikoa bakarrik bada ere, gaixoen eta senitartekoen ego-

era neurri batean hobetzeko. Aitzitik, esan esan du ez dagoela toki nahikorik eta horretarako esleipen nahikorik aurrekontuan. Hau da, gaixo hauek hartzeko toki eskasia (dela administrazioarena bera-rena, dela itundutakoa) dagoela onartzen da argi eta garbi, baina baita familiek beste konponbide batzuk bilatzeko laguntza ekonomiko nahikoak ez daudela ere.

Txostenak azaltzen duenetik ondorioztatzen dugunez, foru administrazioak adimen gaixotasun kroniko larriak dituzten herritarrei gizarte eta osasun arloko laguntza eman beharra utzi du. Betebeharren utziera larri horren ondorioz, familiei dago-kie gaixoen behar duten laguntza, eta eurek hartu behar dituzte euren gain ardura eta kostu gehie- nak, halako halabeharrei erantzuteko berariaz sortu diren gizarte zerbitzuak guztiz eskasak baitira Foru Komunitateko herritarren beharrentzat.

Onartu beharra dago adibide honek planteatzen duen egoera ez dela berria, erakunde honek aurkeztutako kexaren antzekoak bideratu baititu lehenago ere. Hori dela-eta, ofizios aztertu dugu gai hau, Foru Komunitateak adimen gaixoei eta euren senitartekoei gizarte eta osasun arloan ematen dien laguntzari buruzko txosten berezi baten bitartez.

Bestalde, Nafarroako Osasun Zerbitzuak nortasun arazoak dituzten gaixoen lagundu eta tratatzeko baliabiderik ezari buruzko kexak ere esanguratsuak dira; kexa horiek argudiatzen dutenez, osasun sistema publikoak ez die tratamendu ego- kia eskaintzen gaixo hauei eta, horregatik, jarrai- pen psikoterapeutiko jarraikia egin eta unitate espezializatua (Gizarte Segurantzaren Zaragoza- ko zentrokoa edo Malagako zentro pribatukoa bezalakoa) abian jartzeko ere eskatzen dute.

Izan ere, kexa aurkeztu dutenek uste dute osa- sun sistema publikoaren eskaintza gaixoa bi edo hiru hilean behin psikiatria sailean bisitatzea eta botiketan besterik ez datzan tratamendura muga- tzen dela; areago, hainbatetan, gaixoa ez du osa- sun arloko profesionalak berak ere tratatzen eta, ondorioz, gaixoa nahasi egiten da.

Osasun kontseilariak emandako erantzuna ez da nahikoa inola ere, eta horrek informazioa berri- ro eskatzera behartu gaitu.

4.4.2. ADIMEN OSASUNARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIAREN JARRAIPENA

2004ko martxoan, arartekoak adimen osasuna- ren alorreko Nafarroako laguntzari buruzko txosten berezia aurkeztu zuen Foru Araubideko Batzorde- aren aurrean. Txosten horrek hainbat gomendio egiten zuen adimen osasunaren alorreko laguntza-

ren erreformari beste bultzada bat emateko, geldi baitzegoen azken urteotan, eta honako hau zioen hitzez hitz:

- “Ospitale-egoitzako zerbitzuak itxi dira orde- ko erkidego-laguntzako sare bat guztiz ezarri aurretik.”

- “Familien zamari buruzko azterlanek adieraz- ten dutenez, laguntzaren zamaren zati handi bat familiei helarazten zaie, nahiz eta kolektibo hori ez den laguntza-sistemez hornitzen.”

- “Sistemaren krisia sortu zen osasunaren arlo- an behar adinako planifikaziorik ez egiteagatik eta arlo soziosanitariorako (gizarte-ongizatea) aurre- konturik ez izateagatik.”

Amaieran, hainbat gomendio egiten zuen txos- ten bereziak.

Bi urte igaro diren honetan, gomendio horiek zenbateraino aplikatu diren ebaluatu dugu eta, zalantzarik gabe, uste dugu tarte honetan izan den aurrerapenik handiena adimen osasunaren alorre- an gizarte eta osasun arloa landuko duen zerbi- tzuen sare integratua osatzeko gomendioaren ingurukoa izan dela. Izan ere, Gizarte Ongizateko Departamentuak Adimen Arazo Larriak dituzten Pertsonak Laguntzeko Programa onartu eta abian jarri izana mugarri garrantzitsua izan da dudarik gabe, luzaroan eskatu baita.

Era berean, poztu egin gaitu Bideko Ama Ospi- talean haurrak eta gazteak ospitaleratzeko psikia- tria unitatea inauguratu izanak.

Laneratzean lortutako aurrerapena, ordea, oso txikia edo hutsaren hurrengoa izan da, baina espero dugu egoera hobetu egingen dela, Gizarte Ongizateko Departamentuaren aurreikuspenekin bat, Adimen Arazo Larriak dituzten Pertsonak Laguntzeko Programak xedatzen dituen lan hezi- ketako eta laguntzako taldeak sortzen badira.

Bestalde, arartekoaren txosten bereziak Osa- sun eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria departamentuak eta adimen gaixoen laguntzen dituzten Nafarroako erakundeak elkarrekin jardute- ko lankidetzak esparru egonkorra ezartzearen alde egin zuen, baina kezkatu egin gaitu harreman horiek hobetu ez izanak eta instantzia bakoitzaren rola argitu ez izanak.

Era berean, ez da plan oso berririk prestatu. Txosten bereziaren gomendioekin bat, ostera, Nafarroan adimen osasunari buruzko plan osoa izatearen alde egiten jarraitzen dugu, baina plan hori ez da zatitu behar, eta are gutxiago Gizarte Ongizateko Departamentuaren esku soilik utzi.

Azkenik, adimen arazoak dituzten pertsonak euren borondatearen kontra ospitaleratzeko protokoloak osatu gabe segitzen du, behin eta berriro eskatu dugun arren. Horregatik, arartekoak Osasun Departamentuak krisialdi akutuetako laguntzari behar bezala erantzuteko erantzukizuna nabarmentzen jarraitzen du, epaileen, Poliziaren eta adimen osasunaren alorreko sarearen arteko koordinazioa bideratuz.

Edonola ere, xehekiago aztertuko ditugu arazo larri honen egungo egoera eta gaiari aurre egiteko gauzatu diren ekimenak.

4.4.2.1. Adimen arazo larriak dituzten pertsonak laguntzeko programa eta gizarte eta osasun arloko baliabide berriak

2005eko urtarrilean, Nafarroako Gobernuak Adimen Arazo Larriak dituzten Pertsonak Laguntzeko Programa onartu du. Zehazki, oinarrizko honako programa hauek osatzen dute Programa:

- Gaixotasuna Osasun Departamentuak diagnostikatu eta tratatzea, adimen osasunaren alorreko sarearen bitartez

- Errehabilitazio psikosoziala (adimen gaixotasunen bat duten pertsona ezinduak ahalik eta baldintza normalizatu eta beregainenetan birgizarteratu eta euren funtzionamendu psikosoziala ahalik eta baldintza normalizatu eta beregainenetan hobetzen laguntzeko helburua duen prozesua –Rodríguez, A., 1997–)

- Laneratzea (ezintasun psikiatrikoren bat duten pertsonak lan munduan barneratzeke ohiturak, abileziak eta gaitasunak eskuratu, mantendu eta lantzen laguntzeko prozesua)

- Gizarte eta osasun arloan esku hartzeko programa (Foru Komunitateko laguntza programa, adimen arazo larriren bat duten pertsonak gaixotasunaren ondorioz neurri batean edo guztiz galdu dituzten abileziak berreskura ditzaten lantzen duena familiartean eta euren gizarte ingurunean askotariko alorretako profesional taldeen bitartez)

- Familiak laguntzea (familiarreko kideei abileziari eta gaitasunari buruzko informazioa, aholkularitza eta babes emateko programa, adimen arazo larriren bat duten senitartekoak tratatzen ikasi eta euren bizi kalitatea hobetu dezaten)

- Ostatu eman eta erietxeetan laguntzea (adimen arazo larriak dituzten pertsonak senitartekoen etxean ez geratzeko programa, euskarri egokirik ez badago, ostatu, mantentze, zaintza eta ikuskatze aukera ugari ematen dituen, gaixoei okerrera egin ez dezaten edo alde batera edo bakartuta gelditu ez daitezten)

- Adimen arazo larriak dituzten pertsonen eskubideak babestea (adimen arazo larriak dituzten pertsonen eskubideak bai laguntza eta tratamendu arloan, bai eguneroko bizitzan babes daitezten bermatu eta sustatzeko programa)

Gainera, Programak baliabide berriak abian jarri eta aurrez zeuden baliabideak ugaritu eta berrantolatzea ikusten du aurrez:

- Baliabide berriak sortzea

- Errehabilitazio psikosozialeko zentroak, bi programadunak

- ⇒ Pertsonarik kaltetuenentzako eguneko zentroetako programa

- ⇒ Errehabilitazio psikosozialeko programa (325 toki bost zentrotan)

- Lan heziketako eta laguntza taldeak

- 70 toki Foru Komunitatearen hiru etxetan

- Aurrez zeuden baliabideak ugaritu eta berrantolatzea

- Adimen gaixoenentzako laguntzadun erietxeetako tokiak

- 12 toki adimen gaixoenentzako hiru etxebizitza babestutan

- Diruz lagundutako apopilo etxeak

- Bestelako baliabideak

- Gizarte eta komunitate arloan esku hartzeko bi talde

- Aisialdiko programa

Azkenean, 2005. urtean barrena jarri dira mar-tan gizarte eta osasun arloko baliabide berri horiek guztiak, gorabeheraz beterik eta pixkana-pixkana bada ere.

Ildo horretan, errehabilitazio psikosozialeko lau zentro ireki dira azaroan, Iruñean, Tuteran, Lizarran eta Elizondon. 230 toki dituzte guztira, baina beste zentro batzuk eraikitzeke lanak laster hasiko direla iragarri da.

Zalantzarik gabe, baliabide berri horiek abian jarri izana aurrerapen handia da, nahiz eta prozesua polemikoa izan den zerbitzuak kanpora atera direlako, baliabideok Gizarte Ongizateko Departamentuaren mende utzi direlako eta, batez ere, gaixoei zenbait zerbitzuren kostuaren zati bat ordaindu beharko dutela iragarri delako. Horregatik guztiagatik, arartekoak kexa espediente bideratu du eta, jarraian, espedientearen ondorioak laburbilduko ditugu.

Baliabideak kanpora ateratzea dela-eta, honako hau dio txostenak:

“Adimen osasunaren alorreko sareko beste errehabilitazio zerbitzu batzuen aldean, uste dugu hain zerbitzu publiko garrantzitsua emateko antolatutako egitura eskasa dela nabarmen, gaur egun galdatzeko modukoa den kalitatea izanen badu; errehabilitazio psikosozialeko zentroetako giza baliabideak eskasak direla kopuru aldetik eta ez dituztela betetzen bete beharko lituzketen eskakizunak; eta, gainera, baja hartzen dutenak ordezkatu beharra finkatu behar dela, laguntzak egokia izaten jarrai dezan.”

Erabiltzaileek zerbitzuen zati bat ordaindu beharra aplikatzeari buruz, berriz, zera dio:

“Erakunde honek aparteko interesa eta kezka adierazi du errehabilitazio tratamenduak ordaintzeko tarifak kobra litzazkiekeelako adimen gaixoei. Izan ere, neurri hori oztopoa izan liteke egoera bereziki ahulean dagoen talde honek zerbitzua eskuratzeko aukera izateko.

Espainiako 17 autonomia erkidegoetako Adimen Osasunaren alorreko zuzendariek 2003ko apirilean, III. Jardunaldietan hitzartu zuten, adimen osasunaren errehabilitazioa osasun tratamendua eta zerbitzu unibertsala da eta, horrenbestez, ez da arrazoizkoa errehabilitazio zerbitzua kobratzea talde honi, Lan eta Gizarte Arazoetako Ministerioaren 2003ko txosten batek gaixotasun larriak dituzten pertsonak oso egoera ekonomiko txarrean daudela onartzen duenez gero, 600 eurotik beherako errenta duten etxeetan, pentsiodun gurasoekin edo ama alargun helduekin bizi direlako gehienbat”.

Ondorioz, auzi honi buruzko informazioa eskatu diogu Osasun Departamentuari, baina egin duen bakarria errehabilitazio psikosozialeko zentroetako tratamenduak kosturik izanen ez duela adieraztea izan da; alegia, ez du inolako iritzirik eman.

Alabaina, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zuzenean edo zeharka kudeatzen dituen zerbitzuen tarifak, salbuespenak eta hobariak aldatzen dituen otsailaren 28ko 1/2005 Ebazpenak erakunde autonomo horretako Gobernu Batzordeak 1997ko ekainaren 18an hartutako Erabakiko 4. artikulua aldatu du, eta adimen gaixotasunak dituzten pertsonak erietxeetan laguntzeko zerbitzuaren zenbatekoa hileko 1.114,96 eurotan finkatu du, eta eguneko laguntzarena (garraio eta jantoki zerbitzuarena), hileko 121,26 edo 68,59 eurotan, gaixoa 18 urtetik gorakoa edo beherakoa den hurrenez hurren. Ebazpenak Erabakiko 5. artikulua ere aldatu du eta, adimen gaixotasunak dituzten pertsonak erietxeetan laguntzeko zerbitzua hartuz

gero, hileko per capita errentaren % 90 ordaindu behar dutela ebatzi du, eta % 50, etxebizitza babestuetan edo prestatuetan biziz gero.

Bada, delako espediente bideratzen hastera-koan, adimen arazo larriak dituzten pertsonen zerbitzuen zati bat ordaindu beharra aplikatuko zitzaieka ikusten zen aurrez. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Gobernu Batzordeak, 1997ko ekainaren 18ko Erabakiko 4.2. artikulua aldatzen duen irailaren 12ko 3/2005 Ebazpenaren (Nafarroako Aldizkari Ofizialean 2005eko urriaren 5ean argitaratutakoaren) bitartez, baina, errehabilitazio psikosozialeko zentroen tarifa ere ezintasunen bat duten gainerako taldeen eguneko laguntzaren inguruko irizpideari jarraiki behar zaiola ezarri du. Hartara, ez da tarifarik ezarri errehabilitazio laguntza hartzearen trukean, eta eguneko zentroko jardueretan parte hartzen duten pertsonen bano ez dute tarifarik (hileko 63 euro) ordaindu behar, jantoki zerbitzuaren trukean. Dena dela, inor zerbitzua hartu gabe geldi ez dadin bermatu behar da, horretarako baliabiderik izan ez arren.

Hori guztia ikusirik, zera ondorioztatu du arartekoak ebazpenean:

“Azken batean, uko egin zaio errehabilitazio psikosozialeko zentroek inolako tarifarik kobratze-ari; hain zuzen ere, tarifok 1/2005 Ebazpenak zaharrentzako eta ezinduentzako baliabideen trukean finkatzen zituenak ziren hasiera batean. Hortaz, adimen arazo larriak dituzten pertsonen errehabilitazioa eta gizarte eta osasun arloko zerbitzuak errehabilitazio psikosozialeko zentroetako zerbitzuen zerrendan sartu behar dira, 16/2003 Legeko 20. artikuluari jarraiki, baita errehabilitazio klinikako eguneko zentroko programak ere. Hau da, zerbitzuok adimen arazo larriak dituzten pertsonentzako zerbitzu unibertsaltzat hartu behar dira, legediak (Konstituzioko 9., 14., 43. eta 49. artikuluek, 14/86 Legeak eta Espainiako osasun sistemaren kohesioari eta kalitateari buruzko 16/2003 Legeak) adimen gaixotasun larriak dituzten pertsonen onartzen dizkien eskubideak ez urratzearen.

Erakunde honek irizpide aldaketa horren alde besterik ezin du egin, alde handiak izanen liratekeelako bestela adimen arazo larriak dituzten pertsonen artean, norbere gizarte eta ekonomia arloko eta familiarreko egoeraren ondorioz; izan ere, zerbitzuak batera ordaindu beharrak atzera eragin litzake bakarrik edo ostatuetan bizi diren pertsonak, eta ez luke berdintasuna eta unibertsaltasuna bermatuko”.

Bestalde, honako gogoeta eta oharpen hauek egin ditu arartekoak txostenean Osasun Departamentuak errehabilitazio psikosozialeko programen funtzionamenduan duen ardurari buruz:

“Erakunde honek Osasun eta Gizarte Ongizateko departamentuek elkar ulertzen ez dutela eta koordinazio arazoak antzematen zirela salatu zuen Nafarroako adimen osasunaren laguntzari buruzko txosten bereziaren bitartez. Ulergaiztasun kroniko hori gizarte eta osasun arloko laguntzari buruzko foru plana onartu izanak arindu zuen neurri batean, baina herritarren kexek arazo hori islatzen dute behin eta berriz, eta hartu ditugun txostenek ere errealtate hori erakusten dute, plana onartu izana gorabehera.

Horregatik, ezinbestekoa da Osasun Departamentuak erabateko esku-hartzea eta ardura izan dezan bermatzea. Izan ere, ezin dugu utzi plana zatitu egin dadin, edo Gizarte Ongizateko Departamentuaren esku bakarrik gera dadin, eta, horretarako, zeharkako koordinazioa behar da, adimen gaixotasunak dituzten pertsonak ahalik eta bizi kalitate onena izan dezaten.”

Osasun Departamentuaren erantzuna ebazpen honen aurrekariei buruzko atalean transkribatu dugu hitzez hitz, eta eskasa da nabarmen, ez dituelako planteatu dizkiogun funtsezko alderdi zehatzak zehaztu eta Gizarte Ongizateko Departamentuaren txostenak aipatzen dituen beste zenbait alderdiren aurkakoa ere delako.

Gizarte Ongizateko Departamentuak, berriz, errehabilitazio psikosozialeko zentroak gizarte zerbitzu espezializatuen artean daudela argitu du lehenik eta behin, eta zerbitzuok emateko esparrua gizarte eta osasun arloko laguntza dela. Hortaz, baliabide honen gaineko erantzukizuna Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari dagokiola adierazi du, baina Osasun Departamentuak ere har lezakeela parte plana gauzatzen, erabiltzaileentzako laguntzaren eta planaren beraren jarraipenaren alorrean.

Ildo horretan, Gizarte Ongizateko Departamentuak honako hau jakinarazi du:

“Bi departamentuen artean behar bezalako koordinazioa bermatze aldera, honako prozedura hauek ezarri dira:

- *Adimen Arazo Larriak dituzten Pertsonak Laguntzeko Programa zuzentzeko batzordea osatzea bi departamentuetako kideekin*

- *Batzorde tekniko osatzea adimen arazo larriak dituzten pertsonentzako programaren barnean bi departamentuetako kideekin*

- *Ituna arautzen duten klausula teknikoak buruzko orriek programaren jarraipena egiteko batzordea xedatzea, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko bi kidez, Adimen Osasuneko Zuzendariordetzako bi pertsonaz eta erakunde esleitzailako bi pertsonaz osatutakoa*

Bestalde, honako prozedura hauek ere ari gailentzen Adimen Osasuneko Zuzendariordetzarekin:

- *Adimen osasunaren alorreko sareko erreferente bat aukeratzea alderdi orokorrak (hala nola, protokoloak, bitartekoak, laguntza prozesuak, jarraipena eta ebaluazioa eta aplikatu beharreko hobekuntzak) koordinatzeko*

- *Osasun arloaz arduratzen diren adimen osasunaren alorreko sareko profesionalek laguntza programa gauzatzen (onarpenean eta harreran, ebaluazioan, bana-banako laguntza plana osatzen, programen jarraipena egiten, erabiltzaileei alta ematen...) esku har dezaten lortzea.”*

Bi departamentuok adierazitakoa ikusirik, bere iritzia berretsi du arartekoak eta honako hau jakinarazi du:

“Erakunde honek aipatu txostenaren bitartez adierazi zuenez, adimen gaixoentzako osasun zerbitzuak osasun arlokoak ez diren baina adimen gaixo kronikoak eguneroko bizitzara egokitu eta euren familiarakoak eta zaintzaileak babesteko beharrezkoak diren beste zerbitzu batzuekin bat eman behar dira, hain zuzen ere, adimen gaixoak zaintzeko helburua duten eta osasun arloan bertan edo, koordinazio estrategien bitartez, beste alor batzuetan ematen diren osasun zerbitzuekin bat. Bestalde, litekeena da erabiltzaile bakarrak zerbitzu bat baino gehiago (zentroren batean tokia izatea, aisialdikoak, lan arlokoak, osasun arlokoak...) behar izatea; hau da, gizarte eta osasun arloko zerbitzuen “sorta” behar izatea, bere neurri-egindakoa. Hala bada, koordinazio estrategia konplexuagoa da, eta beste modu batean (hala nola, kasuen kudeaketan eta baliabideen kudeaketan) pentsatu behar da.

Adimen gaixoei askotariko zerbitzuek behar dituzte, baina Foru Komunitatean indarrean dagoen sistemak gabeziak ditu, osasun arloko zailtasunengatik baino gehiago, norbere erantzukizuna eta irizpide ekonomikoak ez direlako berberak. Hori dela-eta, esparru argi eta zehatza finkatu behar da lehenbailehen; administrazio publikoen erantzukizunaren esparrua eta ekimen pribatuaren (banakakoaren edo kidetutakoaren) balizko parte hartzea finkatu behar da adimen gaixoentzako laguntzaren alorrean; gizarte zerbitzuek eta osasun zerbitzuek egin beharreko lana finkatu

behar da; euren funtzioak mugatu behar dira; eta, norbere osasun egoeraren, gizarte eta ekonomia arloko baldintzen eta familiarterako egoeraren arabera, baliabideak adimen gaixo bakoitzaren beharretara egokitzeari buruz erabaki behar duten erakundeak sortu behar dira.

Gizarte Ongizateko Departamentuak egin duen txostenaren ildoan, badirudi nabarmena dela, zerbitzu batzuk elkarren artean kudeatuz gero, herritarrek gusturago daudela, laguntza esparrua koherentea dela eta segurtasuna ematen diela hala gaixoari, nola zaintzaileei eta laguntza hori ematen duten profesionalak. Hortaz, atera dugun ondorio nagusia da alderdi orokorrak (hala nola, protokoloak, bitartekoak, laguntza prozesuak, errehabilitazio zentroetako laguntzaren jarraipena eta ebaluazioa eta hobekuntzak) koordinatzeko bitartekoak sortu behar direla, herritarren eta administrazioaren arteko harremana hobea izan dadin, frustrazioa eta tirabira sortzen duten egoerak urriagoak izan daitezen eta norabide bakarretako laguntza ezar dadin.

Horregatik guztiagatik, egoki iritzi diogu Osasun Departamentuari GOMENDIOA egiteari, berriaz har dezan bere gain errehabilitazio psikosozialeko zentroen eta programen jarraipen tekniko egin eta horien kalitatea kontrolatzeko erantzukizuna eta, Gizarte Ongizateko Departamentuak egin duen txostenaren ildoan, bere gain har dezan beharrezko bitartekoak eta sistemak lantzeko erantzukizuna, errehabilitazio psikosozialeko zentroetan eta programetan parte hartzen duen gaixo bakoitzaren laguntza prozesuaren kalitatea eta jarraitutasuna bermatzeko”.

4.4.2.2. Nafarroako Gobernuaren eta adimen osasunaren alorrean aritzen diren gizarte erakundeen arteko lankidetzaren esparrua

Ikaragarri kezkatuta gaude, agintariak eta adimen osasunaren alorrean aritzen diren gizarte erakunde nagusi batzuk elkarrengandik urrun daudelako egun.

Izan ere, ezinbestekoa da adimen osasunaren alorrean jarduten den eragile nagusi bakoitzak zein rol bete behar duen hitzartzea, benetako plan oso baten helburu estrategikoak lortze aldera guztion artean.

Alde horretatik, argi dago elkarteek ulertu eta onartu egin behar dutela euren eginkizuna orduan eta bigarren mailakoagoa dela, administrazioaren beraren esparrua zenbat eta handiagoa izan, baina, hala ere, erantzukizun esparru nahikoa izan behar dutela betiere.

Era berean, oinarrizkoa da gobernariak ulertu egin dezaten elkarteek funtsezko eginkizuna betetzen dutela zerbitzu publikoak etengabe hobetzea. Izan ere, egungo herritarrek euren zuzeneko eragina duten auziei buruzko erabaki prozesuetan modu aktiboagoan parte hartzeko gogoia eta gaitasuna dute eta, ondorioz, administratzaileen eta administratuen arteko harreman paternalista errotua pixkanaka-pixkanaka amaitzen ari da.

Ikuspegi honek, baina, kultur aldaketa dakar zinez, harreman eredu berria behar da eta administrazioaren eta herritarren artean.

Zerbitzari publikoek herritarren iritzia entzuteko prest egon behar dute, iritzi hori gustuko izan ez arren, euren behar eta itxaropen erreala zein diren jakiteko. Horrenbestez, herritarrek zuzenean parte hartzeko bideak ugaritu behar dira eta, horretarako, elkarteak hartu behar dira euskarritzat.

Ezin ahaztu dugu, adimen osasunaren alorrean, helburu nagusia gizarteari kontzientzia harraztea dela, adimen gaixoen guztiz gizarteratzea lortu eta euren aurkako diskriminazioa gaindi dezan, eta, ildo horretan, adimen gaixoen eta euren senitartekoen elkarteak egiten duten lana funtsezkoa eta ordezkaezina da.

Herritar guztiek bezala, adimen gaixo larriek ere eskubideak dituzte, eta eskubideok euren kabuz edo legezko euren ordezkarien bitartez galdatzeko aukera izan behar dute.

Euren senitartekoen ere izan behar dute esku-biderik, maiz gertatu ohi denez, gaixoen zaintzan funtsezko eginkizuna betetzen badute batik bat. Horregatik, familiei trebakuntza eta babes psikologiko eta soziala ematea ezin da alde batera utzi, eta ez da alde batera utzi behar.

Adimen gaixoen egoera klinikoa bera eta, hainbatetan, gaixo daudelako kontzientziarik eza direla-eta, askoz ere zailagoa da kaltetuek eurek egitea euren eskubideen alde eta, ondorioz, are beharrezkoagoa da elkarteak izatea alor honetan. Hain zuzen ere, horrexegatik dira hain beharrezkoak!

Eta horrexegatik da gero eta premiazoagoa administrazio publikoak halako erakundeekin lan egiteko lankidetzaren esparru egonkorra sor ditzan.

4.4.2.3. Osasun Departamentuaren erantzukizuna adimen osasunaren alorreko laguntza osoaren diseinuan eta burutzan

Txosten bereziaren gomendioekin bat, Nafarroan adimen osasunari buruzko plan osoa izatearen

alde egiten jarraitzen dugu, baina plan hori ez da zatitu behar, eta are gutxiago Gizarte Ongizateko Departamentuaren esku soilik utzi.

Azken urteotan, adimen gaixoentzako laguntzaren lehentasuna gizarte alderdiei eman diegu guztiok, baztertuta egon direlako luzaroan, baina horrek ez du esan nahi Osasun Departamentuko agintariak pentsatu behar dutenik adimen gaixo larrientzako osasun laguntzaren alderdi asko eta asko ere hobetu behar ez direnik.

Halaber, badirudi beharrezkoa dela askotariko jakintza arloetako taldea osatzea gaixo daudela jabetzen ez diren eta ospitaletik atera bezain laster tratamenduak utzi eta berriro gaixotzen diren gaixo larrientzat. Talde honi etxeko laguntza osoa ematea ere behar-beharrezkoa da.

Era berean, nortasun arazoak dituzten gaixoei, patologia duala duten gaixo drogazaleek, eta abarrek planteatzen dituzten arazoei aurre egiteko laguntza hobetzea ere hobetu beharreko eremuak dira.

Bestalde, Osasun Departamentuak ezin du bazter utzi laguntzaren zuzendaritza tekniko eta jarraitutasuna bermatzeko ardura, Gizarte Ongizateko Departamentuak abiatu duen planak ez delako bermatzen berez laguntza sistemen koordinazioa eta integrazioa.

Azkenik, ezinbestekoa da zerbitzuak (hala publikoak, nola itundutako pribatuak) ebaluatu eta zerbitzuen kalitatea kontrolatzeko sistemak askoz ere zehazkiago definitzea, eta inola ere ezin da ahantzi erantzukizun publikoa ezin dela utzi besteren esku.

4.4.2.4. Gaixoen euren borondatearen kontra ospitaleratze protokoloaren beharra

Txostenaren gomendioen harira, berriro ere nabarmenduko dugu, arazo larria den aldetik, Osasun Departamentuak behar bezala erantzun behar diola krisialdi akutuetako laguntzari, epaileen, Poliziaren eta adimen osasunaren alorreko sarearen arteko koordinazioa bideratuz. Orobat, gaixoen euren borondatearen kontra ospitaleratze protokoloa lehenbailehen osatu beharra ere nabarmenduko dugu.

Alde horretatik, ezin dugu alde aurretik jakin zein izanen den irtenbiderik egokiena baina, era berean, ezin ahaztu dugu, Bartolomé de Carranza Fundazioaren arabera, zaintzaileen % 59k beharrezkotzat dituztela krisialdietan laguntzeko zerbitzuak. Aldi berean, zaintzaileek arratsaldeetan larrialdietako laguntza emanen duten adimen osasuneko zentroak irekitzeko ere eskatzen dute,

baita larrialdi psikiatrikoetan esku hartuko duen taldea osatzeko ere.

Ildo horretan, gogoan izan behar ditugu beste autonomia erkidego eta probintzia batzuetan (esaterako, Alacanten) ospitaleratze protokoloak direla eta izan dituzten esperientziak eta Prozedura zibilar buruzko Legea aldatzeko (Legeko 763 artikuluari 5. atala eransteko) lege proposamenaren kariatara izandako eztabaida handia, arazo psikikoak dituzten pertsonen euren borondatearen kontrako tratamendu ibiltaria emateko.

Eztabaidak frogatzen duenez, proposamenaren aldekoek uste dute atal hori guztiz bateragarria dela baliabide ugariagoak eta hobek eskatzearekin; eszeptikoei, berriz, jotzen dute planteamendu horrek funtsean gizarte eta osasun arlokoa den gaia epaileen esparruan sartu eta laguntza sarea behar baino baliabide gutxiagoz hornituta dagoela ezkututzen duela.

Azkenik, EUNOMIA azterketaren ondorioak ere hartu behar dira kontuan; hain zuzen ere, 12 herrialdek hartu dute parte Psikiatria arloko Hertsadurari eta Jokabide Kliniko Zuzenak Bateratzeari buruzko Europako Ebaluazioan, eta helburua psikiatria arloko bitarteko eta neurri hertsagarrien erabileraren alderdi praktikokoak eta legezkoak aztertu, lortutako emaitzak erkatu eta Europako gida osatzea izan da, alor honetan esku hartu eta bitarteko eta neurri horiek aplikatu eta kontrolatzeko jarraibideen berri emateko. Horri esker, arautegi orok errespetatu behar dituen oinarritzko hainbat printzipio finkatu da:

- Norbere duintasuna eta giza eskubideak errespetatzeko printzipioa
- Legezketasun printzipioa
- Behar printzipioa
- Kongruentzia printzipioa
- Ahal bezain gutxien esku hartzeko printzipioa
- Behin-behinekotasun eta programazio printzipioa
- Bitartekoen egokitasunaren printzipioa
- Laguntza eta zaintza printzipioa, adimen gaixoen gainerako gaixoei parekatzeak burutu behar duena
- Jarduna dokumentatzeko printzipioa
- Partaidetza printzipioa, gaixoen burujabetasuna babestu eta sustatzeko helburua duena gaixoa gai den uneetan
- Ikuskatze eta kontrolatze printzipioa

4.4.3. ADIMEN GAIXOEN ESKUBIDEAK SUSTATZE-KO JARDUERETAN ESKU HARTZEA

Arartekoak Adimen Osasuneko Nafarroako Elkarteak antolatu dituen XIV. Jardunaldietako amaierako ekitaldian parte hartu du, urriaren 6an. Erakundeko aholkulari batek, berriz, txostena aurkeztu du 2005eko maiatzaren 19an egin den jardunaldi batean; hain zuzen ere, jardunaldi hori krisialdian esku hartzeari buruzkoa izan da.

4.5. EZINTASUN FISIKOAK ETA ZENTZUMENEZKO EZINTASUNAK

Adimen osasunak erakundearen arreta nabarmen bereganatzen duen neurri berean, ezintasun fisikoek eta zentzumenezkoek ere erakartzen dute eta, horregatik, nahiko arreta handia eman die 2005. urtean.

4.5.1. EZINTASUN ARLOAN AURKEZTUTAKO KEXAK

Beste batzuk baino ahulagoak diren taldeen baitan jazo ohi denez, alor honetan aurkezten den kexa kopurua txikiagia da oraindik ere. Edonola ere, zeharka aztertuz gero, honako gai hauei buruzkoak dira funtsean:

- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak
- Eremu publikoan ibiltzeko aukerak eta oztopoak kentzea
- Gizarte laguntzak
- Gizarte etxeetarako garraioa
- Lanerako prestatzeko zentroak eta enplegu zentro bereziak

Lehenik, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen egoerak gero eta gehiago kezkatzen du arartekoa. Izan ere, halako ikasleak behar bezala laguntzeko beharrezkoak diren zerbitzu osagarriak kexa ugari eragin dute aurten; beste horrenbeste gertatu da integrazio eta indibidualizazio printzipioak bateratzearekin, Hezkuntza Departamentuak alor horretan frogatu duena baino malgutasun handiagoa behar baita horretarako. Azken batean, hezkuntza berezia sakon aztertu behar da Nafarroan eta, hori dela-eta, gai honetan barnatzeko asmoa dugu 2005. urtean.

Bigarrenik, hurrengo atalean azalduko dugunez, oztopo fisikoak eta zentzumenezkoak desagerrarazi behar diren ondorioz, gai horri buruzko txosten berezia egin dugu, administrazio publikoek indarrean dagoen araudia zenbateraino betetzen duten jakiteko.

Hirugarrenik, administrazioak lanerako prestatzeko zentroetan eta enplegu zentro berezietan sartu eta ibiltzeko sistemen funtzionamendua nola ikuskatu eta kontrolatzen duen ere aztertu dugu aurten, eta ohartu gara ez dagoela aurrez ikusitako askotariko alorretako profesional talderik; berebat, kontrol lanak hainbat departamenturi esleitzearen ondorioz, "nik emango, zuk emango," jabetu gara departamentuok hainbatetan ez dituztela behar bezainbat hartzen euren gain dagozkien funtzioak.

Laugarrenik, 2005. urtean ofiziozko kexa bat bideratu da, ezintasunaren alorrean aritzen diren irabazi asmorik gabeko elkarteek, diru laguntza publikoan banaketa atzeratu egin dela eta zenbatekoa eskasa dela-eta, likidezirik ez dutelako. Ofiziozko lana Ezinduen Ordezkarien Nafarroako Batzordeak tokiko prentsaren bitartez egin duen salaketak eragin du; hain zuzen ere, Batzordeak alor honetan aritzen diren elkarte gehienak biltzen ditu, eta Nafarroako Gobernuak ematen dituen diru laguntzen zenbatekoa % 20 txikiagotu dela eta diru laguntzok ematen atzerapen handiak izan direla salatu du.

Hori dela-eta, arartekoak kezka adierazi du jendaurrean, uste duelako inola ere ezin dela arriskuan jarri aipatu elkarteek betetzen duten funtsezko eginkizuna, oinarriko zerbitzuak ematen dituzten aldetik aparteko babesgabatasun egoeran dagoen herritar talde handi baten eskubideak babesteko eta zerbitzuok zerbitzu publikoan hutsuneak betetzen dituzten aldetik maiz.

Alde horretatik, gizarte boluntarioen elkarten egonkortasun ekonomikorik eza inola ere ezin da hartu egoerazkotzat. Aitzitik, gure ustez, urte bate-tik bestera errepikatu egiten den egiturazko arazo baten isla da eta, horregatik, laster argitaratuko den txosten berezi xehea egin du arartekoak, diru laguntzak emateko egungo prozedurak eztabaidan jartzen dituen.

4.5.2. EREMU PUBLIKOAN IBILTZEKO AUKEREI BURUZKO TXOSTEN BEREZIA

2005. urtearen erdialdean, Nafarroako erabilera publikoko zentroetan eta zerbitzuetan fisikoki eta zentzumenen bitartez ibiltzeko aukerei buruzko txosten berezia egiteari ekin diogu, eta lana oso aurreratuta dago jada

Espainiako Konstituzioak dio, askatasuna eta berdintasuna izateko, ezinbestekoa dela neurri orokorrak hartzea ezintasun edo urritasun fisikoren bat edo zentzumen urritasunen bat duten pertsonak integratu eta euren eskubideak berdintzeko; ildo horretan, herritar horien garapena eta parte

hartzea eragozten duten oztopo arkitektonikoak eta bestelakoak desagerrarazi behar dira.

Bestalde, Elbarriak gizarteratzeko 13/1982 Legea, apirilaren 7koa da Espainiako erreferentetako bat eremu publikoan ibiltzeko aukeren alorrean. Arau horrek hiriko inguruneak eremu publikoan ibiltzeko eskakizunetara egokitu beharra arautzen du eta, horretarako, etorkizuneko aurreikuspenei erantzuten die.

Foru Komunitatean, berriz, 4/1988 Foru Legeak diseinu unibertsalaren printzipioa du oinarri, eta eraiki gabeko eremuak, eraikin berriak eta erabilera publikoko lokalak, bidaiarientzako garraibide publikoak eta jabetza publikoko edo administrazio publikoen mendeko komunikabide jakin batzuk erabil daitezzen erraztu eta oztopo fisikoak eta zentzumenezkoak desager daitezzen bultzatzea du helburu, ezintasun organiko edo noiznolakoren bat duten pertsonen integrazioa bideratzearen.

Ia 20 urte igaro diren arren xedatu egin zenetik, erraz asko konturatzen gara gorabehera dezentez betetzen dela eta, horregatik, beharrezko jo da administrazioaren ardurapeko alorretan zenbateraino betetzen den ebaluatzea.

Txostenaren helburua

Hasi berri dugun txosten bereziaren helburu orokorra Foru Komunitateko administrazioek oztopo fisikoak edo zentzumenezkoak sor daitezzen galarazteko betebeharra nola betetzen duten eta, erabilera publikoko eremuetan, zentroetan eta zerbitzuetan nornahi ibiltzeko aukera bermatze aldera, aurrez zeuden oztopoak kentzea nola sustatzen duten ebaluatzea da.

Azterlan juridikoa

Arartekoarekin sinatutako hitzarmenari esker, Nafarroako Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateak azterlan juridikoa egin du gaiari buruz, eta haren emaitzen berri eman dugu txosten berezian.

Hain zuzen ere, azterlanak nazioarteko arautegia, Espainiako arautegia eta Nafarroako Foru Komunitateko bertako arautegia aipatzen ditu eta, era berean, autonomia erkidegoetako arautegiek eraikin publikoetan eta erabilera publikoko eraikinetan ibiltzeko aukera bermatzeko eman dituzten xedapenak alderatzen ditu xehe-xehe.

Galdeketa

Txostena egite aldera, egoki iritzi zaio informazioa administrazioengandik eurengandik biltzeari eta, horretarako, informazioa biltzeko galdeketa diseinatu dira.

Galdeketa prestatu ostean, ezintasunaren alorrean aritzen diren Nafarroako elkarte guztiei aurkeztu zaie, beharrezko jotzen zituzten iradokizun eta ekarpen guztiak erantsi eta, hartara, galdeketa finkatutako helburuari erantzunen ziola bermatzearen.

Funtsean, inkestaren helburua honako alor hauetan izan den aurrerapena zenbatekoa izan den analizatzea izan da:

- Eremu publikoan ibiltzeko aukeretan eta plan-gintzan. 4/1988 Foru Legeak xedatzen duenez, hirigintza arloko plan, arau eta ordenantza orok erabilera publikoko eremuetan eta eraikinetan (bai publikoetan, bai pribatuetan) ibiltzeko aukerei buruzko arautegia aipatu behar du.

- Eremu publikoan ibiltzeko aukerak sustatzeari buruzko politika aktiboetan. 13. artikulua araber, Nafarroako administrazio publikoek erabilera publikoko eremuetako eta eraikinetako oztopoak kendu eta eremu eta eraikin pribatuetako oztopoak kendu daitezzen bultzatzeko sailak bideratu behar dituzte urtero aurrekontuetan.

- Udal jabetzako eraikinetan ibiltzeko egungo aukeretan. Legeak Nafarroako administrazio publikoek erabilera publikoko euren eraikinetako oztopoak kendu behar dituztela xedatzen du eta, horretarako, ekintza plana izan dezaten gomendatzen du.

- Erabilera publikoko eraikinetako eta lokaletako (nahiz publikoetako, nahiz pribatuetako) lanen ikuskapenean, kontrolean eta jarraipenean. 16. artikuluaekin bat, udalek eta kontzejuek erabilera publikoko eraikin eta lokal berriak (bai publikoak, bai pribatuak) egiteko proiektuek 4/1988 Legea betetzen dutela egiaztatu behar dute. Ildo horretan, Legeko xedapenak betetzeko eskatu behar dute nahitaezko baimenak eta bizitzeko baimena eman aurretik.

- Oztoporik gabeko ibilbideetan. Legeak eta hura garatzeko dekretuek oinezkoentzako ibilbideek nornahi ibil dadin bete behar dituzten baldintzak ezartzen dituzte.

- Etxebizitza berrietan ibiltzeko aukeretan. 22/2003 Legeko 2. artikulua etxebizitza eraikin berriek bete behar dituzten gutxienezko irizpideak xedatzen ditu, eta 3. artikulua, sustapen publikoko orubeak eta etxebizitzak esleitzeko lehentasun irizpideak.

- Garraibide publikoetan ibiltzeko aukeretan. Araudi horiek guztiek aipatzen dutenez, mugitzeko arazoak dituzten pertsonen bidaiarientzako hiri garraibideetan ibiltzeko aukera izan dezaten bultzatu behar da; zehatz-mehatz, 22/2003 Legeko 1.

artikuluak mugitzeko arazoak dituzten pertsonentzat utzi beharreko gutxieneko aparkaleku kopurua xedatzen du.

- Zentzumeneren bitartez komunikatzeko oztopoen alorrean. 4/1988 Legeko 12. artikuluko 5. eta 6. atalek zerbitzu publikoak eskuratzea eragozten duten zentzumenezko oztopoak kendu beharra aipatzen dute berariaz.

Galdeketa 36 itemek osatzen dute guztira, eta Nafarroako 164 udalek eta Nafarroako Gobernu departamentu guztiek bete dute.

Txosten berezia egin egiten ari gara une honetan, eta 2006. urteko lehenengo sei hilabeteetan aurkeztuko dugu Foru Parlamentuaren aurrean. Nolanahi ere, honako atal hauek osatzen dute:

- I. Txosten berezia egin beharra justifikatzen duten arrazoiak
- II. Txostenaren helburuak eta garrantzia

III. Ereku publikoan nornahi ibiltzeko aukerazitatea, zuzentasun eta justizia sozial kontua

IV. Txosten juridikoa

V. Zuzenbide konparatuari buruzko taulak

VI. Azterketa lana

VII. Aplikatutako metodologia

VIII. Azterketa lanaren emaitzak

IX. Nafarroako Gobernuaren zentroetan eta zerbitzuetan ibiltzeko aukerak

X. Udal zentroetan eta zerbitzuetan ibiltzeko aukerak

XI. Ezindu elkarten iritzia

XII. Ondorioak

XIII. Gomendioak

Ondoko hau atariko datu bat besterik ez da, udal jabetzako zentroetan ibiltzeko aukerak oraindik ere eskasak diren adierazgarri:

UDAL LOKALETAKO IBILTZEKO AUKEREN BALANTZE OROKORRA	Biztanle kopurua				Guztira
	2.000tik behera	2.000tik 5.000ra bit.	5.000tik 10.000ra bit.	10.000 baino gehiago	
Ona edo nahikoa	% 22	% 18	% 50	% 33	% 23
Hala-moduzkoa edo onartzeko modukoa	% 36	% 61	%	% 67	% 41
Txarra edo eskasa	% 39	% 18	% 33		% 34
(Zuri)	% 3	% 3	% 17		% 3
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

4.6. POBREZIA ETA GIZARTE BAZTERKETA

Ohiz kanpokoa da pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko kezak heltzea erakundera, baina horrek ez du esan nahi, ezta gutxiago ere, gai horrek arartekoak landu beharreko alorretatik kanpo geratu behar duenik.

Hortaz, alor honek gudan pizten duen interesa dela-eta, gai horri buruz eztabaidatu den hainbat bileratan parte hartu dugu, eta Nafarroako Gobernuak 1998 eta 2005 artean bazterketaren aurka borrokatzeko planaren ebaluazioa aurkezteko zain gaude. Izan ere, 2005. urtean amaitu da plan hori indarrean egon den tarte, eta espero dugu haren bilakaera zorrotz ebaluatuko dela, Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Sareak antzeman eta salatu dituen gabeziak zuzendu eta plan berria prestatzearen lehenbailehen; hain zuzen ere, osatzen den plan berri horrek gizartearen izandako aldaketak (batik bat, migrazio boomak ekarritakoak) kontuan hartu eta kontrol sistema hobekiaz ezarri beharko lituzke, planak xedatzen dituen neurriak aplikatu egiten direla bermatzeko.

4.6.1. ARARTEKOA ETA POBREZIA FORMA BERRIAK

Kataluniako Síndic de Greuges erakundearen sorreraren 20. urteurrenaren kariatara, arartekoak "Pobrezia forma berriak" izeneko txostena aurkeztu du.

Agerraldian nabarmendu duenez, historian barrena pobrezia ekarri badu ere gizarte bazterketa, "gaur egun gizarte bazterketa dakar pobrezia":

"Ezintasun psikikoak dituzten baina familiareko euskarririk ez duten pertsonak; inori axola ez zaizkiola sentitzen duten eta, ihes egiteko gai ez diren deabruzko espiralean, bazterketa areagotzen duen jarrera duten haur eta nerabe moldatu gabeak; etorkinak; esplotatu egiten dituzten emakumeak; drogazaleak; hiesak jotako gaixoak; preso ohiak; alkoholzaleak; eta abar, eta abar. Horien guztien egoerak ikusten ez dugun azpimundua osatzen du, eta gutako gehienok literaturaren edo zinemaren bitartez baino ez dugu haren berri izan.

Langabezian denbora luzez egon diren familia buruak, sistemak nahi ez dituenak arraroak edo baldarrak edo diziplinarik gabeak direlako edo, besterik gabe, baja ugari hartzen dituztelako edo 40 urtetik gorakoak direlako; euren ardurapean senitartekorik duten emakume ezkongabeak, emakumezkoak direla-eta, egonkortasunik ez duten eta, gizonezkoenaren aldean, soldata txikiagoa

ematen duten lanak onartu behar dituztenak; miseriazko pentsioak dituzten alargunak; mende-kotasun egoeran dauden edo ezintasunen bat duten zaharrak, familiareko euskarririk ez dutela-eta, laguntza publikoetatik ozta-ozta bizi direnak; eta abar, eta abar. Horien guztien egoera ez da erabateko pobrezia, baina askoz ere ohikoagoa da, eta aurrekoei gehitu behar zaizkie."

Nabarmentzekoak dira arartekoak Nafarroako egoerari buruz eman dituen iritzi batzuk:

"Egia da Nafarroako egoera ona dela beste batzuen aldean, baina ezin ahanzi dugu zer duen gizarteak ontzat. Ildo horretan, oso pobrezia maila txikiak esan nahi dute 10.000tik 40.000 pertsonara bitartean pobrezia erlatiboko egoeran bizi direla gure Nafarroa aberats honetan. Pertsona horiek izen-abizenak dituzte, baina ez gara asmatzen ari Konstituzioak onartzen dituen eskubideak bermatzen.

Arartekoa naizen aldetik, oso ontzat dut Nafarroak plan osoa izatea alor honetan, eta lorpenetat, haren adierazleak aldizka argitaratzea, baina, aldi berean, deitoratu egiten dut planaren betearazpena ez dela aurreikuspenak betetzen ari antza.

Era berean, arartekoa naizen aldetik, kezkatu egiten nau, planaren diseinu osoa egokia izan arren, gauzatzea ez dela departamentuen (Osasun, Hezkuntza, Gizarte Ongizate... departamentuen) arteko oztopo tradizionalak gainditzen ari antza. Gainera, norberaren arabera gizarte laguntza ere ez dirudi espero bezainbeste orokortu denik, planeko elementu giltzarria izan arren.

Bestalde, bazterketari aurrea hartzeko ekimenak behar baino gutxiago landu izana bereziki kezagarria da, arartekoak behin eta berriro errepikatu duelako behar hori eta hainbat txosten berezi egin ere egin duelako horri buruz: adimen gaixoei buruz, eraso egin dieten emakumei buruz, etorkinei buruz, ezinduei buruz... Badirudi onartu egiten dela gizarte dual eta baztertutako gutxiengoekiko elkartasunik gabea bihurtzen duten faktoreak saihestezinak direla. Ondorioz, gizarteak pertsonak baztertzen segitzen du, eta gizarte zerbitzuek bazterketaren ondorioak neurri batean bakarrik tratatzen jarraitzen dute, a posteriori gainera.

Azkenik, haurren egoera ere oso kezagarria da, bazterketa bizitzako lehenengo urteetan hasten baita gehienetan. Alde horretatik, oso kezagarria da hezkuntza sistemak ez lortu izana gizarte esparru jakin batzuetako eskola porrota areago murriztea. Izan ere, pobrezia inguruko egungo ikuspegiarekin bat, agerikoa da gizarte bazterketaren alorreko lehentasun nagusiak haurrek oinarritzko hezkuntza izateko aukera izan dezaten ber-

matzea izan behar duela, munduari berdintasun egoeran aurre egiteko gai izan daitezen”.

Agerraldian, arartekoak pobrezia eta gizarte bazterketari banan-banan, kasuan-kasuan heldu beharra nabarmendu du:

“Pobrezia, gizarte bazterketari eta antzeko gaiei aurre egiten zaienean, tentagarria izan liteke egoera hozki eta ongizate estatuak lortu dituen helburuen eta lortzeke dituen xedeen balantzea eginez azaltzea; hartara, Nafarroako emaitza “oso ona” izanen litzateke. Berebat, ebalazioa tekniko-ki eta hozki egiteko modu horrek arazo gutxiago sortuko luke administrazio publikoekin, dudarik gabe, gure iritziak zilegiak eta zuzenak direla pentsatuko bailukete.

Alabaina, eskubideak (are gehiago, herritar talde handi batenak) betetzen ez diren egoera oro azalertzeko jarrera dator bat eskubideak bermatzeko eginkizuna duen erakundeari (hala nola, Arartekoari) agindutakoarekin. Izan ere, gogoan izan beharra dago eskubideak banakakoak direla eta herritar guztien eskubideak bermatu behar direla, eta, horrenbestez, ez dela nahikoa batez besteko estatistikoak hobetzea.

Zoritxarrez, jarrera estatistikazale eta aseptiko horiek eskubide eta gizarte zerbitzu gehiegi “aukerako” edo “norbere borondatearen arabera-koak” eta, hortaz, zehaztugabeak direla uste izate-

aren ondorio da; ezertara behartuta ez gaudelako premisa dugu abiapuntu, batere elkartasunik gabe, eta, ondorioz, ahal duguna egiten dugula diogu.


Aitzitik, aurpegi jakin bat egokitzen diegunean gure hirietan ozta-ozta bizi diren eta arartekoaren aurrean kexa aurkezteko zilegitasunik ere ez dutela uste duten edo horretarako gizarte abileziak ere ez dituzten herritar ikusezin horiei, pertsona horietako bakoitzak bere izenean ofiziozko kexa sustatzea merezi duela jabetzen gara, Konstituzioak onartzen dizkion eskubideak berreskura ditzan”.

4.6.2. GIZARTE BAZTERKETARI BURUZKO LANTEGIA

Unibertsitate Publikoarekin batera, gizarte bazterketari eta gutxieneko soldadak bermatzeko sistemari buruzko lantegia programatu da urteko azken hiru hilabeteetan, gutxieneko diru sarrerak bermatzeko Espainiako sistemak eta, zuzen eta koherenteagoak izan daitezen oro har, sistema horiek erreformatzeko aukerak aztertze aldera eta, batez ere, pobrezia eta gizarte bazterketaren aurkako borroka ahal bezain eragingarriena izan dadin.

Azkenean, denbora kontuak direla-eta, lantegia atzeratu egin da eta 2006ko otsailaren 9an antolatu da. Horregatik, datorren urteko txostenean emanen dugu bertako ondorioen berri.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete	43,95 euro
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko	1,15 »
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko	1,30 »



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko ekainaren 13a

58-2. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeak 2005. urtean egindako lanari buruzko txostena
(2. or.).

(Txostena Aldizkari Ofizialaren hiru aletan argitaratzen da, 58-1, 58-2 eta 58-3. zenbakietan).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeak 2005. urtean egindako lanari buruzko txostena.

58-1 ALEKO AURKIBIDEA

5. 2005. URTEKO KEXEI BURUZKO EBALUAZIO OROKORRA (3. or.).

5.1. Alderdi orokorrak (3. or.).

5.1.1. Sarrera (3. or.).

5.1.2. Nekazaritza, industria, merkataritza eta turismoa (4. or.).

5.1.3. Gizarte ongizatea (6. or.).

5.1.4. Kultura, kirola eta elebitasuna (9. or.).

5.1.5. Hezkuntza (11. or.).

5.1.6. Funtzio publikoa (13. or.).

5.1.7. Ogasuna (15. or.).

5.1.8. Barnea (17. or.).

5.1.9. Justizia (19. or.).

5.1.10. Ingurumena (21. or.).

5.1.11. Herri lanak eta zerbitzu publikoak (24. or.).

5.1.12. Osasuna (26. or.).

5.1.13. Lana, gizarte segurantza eta atzerri-tarrak (29. or.).

5.1.14. Hirigintza eta etxebizitza (31. or.).

5.1.15. Beste batzuk (34. or.).

5.2. Garrantzizko ebazpenak (36. or.).

5.2.1. Atzerapena Patxi Larrainzar ikastetxe-aren eraikuntzan (36. or.).

5.2.2. Herritarrek ozono mailei buruz infor-matzea (38. or.).

5.2.3. Errehabilitazio psikosozialeko zentro-ak (42. or.).

5.2.4. Iruñeko Udalaren orubeen enkantea (55. or.).

5.3. Administrazioek arartekoaren informazio eskariei eta ebazpenei emandako erantzuna (58. or.).

5.3.1. Egindako informazio eskariei eta emandako ebazpenei eman erantzuna (58. or.).

5.3.2. Onartu diren, onartu ez diren eta erantzuteko dauden ebazpenen zerrenda (61. or.).

6. EBALUAZIO ESTADISTIKOA (64. or.).

6.1. 2005eko kexen estatistika (64. or.).

6.2. Kexen bilakaera 2001 eta 2005 artean (78. or.).

7. HERRITARREKIKO HARREMAN ZUZENA (84. or.).

7.1. Informazio Bulegoa (84. or.).

7.2. Arartekoarekiko banakako elkarrizketak (87. or.).

8. ZABALKUNDE JARDUERAK (88. or.).

8.1. Herritarrek arartekoari buruz duten ezagu-tza (88. or.).

8.2. Komunikabideetan izandako presentzia (89. or.).

8.3. "Egin" kanpaina (89. or.).

8.4. Sartzen erraza den web gune berria (91. or.).

8.5. Giza eskubideei buruzko masterra Alcalá de Henaresko Unibertsitatean (92. or.).

8.6. Arartekoaren beste hitzaldi publiko batzuk (94. or.).

05 2005. URTEKO KEXEI BURUZKO BALIO-ESPEN OROKORRA

5.1. ALDERDI OROKORRAK

5.1.1. SARRERA

Erakundea abian den bosgarren urtea dela-eta, atzera begirako ikuspegi zabalagoa eman dezakegu egindako lanari eta egindako lan hori urteko txostenaren bitartez zabaltzeko moduari buruz.

Hori dela-eta, are garrantzi handiagoa eman nahi diogu Nafarroako Parlamentuarekin harremanetan izateko bitarteko honi, alegia, urteko txostenari. Izan ere, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Legeko 37. artikuluko xedapen baten betearazpena baino gehiago, urteko txostena Foru Komunitatean eskubideak zenbateraino babesten diren neurtzeko elementu esanguratsua da, dudarik gabe.

Delako lege testuko artikulua dioenez, aurkezten diren kexen kopuruaren eta motaren berri eman behar du txosten honek, ofizioz eta alderdien eskariaren ondorioz egiten diren ikerketen emaitzarena, eta baita ararteko honek ikuskatzen dituen erakundeei egiten zaizkien ohartarazpena, iradokizunena, gogorarazpena eta gomendioa ere. Gainera, egoki jotzen bada, lege aginduak aldatu edo indargabetzeko proposa daiteke, aldaketa edo indargabetze horrek administrazio publikoek hobeto funtzionatuko dutela bermatzen badu arartekoaren ustez; bestela, arau berriak xedatzeko ere proposa daiteke, eta "zuzenbidearen sustapen funtzio" delakoa bete.

Aipatzekoa da urteko txostena ez dela jardunari buruzko txosten hutsa, hasiera batean halakorik pentsa litekeen arren. Aitzitik, urteko txostena botere publikoek herritarren eskubideak hobeto babes ditzaten bultzatzeko bitarteko nagusia da, arartekoak ematen dituen xedapenak eta ildo horretan egiten dituen beste lan batzuk zabaltzen baititu. Alde horretatik, ombudsmanak limurtzen ahalegintzen diren epaileak lirarteke. Hori dela-eta, euren aginpidea baliabide egokien bitartez indartu eta bideratu behar dute, hala nola, egiten dituzten urteko txostenen eta, beharrezkoa bada, txosten berezien bitartez.

Horregatik guztiagatik, aparteko garrantzia eman izan diogu urteko txosten guztietan atal honi, urteko kexei buruzko balioespen orokorrari. Gure jarduna antolatzen dugunean, hainbat alorretan banatutako eskema aplikatzen dugu eta, hain zuzen ere, kapitulu honen helburua alor horien egoerari buruzko ikuspegi orokorra ematea da, herritarrek aurkezten dizkiguten kexen ikuspuntutik

betiere; izan ere, lehenago ere adierazi dugunez, haiexen bitartez egiten dugu funtsean Arartekoari buruzko Foru Legeko 1.3. artikulua aipatzen duen ikuskatze lana.

Ildo horretan, argi eta garbi dago aurkezten dizkiguten kexak funtsezko elementu esanguratsua direla, herritarrek zerbitzu publikoen eta administrazioaren beraren funtzionamenduari buruz duten iritziaren berri eman ez ezik, administrazioaren eta herritarren arteko harremanetan gabezia gehien dituzten lan esparruak zein diren antzematen lagundu ere egiten dutelako.

Hordi dela-eta, egin dugun lana ebaluatu nahi dugu atal honetan eta, horretarako, aurkeztu dizkiguten kexen iturririk esanguratsuenak aipatuko ditugu eta, azken batean, ahalik eta ikuspegi deskribatzaileena emangendugu haiei buruz, ekartzen dituzten arazoetara hurbiltzeko bide ematearren bederen. Aurreko urteetako txostenetan finkatutako ildoan, analisi hori kexekin lotuta dagoen ikuskatze lana egituratu edo sailkatzeko erabiltzen dugun eskemako alorrekin edo gaiekin bat egiten dugu.

Gainera, 2005. urtean, sailkapen hori aldatu egin da, aurreko urteetako txostenetan bereizi dugun alor bakoitzean edo gai bakoitzaren esparruan aurkeztu diren kexak pixka bat gehiago xehatu nahian. Hala ere, gure helburua ez da sailkapen edo deskripzio xeheegia egitea, horrek txosten honetako atal honetan gai bakoitzari buruz eman nahi dugun ikuspegi osoa izatea galaraziko bailuke.

Halaber, urteko txostenetan egin izan dugunez, egoki iruditu zaigu urtean zehar aurkeztu diren kexarik esanguratsuenak sakonki azaltzea, haien edukia aztertzeke interesa duenak xehekiago analizatu eta gehiago jakin dezan. Horretarako, atal honen ondoko aurkibidean (aipatu sailkapenarekin bat datorrenean) behar bezala azaltzeaz gain, kexa horiek CD formatuan eta osorik erantsi dizkigu honako txosten honi; hain zuzen ere, arartekoak aipatzen diren administrazioei gomendio, lege betebeharren gogorarazpen edo iradokizunen bat egitea ekarri duten kexak dira eta, hortaz, administrazioak gure oharpenak direla-eta azkenean izan duen jarreraren berri ere eman dugu.

Gure ustez, kexa hauek eta kexa hauen gaineko analisia sakon eta zabal azaltzeko ahalegina da, kasuan-kasuan dagoen arazoa ez ezik, gure eta dena delako kexak aipatzen duen administrazioaren arteko harremana taxutzen duten baldintzak zein diren jakiteko modurik onena. Alde horretatik, erakundea abian jarri zenetik, asko arduratzen gara gure arazoibideak sendoak eta gure ebazpenak teknikoki zorrotzak izateaz. Horixe

antzmanen zuten urte hauetan guztietan gurekin harremanetan izan diren administrazioek baina, edonola ere, urteko txosten honek ematen digun aukera hori nabarmentzeko baliatu nahi dugu.

Behin eta berriro errepikatu dugu administrazio publikoek agindu zaigun lana bete dezagun eman behar diguten laguntzaren oinarri bakarria ezin dela izan eskubideak bermatzeko eginkizuna duen erakunde baten garrantzia aintzat hartzea; aitzitik, guri kexa aurkeztu digun herritarraren egoera ulertu ere egin behar dute, herritar horrek eskubidea duelako guk geuk eta egiten duen kexak aipatzen duen administrazioak bere planteamenduari behar bezala erantzun diezaiozun.

Horrenbestez, aipatu dugun azalpena emanen dugu jarraian, gure ikuskatze lanean planteatu zaizkigun auzirik esanguratsuenen berri emanez.

Alor bakoitzaren hasieran urtean barrena aurkeztu diren kexak zein gairi buruzkoak izan diren argituko dugu, eta amaieran alor horretako kexarik esanguratsuenen zerrenda edo aurkibidea emanen dugu; hain zuzen ere, kexa horiek txosten honi erantsi diogun CDan azter daitezke, osorik.

5.1.2. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

Alor honetako kexak aipatzen dituzten gai nagusiak

Nekazaritza	Lur zatien berrantolamendua
	Diru laguntzak
	Herri ustiapenak
Merkataritza	Kontsumo arloko arbitrajea
	Kontsumitzaileak babestea, etiketei eta bermei dagokienez
Industria	Erauzketa lanak

Iruzkina

NEKAZARITZA arloari dagokionez, **lur zatiak berrantolatzeko prozesuei buruzko kexak** aurkeztu dira berriro ere. Zehazki, kexa guztiak prozesu horiek kalte egin dieten jabe batzuei esleitu zaizkien ordezko funtsen antolamenduari edota ezaugarriekin ados ez egoteari buruzkoak badira ere, funtsen jabetzari buruzko auziak ere planteatzen dira hainbatetan. Halere, halakoetan, jurisdikzio zibilari dagokio, oro har, desadostasun horiek ebaztea.

Aurreko urteetan bezala, kexa gehienak **herri ondasunen ustiapenari buruzkoak** izan dira, herri ondasunak terminoaren adierarik zabalenean hartuta. Alegia, alor honetan, larrekin lotuta dauden ustiapenei –bai esleitzen diren loteak taxutzeko irizpideak diren aldetik, bai hiriguneetatik hurbil dauden edo hiriguneak zeharkatzen dituzten errepideen garbitasunean ondorioak dituzten aldetik– eta, batik bat, herri lurrekin eta funtsekin lotuta dauden ustiapenei buruzko kexak izan dira ugariak.

Era berean, aipatzekoa da berriro ere aurkeztu zaigula kexarik Nafarroako toki erakundeek herri ondasun jakin batzuk berreskuratzeko sinatzen dituzten salerosketa hitzarmenak direla eta.

Haien bitartez, kexa aurkezten duten pertsonak lurren jabetzari eta proposatu zaien hitzarmenean bertan ageri diren baldintzei buruzko alderdiez arrangurazten dira batez ere.

Hori dela-eta, kexa aurkezten digutenei esaten diegu kontuan izan behar dela, lehenik eta behin, halako salerosketa hitzarmenak eta, horrenbestez, bertan ageri diren klausula guztiak borondatezkoak direla, partikularrei egokitzen zaizkien lurren azalerari eta egokitu egiten diren lur zatiei buruzkoak barne.

Alde horretatik, gogoan izan beharra dago, Nafarroako toki erakundeen ondasunei buruzko arategiko 30., 31. eta 32. artikuluekin bat, halako hitzarmenen helburua honako egoera hauek konpontzen saiatzea dela, alegia, euren berezitasunak direla-eta, unean uneko egoera berean jarraitzea ekarriko luketen liskarrak eta auziak saihestea komeni dela eta zilegi dela jotzen den egoerak. Horregatik, euren eskubideak galtzen dituzten alderdiek (toki erakundeek eta partikularrek) amore eman behar dute ezinbestean hasiera bateko euren planeamenduetan, guztiz ona ez izan arren, alderdiok onartu egin lezaketen konponbidea aurkitzearren.

Bestela, halako kexak aurkezten dizkigutenei argitzen diegunez, helburua eskubide hauek guztiz onar daitezen lortzea bada, eskubideok aldarrikatzeko bidea ez da hitzarmena, epaileak baizik; izan ere, auzitegi zibilek dute eskumena funtsen jabetzari buruzko auziak argitzeko

Bestalde, **MERKATARITZA ETA KONTSUMO** arloari dagokionez, **kontsumitzaile diren neurrian dituzten eskubideak** urratu direla uste duten herritarrek aurkeztutako kexak izan dira ugariak berriro ere.

Halakoetan, kexa edo erreklamazioa enpresa edo saltoki jakin baten kontrakoa bada, herritarrei jakinarazten diegu kontsumitzailea informatzeko udal bulegoetara jo edo Kontsumoko Arbitraje Batzordearen aurrean erreklamazioa aurkezteko aukera dutela; gainera, erreklamazioa zer enpresaren aurkeztu duten, enpresa hori aipatu bitartekotza sistemaren barnean badago, arbitraje prozedura zein den azaltzen diegu.

Hala ere, kontsumitzailearen eta erabiltzailearen estatutua dela-eta indarrean dauden xedapenak urratu izan litezkeela ondorioztatzen bada salatutakotik, Nafarroako Gobernuako Kontsumo Zerbitzuaren aurrean salaketa aurkezteko aukera dutela ere jakinarazten zaie.

Hain zuzen ere, saltoki edo enpresaren batek emandako zerbitzuekiko desadostasuna dela-eta Nafarroako Gobernuako kontsumo zerbitzuen aurrean aurkezten diren erreklamazioekin lotuta dauden auzien jakinaren gainean jartzen gaituzte oro har.

Esaterako, lantegi batek auto batean egindako konponketaren berme aldiari buruzko kexa bat analizatu dugu. Haren harira adierazi dugunez, berme aldiaren dagoen autoa dohainik konpontzeari uko egitea kontsumo arloko arau haustea da baina, gainera, legediak ezartzen dituen betebeharrak ez betetzea ere bada; izan ere, legediak kontsumitzaileari alderdi jakin batzuk dokumentuen bidez frogatu edo behar bezala egiaztatzeko betebeharra xedatzen du, legez onartzen diren eskubideak zinez erabiltzea haien arabera izan litekeelako.

Horregatik, gomendio orokorra egin diogu Nafarroako Gobernuako Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuari, automobilak konpontzen dituzten Nafarroako lantegi guzti-entzako informazio kanpaina egin dezan aurrerantzean, kontsumitzailearen eskubideak babesteko bete behar dituzten legezko betebeharren edukia- ren eta garrantziaren berri ematearren. Edonola ere, horrek ez du esan nahi dena delako egoera alde batera utzi dugunik; aitzitik, aplikatu beharreko arautegia bete ez duten ustezko egoerak berriro ere egiaztatu behar direla ebatzi dugu.

Alor honetako kexarik esanguratsuenen aurkibidea (CD formatuan daude osorik)

Nekazaritza eta abeltzaintza

- Abere taldeak Genevillako kaleetan barrena etengabe ibiltzeagatik zikinkeria
- Murillo el Frutoko herri lur zatiak mugarriztazeari buruzko informazio eskaria

Merkataritza eta kontsumoa

- Salaketa bideratzea Kontsumo Zerbitzuaren aurrean autoak konpontzeko lantegi baten jarreragatik

5.1.3. GIZARTE ONGIZATEA

Alor honetako kexek aipatzen dituzten gai nagusiak

Zaharrak	Zahar etxeetan egoteko baldintzak
	Etxeko laguntza
	Laguntza pentsioak (alarguntasuna)
	Aisialdia
Haurrak eta nerabeak	Babesa
	Nazioarteko adopzioa
Ezintasunak	Gizarte eta osasun arloko laguntza, adimen osasunerako
	Eremu publikoan ibiltzeko aukerak (oztopoak kentzea etab.)
	Garraioa
	Laguntzak
	Lanerako prestatzeko zentroyen eta enplegu zentro berezien funtzionamendua
Beste batzuk	Familiarentzako laguntzak
	Bestelako laguntzak
	Babesa

Iruzkina

GIZARTE ONGIZATEari buruzko atalean, arartekoak 2005eko apirilean Nafarroako Parlamentuaren aurrean Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren balizko erreforma dela-eta aurkeztu duen hausnarketa ekarri nahi dugu gogora. Dokumentu horren arabera, Espainiako Konstituzioa indarrean egon den 25 urteetan izan dugun esperientziak **gizarte eskubideak erabat bermatzeko dauden zailtasunez jabetzeko balio izan du**, eskubideok arau izateari utzi eta, hartara, askatasunezko eskubideen (funtsean, Konstituzioko I. idazpuruko bigarren

kapituluan daudenen) berme mailarekin pareka daitekeen berme mailako agindu bihurtzeko zailtasunez.

Era berean, txostenarekin bat, "hirugarren belaunaldiko" deritzen eskubideez (elkartasun kontzeptuari buruzko) hitz egiten den arren, oraindik ere asko dago egiteke gizarte eskubide edo bigarren belaunaldiko eskubideak (funtsean, Konstituzioak arautzen duen gizarte eta ekonomia arloko politika zuzentzen duten printzipioen bitartez gauzatzen direnak) zinez erabili eta bete daitezzen.

Eskubide horien eragingarritasuna botere publikoen esku dago berez, eta haiei dagokie eskubideok zilegitzeko beharrezko neurriak hartzea baina, hala ere, alor juridikotik kanpo bada beste faktore bat, erabakigarria dena gizarte eskubideak benetakoak izan daitezen: eskubideok erabiltzea ahalbidetuko duten egiturak eta baldintzak izatea gizarte eta ekonomia arloan.

Ildo horretan, eskubide hauetako gehienak zerbitzuen alorrekoak direla-eta, ezinbestekoa da, legez arautzeaz gain, eskubideok egiaz eta modu eragingarrian erabiltzeko aukerak izatea. Bestela, legedia gizartearen onerako xedatu beharra beteko ez luketen (eta, hortaz, Konstituzioko 9.2. artikulua aurkakoak izanen liratekeen) arau programatiko multzoa besterik ez genuke.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako foru eraentzari buruzko Lege Organikoaren balizko erreformaren kariatara aurkeztutako dokumentuak nabarmetzen du egiten den erreforma orok botere publikoen (besteak beste, Nafarroakoen) konpromiso maila handiagoa lortzeko balio behar duela. Horretarako, erdietsi beharreko helburuak eta helburuok erdiesteko beharrezko bitartekoak zehazkiago finkatu behar dira. Hartara, Konstituzioak adierazten duen norabide berean eta ezartzen duen gizarte estatuaren benetako esanahian aurrera eginen genuke, eta gizarte eskubideak teorikotzat hartzeari utzi eta benetako eskubide bihurtuko lirateke.

Ildo horretan, maiatzaren 20ko 1/2005 Lege Organikoa aipatu behar da lehenik eta behin. Izan ere, 2005eko otsailaren 20an erreferenduma egin da Espainian 2004ko urriaren 29an Erroman Europako Konstituzioa ezartzeko sinatu zen itunari buruz eta, hain zuzen, 1/2005 Legeak itun hori berresteko baimena ematen dio Espainiari. Europako Konstituzio horrek Oinarrizko Eskubideen Gutuna (2000. urtean Nizan onetsitakoa) biltzen du gizarte arloan eta, hartara, lotesle bihurtu juridikoki. Gutun hori osatzen duten eskubideak hainbat hitzarmenetan eta lege instrumentutan ageri dira baina, horri esker, Konstituzioko arauen mailakoak dira aurrerantzean.

Ildo berean eta, aurreko urteko txostenean adierazi genuenez, Lan eta Gizarte Arazoetako Ministerioak mendekotasun egoeran dauden pertsonak laguntzeko Espainiako liburu zuria aurkeztu izanaren ildoan, Ministro Kontseiluak 2005eko abenduaren 23an autonomiari eta mendekotasunari buruzko lege aurreproiektua (onartu egin dezaten, Gorte Nagusietara laster bidaliko dena) onartu izana beste urrats esanguratsu bat da gizarte arloko eskubideen eragingarritasunean aurrera egiteko bidean.

Izan ere, mendekotasunari aurre egiteko laguntzarik ezak talde handi batean du eragina, zailtasunak, gaixotasunak edo arazoak dituztela-eta, egoera horretan dauden pertsonak beste batzuen laguntza behar dutelako eguneroko bizitzan, eta, horrenbestez, gabezia horrek pertsona horien duintasunean ere du eragina.

Azkenik, aipatu beharreko beste gertaera bat Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizateko Departamentuak 2005eko irailean Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuei buruzko legearen oinarrizko dokumentua onartu izana da. Haren helburua alor honetako aurreko legea (1983koa) ordezkatzeko duen gizarte zerbitzuei buruzko foru legeak xedatu behar dituen printzipioei eta edukiei buruzko eztabaida eta gogoeta piztea da, aitzindaria izan bazen ere orduan, argi baitago lege hori gaurkotu eta egungo egoerara egokitu egin behar dela.

Ekimen horiek guztiek (batez ere, Foru Komunitatearen eskumeneko esparruari dagokiola-eta, aipatu dugun azkenak) mugari izan behar dute herritarrek gizarte zerbitzuak ematen dituzten foru administrazioen eta udal administrazioen aurrean dituzten eskubideen eta bermeen sistema egiazko eta eragingarria osatzeko bidean. Ez da nahikoa zerbitzu jakin batzuk sortzeko baimena eman edo zerbitzuon sorrera bideratzea; aitzitik, botere publikoek zerbitzuen kuantitateari eta kalitateari buruzko estandar zehatzak finkatzen ahalegindu behar dute une honetan, gizarte eskubideen gutxieneko maila ezartze aldera.

Bestalde, gure erakundeak herritarrak laguntzen eta euren arazoei erantzuten eman dituen urte hauei guztiei esker, konturatu gara euren kexak arazo orokorrei eta talde arazoei buruzkoak direla, konponbide jakin bat duten banakako arazoei buruzkoak baino gehiago. Halere, planteatu zaigun kexa bakoitzaz banan-banan, kasuan-kasuan arduratzen saiatu gara, gugana jo duenari ahalik eta erantzun onena ematearren.

Gizarte ongizatearen alorrean are nabarmenagoa da hori eta, hainbatetan, kexen oinarrian dauden arazoak aztertzeko, erakundeak areago hartu behar du parte ofizioz. Hain zuzen ere, arartekoaren ofiziozko jarduna txosten berezien eta gomendio orokorren bitartez gauzatzen da eta, logikoa denez, arazo hauek guztiak esanguratsuak izan arren, laguntza gehien behar dutenei ematen diegu lehentasuna.

Nafarroako zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntzari buruzko txosten berezia eta **haurren eskubideak** direla-eta antolatutako ekimenak dira dinamika horren adierazgarri.

Zehatz-mehatz, hurrei dagokienez, nabarmentzekoa da Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea onartu dela 2005. urtean. Hain zuzen ere, Legea onartu aurretik, arartekoak hari buruzko iritzia helarazi zion Nafarroako Parlamentuari, hobetu beharreko zenbait alderdi, baliabideez hornitu beharra eta Legeko hainbat xedapen lehenbailehen garatu beharra kontuan izan zitzaizkion, haur eta neraberik babesgabeen bizi baldintzak zinez eraldatzeko beharrezko bitartekoak izate aldera.

Legezko testu horretako bertako 14. artikulua eginkizun esanguratsua onartzen dio erakunde honi haurren eta nerabeen eskubideen babesaren alorrean. Horregatik, eta urte hauetan administrazio publikoek hurrei eman beharreko laguntzaren eta babesaren alorrean egin dugun lanari jarraipena emateagatik, gai honi buruzko txosten berezia egiteko asmoa dugu 2006. urtean, haurrak babes-teko Foru Komunitateko sistema aztertu eta ebaluatzearen.

Edonola ere, gizarte ongizatearen alorreko analisiari jarraiki, 2005. urtean aurkeztutako kexen tipologia dela-eta, aurreko urteetako joera mantendu da nolabait, eta kexa ugariak **zaharrei** buruzkoak izan dira; zehazki, etxeko laguntzari eta, batez ere, diru sarrerak funtsean sistemak xedatzen dituen gutxieneko pentsioetatik (nabarmenki eskasak direnetatik) eskuratzen dituzten zahar askoren egoerari buruzkoak izan dira berriro ere kexa ugariak.

Ezintasun arloan, berriz, adimen gaixotasunak dituzten pertsonentzako gizarte eta osasun arloko laguntzaren gabeziei buruzko kexak aurkeztu dira aurten ere, Adimen Arazo Larriak dituzten Pertsonak Laguntzeko Programak (2005. urtean onartutakoak) xedatzen dituen urrats batzuk eman egin diren arren, hala nola, errehabilitazio psikosozialeko zentroak abian jartzea.

Hala ere, gaixo hauentzako erietxeetako baliabide eskasiak nabarmena izaten jarraitzen du oraindik ere, baita osasun arloko koordinazioa eta jarraipena indartu eta hobetu egin beharrak ere.

Berrikuntza moduan, ezintasunen bat duten pertsonen **lanerako prestatzeko zentroetan eta enplegu zentro berezietan** sartzeko dituzten arazoak arduratu gara aurten, horri buruzko kexa bat aurkeztu digutela eta. Gainera, enplegu zentro berezietan gaineko ikuskatze eta kontrol lana ere aztertu dugu; zehatz-mehatz, funtzionamenduaren inguruko alderdiak analizatu ditugu, nahitaezkoa baita askotariko alorretako profesional taldeek esku hartzea bertan.

Izan ere, alor honetako (eta beste batzuetako) eginkizunak administrazioaren baitako hainbat departamentuari eta erakunderi (hain zuzen ere, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuari eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari) esleitzearen ondorioz, departamentuok eta erakundeok hainbatetan ez dituzte behar bezainbat hartzen euren gain dagozkien funtzioak. Alde horretatik, enplegu zentro berezietan gaineko ikuskatze eta kontrol eginkizunak Departamentuari dagozkio berez, zentro horien funtsezko funtzioa ezintasunak dituzten ahal bezainbat pertsona lan munduan sartzea delako eta, gainera, finantziario publikoa hartzen dutelako diru laguntzen bitartez, baina Departamentuak Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutura bidali izan gaitu, bertako ebaluazio unitateak arduratzen direlako pertsona horien laneratze edo gizarteratze gaitasuna teknikoki ebaluatzeaz, askotariko alorretako profesional taldeak sortzen ez diren bitartean.

Azkenik, Gizarte Ongizateko Departamentuaren aurrean **nazioarteko adopzioan** parte hartzeko beharrezko gaitasun egiaztatzea eskuratzeko jarraitu beharreko prozesuari eta prozesu horietan laguntzen duten erakundeen jardunari buruzko kexak hartzen segitzen dugu; hain zuzen ere, prozesuari buruzko kexak denborari eta formari buruzkoak dira.

Alor honetako kexarik esanguratsuenen aurkibidea (CD formatuan daude osorik)

Ezinduak

- Leringo eraikin eta eremu publikoetan ibiltzeko aukerak
- Lanerako prestatzeko zentroetako toki eskasia
- Cortesetik Iruñeko Carmen Aldave Erietxera joateko garraio zerbitzu egokitua eta lagundua izateko eskaria
- Enplegu zentro berezietan funtzionamendua ikuskatzea
- Ustez adimen gaixotasunak jotako pertsonen arteko bizikidetasuna

Zaharrak

- Etxeko laguntza zerbitzua bertan behera geratzea Murillo el Cuenden

Beste batzuk

- Familia ugariak Tuterako Udal Dantza Eskolan izen emateko kuotak ordaintzeko hobariak

5.1.4. KULTURA, KIROLA ETA ELEBITASUNA

Alor honetako kexek aipatzen dituzten gai nagusiak

Kultura	Ondare historikoaren kontserbazioa eta babesa
	Kirol instalazioak erabiltzea
Elebitasuna	Bulego eta eremu publikoetako errotulazioak
	Herritarrentzako jakinarazpenak
	Administrazio eta osasun arloko harrera
	Langileen hizkuntz eskakizunak

Iruzkina

Hiru gai bildu ditugu alor honen barnean eta, berriro ere, aparteko arreta eman diegu Nafarroako administrazio publikoetako euskararen erabilerrari buruzko kexei, herritarrek alor honetako egitareren batekiko desadostasuna adierazi digutela eta.

Nolanahi ere, KIROL arloari dagokionez, aipatzekoa da udal kirol instalazioak erabiltzeko baldintzekiko desadostasuna planteatu zaigula inoiz. KULTURA arloan, berriz, arkeologia lan jakin batzuei (funtsean, Iruñean egindakoei) buruzko kexak aurkeztu zaizkigu. Zehatz-mehatz, horietako baten ondorioz, Iruñeko Gaztelu plazan lurpeko aparkalekua eraikitze lanen kariatara egindako arkeologia lanei buruzko txostena amaitzen izandako atzerapena aztertu dugu.

Hasiera batean, gure kezka delako txostena amaitzeko aurreikuspenei eta, batik bat, Vianako Printzea Erakundea – Kultura eta Turismo Departamentuko biltegiaren egoerari buruzkoa izan da; izan ere, Vianako Printzea Erakundeak entrega berriak egitea galarazi du 2004ko azaroaz geroztik, eta galarazpen horrek eragina izan du lanen bilakaeran eta materialen biltegitratzean. Erantzun moduan, Departamentuak hartu behar dituen neurriak jakinarazi dizkigu egoera horri aurre egin eta,

Iruñeko Gaztelu plazako arkeologia lanei ez ezik, beste arkeologia lan batzuei esker eskuratu diren pieza eta material ugari biltegitratzeko.

Azkenik, ELEBITASUN arloan, uste dugu aurreko urteko txostenean aipatu genituen bi egoera berriro ere nabarmendu beharrekoak direla, alor honetan duten eragina dela eta: batetik, administrazioak oro har jarraibide edo irizpide homogeneo eta zehatzik ezarri ez izana itxuraz, alor honetan (batez ere, administrazio publikoen eta herritarren arteko harremanetan) planteatu zaizkigun egoeretan (bereziki, eremu mistoan) esku hartzeko, eta, bestetik, epaileek hainbat motatako eta edukitako ebazpenak eman izana, alor honetan onartutako arauen eta arauok garatu eta betearazteko ekimenen kontrako errekurtso ugarien ondorioz. Esan genuen aurreko urteko txostenean, eta errepikatu egingen dugu, horrek guztiak ez duela batere laguntzen alor hau argitzen une honetan.

Bi gorabehera horiek eta, Arartekoari buruzko Foru Legeko 23.2. artikulua dela-eta, gorabeherok (batik bat, epaileek eman dituzten askotariko ebazpenek) alor honetan aurkeztu diren kexak ikuskatu eta analizatzeko lanean dituzten ondorioak aipatu ostean, Nafarroako Parlamentuan auzi honi heltzeko eraturako batzorde txostengilea nabarmendu genuen aurreko urteko txostenean, sekulako aukera zelako.

Zoritxarrez, batzordeak ez zuen nahikoa adostasunik lortu alor honetan esku hartzeko beharrezko proposamenak hitzartzeko, nahiz eta, arartekoaren ustez, halako adostasuna eta, batez ere, Nafarroako administrazio publikoak alor honetan aritzeko moduari buruzko akordio argia beharrezkoak diren.

Edonola ere, Nafarroako Parlamentuak Ebazpena onartu berri du 2006ko otsailaren 2an, Nafarroako Gobernuari Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretua berrikusi eta Euskarari buruzko Foru Legeko aginduak erabat eguneratuko dituen arautegia xeda dezan eskatzeko, eta aukera paregabea da hori, berriro ere, lehen aipatutako ildo horretan aurrera egiteko.

Izan ere, Euskarari buruzko Foru Legea onartu zenetik ia 20 urte igaro diren honetan, Foru Komunitateko egoera soziolinguistikoa ez da duela 20 urte zen berbera. Alde horretatik, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuko Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako egoera soziolinguistikoari buruzko azterketa egin zuen 2003. urtean eta, haren emaitzak kontuan hartuz gero, euskaraz ulertu, hitz egin, irakurri eta idazten duten pertsonen kopurua (dela zuzen jardun daitezkeenena, dela zailtasunak dituztenena) handiagoa da dagoeneko eremu mistoan eremu euskaldunean baino; gainera, eremu mistoaren barnean, egoera hori are esanguratsua da Iruñean, eremu horretako udalerririk populatuena baita nabarmen.

Hori dela-eta, Nafarroako Parlamentuak hitzartutako eta aurrez adierazitako ildoan, beharrezkoa da egoera soziolinguistiko horri aplikatu beharreko xedapenak egokitzea, alor hau behar adina segurua izan dadin juridikoki zentzuzkotasunaren eta jokoan dauden eskubideen arteko orekaren aldetik; behinik behin, horixe da Euskarari buruzko Foru Legearen oinarritzko helburuetako bat, 1. artikulua euskararen erabilera "borondatezkotasun, gradualtasun eta errespetu printzipioekin" eta "Nafarroako egoera soziolinguistikoarekin" bat bermatu beharra aldarrikatzen baitu berriaz.

Nolanahi ere, gatozen kexa iturri izan den hainbat auzi aztertzeraz. Iruñeko Udalak euskaraz erantzun zekien berriaz **eskatu duten herritarrei eman dizkien ihardespeneak aztertu ditugu** eta, azkenean, Udalak hasiera bateko jarrera zuzendu

du baina, bereziki, Nafarroako Zerga Ogasunak **herritarrak laguntzeko dituen bulegoetan ematen den arreta** eta eremu mistoko errepideetako seinaleak analizatu ditugu aurten; izan ere, hartu ditugun kexek ziotenez, seinale horiek ez diote jaramonik egiten egun Nafarroan existitzen den toponimia ofizialari.

Hartara, bi auziak analizatzearen ondorioz, gomendioa egin diogu Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, batetik, eremu mistoan edo euskaldunean bizi diren eta Departamentuari euskaraz idatzi dioten herritarrei idatziz erantzun behar dienean, eskura dituen itzulpen zerbitzuak erabil ditzan, herritar horiei bi hizkuntzetan ihardesteko. Era berean, alor honetako beharrak aztertu ostean, neurriak har ditzan eskatu diogu, herritarrak gaztelaniaz zein euskaraz (eurek nahi bezala) hartzeko eskubidea bermatzeko herritarrak hartzen dituzten zerbitzu eta bulego nagusirik esanguratsuenetan.

Bestetik, **errepideetako seinaleei dagokienez**, gaztelaniazko eta euskarazko izen ofiziala duten udalerrietan aplikatu beharreko xedapenak eta Nafarroako Gobernuak Nafarroako toponimia berreskuratu eta zabaltzeko gauzatzen ari den ekimenak aztertu ondoren, gomendioa egin diogu Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari, egin beharrekoak egin ostean, Nafarroako Gobernuak berak onartutako toponimia ofizialarekin bat bi izen ofizial dituzten udalerriak bi izenez ager daitezzen Nafarroako eremu mistoko errepideetan instalatu edo ordezkatzan diren seinaleetan.

Alor honetako kexarik esanguratsuenen aurkibidea (CD formatuan daude osorik)

Kirola

- Azkoiengo udal kiroldegia erabiltzeagatik ezarritako zigorrarekiko eta alegazioei ez erantzuteagatik desadostasuna

Elebitasuna

- Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko zabalguneko barne errotulazioa
- Nafarroako Zerga Ogasunak herritarrak euskaraz ez erantzun eta hartzea
- Gaztelaniazko eta euskarazko izen ofiziala duten udalerrien izena eremu mistoko errepideetako seinaleetan ageri den modua

5.1.5. HEZKUNTZA

Alor honetako kexek aipatzen dituzten gai nagusiak

Hezkuntza	Ikastetxeak (eraikinen segurtasuna, kontserbazioa eta eraikuntza)
	Eskolarako garraioa eta jantokia
	Hezkuntzako premia bereziak dituzten ikasleak
	Ikastetxeetan sartzeko irizpideen aplikazioa
	Hezkuntza plangintza (eskarira egokitzea)
	Ikastetxeen funtzionamendua (bizikidetzak, etab.)
	Bekak eta laguntzak
	Otik 3 urtera bitarteko haurren zikloa

Iruzkina

HEZKUNTZA arloan, nabarmentzekoa da 2005. urtean hartu ditugun kexen kopurua aurreko urteko kexen kopurua halako bi izan dela ia.

Aurreko urteetako txostenetan landu ditugun gai batzuek (hala nola, ikastetxeetan sartzeko irizpideek, **ikasle etorkinak ikastetxe jakin batzuetan metatzeak** eta ikastetxe jakin batzuen egoerak) azaldu zaizkigun askotariko egoeren artean nagusi izaten jarraitu badute ere, beste auzi batzuei buruzko kexak ere aurkeztu dira, eta kexa horien esangura aurreko urteetakoa baino handiagoa izan da.

Hartara, **hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleentzako** laguntzak (ikasleentzako eskubideari behar bezala erantzuteko beharrezko zerbitzu osagarriak eta halako ikasleak sustatzeko irizpideek) kexa ugari eragin du aurretan.

Alde horretatik, halako zerbitzu osagarriak (esate baterako, eskolarako garraioa eta beste

laguntza mota batzuk) eskuratzeko eskubidea izateko, ikasleok behar bezala lagundu eta eskolatze-ko egungo araudiak xedatzen dituen baldintza objektiboak bete behar dira, hala nola, onartzen den hezkuntza antolamenduarekin bat egokitzen den ikastetxetik urrun bizitzea. Halere, alor honetan aurkeztu diren kexak direla-eta, arreta eman beharrean gaude halako zerbitzuak eta laguntzak egokiro kudeatu beharraren inguruan, ikasle hauek ez ditzaten har ikastetxeak hezkuntza administrazioarengandik urrun eta bereiz dauden errealitatez eta, haien bitartez, ikasle hauek hezkuntzako ziklo guztietan ikasteko aukera izan izatea ahalbidetu eta berma dadin.

Era berean, hezkuntza premia bereziak dituen ikasle batek haur hezkuntzako zikloan jarraitzea dela-eta bada ere, Hezkuntza Departamentuak zazpi urte bete ostean ziklo horretan jarraitzeko ustezko legezko debekua interpretatu izan duen modua aztertu dugu; hain zuzen ere, debeku hori Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako

kuntzaren antolamenduari buruzko apirilaren 28ko 696/1995 Errege Dekretuan ageri da.

Ildo horretan, aipatzekoa da Espainiako Konstituzioko 27., 14. eta 49. artikuluetako aginduak garatu dituzten hezkuntzari buruzko lege organikoek integrazio eta normalizazio ereduaren alde egin dutela argi eta garbi hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzea dela-eta eta, hartara, arau orokorrek alor honetan xedatzen dituzten adin tartekin bat, ikasle hauek, ahal dela, dagozkien hezkuntza zikloetan sar daitezen bultzatu dutela.

Alabaina, aipatzekoa da araudiak integrazio printzipio hori indibidualizazio eta malgutasun printzipioen bitartez osatu edo zehaztu ere egiten duela, ikasle bakoitzaren hezkuntza beharrei behar bezala erantzutearren.

Ondorioz, printzipio horiekin bat, uste dugu Hezkuntza Departamentuak argudiatu duen muga inola ere ezin dela hartu haur hezkuntzako zikloan adin jakin batetik aurrera jarraitzeko debeku zorrotz, zehatz eta erabatekotzat, kasuan kasuko berezitasunak kontuan hartzen ez dituen, indibidualizazio eta malgutasun printzipioak alde batera geldituko lirakeelako bestela.

Aztertu dugun egoera honetan, existitzen ez den legezko debeku hori zorrotz aplikatu izana ezin gaituzko muga bihurtu da eta, gainera, gaia aztertu zuten adituek garai batean egokitzat jo zuten eskolatzeko modua zuzendu beharra ekarri du, orduan egin zuten ebaluazio indibidualizatua bazter utzita. Horregatik guztiagatik, gomendioa egin diogu Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuari, ikasle honek gaia aztertzerakoan egindako txostenek hobetsi zuten hezkuntza zikloan jarrai dezan eta, aurrerantzean, indibidualizazio eta malgutasun printzipioei buruzko hausnarketak aintzat har daitezen halako egoeretan, horietan gailendu behar baitira alor honetan esku hartzerakoan.

Bestalde, gi horiez gain, **ikasle bakoitzaren funtzio-namenduetan** (batik bat, diziplina neurriak hartzearekin, baina baita ikastetxeetako gune jakin batzuk –hala nola, elkarrengandik bereizi ostean, Atarrabiako Lorenzo Goicoa eta Atargi eskualdeko ikastetxe publikoetakoak– erabili izan diren moduekin) lotutako kexak ere analizatu ditugu.

Halaber, aurrean alor honetan egin dugun lanaren atal esanguratsu bat behar berriei erantzuteko beharrezko **hezkuntza plangintzari buruzko kexak** osatu dute: Orkoiengo San Miguel ikastetxe publikoan D eredu ezartzeari buruzkoek; instala-

zio eta ikastetxe berriak (esaterako, Iruñeko Patxi Larrainzar haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoa) eraikitzeari buruzkoek; ikastetxe bakoitzeko giza baliabideak eta baliabide materialak egokitu beharra dela-eta, ikasleak ikastetxe batetik bestera (adibidez, Iruñeko Arturo Kanpion ikastetxe publikotik Iruñeko bertako García Galdeano ikastetxe publikora) aldatzeari buruzkoek... Horiek guztiek hezkuntza eskaintzaren plangintza zuzena sustatu eta ezarri behar diren garrantzia nabarmentzen dute, alor honetan (hala instalazio eta ikastetxe zaharren birmoldaketaren alorrean, nola berrien eraikuntzarenean) sortzen diren beharrei egokiro eta lehenbailehen erantzute aldera.

Azkenik, haurrei buruzko zeharkako atalaz aritu garenean adierazi dugunez, nabarmentzekoa da kexa ugari aztertzen ari garela une honetan administrazioak **3 urtetik behar haurrak hartzen dituzten Nafarroako ikastetxeak** (batik bat, bete behar dituzten gutxienezko baldintzak) ikuskatu eta ikastetxeok jardunean ari diren bitartean kontrolatzeko lanari buruz.

Kexa horiek guztiek gai honi buruzko arautegiaren behin-behinekotasuna nabarmentzen dute nolabait, hezkuntzari buruzko lege organiko berria xeda litekeela-eta, baita auzi hau arautuko duen arautegi bateraturik ezak ekar litzakeen ondorioak ere.

Alor honetako kexarik esanguratsuenen aurkibidea (CD formatuan daude osorik)

- Ikasleak onartzeko irizpide osagarriak
- Uharteko haur eskolako hainbat elementuren egoera
- Zizur Nagusiko bigarren hezkuntzako institutuko ikasleei ezarritako diziplinazko zigorra
- Ikastetxean Gorputz Hezkuntzako irakaslea jardunean egin dituen ekintzak direla-eta irmo zigortu izateagatik sortu den egoera
- Hezkuntzako premia bereziak dituzten ikasleak: D eredu curriculum aniztasuna
- Eunate bigarren hezkuntzako institutuko instalazioen eskasia
- Hezkuntzako premia bereziak dituzten ikaslearen fitxategia osatzeko beharrezko datuen bilketa prozedura
- Iruñeko Patxi Larrainzar ikastetxearen instalazio berrien eraikuntzaren atzerapena
- Hezkuntzako premia bereziak dituzten ikasleak: haur hezkuntzako zikloan ikasteko gehieneko adina

5.1.6. FUNTZIO PUBLIKOA

Alor honetako kexek aipatzen dituzten gai nagusiak

Funtzio publikoa	Mugikortasuna eta administrazioko karrera
	Funtzio publikoan sartzea eta lanpostuak betetzea
	Eskubideak eta betebeharrak
	Eskubide pasiboak eta gizarte segurantzza
	Araubide bereziak (lan, irakaskuntza eta osasun arlokoak)
	Beste araubide berezi batzuk (udal, a.s.u.e eta polizia arlokoak)

Iruzkina

FUNTZIO PUBLIKOaren alorrean, bi atal nagusi eman digute arreta ekitaldi honetan planteatu zaizkigun kexen artean.

Batetik, funtzio publikoan sartzeko aukeraketa prozesuren batean, administrazio publikoetako behin-behineko langileak kontratatze prozesuren batean edo administrazio publikoetako langile beharrei erantzuteko zerrendak osatzeko prozesuren batean parte hartu dutenek aurkeztu dituzten kexek.

Bestetik, administrazio publikoetako funtzionarioek eta langileek euren lana egiteari, ordainketa sistemari, administrazioko karrerari eta mugikortasunari, eta abarri buruz helarazi dizkigutenek.

Funtzio publikoan sartzeko prozesuei eta hainbatetan prozesuotan jazotzen diren egoera zentzugabeei dagokienez, Nafarroako Gobernuak zaintzaileak kontratatze egindako deialdian izandako arazoak direla-eta esku hartu dugu. Izan ere, administrazio deitzaileak berak gai zerrendaren bigarren atala aldatu du deialdia egin eta hiru hilabete geroago, baina aldaketa horren aurka egin da eta, ondorioz, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak baliogabea dela ebatzi du; ordurako, ordea, epaimahaiak pro-

zesuko behin betiko kalifikazioak zehaztea besterik ez zen falta.

Egoera horrek prozesuan parte hartzen ari zen hainbat pertsonari egin dio kalte, eta esku hartze eskatu digu. Horregatik, zenbait oharpen egin dizkiogu Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza Departamentuari, irtenbide bat bilatu eta egoera honek guztiak eragindako galerak nolabait konpontzearen. Horretarako, pertsona horiek adierazitako konponbidea proposatu diogu Departamentuari, eta hark onartu egin du: zaintzaile postuetarako deialdia egitea azken lan eskaintza publikoan, kaltetutako pertsona horiek prozesuan parte har dezaten; izan ere, pentsatzekoa da ikasgai zerrenda baliogabetutako oposizioko ikasgai zerrendaren antzekoa izanen dela, eta oposizio hura gainditzeko egindako ahaleginak ez direla hutsalak izanen.

Nafarroako Gobernuko administrari laguntzaileen izendapena atzeratu dela salatu dutenek ere egoera bitxia azaldu dute; hain zuzen ere, pertsona horiek Osasunbidea – Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak apirilaren 16ko 722/2002 Ebazpenaren bitartez deitutako probak gainditu zituzten, duela urtebete argitaratutako behin betiko emaitzekin bat.

Azkenean bi prozedura hauek aldi berean eginenez konpondu den arren, egoera horrek administrari laguntzaileok lekuz aldatzeko aukeran izan du eragina, atzerapen horren ondorioz hasiera batean ez baitzuten aurkezterik 2003ko eta 2005eko lan eskaintza publikoei zegozkien lanpostuak betetzeko xedatua zen lekualdatze lehiaketara; hurrengo oposizioan aukeratutako hautagaiak, baina, aurkeztu egin zitezkeen, izendatuta baitzeuden ordu-rako.

Alde horretatik, aurreko urteetan bezala, administrazioen arteko **mugikortasunak** eragiten dituen arazoak bi norabidetan azaleratu zaizkigu: batetik, Nafarroaz kanpoko administrazio publikoetatik Nafarroako administrazio publikoetara sartu nahi duenik dago (hala nola, Nafarroako Gobernuan antzeko lanpostua lortu nahi duen Gaztela eta Leongo ingurumen agente bat); bestetik, Nafarroako administrazio batetik Espainiako beste batera aldatu nahi duenik dago (hala nola, Osasunbidea – Nafarroako Osasun Zerbitzuko mediku laguntzaile espezialisten talde bat, INSALUD – Osasuneko Espainiako Institutu ohiak 2001eko abenduan egin zuen lan eskaintza publikoaren esparruan deitutako lekualdatze lehiaketan onartu ez zena, estatutupeko langilez osatuta ez zegoelako).

Dagoeneko administrazioako kide diren langileen **araubide juridikoari berari dagokionez**, berriz, langileak beste lanpostu batzuetan kokatzeari buruz izandako kexaren batez gain, atal edo bulego jakin batzuetako antolamendu egitura diseinatzerakoan gertatzen diren egoerak ere

aztertu ditugu, lanpostu baten ordainketa araubideari buruzko kexa baten kariatara. Izan ere, egitura hori alderantzizko piramideen formakoa da hainbatetan eta, kexa horren arabera, horren ondorio praktikoa da Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko bulegoburu baten soldata Bulego bereko irakasle aholkulari bati egokitutakoa baino txikiagoa dela. Jakina, egoera hori zuzendu beharra adierazi diogu Departamentuari.

Azkenik, konpondu gabe jarraitzen duen eta kaltetutakoek arazoa konpontze aldera etengabe deitoratzen duten gai bat aipatu beharrean gaude: Gizarte Segurantzaren sistemaren barnean dauden baina Nafarroako montepioren batean kotizatu duten erretiratuen egoera; izan ere, Espainiako Administrazio Orokorrak Nafarroako Gobernuaren beharrezko zuzemenak egin eta dagokion araudia xedatzen ez duen bitartean, Gizarte Segurantzak ez du onartzen erretiratuok montepioetan kotizatu duten denbora.

Alor honetako kexarik esanguratsuenen aurkibidea (CD formatuan daude osorik)

- Bulegoburuaren eta haren mendeko irakasle aholkulari baten soldaten arteko aldea
- Epailleek Nafarroako Gobernuko zaintzaile izateko oposizioa balio gabetu izana eta balio gabetze horrek parte hartzaileengan izan dituen ondorioak
- Lanbide Heziketan, zaintzaile izateko goi mailako ikastaroetan sartzeko zailtasunak

5.1.7. OGASUNA

Alor honetako kexek aipatzen dituzten gai nagusiak

Ogasuna	Ekonomia eta administrazio arloko foru auzitegiaren aurrean egindako erreklamazioak ebazten berandutzea
	Nafarroako Gobernuari ordaindu beharreko zergak (PFEZ, BEZ etab.)
	Toki zergak
	Prozedura (ezarpena, antolamendua, bilketa, premiatzea)
	Zergei buruzko informazioa

Iruzkina

OGASUN arloan, elkarren artean oso bestelakoak diren bi atal bereizi beharrean gaude funtsean aurkeztu dizkiguten kexen artean: batetik, Nafarroako Foru Ogasunari ordaindu beharreko zergak eta zerga horien kudeaketa eta, bestetik, Nafarroako toki erakundeei ordaindu beharreko zergak.

Lehenengo atalean, adierazgarria izan da 91 urteko herritar batek planteatu digun egoera, diru isuna ezarri baitzaio **BEZ adierazpena** ez aurkezteagatik eta, ondorioz, Foru Ogasunak zigorra betearazi eta isun hori bildu baitu.

Hartara, 2000. urtean, 1.150.000 pezetako (6.911,63 euroko) isuna jarri zitzaion, aurreko urtean BEZ adierazpen jakin batzuk aurkez zitzaion eskatzeko igorri zitzaion errekerimenduari jaramon ez egiteagatik. 1994. eta 1998. urteen artean sortutako BEZaren zenbatekoa, alegia, Foru Ogasunari zor zitzaion kopurua 17.325 pezetakoa (103,58 eurokoa) zen, eta herritar honek 2000. urtean ordaindu zuen, aurkezteke zeuden adierazpenak aurkeztearekin batera.

Alabaina, 3/1994 Foru Legeko 4. artikuluari jarraiki, 50.000 pezetako isuna ezarri zitzaion automatikoki garaiz aurkeztu ez zuen adierazpen

bakoitzeko eta, ondorioz, zigorraren zenbatekoa neurritz kanpokoa bilakatu zen berandu aurkeztutako adierazpenek ziotenaren aldean. Are gehiago, Nafarroako Gobernuak eguneroko eginbeharretan lagunduko zion pertsona bat kontratatzeke eman zion etxeko laguntza bahitu zitzaion.

Hori guztia eta ezarritako zigorra neurrigabea eta bidegabea zelako ustea Ekonomia eta Ogasun Departamentuari azaldu eta Departamentuak egoera aztertu zuen. Ondorioz, zorra preskribatua zela erabaki zuen eta bahitutako kopuruak itzuli zituen, pertsona honen alde sortuak ziren interesekin batera.

Gaur egun, Tributuei buruzko Foru Lege orokorra aplikatzen dela-eta, egoera hori ez litzateke jazoko seguru asko, proportzionaltasun printzipioa aplikatzen delako zerga sisteman baina, nolana ere, arreta eman beharra dago halako egoeren inguruan. Izan ere, arau-haustearen tasa oker zehaztu eta, zor diren zerga guztiak edo zati bat garaiz ez ordaintzea arau-hauste larria denez gero, zigor araubidea ia automatikoki aplikatzen bada, kasuan kasuko gorabeherak kontuan hartu gabe, litekeena da batere proportziorik ez izatea subjektu pasiboak egiten duen arau-haustearen eta ezartzen zaion zigorraren artean.

Bestalde, **Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez**, banantze edota dibortzio prozesuetan murgilduta dauden pertsonak ezkontideari ordaindu behar dioten pentsioaren tratamenduari buruz aurkeztu izan zaizkigun kexez gain, zerga horren barnean aurrez ikusten diren familien gutxieneko diru sarreraren alorreko kenkari-ei (aurrekoengatikoei eta ezintasunagatikoei) eta kenkari horiek zerga sortzen den unean ezartzeak dituen ondorioei buruzko kexarik ere aztertu dugu; izan ere, aztertu dugun kexaren batek zioenez, subjektu pasiboaren mendean dagoen aurrekoa zerga sortu baino lehen hiltzen bada, hark ezin du kenkari hori aplikatu.

Alderdi hori nabarmen hobetu daitekeela ikusirik, subjektu pasiboaren ahalmen ekonomikora arago egokitu dadin lortze aldera, neurriak hartzeko egokitasuna aztertzea komeni dela adierazi diogu Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, alderdi horren gaineko zerga sistema hobetzeko funtsean,

eta egoera hauetan dauden zergadunen euren eta euren familiaren egoera hobeto eta zuzenago tratatzeko zerga arloan.

Bigarren atalean, **toki zergei buruzkoan**, berriz, alor honetan ohikoak diren kexak (horietako batzuetan urte batetik bestera izaten den hazkundeari buruzkoak) ez ezik, trakzio mekanikozko ibilgailuen eta ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zergetan xedatzen diren tarifekiko desadostasuna adierazten duten kexak hartu ditugu aurten berriro ere, eta ohikoak izaten hasi dira, funts kontribuzioa dela-eta, landa edo hiri ondasunak udal katastroetan ageri diren modua zalantzan jartzen dutenak; hain zuzen ere, kexa horietako gehienek unitate higiezinaren jabetzarekiko, hedadurarekiko eta mugekiko desadostasuna azaltzen dute.

Alor honetako kexarik esanguratsuenen aurkibidea (CD formatuan daude osorik)

– Hiri kontribuzioaren sortzapen data

5.1.8. BARNEA

Alor honetako kexek aipatzen dituzten gai nagusiak

Barnea	Herritarren segurtasuna
	Espetxeen administrazioa
Zirkulazioa	Trafiko arloko zigorrak
	Ezinduek aparkatzea
	Beste herrialde batzuetan eskuratutako gidabaimenak onartzea

Iruzkina

BARNE arloan, **zirkulazioarekin zerikusia duten zehapen espedienteak** bideratzeari buruzko kexak izan dira ugarietak berriro ere, nahiz eta aurtengo kopuruak behera egin duen nabarmen beste urte batzuetakoaren aldean eta ia erdia besterik ez den izan.

Azaldu zaizkigun askotariko egoerek zehapen hauek ezartzeko uneren batean gertatutakoa jartzzen dute ezbaian, dela salaketa egiten denean, dela ondoren, egiten diren alegazioei erantzuten zaienean, dela gertakari jakin batzuk ikertzeko proposatzen denean; izan ere, doakienek halako zerbait egiten badute, aurrez finkatutako erduei dagozkien erantzunak ematen zaizkie, eta administrazio eskudunak ez du ezertxo ere egiten espedienteak banan-banan lantzeko.

Ildo horretan, adierazgarria da herritar batek azaldu digun egoera: Iruñeko udaltzain batek zigorra ezarri dio, gertatutakoa ikusi ez duen arren.

Zehazki, kexaren egileak autoa aparkatuta zuen lekutik mugitu eta beste auto baten atea jo zuen nahi gabe. Hala ere, ezin izan zituen bere datuak utzi, beste autoaren jabeak nor zen jakin zezan, jende multzo batek (antza, ezbeharrak jotako autoaren jabearen lagunek eta senitartekoek) galarazi egin ziolako, ikusitakoa sututa aurpegiratu ziola eta.

Azkenean, ordea, talde horrekin mintzatu ostean, bere datuak eman zizkion, ibilgailuaren jabeari helaraz ziezazkion, taldeak proposatu zionarekin bat. Gainera, hurrengo egunean ezbeharraren berri eman zion aseguru etxeari, egin beharrekoak egin zitzaizkien errekamazioa hartu ostean.

Nolanahi ere, doakionari telefonoz deitu eta hura polizia etxera bertaratu ondoren, udaltzain batek zigorra ezarri dio "kalte materialak eragin dituen zirkulazio istripuan nahasi eta kaltetuari bere datuak eman gabe alde egiteagatik".

Emakumea datuak ematen ahalegindu den arren eta eman dituen urratsak eta azaldu duen bertsioa berretsi dituen aseguru etxeko ordezkari batekin agertu den arren, ez dira onartu egin dituen alegazioak, "gertatutako guztia pertsona horrekin eta aseguru etxeko ordezkariarekin argitu" delakoan; alabaina, Udalarari eskatu diogun espedienteak inon ere ez dio kexa aurkeztu duen pertsonak esandakoa indargabetzeko probarik egin denik eta, are gehiago, inon ere ez da ageri salaketa orria bete duen udaltzainak nolana hiko zuzemenik egin duenik errua doakionari egozteko. Horregatik guztiagatik, zigorra baliogabetzeko eskatu diogu Iruñeko Udalarari.

Halako prozeduren zehatze funtzio hutsetik kanpo, baina haren ildoan (ez, ordea, ildo berberetan), **agintaritzaren agenteen jokabidea oker**

edo desegoki jotzeagatiko kexek ohiko izaten jarraitzen dute.

Alde horretatik, denborazko edo lekuzko berezitasunak direla-eta, hainbatetan espedienteak hasteko ditugun zailtasunak adierazi izan ditugu. Izan ere, dena delako espedientearen eduki osoa doakionaren eta administrazioaren edo haren agenteen irizpideek (elkarren kontrakoek) osatu beharko lukete hasiera batean.

Baina, eskubideak bermatzeko eginkizuna duen erakundea osatzen dugun aldetik, uste dugu betebeharra dugula antolamendu juridikoak herritarrei onartzen dizkien eskubideak eta askatasunak, ahal dela, areago babesteko proposamenak planteatzeko.

Horretarako, uste dugu biderik onena beharrezko barne ikerketak edo, ofizioz edo dena delakoak eskatuta, gertatutakoari buruzko informazioa biltzeko zuzemenak egin beharra errepikatzea dela, halako kexak hartuagatik, inola ere ez delako pentsatu behar erabat sinesgarriak direnik eta agenteek inola ere ez dutelako egon behar susmopean etengabe euren profesionaltasuna dela eta; besterik gabe, Poliziako arduradunek ezinbesteko prebentzio lana egin behar dute eta, aldi berean, polizia lanaren alderdi kualitatiboari eman behar diote arreta.

Gure ustez, Poliziaren arauz kanpoko balizko jokaerari buruzko albiste oro ikertu egin behar da, Poliziako arduradunek haren berri nola izaten duten gorabehera. Barne ikerkuntza horren ezauzgarriak beste kontu bat dira baina, jakina, salatu den arauz kanpokotasunaren heinekoak izan behar dute.

Laburbilduz, uste dugu Poliziak ematen duen zerbitzuaren kalitatea ebaluatzeko (ezinbesteko lan hori egiteko), arduradunek herritarren kexak

hartu eta onartzeko prest egon behar dutela. Gainera, argi eta garbi dago herritarren kexak kontuan hartze hutsak prebentzio efektua duela.

Horregatik guztiagatik, arartekoa gomendio orokorra egiteko aukera aztertzen hasi da urte bukaeran, eta datorren urteko lehenengo hiru hilabeteetan bukatuko duela espero du; gomendio horrekin bat, Poliziako kideen arauz kanpoko balizko jokaera kontrolatzeko sistemak hobetzeko eskatuko die mendean Polizia duten Nafarroako administrazio publikoei.

Bestalde, **aparkatzeko txartelak** egin edo berritzeko eskatzen duten ezinduek dituzten gorabehera buruzko kexak aurkeztu dira berriro ere, dela euren egoera egiaztatzeke bete behar dituzten baldintzak direla-eta, dela txartel horiek erabiltzeko arauak eta txartel horiek eskaintzen dituzten aukerei buruzko informazioa emateko mekanismoak direla-eta.

Azkenik, bada kexa multzo bat, arartekoari nahiko sarritan helarazi zaiona kexek lantzen duten gaia bere eskumenekoa dela eta: atzerritarrek ez ezik, espainiarrek ere Zirkulazio Bulego Probintzialaren aurrean beste herrialde batean (bereziki, Argentinan –hitzarmena sinatu zen 2002. urtean alor honetan–) **eskuratutako gidabaimenak aldatu edo onartzeko eskatzen dutenean topatzen dituzten zailtasunak**, agintariak datuak egiaztatzeke galdatu eta egiaztatze lanek gidabaimen berria bideratzea atzeratzen dutenez gero.

Alor honetako kexarik esanguratsuenen aurkibidea (CD formatuan daude osorik)

- Gertatutakoa ikusi ez duen agente batek herritar bati ezbeharrak gertatu den lekutik bere datuak utzi gabe alde egiteagatik jarri dion zigorra

5.1.9. JUSTIZIA

Alor honetako kexek aipatzen dituzten gai nagusiak

Justizia	Epai-prozeduretako atzerapenak
	Epaien betearazpena
	Neurriak hartu edo ezartzea
	Lanbide elkargoen jarduna
	Erregistroak

Iruzkina

Orain arte, justizia auzitegien jardunarekin eta erabakiekin eta prozesuetan parte hartzen duten profesionalek (batez ere, abokatuak) haietan egiten duten lanarekin zerikusia duten kexak hartu ditugu baina, aurten, beste auzi bati buruzko kexak ere hartu ditugu, eta alor honetako kexen kopurua pixka bat handiago du horrek.

Hain zuzen ere, **Erregistro Zibilean abian dauden espedienteak** bideratu eta ebazten izandako atzerapenak eragindako kexez ari gara.

Horietako baten bitartez, Iruñean ezkontza zibila egitea baimendu aurretiko espediente bideratzen izandako atzerapena planteatu zaigu; izan ere, kexaren egileari aurkeztu behar zituen dokumentuen berri eman ostean, zazpi hilabete geroago eman zioten hitzordua dokumentuok aurkezteko.

Ondorioz, Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariarengana eta Nafarroako Gobernuko Lehendakariarengana, Justizia eta Barne kontseilariarengana jo dugu, Erregistroaren egoeraz galdetzeren, eta aipatzekoak dira bi erakundeok alor honetan hartzen ari ziren neurriak.

Batetik, Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariak Auzitegiko Gobernu Sala egiten ari zen zuzemenak jakinarazi dizkigu. Zehatz-mehatz,

honako hauek dira zuzemenon helburuak: Iruñean bakarrik arituko den erregistro zibila sortzeko eskatzea; Nafarroako Gobernuko Justizia Zuzendaritza Nagusia Erregistro Zibilean beste bi funtzionario izendatzeari buruz galdetzea; eta, azkenik, erakundeko bertako langileek lanaldia arratsaldera arte euren borondatez, dagokion sariaren trukean luzatzeko aukeraz galdetzea.

Bestetik, Lehendakariarengana, Justizia eta Barne Departamentuak baliabide material eta giza baliabide ugari esleitu duela eta dauden arazoak antolatzeke azterlana egin duela azaldu du, eta adierazi digu Erregistroan soilik arituko den idazkari bat eta beste bi langile batu zaizkiela urrian Erregistro Zibileko langileei. Gainera, neurriak hartu omen dira, behar duen informazioa eman eta beharrezko dokumentuak bete ostean, jendea hamabost eguneko epean hartzeko gehienez ere; hartara, pertsona horiek itxaron zerrendatik kanpo geratuko lirateke, eta itxaron zerrenda bera lau hilabeteren buruan desagertuko litzateke.

Zoritxarrez, erantzun hori Nafarroako Erregistro Zibilari bakarrik dagokio, eta ez dirudi gauza bera gertatzen denik Erregistro Zibil Nagusiarekin; hain zuzen ere, hari buruzkoak izan dira alor honetan hartu ditugun kexa asko baina, eskumenik ez dugunez gero, Espainiako arartekoari igorri dizkion.

Erregistro Zibil Nagusia funtsean emigranteen jatorri izan den herrialdean jarduteko sortu eta arautu da, baina gainezka egin du baliabide eta aukera aldetik, Espainia etorkinak hartzen dituen herrialde petoa bihurtu delako eta, ondorioz, espainiar herritartasuna, espainiar berrien seme-alabentzako aukerak, haien arteko ezkontzak, nazioarteko adopzioak... lortzeko eskabideak ugaritu egin direlako.

Alde horretatik, azaroaren 18ko 4/2005 Legearen ondorioz egin diren legezko aldaketek Erregistro Zibil Nagusiaren eta udal erregistro zibilen funtzio tradizionalak banatzeko arauetan izan dute eragina, eskumen gehiago esleitu baitizkiete udal-letakoei, eta, aurrerantzean, litekeena da dinamika hori nolabait zuzentzea.

Justizia administrazioaren funtzionamenduari buruzko kexak direla-eta, berriz, **epaileen ebazpe-**

nen edukiarekiko berarekiko desadostasuna agertzen zutenak hartu ditugu, baina alde batera utziko ditugu, argi baitago ez dugula ez esku hartzerik, ez iritzia ematerik. Halaber, prozesuren batean izandako atzerapenei buruzkoren bat ere hartu dugu.

Atzerapen edo luzamendu bidegaberik antze-man ez badugu ere oro har, ulergarria da kexa aurkeztu duenak irudipen hori izatea, behin-behineko atxiloaldia ebatzi den prozesu batez ari bada.

Nolanahi ere, nabarmentzekoa da Nafarroako Auzitegi Nagusiko Lehendakaritzak alor honetan eman izan digun laguntza, aurkezten diren kexen berri izan eta kexa horiek ebazteko ahalmena duen epaitegiaren aurrean dagozkion zuzemenak egin ostean, beharrezko informazioa ematen dio-eta arartekoari.

5.1.10. Ingurumena

Alor honetako kexek aipatzen dituzten gai nagusiak

Ingurumena	Ingurumenari buruzko informazioa eskuratzea
	Kutsadura akustikoa
	Sailkatutako beste jarduera batzuk
	Faunaren babesa
	Natur guneen babesa
	Sakelako telefono deien oinarrizko estazioak
	Ingurumen arloko erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea
	Ehiza eta arrantza

Iruzkina

Berriro ere, INGURUMEN arloko kexa gehienak (alor honetan aurkeztu zaizkigun erdia ia) zaratari eta hirietako jardunarekin (batik bat, tabernekkin eta antzeko aisia guneeekin) zerikusia duten beste igorpen gogaikarri batzuei buruzkoak izan dira aurten baina, horiez gain, ingurumen arloko informazioa eskuratzeko eskubideari buruzkoak ere hartu ditugu; hain zuzen ere, horiek osatu dute hurrengo multzorik handiena.

Lehenengo atalari, alegia, urte hauetan guztietan barrena **kutsadura akustikoaren alorreko kexak** errepikatu izanari dagokionez, dena delako administrazioak esan edo bermatutakoa dela-eta ebatzitzat genituen espedienteak berriro abiatu behar ditugu hainbatetan eta, horregatik, arartekoak ofiziozko ikerketa hasi du Foru Komunitateko administrazio publikoek arazo hau konpontzeko egiten dutenari buruz; helburua ikerketaren amaieran txosten berezia egitea da.

Izan ere, aurreko urteetako txostenetan adierazi dugunez, gero eta hedatuago dago zarata eremu pribatua inbaditzeko modu berria delako iritzia, ingurumen egokia izateko eskubidearen urra-

tzeaz gain; hain zuzen ere, eremu pribatua gizaki orok berezko eta ezin bortxatuzkotzat hartu beharreko eremua da.

Ildo horretan, gero eta herritar gehiagok uste dute kutsadura akustikoa bizi kalitatean eragina duen faktorerik negatiboenetako bat dela, hirietan batez ere: arazoak sortzen ditu pertsonen osasunean, jarreran eta jardunean eta ondorio psikologikoak eta sozialak ditu.

Alabaina, alor honetan eskumena duten administrazioen lanak eraginik izan gabe jarraitzen duela igarri dugu, besteak beste, arazoari merezi duen garrantzia eman ez eta gutxietsi egin dutelako (jasan egin daitezkeen "eragozpen hutsak" izan direlako) edo euren legezko betebeharrak ahaztu egin dituztelako, adierazpen orokor batzuetan ageri eta, garrantzia eta esangura aldetik, jurisprudentzia xedatu berriak zehazten dituen arren.

Administrazioak arazoari erabakitasunez ez heltzearen ondorioz, egoera batzuk justizia auzitegien aurrean salatu dira azkenean, eta auzitegiok ez dute zalantzarik izan toki erakundeak jotzeko zaratak herritarrei egiten dizkien kalte moralen erantzule nagusitzat, ez dutelako behin-behineko

neurrik hartu, euren esku zituzten datu errealek udalek esku hartu egin behar dutela zioten arren soinu igorpen kaltegarriak amaiarazi eta herritarrek babesteko.

Hala ere, nahiz eta udalei dagokien administrazioek (Estatuak eta erkidegoek) zaratari buruz xedatzen duten arautegi osoa betearaztea, eta nahiz eta ordenantzak promulgatzeko ahalmena ere duten, ezin ditugu aipatu gabe utzi Nafarroako udalerrri askoren tamainak eta hedadurak dakartzan arazoak; izan ere, udalerririk ez dute behar adina giza baliabide eta baliabide teknikorik eta, ondorioz, zailtasunak dituzte halako jardunak ikuskatu eta kontrolatzeko.

Ildo horretan, bada kutsadura akustikoarekin zuzenean lotuta ez dagoen baina beste eragozpen batzuk eragiten dituen jardunik (industria, hegazti hazkuntza eta abeltzaintza, etab.), eta hori ere kexa iturri da, bete beharreko baldintzak arautu eta betearaztea edo abian segitzeko ezartzen diren neurriak hartu eta betetzea dela eta.

Alde horretatik, kontuan izan beharra dago, jardun hauei buruzko arautegia dela-eta, halako jardun gehienen gaineko kontrola ez dela beharrezko baimena ematen denean amaitzen. Aitzitik, araudi hori betearazteko, dagokion espedientea bideratu eta baimena emateaz gain, jarduna eragingarritasunez ikuskatu behar da, hasiera batean onartutako neurriak mantendu egiten direla zaindu eta neurriok jardunean izaten diren aldaketetara egokitu (jarduna ikuskatu, jardunaren titularra neurriak betetzera behartu, dagozkion zigorrak ezarri, etab.).

Bestalde, zaratari eta igorpen gogaikarriei buruzko kexek osatzen duten multzoaz gain, aipatu dugu beste kexa multzo esanguratsu bat hartu dugula, **ingurumen arloko informazioa eskuratzeko eskubideari buruz**.

Zehazki, Nafarroako Gobernuako Ingurumen Departamentuak herritarrei web gunearen bitartez airean (batez ere, Erribera aldean) dagoen ozono troposferikoaren kopuruaren inguruan ematen dien informazioari buruzko kexa bat hartu dugu eta, haren kariatara, informazio horren edukia analizatzeko parada izan dugu, eta aireko ozonoari buruzko arautegiak xedatzen dituen eskakizunak betetzen dituen.

Web guneak ozono maila jakin bat (herritarrek informatzeko adinako maila eta alerta egoeran egoteko adinako maila) gainditu izanari buruzko datuak eta informazio osagarria ematen ditu baina, jabetu garenez, herritarrek (batez ere, arriskuan dauden talde jakin batzuk: haurrak, zaharrak eta biriketako gaixotasunak dituzten pertsonak) ez

ditu behar bezala ohartarazten arautegi horrek xedatzen dituen herritarrek informatzeko adinako maila eta alerta egoeran egoteko adinako maila gainditzen direnean edo gainditzear direnean egin beharrekoa dela eta. Izan ere, arautegiak dioenez, honako informazio hau eman behar da gutxienez, ahal bezainbat herritarri eta lehenbailehen: ozono maila non gainditu den, zein maila gainditu den, kutsaduraren bilakaerari buruzko aurreikuspenak zein diren (hobera egiten duen, egonkortu egiten den ala okerrera egiten duen), arriskurik handieneko taldeak zein diren, balizko sintomak zein diren, kaltetutakoek zer egin behar duten, informazio osagarria lortzeko zein bide dauden...

Era berean, araudiak xedatzen du informazioak argia eta ulertteraza izan behar duela, normahik izan behar duela eskuragarri eta kasuan-kasuan egokien irizten diren baliabideen bitartez zabaltzea bermatu behar dela baina, alde horretatik, uste dugu Internet ez dela, ezta gutxiago ere, alor honetan dagoen aukera bakarra eta, gainera, eskasa ere suerta daitekeela maila jakin batzuk gaindituz gero.

Gure ustez, alor honetako neurriak hartzen aurrera eginez, gardentasun printzipioa eta herritarrei kontu eman beharra errespetatzeaz gain, herritarrek ingurumen arazoez eta arazook giza osasunean duten eraginaz ohartarazten dira, ingurumen heziketa eta hezkuntza sustatzen dira eta, gainera, agintariek aintzat hartze aldera, herritarrek euren kezkek eta iritziak adierazteko bide ematen da.

Horregatik guztiagatik, gomendioa egin diogu Ingurumen Departamentuari, osasun administrazioarekin batera, herritarrek aplikatu beharreko araudiak xedatzen duen informazioa hartu egiten dutela bermatzen duten mekanismoak ezar ditzan eta Nafarroako Gobernuaren web gunearen bitartez ematen den informazioa hobetu dezan, bertan ageri diren mailak eguneratu eta 1796/2003 Errege Dekretuak xedatzen dituenetara egokitzearren. Ingurumen Departamentuak, berriz, gomendioa aztertzekeko prestasunaren berri eman digu.

Azkenik, ingurumenarekin edo, areago, pertsonen osasunarekin lotutako informaziorik ezagatik sor daitezkeen arazoen ildoan, ia erakundea martxan jarri zenetik jorratu dugun gai bat aipatu beharrean gaude, Foru Komunitateak berak ezarri duen moduan arautu eta landu gabe jarraitzen duela eta.

Hain zuzen ere, **sakelako telefono deien oinarritzko estazio jakin batzuen egoerari buruz** ari gara. Izan ere, estazio horien instalazioa bi arrazoiengatik jartzen da ezbaian: batetik, batzu-

en kokagunea legez kontrakoa delako eta, bestetik, instalazio horietako igorpenek ondorio larriak dituztelako pertsonen osasunean, kexak planteatu zituztenen ustez

Aireko ozono troposferikoari buruz jardun garenean adierazi dugunez, ez dago dudarik, herritarrek informazio gehiago badute erradiofrekuentzien funtzionamenduari eta haren eraginei buruz, sakelako telefono deiekin zerikusia duten arrisku-eragatik kezka txikiagoa dela.

Alabaina, Nafarroan sakelako telefono deien oinarritzko estazioak antolatzen dituen maiatzaren 6ko 10/2002 Foru Legea onartu bazen ere halako instalazioak arautzeko, lau urte igaro dira ia eta oraindik ere ez dira onartu azpiegituri buruzko lurralde planak, instalazio hauek baimentzeko beharrezkoak; hain zuzen ere, Ingurumen Departamentuak 2005eko maiatzean eta ekainean jendaurrean erakutsi ostean aurkeztutako alegazioak ebazten ari dira une honetan.

Era berean, Foru Legeak beste neurri batzuk xedatzen ditu, behar bezala zabalduko balira, aurrez esandakoarekin bat etorriko lirakeenak, hala nola, instalazioak aldizka ikuskatzea, instalazioen igorpen mailak kontrolatu eta ikuskatzea eta datuak egiaztatu eta, epe ertaineko eta epe luzeko frogak zientifikoak ikusirik, Foru Legeak xedatzen dituen mailak baino maila handiagoak edo txikiagoak zehazte aldera, Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuak Nafarroako Foru Komunitatean ikerkuntza epidemiologikoa egitea.

Horregatik guztiagatik, halako ekimenen egoera zein den jakitearren, ofizios lan egiten hasi gara alor honetan eta eskatu dugun informazioa hartzeko zain gaude.

Alor honetako kexarik esanguratsuenen aurkibidea (CD formatuan daude osorik)

- Atarrabiako igarobide bateko garajeetako ateei eragindako zarata
- Barañaingo ostatu bat baimenik gabe aritzea
- Zuñigan ahate hazkuntzan aritzeko baldintzak
- Nafarroan genetikoki eraldatutako aldaerak hazten dituzten lursailei buruzko informazioa eskuratzeko eskaera
- Azkoiengo taberna batek eragiten dituen eragozpenak eta kutsadura akustikoa
- Nafarroako arroketako harraparien zentsuei buruzko informazioa eskuratzeko eskaera
- Iruñeko argi kutsadurari buruzko informazioa eskuratzeko eskaera
- San Adriángo Udalak baimenik ez duen beilatokiaren jarduna dela-eta egindakoa
- Herritarrei aireko ozono troposferikoaren kopuruari buruz ematen zaien informazioa
- Berriozarko sakelako telefono deien oinarritzko estazio baten kokalekua

5.1.11. HERRI LANAK ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

Alor honetako kexek aipatzen dituzten gai nagusiak

Herri lanak	Azpiegituren eraikuntza
	Kontserbatzea eta mantentzea
	Nahitaezko desjabetze prozesuak
Zerbitzu publikoak	Nahitaezko zerbitzu gutxienekoak (ura, hondakinak etab.)
	Telekomunikazioak
	Zerbitzuen funtzionamenduaren gaineko ondarezko erantzukizuna

Iruzkina

Atal honetan, ohikoak izaten segitzen dute herritarrek oinarrizko zerbitzu batzuen funtzionamenduagatik aurkezten dituzten kexak. Hain zuzen ere, hornikuntza eta saneamendu zerbitzua ematen den baldintzei (zehatz-mehatz, hornikuntza eta saneamendu sareetan lotuneak egiten diren moduari) buruzko kexak sartu ditugu multzo horretan, baina baita kaleetako argiztapenaren gabeziei eta hondakinak biltzeko zerbitzuei (horretarako edukiontzi batzuen kokalekuagatiko eragozpenei) buruzkoak ere.

Zerbitzu horien funtzionamenduaren ildoan eta, batik bat, **saneamendu eta hornikuntza** zerbitzuen eta herri lan jakin batzuk egitearen ildoan, administrazio publikoek (batez ere, toki erakundeek) jaramonik ez egin edo, areago, erantzunik ematen ez dutelako aurkezten diren kexak ere ohikoak dira; izan ere, erakundeok jarrera hori erakusten dute ustez zerbitzuon funtzionamenduaren ondorioz kaltetutako herritarrek erreklamazioak aurkezten dizkietenean.

Alde horretatik, aipatzekoa da erakunde horiek, pixkana-pixkana bada ere, hasiak direla aplikatzen Espainiako Konstituzioko 106. artikulua eta Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legeak berak xeda-

tzen duten ondarezko erantzukizuna, nahiz eta akatsak antzematen diren planteatzen zaizkigun kexen arabera eta, ildo horretan, erantzukizun hori objektiboki hartu beharra eta espedienteak bideratzearen garrantzia nabarmendu beharrean gaude, arreta handia eman behar baitzaio gauzak frogatu eta frogak balioesteari.

Are gehiago, batzuetan, toki erakundeek erantzukizun osoa aseguru etxeen esku utzi ere egiten dute, hori guztia behin eta berriro errepikatu behar diren adierazgarri.

Bestalde, aurreko bi urteetako joeraren ildoan, alor honetako kexa multzorik handiena **telefoniarren esparrukoa** izan da. Hala ere, kexa horiek ez dira herritarrak kezkatzen dituzten gaiei buruzkoak izan, hala nola, sakelako telefono deiak egiteko zerbitzua utzi nahiari, telefono etxez aldatzeari eta tarifa gehigarriari buruzkoak; aitzitik, gehienak oso oinarrizko alderdi bati buruzkoak izan dira: telefonia finkoari buruzkoak.

Jakina, telefonia finkoarekin zerikusia duten arazoak landa esparruan gertatzen dira, eta telefonia zerbitzua etxebizitza jakin batean instalatu edo abonatuaren etxean aldatetaren bat dagoenean zerbitzua egokitzen izandako atzerapenaren ondorio izaten dira oro har.

Gainera, kexa horiek guztiek ezaugarri komun bat dute, zerbitzu hauen erabiltzaileek informazioa telefono bidez eskuratu edo zuzemenak telefono bidez egiteko eta erreklamazioak aurkezteko dituzten zailtasunak, eta, zailtasun horiek zuzeneko eragina dutenez gero kontsumitzaileen eskubideetan, telekomunikazio arloko eskumenak dituen administrazioak aparteko arreta eman behar die.

Izan ere, erabiltzaileak hartzeko bulegorik ez izatea, idatzizko erreklamazioak nora igorri ez adieraztea eta, erreklamazioa inon jasota ez geratzeko arriskua egonda ere, erreklamazioak telefono bidez egiteko aginduak direla-eta, telefonia da kontsumitzaileen erreklamazio gehien eragiten duen sektorea, nabarmen, eta azken urteotan ez da joera hori zuzentzerik izan. Nolanahi ere, Telefonicaren (alor honetako zerbitzu publikoa eman behar duen etxearen) aurrean beharrezko zuzemenak egin ostean, kexa horiek Espainiako arartekoari helarazten zaizkio oro har.

Alor honetako kexarik esanguratsuenen aurkibidea (CD formatuan daude osorik)

Herri lanak

- Errepideko akatsek eragindako ezbehar baten gaineko ondarezko erantzukizunari buruzko espedientea izapidetzea
- Andosillako zeharbidea berritzeko lanek etxebizitza batean izan duten eragina
- Aramendiako Kontzejuak lanak egiteko ordaindutako dirua ez itzultzea

Zerbitzu publikoak

- Leitzako hodi biltzailearen funtzionamendu eskasaren gaineko ondare erantzukizuna galdatzea
- Arlegiko Kontzejuko kideei eman izan zaien informazioa
- Mendillorriko ikastetxe publikoko jolastokian sartzeko zailtasunak

5.1.12. OSASUNA

Alor honetako kexek aipatzen dituzten gai nagusiak

Osasuna	Itxaron zerrendak
	Laguntza orokorra
	Adimen osasunaren arloko laguntza
	Laguntza onkologikoa
	Laguntza pediatrikoa
	Antzutasunaren aurkako tratamenduak
	Behar bereziak dituzten taldeak (esklerosiak jotakoak, zeliakoak etab.)
	Osasun arloko garraioa
	Zerbitzu osagarriak (itzulerak etab.)
	Farmazia zerbitzua
	Osasun arloko laguntzarengatiko erreklamazioak
	Osasun publikoa

Iruzkina

Aurten alor honetan aurkeztu diren kexak aztertzerakoan, lehenik eta behin aipatu beharra dago OSASUN arloak eragin duela kexa gehien gure ikuskatze lana egituratu edo sailkatzeko erabiltzen ditugun alor edo gaien artean; izan ere, lehenengo aldia da gure erakundea abian izan den bost urteetan.

Alabaina, nabarmendu beharra dago –administrazioek ematen diguten laguntzari buruzko atalean landuko dugu espezifikokiago– Osasun Departamentuak –harentzat izan dira gehienak– kexa hauek guztiak direla-eta izan duen jarrera ez dela oso eragingarri eta eredugarria izan, oso erantzun labur eta eskasak eman baitizkigu oro har informazioa eskatu diogunean eta eskari horiek errepikatu behar izan dizkiogunean.

Nolanahi ere, kexek planteatu dizkiguten gaiak direla-eta, **adimen gaixoak laguntzeari buruzkoak** izan dira ugarietak. Alde horretatik, osasun eta gizarte arloko laguntzari buruzko atalean dauden gabeziak aipatu ditugu lehen, eta errehabilitazio psikosozialeko zentroak martxan jartzeak hutsune horiek bete dituela, baina, alor honetan, Osasunbideak adimen gaixotasunen bat duten pertsonak tratatu eta laguntzen ez dituelako aurkeztu dira kexak.

Ildo horretan, aurkeztu diren kexak nortasun arazoak diagnostikatu dizkieten pertsonen egoerari buruzkoak izan dira. Hain zuzen ere, haien senitartekoez gaixotasunaren jarraipen psikoterapeutikoa jarraitua egiteko eskatu dute, uste dutelako ez dela halakorik egiten, eta tratamendu horretan espezializatutako erietxeren batera bideratzeko ere eskatu dute, beste autonomia erkidego batzuetan gaixo hauekin egiten omen den bezala.

Adimen osasunaren alorreko Nafarroako laguntzari buruzko txosten berezia egin genuenetik egin ditugun urteko txostenetan adierazi dugunez, gai honek osasun sistemaren erronka nagusietako bat izaten segitzen du, Nafarroan ez ezik, baita Espainia osoan ere. Gaixo hauek luzaroan ospitaleratze-ko zentroak eskasak dira eta, gainera, ez dago programa zehatzak aplikatuko dituen errehabilitazio egitura egokirik, zailtasunak daude sareak eta zerbitzuak modu eragingarrian koordinatzeko eta, azkenik, gaixo hauen familiak oso egoera txarrean daude, haien esku uzten delako gaixoon laguntzaren zati handi bat (ikus 4.4.2. atala, "Adimen osasunari buruzko txosten bereziaren jarraipena").

Bestalde, aurreko urteetan bezala, espezialitate jakin batzuetan dauden atzerapenak eta **itxaron zerrendak** direla-eta aurkeztu zaizkigun kexen multzoa ere oso esanguratsua izan da alor honetan, eta kopuruak apur bat gora ere egin du aurreko urteen aldean.

Antzutasunaren aurkako tratamenduei buruzkoak alde batera utzirik –berezko ezaugarriak direla-eta, normala da beste zerbitzu batzuetan ohikoa dena baino gehiago itxaron behar izatea, baina horrek ez du esan nahi funtzionamendu estandarrek finkatu behar ez direnik denbora aldetik–, alor honetako arazoak askotarikoak dira: informazio sistemak, itxaron zerrendak kudeatzeko modua, gaixoei lehenetsuna emateko irizpideak, gehieneko itxaronaldiak, herritarrei ematen zaien informazioa... Horiek guztiak kontuan izan behar dira arazoa konpontzeko ahalegin oro egiterakoan.

Nafarroan, kirurgiako itxaron zerrendei buruzko araubide juridikoa apirilaren 6ko 12/1999 Foru Legeak ezarri zuen berariaz; hain zuzen ere, Foru Legeak Osasunbideak programatutako ebakuntzak egiteko itxaron zerrenden gaineko ebaluazio eta esku-hartze programa finkatu zuen.

Dena dela, kexa asko eta asko planeatu zaizkigu alor honetan, Foru Komunitatean ez dagoelako espezialistekin kontsultak egiteko itxaron zerrendak gutxienez arautuko dituen antzeko araurik, lehen mailako laguntza ematen duten sendagileek gaixoak mediku espezialistengana bideratzeko irizpideak izan badiren arren, eta, horregatik guzti-gatik, gomendioa egin diogu Osasun Departamentuari, mediku espezialistekin kontsulta arruntak egiteko gehieneko itxaronaldiak arautu egin ditzan, itxaronaldi zuzenak bermatu eta erantzuna ematen izaten diren atzerapenen ondorio juridikoak finkatze aldera. Departamentuak, berriz, erantzun digu uste duela neurri hori ez dela nahikoa itxaronaldi luzeegiak izan ez daitezen bermatzeko eta, horregatik, beste bide batzuk aztertzen ari dela espezi-

alistekin kontsulta egin behar duten gaixoen itxaronaldia laburtzeko.

Era berean, berekin dakartzan giza konnotazioak direla-eta, aparteko arreta eman diogu kexa jakin bati. Haren bitartez, emakume batek Nafarroan **haurdunaldia norbere borondatez eteteko zerbitzua** ematen den moduak berarengan izan dituen ondorioak azaldu dizkigu; hain zuzen ere, umekiari malformazio larri bat diagnostikatu zaiolako eten behar izan du haurdunaldia. Nafarroatik kanpoko beste klinika batera bideratu dute, azaldu diotenez, Osasunbideko ginekologoen kontzientzia eragozpenak dituztelako; beraz, Foru Komunitatean halako ebakuntzak egiten dituen klinika pribaturik ez dagoenez gero, beste autonomia erkidego batekora jo behar izan du. Gainera, ebakuntza egin aurreko egunean ospitaleratu dute bertan, operazioa goizeko bederatzietan zelako egitekoa, eta hurrengo eguneko arratsaldeko zortzietan eman diote alta. Bitarte horretan, ez du lagunik izan alboan, klinikako barne arautegiaren arabera, ezin delako beste pertsonarik izan; hortaz, lagunak klinikatik kanpo hartu behar izan du ostatu.

Batetik, ezbaian jartzen dugu Prestazio eta Hitzarmenen Zerbitzuak bera bidaiatzeko gastuak bakarrik (22,66 euro) ordaindu izana, 130 euro erreklamatu dizkion arren bidaiari gastuen, lagunaren ordainsarien eta operazioa egin dion klinikak emandako sendagaien trukean. Bestetik, uste dugu Osasun Departamentuak beharrezko neurriak hartu beharko lituzkeela haurdunaldia norbere borondatez eteteko prozesuan esku hartzen duen langile batzuek edo guztiak kontzientzia eragozle izaten jarraitzen duten kontrolatzeko eta, hala bada, sinatzen diren hitzarmenek gaixoen egoera kontuan har dadin eta gaixoen lagunak bat izateko aukera izan dezaten ezartzeko; gainera, uste dugu Osasun Departamentuak hartu beharko lituzkeela bere gain garraio gastuak eta ordainsariak.

Departamentuak eman duen erantzun bakarra izan da Nafarroako emakumezkoek haurdunaldia eteteko eskubidea dutela legediak xedatzen dituen egoeretan eta, bidaiari, ostaldea eta mantentzea ordaintzeko sariei dagokienez, uztailearen 30eko 212/2005 Foru Dekretua aplikatu baino ez duela egin.

Azkenik, hartu dugun kexa baten harira lehenengo aldiz aztertu dugun gai bat aipatu beharrean gaude. Hain zuzen ere, Ezkarozeko, Otsagabiko, Erronkariko eta Izabako farmazien egoera dela-eta, kexa horren egileak zalantzan jarri ditu **guardiako farmaziei** buruzko maiatzaren 26ko 129/2003 Foru Dekretuko arauak, botika bakoitza bi eguneko egun bakarrean baitago guardian arautegiaren ondorioz.

Arautegi horrek ezartzen dituen irizpideak berrikusteko gomendioa egin diogu Osasun Departamentuari, eta hark erantzun digu bilerak egiten ari dela farmazialariek eta kaltetutako langileekin, larrialdietan esku hartzeko protokoloak onartu eta herri horietako guardien kopurua zerbitzuari kalte egin gabe murrizteko.

Alor honetako kexarik esanguratsuenen aurkibidea (CD formatuan daude osorik)

- Osasunbideko Ginekologia Zerbitzuak kistak ez detektatzeagatiko erantzukizuna nori dagokion argitzea
- Adimen gaixo bat erietxean laguntzeko tokia lortzeko eskaria
- 60/2003 Foru Aginduaren bidez sortutako Garuneko eta Bizkarrezur Muineko Gaitzen Unitatea abian jartzen atzeratzea
- Guardiako farmazien sistemak mendialdean dituen ondorioak
- Ezegonkortasun emozionaleko nortasun arazoa duen gaztea erietxean laguntzeko tokia lortzeko eskaria

- Bideko Ama Ospitaleko Psikiatria Zerbitzuak hurrengo egunean gazte bat hil duen pertsonari eman dion laguntza
- Dietetika espezialitateko itxaron zerrenda
- Ebakuntza egiten atzeratzea
- Adimen gaixotasun larriak dituzten pertsonak laguntzeko errehabilitazio psikosozialeko zentroak abian jartzea
- Altsasuko Josefina Arregui Klinikako errehabilitazio tratamendua
- Nafarroan haurdunaldia norbere borondatez etetea
- Neuropediatria Zerbitzuak emandako laguntzarekiko desadostasuna
- Oftalmologiako itxaron zerrenda
- Adimen gaixo bati bizilekua eman beharra
- Azterketa onkologikoak egiten atzeratzea

5.1.13. LANA, GIZARTE SEGURANTZA ETA ATZERITARRAK

Alor honetako kexek aipatzen dituzten gai nagusiak

Lana	Langabeak lanerako prestatzeko ikastaroak
	Langabeziagatiko laguntzak hartzea
	Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren jakinarazpenak
	Lan istripuak (lan arloko segurtasuna)
	Enplegurako laguntzak
Gizarte segurantz	Gutxieneko pentsioak
	Laguntza hartzeko eskubidea onartzea
	Ezintasunak onartzeko prozesuak
Atzerritarrak	Atzerritarren egoitza eta lan baimenak
	Schengen bisak

Iruzkina

Alor honetan aurkezten den kexa kopurua ez da oso esanguratsua izaten, kexak gizarte segurantzaren alorreko arazoei buruzkoak direlako funtsean eta, finkatutako eskumen esparruarekin bat, Espainiako arartekoari urtero bidaltzen zaizkion gehienak alor honetakoak direlako.

Zehazki, alor honetako kexak Gizarte Segurantzaren laguntzak (**pentsioak**) hartzeko eskubidea onartzeari buruzkoak dira oro har; hain zuzen ere, eskubide hori onartzeko ezarritako eskakizunak edo baldintzak jartzen dira maiz zalantzan, besteak beste, lanean izan diren bitartean dagokien pentsioa eskatu aurretiko urteetan baino gehiago kotizatu duten pertsonen pentsioak arautzeko oinarria kalkulatzeko kontuan hartu beharreko urteen kopurua.

Alde horretatik, 1995. urtean Toledoko Itunaren bitartez egin ziren proposamenei esker, pentsioak arautzeko oinarria kalkulatzekoan kontuan hartu beharreko gutxieneko urte kopurua 15ekoa da gaur egun –lehen 8 urtekoa zen–, norbere kontribuzioa sistemak finantza aldetik orekan jarraitzeko oinarritzko printzipioa den neurrian, baina kontuan izan beharra dago oraindik ere ez direla hartu halako laguntzak hobekien kalkulatzeko neurriak; hain zuzen ere, Itunaren bederatzigarren gomen-dioari jarraiki, laguntzok kalkulatzeko modurik onena lan egin den denbora osoan egiaztatutako oinarriak kontuan hartzea da.

Era berean, oraindik ere kexa ugari hartzen dugu Gizarte Segurantzaren edo Zahartzaroagatiko eta Ezintasunagatiko Nahitaezko Aseguruaren gutxieneko pentsioak hartzen dituztenengandik

euren pentsioak eskasak direlako, nahiz eta egoerak apur bat hobera egin duen azken bi urteotako hazkundera handiagoa izan dela eta ekainaren 6ko 9/2005 Legea indarrean sartu dela eta; hain zuzen ere, Legearen helburua Zahartzaroagatiko eta Ezintasunagatiko Nahitaezko Aseguruaren pentsioak Gizarte Segurantzaren alarguntasun pentsioekin bateratzea da.

Aipatu hazkunderari dagokionez, alarguntasun pentsioak hartzen dituzten zenbait alargunek jakinarazi digute ez daudela ados Nafarroako Gobernuaren otsailaren 17ko 1/2004 Foru Legea aplikatzen ari den moduarekin eta aplikazio horren ondorioekin; hain zuzen ere, lege hori Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67 bis artikulua berridazketa da, eta alarguntasun pentsioengatiko kenkariak arautzen ditu.

Egoera horren adierazgarri, herritar baten kexa aztertu besterik ez dago. Harekin bat, pertsona horrek 415,81 euroko pentsioa zuen 2004. urtean eta, 1/2004 Foru Legeak xedatzen duen kenkarian oinarrituta, Nafarroako Gobernuak beste 53,20 euroz osatzen zuen. 2005. urtean, berriz, Espainiako gutxieneko pentsioak % 6,5 inguru igo dira eta, ondorioz, pertsona horrek hileko 442,76 euroko pentsioa hartu du. 1/2004 Foru Legeak efektu anizkuneko errenta adierazle publikoa dela eta xedatzen duen osagarriaren gehieneko zenbatekoaren ondorioz, ordea, Nafarroako Gobernuak ordaintzen zuen osagarriak hileko 53,29 eurotik hileko 29,21 eurora jaitsi da eta, hori dela eta, alarguntasun pentsioaren zenbatekoa hileko 469,01 eurotik hileko 471,97 eurora pasatu da 2004. urtetik 2005era bitartean, hau da, 2,96 eurotan bakarrik handitu da urte batetik bestera; izan ere, efektu anizkuneko errenta adierazle publikoa ez da gutxieneko pentsioak bezainbat hazten urte batetik bestera.

Egoera hori errepikatu egiten ari da 2006. urtean, gutxieneko pentsioak berriz igo direnez gero, eta, ondorioz, pertsona askok eta askok egoerak euren pentsioen benetako hazkundera duen eraginarekiko desadostasuna adierazi digute, pentsioen zenbatekoa gutxiago hazi baita horregatik. Halaber, 1/2004 Foru Legea indarrean sartzeak Nafarroak alor honetan egiten duen ahalegin ekonomikoa nabarmen txikiagotu izanarekiko desadostasuna ere jakinarazi digute.

Bestalde, **atzerritarrei** dagokienez, kexa kopurua asko handitu da eta, lehenik eta behin, nabarmentzekoa da etorkin elkarte batek urrian Maroko eta Espainia arteko mugan gertatutakoa salatu duela; hain zuzen ere, bost etorkin hil ziren bertan.

Salatutako egoera zein larria zen ikusirik, eta noren eskumeneko esparruari zegokion alde batera utzita, kexa edo salaketa hori Espainiako Atzerri Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioari eta arartekoari helarazi diegu berehala, baita arartekoaren iritzia ere; izan ere, ez zaigu arrazoizko iruditu, hainbat egunen ostean, Espainiako eta Marokoko gobernuak gertatutakoari buruz azaleratutako informazio kezkarriak gezurtatu edo behar bezala azaldu ez izana eta etorkinak horren kokaleku desegokietara eramateko arrazoien berri eman ez izana. Horrenbestez, hain egoera laidogarria amaiarazteko beharrezko neurriak lehenbailehen hartzeko eskatu diegu, uste baitugu Espainiako Gobernuak eta Europar Batasunak ezin diotela inola ere ez ikusiarena egin etorkinen zoriari, atea itxi eta arrisku handiko egoeran abandonatu ondoren.

Autonomia erkidegoetako eta Espainiako arartekoek ere antzeko gogoetak egin dituzte Arartekoak Koordinatzeko XX. Jardunaldietan, migrazio fluxuak kontrolatzerakoan pobrezia desagerrarazteko helburuak bete eta giza eskubideak errespetatzea- ren aldeko adierazpena onartu baitute bertan.

Azkenik, atzerritarrei buruzko atal honetan, **Espainiako hainbat kontsuletzetan** ematen den laguntza eskasari eta bisak eskuratzeko egin beharreko zuzemenak atzeratzeari buruzko kexa ugariak aipatu beharrean gaude; izan ere, alor honetako beharrak izugarri hazi dira azken urteotan.

Kexak noren eskumeneko esparrukoak izan diren, horietako asko eta asko Espainiako arartekoari igorri behar izan dizkiogu baina, hala ere, bitartekotza lanak egin eta, gainera, emaitzak onak lortu ditugu hainbat kontsulatutan, Espainiak Quiton (Ekuadorren) eta Bogotan (Kolonbian) dituen kontsuletxeetan batik bat. Gainera, lan horiek areagotu egin ditugu kaltetuak haurrak eta, batez ere, hemen eskolatuta dauden haurrak izanez gero, kontsulatu etako lan pila dela eta, haurrok Espainiara itzultzea nabarmen atzeratu eta horrek kalte handiak egin dizkiolako euren garapenari eta bilakaerari.

5.1.14. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

Alor honetako kexek aipatzen dituzten gai nagusiak

Hirigintza	Planeamenduaren taxuketa
	Planeamendua betetzea
	Lurzoruari buruzko hirigintza araubidea
	Eraikuntza eta hirigintza arloko erabileran eta diziplinan esku hartzea
	Lurzoru ondare publikoa
Etxebizitza	Etxebizitza eskuratzeko zailtasuna
	Babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozesuak
	Babes ofizialeko etxebizitzaren akatsak
	Araubide bereziaren esparruan alokatzeko babes ofizialeko etxebizitzaren arazoak (bizikidetzak, etxebizitza eskuratzeko, etab.)
	Etxebizitzari buruzko lege berriaren (8/2004 Foru Legearen) aplikazioa
	Babes ofizialeko etxebizitzaren alorreko laguntzak
	Bizigarritasun baldintzak

Iruzkina

Alor honetako kexen kopurua aurreko urteko kexa kopuruaren antzekoa izan bada ere ia, kexa gehien eragin duen bigarren arloa izan da aurten. Lehenik eta behin, funtsean hirigintza lantzen duten kexak aztertuko ditugu eta, jarraian, etxebizitzari buruz hartu ditugun kexak; izan ere, azken urteotan bezala, etxebizitzak alor honetako multzo esanguratsu bat osatu du, gizarteak alde guztietatik adierazten baitu aparteko kezka etxebizitza duin eta egokia lortzeko arazoak eta zailtasunak direla eta.

Hirigintza antolamendu edo planeamenduari dagokionez, herritarrek inguru edo sektore jakin baten gaineko planeamenduak xedatzen duenari buruzko desadostasuna adierazi digute hainbat kexaren bitartez eta, zenbaitetan, baita aurreikuspen horien berri jakin ez izanari buruzkoa ere, zuzeneko eragina duten aldetik eurengan.

Hala ere, aurrez ikusitako antolamenduekin ados ez egote hutsa ez da nahikoa eskatzen diguten bezala esku har dezagun, alor honetan jarduten den administrazioak eskumen handiak baititu halako erabakiak hartzeko; izan ere, antolamendu

juridikoak dioenez, administrazioak ahalmen tekniko handia du alor honetan, eta ordezkariak erakunde eskudunak aukeratzeko duen irizpidea ezin da ordezkatu, boterea oker erabiltzen denean, erabakia arbitrarioa denean edo arrazoirik batere ez dagoenean izan ezik.

Ildo horretan, kexa batzuek **hirigintza iraunkorra** jorratzeari buruzko kezka erakusten dute, udalerrietan industria guneak sortu edo enpresa edo jardunen bat ezar dadin sustatzeko aldaketan hariara; izan ere, aldaketa horiek ez dira antolamenduari jarraiki edo hirigunea hurbil dagoela kontuan hartuz egiten batzuetan eta, ondorioz, herritarrek eragozpen handiak dituzte, zaratarengatik ez ezik, baita isuriak, usainak, ibilgailu astunak... daudelako ere.

Edonola ere, aipatu eskumen handiei kalte egin gabe, uste dugu berriro ere nabarmendu behar dela hirigintza araudiak berak gai honi buruz ezartzen duena gauzatu egin behar dela; agindu horrekin bat, hirigintzako administrazio eskudunek doakien parte hartzea eta, batez ere, kaltetuak suertatzen diren interesak ordezkatzeko dituzten erakundeak eta partikularren ekimen eta informazio eskubideak bermatu behar dituzte hirigintza planeamendua egin, bideratu eta kudeatzerakoan.

Alde horretatik, hirigintzari buruzko informazioa izatea herritarrek parte hartzeko ezinbesteko elementutzat dugu eta, horrenbestez, dokumentuen gardentasunak eta dokumentuak berehala eskuratzeko aukerak izan behar du botere publikoaren oinarriko helburua hirigintza arloko erabakiak hartzen dituztenean, herritarren balizko mesfidantza desagerrarazte aldera. Informazio gizarteak eskaintzen dituen aukera eta baliabide guztiak (elektronikoak, informatikoak, telematikoak...) erabiltzeak helburu horiek lortzen lagun lezake neurri handi batean.

Era berean, **hirigintza arloko diziplina** errespetarazteko hartzen diren neurriek kexak aurkezteko arrazoi izaten jarraitzen dute, hainbatetan, toki erakundeek ez dituztelako behar bezala gauzatu antolamendu juridikoak alor honetan egokitzeko dituzten eskumenak. Horregatik, toki erakundeek lurzoruaren erabilerak eta eraikuntza lanak legedira eta udal hirigintza planeamendura egokitzeko direla egiaztatzeke egin beharrekoak behar bezain azkar eta behar bezainbateko arduraz egin beharra berriz nabarmentzeaz gain, neurriak hartu beharra ere nabarmendu beharra dago, hausten den hirigintza antolamendua eta kaltetutako ondusunak lehenagoratu eta arauak hausten dituztenak zigortu egin daitezten.

Etxebizitzari dagokionez, berriz, ez da dudarik etxebizitza eskuratzeko arazoak eta zailtasunak gizartea nabarmenkienez kezkatzen duten auzietako bat direla. Ulertzen erraza da hori, kontuan hartuz gero etxebizitzarako eskubidea erabiltzea herritarrek gizartean, familiarrean eta euren baitan gartzeko ezinbesteko baldintza dela baina biztanleriaren zati handi batek ezin duela eskubide hori erabili, etxebizitza librearen merkatuko prezioak direla eta.

Hartara, babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea da biztanleriaren zati handi horrek etxebizitza eskura dezan modu eragingarrian lagundu dezakeen neurri bakarra ia.

Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da nabarmentzea administrazio eskudunek aukera guztiak baliatu behar dituztela antolamendu juridikoak lurzoru eta etxebizitza arloan esku hartzeko eskaintzen dizkien bitartekoak diseinatu eta gauzatzekoan, orain arte ez baitute lortu etxebizitza librearen prezioen hazkundea eteterik.

Ildo horretan, babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeari dagokionez, aipatzekoak dira azkenaldian Nafarroan antolatzen ari diren esleipen kanpainak, auzi hau neurri batean konpontzen ari direlako gutxienez, oraindik ere oso-oso eskasak diren arren eskaintzen den etxebizitza kopuruaren aldean.

Hori dela-eta, halako etxebizitzak esleitzeko beharrezko irizpide pertsonalak eta ekonomikoak finkatu beharra planteatu dugu hasiera batetik eta, azkenean, Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeak xedatu du gai hori, baremo egokia aplikatu behar diren nahitaezotasuna ezarri baitu.

Hain zuzen ere, Foru Legeak xedatzen dituen irizpideak eta irizpideon gaineko ebaluazio zuzena etengabeko kexa iturri izan dira alor honetan, eta kexa batzuek etxebizitza hauek eskuratzeko gutxienezko diru sarrerak egiaztatu beharra ere aipatu dute. Kexa horien egileak gutxienezko diru sarrerak ez izateagatik halako sustapenetatik kanpo geratu diren pertsonak izan dira eta, diotenez, eskakizun hori ezbaian dago, babes ofizialeko etxebizitzak etxebizitza duina eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat direlako hasiera batean. Dudazkotan hori are esanguratsuagoa da alokatzeko babes ofizialeko etxebizitzak direla-eta, etxebizitza horiek eskuratzeko eskatzen den errenta nahiko txikiagoa baita.

Eskakizun hori justifikatzeko ematen den arrazoia, ostera, aldizka ordaindu behar diren kopuruak ordaindu egiten direla bermatu beharra da,

laguntza publikoen eragingarritasuna eta garden-tasuna bermatzen delako hartara.

Behar hori gorabehera, planteatu dizkiguten zenbait kexaren harira, berdin-berdin analizatu behar dira hainbatetan diru sarrerak kontuan hartzen diren mementoaren eta esleipen prozesua gauzatzen den mementoaren edo, areago, sale-rosketa eta, batez ere, alokairu kontratua sinatzen den mementoaren artean dagoen egokitasunik ezaren ondorioz sortzen diren arazoak.

Uste dugu gorabehera hori hobetzeko moduko dela berez gaur egun antolatuta dagoen gisara, baina are esanguratsu eta garrantzitsuagoa izanen da urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Legeko 19. artikulua kariatara. Hain zuzen ere, artikulua horrek dena delako deialdi publikoa amaitzen dataren aurreko azken bi zergaldietako bakoitzean **gutxieneko diru sarrerak izan direla egiaztatu beharra** ezartzen du, eta 2006ko lehenengo hila-beteetan egin den kanpaina izan du dagoeneko eraginik.

Babes ofizialeko etxebizitzak esleitzerakoan kontuan hartu beharreko irizpideak direla-eta, berriz, **Nafarroan jarraituki errolatu beharra** izan da aurkeztu diren kexek zalantza gehien jarri dutena; izan ere, dena delakoagatik (lanagatik edo, neurri horrek gazteengan dituen ondorioak direla-eta, ikasketengatik) denbora ez oso luze Nafarroatik kanpora joan behar izaten diren eta bertan errolatu eta aurreko bizilekuan bizitzeari uzten dioten nafarrak oso egoera zailean daude prozesu hauetan. Halaber, ezin ditugu alde batera utzi neurri horrek Foru Komunitatera berriki iritsi diren herritarrengan dituen ondorioak.

Bestalde, **alokatzeko babes ofizialeko etxebizitzak** (funtsean, araubide berezikoak) direla-eta, argi eta garbi jakinarazi behar da kexak helarazi zaizkigula etxebizitza hauen alorrean kontratu bidezko harremanetan sortzen diren arazoei eta etxebizitzok erabili eta bertan bizitzeko baldintzei buruz.

Alde horretatik, halako etxebizitzek langabezi- an dauden herritarrentzat, egonkortasunik gabeko enplegua dutenentzat, gurasoen etxetik alde egiteko adinean dauden gazteentzat eta, oro har, diru sarrera txikiak dituzten familientzat (alegia, etxebizitza eskuratzeko aparteko zailtasunak dituzten guztientzat) duten garrantziaz jabeturik, uste dugu alor honetan eskumena duten administrazio publi-koek ezin dietela ez ikusiarena egin halako egoe- rei, errentatzaileen eta errentadunen arteko kon-

tratuaren esparruan sartu arren. Aitzitik, egoera horiek batera eta zeharka analizatu eta tratatzeak konponbide eta aukerarik egokienak erabakitzen lagun lezake zenbaitetan, egoera horietan dauden pertsonen aparteko gorabeherak ere aintzat hartu behar baitira.

Azkenik, etxebizitza arloan aztertu dugun beste hainbat auzi mota aipatu nahi dugu. Txosten honi kexarik esanguratsuenen berri emateko erantsi diogun CDan azaltzen dira gai horiek eta, zehatz- mehatz, zuzeneko laguntzak emateko eskakizunei eta 8/2004 Foru Legeko 17. artikulua aipatzen duen zentsu edo errola martxan jartzeari buruzko gomendioak dira; hain zuzen ere, zentsu edo errol- da horren helburua babes ofizialeko etxebizitzak sustapenei buruzko datuak argitaratu eta etxebizi- tza horiek eskuratzeko interesa duten herritarrak informatzea da.

Alor honetako kexarik esanguratsuenen aurkibidea (CD formatuan daude osorik)

Hirigintza

- Garesko eraikin bateko lanak hirigintza arlo- ko udal araudiari lotu gabe egin izana
- Elizondoko lerrokatzeen xehetasunei eta antolamenduari buruzko azterketa
- Murugarrenen hirigintza zerbitzuak gauzatze- ko hirigintza hitzarmena onartzen atzeratzea
- San Martin Unxeko errepide edo kale baten bide eskasa
- Noaingo etxebizitza batzuen atzealdeko pasabide bat erabiltzeko baldintzak beste eraikin bat eraikitzen ari direla eta

Etxebizitza

- Babes ofizialeko etxebizitzak zentsuari buruzko informazioa eta zentsua martxan jar- tzea
- Babes ofizialeko etxebizitza bat deskalifika- tzeko eskariari ez erantzutea
- Babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko maileguen interesak ordaintzeko diru lagun- tzak luzatzeko eskaera bideratzea
- Babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko diru laguntza emateko eskariari ezezkoa ematea
- Iruñeko Udalaren zortzi orube enkante bidez esleitzea etxebizitzak egiteko

5.1.15. HERRITARREN BESTE ESKUBIDE BATZUK

Alor honetako kexek aipatzen dituzten gai nagusiak

Hainbat	Toki erakundeen funtzionamendua
	Sailkatu gabeko beste gai batzuk
Eskubideen sustapena	Erantzun beharra
	Herritarren parte-hartzea

Iruzkina

Aurreko ataletan sartzen ez diren askotariko zenbait kexa aipatuko ditugu alor honetan. Batetik, partikularren edota enpresa pribatuen jardunari buruzkoak direla-eta, erakunde honek esku hartzeko eskumenik ez duen hainbat egoera aipatuko dugu eta, bestetik, hainbat toki erakundetan edo toki erakundeen eta herritarren arteko harremanetan izandako arazoak; hain zuzen ere, horiek izan dira esanguratsuenak berriro ere.

Alde horretatik, kexaren bat auzo elkarte batek bere **udalerriko elkarte**en udal erregistroan izena emateko izan dituen zailtasunei buruzkoa izan da, baina toki erakundeetako kideek euren eginkizuna betetzeko izan dituzten zailtasun edo eragozpenei buruzko kexarik ere hartu dugu, informazio jakin bat lortzerik ez zutelako, eta, hain zuzen ere, horiexek analizatu ditugu gehienbat.

Halakoetan, **zinegotzien eskubideak** arriskuan daudelako esku har dezakegu. Eskubide horiek Toki araubidearen oinarriak arautzen ditun apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1996 Errege Dekretuaren bidez onetsitako arautegi organikoak eta funtzionamendu arautegiak zehazten dituzte, eta zinegotzi karguaren berezko estatusaren barnean sartzen dira, euren eginkizunak hobeto bete ditzaten; horri esker, zinegotziek Espainiako Konstituzioko 23.1. artikuluko eskubidearen babesa dute eta, horrenbestez, auzi publikoetan parte hartzeko eskubidea.

Halere, alor honetan eta planteatu izan zaizkigun hainbat egoeratan izan dugun esperientziaren ondorioz, jakin badakigu halako auzi jakin batean bakarrik esku hartzeak ez duela arazoa guztiz konpontzen, litekeena baita berariaz jakinarazten

zaiguna baino esku-hartze orokorragoa behar izatea, ordura arte izandako aurrekarien eta egoeren kariatara.

Hori dela-eta, planteatu zaizkigun zenbait egoeratan egoki iritzi diogu bitartekotza lanak egin ditzagun planteatzea, irtenbide eragingarriagoa ematen ahalegintze aldera. Planteamendu horrek askotariko emaitzak eman ditu, baina uste uste dugu gauzatu egin behar dela. Behintzat, horixe jakinarazi diogu gugana jo duen orori, alor honetan gauzatzen den ekimen oro zentzuzkotasun parametroetara egokitu beharra abiapuntu hartuta; hau da, arazoizkoak izan behar dugu eskura ditugun baliabideak eta, areago, dena delako administrazioaren egitura direla-eta, Nafarroako toki erakunde asko eta asko txikiak direlako eta, jakina, izari horrek alor honetan egiten den edozer baldintzatzen duelako, erakundeon baliabide eskasia dela eta.

Azkenik, gure ikuskatze lana sailkatzeko erabiltzen ditugun alorren analisia amaitze aldera, aurren sortu dugun alor bat aipatuko dugu lehenengo aldiz: eskubideen sustapena; hain zuzen ere, esparru hori arartekoaren ekimen baten (Nafarroako Foru Komunitateko Herritarren Eskubideen Gutunaren) ondorioz eta haren ildoan sortu da.

Funtsean, Gutunean azaldu beharreko proposamenak egiten parte hartu zutenek ekimen horri egin zizkioten ekarpenak oso lotuta zeuden Nafarroako administrazio publikoek herritarrei ematen zaien laguntzaren kalitatea ebaluatu eta administrazio zuzemenak sinplifikatzeko sistemak abian jartzearen inguruko alderdi kualitatiboekin eta, horregatik, aparteko arreta eman diogu alor berri honi. Haren bitartez, gure helburua askotariko gai-ekin zerikusia duten ekimenak eta kexak analiza-

tzea da, hala nola, informaziorako eskubidearekin, zentroetan eta bulegoetan ibiltzearekin, laguntza egokia hartzeko eskubidearekin, erantzuna eman behararekin (administrazioaren isiltasunarekin), herritarren parte hartzearekin, administrazio publikoetako gardentasunarekin, berme sistemak aplikatzearekin eta eskubideak sustatzeko beste ekimen batzuekin harremana dutenak.

Ildo horretan, Nafarroan alor honi buruzko araudian izan berri diren aurrerapenek (esate baterako, abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko II. Idazpuruak, Herritarrek Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarekiko harremanetan dituzten eskubideei buruzkoak; maiatzaren 9ko 72/2005 Foru Dekretuak, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuen gutunak arautzen dituenak; eta, berrikiago, abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legeak, politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzkoak) gure administrazio publikoen egiturak herritarrek alor honetan planteatzen dituzten eskakizunetara eta erronketara poliki-poliki eta egiaz egokitu daitezten balio behar dute.

Azken batean, arlo berri honen helburua Nafarroako administrazio publikoek azaldu ditugun alorretan egiten dutena argitzea da, herritarrei laguntza emateko zerbitzuak ahal den neurrian hobetzeko beharrezko neurriak harrarazten lagundu, administrazioaren eskuragarritasuna eta harmena sendotu, politika publikoak herritarrentzat gardenak eta eskuragarriak izan daitezten lortu, erakunde publikoek zerbitzuen kalitateari buruzko konpromisoak adierazteko erabili behar dituzten zerbitzuen gutunak ezarri eta, hala badagokio, haietan sakondu eta, azkenik, administrazio publikoek barne kudeaketan eta herritarrekin harremanetan jartzeko prozesuetan informazioaren eta komunikazioen teknologiak gero eta gehiago erabili ditzaten lortzearren.

Alor honetako kexarik esanguratsuenen aurkibidea (CD formatuan daude osorik)

- Auzo elkarte batek Olaztiko Elkartearen Udal Erregistroan izena emateko eskaria
- Castejóngo Udalak mugarriztatze prozesua geldiaraztea
- Zergadun batek ordaintzeke dituen tasei eta zergei buruzko informazioa eskatzea

5.2. GARRANTZIZKO EBAZPENAK

Urte honetan barrena eman ditugun ebazpenik esanguratsuenetako batzuk transkribatuko ditugu jarraian, jendartean aparteko oihartzuna izan duten heinean.

Gainerako ebazpen interesgarriak argitalpen honi erantsi diogun CDan ageri dira.

5.2.1. IRUÑEKO PATXI LARRAINZAR IKASTETXEKO INSTALAZIO BERRIEN ERAIKUNTZAREN ATZERPENA (05/202/E ESPEDIENTEA)

AURREKARIAK

Oraingo honetan, Arartekoak Iruñeko Patxi Larrainzar ikastetxeko Guraso Elkartek aurkeztutako idatzi batengatik esku hartu behar izan du; hain zuzen ere, Guraso Elkartek ikastetxe horretan dabilzan ikasleen kopuru handia hartzeko instalazioen eskasia azaldu digu.

Zehazki, Ave María eta Patxi Larrainzar ikastetxeak hartzen dituen eraikinak bertan dabilzan ikasleen hezkuntza beharrei erantzuteko ahalmena ez duela salatu digute eta, hortaz, ikasgeletan ikasle gehiegi daudela eta kalitateko hezkuntza ezin eman dela.

Ikastetxeko Guraso Elkartearen ordezkariak diren aldetik azaldu digutenez, eraikina bi ildo hartzekoa zen hasiera batean: A eredia eta D eredia. Hala ere, euskarazko ildo bitan banatu zen duela hainbat urte, eta aurrez fabrikatutako moduluak instalatu behar izan ziren; antza, moduluak Cardenail lundain ikastetxeko ikasleak hartzekoak ziren hasiera batean, hura berritzeko lanak amaitzen ziren bitartean.

Hau da, Cardenail lundain ikastetxeko ikasleentzat behin-behineko konponbidea zena egoera egonkor bihurtu da orain arte Patxi Larrainzar ikastetxeko haurrentzat.

Ikasturteek aurrera egin ahala, beste helburu batzuetarako erabiltzekoak ziren ikasgelak bete egin dira: musika gela, banaketa gela, informatika gela... Egoera are gehiago okertu da 2004/2005. urtean, 3 urteko lau talde sartu baitira D eredian.

Jakinarazi digutenez, ikastetxeak 544 ikasle hartzen ditu, eta inola ere ez ditu betetzen 1537/2003 Errege Dekretuak araubide orokorreko ikastetxeen alorrean xedatzen dituen gutxieneko eskakizunak.

Halaber, salatu dute baldintzak are okerragoak izanen direla datorren ikasturtean, Patxi Larrainzar ikastetxeko ikasle talde bat beste ikastetxe batera aldatuko duten arren, beste lau talde sartuko dira eta. Mendillorriko ikastetxe bateko modulu aurrea-

brikatu batzuk instalatu behar dituzte baina, azaldu digutenez, modulu horiek ez dituzte betetzen bizitzeko gutxieneko baldintzak eta gutxieneko segurtasun eskakizunak eta, gainera, talde berriak hartzeko bakarrik balioko dute baina ez, ordea, araudiak ezartzen dituen instalazioen gabezia konpontzeko. Areago, lekuri eza are nabarmenagoa izanen da, 56 haur gehiago izanen direlako jolastokian; alegia, 600 haur izanen dira guztira, soberakinak dituzten ikastola pribatuetatik etor litekeenak kontatu gabe.

Azkenik, adierazi digute Hezkuntza Departamentuak ezarri duen behin-behinekotasun egoera hori hainbat urtez luzatu dela eta, gutxienez, 2007/2008 ikasturtera arte iraunen duela, ikastetxe berria orduan amaituko dela bai baitirudi. Gainera, aurrez ere utzi izan zaio antzeko behin-behineko konpromisoak betetzeari eta, inguru horretako hazkunde demografikoa kontuan izanik, beldur dira behin-behineko egoera hori luzatu egingen ez ote den, balitekeelako ikastetxe berriaren proiektua osatzerakoan egindako aurreikuspenak bertan izanen den eskariari erantzuteko nahikoak ez izatea.

Kexa aztertu ondoren, Hezkuntza Departamentura jo dugu, kexak planteatutako auziari buruz galdetu eta gure erakundeak esku hartzeko aukerak zehazte aldera, baina bi aldez egin behar izan dugu eskari hori; era berean, elkarriketak egin ditugu ikastetxeko Guraso Elkarteko kideekin, zuzendaritza taldearekin eta Hezkuntza Departamentuko ordezkariekin. Azkenean, eman dizkiguten dokumentu guztiak arretaz aztertu, aplikatu beharreko araudia analizatu eta ikastetxera bertara joan ostean, honako hausnarketa hauek egin ditugu, legediak agintzen digunari jarraiki, administrazioaren jarduna ikuskatu eta herritarren eskubiak babestearren.

ANALISIA

Kexaren egileek egin dituzten askotariko salaketak honako hauei buruzkoak izan dira funtsean: lehenik eta behin, ikastetxe berria hasteko lanen hasiera dela-eta, bata bestearen atzetik eman dizkiguten epeak (azkena, 2005eko urtarrila) eta ikastetxea erabilgarri izateko aurreikuspenak ez betetzeari eta diseinatu den ikastetxea inguruan aurrez ikusten den eskariari erantzuteko nahikoa ez izateari buruzkoak; bigarrenik, aurrekoaren ondorioz, aurrez fabrikatutako modulu edo barrakoiak horrenbeste denboran erabili behar izateari buruzkoak; eta, hirugarrenik, abuztuan modulu horietan egin den zabalgunearen zati bat (azken solairua) ikasturte honen hasieran ezin erabiliari buruzkoak.

Alde horretatik, abenduaren 5eko 1537/2003 Errege Dekretuak araubide orokorreko ikastetxeek bete behar dituzten gutxieneko eskakizunak xedatzen ditu eta, berariaz dioenez, araudiaren helburua "araubide orokorreko irakaskuntzen kalitatea eta ikastetxeen egitura eta antolamendua gizartearen beharretara egokitzeko beharrezko malgutasuna bermatuko duten gutxieneko baldintzak ezartzea" da.

Nabarmentzeko modukoa iruditzen zaigu arautegiak islatzen duen ideia hori, alegia, ikastetxeetan gutxieneko eskakizunak ezartzearen helburua kalitateko irakaskuntza eta ikastetxeen egitura eta antolamendua egungo eta etorkizuneko beharretara egokitzeko beharrezko malgutasuna bermatzea izatea.

Harekin bat, ikastetxeetako instalazioen egokitasunari buruzko azterketak, ikasle bakoitzeko gutxieneko lekuaz gain, ikasketa proiektua landu eta sortzen diren behar berriei antolamendu arloan aurre egiteko beharrezko malgutasuna ere izan behar du kontuan.

Alde horretatik, inguru horretako hezkuntza beharrak handiagotu egin dira azken ikasturteotan, eta horrek egun Patxi Larrainzar ea Ave María ikastetxeak hartzen dituen instalazioen eskasia azaleratu du, ez delako nahikoa bi ikastetxeotako ikasleei behar bezalako laguntza emateko. Hori dela-eta, Hezkuntza Departamentuak beste ikastetxe bat eraikitzea erabaki du.

Zoritzarrez, orain arte ez da lortu inguru jakin batzuetako zerbitzu publikoen plangintza inguru horietako bertako hirigintza garapenarekin batera egiterik.

Alde horretatik, aurrekontu arloko zailtasunek lanak hasteko epeak bata bestearen atzetik atzeratu izan litzaketela eta, hortaz, ikastetxe berria eskura izateko epea ere atzeratu izan lezaketela jakitun, ezin dugu auzi bat bazter utzi: atzerapenaren ondorioak ez dira berberak ikasleak aurrez fabrikatutako moduluetan daudenean eta egoera hori iritsi ez eta arazoa aurreikuspenak ez betezea besterik ez denean.

Departamentuak egin duen txosten baten bitartez arrazoitzen duenez, halako eraikuntzak oinarritzko araudiak xedatzen dituen eskakizunei jarraiki instalatu ziren eta, euren antolamendua eta egitura direla-eta, behin-behineko egoerak konpontzeko, denbora tarte jakin batzuetarako baka-riki prestatuta daude. Alegia, ez dugu uste ezin onartuzkoak direnik ikastetxe berria egiteko lanek irauten duten bitartean. Alabaina, ez dira oso sendoak, hondatzeko arrisku handiagoa dago, isolamendu termikoa eta akustikoa okerragoak dira, ez

dira oso erosoak eta txikiagoak dira eta, beraz, ez lirateke erabili beharko behar baino luzarago.

Horregatik guztiagatik, gurasoek eta irakasleek ez dute onartzen halako instalazioak urtez urte erabili eta ikastetxe berria egiteko lanak hasi ere egin ez izaterik orain arte. Alde horretatik, lanak hasi eginen balira hobeto jasanen litzukete egungo deserosotasunak, argi eta garbi legokeelako behin-behinekoak direla.

Azken batean, uste dugu, halako behin-behineko neurriak hartzen direnean, lanak hasteko epea finkatu eta horretarako beharrezko aurrekontua esleii dezan galdatu behar zaiola administrazioari. Izan ere, horixe da delako behin-behinekotasuna eta hasiera batean zeuden bizitzeko baldintza eta segurtasun eskakizun aproposak izatea bermatzeko bide bakarra.

Bestalde, barrakoiak horren luzaroan erabili behar izatearen eta oraindik eraikin berria egiteko lanak hasi ez izanaren ondorioz, moduluak handitu ere egin behar izan dira. Hartara, abuztuan lehenengo solairua berritzeari ekin zaio, beste bi ikasgela eraikiz, eta azken solairua handitu da; udal baimenik ezagatik, ordea, azken solairua ez da ikasturte honen hasieran erabiltzen hasterik izan baina, Departamentuak jakinarazi digunez, laster egonen da erabilgarri.

Azkenik, ikastetxe berria dela-eta, uste dugu badela alde batera gelditu ezin den alderdi bat: indarrean dagoen legediak parte-hartze eta hurbiltasun printzipioekin bat jardutera behartzen ditu administrazio publikoak herritarrekiko harremanetan, ezinbesteko osagaiak direlako horiexek demokrazia aurreratuetan. Hori dela-eta, zailtasunak izan litezkeen arren, uste dugu nabarmentzeko dela, hauengan zuzeneko eragina duten planak eta proiektuak diseinatzerakoan, gurasoen eta irakasleen iritziak eta nahiak kontuan hartzeko bitartekoak sortu beharra.

Aurreko guztiarekin bat, egoki iritzi diogu Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuari honako GOMENDIO hauek egitea:

- Aurrez fabrikatutako moduluak azken solairua lehenbailehen jartzea martxan, eta legediak ezartzen dituen berme guztiak betetzea hori egiterakoan
- Ikastetxe berria egiteko lanak hastea, lanak amaitzeko emandako epea (2007-2008 ikasturtea) bete egin dadin
- Datorren ikasturtean (2006-2007 ikasturtean) eskaria handiagotu egin litekeela-eta, hari erantzuteko beharrezko neurriak aldeztu aurretik hartzea

Hezkuntza Departamentuak erantzuna helarazi digu eta, haren bitartez jakinarazi digunez, gomen-diook onartu eta aurrez fabrikatutako modulu-etak azken solairua abian jartzeari ekinen dio, ikastetxeak 2005-2006 ikasturtean bertan erabili ahal izan dezan; ikastetxe berria eraikitzeke lanak lehenbailehen hasiko ditu, 2007-2008 ikasturterako amaituta egonen direla bermatzearren; eta dagoneko hartu ditu beharrezko neurriak 2006-2007 ikasturtean handiagoa izan litekeen eskariari erantzuteko.

5.2.2. HERRITARREI AIREKO OZONO TROPOSFERIKOAREN KOPURUARI BURUZ EMATEN ZAIEN INFORMAZIOA (05/220/M ESPEDIENTEA)

AURREKARIAK

Kexa idazkiak Nafarroako Gobernuak Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak herritarrei aireko ozono troposferikoaren kopuruari buruz ematen dien informazioa aipatzen du, eta informazio hori aireko ozono kopuruari buruzko abenduaren 26ko 1796/2003 Errege Dekretuko eskakizunekin lotu.

Zehatz-mehatz, kexaren arrazoi nagusia Departamentuak gai horri buruz ematen duen informazioa eskas jotzea da, kopuru jakin bat (herritarrek informatzeko adinako maila eta alerta egoeran egoteko adinako maila) gainditu izanari buruzko datuak eta bestelako informazio osagarria ematen direlako Nafarroako Gobernuaren web gunearen bitartez baina, aitzitik, herritarrek (batez ere, arriskuan dauden talde jakin batzuk: haurrak, zaharrak eta biriketako gaixotasunak dituzten pertsonak) ez direlako behar bezala ohartarazten Errege Dekretuak xedatzen dituen alderdiez. Izan ere, Errege Dekretuko II. eranskineko II. atalarenean, honako informazio hau eman behar da gutxienez, ahal bezainbat herritarri eta lehenbailehen: ozono maila non gainditu den, zein maila gainditu den, kutsaduraren bilakaerari buruzko aurreikuspenak zein diren (hobera egiten duen, egonkortu egiten den ala okerrera egiten duen), arriskurik handieneko taldeak zein diren, balizko sintomak zein diren, kaltetutakoek zer egin behar duten, informazio osagarria lortzeko zein bide dauden...

Informazioa eskatu diogu Ingurumen Departamentuari planteatu diguten auziari buruz, eta honako hau erantzun digu hitzez hitz:

“Departamentuak ozono troposferikoaren kopuruak gaintzeak kalte egiten dien herritar taldeei informaziorik ez ematea dela-eta, bi gauza hartu behar dira kontuan:

– *Lehenbizi, informazioa ematen ari den modua*

– *Bigarrenik, informazioaren edukia*

Moduari dagokionez, departamentuak hertsiki betetzen du 6. artikuluko 4. idatz-zatiko b) letran esaten dena; izan ere, bertan adierazten da informazioa bide egokietatik banatuko dela; esate baterako, kasuen arabera, honakoak erabiliz: ikusentzunezko bitartekoak, egunkariak edo argitalpenak, informazio-pantailak edo sareko zerbitzu informatikoak, internet kasu.

Berehalakotasun arrazoiengatik, eta artikuluko bereko a) letrako 3. idatz-zatian esaten dena betetzeko, informazioa “gutxienez ere egunean behin gaurkotzeari dagokionez, departamentuak erabaki du informazioa interneten bidez banatzea; izan ere, hartara interesekotzat jotzen duten hedabide-ek eskuratu ahal izanen dute, eta udalek ere erabili ahal izanen dute; esate baterako, Castejóngo Udalak informazio-pantailak erabiltzen ditu datu horiek ezagutzera emateko. Gure ustez, bada, informazioa zabaltzeko moduari dagokionez, abenduaren 26ko 1796 Errege Dekretuak ezarritakoa betetzen dugu.

Informazioaren edukiei dagokionez, zalantzarik gabe Nafarroako Gobernuaren web orriak gaintze uneak jaso zituen, informazioaren atalaseari dagozkionak, uztailaren 13an, 14an eta 16an; horretatik sortu zen, hain zuzen ere, galderan aipatzen den informazioa.

Antza, kexa II. eranskineko II. ataleko 3) epigrafeko xedapenak (aireko ozono troposferikoaren kopuruak kalte egiten dien herritarrei, kopuru horrek giza osasunean izan litzakeen efektuei, hartu behar diren neurriei, eta abarri buruzko informazioari buruzkoak) ez bete izanari buruzkoa da. Bada, uste dugu kexa funsgabea dela, sistema informatikoan alerta pizten denean, gomendioen eremua agertzen delako web gunean (ikus fotokopia); bertan klik egiterakoan, ozono maila gaintu egiten denean egin beharrekoak azaltzen dira (ikus fotokopia), eta gomendio horiek ozono bidezko kutsaduraren aurka babesteko atalaseak ezartzen dituen 1494/1995 Errege Dekretuko IV. eranskineko berberak dira.

Erants daiteke, ukituriko populazioari eta gomendioei dagokionez, gomendioak bat datoze-la Osasun Departamentuak uztailaren 13an eta 16an behin eta berriz bero bolada zela-eta eman zituenekin –erraz egiazta daiteke hori–, eta, horrenbestez, gure departamentutik, internet bitartez, eta Osasun Departamentutik ere zabaldu zirela hedabideen bitartez.

Laburbilduz, gure ustez, bai informazioa emateko moduan bai haren edukian, bete egin dira 1796/2003 Errege Dekretutik ondorioztatzen diren betebeharrak”.

Hain zuzen ere, honako hauek dira Departamentuak egin duen txostenean eta Nafarroako Gobernuaren web gunean ageri diren gomendioak: ozono troposferikoari eta haren ondorioei buruzko azalpen txiki bat eta herritarrek eta, kasuan-kasuan, arriskuan dauden taldeek kontuan izan beharrekoak 180 µg/m³-ko eta 360 µg/m³-ko mailak gainditzen direnean.

ANALISIA

Aplikatu beharreko araudiak administrazioari informazioaren alorrean ezartzen dizkion betebeharrak aztertuko ditugu lehenik eta, hartara, Ingurumen Departamentuak ematen duen informazioa eskakizun horiekin bat datorren aztertuko dugu ondoren.

Gaur egun, atmosferaren kutsadurari buruzko Europar Batasuneko araubide juridikoa airea ebaluatu eta kudeatzeari buruzko Europako Kontseiluaren 1996ko irailaren 27ko 96/62/CE zuzentarauak osatzen du oro har; horixe da arau esparrua, eta haren barnean sartzen dira arautegi hori garatze aldera atmosfera kutsatzen duen eragile bakoitzari buruz eman diren zuzentarau espezifikoak.

Esaterako, aireko ozonoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Europako Kontseiluaren 2002ko otsailaren 12ko 2002/3/CE Zuzentarauak 1992ko zuzentarau zaharra indargabetu eta behe atmosferako ozono troposferikoari buruzko Batasuneko araubide berria ezarri zuen, eta aireko ozonoari buruzko abenduaren 26ko 1796/2003 Errege Dekretuaren bitartez sartu zen barne zuzenbidearen esparruan.

Errege Dekretuak epe ertainean eta epe luzean izan daitezkeen gehieneko ozono kopuruak zehazten ditu, pertsonen eta landareen osasuna babestearren. Ildo horretan, pertsonen osasuna babestea dela-eta, epe luzean izan beharko litzaitezkeen gehieneko kopurua 120 µg/m³-koa da eta, epe ertainean, 2010-2013 tartea amaitzerako gehienez ere, 120 µg/m³-ko maila hori ezin da urtean 25 egunetan baino gehiagotan gainditu, 1796/2003 Errege Dekretuko 3.1. artikuluari jarraiki; balio hori kalkulatzeko, eguneroko zortzi orduko batez bestekoak aztertu dira.

Halaber, Errege Dekretuak herritarrak informatzeko adinako maila (180 µg/m³) eta alerta egoeran egoteko adinako maila (240 µg/m³) arautzen ditu, “maila horiek gainditzen direnean edo gainditu egin litezkeela aurrez ikusten denean, adminis-

trazio publiko eskudunek herritarrei eta osasun administrazioari beharrezko informazioa” eman diezaieten; horrek ez du esan nahi, ordea, “herritarrei aireko ozono kopuruari buruzko aldizkako informazioa” eman behar ez dietenik oro har, 1796/2003 Errege Dekretuko Zioen Azalpenarekin bat.

Ikus daitekeenez, Errege Dekretuak lortu nahi duen helburua adierazten du ozono troposferikoaren gehieneko mailak arautzerakoan: administrazio publiko eskudunek informazioa ematea herritarrei eta osasun administrazioari maila horiek gainditzen direnean edo gainditu egin litezkeela aurrez ikusten denean, herritarren esku aireko ozono kopuruari buruzko aldizkako informazioa jarri beharra betetzeari utzi gabe.

Alde horretatik, honela definitzen du Errege Dekretuak herritarrak informatzeko adinako maila (180 µg/m³): “denbora laburrez kalean egonez gero arriskuan dauden herritar taldeen osasunarentzat arriskutsua den eta administrazio eskudunak informazio eguneratua ematera behartzen dituen ozono kopurua” (1796/2003 Errege Dekretuko 2.k. artikulua); alerta egoeran egoteko adinako maila (240 µg/m³), berriz, honela definitzen du: “denbora laburrez kalean egonez gero herritar guztien osasunarentzat arriskutsua den eta administrazio eskudunak berehalako neurriak hartzera behartzen dituen ozono kopurua”.

Ildo horretan, ozono kopurua dela-eta herritarrak informatu eta alerta egoeran egoteko adinako mailak eta herritarrei eman behar zaien informazioa 6. artikulua lantzen ditu berariaz:

“1. Ozono kopurua dela-eta herritarrak informatu eta alerta egoeran egoteko adinako mailak II. eranskineko I. atalean ageri direnak dira: 180 µg/m³ eta 240 µg/m³, hurrenez hurren.

2. Administrazio eskudunek herritarrei eta osasun administrazioari II. eranskineko II. atalean ageri den informazioa emateko beharrezko neurriak hartu behar dituzte maila horiek gainditzen direnean edo gainditu egin litezkeela aurrez ikusten denean. Toki erakundeek, berriz, dagokien autonomia erkidegoko administrazioa informatu behar dute.

3. Aurreko atalean adierazitakoari kalte egin gabe, honako hau egin behar dute administrazio eskudunek:

a) Aireko ozono kopuruari buruzko informazioa eskura egon dadin bermatu behar dute aldizka. Informazio hori egunean behin eta, beharrezkoa eta bideragarria bada, orduro gaurkotu behar da gutxienez, eta giza osasuna babesteko epe luzeko

xedeak lortu eta dena delako tartean herritarrak informatu eta alerta egoeran egoteko adinako mailak gainditu izanaren berri eman eta ozonoak giza osasunean duen eraginari buruzko ebaluazio laburra egin behar du gutxienez.

b) Txosten orokorrak egin behar dituzte urtero.

4. Artikulu honetan aipatzen den informazioak argia, ulerterraza eta eskuragarria izan behar du eta, gainera, honako baldintza hauek bete behar ditu:

a) Herritarren, osasun administrazioaren eta interesa duten sektoreen (hala nola, ingurumenaren babesean jarduten diren erakundeen, kontsumitzaile erakundeen eta arriskuan dauden taldeen interesak ordezkatzan dituzten erakundeen) esku egon behar du.

b) Bitarteko egokien bidez zabaldu behar da. Kasuan-kasuan, honako hauek erabil daitezke, besteak beste: ikus-entzunezkoak, prentsa eta argitalpenak, informazio pantailak eta sareko zerbitzu informatikoak, Internet kasu”.

Hau da, Departamentuaren txostenak dioenez, 6. artikuluko 3. atalak ozono kopuruari buruzko informazioa herritarren esku aldizka jarri beharra ezartzen dio administrazioari, baita informazio hori egunean behin, gutxienez, eta, bideragarria bada, orduro gaurkotu beharra ere. Gainera, informazio horrek 120 µg/m³-ko, 180 µg/m³-ko eta 240 µg/m³-ko mailak gainditzen diren aldi guztien berri eman eta ozonoak giza osasunean duen eraginari buruzko ebaluazio laburra ere egin behar omen du.

Nolanahi ere, 6. artikulua ez dio betebeharrak hori bakarrik ezartzen administrazioari informazio arloan, aipatu berri dugun 3. artikulua herritarren esku aldizka datu jakin batzuk (herritarrak informatu eta alerta egoeran egoteko adinako mailak gainditu eta epe luzeko helburuak lortu izanari buruzkoak eta ozonoak giza osasunean duen eraginari buruzko ebaluazio laburra) jarri beharra “aurreko atalean adierazitakoari kalte egin gabe” bete behar dela baitio argi eta garbi.

Alde horretatik, honako hauxe dio aurreko atalak: “Administrazio eskudunek herritarrei eta osasun administrazioari II. eranskinen II. atalean ageri den informazioa emateko beharrezko neurriak hartu behar dituzte maila horiek gainditzen direnean edo gainditu egin litezkeela aurrez ikusten denean.”

Hain zuzen ere, honako hau xedatzen du II. eranskinen II. atalak, hitzez hitz:

“Herritarrei eman beharreko gutxieneko informazioa herritarrak informatu eta alerta egoeran egoteko adinako mailak gainditzen direnean edo gainditu egin litezkeela aurrez ikusten denean

Honako informazio hau eman behar da gutxienez, ahal bezainbat herritarri eta lehenbailehen:

1) Gainditu den mailari edo gainditu diren maila buruzko informazioa

– Maila(k) non gainditu d(ir)en

– Zein maila mota (herritarrak informatzeko adinako maila eta alerta egoeran egoteko adinako maila) gainditu d(ir)en

– Maila(k) zer ordutan hasi d(ir)en gainditzen eta zenbat denboran gaindituko d(ir)en

– Gehieneko batez bestekoak orduko eta zortzi orduko

2) Hurrengo arratsalderako edo hurrengo egune(ta)rako aurreikuspena

– Herritarrak informatzeko adinako maila edota alerta egoeran egoteko adinako maila zein eremu geografikotan gainditzea espero den

– Aurrez ikusten den kutsaduraren bilakaera (hobera egiten duen, egonkortu egiten den ala okerrera egiten duen)

3) Maila(k) gainditu izanak zein herritar talderi egiten dion kalte, giza osasunean zein efektu izan ditzakeen eta zer egin behar den dioen informazioa

– Arriskuan dauden herritar taldeei buruzko informazioa

– Balizko sintomen deskripzioa

– Herritar kaltetuek zer egin behar duten

– Informazio osagarria biltzeko iturriak

4) Kutsadura edo haren eragina txikiagotzeko prebentzio neurriei buruzko informazioa

– Sektore igorle nagusiei buruzko informazioa eta igorpenak txikiagotzeko neurriak”

Horregatik guztiagatik, uste dugu 6. artikulua ahal bezainbat herritarrek honako informazio hau guztia lehenbailehen hartzeko eskubidea dutela onartzen duela, herritarrak informatu eta alerta egoeran egoteko adinako mailak gainditzen direnean edo gainditu egin litezkeela aurrez ikusten denean: ozono maila(k) non gainditu d(ir)en, kutsaduraren bilakaerari buruzko aurreikuspenak zein diren (hobera egiten duen, egonkortu egiten den ala okerrera egiten duen), arriskurik handieneko taldeak zein diren, balizko sintomak zein

diren, zer neurri hartu behar diren... Halaber, gure ustez, herritarrek aldizka eguneratu behar diren ozono kopuruari buruzko datu xeheak eskuratu edo begiratzeko eskubidea dutela ere onartzen du.

Informazioa emateko modua dela-eta, 6. artikuluko azken paragrafoak berariaz argitzen du eta, ezinbestean, 3. atalak ezartzen duen aldizkako informazioa ez ezik, 2. atalarekin bat herritar guzti-ei eman behar zaien informazioa (II. eranskineko II. atalekoa) ere aipatzen du.

Hartara, "artikulu honetan aipatzen den informazioak argia, ulerterraza eta eskuragarria izan behar du eta, gainera, honako baldintza hauek bete behar ditu": nornahirentzat eskuragarri egoitea eta kasuan-kasuan egokien irizten diren baliabideen bitartez zabaltzea.

Gure ustez, aparteko arreta eman behar zaio bigarren eskakizunari; izan ere, araudiak honako hau dio hitzez hitz: "Artikulu honetan aipatzen den informazioa (...) bitarteko egokien bidez zabaltu behar da. Kasuan-kasuan, honako hauek erabil daitezke, besteak beste: ikus-entzunezkoak, prentsa eta argitalpenak, informazio pantailak eta sareko zerbitzu informatikoak, Internet kasu".

Alde horretatik, zentzuzkoa dirudi egunero eta, ahal dela, orduro gaurkotu behar den ozono kopuruari buruzko informazioa Internet bidez ematea eta ahal bezainbat herritarri eta, zehazki, arriskuan dauden talde jakin batzuei (esaterako, zaharrei) balizko sintomez eta hartu behar dituzten neurriez ohartarazteko eman behar zaiena beste bitarteko batzuen bidez helaraztea; izan ere, bada Internet baino bide egokiagorik, aldian-aldian sarean sartzen direnengana ez ezik, ahal bezainbat herritarrengana iristeko: informazio pantailak, ikus-entzunezko bitartekoak, argitalpenak...

Ildo horretan, Departamentuaren txostenak 1494/1995 Errege Dekretua aipatzen du herritarrei egin lekizkiekeen gomendioen iturritzat, eta dekretu zahar horrek ere dio antzeko zerbait: "Herritarrek informatu eta alerta egoeran egoteko adinako mailak gaintzen direnean (...), honako informazio hau eman behar da lehenbailehen ahal bezainbat komunikabideren bitartez, herritarrek beharrezko prebentzio neurriak har ditzaten: ozono maila(k) zein egunetan, ordutan eta tokitan gaintu d(ir)en, zein maila mota gaintu d(ir)en, kaltetuak zein herritar diren, kaltetuak zein neurri hartu behar dituzten..."

1796/2003 Errege Dekretuak dekretu hori indargabetu zuen, eta askoz ere zorrotzagoa da alde horretatik, gehieneko ozono mailak kopuru aldetik finkatzeaz gain, administrazioak informazio

arloan dituen betebeharrak ere xedatzen dituelako. Hori dela-eta, maila jakin batzuk gaintzen direnean edo gaintu egin litezkeela aurrez ikusten denean, administrazioak ahal bezainbat herritar informatu behar ditu komunikabideen edo informazio pantailen bitartez, beharrezko prebentzio neurriak har ditzaten, eta, gainera, aurrekoari kalterik egin gabe, neurketa estazioetan ozono kopuruari buruz lortzen dituen datu guztiak herritarren esku jarri behar ditu, aldizka eguneratuta; horretarako, Departamentuak dioenez, Internet ere erabil dezake, halako informazioa emateko bitartekorik egokiena den neurrian.

Ildo horretan, gero eta ohikoagoa da komunikabideek osasun arloan interesa duten beste aurreikuspen batzuk ematea herritarrei eguraldiaren iragarpenarekin batera, hala nola, polen mailak.

Ingurumen Zuzenbidearen esparruan, Århusko (Danimarkako) Hitzarmenetik aurrera batez ere, pertsona orok osasuna eta ongizatea bermatuko duen ingurumenean bizitzeko duen eskubidea onartzeko, ezinbestekoa da herritarrek eskubide hori erabiltzeko moduan izatea baina, horretarako, administrazio publikoen esku dagoen informazio guztia (murrizketa batzuk izan ezik) eskuragarri izan behar dute eta ingurumen arloko erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko bide eman behar zaie.

Horren ondorioz, gardentasun printzipioa eta kontu emateko betebeharra errespetatzeaz gain, herritarrek ingurumen arazuez eta arazook giza osasunean duten eraginaz ohartarazten laguntzen da; hartara, ekologia aldetik hez daitezen bultzatzen da, eta euren kezkak adierazteko bide ematen zaie, agintariek aintzat har ditzaten.

Horregatik guztiagatik, egoki iritzi diogu Nafarroako Gobernuo Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari GOMENDIOA egitea, 1796/2003 Errege Dekretuarekin bat, neurriak har ditzan, osasun administrazioarekin batera, Errege Dekretuko II. eranskineko II. atalak xedatzen duen informazioa herritarrei behar bezala helarazteko, transmititzen diren sintomei eta prebentzio neurriei buruzko datuak zehatzagoak izanen direlako ez bairik gabe. Gainera, web gunearen bitartez ematen den informazioa hobetzeko ere gomendatu diogu, argitaratzen diren atalaseak eguneratu eta 1796/2003 Errege Dekretuak ezartzen dituen era egokitzuz; izan ere, egun argitaratzen diren balioak 1494/1995 Errege Dekretukoekin bat datoz, baina dekretu hori zaharkituta geratu eta indargabetu egin da.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak erantzuna igorri digu,

gomendioaren planteamendua onartu egiten duela esanez, eta honako hau azaldu digu:

“Departamentuak herritarren esku jartzen den informazioa hobetu egin nahi duela jakinarazi nahi dizut eta, horretarako, bi ildotan jardunen da.

Batetik, informazio eta komunikazio kanpaina antolatuko du Nafarroako Erriberan. Koordinatzailea Ingurumen arloko Baliabideen Zentroa izanen da, eta Unibertsitatea eta Osasun Publikoaren Institutua, laguntzaileak.

Hitzaldien, eskualdeko egunkarietan argitaratzen diren artikuluen, irratian egiten diren elkarrizketen eta dibulgaziozko liburuxken bitartez, ozonari buruzko hainbat alderdiri buruz informatzen ahaleginduko gara, hala nola, ozonoaren osakerari, eguraldiak duen eraginari, barreatze ereduei, ondorio positiboak eta negatiboak, ozonoak eragindako kutsadura neurtzeko bioadierazleak erabiltzeak, behaketa sareak, orain arte egindako azterketak eta arautegiak buruz.

Udaberrian egiten dugu kanpaina, eta helburua herritarrei ematen zaion informazioa hobetzea izanen da, informazio hori hobeto interpreta dezaten.

Bestetik, uda aldean, informazioa zabaltzeko bide berri bat erabili nahi dugu, herritarrek informatzeko maila gainditzen denean, udalak Infolocal telefonoaren bidez eta irratia eta osasun etxeak zuzenean SMS bidez ohartarazi eta Internet bidez ematen den informazioa osatzeko.

Hain zuzen ere, horietatik dira herritarrei ematen zaion informazioa hobetzeko hartu nahi ditugun neurriak.”

5.2.3. ADIMEN GAIXOTASUN LARRIAK DITUZTEN PERTSONAK LAGUNTZEKO ERREHABILITAZIO PSIKOSOSIALEKO ZENTROAK ABIAN JARTZEA (05/242/S ESPEDIENTEA)

AURREKARIAK

Oraingo honetan, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak adimen gaixotasun larriak dituzten pertsonak laguntzeko errehabilitazio psikosozialeko zentroen kudeaketa lehiaketa publiko bidez esleitu behar zuela jakin dugu eta, zerbitzu eta gai horrek biziki interesatzen gaituela eta kezkatu egiten gaituela-eta, Arartekoari buruzko Foru Legeari jarraiki, idatzia bidali diegu Gizarte Ongizateko Departamentuari eta Osasun Departamentuari, honako hauen berri galdetzeko:

– Osasun Departamentuak zenbateraino esku hartzen duen proiektuan eta zenbaterainoko erantzukizuna duen, eta orain arte sortu diren eta bere-

halako etorkizunean sortzekoak diren koordinazio sistemak eta prozedurak zein diren

– Errehabilitazio psikosozialaren osasun alderdiaren eta gizarte alderdiaren artean alderik dagoen eta, baldin badago, zein den

– Tarifa araubidea aplikatzeak zein eragin izan lezakeen guztiok zerbitzua berdintasunezko baldintzetan eskuratzeko aukeretan

Gainera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari beste eskari bat egin diogu, honako hauen berri jakitearren:

– Baliabide hauen bitartez lortu nahi diren laguntzako helburuak

– Adimen gaixoentzako errehabilitazio psikosozialeko zentro berrien laguntzako alderdiak (aipatu laguntzako helburuak lortzeko aurrez ikusi diren zerbitzu eta jardura motak, batetik, eta zentro bakoitzak izanen dituen giza baliabideak eta baliabide materialak eta giza baliabideen gaikuntza teknikoa, bestetik)

– Lagunduko diren erabiltzaileen ezaugarriak eta baliabide espezifikoak hau eskuratzeko bete beharreko baldintzak eta prozedurak

– Aurrez ikusten den tarifa sistema eta erabaki hori oinarritzen duten arrazoi teknikoak eta juridikoak (batik bat, halakorik baldin badago, errehabilitazio psikosozialaren osasun alderdiaren eta gizarte alderdiaren artean dauden aldeak dagozkienak)

Joan den urteko azaroaren 11n, Gizarte Ongizateko Departamentuaren txostena hartu dugu erakundearen ondoan transkribatuko duguna, ebazpen honen askotariko edukiak banatzea egoki jo dugun ataletan. Halaber, Osasun Departamentuaren txostena ere hartu dugu egun horretan, honako hau dioena hitzez hitz:

“Adimen Osasuneko zuzendariordearen, Adimen Osasuneko Programetako buruaren eta gizarte eta osasun arloko planaren koordinatzaileen zuzeneko parte hartzearen bitartez, Osasun Departamentuak adimen gaixotasun larriak dituzten pertsonak laguntzeko proposamena osatu duen lan taldearen esku hartu du.

Laguntza programa horretako zuzendaritza batzordeko buruak Osasun zuzendari nagusia eta Gizarte Ongizatearen zuzendari nagusia dira, txandaka (bata urte batean eta bestea hurrengoan), eta Osasun Departamentuko kide ugari daude bertan;

Batzorde Teknikoko (aholkularitza teknikoko) burua, berriz, gizarte eta osasun arloko planaren

koordinatzailea da, Osasun Departamentuaren esparruan dagoena.

Bestalde, Osasunbideko adimen osasuneko zentroetako psikiatreek eta psikologoek proposatuko dute gaixoak errehabilitazio psikosozialeko zentroetara bideratzea.

Azkenik, jakin badakigunez, errehabilitazio psikosozialeko zentroetako tratamenduak ez du inolako kosturik izanen?

Alegia, txostenak ez dio ezer gure eskariaren bigarren atalari buruz: halakorik baldin badago, zein diren errehabilitazio psikosozialaren osasun alderdiaren eta gizarte alderdiaren artean dauden aldeak.

ANALISIA

Informazio hori guztia, oro har, Iruñeko, Tuterako, Lizarrako eta Elizondoko errehabilitazio psikosozialeko zentroak kudeatzeko lehiaketa publikoa eta, bereziki, erabiltzaileei tarifak kobratzeko asmoa eta Adimen Arazo Larriak dituzten Pertsonak Laguntzeko Nafarroako Programa abian jartzeko arazo bihur ditzakeen oinarrizko beste zenbait auzi ebaluatzeko eskatu da.

Lehenik eta behin, gogora dezagun Nafarroako adimen osasunaren egoerari buruzko iritzi orokorra 2003. urtean Parlamentuari helarazi genion eta doakienek ondotoxo ezagutzen duten txosten bereziaren bitartez adierazi dugula argi eta garbi. Hain zuzen ere, orduan egoki jo genituen gomendioak egin genituen txosten horren bidez, gaixoentzako laguntza hobetzarren, eta, orain, adimen gaixoak laguntzeko zerbitzu publikoaren bilakaeraren jarraipena egin nahi dugu, txostenetik abiatuta.

Txosten horretan nabarmendu beharreko lehenengo gauza adimen gaixoen osatzen duten esparruaren konplexutasuna eta planteatu diren arazo guztiei erantzuteko ezintasuna dira, talde honek gizarte eta osasun arloko oso erantzun espezifiko behar du-eta, bana-banakoa ia. Horregatik, ez da erraza gizarte eta osasun arloko sistema oro har ebaluatzea. Izan ere, alor honetako esku-hartzea ez da ekintza berezitua; aitzitik, prozesu orokor baten barnean dago, eta hainbat eragilek (baita osasun sistemaz kanpoek: terapeutek, psikologoek, gizarte hezitzaileek, gizarte langileek, eta abarrek) esku hartzen dute prozesu horretan. Ondorioz, ez dago bereizterik zein alderdi dagokion osasun sistemari eta zein Gizarte Ongizateko Departamentuak bideratzen duen gizarte laguntzari. Ildo horretan, laguntza psikiatrikoa gaixoak eta, prozesuko eragile aktiboa den aldetik, familiak hartu behar dituzten askotariko zerbitzuez osatutako prozesu horren atal bat besterik ez da. Azken

batean, zaila da oso osasunari lotutako eskubideen arteko eta gizarte eskubideen arteko bereizkuntza abiapuntutzat hartzea, Konstituzioak lehenengoak eskubide direla onartu eta bigarrenak legez onartu gabe dauden arren.

Alor honi buruzko aurreko gomendioen karietara egin izan dugun bezala, Espainiako Konstituzio-ko I. idazpuruko III. kapituluak gizarte eta ekonomia arloko politika zuzendu behar duten printzipioak biltzen dituela esan beharra dago lehenik; ildo horretan, 43. artikulua aparteko aipamena egiten du osasunerako eskubideari buruz eta, harekin bat, botere publikoei dagokie osasun publikoa prebentzio neurrien eta beharrezko laguntzen eta zerbitzuen bitartez antolatu eta zaintzea. Era berean, 49. artikulua aurreikuspeneko politika eta ezindu fisikoak, zentzumenezko ezinduak eta ezindu psikikoak tratatu, errehabilitatu eta gizarteratzeko politikak aplikatzera behartzen ditu botere publikoak, behar duten laguntza espezializatua eman beharra ezartzen baitie.

Konstituzioak onartzen dituen eskubide horiek are esanguratsuagoak dira espediente honek planteatzen duen egoera dela-eta. Izan ere, espediente adimen gaixoen osasun arloko laguntzari buruzkoa da eta, hortaz, aparteko garrantzia du tratamendu orokor egokia (osasun, psikologia, errehabilitazio eta hezkuntza arlokoa) emateak. Tratamendu hori espezialistek gidatu behar dute, eta beharrezkoa da profesional horiek elkarren artean behar bezala koordinatzea, osasun laguntza zuzena eta eragingarria ematearren, ikuskera orokorra baita bide bakarra gaixoa bizi den gizarte ingurunean barneratzea bermatzeko

Bestalde, 1986ko Osasunari buruzko Lege Orokorreko 6. artikulua ezartzen duenez, "administrazio publikoen erantzukizuna izanen da, besteak beste, osasuna eta osasun hezkuntza sustatu, osasuna galtzen den kasuetan osasun laguntza bermatu eta errehabilitazio funtzionalerako eta gizarteratzeko beharrezkoak diren ekintzak abiaraztea". Are gehiago, osasun administrazioei dagozkien ekintzen artean osasun laguntza espezializatua, arrisku egoera handiagoan dauden herritar taldeentzako laguntza programak eta adimen osasunaren sustapena eta hobekuntza ageri dira espresuki.

Ildo horretan, kontuan izan beharra dago Osasunari buruzko Lege Orokorreko 20. artikulua dela adimen osasunari buruzko oinarrizko araua. Hain zuzen ere, honako hau xedatzen du: "Oinarri gisa harturik adimen osasunaren alorreko ekintzak osasun sistema orokorrean osoki txertaturik egotea eta adimen gaixoa osoki parekatuta egotea osasun eta gizarte zerbitzuak behar dituzten gai-

nerako pertsonekin, osasun administrazio eskudunen jarduera honako printzipio hauen arabera izanen da: (...) 3. Adimen gaixoaren arazoei osoki eta zuzen erantzuteko beharrezko errehabilitazio eta gizarteratze zerbitzuak landu behar dira, eta gizarte zerbitzuekin egokiro koordinatzen saiatu. 4. Osasun sistema orokorraren esparruko adimen osasuneko zerbitzuek eta laguntza psikiatrikoak, gizarte zerbitzuekin batera, lehen mailako laguntzari eta osasuna oro har galtzearekin bat jazotzen diren arazo psikosozialei aurre egiteko laguntzari erantzun behar diete.”

Ezinduen gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legeko 1. artikulua, berriz, Espainiako Konstituzioko 49. artikulua onartzen dituen eskubideetan oinarritzen dela dio, ezindu fisikoek eta psikikoek (hala ezindu intelektualek, nola adimen ezinduek) eta zentzumenezko ezinduek euren burua guztiz errealizatu eta erabat gizarteratzeko berezkoa duten duintasuna dela-eta, eta 3. artikulua xedatzen du estatuaren betebeharra dela prebentzioa, laguntza medikoa eta psikologikoa, errehabilitazio egokia, hezkuntza, orientabidea, laneratzea, gutxieneko eskubide ekonomikoak, juridikoak eta sozialak bermatzea eta gizarte segurantzaz.

Ezinduen aukera berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legeak oinarri hartzen duen printzipioa, ostera, herritarren eskubide unibertsalak berrestea da, eskubide unibertsal horiek eta ongizate politikak baitira demokraziaren, gizarteraren parte hartzearen eta zuzenbide estatuaren muina bera.

Nafarroan bertan, Foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 53., 54. eta 58. artikuluen arabera, Nafarroari dagozkio bere eskubide historikoak zirela-eta osasunaren eta higienearen alorrean lege horrek indarra hartu zuenean zituen ahalmenak eta eskumenak, barne osasunaren eta higienearen eta gizarte segurantzaren alorrean estatuko oinarritzko legedia garatu eta betetzea eta farmazien eta farmazia produktuen alorrean estatuko legedia betearaztea.

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 5. artikulua, berriz, Foru Komunitateko herritarren eskubideak zerrendatzen ditu, eta aparteko garrantzia ematen dio Gizarte Segurantzaren eta psikiatren osasun laguntza izateko eskubideari: “Zerbitzuok berariaz programatu eta aurrekontu berezia esleitu ostean, Foru Komunitateko osasun administrazioak beste zerbitzu osagarri batzuk ezar ditzake berezko arrisku egoeran dauden herritar taldeak babesteko, lan osasunaren alorrean batez ere”; eta 15. artikulua, osasun

laguntzari buruzkoak, laguntza hori osasun eta prebentzio, sendatze, errehabilitazio, higiene eta hezkuntza programen esparruan eman behar dela dio.

Azken batean, arau horien guztien elementu komuna laguntza ereduaren oinarrian dagoen filosofia da: ezinduek pertsonak direla errespetatzea oro har, gizarteko kide diren herritarrek direla eta, beste printzipio batzuetan (hala nola, erantzukizun publikoaren printzipioan) oinarritutako laguntza tekniko egokia izanez gero, landu egin ditzaketen ahalmenak dituztela. Horrekin bat, botere publikoek justizia eta zuzentasuna bermatuko duten laguntza zerbitzuak eta baliabideak eskuratzeko aukera bermatu behar diete adimen gaixotasun larriak dituzten pertsonari, baita koordinazio eta osagarritasun zerbitzuak ere. Horretarako, baina, ezinbestekoa da Nafarroako Gobernu departamentuek eta Nafarroako Gobernuak eta gainerako administrazio publikoek elkar lagundu eta osatzea, pertsona hauen eskariei erantzun eta gizarteratu egin daitezten lortze aldera; alde horretatik, koordinazio horrek handiagoa izan behar du adimen osasunaren alorreko sarearekin, gaixoen osasun eta gizarte arloko beharrei osoki erantzuten zaiela bermatuko bada.

Edonola ere, honako hauek dira igorri zaizkigun txostenetatik eta interesa duten elkarteek eman dizkiguten dokumentuetatik atera ditugun ondorio nagusiak:

1. Baliabide hauen bitartez lortu nahi diren laguntzazko helburuak

Ekainaren 30eko 95/2005 Foru Aginduak aldatu egin badu ere, maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuak Baimenen, arau-hausteen eta zehapenen araubideari buruzko azaroaren 13ko 6/1990 Foru Legea garatzen du eta, dioenez, errehabilitazio psikosozialeko zentroak adimen gaixotasun larriak, funtzio psikologikoen gabeziak eta jardun eta gizarteran eta lan ohituretan eta gaitasunetan parte hartzeko mugak dituzten pertsonentzako eguneko laguntza zentroak dira.

Zentrozen funtsezko helburuak gaixoen neurria egindako errehabilitazio psikosozialeko programak eskaintzea izan behar du, erabiltzaileek gizarteran euren kasa eta normaltasunez ibiltzeko behar dituzten abileziak berreskura ditzaten eta baztertu egin ez ditzaten, eta gaixoen senitartekoen bizi kalitatea hobetzeko laguntza ematea.

Areago, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak berak egin duen txostenaren bitartez onartu duenez, zentro hauen helburu orokorra gaixoen neurria egindako errehabilitazio psikosozialeko programak eskaintzea da, erabiltzaile-

ek gizartean euren kasa eta normaltasunez ibiltzeko behar dituzten abileziak ikasi edo berreskuratu eta gizarte ingurunean ahalik eta modu aktibo eta beregainenean funtziona dezaten.

Zehatz-mehatz, honako hauek dira helburuak:

- Adimen arazo larriak dituzten pertsonen euren erkidegoan jarraitzea, normalizazioaren, gizarteratzearen eta bizi kalitatearen aldetik onenak diren baldintzetan.

- Adimen arazo larriak dituzten pertsonak gizartean ahalik eta modu beregain eta burujabeenean ibiltzeko gaitzea

- Adimen arazo larriak dituzten eta erkidegoan bizi diren pertsonak instituzionalizatu eta baztertu egin daitezen ekiditea

- Familiei laguntza, informazioa eta aholkuak ematea, eguneroko bizitzan behar dituzten abileziak eta trebetasunak eskuratzen lagundu eta familierterteko guztien bizi kalitatea hobetze aldera

Bada, honako alor hauek dira esparru nagusiak: errehabilitazio psikosoziala, adimen ezintasunak dituzten pertsonak erkidegoan gizarteratu eta euren funtzionamendu psikosoziala ahalik eta baldintza normalizatu eta beregainenetan hobetzen laguntzeko prozesua den aldetik; lan heziketa eta orientabidea, adimen arazoak dituzten gaixoak lan munduan sartzeko beharrezko ohiturak eta abileziak ikasi, mantendu eta lantzen laguntzeko; gizarte babesa, gizarteratzen laguntzeko; eta familientzako laguntza, senitarteko gaixoarekin nola jokatu behar duten ikas dezaten.

2. Aipatu laguntzako helburuak lortzeko aurrez ikusi diren zerbitzu eta jarduera motak

Alor honetan, Gizarte Ongizateko Departamentuak jakinarazi du laguntza oso eta etengabea emanen dela aurrez ikusi zerbitzuen artean eta, horretarako, bana-banako laguntza emateko plana diseinatuko dela, esku hartzearen helburuak finkatu eta helburuon jarraipena eta ebaluazioa egite aldera. Zehazki, honako hauek dira zerbitzuok:

– Ostatu zerbitzuak

- Mantenua (eguneko zentroko programan parte hartzen duten pertsonen bazkaria, erabiltzaileen behar espezifikoerri erreparatuz)

- Garbiketa (gune komunena)

– Harrera zerbitzua (lanaren funtzionamendua eta helburuak jakinarazi eta gaixoak zentroko dinamikan barneratzea, egonaldiaren hasieran motibatuz eta lagunduz)

– Eguneroko bizitzako jardueretan lagundu eta berriro ohitzeko oinarrizko laguntza zerbitzua

- Norbere burua zaintzea

- Norbere higieena

- Mugimena

- Eguneroko abileziak

– Osasunean hezteko zerbitzua eta psikohezuntza zerbitzua (sendagaiak oker erabiltzeagatik berriro gaixotzeko arriskuaren aurka babesteko baliabideak indartzea)

- Gaixotasunari buruzko informazioa

- Botikei eta botikak norbere kasa hartzeari buruzko informazioa

- Osasun baliabideak erabiltzeari buruzko informazioa

– Gizarte abilezien alorreko programa (gaitasun eta abilezia psikosozialak mantendu eta hobetzea)

- Solas egiteko abileziak

- Adierazmena

- Emozioekiko adierazmena eta harmena, laguntza eskatzeko ahalmena

– Ezagutza defizitak (batik bat, arreta jartzeko ahalmena eta oroimena) berreskuratzeko programa

- Arreta motak hobetzea

- Arreta jartzen den denbora luzatzea

- Oroimena sendotzea

– Aisia eta aisialdi programa (gaixoei euren aisiaz gogoz eta modu aktiboan gozaten irakastea)

- Aisia emateko baliabideak bilatzen irakastea

- Zaletasunak berreskuratzea

- Gizarte harremanak hobetzea

3. Zentro bakoitzak izanen dituen giza baliabideak eta baliabide materialak eta giza baliabideen gaikuntza teknikoa

Gizarte Ongizateko Departamentuak atal honi buruz jakinarazi digunez, honako hauek izanen dira errehabilitazio psikosozialeko zentroetako baliabideak:

A) GIZA BALIABIDEAK

1) Iruña

Langile FINKOAK	Oro har	EPSZ	EZ	Urteko ordu kop.
Koordinatzaile eta zuzendaria	1			1.672
Psikologoa		0,5		836
Gizarte langilea	0,5			836
Administrari laguntzailea	1			1.672
Garbitzailea	0,5			815,5
Eguneko 8 orduz dauden langileak				
Lanerako prestatzeko terapeuta	1			1.816
Zaintzailea			1	1.816
Lan hezitzailea	1			1.816
Gizarte hezitzailea	3			5.448

2) Lizarra

Langile FINKOAK	Oro har	EPSZ	EZ	Urteko ordu kop.
Koordinatzaile eta zuzendaria	1			1.672
Psikologoa		0,5		836
Gizarte langilea	0,5			836
Administrari laguntzailea	1			1.672
Garbitzailea	0,5			815,5
Eguneko 8 orduz dauden langileak				
Lanerako prestatzeko terapeuta	1			1.816
Zaintzailea			1	1.816
Lan hezitzailea	1			1.816
Gizarte hezitzailea	3			5.448

3) Elizondo

Langile FINKOAK	Oro har	EPSZ	EZ	Urteko ordu kop.
Koordinatzaile eta zuzendaria	1			1.672
Psikologoa				
Gizarte langilea	0,5			836
Administrari laguntzailea	0,5			836
Garbitzailea	0,25			407,75
Eguneko 8 orduz dauden langileak				
Lanerako prestatzeko terapeuta	1			1.816
Zaintzailea	1			1.816
Lan hezitzailea				
Gizarte hezitzailea	2			3.632

4) Tuter

Langile FINKOAK	Oro har	EPSZ	EZ	Urteko ordu kop.
Koordinatzaile eta zuzendaria	1			1.672
Psikologoa		0,5		836
Gizarte langilea	0,5			836
Administrari laguntzailea	1			1.672
Garbitzailea	0,5			815,5
Eguneko 8 orduz dauden langileak				
Lanerako prestatzeko terapeuta	1			1.816
Zaintzailea			1	1.816
Lan hezitzailea	1			1.816
Gizarte hezitzailea	3			5.448

B) BALIABIDE MATERIALAK**1) Iruña**

Zerbitzua emanen den lokala erkidego normalizatu eta oztoporik gabeko batean egoteko galdatu da, eta norentzako dituen pertsonen zerbitzu osoa emateko beharrezko azpiegiturak eta ekipamendurak izateko. Horregatik, honako hauek dira gutxieneko eskakizunak:

- 225 m² neurtzea gutxienez
- Airea eta argia naturalak izatea, oztopo arkitektonikorik ez izatea eta hirigunean egotea
- Garraiobide publikoen bitartez joateko modukoa izatea
- Bulegoak, errehabilitazio eta jarduera gelak, komunak eta jantokia izatea

Eguneko zentroko programak lantzen dituzten errehabilitazio psikosozialeko zentroen gutxieneko ekipamendua, berriz, honako hau da:

- Sukaldea (oinarrizko etxetresna elektrikoak eta sukaldeko tresneria eta ontziteria)
- Jantokia (lau lagunentzako zortzi mahai eta 32 aulki)
- Jarduera gelak (65 aulki, ordenagailuak, lanerako prestatzeko materiala, jarduera mahaia, hamar lastaira, musika tresna, psikomotrizitate lantzeko materiala)
- Hiru bulego (mahaiak, aulkiak, ordenagailuak, armairuak, bilera mahaia eta artxibategiak)

2) Lizarra

Zerbitzua emanen den lokala erkidego normalizatu eta oztoporik gabeko batean egoteko galdatu da, etanorentzako dituen pertsonen zerbitzu osoa

emateko beharrezko azpiegiturak eta ekipamendurak izateko. Horregatik, honako hauek dira gutxieneko eskakizunak:

- 225 m² neurtzea gutxienez
- Airea eta argia naturalak izatea
- Oztopo arkitektonikorik ez izatea eta hirigunean egotea
- Garraiobide publikoen bitartez joateko modukoa izatea
- Bulegoak, errehabilitazio eta jarduera gelak, komunak eta jantokia izatea

Eguneko zentroko programak lantzen dituzten errehabilitazio psikosozialeko zentroen gutxieneko ekipamendua, berriz, honako hau da:

- Sukaldea (oinarrizko etxetresna elektrikoak eta sukaldeko tresneria eta ontziteria)
- Jantokia (lau lagunentzako zortzi mahai eta 32 aulki)
- Jarduera gelak (65 aulki, ordenagailuak, lanerako prestatzeko materiala, jarduera mahaia, hamar lastaira, musika tresna, psikomotrizitate lantzeko materiala)
- Hiru bulego (mahaiak, aulkiak, ordenagailuak, armairuak, bilera mahaia eta artxibategiak)

3) Elizondo

Zerbitzua emanen den lokala erkidego normalizatu eta oztoporik gabeko batean egoteko galdatu da, eta norentzako dituen pertsonen zerbitzu osoa emateko beharrezko azpiegiturak eta ekipamendurak izateko. Horregatik, honako hauek dira gutxieneko eskakizunak:

- 150 m² neurtzea gutxienez

- Airea eta argia naturalak izatea
- Oztopo arkitektonikorik ez izatea eta hirigunean egotea
- Garraibide publikoen bitartez joateko modukoa izatea
- Bulegoak, errehabilitazio eta jarduera gelak, komunak eta jantokia izatea

Eguneko zentroko programak lantzen dituzten errehabilitazio psikosozialeko zentrozen gutxieneko ekipamendua, berriz, honako hau da:

- Sukaldea (oinarrizko etxetresna elektrikoak eta sukaldeko tresneria eta ontziteria)
- Jantokia (lau lagunentzako lau mahai eta 16 aulki)
- Jarduera gelak (35 aulki, ordenagailuak, lanerako prestatzeko materiala, jarduera mahaia, sei lastaira, musika tresna, psikomotrizitatea lantzeko materiala)
- Bi bulego (mahaiak, aulkiak, ordenagailuak, armairuak, bilera mahaia eta artxibategiak)

4) Tuterak

Zerbitzua emanen den lokala erkidego normalizatu eta oztoporik gabeko batean egoteko galdatu da, eta norentzako dituen pertsonen zerbitzu osoa emateko beharrezko azpiegiturak eta ekipamendurik izateko. Horregatik, honako hauek dira gutxieneko eskakizunak:

- 225 m² neurtzea gutxienez
- Airea eta argia naturalak izatea, oztopo arkitektonikorik ez izatea eta hirigunean egotea
- Garraibide publikoen bitartez joateko modukoa izatea
- Bulegoak, errehabilitazio eta jarduera gelak, komunak eta jantokia izatea

Eguneko zentroko programak lantzen dituzten errehabilitazio psikosozialeko zentrozen gutxieneko ekipamendua, berriz, honako hau da:

- Sukaldea (oinarrizko etxetresna elektrikoak eta sukaldeko tresneria eta ontziteria)
- Jantokia (lau lagunentzako zortzi mahai eta 32 aulki)
- Jarduera gelak (65 aulki, ordenagailuak, lanerako prestatzeko materiala, jarduera mahaia, hamar lastaira, musika tresna, psikomotrizitatea lantzeko materiala)
- Hiru bulego (mahaiak, aulkiak, ordenagailuak, armairuak, bilera mahaia eta artxibategiak)

Gizarte Ongizateko Departamentuaren arabera, zerbitzuaren kudeaketaren esleipendun suertatu diren erakundeek bete egiten dituzte eskakizun horiek: Avánvida SLk (Iruñeko, Tuterako eta Lizarrako errehabilitazio psikosozialeko zentrozen esleipendunak) eta Hospitalarias erakundeak (Elizondoko errehabilitazio psikosozialeko zentrozen esleipendunak)

Hala eta guztiz ere, datu horiek aztertu ostean, xehetasunetan sakondu gabe bada ere, adimen osasunaren alorreko sareko beste errehabilitazio zerbitzu batzuen aldean, uste dugu hain zerbitzu publiko garrantzitsua emateko antolatutako egitura eskasa dela nabarmen, gaur egun galdatzeko modukoa den kalitatea izanen badu; errehabilitazio psikosozialeko zentroetako giza baliabideak eskasak direla kopuru aldetik eta ez dituztela betetzen bete beharko lituzketen eskakizunak; eta, gainera, baja hartzen dutenak ordezkatu beharra finkatu behar dela, laguntzak egokia izaten jarrai dezan."

4. Lagunduko diren erabilzaileen ezaugarriak eta baliabide espezifiko hau eskuratzeko bete beharreko baldintzak eta prozedurak

Gizarte Ongizateko Departamentuak adierazi duenez, "errehabilitazio psikosozialeko zentroetan 18tik 65 urtera bitarteko adimen gaixoei emanen zaie laguntza; hain zuzen ere, adimen arazo larri eta kronikoak dituzten, psikologia eta gizarte arloan eta gizarteratze arloan euren kasa jarduteko zailtasunak dituzten eta gizarteratzeko errehabilitazio eta laguntza espezifiko behar duten pertsonak hartzen dira adimen gaixotzat.

Adimen eta Jarrera Arazoen Nazioarteko Sailkapenarekin bat, honako hauek hartzen dira adimen arazo larritzat: eskizofrenia (F20, F21, F22, F23, F324, F25, F28 eta F29), arazo bipolar eta arazo depresibo larri batzuk (F31, F31.3 eta F33.3), arazo obsesibo konpulsibo batzuk (F42) eta nortasun arazoak (F60); izan ere, horietan galarazten duten gehienbat egunerokoan jarduteko beharrezko abilezia funtzionalak eta norbere autonomia garatzea.

Edonola ere, hiru alderdi uztartu behar dira adimen gaixoei osatzen duten taldea mugatu eta ezaugarritzerakoan:

- DIAGNOSTIKOA (adimen arazo larria, psikosiaren ingurukoa batez ere)
- EZINTASUNA (funtzionamendu psikosoziala kaskaildu eta galtzea, norbere autonomia galtzea eta bakartzea)
- IRAUPENA kronikotasuna, arazo psikiatrikoen eta psikosozialen iraupen luzea).

5. Aurrez ikusten den tarifa sistema eta erabaki hori oinarritzen duten arrazoi teknikoak eta juridikoak (batik bat, halakorik baldin bada, go, errehabilitazio psikosozialaren osasun alderdiaren eta gizarte alderdiaren artean dauden aldeei dagozkienak)

2003. urtean adimen osasunaren Nafarroako laguntzari buruz egin zuen txostenaren bitartez, arartekoak adimen gaixo larriei laguntza osoa eta koordinatua eman beharrendu garrantzia nabarmendu zuen eta, ondorioz, zentroek adimen gaixotasun larriak tratatzea barne hartzen zuten banakako tratamenduen eta errehabilitazio tratamenduen trukean tarifarik kobratzearen kontra egin zuen.

Adimen Osasuneko Nafarroako Elkarteak ere errehabilitazioa osasun tratamendua dela eta, horrenbestez, doakoa izan behar duela uste du.

Gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legeko 5.f) artikulua, ordea, tarifaren araubidea arautu beharra xedatzen du, hala sektore publikokoa, nola sektore pribatu laguntzailekoa. Gizarte zerbitzuen alorreko hitzarmenei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legeak, berriz, hitzarmenek zerbitzu hitzartuen erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifaren araubidea eman behar dutela ezartzen du.

Era berean, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren estatutuak onesten dituen otsailaren 9ko 20/2004 Foru Dekretuko 8. artikulua dioenez, erakunde autonomo horretako Gobernu Batzordeari, besteak beste, berezko eta hitzartutako zentroak eta zerbitzuak erabiltzeko ordaindu behar diren prezioen eta tarifaren araubidea onartzea dago.

Azkenik, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zuzenean edo zeharka kudeatzen dituen zerbitzuen tarifak, salbuespenak eta hobariak aldatzen dituen otsailaren 28ko 1/2005 Ebazpenak erakunde autonomo horretako Gobernu Batzordeak 1997ko ekainaren 18an hartutako Erabakiko 4. artikulua aldatu du, eta adimen gaixotasunak dituzten pertsonak erietxeetan laguntzeko zerbitzuaren zenbatekoa hileko 1.114,96 eurotan finkatu du, eta eguneko laguntzarena (garraio eta jantoki zerbitzuarena), hileko 121,26 edo 68,59 eurotan, gaixoa 18 urtetik gorakoa edo beherakoa den hurrenez hurren. Ebazpenak Erabakiko 5. artikulua ere aldatu du eta, adimen gaixotasunak dituzten pertsonak erietxeetan laguntzeko zerbitzua hartu gero, hileko per capita errentaren % 90 ordaindu behar dutela ebatzi du, eta % 50, etxebizitza babestuetan edo prestatuetan biziz gero.

Hau da, espediente hau bideratzen hasi garen, adimen gaixotasun larriak dituzten pertsonen

zerbitzuen zati bat ordaindu beharra aplikatuko zitzaiela ikusten zen aurrez. Alabaina, Nafarroan eta Espainian egin diren txosten guztiek pertsona horien erabateko pobrezia eta gizarte bazterketa adierazten dute eta, horrenbestez, onartezina da adimen gaixotasun larriak dituzten pertsonen errehabilitazio tratamenduen trukean ordaindu edo euren familiek egun baino are arazo ekonomiko handiagoei aurre egin behar izatea, herritar horien aurkako diskriminazioa eta bazterketa areagotu egingen liratekeelako.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Gobernu Batzordeak, 1997ko ekainaren 18ko Erabakiko 4.2. artikulua aldatzen duen irailaren 12ko 3/2005 Ebazpenaren (Nafarroako Aldizkari Ofizialean 2005eko urriaren 5ean argitaratutakoaren) bitartez, baina, errehabilitazio psikosozialeko zentron tarifa ere ezintasunen bat duten gainerako taldeen eguneko laguntzaren inguruko irizpideari jarraiki behar zaiola ezarri du. Hartara, ez da tarifarik ezarri errehabilitazio laguntza hartzearen trukean, eta eguneko zentroko jardueretan parte hartzen duten pertsonen baino ez dute tarifarik (hileko 63 euro) ordaindu behar, jantoki zerbitzuaren trukean. Dena dela, inor zerbitzua hartu gabe geldi ez dadin bermatu behar da, horretarako baliabiderik izan ez arren.

Erakunde honek aparteko interesa eta kezka adierazi du errehabilitazio tratamenduak ordaintzeko tarifak kobra litzazkiekeelako adimen gaixoei. Izan ere, neurri hori oztopoa izan liteke egoera bereziki ahulean dagoen talde honek zerbitzua eskuratzeko aukera izateko. Horregatik, beste arrazoi bat dugu Osasun Departamentuak erabateko esku-hartzea eta ardura izan dezan eskatzeko. Izan ere, ezin dugu utzi plana zatitu egin dadin, edo Gizarte Ongizateko Departamentuaren esku bakarrik gera dadin, eta, horretarako, zeharkako koordinazioa behar da, adimen gaixotasunak dituzten pertsonen ahalik eta bizi kalitate onena izan dezaten."

6. Tarifa araubidea aplikatzeak zein eragin izan lezakeen guztiok zerbitzua berdintasunezko baldintzetan eskuratzeko aukeretan.

Espainiako 17 autonomia erkidegoetako Adimen Osasunaren alorreko zuzendariek 2003ko apirilean, III. Jardunaldietan hitzartu zuten, adimen osasunaren errehabilitazioa osasun tratamendua eta zerbitzu unibertuala da eta, horrenbestez, ez da arrazoizkoa errehabilitazio zerbitzua kobratzea talde honi, Lan eta Gizarte Arazoetako Ministerioaren 2003ko txosten batek gaixotasun larriak dituzten pertsonak oso egoera ekonomiko txarrean daudela onartzen duenez gero, 600 eurotik beherako errenta duten etxeetan, pentsiodun

gurasoekin edo ama alargun helduekin bizi direlako gehienbat.

Adimen Osasuneko Nafarroako Elkarteak, berriz, jakinarazi digu ez dagoela ados adimen gaixo larriek zaharrek hileko ordaintzen duten tarifa bera ordaindu beharrekin, 1/2005 Ebazpenarekin. Izan ere, adimen gaixotasun larriak dituzten pertsonak nerabegarotik edo gaztaroaren hasieratik dituzte arazook; alegia, ez dira zaharrak, ez dituzte gastu gutxi eta bizitza sozial urria eta, hortaz, euren gastuak gainerako ezindu psikikoenak baino handiagoak dira. Hori dela-eta, ez du zentzurik estatuak kaltetuei eta euren senitartekoei pentsioak ordaindu eta autonomia erkidegoek baliabide horien zati bat gaixotasuna tratatzeko bereganatzea.

Auzi honi buruzko informazioa eskatu diogu Osasun Departamentuari, baina egin duen bakarra errehabilitazio psikosozialeko zentroetako tratamenduak kosturik izanen ez duela adieraztea izan da; alegia, ez du inolako iritzirik eman.

Gizarte Ongizateko Departamentua, aldiz, zehatzagoa izan da, honako hau ihardetsi baitu: "Aurreko erantzunean esan dugunez, zentro hauek ematen den errehabilitazio laguntza doakoa da eta, beraz, ez dago inolako oztoporik erabiltzaile guztiek berdintasunezko baldintzetan har dezaten.

Jantokiko tarifari dagokionez, berriz, uste dugu tarifa horren zenbatekoa ahal bezainbat doitu dela, inolako traba izan ez dadin zerbitzu hori behar duten herritar guztiek erabiltzeko. Gainera, esan dudanez, inor zerbitzua hartu gabe geldi ez dadin bermatuko dugu, horretarako baliabiderik izan ez arren".

Azken batean, uko egin zaio errehabilitazio psikosozialeko zentroek inolako tarifarik kobratzeari; hain zuzen ere, tarifok 1/2005 Ebazpenak zaharrentzako eta ezinduentzako baliabideen trukean finkatzen zituenak ziren hasiera batean. Hortaz, adimen arazo larriak dituzten pertsonen errehabilitazioa eta gizarte eta osasun arloko zerbitzuak errehabilitazio psikosozialeko zentroetako zerbitzuen zerrendan sartu behar dira, 16/2003 Legeko 20. artikuluari jarraiki, baita errehabilitazio klinikako eguneko zentroko programak ere. Hau da, zerbitzuok adimen arazo larriak dituzten pertsonentzako zerbitzu unibertsaltzat hartu behar dira, legediak (Konstituzioko 9., 14., 43. eta 49. artikuluek, 14/86 Legeak eta Espainiako osasun sistemen kohesioari eta kalitateari buruzko 16/2003 Legeak) adimen gaixotasun larriak dituzten pertsonen onartzen dizkien eskubideak ez urratzearen.

Erakunde honek irizpide aldaketa horren alde besterik ezin du egin, alde handiak izanen lirateke-

elako bestela adimen arazo larriak dituzten pertsonen artean, norbere gizarte eta ekonomia arloko eta familiarreko egoeraren ondorioz; izan ere, zerbitzuak batera ordaindu beharrak atzera eragin litzake bakarrik edo ostatuetan bizi diren pertsonak, eta ez luke berdintasuna eta unibertsaltasuna bermatuko.

7. Osasun Departamentuak zenbateraino esku hartzen duen proiektuan eta zenbaterainoko erantzukizuna duen, eta orain arte sortu diren eta berehalako etorkizunean sortzekoak diren koordinazio sistemak eta prozedurak zein diren

Erakunde honek Osasun eta Gizarte Ongizateko departamentuek elkar ulertzen ez dutela eta koordinazio arazoak antzematen zirela salatu zuen Nafarroako adimen osasunaren laguntzari buruzko txosten bereziaren bitartez. Ulergaitzasun kroniko hori gizarte eta osasun arloko laguntzari buruzko foru plana onartu izanak arindu zuen neurri batean, baina herritarren kekek arazo hori islatzen dute behin eta berriz, eta hartu ditugun txostenek ere errealitate hori erakusten dute, plana onartu izana gorabehera.

Osasun Departamentuaren erantzuna ebazpen honen aurrekari buruzko atalean transkribatu dugu hitzez hitz, eta eskasa da nabarmen, ez dituelako planteatu dizkiogun funtsezko alderdi zehatzak zehaztu eta Gizarte Ongizateko Departamentuaren txostenak aipatzen dituen beste zenbait alderdiaren aurkakoa ere delako. Eskari horri erantzunik eman ez izana erabateko ondorioz ezaren eta norbere erantzukizuna inola ere mugatu ez izanaren ondorio da. Horrek kalte handia egiten dio sistemaren sinesgarritasunari eta, horrenbestez, oso eragin larria du osasun zerbitzuaren kalitatean ere.

Gizarte Ongizateko Departamentuak, berriz, errehabilitazio psikosozialeko zentroak gizarte zerbitzu espezializatuen artean daudela argitu du lehenik eta behin, eta zerbitzuok emateko esparrua gizarte eta osasun arloko laguntza dela. Hortaz, baliabide honen gaineko erantzukizuna Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari dagokiola adierazi du, baina Osasun Departamentuak ere har lezakeela parte plana gauzatzeko, erabiltzaileentzako laguntzaren eta planaren beraren jarraipenaren alorrean.

Ildo horretan, honako hau jakinarazi du:

"Bi departamentuen artean behar bezalako koordinazioa bermatze aldera, honako prozedura hauek ezarri dira:

- Adimen Arazo Larriak dituzten Pertsonak Laguntzeko Programa zuzentzeko batzordea osatzea bi departamentuetako kideekin

- Batzorde teknikoa osatzea adimen arazo larriak dituzten pertsonentzako programaren barnean bi departamentuetako kideekin

- Ituna arautzen duten klausula teknikoei buruzko orriek programaren jarraipena egiteko batzordea xedatzea, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko bi kidez, Adimen Osasuneko Zuzendariordetzako bi pertsonaz eta erakunde esleitzailako bi pertsonaz osatutakoa

Bestalde, honako prozedura hauek ere ari garrantzen Adimen Osasuneko Zuzendariordetzarekin:

- Adimen osasunaren alorreko sareko erreferente bat aukeratzea alderdi orokorrak (hala nola, protokoloak, bitartekoak, laguntza prozesuak, jarraipena eta ebaluazioa eta aplikatu beharreko hobekuntzak) koordinatzeko

- Osasun arloaz arduratzen diren adimen osasunaren alorreko sareko profesionalak laguntza programa gauzatzen (onarpenean eta harreran, ebaluazioan, bana-banako laguntza plana osatzen, programen jarraipena egiten, erabiltzaileei alta ematen...) esku har dezaten lortzea”

Azken batean, Gobernuaren programa berriaren helburua, Osasun Departamentuarekin batera jakina, gizarte zerbitzuen sarea sortzea da, errehabilitazio psikosoziala lantze aldera. Horretarako, baina, beharrezkoa da gizarte eta osasun arloko koordinatzea, sektore guztien parte hartzea handitu eta monopolioak saihestea, antolakuntza eredu hobeto zehaztea, kontrol sistemak areagotzea, gizarte eta osasun sistema osoaren koordinazioaz eta koherentziaz arduratuko den zuzendari teknikoa izendatzea eta errehabilitazioaren ikuskeran eta ebaluazio bitartekoetan adostea.

Alabaina, gaixoen eta euren senitartekoen kexen bitartez behin eta berriro adierazi digutenez, badirudi sistema tankan itxiriko konpartimenduetan banatuta dagoela, koordinaziorik eta, are gutxiago, norabiderik gabe; aitzitik, ekimena euren izan omen da, eta behin baino gehiagotan, tinko eskatu behar izan dute laguntza egokia izateko. Adierazpen horiek guztiz bat datoz adimen osasunaren Nafarroako laguntzari buruzko txosten berezian ageri diren ondorioekin; hain zuzen ere, arartekoak 2003ko martxoan egin zuen txosten hori, Foru Parlamentuarentzat, eta Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuak badu haren berri, aurkeztu egin baikenion.

Delako txostenak bederatzi gomendio planteatu zituen, gizarte eta osasun arloko sistema hobetu eta adimen gaixoei laguntza egokia emateko asmoz, eta gomendio horien alderdirik oinarritukoenetako bat adimen osasunaren alorreko Nafarroako plan osoa egitea izan zen, administrazio publikoen erantzukizun esparrua, alor honetan beharrezkoak diren zerbitzu publikoak ematen dituzten erakundeen eta profesionalen artean izan beharreko koordinazioa eta finantziario forma zehaztearren. Tratamendu osoa gaixotasuna fase akutuan dagoenean ematen den tratamendu kliniko hutsak, espezifikoak eta memento horren ostean gaixoak gizarteratu eta laneratzeko neurri zehatzen bitartez eman behar den tratamenduak osatzen dute eta, jakina, hori guztia gure txostenak azaleratu zituen beste alderdi batzuk baztertu gabe egin beharko litzateke. Ildo horretan, txosten horrek sistemaren beste gabezia batzuk nabarmendu zituen, eta gabezia nagusia tratamendu psikiatriko eta psikosozial osoaren norabiderik eza da hain zuzen ere, gaixoa sendatzen esku hartzen duten instantziak eta profesionalak koordinatuta ez daudela eta.

Erakunde honek aipatu txostenaren bitartez adierazi zuenez, adimen gaixoentzako osasun zerbitzuak osasun arlokoak ez diren (63/1995 Errege Dekretuak onartzen dituen osasun zerbitzuetatik kanpo dauden) baina adimen gaixo kronikoak eguneroko bizitzara egokitu eta euren familiartekoak eta zaintzaileak babesteko beharrezkoak diren beste zerbitzu batzuekin (Gizarte Zerbitzuen alorreko baimenen, arau-hausteen eta zehapenen araubideari buruzko maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuak beste ezintasun batzuen –lanerako prestatzeko zerbitzuen, aisialdiko zerbitzuen, eta abarren– alorrean zehazten dituen antzekoekin) bat eman behar dira, hain zuzen ere, adimen gaixoen zaintzeko helburua duten eta osasun arloan bertan edo, koordinazio estrategien bitartez, beste alor batzuetan ematen diren osasun zerbitzuekin bat. Bestalde, litekeena da erabiltzaile bakarrak zerbitzu bat baino gehiago (zentroren batean tokia izatea, aisialdikoak, lan arlokoak, osasun arlokoak...) behar izatea; hau da, gizarte eta osasun arloko zerbitzuen “sorta” behar izatea, bere neurria egindakoa. Hala bada, koordinazio estrategia konplexuagoa da, eta beste modu batean (hala nola, kasuen kudeaketan eta baliabideen kudeaketan) pentsatu behar da.

Arau esparruaren argitasuna eta gaurkotasuna gorabehera, herritarrek eskastzat dute oro har adimen gaixoen laguntzeko egungo sistema, baliabideen eta talde hau lagundu behar duen osasun sarearen antolakuntzaren aldetik, eta iritzi diote ez datorrela bat gaixoen beharrekin, Foru Administra-

zioaren eskumenekin, gaixoen eta zaintzaileen elkarten eginkizunarekin eta familiek euren gain har dezaketen erantzukizunarekin. Ildo horretan, Adimen Osasuneko Nafarroako Elkarteak arartekoari jakinarazi dionez, ez dago gauzatu beharreko zerbitzu eredia finkatuko duen proiektu uniformerik, Adimen Osasunaren alorrak terapia eta errehabilitazio prozesua zuzendu beharko lukeen arren; halaber, ez omen dago zentro guztietan aplika daitekeen ebaluazio sistema zehatzik, koordinazio eredia ere ez delako antolatu oraindik, eta Elkartea beldur da ez ote den profesional bakoitzaren borondatezotasunaren arabera izango, Osasun Departamentuaren txostenak berak berretsi duenez, Osasunbideko adimen osasuneko zentroetako psikiatreek eta psikologoek proposatuko dutenez gero gaixok errehabilitazio psikosozialeko zentroetara bideratzea. Era berean, ez dute antzeman zerbitzuaren kalitatea fidagarritasunez neurtuko duen adierazlerik: ospitaleratze kopurua, berrizkatura klinikoak, familien erantzukizuna... Azkenik, ez dakigu jardun protokolorik ezarri den funtzionarioek euren lana behar bezainbesteko bermez egin eta, neurri batean, koordinazio eskasa gainditzeko baina, Adimen Osasuneko Nafarroako Elkartearen arabera, ez dago halakorik.

Sistemaren krisia osasun arloan behar adinako plangintza ez egiteagatik eta gizarte eta osasun arloan (gizarte ongizatearen alorrean) aurrekonturik ez izateagatik sortu da, baina jakin beharra dago ardua hori Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari dagokion edo gizarte eta osasun arloko koordinatzaileari. Alde horretatik, administrazioak kontrola eta jarraipena egiteko bideak zehaztu behar ditu, ez baitago argi kontrol hori dagokion edo, behinik behin, nork egiten duen eta nork hartu behar duen bere gain erantzukizuna arduragabekeria, akats, arrisku edo arazorik izanez gero. Izan ere, koordinaziorik ezaren arrazoia ez da erduari buruzko erreferente teorikorik ez izatea, administrazioak irizpide ekonomikoak eta kudeaketa ekonomikoa, baliabideak eta erantzukizunak finkatu dituen modua baizik, adimen gaixoei laguntza emateko gaitasuna zalantzan jartzen duena.

Horregatik, ebaluazioa areago sakondu gabe, elkarten ikuskerari jarraiki egiten badugu, emaitza hain garrantzi handiko zerbitzu publiko honen antolakuntza eskasa da, erabateko koordinaziorik eza ez bada ere, koordinazioaren zehaztasunik eza duena oinarri. Alabaina, zuzemenak sinplifikatzeaz gain, herritarrek kudeaketaren gaineko erantzukizuna argi izatea izan behar du, hain zuzen, administrazio publiko modernoaren ezaugarrietako batek. Are gehiago, herritar horiek eguneroko bizitza oztopatzen dieten gaixotasun fisikoak eta psikikoak badituzte, ahalegin horrek betebeharrak izan

behar du, baita osasun laguntza, tratamendua konplexua delako, administrazioaren hainbat aldetatik eman behar bada ere; aitzitik, herritarrek (are gehiago arazo psikiatrikoak dituztenek) esku hartzen duten alorren artean koordinazioa finkatu eta bakoitzari dagozkion eskumenak eta erantzukizunak argitzeko zailtasunak pairatu behar dituzte administrazioarekiko harremanetan.

Adimen gaixok askotariko zerbitzuek behar dituzte, baina Foru Komunitatean indarrean dagoen sistemak gabeziak ditu, osasun arloko zailtasunengatik baino gehiago, norbere erantzukizuna eta irizpide ekonomikoak ez direlako berberak. Hori dela-eta, esparru argi eta zehatza finkatu behar da lehenbailehen; administrazio publikoen erantzukizunaren esparrua eta ekimen pribatuaren (banakakoaren edo kide-tutakoaren) balizko parte hartzea finkatu behar da adimen gaixoentzako laguntzaren alorrean; gizarte zerbitzuek eta osasun zerbitzuek egin beharreko lana finkatu behar da; euren funtzioak mugatu behar dira; eta, norbere osasun egoeraren, gizarte eta ekonomia arloko baldintzen eta familiartereko egoeraren arabera, baliabideak adimen gaixo bakoitzaren beharretara egokitzeari buruz erabaki behar duten erakundeak sortu behar dira.

Horrenbestez, Gizarte Ongizateko Departamentuaren txostenak dioenez, errehabilitazio psikosozialeko zentroak gizarte zerbitzu espezializatuen artean sartu eta gizarte eta osasun arloko laguntzaren esparruan aritzen badira, Nafarroako osasun sistemak erantzukizun garbia du auzi honetan, eta lankidetzara eta koordinazio estuan jardun behar du adimen osasunaren eta lehen mailako gizarte zerbitzuen alorreko sareekin. Azken finean, adimen gaixotasuna dela-eta ezintasunen bat duten pertsonak laguntzeko ekimen ororen helburuak prebentzioa –osasun eta gizarte arloan beharrezko ekimen guztiak gauzatzuz, kalte fisikoa eta psikikoa ahal den neurrian arintzearen–, laguntza osoa –diagnostiko bakoitzari dagokion tratamendua aplikatuz, beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak izanik eskura eta behar adina programaz osatutako egitura izanik, ezindua duintasunez eta errespetuz tratatu eta dituen laguntza behar guztiei erantzun dakien– eta errehabilitazioa –gaixotasunean areago murgildu gabe, ezinduak bere autonomia berreskuratu eta bere gaitasun fisikoei eta psikikoei euts diezaien– izan behar dute.

Alde horretatik, Gizarte Ongizateko Departamentuak egin duen txostenaren ildoan, badirudi nabarmena dela, zerbitzu batzuk elkarren artean kudeatuz gero, herritarrek gusturago daudela, laguntza esparrua koherentea dela eta segurtasun-

na ematen diela hala gaixoari, nola zaintzaileei eta laguntza hori ematen duten profesionalei. Hortaz, atera dugun ondorio nagusia da alderdi orokorrak (hala nola, protokoloak, bitartekoak, laguntza prozesuak, errehabilitazio zentroetako laguntzaren jarraipena eta ebaluazioa eta hobekuntzak) koordinatzeko bitartekoak sortu behar direla, herritarren eta administrazioaren arteko harremana hobea izan dadin, frustrazioa eta tirabira sortzen duten egoerak urriagoak izan daitezzen eta norabide bakarreko laguntza ezar dadin.

Horregatik guztiagatik, egoki iritzi diogu Osasun Departamentuari GOMENDIOA egiteari, berriaz har dezan bere gain errehabilitazio psikosozi-aleko zentroen eta programen jarraipen teknikoa egin eta horien kalitatea kontrolatzeko erantzukizuna eta, Gizarte Ongizateko Departamentuak egin duen txostenaren ildoan, bere gain har dezan beharrezko bitartekoak eta sistemak lantzeko erantzukizuna, errehabilitazio psikosozialeko zentroetan eta programetan parte hartzen duen gaixo bakoitzaren laguntza prozesuaren kalitatea eta jarraitutasuna bermatzeko.

Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuak eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak idatzia igorri digute egindako gomendioari erantzuteko, eta honako hau adierazi dute hitzez hitz:

“2006ko urtarrilaren 23ko idatziaren bitartez, gomendioa egin diozu Osasun Departamentuari, berriaz har dezan bere gain errehabilitazio psikosozialeko zentroen eta programen jarraipen teknikoa egin eta horien kalitatea kontrolatzeko erantzukizuna eta errehabilitazio psikosozialeko zentroetan eta programetan parte hartzen duen gaixo bakoitzaren laguntza prozesuaren kalitatea eta jarraitutasuna bermatzeko ardura eta, hori dela-eta, zera jakinarazi nahi dizugu:

Osasun Departamentuak eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuek behin eta berriro argitu dutenez, errehabilitazio psikosozialeko zentroak (aurrerantzean, EPSZ) gizarte zerbitzuen esparruko zentro espezializatuak dira eta, adimen osasunaren alorreko tratamendua amaitu ostean, euren bizitza pertsonalaren eta sozialaren hainbat alorretan aritu eta ibiltzeko (norbere burua zaintzeko, eguneroko jarduerak egiteko, ingurunearen beharrei erantzuteko...) mugak (bakartzea, arazo kognitiboak, funtzionamendu gabeziak, lan gaitasun eta abileziarik eza, lanpostuaren eskakizunei erantzuteko zailtasunak...) dituzten adimen gaixo larriak laguntzen dituzte. Hau da, funtzionamendu psikosozialean mugak eta, horrenbestez, gizarteratzeko zailtasunak dituzten pertsonak tratatzen dituzte eta, horregatik, pertsona horiek behar

dituzten programak eta zerbitzuak gizartearen baitan bizitzeko beharrezko autonomia eta burujabetasuna lantzeko gaitasunak edota abileziak eskuratu edo berreskuratzen lagunduko dieten errehabilitazio psikosozialeko zerbitzuak dira.

Hartara, laguntza psikosozialaren eginkizuna (adimen arazo larriak dituzten pertsonak babestu, lagundu eta gizarteratzea) azaleratzen da eta, ondorioz, baita gizarte baliabide horiek talde hau lagundu eta gizarteratzeko lanean duten garrantzia ere, euren autonomia berreskuratu eta, berriro gaixotu edo krisialdian murgildu ezean, euren erki-degoan jarraitzen laguntzen baitiete.

Prozesu hori gizarte zerbitzuen esparruan sartzen da, baina ez litzateke posible Osasun Departamentuak esku hartuko ez balu; hain zuzen ere, adimen osasunaren alorreko sarearen bitartez, Osasun Departamentuak adimen gaixotasunaren diagnostikoa eta jarraipen psikiatrikoa egiten du, krisialdiei aurrea hartu eta krisiok kontrolatzen ditu, egoera psikopatologikoa egonkortu eta egokitzten du eta, horren guztiaren ostean, gaixoak EPSZetara bideratzen ditu. Banan-banan esku hartzeko programak, berriz, EPSZetako profesionalen eta dena delako adimen osasuneko zentrorik profesionalen artean egiten dituzte, eta tratamenduaren jarraipenean dautza eta, gaixoaren egoera dela-eta beharrezkoa bada, baita tratamenduaren ebaluazioan eta aldaketan ere. Prozesu hori guztia koordinatzeko, berriz, bi departamentuek batera esku hartzeko protokoloak osatu dituzte.

Horrenbestez, ez gaude ados inola ere adimen gaixotasun larriak dituzten pertsonentzako laguntza osoaren alorrean bi departamentuon arteko koordinaziorik ez dagoelako iritziarekin, ezta tan-kan itxiriko konpartimenduak bailiran funtzionatzen dutelakoarekin. Aitzitik, esku hartzea koordinatu egin da eta koordinatu egiten da uneoro, eta horren seinale da, laguntza programa batera egitea ez ezik, abian jarri eta haren jarraipena batera egitea ere.

Garai batean bi departamentuok helarazi genizkizun txostenek ziotenez, koordinaziozko hainbat prozedura finkatu da, alegia,

- Programa zuzentzeko batzordea osatzea bi departamentuetako kideekin, departamentu bakoitzeko ordezkariak txandaka (batak urte batean eta besteak hurrengoan) burutuko dutena eta Adimen Osasuneko Nafarroako Elkarte eta Adimen Osasuneko Bilguneko ordezkariak izanen dituen kidetzat
- Batzorde teknikoa osatzea programaren barnean bi departamentuetako kideekin

- Hitzarmena arautzen duten baldintza tekniko-
ei buruzko orrien bitartez bi departamentue-
tako teknikariek eta erakunde esleipendune-
ko ordezkariak baldintzon jarraipena eginen
duen batzordea osa dezaten xedatzea
- Adimen osasunaren alorreko sareko errefe-
rente bat aukeratzea alderdi orokorrak (hala
nola, protokoloak, bitartekoak eta laguntza
prozesuak) koordinatzeko
- Adimen osasunaren alorrean osasun arloa-
ren ardura duten profesionalak gaixoak
banan-banan laguntzeko programan esku
hartzea

Hain zuzen ere, programan ageri den koordina-
zio horri esker erabaki zen errehabilitazio psiko-
sozialeko zentroak sortzea, gizarte zerbitzuek susta-
tzen dituzten laguntza programak biltzen dituen
oinarrizko sare gisa. Helburu nagusia adimen
arazo larriak dituzten pertsonak gizarteratzea bes-
terik ez da, gizarteko kide diren herritarrak diren
aldetik, baina, gainera, badute teknikoki osasun
arlotzat baino gehiago gizarte arlotzat jo
behar den beste helburu bat: errehabilitazio psiki-
atrikoko prozesua osatzea.

Gaur egun, Zuzendaritza Batzordearen agindu-
ari arraiki, Batzorde Teknikoa adierazleak lantzen
ari da, baliabide hauen emaitzak kualitatiboki eta
kuantitatiboki ebaluatu eta, laguntza honek gaixo-
engan dituen emaitzen arabera, baliabideok aldatu
egin behar diren ala ez analizatzeko.

2006ko otsailaren 23ko idatziak laguntza psiko-
sozial zuzena emateko aukeratutako profesionalen
ezaugarriei buruz aipatzen duena dela-eta, berriz,
esan beharra dago programa hauetan esperien-
tzia duten beste autonomia erkidego batzuetako
arduradunekin egon eta bildu garela profesional
hauen eskakizunak zehazteko. Hots, beste auto-
nomia erkidego batzuetako esperientziak ikusirik,
EPSZetako langileak bat datoz ikuspuntu tekniko-
tik lortu nahi diren helburuekin.

Azkenik, nabarmentzekoa da, Zuzendaritza
Batzordearen erabaki bati jarraiki, pertsona bat
programaren koordinatzaile izendatuko dela. Koo-
rdinatzaile hori Nafarroako Gizarte Ongizatearen
Instititutuko langileetako bat izaeno da, Institutua
den aldetik zentro hauek abian jartzearen ardura-
duna, eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institu-
tuko zuzendari kudeatzaileak proposatuko du,
Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bileran.

Horregatik guztiagatik, uste dugu ezin dugula
onartu zure idatziaren bitartez egin diguzun
gomendioa, ziur gaudelako aukeratu dugun kon-
ponbide teknikoa dela lortu nahi ditugun helburuak
betetzeko egokiena eta iruditzen zaigulako bi
departamentuek ezin hobeto koordinatzen dituzte-
la aurrez ikusitako prozedurak eta programak”.

Azken batean, bi departamentuek laguntza psi-
kosoziala gizarte zerbitzuen esparruan sartzen
dela erantzun digute, errehabilitazio psikosoziale-
ko zentroak gizarte zerbitzu espezializatuen espa-
rrukoak diren heinean, Osasun Departamentuak
esku hartzea ezinbestekotzat duten arren –berez,
adimen gaixotasunaren diagnostikoa eta jarraipe-
na egiten du adimen osasunaren alorreko sarea-
ren bitartez–. Halere, ez datoz bat inola ere adi-
men gaixotasun larriak dituzten pertsonentzako
laguntza osoaren alorrean bi departamentuon
arteko koordinaziorik ez dagoelako iritziarekin,
ezta tankan itxiriko konpartimenduak bailiran fun-
tzionatzen dutelakoarekin; izan ere, prozesua
batera esku hartzeko protokoloen bitartez koo-
rdinatzeaz gain, programa koordinatu eta zuzentzeko
pertsona bat aukeratuko dute Nafarroako Gizarte
Ongizatearen Institutuko langileen artean eta, gai-
nera, Zuzendaritza Batzordea eta Batzorde Tekni-
koa daude programaren barnean.

Hots, gure gomendioa (Osasun Departamentu-
ak errehabilitazio psikosozialeko zentroen eta pro-
gramen jarraipen teknikoa egin eta horien kalitatea
kontrolatzeko erantzukizuna bere gain berariaz
hartzea) onartu egiten ez dutela ondorioztatzen da
idatzitik.

Edonola ere, erakunde honek Osasun eta
Gizarte Ongizateko departamentuek elkar ulertzen
ez dutela eta koordinazio arazoak antzematen
zirela salatu zuen Nafarroako adimen osasunaren
laguntzari buruzko txosten bereziaren bitartez.
Ulergaiztasun kroniko hori gizarte eta osasun arlo-
ko laguntzari buruzko foru plana onartu izanak
arindu zuen neurri batean, baina herritarren kexek
arazo hori islatzen dute behin eta berriz. Hori dela-
eta, itxaron egin beharko da programatu diren
koordinazio eta kontrol mekanismoek errehabilita-
zio psikosozialeko zentroetan eta programetan
parte hartzen duen gaixo bakoitzaren laguntza
prozesuaren kalitatea eta jarraitutasuna bermatzen
duten ikusteko.

Azkenean, gure gomendioa onartu egin ez
denez gero, uko hori urteko txosten honetan islatu
dugu.

5.2.4. IRUÑEKO UDALAREN ZORTZI ORUBE ENKANTE BIDEZ ESLEITZEA ETXEBIZITZAK EGITEKO (05/237/U ESPEDIENTEA)

AURREKARIAK

Oraingo honetan, erakundeak ofizioz esku hartu izanaren ondorioz, Iruñeko Udalak, 258 etxebizitza eraikitze aldera, Buztintxuriko, Arrotxapeako eta Sanduzelaiko zortzi udal orube enkante bidez besterentzeko asmoa zuela jakin dugu. Antza, orubeok lau enpresari esleitu zaizkie hasiera batean, 45,6 milioi euroren trukean, eta, hori dela-eta, lurzoruak jasan duen kostua 178.804 eta 218.216 euro artekoa izan da etxebizitza bakoitzeko, orubearen arabera.

Berriarekin bat, orubeak, euren ezaugarriak direla eta hirigintza arloko lagatzeen emaitza direla-eta, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea ezinezkoa delako saldu dira, baina enkantean lortutako diru sarrerak Udalak sustatu nahi dituen babes ofizialeko 900 etxebizitza finantzatzeko erabiliko dira.

Ildo horretan, Udalari jakinarazi diogu irizpide orokor bat proposatu dela Arartekoak Koordinatze-ko XVIII. Jardunaldietan: udalen lurzoru ondareak (Nafarroan Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 223.-229. artikuluek arautzen dituztenak) babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko erabiltzea ahal dela, beste baliabide batzuen bitartez finantza daitezkeen beste helburu batzuetarako erabili beharrean, helburuok interes publikokoak izan arren. Horregatik, udalen lurzoru ondareak besterendu behar badira, enkante publiko bidezko sistema bertan behera uzteko proposatu diogu Udalari, ez baitirudi sistema hori bateragarria denik udal lurzoruak berez izan beharko lukeen erabilerarekin.

Izan ere, arartekook uste dugu, etxebizitzarako eskubidea erabili eginen bada, alor honetan esku hartzen duten administrazio publiko guztiek baina, batik bat, udalek erabakitasunez jokatu eta lurzoru ondare publikoak zuzen kudeatu behar dituztela. Alde horretatik, gure ardurak oinarri sendoa du eta frogatu egin behar ez diren arrazoi objektiboen emaitza da: guztiok dakigu babes ofizialeko etxebizitzak eraikuntzak izugarri egin duela behera azken hamarkadan eta botere publikoek ez dutela erantzun neurri eragingarrien bitartez. Hori dela-eta, biztanleriaren zati handi batek ezin du etxebizitzarako eskubidea (Espainiako Konstituzioak onartzen duena) erabili, eta administrazioek erabakitasunez jokatu behar dute.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000

Foru Legeari jarraiki, Udalak babes ofizialeko etxebizitzak eraikuntza sustatzeko onartu dituen planen berri emateko eskatu diogu Iruñeko Udalari eta, zehazkiago, komunikabideek 900 etxebizitzaren eraikuntzari buruz argitaratutako albistearen eta zortzi orubeak babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko erabili ez eta besterendu egin izateko arrazoiak berri emateko. Orobat, Udalak aipatu orubeen enkanteari esker lortzen dituen diru sarreraren erabilera dela-eta erabakitakoari buruz ere galdetu diogu.

Bada, Iruñeko Udaleko Hirigintza Gerentziako laguntzaileak erantzuna igorri digu eta, haren bitartez, aipatu ondasunen izaera analizatzen du lehenik eta behin, araubide juridikoa ezberdina delako horren arabera.

Izaera dela-eta, ondarezkoak direla ondorioztatzen du; izan ere, aurrez egindako txosten juridiko batek horixe argudiatu zuen eta hirigintza arloko kargak jasaten dituzte baina, gainera, ez dago osoko bilkuraren inolako erabakirik lurzoru ondare publikoari adskribatu zaizkiola dioenik.

Babes ofizialeko etxebizitza egiteko erabiltzea dela-eta, berriz, orubeon gaineko urbanizatze kargak aipatzen ditu; karga horien ondorioz, ezin bideratuzkoa da orubeak helburu horretarako erabiltzea, etxebizitza bakoitzaren azken prezioak gai honi buruzko foru legediari jarraiki lurzoruagatik jasaten dituen ehunekoak direla eta.

Jarraian, aplikatu beharreko arautegia ezberdina denez gero, halako ondasunak besterenduz lortzen diren diru sarreraren erabilera aipatzen du; izan ere, Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 132. artikuluko 4. atalaren arabera, diru sarrera horiek ezin dira gastu arruntak finantzatzeko erabili –zer inbertsiontan erabil daitezkeen adierazten du ondoren–.

Azkenik, administrazioaren ondarearen gaineko kaltearen printzipioa aipatzen du. Harekin bat, administrazioak merkatuko prezioa sartzea duen arren –legediak baimentzen dituen mugen barnean betiere–, zenbateko txikiagoa sartu behar du eta, ildo horretan, honako hau dio: “Hiria garatzeko, funts kopuru jakin bat behar da baina, horretarako, funts horien zenbatekoa lortu behar da, ondarezko ondasunak enkantean jarriz egin daitekeena legediaren arabera eta zilegitasun osoz”.

ANALISIA

Txosten horren bitartez adierazi diguten guztia arretaz aztertu ostean, zenbait zehaztapen eta hausnarketa egin ditugu hari buruz.

Lehenik eta behin, amaieran administrazioaren ondarearen gaineko kaltearen printzipioari buruz egiten den aipamenak gai honi buruz egin nahi den beste oharpen oro baldintzatzen du, udalek oro har konponbide eta jokamolde jakin baten alde egiten dutelako argi eta garbi: ondasunak goraka saltzearen alde, enkante bidez batez ere, toki ogasunak neurri batean edo bestean finantzatzearren.

Indarrean dagoen legedia errespetatuz betiere, udalek alor honetako erabakiak hartzeko aukera dutela kontuan izanik, hautu hori egitea zilegi da baina, era berean, herritarren eskubideak bermatu behar dituzten erakundeek (hala nola, arartekoek) esku hartzea ere zilegi da, euren eskumeneko esparruan herritarrek etxebizitza duin eta egokia izan dezaten bermatzeko beharrezko baldintzak ezar ditzaten eskatzen badiete administrazio publikoak.

Ingurumari horretan jazo da Arartekoak Koordinatzeko XVIII. Jardunaldietako adierazpena, etxebizitza sustatu eta etxebizitza eskuratzeari bide emateko hainbat ekimen proposatzen diena botere publikoak.

Bigarrenik, antolamendu juridikoa eta, horrenbestez, zortzi orubeei aplikatu beharreko araubide juridikoa analizatzen dela-eta ondasun horien izaera juridikoa zehazte aldera, esan beharra dago antolamendu juridiko horrexek behar adina mekanismo xedatzen dituela, kasuan-kasuan finkatzen den lehentasunaren edo ekimen bakoitzaren helburuaren arabera, araubide juridiko bat edo bestea aukeratzeko.

Horren lekuko da Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 224.2. artikulua xedatzen duen aukera, Iruñeko Udalaren erantzunak aipatzen duen berbera: osoko bilkuraren erabakiaren ondorioz betiere, udalek hirigintza planeamenduak hiri lur edo lur urbanizagarritzat jotzen dituen ondarezko ondasunak lurzoru ondare publikoaren barnean sartzea.

Alde horretatik, arartekoek aipatu jardunaldietan atera duten ondorioetako bat izan da beharrezkoa dela hirigintza planeamenduak hiri lur edo lur urbanizagarritzat jotzen dituen eta administrazio publikoenak eta haiekin lotutako edo haien mendeko zuzenbide publikoko erakundeek diren ondarezko ondasun higiezin guztiak lurzoru ondare publikoaren barnean sar daitezen.

Horixe da abiapuntua, baina ondasun horiek besterentzeko aukerak askotarikoak dira. Hain zuzen ere, gure aurreko txostenaren bitartez jakinarazi dugunez, hori dela-eta proposatu dugu arartekook enkante publiko bidezko sistema ber-

tan behera uztea, ez dirudielako bateragarria denik lurzoru honek berez izan beharko lukeen erabilerarekin, aplikatu beharreko araudiak (Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legeko 228.2. artikulua) bide eman arren.

Izan ere, sistema hori erabiltzearen ondorioz, besterentze prezioak erreferente bihurtu dira merkatu librean, Iruñeko Udalak izan duen esperientziaren batek erakusten duenez, eta, horregatik, ondare horien helburua (erakunde arlokoa) administrazioak ondasunak besterentzeko aplikatu izan dituen teknikekin (zehazki, enkante bidezko sistemeekin) bateraezina dela ondorioztatu da.

Egia esan, etxebizitza arloko arazoak lurzoru eskasiarekin lotuta daude. Etxebizitza arloko arazoz mintzatzea urbanizatzeko lurzorurik ezaz hitz egitea da, orubeen garestitasunaz, lurzoruaren merkatuaz... Jakina, ez da hori Espainiako Konstituzioko 47. artikulua onartzen duen eskubidea erabiltzeko oztopo bakarra baina, seguru asko, esanguratsuen da.

Horregatik, botere publikoek lurzoruak etxebizitza eskuratzeko eskubidearen zerbitzura egon behar duelako printzipioaren eragingarritasuna bermatu behar dute euren ekimenen bitartez. Izan ere, legedi positiboa, epaileen lana eta botere publikoen jarduna arautzen duen printzipiotzat onartzeaz gain, eskubide hori gure zuzenbide positiboaren barnean ere dago, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 5.f) artikuluari esker; hain zuzen ere, artikulua horrek hiri antolamenduari helburu zehatz eta berezkitzat hartzen du etxebizitza sustatzeko neurriak ezartzea, eskuratzen errazak diren etxebizitza duinen beharrari erantzute aldera.

Ildo horretan, lehenago esan dugunez, antolamendu juridikoak Iruñeko Udalak azkenean aukeratu duena ez beste irtenbide batzuei ere ematen die bide.

Gainera, enkantea Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legeko 228.2. artikulua ematen duen aukeratzat erabiltzea dela-eta, ezin ahaztuzkoa da agindu horrexek beste konponbide batzuei ere ematen diela bide; c) atalak, esate baterako, lurra erakunde instrumentalei edo beste administrazio publiko batzuei dohainik ere lagatzeko aukera ematen du.

Dena dela, aukera horren alde egiten ez bada, argi dago litekeena dela esleipendunaren aukeraketa ekonomikoak bakarrik ez diren irizpideetan oinarritzea, enkanteak prezioen gorakada ekartzeari aurre egiteko. Horretarako, tradizionalaren aldean oso bestelakoa den prozedura batera jo daite-

ke: lurra prezio jakin baten trukean eskaini eta beste alderdi batzuk (hala nola, finkatzen den salmenta prezioa merkeagoa izatea, eraikinak zenbateraino dauden akabatuta eta eraikinen akaberaren kalitatea, zerbitzuak...) kontuan hartzeraz.

Hau da, gure ustez, askotariko aukerak daude alor honetan, eta horrek arartekoei egindako adierazpena errepikatze bide ematen du, eta baita hobetsi ere: halako ondasunak besterendu behar izanez gero, enkante publiko bidezko sistemari uko egitea.

Hala eta guztiz ere, jakin badakigu etxebizitza eskuratzeko etengabeko arazoak ez direla horrela konponduko epe motzean baina, zalantzarik gabe, ildo horretatik zuzen egin eta ildo horretako beste neurri osagarri batzuk (besteak beste, udal jabetzako etxebizitza hutsak aloka daitezzen sustatu eta Iruñean babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeari buruzko udal txostenak aipatzen dituenak) hartzeak arazo hau poliki-poliki konpontzen lagunduko du; izan ere, etxebizitza eskuratzeko herritarren

lehentasun nagusietako bat da, eta botere publikoen ekimenek gogo horri erantzutera bideratu behar dute nagusiki.

Bestela, aipatu zaizkigun udal ekimenak nekez izanen dira nahi bezain eragingarriak arazo hau konpontzen, ezarri egiten direnean haien helburuak galarazten dituzten edo haien aurkakoak diren neurriak ere hartzen badira.

Horregatik guztiagatik, iruditu zaigu beharrezkoa zela Iruñeko Udalari arartekook egindako gomendioa gogoraraztea, egoera honetan sortu den arazoa dela-eta batez ere, eta, horregatik, GOMENDIOA egin diogu, lehen esandakoaren ildoan, enkante publiko bidezko sistemara jo ez dezan aurrerantzean hirigintza planeamenduak hiri lur edo lur urbanizagarritzat sailkatzen dituen udal jabetzako lurra besterendu behar dituen.

Txosten hau egiten amaitu dugunean, Iruñeko Udalak egin diogun gomendioari ematen dion erantzuna hartzeko zain gaude.

5.3. ADMINISTRAZIOEK ARARTEKOAREN INFORMAZIO ESKARIEI ETA EBAZPENEI EMANDAKO ERANTZUNARI BURUZKO EBALU-AZIOA

5.3.1. EGINDAKO INFORMAZIO ESKARIEI ETA EMANDAKO EBAZPENEI EMAN ERANTZUNA

Ahal izan dugun guztietan behin eta berriro nabarmendu dugu herritarrek aurkezten dizkiguten kexak direla-eta egiten dugun lana ez dela posible behar bezain azkar eta bizkor egitea, ebaluatzen ditugun administrazio publikoen laguntza ez badugu.

Erakundea martxan izan den bost urteotan, Nafarroako Arartekoa Foru Komunitateko erakunde publikoen artean dauden harremanetako beste elementu bat bailitzan antzeman eta hautematen dela jabetu gara.

Halere, harreman horietan barrena izan dugun esperientziaren ondorioz, planteatzen dizkiguten kexak bideratzea dela-eta batik bat, iritzi hori nabarmen hobetu daitekeela esan liteke.

Gainera, bi aldetatik hobetu daiteke: batetik, gure informazio eskariei dena delako administrazioaren jokabideari buruzko arazoibide eta azalpen zuzenaz erantzutearen aldetik, gure lana behar bezala egiteko beharrezko informazioa eta datuak izan ditzagun; eta, bestetik, informazio hori adierazten den epean bidaltzearen aldetik, egiten ditugun informazio eskariei erantzuten atzeratzeak analizatzen dugun egoeraren gaineko jardunaren eragingarritasuna murriztuz lezake-eta hainbatetan.

Bi premisa esanguratsu horiez gain, administrazioek egiten dizkiegun gomendioak, legezko betebeharren gogorrazpenak edo iradokizunak direla-eta jokatzeko modua justifikatzeko erabiltzen duten bidea ere aipatu beharrean gaude, onartu egiten ez dituztenean aukeratzen dutena bereziki.

Izan ere, Nafarroako administrazio publikoek aipatzen ari garen auzi hauetan guztietan arartekoari eman behar dioten laguntza, gure lana egiteko ezinbestekoa ez ezik, erakundearen beraren izaerak finkatzen duen betebeharra ere badela iruditzen zaigu, arartekoa Nafarroako Parlamentuko mandataria eta, era berean, Nafarroako Parlamantua herritarren subiranotasunaren ordezkaria den aldetik.

Alderantzizkoa, Nafarroako Parlamantuarrekiko begirunerik ezaren zeharkako adierazgarria izateaz gain –hark ematen dio aparteko zilegitasuna eta egitekoa arartekoari–, herritarrekiko begirunerik ezaren zantzu ere bada, zuzenbide estatuak xedatzen dituen mekanismoak erabili eta eskubi-

deak bermatzeko eginkizuna duen erakunde bate-ra (arartekoarengana) jo duten aldetik euren esku-bideen alde egiteko. Orobat, ezin ahaztu dugu halako jarrerak botere publikoen jarduna burutu behar duen gardentasunari eta herritarrei jardun horren kontu eman beharrari egiten diola kalte, herritarrek baitira, azken batean, benetako onuradun edo kaltetuak eta botere publikoen izatea justifikatzen dutenak.

Horregatik, arreta eman nahi dugu alderdi honi buruz txostenaren atal honetan, eta baita administrazio publikoek ematen diguten laguntza hobetu beharrari buruz. Horren lekuko da 2005. urtean 136 espedienteren ondorioz errepikatu behar izan diogula informazio eskaria hainbat erakunderi; eskari hori 33 espedienteren ondorioz errepikatu behar izan dugu berriro; eta, azkenean, aurreraxeago aipatuko ditugun 19 espedienteen ondorioz, dena delako administrazioa arartekoaren ikerkuntza lana oztopatzen ari zela ohartarazi behar izan dugu berariaz.

Datu horiek oso esanguratsuak dira administrazioek planteatzen zaizkigun kexei horren berandu erantzun eta, azken finean, kexen egileei gure lanaren emaitzaren berri horren berandu eman beharrean duten eragina ulertze aldera.

Alde horretatik, Arartekoari buruzko Foru Legeak gorabehera horiek urteko txostenean azaldu, atzeratu edo informazioa emateari uko egiten dioten administrazioak eta agintariak aipatu eta bestelako neurriak xedatzen baditu ere, eta horixe egin izan badugu ere gure txostenen bitartez, garaia izan liteke beste berme edota mekanismo batzuk ezartzeko aukerari buruz hausnarketa egiteko, herritarren eskubideak bermatzeko eginkizuna duen erakunde batekiko (arartekoarekiko) lan-kidetza eta begirunerik eza ez dadin bihur gurekin harremanetan dauden administrazioen ohiko jokabidea.

Ildo horretan, txosten honen bitartez egin dugu aipamenik; esate baterako, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak eragin du aurten kexa gehien departamentu guztien artetik. Horrek ez du esan nahi Osasun Departamentuak aparteko interesa adierazi duenik kexa horiek direla-eta egin dizkiogun informazio eskariei behar bezala erantzuteko; aitzitik, 31 espedienteren ondorioz errepikatu behar izan diogu hasiera bateko eskaria eta, azkenean, errepikatu behar hori etengabekoa izan da departamentu horrekiko harremanetan. Gainera, zortzi gomendio eta iradokizun bat egin dizkiogun arren, horietako bi gomendio soilik onartu ditu.

Hainbatetan, jarrera horrez gain, erantzun labur eta eskasa eman ere egiten die gure informazio eskariei eta, areago, gomendioei; adibidez, itxaron zerrendak direla-eta esku hartu dugunean, honako hau adierazi digu hitzez hitz: "Eskaria eskaintza baino handiagoa denean, Osasunbideak egoera hori konpontzeko beharrezko neurriak hartzen ditu". Egiaz, agerikoa da arartekoaren gaineko onespena galdu egin dela.

Bestalde, egoera horren beste arrazoi bat jardun eta esku hartzeko ditugun aukerei buruzko ezjakintasuna izan liteke hainbatetan; bederen, horixe gertatu zaio Iruñeko Udalari (zehazki, Hiritarren Babeseko Alorrari).

Zehatz-mehatz, sail horrek zirkulazio arloko zehapen espedienteak direla-eta inoiz eman dizkigun erantzunek auzia Nafarroako Administrazio Auzitegiaren esku dagoela eta, Auzitegiak dagokion ebazpena eman ostean, Udalak harekin bat jokatu duela besterik ez diote; beste erantzun batzuen bitartez, berriz, ezarritako zigorrak administrazio errekurtsoen bidez baino ez daitezkeela balio gabe edo bertan behera geratu ihardetsi digu gomendioa egin diogunean.

Halakoetan, antolamendu juridikoak ombudsman edo parlamentuen ordezkarietara euren eskumeneko esparruan administrazioaren jardunaren legezotasuna (hala konstituzioaren arabera, nola arrunta) kontrolatzeko balioa egokitzen diela oroitarazi behar izaten dugu. Ildo horretan, Foru Komunitatean erakunde hori sortu eta arautu zuen uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen arabera, arartekoari esleitutako eginkizuna administrazioa kontrolatzea da, herritarrek administrazio ona izateko eskubidearen alde egin eta administrazioak bere jardunean bete behar duen legezotasun printzipioa bermatzearen.

Nolanahi ere, kontrol lan hori osagarria da, eta ez da bateraezina herritarrek Nafarroako Administrazio Auzitegira (foru araubidearen berezko erakunde batera) jotzeko aukerarekin baina, edonola ere, herritarrek beste bide bat dute euren eskubi-

deak babesteko: justizia epaitegietara jotzea. Justizia epaitegiak, ostera, izan badira gure ordezkioak, edo geu gara haien ordezkioak, Arartekoari buruzko Foru Legeko 23.2. artikulua berresten duenez; hain zuzen ere, artikulua horrek arartekoa auzi bat epaitegien aurrean planteatzen denean jarraiki behar zaion bidea ezartzen du.

Nolanahi ere, kontuan izan beharra dago, ahal izan dugunean planteatu dugunez, arartekoak arazo jakin bati buruzko ohar edo gomendioren bat egin eta zer edo zer egin beharra planteatzen dionean administrazioari, ez dagoela gure esku, ezta gutxiago ere, administrazioak egoera jakin horretan jokatu behar duen modua zehaztea.

Halakoetan, aitzitik, administrazioak gauzatu behar ditu dagozkion ekimenak eta, beharrezkoa bada, dagozkion konponbideak, arartekoak planteatzen dizkion arazoak konpontzeko, gure antolamendu juridikoak ezartzen dituen formazko bideen barnean betiere; bide batez, esan beharra dago bideok ez direla amaitzen herritarrek aurkezten dituzten helegiteak aintzat hartze hutsaz.

Hausnarketa labur hori ekarpen txiki bat besterik ez da izan gurekin harremanetan dauden administrazioek eman behar diguten laguntzaren esparruari buruz. Jarraian, aurrekoetan bezala, arartekoaren lana oztopatzen ari zirela ohartarazi behar izan ditugun erakundeen zerrenda emanen dugu, eta onartu egin dituzten, onartu egin ez dituzten eta erantzuteke dauden gomendioen, legezko betebeharren gogorarazpenen eta iradokizunena; hain zuzen ere, erakunde horiek guztiek dena delako auzia arretaz aztertu eta kasuan kasuko erakundeko edo administrazioako agintari arduradunarengana erantzun eske hiru alditan ere jo ostean kexa espedienteen bitartez egin ditugun informazio eskariei eta ebazpenei (gomendioei, gogorarazpenei eta iradokizunei) erantzun ez dietelako galarazi dute arartekoaren lana.

Hain zuzen ere, honako hauek oztopatu dute arartekoak bere eginkizunak betetzea:

NAFARROAKO GOBERNUA:

Osasun Departamentua	04/392/S espedientea , Iruñeko Bideko Ama Birjina Ospitalean egindako eskanerraren emaitzak ematen atzeratu izanari buruzkoa
Hezkuntza Departamentua	05/82/E espedientea , ikasleak ikastetxeetan onartzeko irizpide osagarriei buruzkoa
Vianako Printzea Erakundea – Kultura eta Turismo Dep.	03/291/C espedientea , Baluarteko errotulazioari eta liburuxkei zein programei buruzkoa
Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua	04/111/M espedientea , Elizondoko Oilar Besta ospatzeko baldintzei buruzkoa

TOKI ADMINISTRAZIOA

Tuterako Udala	02/354/M espedientea , etxebizitzetako garajeetako ateei eragindako eragozpenei buruzkoa
Atarrabiako Udala	03/183/M espedientea , igarobide bateko ate metalikoek eragindako eragozpenei buruzkoa 04/397/H espedientea , udal gainbalioari eta premiamendu espedientei buruzko informazio eskasari buruzkoa
Leitzako Udala	04/263/O espedientea , udal kolektoreen funtzionamendu okerrak egindako kalteak erreklamatzeari buruzkoa
Erromantzatuko Udala	04/267/A espedientea , ehiza barrutia ustiatzeagatiko diru sarreraren erabilerari buruzkoa
Garesko Udala	04/271/U espedientea , eraikin bateko lanak udal baimenarekin bat etorri gabe egin izanari buruzkoa
Baztango Udala	02/325/U espedientea , xehetasun azterketako edukiei eta lerrokatzei buruzkoa
Corellako Udala	04/411/M espedientea , gazte elkarte baten lokalak eragindako eragozpenei buruzkoa
Andosillako Udala	05/54/O espedientea , zeharbidea berritzeko lanek bertako etxebizitzetan izandako ondorioei buruzkoa
San Martin Unxeko Udala	05/91/U espedientea , herriko bide edo kale baten baldintzei buruzkoa
Ollarango Udala	05/96/V espedientea , zergadun batek informazioa eskatu izanari buruzkoa
Irunberriko Udala	05/116/O espedientea , argi zerbitzu publiko eskasari buruzkoa
Murchanteko Udala	05/129/M espedientea , gazte elkarte baten lokalak eragindako eragozpenei buruzkoa
Berriozarko Udala	05/251/M espedientea , sakelako telefono deien oinarritzko estazioa abian izateko baldintzei buruzkoa
Arlegiko Kontzejua	05/93/O espedientea , Kontzejuko kide bati eman izan zaion informazioari buruzkoa

5.3.2. ONARTU DIREN, ONARTU EZ DIREN ETA ERANTZUTEKO DAUDEN EBAZPENEN ZERRENDA

ONARTU DIREN EBAZPENAK

NAFARROAKO GOBERNUA

- Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua
 - 04/393/B espedientea, lanerako prestatzeko zentroetako toki eskasari buruzkoa (gomendioa)
 - 05/37/S espedientea, adimen gaixo bat erietxean sartzeko eskariari buruzkoa (gomendioa)
 - Osasun Departamentua
 - 05/115/S espedientea, guardiako farmazien sistemak mendialdean dituen ondorioei buruzkoa (gomendioa)
 - 05/240/S espedientea, ebakuntza egiten atzeratzeari buruzkoa (gomendioa)
 - Hezkuntza Departamentua
 - 05/23/E espedientea, Zizur Nagusiko bigarren hezkuntzako institutuko ikasleei ezarritako diziplinazko zigorrari buruzkoa (iradokizuna)
 - 05/59/E espedientea, ikastetxean Gorputz Hezkuntzako irakaslea jardunean egin dituen ekintzak direla-eta irmo zigortu izateagatik sortu den egoerari buruzkoa (gomendioa)
 - 05/172/E espedientea, Eunate bigarren hezkuntzako institutuko instalazioen eskasari buruzkoa (legezko betebeharren gogorazpena)
 - 05/202/E espedientea, Iruñeko Patxi Larrainzar ikastetxeko instalazio berrien eraikuntzaren atzerapenari buruzkoa (gomendioa)
 - 05/305/E espedientea, Hezkuntzako premia bereziak dituzten ikasleei eta haur hezkuntzako zikloan ikasteko gehieneko adinari buruzkoa (gomendioa)
 - Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua
 - 04/304/M espedientea, Nafarroan genetikoki eraldatutako aldaerak hazten dituzten lursailei buruzko informazioa eskuratzeko eskaerari buruzkoa (gomendioa eta legezko betebeharren gogorazpena)
 - 05/33/M espedientea, Nafarroako arroketako harraparien zentsuei buruzko informazioa eskuratzeko eskaerari buruzkoa (legezko betebeharren gogorazpena)
 - 05/80/U espedientea, babes ofizialeko etxebizitzaren zentsuari buruzko informazioa eta zentsua martxan jartzeari buruzkoa (gomendioa)
 - 05/118/U espedientea, babes ofizialeko etxebizitza bat deskalifikatzeko eskariari ez erantzuteari buruzkoa (legezko betebeharren gogorazpena)
 - 05/128/U espedientea, babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko maileguen interesak ordaintzeko diru laguntzak luzatzeko eskaera bideratzeari buruzkoa (gomendioa)
 - 05/204/U espedientea, babes ofizialeko etxebizitza eskuratzegatik diru laguntza emateko eskariari ezezkoa emateari buruzkoa (gomendioa)
 - Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua
 - 05/30/F espedientea, epaileek Nafarroako Gobernuko zaintzaile izateko oposizioa balio gabetzeak parte hartzaileengan izan dituen ondorioei buruzkoa (iradokizuna)
- TOKI ADMINISTRAZIOA
- Iruñeko Udala
 - 05/94/M espedientea, Iruñeko argi kutsadurari buruzko informazioa eskuratzeko eskaerari buruzkoa (legezko betebeharren gogorazpena)
 - 05/125/O espedientea, Mendillorriko ikastetxe publikoko jolastokian sartzeko zailtasunei buruzkoa (gomendioa)
 - Olaztiko Udala
 - 04/380/V espedientea, auzo elkarte batek Elkarteen Udal Erregistroan izena emateko eskariari buruzkoa (gomendioa)
 - Castejónko Udala
 - 04/394/V espedientea, mugarriztatze prozesua geldiarazteari buruzkoa (gomendioa)
 - Leringo Udala
 - 04/213/B espedientea, Leringo eraikin eta eremu publikoetan ibiltzeko aukerei buruzkoa (legezko betebeharren gogorazpena)
 - Azkoiengo Udala
 - 04/381/M espedientea, Azkoiengo taberna batek eragiten dituen eragozpenei eta kutsadura akustikoari buruzkoa (legezko betebeharren gogorazpena)
 - 04/412/C espedientea, Azkoiengo udal kiroldegia erabiltzeagatik ezarritako zigorrari eta alegazioei ez erantzuteari buruzkoa (gomendioa)

- Uharteko Udala
 - 04/367/E espedientea, Uharteko haur eskolako hainbat elementuren egoerari buruzkoa (gomendioa)
 - San Martin Unxeko Udala
 - 05/91/U espedientea, San Martin Unxeko errepide edo kale baten bide eskasari buruzkoa (gomendioa)
 - Noaingo Udala
 - 05/203/U espedientea, beste eraikin bat eraikitzen ari direla-eta, etxebizitza batzuen atzealdeko pasabide bat erabiltzeko baldintzei buruzkoa (iradokizuna)
 - Murugarrengo Kontzejua
 - 05/67/U espedientea, hirigintza zerbitzuak gauzatzeko hirigintza hitzarmena onartzen atzeratzeari buruzkoa (gomendioa)
- ONARTU EZ DIREN EBAZPENAK**
- NAFARROAKO GOBERNUA
- Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua
 - 05/60/B espedientea, Cortesetik Iruñeko Carmen Aldave Erietxera joateko garraio zerbitzu egokitua eta lagundua izateko eskariari buruzkoa (gomendioa)
 - 05/162/B espedientea, ustez adimen gaixotasunak jotako pertsonen arteko bizikidetasunari buruzkoa (gomendioa)
 - Osasun Departamentua
 - 05/21/S espedientea, Osasunbideko Ginekologia Zerbitzuak kisteak ez detektatzeagatik erantzukizuna nori dagokion argitzeari buruzkoa (gomendioa)
 - 05/43/S espedientea, 60/2003 Foru Aginduaren bidez sortutako Garuneko eta Bizkarrezur Muineko Gaitzen Unitatea abian jartzen atzeratzeari buruzkoa (gomendioa)
 - 05/107/C espedientea, Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko zabalguneko barne errotulazioari buruzkoa (iradokizuna)
 - 05/142/S espedientea, ezegonkortasun emozionalen nortasun arazoa duen gaztea erietxean laguntzeko tokia lortzeko eskariari buruzkoa (gomendioa)
 - 05/171/S espedientea, Bideko Ama Ospitaleko Psikiatria Zerbitzuak hurrengo egunean gazte bat hil duen pertsonari eman dion laguntzari buruzkoa (gomendioa)
- 05/217/S espedientea, Dietetika espezialitateko itxaron zerrendari buruzkoa (gomendioa)
 - 05/248/S espedientea, Nafarroan haurdunaldia norbere borondatez eteteari buruzkoa (gomendioa)
- Hezkuntza Departamentua
 - 04/414/F espedientea, bulegoburuaren eta haren mendeko irakasle aholkulari baten soldaten arteko aldeari buruzkoa (gomendioa)
 - 05/71/E espedientea, hezkuntza premia bereziak dituen ikasle baten egoerari eta D ereduko curriculum aniztasunari buruzkoa (gomendioa)
 - 05/82/E espedientea, ikasleak ikastetxeetan onartzeko irizpide osagarriari buruzkoa (gomendioa)
 - 05/137/F espedientea, Lanbide Heziketan, zaintzaile izateko goi mailako ikastaroetan sartzeko zailtasunei buruzkoa (gomendioa)
 - Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua
 - 05/145/A espedientea, autoak konpontzeko lantegi baten jarreragatik Kontsumo Zerbitzuaurrean salaketa bideratzeari buruzkoa (gomendioa)
- BESTE ERAKUNDE BATZUK
- Erriberri aldeko Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea
 - 05/161/B espedientea, etxeko laguntza zerbitzua bertan behera geratzea Murillo el Cuen den (gomendioa)
- TOKI ADMINISTRAZIOA
- Genevillako Udala
 - 05/76/A espedientea, abere taldeak Genevillako kaleetan barrena etengabe ibiltzeagatik zikinkerari buruzkoa (legezko betebeharren gogorazpena)
 - Andosillako Udala
 - 05/54/O espedientea, Andosillako zeharbidea berritzeko lanek etxebizitza batean izan duten eraginari buruzkoa (gomendioa)
 - Ollarango Udala
 - 05/96/V espedientea, zergadun batek ordaintzeke dituen tasei eta zergei buruzko informazioa eskatzeari buruzkoa (legezko betebeharren gogorazpena)

ERANTZUTEKE DAUDEN EBAZPENAK

NAFARROAKO GOBERNUA

- Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua
 - 05/242/S espedientea, adimen gaixotasun larriak dituzten pertsonak laguntzeko errehabilitazio psikosozialeko zentroak abian jartzeari buruzkoa (gomendioa)
 - 05/318/S espedientea, adimen gaixo bat erietxean sartzeko eskariari buruzkoa (gomendioa)
- Osasun Departamentua
 - 05/242/S espedientea, adimen gaixotasun larriak dituzten pertsonak laguntzeko errehabilitazio psikosozialeko zentroak abian jartzeari buruzkoa (gomendioa)
 - 05/246/S espedientea, Altsasuko Josefina Arregui Klinikako errehabilitazio tratamenduari buruzkoa (gomendioa)
 - 05/258/S espedientea, Neuropediatria Zerbitzuak emandako laguntzari buruzkoa (gomendioa)
 - 05/300/S espedientea, Oftalmologiako itxaron zerrendari buruzkoa (gomendioa)
 - 05/347/S espedientea, azterketa onkologikoak egiten atzeratzeari buruzkoa (gomendioa)
- Hezkuntza Departamentua
 - 05/195/E espedientea, hezkuntzako premia bereziak dituzten ikasleen fitxategia osatzeko beharrezko datuen bilketa prozedurari buruzkoa (gomendioa)
- Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua
 - 05/220/M espedientea, herritarrei aireko ozono troposferikoaren kopuruari buruz ematen zaien informazioari buruzkoa (gomendioa)
- Ekonomia eta Ogasun Departamentua
 - 05/168/C espedientea, Nafarroako Zerga Ogasunak herritarrak euskaraz ez erantzun eta hartzeari buruzkoa (gomendioa)
- Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua
 - 05/234/C espedientea, gaztelaniazko eta euskarazko izen ofiziala duten udalerrien izena

eremu mistoko errepideetako seinaleetan ageritako moduari buruzkoa (gomendioa)

- Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua
 - 05/73/B espedientea, enplegu zentro berezien funtzionamendua ikuskatzeari buruzkoa (gomendioa)
- TOKI ADMINISTRAZIOA
- Iruñeko Udala
 - 05/160/I espedientea, gertatutakoa ikusi ez duen agente batek herritar bati ezbeharrak gertatu den lekutik bere datuak utzi gabe alde egiteagatik jarri dion zigorrari buruzkoa (gomendioa)
 - 05/239/U espedientea, Iruñeko Udalaren zortzi orube etxebizitzak egiteko enkante bidez esleitzeari buruzkoa (gomendioa)
- Murillo el Frutoko Udala
 - 05/179/A espedientea, herri lur zatiak mugarrizatzeari buruzko informazio eskariari buruzkoa (iradokizuna)
- Tuterako Udala
 - 05/322/B espedientea, familia ugarietako Tuterako Udala Dantza Eskolan izen emateko kuotak ordaintzeko hobariei buruzkoa (gomendioa)
- San Adriánoko Udala
 - 05/184/M espedientea, San Adriánoko Udala baimenik ez duen beilatokiaren jarduna dela eta egindakoari buruzkoa (legezko betebeharren gogorazpena)
- Berriozarko Udala
 - 05/251/M espedientea, Berriozarko sakelako telefono deien oinarritzeko estazio baten kokalekuari buruzkoa (gomendioa)
- Baztango Udala
 - 04/325/U espedientea, Elizondoko lerrokatzeen xehetasunei eta antolamenduari buruzko azterketari buruzkoa (gomendioa)
- Arlegiko Kontzejua
 - 05/93/O espedientea, Kontzejuko kideei eman izan zaien informazioari buruzkoa (legezko betebeharren gogorazpena)

06 EBALUAZIO ESTADISTIKOA

6.1. 2005eko KEXEN ESTADISTIKA

Lehenik eta behin, 2005. urtean hartu ditugun kexen kudeaketa laburbiltzen duen taulari erreparaturaz gero, aurtengo kexa kopurua aurreko urteko kexa kopuruaren ia berdina izan dela antzematen da: 415 aurkeztu dizkigute aurten, eta 416 joan den urtean. Alta, amaitutzat eman ostean dena delako auzia berriz aztertu beharra dela-eta berriro abiatu diren kexak (guztira, hamabi) eta, 2004koak izan arren, urte hartako abenduaren 31n amaitutzat emateke zeuden eta aurten amaitu ditugun kexak (guztira, 81) kontuan hartuz gero, emaitza 2005. urtean 508 kexa kudeatu ditugula da; kopuru hori 2004. urtean kudeatutako kexen kopurua baino nabarmen txikiagoa da, 564 kexa analizatu baikeituen orduan.

Beharakada hori 2004. urtean ebazteke gelditu ziren kexen kopurua (81) aurreko urteetako kopuruaren aldean txikiagoa izatearen ondorioz gertatu da funtsean. Alabaina, 2005. urtean ebazteke gelditu diren kexen kopurua aurreko urteetakoaren antzekoa da, 2005eko abenduaren 31n 133 kexa utzi baititugu ebatzi edo amaitutzat eman gabe.

Alde horretatik, nabarmentzekoa da 1.849 kexa aurkeztu direla guztira Arartekoa abian izan den lehenengo bost urte hauetan.

2005. urtean planteatutako kexak direla-eta, azter ditzagun jorrazten dituzten gaiak, orain arte egindako egituraketaren arabera. Horrekin bat, kexa gehienak osasun arloari buruzkoak izan direla antzeman daiteke, 53 kexak landu baitute atal hori (hau da, kexa guztien % 12,77k). Osasunaren ondotik, hirigintza eta etxebizitza arloak eragin du kexa gehien; hain zuzen ere, 53 kexa (hartu ditugun kexa guztien % 12,53) hirigintzari eta etxebizitzari buruzkoak izan dira, eta kopuru hori 2004ko kopuruaren bera da (aurreko urteetako baino handiagoa), etxebizitza arloan aurkeztu diren kexak direla-eta besteak beste.

Jarraian, honako hauek izan dira kexa multzorik esanguratsuenak: hezkuntza arlokoa (44 kexa, % 10,60), lanaren eta gizarte segurantzaren alorrekoa (36 kexa, % 8,67), ingurumen arlokoa (33 kexa, % 7,95), barne arlokoa (31 kexa, % 7,47) eta gizarte ongizatearen alorrekoa (30 kexa, % 7,23).

Urtearen eta arloaren arabera kexen bilakakera islatzen duen koadroa aztertuz gero, joera hori mantendu egin dela ikusiko dugu, lanari eta gizarte segurantzari eta ingurumenari buruzko kexak azaleratu direlako izan ezik. Izan ere, kexa gehienak aipatutako gai horiekin lotuta egon dira aurreko urteetan ere, hurrenkera desberdina izan arren.

2005. urtean hartutako kexen azterketaren ildotan, gehienak (182 guztira, hau da, kexa guztien % 43,86) foru administrazioaren aurkakoak izan dira, eta horietako 181, Nafarroako Gobernuaren departamentuen jardunaren aurkakoak. Era berean, 112 kexa aurkeztu dira Nafarroako toki erakundeen ekimenean aurka, hau da, kexen % 26,99, eta horietako 38 Iruñeko Udalari zegozkion. Azkenik, aurkeztutako kexetako 121 (% 29,15) bestelako erakundeen jardunaren kontrakoak izan dira, hala nola, estatuko administrazioaren -64-, epaileen -10-, erakunde pribatuen -14-, beste batzuen -14- eta zehaztu gabekoen -19- kontrakoak.

Berriro ere, 2004. urtean bezala, Osasun Departamentuaren aurka aurkeztu da kexa gehien departamentu guztien artean, baina urte hartan baino hamabi kexa gehiago planteatu dira aurten, eta kopuru osoa 49koa izan da (hots, Nafarroako Gobernuaren kontra aurkeztutako kexen % 26,92). Bigarren multzorik handiena Hezkuntza Departamentuak eragindakoa izan da, 45 kexa (% 24,73) aurkez daitezzen eragin baitu, eta hirugarrena, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua, 29 kexa (Nafarroako Gobernuari buruzkoen % 15,93) sorrarazi ditu eta.

Nafarroako toki erakundeei dagokionez, berriz, Iruñeko Udalak eragin du kexa gehien, pentsatzekoa denez; zehazki, 38 kexa hartu ditugu hari buruz, toki erakundeen kontra aurkezturikoen % 33,93.

Edonola ere, kexak alor edo erakunde jakin batzuekin lotu arren, garrantzitsua da beharrezko zehaztapenak egitea; izan ere, kexa ugari aurkeztu eta errepikatu egiten direla ikusirik, alor horietan utzikeria, gehiegikeria edota legediarekin bat ez datozen jokabideak daudela ondorioztatu liteke bestela. Ildo horretan, administrazio jakin baten aurka aurkeztutako kexa kopurua baino askoz garrantzitsuagoa da administrazio edo erakunde jakin batek oker jokatu duela onartu eta kexa aurkeztu duenari arrazoia ematen zaion kasu kopurua. Halaber, administrazio edo erakunde horiek gure informazio eskariak edo guk emandako ebazpenak direla-eta duten jarrera ere kexa kopurua baino garrantzitsuagoa da hainbatetan.

Kexen jatorriari dagokionez, bestalde, gehienak Iruñetik datoz (189 guztira), beti bezala. Ondotik, Tuteratik helarazitakoak ditugu, hain zuzen, 32 kexa. Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioarekin sinaturiko esparru hitzarmenaren bitartez ezarri den sistemaren ondorioz, kexak zuzenean igor daitezke, aurrez frankeatutako inprimakiak daudelako hitzarmenera atxikitako udaletan, eta, sistema horren onspen mailaren eta funtzionamenduaren adierazle gisa, nabarmentzekoa da 19

kexa heldu zaizkigula mekanismo horri esker, aurreko urtean bezala.

Bestalde, Nafarroako udalerrriak biztanle kopuruaren arabera banatuta biltzen dituen koadroa erantsi dugu eta, bertan antzeman daitekeenez, 100.000 biztanletik gorako udalerrietan (Iruñean) sortzen da kexa gehien. Jarraian, 2.000 biztanletik 10.000ra bitarteko udalerrriak ditugu, azken bi urteotan bezala.

Kexen egileak direla-eta, berriz, lehenengo aldiz emakumezkoek kexa gehiago aurkeztu dituzte gizonezkoek baino: emakumeek 183 kexa planteatu dituzte (kexa guztien % 44,10), eta gizonezkoek, 180 (% 43,37). Beste 44 kexa kolektiboak izan dira, alegia, pertsona multzo batek aurkeztutakoak (% 10,60).

Estatistikari buruzko iruzkin hau txertatu ditugun tauletan eta grafikoetan islatuko dugu jarraian baina, azkenik, gatozen administrazioek informazio eskariei eta emandako ebazpenei eman dieten erantzuna ebaluatzeraz.

65 ebazpen (gomendio, legezko betebeharren gogorarazpen eta iradokizun) eman ditugu guztira 2005. urtean. 2004. urtean 70 eman genituen, 91 2003. urtean, 48 2002. urtean, eta 24 2001. urtean.

65 ebazpen horietako hemeretzi erantzuteke daude oraindik, eta 29 onartu egin dira; 17, aldiz, ezetsi egin dira. Hau da, gure ebazpenen % 64 onartu dira gutxi gorabehera eta, ehuneko horrek gora egin lezakeen arren erantzuteke dauden hemeretzi ebazpenak onartuz gero eta 2004ko ehunetikotik (% 60tik) gorakoa den arren, beste urte batzuetakoa baino nabarmen txikiagoa da, % 70etik gorakoa izan da eta.

Hala ere, kontuan hartu beharra dago administrazioak onartzen dituen ebazpenen ehunekoa % 87koa izanen litzatekeela gutxi gorabehera, administrazioak herritarren eskaerak onartu edo planteatutako arazoari aurre egiteko irtenbideren bat ebazten duen kasuak aintzat hartuko bagenitu; halakoetan, arartekoak izan du nolabaiteko esku-hartzerik, baina ez da beharrezkoa izan inolako ebazpenik ematea.

83 aldiz gertatu da hori eta, onartutako 29 ebazpenak erantsiz gero kopuru horri, administra-

zioak 112 aldiz onartu du guztira kexen egileen eskaera; gure ustez, ordea, herritarrek 148 kexatan zuten arrazoi.

Aipatutako datuak eta ehunekoak behar bezala interpretatze aldera, 2005. urtean kudeatutako kexak laburbiltzen dituen taula edo grafikoa aztertuko dugu berriro ere. Alde horretatik, kontuan izan beharra dago 508 kexa bideratu direla guztira urte horretan, urte horretakoak zein aurreko urteetakoak izan, eta horietako 332 onartu direla bideratzeko (% 65,35). 130 kexa (% 25,59), berriz, ez dira onartu, baina administrazioak ez onartzeko arrazoiengatik azalpena eta informazioa eman dio herritarrari, baita bestela zituen aukeren berri ere. Gainera, bideratzeko onartu ez diren kexa horietako 46 (% 9,05) Espainiako arartekoari edo beste autonomia erkidegoetako batzuetako arartekoei igorri zaizkie, kexek jorratzen zituzten eskumen esparruen arabera.

Bideratzeko onartutako 332 kexei dagokienez, gainera, nabarmentzekoa da arartekoak 148 kexaren (2005. urtean kudeatutako 508 kexen % 29,13en) kariatara eman diola arrazoiak erreklamazioa aurkeztu duenari, lehen aipatu dugun moduan. Aitzitik, 51 kexaren (kasu guztien % 10,03ren) kariatara ez dio eman arrazoirik; horretarako, kexa aurkeztu duenak emandako datuak eta administrazioak arartekoak kexa espedientea bideratzearen ondorioz igorritako informazioa aztertu du alde aurretik. Hartara, bideratzeko onartu ez diren 130 kexen eta izapidetzeko onartu baina aurkeztu duenari arrazoiak eman ez zaion 51 kexen batuketa eginez gero, 181 kexa ditugu guztira, hau da, kudeatutako kexa guztien % 35,62.

Jakina, amaitutzat emateke dauden 133 kexak ere hartu behar dira kontuan kopuru horiek interpretatzeko, 2004. urtean kudeatutako % 26,18, hain zuzen ere. Kexa espediente horiek amaitutzat eman ondoren ikusiko da aipatutako zein multzotan sartu behar diren.

Arartekoak 2005. urtean kexen alorrean egingandako lana ageri da honako taula eta grafiko haueetan eta, bertan, arestian aipatu ditugun datuak ikus daitezke xehetasun handiagoz, baita egindako erreklamazioak ez onartzeko eta aurkeztutako kexak izapidetzeko ez onartzeko arrazoiak ere.

2005. URTEA KEXA KUDEAKETAREN LABURPENA			
	2005. urtea	Aurreko urteak	GUZTIRA
ABIATUAK	415	93	508
Bideratzeko onartuak	256	76	332
Erreklamazioa egin duenari eman zaio arrazoi	90	58	148
Administrazioak onartuak	64	48	112
Administrazioak onartutako eskariak	17	14	31
Administrazioak onartutako ebazpenak	17	11	28
Isiltasunari buruz onartutako gogorazpena	1	0	1
Ebazteko bidean	29	23	52
Administrazioak onartu gabeak	9	8	17
Ez du ebazpena onartu (34. artikulua)	9	8	17
Erantzuteke dauden ebazpenak	17	2	19
Erantzuteke dauden ebazpenak	17	2	19
Erreklamazio bideratu eta ezetsiak	36	15	51
Irregularitasunik ez	34	15	49
Juridiko pribatua	1	0	1
Sub iudice	1	0	1
Amaitutzat emateke	130	3	133
2005-12-31n amaitutzat emateke	130	3	133
Bideratzeko onartu gabeak	116	14	130
Egilearekin lotutako arrazoiaren ondorioz	15	5	20
Izenik gabea	1	0	1
Datu faltan	2	5	7
Kenduak	7	0	7
Berretsi gabeak	3	0	3
Interes zilegirik gabea	1	0	1
Kexaren gaiarekin lotutako arrazoiaren ondorioz, interesdunari aholku eman ostean	101	9	110
Irregularitasunik ez	41	2	43
Juridiko pribatuak	11	1	12
Eskumenik ez	8	3	11
Sub iudice	10	0	10
Eskaerarik ez	4	1	5
Administrazioarengana jo gabe	13	0	13
Amaitutzat emanak, gaia jorratuta	14	2	16
Beste mandatari batzuei igorriak	43	3	46
Beste ararteko batzuei bidaliak	1	0	1
Espainiako arartekoari igorriak	42	3	45

NAFARROAKO APARTEKOA		GUZTIRA
2005. URTEA. Arloaren eta gaiaren araberako banaketa		
A. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA		12
Nekazaritza	8	
Merkataritza	3	
Industria	1	
B. GIZARTE ONGIZATEA		30
Zaharrak	14	
Haurrak eta nerabeak	5	
Ezinduak	7	
Beste batzuk	4	
C. KULTURA, KIROLA, GAZTERIA ETA ELEBITASUNA		11
Kultura	1	
Kirola	1	
Elebitasuna	9	
E. HEZKUNTZA		44
F. FUNTZIO PUBLIKOA		26
H. OGASUNA		19
I. ZIRKULAZIOA ETA BARNEA		31
Barnea	11	
Zirkulazioa	20	
J. JUSTIZIA		21
M. INGURUMENA		33
O. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK		25
Herri lanak	6	
Zerbitzuak	19	
S. OGASUNA		53
T. LANA, GIZARTE SEGURANTZA ETA ATZERRITARRAK		37
Lana	7	
Gizarte segurantza	15	
Atzerritarrak	15	
U. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA		52
Hirigintza	27	
Etxebizitza	25	
V. BESTELAKOAK		18
D. ESKUBIDEEN SUSTAPENA		3
GUZTIRA		415

**2005. URTEAN ABIATUTAKO KEXAK
ALORREN ARABERAKO BANAKETA**

Jardun esparruak	Guztira	Ofiziozkoak	Planteatutakoak	Bideratzen	Amaitutzat emanak	Onartu gabek	Beste ararteko batzuei igorriak
NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA	12	0	12	6	5	1	0
GIZARTE ONGIZATEA	28	2	30	10	10	9	1
KULTURA, KIROLA, GAZTERIA ETA ELEBITASUNA	11	0	11	4	4	3	0
HEZKUNTZA	43	1	44	15	22	6	1
FUNTZIO PUBLIKOA	27	0	27	7	7	9	4
OGASUNA	19	0	19	4	4	9	2
BARNEA ETA ZIRKULAZIOA	31	0	31	9	8	6	8
JUSTIZIA	21	0	21	1	3	10	7
INGURUMENA	33	0	33	24	5	4	0
HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK	25	0	25	6	11	3	5
OSASUNA	53	0	53	22	16	15	0
LANA, GIZARTE SEGURANTZA ETA ATZERRITARRAK	36	0	36	1	6	15	14
HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA	50	2	52	17	21	13	1
BESTELAKOAK	17	1	18	4	2	12	0
ESKUBIDEEN SUSTAPENA	3	0	3	0	2	1	0
GUZTIRA	409	6	415	130	126	116	43

**AURREKO URTEETAKO KEXAK
ALORREN ARABERAKO BANAKETA**

Jardun esparruak	Abiatuak	Berriro abiatuak	Guztira	Bideratzen	Amaitutzat emanak	Onartu gabek	Beste ararteko batzuei igorriak
NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA	1	0	1	0	1	0	0
GIZARTE ONGIZATEA	6	1	7	0	5	2	0
KULTURA, KIROLA, GAZTERIA ETA ELEBITASUNA	3	1	4	0	4	0	0
HEZKUNTZA	5	0	5	0	5	0	0
FUNTZIO PUBLIKOA	3	2	5	1	3	1	0
OGASUNA	5	0	5	0	5	0	0
BARNEA ETA ZIRKULAZIOA	7	0	7	0	1	4	2
INGURUMENA	13	5	18	1	16	1	0
HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK	9	2	11	0	9	1	1
OSASUNA	10	0	10	0	10	0	0
HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA	13	1	14	1	10	3	0
BESTELAKOAK	6	0	6	0	4	2	0
GUZTIRA	81	12	93	3	73	14	3

2005. URTEA
KEXEN BANAKETA HILABETEZ HILABETE


Hilabeteak	Kexak	Ehunekoa
Urtarrila	26	% 6,27
Otsaila	30	% 7,23
Martxoa	30	% 7,23
Apirila	52	% 12,53
Maiatza	32	% 7,71
Ekaina	38	% 9,16
Uztaila	19	% 4,58
Abuztua	20	% 4,82
Iraila	40	% 9,64
Urria	37	% 8,92
Azaroa	58	% 13,98
Abendua	33	% 7,95
GUZTIRA	415	% 100,00

2005. URTEA
KEXEN BANAKETA EGILEAREN ARABERA

Nork	Kexak	Ehunekoa
Gizonezkoak	180	% 43,37
Emakumezkoak	182	% 43,86
Kolektiboak	45	% 10,84
Ofiziozkoak	4	% 0,96
Zehaztugabeak	3	% 0,72
Izenik gabea	1	% 0,24
GUZTIRA	415	% 99,76

2005. URTEA
ERREGISTRO OROKORRA

Erregistroa	Dokumentuak
SARRERA	1.369
KEXAK	415
IRTEERA	2.608



Erregistro orokorra. 2005. urtea

ADMINISTRAZIOARI BURUZKO KEXAK

	KEXA KOPURUA	EHUNEKOA
FORU KOMUNITATEKOA	182	% 43,86
TOKIKOA	112	% 26,99
ESTATUKOA	64	% 15,42
JUDIZIALA	10	% 2,41
ERAKUNDE PRIBATUAK	14	% 3,37
BESTELAKOAK	14	% 3,37
ZEHAZTU GABEAK	19	% 4,58
GUZTIRA	415	% 100,00

**NAFARROAKO GOBERNUARI BURUZKO KEXAK
DEPARTAMENUAREN ARABERA**

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Dep.	1	% 0,55
Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Dep.	19	% 10,50
Ekonomia eta Ogasun Dep.	10	% 5,52
Kultura eta Turismo Dep. – Vianako Printzea Erakundea	2	% 1,10
Hezkuntza Dep.	45	% 24,86
Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Dep.	10	% 5,52
Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Dep.	4	% 2,21
Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Dep.	29	% 16,02
Lehendakaritza, Barne eta Justizia Dep.	12	% 6,63
Osasun Dep.	49	% 27,07
GUZTIRA	181	% 100,00

NAFARROAKO TOKI ERAKUNDEEI BURUZKO KEXAK	
UDALAK	GUZTIRA
ANDOSILLA	1
ANTSOAIN	1
ARTAXOA	1
BARAÑAIN	2
BEIRE	1
BERIAIN	1
BERRIOBEITI	1
BERRIOZAR	2
BURGI	1
BURLATA	3
ZARRAKAZTELU	1
CASCANTE	1
ZIZUR ZENDEA	1
ZIZUR NAGUSIA	1
CORELLA	2
DESOJO	1
LIZARRA	1
ESTERIBAR	1
EZKAROZE	1
GENEVILLA	1
GOIZUETA	1
LEITZA	2
LESAKA	1
LODOSA	1
IRUNBERRI	1
MARTZILLA	1
MENDIGORRIA	1
MILAGRO	1
MURCHANTE	2
MURILLO EL FRUTO	3
NOAIN	1
ERRIBERRI	2
OLLO	1
IRUÑA	38
GARES	2
PIUI	1
SAN ADRIÁN	2
SAN MARTIN UNX	2
TAFALLA	4
TUTERA	3
VILLAFRANCA	1
VILLATUERTA	1
ATARRABIA	1
ZABALTZA	1
ZUÑIGA	2
	UDALAK, GUZTIRA 101
KONTZEJUAK	
ARLEGIKO KONTZEJUA	1
ARAMENDIKO KONTZEJUA	1
MURUGARRENGO KONTZEJUA	1
ERREZUKO KONTZEJUA	1
	KONTZEJUAK, GUZTIRA 4
MANKOMUNITATEAK	
IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA	3
HONDAKIN SOLIDOEN MANKOMUNITATEA	1
JURRAMENDIKO MANKOMUNITATEA	1
ERRIBERRI ALDEKO GIZARTE ZERBITZU OINARRIZKOEN MANKOMUNITATEA	1
MAIRAGAKO MANKOMUNITATEA	1
	MANKOMUNITATEAK, GUZTIRA 7
GUZTIRA	112

2005. URTEA			
NAFARROAKO KEXEN JATORRIA HERRIZ HERRI			
UDALERRIA	KEXAK	SINATZAILEAK	KEXEN %
ABLITAS	1	3	% 0,25
ANDOSILLA	2	2	% 0,51
ANTSOAIN	4	4	% 1,02
AÑEZKAR	1	1	% 0,25
AGOITZ	1	0	% 0,25
ARANTZA	1	1	% 0,25
ARBEITZA	1	1	% 0,25
ARBONIES	1	1	% 0,25
ARLEGI	1	1	% 0,25
ARRAITZ-ORKIN	1	1	% 0,25
ARRE	1	1	% 0,25
ARTAXOA	1	1	% 0,25
ARTAZU	1	1	% 0,25
ASTERAIN	1	1	% 0,25
AUZA	2	2	% 0,51
AIEGI	2	2	% 0,51
BARAÑAIN	11	27	% 2,80
BEASOAIN-EGILLOR	1	1	% 0,25
BEIRE	1	1	% 0,25
BERA	1	1	% 0,25
BERBINTZANA	1	1	% 0,25
BERIAIN	1	1	% 0,25
BERROETA	1	1	% 0,25
BERRIOZAR	5	5	% 1,27
BIURRUN	1	1	% 0,25
BURLATA	22	22	% 5,60
CADREITA	1	1	% 0,25
ZARRAKAZTELU	1	0	% 0,25
CASCANTE	1	1	% 0,25
CASTEJÓN	2	1	% 0,51
CINTRUÉNIGO	5	5	% 1,27
ZIZUR TXIKIA	1	1	% 0,25
CORELLA	2	2	% 0,51
CORTES	2	1	% 0,51
DEIKAZTELU	1	1	% 0,25
ETXARRI ARANATZ	1	1	% 0,25
ELIZONDO	2	2	% 0,51
ESNOTZ	1	1	% 0,25
ESPARTZA GALAR	1	1	% 0,25
LIZARRA	7	7	% 1,78
ETXALAR	1	1	% 0,25
ETXARREN	1	1	% 0,25
ETXAURI	1	2	% 0,25
ETXEBERRI	1	1	% 0,25
EZKAROZE	1	1	% 0,25
FALTZES	1	1	% 0,25
FUNES	2	2	% 0,51
GENEVILLA	1	1	% 0,25
GOIZUETA	1	1	% 0,25
GORRAITZ	3	3	% 0,76
GORRITI	1	1	% 0,25
IRAGI	1	1	% 0,25
IRAIZOTZ	1	1	% 0,25
IRURITA	1	0	% 0,25
LEGASA	1	1	% 0,25
LEITZA	1	1	% 0,25
LESAKA	2	2	% 0,51

LODOSA	5	5	% 1,27
IRUNBERRI	1	1	% 0,25
MARTZILLA	2	3	% 0,51
MENDABIA	1	1	% 0,25
MURCHANTE	1	1	% 0,25
MURILLO EL FRUTO	1	1	% 0,25
MUTILOABEITI	2	2	% 0,51
NOAIN	2	2	% 0,51
OLATZAGUTIA	1	1	% 0,25
ERRIBERRI	3	4	% 0,76
ORKOIEN	2	2	% 0,51
ORORBIA	1	1	% 0,25
IRUÑA	189	199	% 48,09
AZKOIEN	1	1	% 0,25
GARES	4	7	% 1,02
PUJU	1	1	% 0,25
ERREZU	1	1	% 0,25
SALDISE	1	1	% 0,25
SAN ADRIÁN	1	1	% 0,25
SAN MARTIN UNX	1	1	% 0,25
ZANGOZA	2	3	% 0,51
SANTAKABA	1	1	% 0,25
TAFALLA	7	7	% 1,78
TUTERA	32	106	% 8,14
UNDIO	1	2	% 0,25
URROTZ	1	1	% 0,25
VALTIERRA	1	1	% 0,25
VIANA	1	1	% 0,25
ATARRABIA	1	1	% 0,25
ZIZUR NAGUSIA	7	7	% 1,78
ZUÑIGA	2	2	% 0,51
PROBINTZIA, GUZTIRA	393	498	% 100,00

2005. URTEA**NAFARROAKO KEXEN JATORRIA BIZTANLE KOPURUAREN ARABERA**

UDALERRI MOTA	KEXA KOPURUA	EHUNEKOA
2.000 biztanletik beherakoak	48	% 12,21
2.001etik 10.000ra bitartekoak	60	% 15,27
10.001etik 20.000ra bitartekoak	44	% 11,20
20.001etik 50.000ra bitartekoak	43	% 10,94
100.001 biztanletik gorakoak	189	% 48,09
Zehaztugabeak	9	% 2,29
GUZTIRA	393	% 100,00

2005. URTEA			
KEXAK. BESTE PROBINTZA BATZUETAKOAK			
UDALERRIA	KEXAKSINATZAILEAK		KEXEN %
Amurrio	1	1	
Araba, guztira	1	1	% 4,76
Bartzelona	1	1	
Sabadell	1	1	
Santa Perpetua de Mogoda	2	2	
Bartzelona, guztira	4	4	% 19,05
Elgoibar	1	1	
Donostia	5	6	
Tolosa	1	2	
Gipuzkoa, guztira	7	9	% 33,33
Alfaro	1	1	
Logroño	2	2	
Errioxa, guztira	3	3	% 14,29
Madril	1	1	
Madril, guztira	1	1	% 4,76
Salceda de Caselas	1	1	
Pontevedra, guztira	1	1	% 4,76
Salamanca	1	1	
Salamanca, guztira	1	1	% 4,76
La Puebla de Híjar	1	1	
Teruel, guztira	1	1	% 4,76
Zaragoza	2	2	
Zaragoza, guztira	2	2	% 9,52
ESPAINIAKOAK, GUZTIRA	21	23	% 100,00

2005. URTEA


EMANDAKO EBAZPENAK ETA TRAMITAZIO EGOERA

Jardun esparruak	Abiatuak	Gomendioak	Iradokizunak	Guztira	Kexak	Bideratzen	Amaitutzat emanak	Onartuak	Txostenean sartuak
NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA	1	1	1	3	3	1	2	0	2
GIZARTE ONGIZATEA	1	6	0	7	7	2	5	3	2
KULTURA, KIROLA, GAZTERIA ETA ELEBITASUNA	0	3	1	4	4	2	2	1	1
HEZKUNTZA	1	7	1	9	9	1	8	6	2
FUNTZIO PUBLIKOA	0	2	1	3	3	0	3	1	2
BARNEA	0	1	0	1	1	1	0	0	0
INGURUMENA	4	3	0	7	7	2	5	5	0
HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK	1	3	0	4	4	1	3	2	1
OSASUNA	0	15	0	15	15	7	8	2	6
HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA	1	7	1	9	9	2	7	7	0
BESTELAKOAK	1	2	0	3	3	0	3	2	1
GUZTIRA	10	50	5	65	65	19	46	29	17

**NAFARROAKO ARARTEKOAREN EBAZPENAK
ZENBATERAINO ONARTU DIREN**

GOMENDIOAK


Egindakoak:	50
Onartuak:	19
Onartu gabeak:	15
Erantzuteke daudenak:	16



**NAFARROAKO ARARTEKOAREN EBAZPENAK
ZENBATERAINO ONARTU DIREN**

LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENAK


Egindakoak:	10
Onartuak:	7
Onartu gabeak:	1
Erantzuteke daudenak:	2



**NAFARROAKO ARARTEKOAREN EBAZPENAK
ZENBATERAINO ONARTU DIREN**

IRADOKIZUNAK

Egindakoak:	5
Onartuak:	3
Onartu gabeak:	1
Erantzuteke daudenak:	1



6.2. KEXEN BILAKAERA 2001 ETA 2005 ARTEAN

Txosten honetan barrena argitu dugunez, Nafarroako arartekoak erakundea sortu eta jardunean hasi zenetik (2001eko martxoaren hasieratik) egin duen urteko bosgarren txostena da.

Hau da, erakundea abian izan den bost urteotan egin dugun lanaren balantzea egiteko parada izan dugu eta, urteko txostenen bitartez, ikuspegi fidagarria plazaratu dugu aldi honetan gauzatu ditugun ekimenei buruz.

Horregatik, garrantzizkoa iruditu zaigu atal honen bidez egin dugun lanari (zehazki, herritarrek aurkeztutako kexei) buruzko hainbat datu esanguratsu ematea, urte bakoitzeko urteko txostenean ageri diren datuetatik abiatuta, aipatu bost urteon gaineko ikuspegi orokorra izate aldera.

Ildo horretan, urtero kudeatzen ditugun eta azkenean bideratzeko onartzen ez ditugun kexak direla-eta, 132 kexa bideratzeari uko egin diogu bost urte hauetan, kexa egin duen pertsonaren inguruko arrazoiak direla medio; alegia, ez ditugu onartu dela ez duelako bere izena eman, dela berarekin harremanetan jartzeko helbiderik eman ez duelako, dela eman dituen datuak osatu gabe zeudelako...

Bestalde, bost urteotan kexaren gaiarekin lotutako arrazoiak direla medio bideratzeko onartu ez ditugun 480 kexak direla-eta, horietako 261 Arartekoari buruzko Foru Legeak xedatzen duen gisara planteatu ez direlako baztertu dira; hots, ez dituzte bete Foru Legeak arartekoak esku hartu egin dezan ezartzen dituen baldintzak, lantzen zituzten gaiak partikularren artekoak zirelako, harreman juridiko pribatuen esparruan sartzen zirelako, epai-leen esku zeudelako, arartekoaren eskumenekoak ez zirelako, aurrez dena delako administrazioaren aurrean azaldu ez zirelako... Azkenik, 189 aldiz ez dugu antzeman inolako irregulartasunik zegoenik dena delako administrazioaren jardunaren aldetik,

eta 30 aldiz, arartekoak dena delako gaia aurrez jorratu duela-eta, erakundeak eman duen iritzia eta hartu diren neurriak jakinarazi dizkiegu kexen egileei. Edonola ere, esan beharra dago kasu horietan guztietan aholku eman ere egin zaiela kexak aurkeztu dituztenei.

Herritarrek erreklamazioen ondorioz erakundera jo duten aldiei buruzko datuei dagokienez, berriz, helburua zifren arabera ikuspegia ematea da, zehazkiago islatzearren arartekoaren jardun esparruari buruzko hasiera bateko aurreikuspenak bilakatu egin direla eta, batez ere, denboran barrena protagonismo eta sendotasun handiagoa eskuratu duten kexa arlo jakin batzuk eratu direla. hau da, arartekoarengana jo den aldi kopurua, hainbat alderdik arartekoaren inguruan planteatzen duen "ekoizpen" maila islatzea.

Hartara, kexek aipatzen dituzten alorrekin bat, barne arloa izan da gatazkatsuena bost urte hauetan aurkeztu diren 1.849 kexen artean, lehenengo urteetan zirkulazioarekin lotutako zehapen prozeduren ondorioz hartu dugun kexa kopurua handia dela-eta besteak beste.

Salbuespen hori izan ezik, ordea, urte hauetan guztietan kexa gehien sorrarazi duten alorrak berberak izan dira urtez urte ere, hurrenkera ezberdina izan arren. Hain zuzen ere, alor horiek administrazioaren zerbitzuzko alderdiarekin zuzenean lotutakoak izan dira, zehatz-mehatz, hirigintza eta etxebizitza (batik bat, etxebizitza), osasuna, gizarte ongizatea, hezkuntza eta herri lanak eta zerbitzuak, eta 130 kexa baino gehiago aurkeztu dira bakoitzean.

Jakina, datu horiek zuzeneko harremana dute arartekoak bost urte hauetan eman dituen 298 ebazpenekin (gomendioekin, iradokizunekin eta gogorarazpenekin) eta, ildo horretan, hirigintza eta etxebizitza arlokoak (39), osasun arlokoak (41), gizarte ongizatearen alorrekoak (33), hezkuntza arlokoak (28) eta kultura, kirol eta elebitasun arlokoak (28) izan dira ugariak.

**KEXEN BILAKAERA ALORREZ ALOR
2005. URTEA**

Gaia	2001. URTEA		2002. URTEA		2003. URTEA		2004. URTEA		2005. URTEA	
	Kexa kop.	%	Kexa kop.	%	Kexa kop.	%	Kexa kop.	%	Kexa kop.	%
NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA	9	% 2,83	15	% 3,78	16	% 5,28	11	% 2,64	12	% 2,89
GIZARTE ONGIZATEA	17	% 5,35	36	% 9,07	24	% 7,92	40	% 9,62	30	% 7,23
KULTURA, KIROLA, GAZTERIA ETA ELEBITASUNA	12	% 3,77	40	% 10,08	15	% 4,95	19	% 4,57	11	% 2,65
HEZKUNTZA	18	% 5,66	28	% 7,05	22	% 7,26	24	% 5,77	44	% 10,60
FUNTZIO PUBLIKOA	35	% 11,01	29	% 7,30	19	% 6,27	29	% 6,97	27	% 6,51
OGASUNA	15	% 4,72	17	% 4,28	16	% 5,28	22	% 5,29	19	% 4,58
BARNEA	84	% 26,42	48	% 12,09	36	% 11,88	58	% 13,94	31	% 7,47
JUSTIZIA	12	% 3,77	29	% 7,30	17	% 5,61	15	% 3,61	21	% 5,06
INGURUMENA	9	% 2,83	14	% 3,53	11	% 3,63	21	% 5,05	33	% 7,95
HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK	23	% 7,23	25	% 6,30	16	% 5,28	41	% 9,86	25	% 6,02
OSASUNA	15	% 4,72	30	% 7,56	29	% 9,57	38	% 9,13	53	% 12,77
LANA, GIZARTE SEGURANTZA ETA ATZERRITARRAK	11	% 3,46	33	% 8,31	15	% 4,95	31	% 7,45	36	% 8,67
HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA	26	% 8,18	39	% 9,82	36	% 11,88	52	% 12,50	52	% 12,53
BESTELAKOAK	32	% 10,06	14	% 3,53	31	% 10,23	15	% 3,61	18	% 4,34
ESKUBIDEEN SUSTAPENA									3	% 0,72
KEXAK, GUZTIRA	318	% 100,00	397	% 100,00	303	% 100,00	416	% 100,00	415	% 100,00


ALORREZ ALOR GUZTIRA AURKEZTUTAKO KEXEN TAULA

2001/2005 URTEAK

(2005eko abenduaren 31n)

ARLOA	GUZTIRA
Barnea	257
Hirigintza eta etxebizitza	205
Osasuna	165
Gizarte ongizatea	147
Funtzio publikoa	139
Hezkuntza	136
Herri lanak eta zerbitzuak	130
Lana eta gizarte segurantzza	126
Bestelakoak	110
Kultura, kirola, gazteria eta elebitasuna	97
Justizia	94
Ogasuna	89
Ingurumena	88
Nekazaritza, industria, merkataritza eta turismoa	63
Eskubideen sustapena	3
GUZTIRA	1849


Kexak alorraren arabera. 2001-2005



KEXEN BILAKAERA HILABETEZ HILABETE
ERAKUNDEA ABIAN JARRI ZENETIK

	2001	2002	2003	2004	2005
Urtarrila	1	52	26	42	26
Otsaila	0	38	22	42	30
Martxoa	0	49	14	37	30
Apirila	76	28	22	31	52
Maiatza	45	39	26	42	32
Ekaina	31	38	31	49	38
Uztaila	11	22	17	28	19
Abuztua	11	23	9	27	20
Iraila	23	19	27	26	41
Urria	39	25	33	37	37
Azaroa	34	31	47	27	58
Abendua	18	33	29	28	33
GUZTIRA	289	397	303	416	416

KEXEN BILAKAERA HILABETEZ HILABETE ETA URTEZ URTE



2001-2005 ALDIAN KUDEATU EGIN DIREN BAINA IZAPIDETZEKO ONARTU EZ DIREN KEXEN KONPARAZIOZKO TAULAK
(2005eko abenduaren 31n)

URTEAK	2001	2002	2003	2004	2005
Kudeatuak	318	513	489	564	508
Bideratzeko onartuak	229	352	347	307	332
Bideratzeko onartu gabeak	53	113	111	205	130
Beste ararteko batzuei igorriak	36	48	31	52	46
EZ ONARTZEKO ARRAZIOAK	2001	2002	2003	2004	2005
Egilearekin lotutako arrazoien ondorioz	8	22	26	56	20
Izenik gabeak	1	2	2	2	1
Helbiderik gabeak			1	2	
Datu faltan	7	10	12	34	7
Kenduak		5	6	4	7
Erreplikatuak		2	1	2	
Berretsi gabeak			4	10	3
Interes zilegirik gabeak				2	1
Kexaren gaiarekin lotutako arrazoien ondorioz, interesdunari aholku eman ostean	45	91	85	149	110
Irregularitasunik ez	6	31	33	76	43
Juridiko pribatuak	17	19	6	12	12
Urtebete baino gehiago	6	6	2	2	
Eskumenik ez	6	5	16	15	11
Sub iudice	7	14	14	13	10
Eskaerarik ez	3	7	6	5	5
Administrazioarengana jo gabe		9	5	15	13
Amaitutzat emanak, gaia jorratuta			3	11	16
TRAMITERA ONARTU EZ DIREN KEXAK, GUZTIRA	53	113	111	205	130

NAFARROAKO ARARTEKOAREN EBAZPENAK (GOMENDIOAK, IRADOKIZUNAK ETA LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENAK)
2001-2005 ALDIAN ALORREZ ALOR
(2005eko abenduaren 31n)

ARLOA	2001	2002	2003	2004	2005	GUZTIRA
NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA	3	5	4	2	3	17
GIZARTE ONGIZATEA	3	3	13	7	7	33 (*)
KULTURA, KIROLA ETA ELEBITASUNA		7	8	9	4	28 (*)
HEZKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA		5	9	5	9	28 (*)
FUNTZIO PUBLIKOA	2	5	4	3	3	17
OGASUNA	4	2	7	4		17 (*)
BARNEA	2	5	5	2	1	15
JUSTIZIA			2	2		4
INGURUMENA	2	3	6	8	7	26
HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK	2	5	7	7	4	25
OSASUNA	1	3	10	12	15	41 (*)
LANA, GIZARTE SEGURANTZA ETA ATZERRITARRAK	1					1 (*)
HIRIGINTZA ETA ETXEIBIZITZA	4	4	14	8	9	39 (*)
BESTELAKOAK		1	2	1	3	7
GUZTIRA	24	48	91	70	65	298

(*) Ez ditugu txosten berezietako gomendio espezifikoak gehitu, gai hauei eta kasuan kasuko administrazio publiko eskudunei buruzkoak izan arren.

07 HERRITARREKIKO HARREMAN ZUZENA

Herritarrekiko harreman zuzena Informazio Bulegoaren bitartez lantzen da; hain zuzen ere, Informazio Bulegoa duela bi urte sortu zen eta, horrenbestez, hedatu egiten ari da oraindik.

Bestalde, arartekoak zuzenean hartzen ditu eskatu egiten duten herritarrek eta taldeak, euren arazoer berri zuzenean jakitearren.


7.1. INFORMAZIO BULEGOA

Informazio Bulegoak informazio sistemak eta erakundera jotzen duten herritarrekin kontsulta zuzenean egiteko sistemak hobetzen jarraitu du

2005. urtean barrena. Ildo horretan, kalitate planaren esparruan xedatutako ekimenen ildoan, erakundeko langile batzuek lan taldea osatu dute 2005eko azken hiru hilabeteetan, herritarrei ematen zaien laguntza hobetzeko proposamenetan aurrera egin eta herritarrek arartekoarengana (zehazki, Informazio Bulegora) errazago jotzeko aukera izan dezaten; lehenengo ondorioetako bat Informazio Bulegoak eman duen laguntzaren laburpen estatistikoa egitea izan da.

Informazio Bulegoaren lanaren kalitateari buruzko iritzia oso ona izan da, 11. atalean, kalitatearen ebaluazioari eta hobekuntzari buruzkoan egiazta daitekeenez.

**Informazio Bulegoak artatu dituen pertsonak
2005. urtea**




2005. urtean zehar, Informazio Bulegoak 488 pertsona hartu ditu guztira; hain zuzen ere, urrian eta azaroan hartu ditu pertsona gehien, hurrenez hurren, 53 eta 54 herritar bertaratu baitira hilabete horietan. Alde horretatik, oporraldiek oso baldintzatzen dute Informazio Bulegoaren jarduna baina, oro har, Bulegoaren lana poliki-poliki baina etengabe handiagotzen ari dela ikusten da. Goranzko joera horrek segitu egin du 2006ko lehenengo hilabeteetan, eta uste dugu erakundearen berri zabaltzeko ekimenean eta arartekoa bera komuni-

kabideetan gehiago agertzearen ondorio izan dela hori (ikus 8. atala, zabalkunde jardueri buruzkoa).

Kontsultak egiteko aukeratutako bidea

Herritarrek telefono bidez jo dute gehienbat Informazio Bulegora, egin diren kontsulten % 55,9 (273 kontsulta) horrela egin dira eta; % 42,4 (207 kontsulta), berriz, gure bulegoetan bertan egin dira. Gainerako kontsultak, azkenik, postaz eta posta elektronikoz bidez egin dira; hain zuzen ere, bost aldiz (% 1,02) posta bidez hartu ditugu, eta hiru (% 0,6), posta elektronikoz.

Informazio bulegoan kontsultak egiteko aukeratutako bidea



Hau da, Internet edo posta elektronikozko harremana ohiz kanpoko da eta, hori dela-eta, erakundeak helbide elektronikoa zabaltzeko kanpaina bat egitea pentsatu du, gazteentzat batez ere.

Kontsulteren eta laguntzen edukia

Kontsulta hauen edukia oso antzekoa da kexa idazkiek planteatzen dituzten gaien aldean. Hala ere, badago desberdintasunik, kontsulta batzuen helburua ez baita Nafarroako arartekoak zuzenean esku hartzea, erakundeak dena delako auzia konpontzen esku har dezakeen jakitea baizik.


Ildo horretan, herritarrak dena delako arazoa planteatu ondoren, arartekoak egoera hori aztertzeko esku har dezakeen ala ez jakinarazten zaio. Arazo hori arartekoaren eskumenekoa bada eta esku hartzerik badu, nola egiten duen azaltzen dugu eta, beharrezkoa bada, kexa idazkia egiten laguntzen diogu interesa duen hari. Aitzitik, gaia dela-eta, arartekoak eskumenik ez badu, eskura dugun informazio guztia ematen diogu, edo arazoa konpontzen lagun lezakeen instantziara bideratzen dugu.

Kontsulteren emaitzak

Gure bulegoetara etortzen direnek eta gugana telefono edo posta bidez jotzen duten pertsonen

egiten dituzten kontsulteren eta elkarrizketen helburua Nafarroako arartekoak euren arazoa konpontzen lagun diezaiekeen jakitea da. Halere, eskura dugun informazioa eman ostean, herritarrak berak erabakitzen du zer egingen duen. Hartara, gurekin harremanetan jarri diren 488 pertsonen % 27,6k (135 pertsonak) kexa idazkia igorriko zigitela jakinarazi digute; % 11,6ri (57 pertsonari) erantzuteko, berriz, beste erakunde publiko batzuekin harremanetan jarri behar izan dugu, dena delako auzia argitu eta kontsultagilea egokiro orientatu edo informatze aldera; % 2,4k (12 pertsonak) ez digute nahikoa datu edo elementurik eman informazio zuzena emateko; eta, azkenik, elkarrizketen %53 (262 kasu) kontsulta egin duenak kexa idatzia aurkeztuko duen ala ez argitu gabe amaitu dira, dela Nafarroako arartekoak auzi jakin batzuk (besteak beste, harreman juridiko pribatuen esparrukoak eta aurrez epaileen aurrean planteatu direnak) ezin ikertu dituela azaldu zaiolako, dela aurretik dena delako arazoa konpondu behar duen erakunde publiko eskudunera jo ez duelako.

Informazio bulegoan artatu ondorengo emaitza



7.2. ARARTEKOAREKIKO BANAKAKO ELKARRIZKETAK

Ohikoa denez, arartekoak banakako elkarrizketak egiten ditu eskatu egiten duten herritarrekin eta, horregatik, 64 elkarrizketa eman ditu 2005. urtean: horietako 51 arartekoaren egoitzan bertan eman ditu, Iruñean, eta beste hamahiruak, Tuterako Rua Gizarte Etxean.

Era berean, arartekoa hainbat herritar elkarteekin eta taldeekin bildu da: Otiak 3 urtera bitarteko Haurrentzako Eskolen aldeko Udalen Biltzarrarekin, Gurasoekin, Amnesty Internationalekin, Gizarte Azterketak Sustatzeko Institutuarekin, SOS Arrazakeriarekin, Cardenal Ilundain ikastetxeko Guraso Elkartearekin, Patxi Larrainzar ikastetxeko

Guraso Elkartearekin, ONCEekin, Behatokiarekin, Adimen Osasuneko Nafarroako Elkartearekin, Munduko Medikuekin, Adimen Osasuneko Bilgunearekin, Ezinduen Ordezkarien Nafarroako Batzordearekin, Mugarik Gaberekin eta Nafarroako Gorren Elkartearekin zein Eunaterekin.

Azkenik, bitartekotza eta sustapen ekimenen kariatara, arartekoa hainbat arduradun publikoekin, Parlamentuko taldeen, Nafarroako Gobernua- ren, Udalen Federazioaren, Prentsaren Elkartearen, Institutuetako Zuzendarien Elkartearen eta Gazteriaren Kontseiluaren ordezkariekin, unibertsitateetako (Nafarroako Unibertsitateko eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko) arduradunekin... bildu da.

08 ZABALKUNDE JARDUERAK

Arartekoaren erakundea berria da oraindik ere eta, beraz, zabalkunde jarduerak gauzaten jarraitu behar du, herritarrei bere eginkizuna eta mugak jakinarazi eta haiek zerbitzu publiko berri hau ego-kiro erabil dezaten.

Honako atal honetan ikusiko dugunez, erakundea nahiko ezaguna da, baina bere eginkizunak, ostera, ez horrenbeste.

Batetik, zerbitzua erabiltzen dutenei egindako inkestetatik ondorioztatzen da haien % 50,9 Nafarroako arartekoak esku hartzeko dituen aukerak uste baino handiagoak direla ohartu direla haren-gana jo ostean eta, aitzitik, % 12,7ri soilik gertatu zaiela alderantzizkoa, alegia, Nafarroako arartekoak esku hartzeko aukerak espero baino txikiagoak izatea (ikus 11.6. atala). Hori dela-eta, pentsatzea da, herritarrek gure erakundea hobeto ezagutzuz gero, aukera gehiago daudela euren eskubideak babesteko.

Bestetik, arartekoak egin behar duen zabalkunde lanak herritarren eskubideak sustatzeko ekimenak areagotu beharko lituzke, dituzten eskubideak jakinarazi eta talderik ahul eta behartsuenek sistema demokratikoak euren eskubideak babesteko ezarri dituen mekanismoak berdintasunezko baldintzetan erabil ditzaten eragozten duten kultur, gizarte eta ekonomia arloko oztopoak desagerrazteko balio behar luke eta.

8.1. HERRITARREK ARARTEKOARI BURUZ DUTEN EZAGUTZA

CIES enpresak telefono bidezko inkesta egin berri du Nafarroako herritarrek artean. Hain zuzen ere, 16 urtetik gorako 1.200 pertsonaz osatutako lagina eratu du, eta helburua Nafarroako Parlamentuaren mendeko erakundeen (besteak beste, arartekoaren) gaineko ezagutza zenbaterainokoa den aztertzea izan da.

Honako emaitza hauek eman ditu inkestak:

ENTZUN AL DUZU NAFARROAKO ARARTEKOAREN ERAKUNDEAREN BERRI?

Entzun al duzu erakundearen berri?	Nafarroa, guztira
Bai	% 91
Ez	% 9
Guztira	% 100

Herritarren %91k Nafarroako arartekoaren erakundearen berri entzun du, eta ehuneko hori oso handia dela jo dezakegu, erakundeak bost urte besterik ez dituela kontuan izanik.

Gizon	Emaku.	16-25	26-35	36-55	56-65	>65
% 90	% 92	% 76	% 93	% 97	% 91	% 90

Adinaren eta sexuaren arabera, ezagutza homogeneoa da, 25 urtetik beherakoena izan ezik; hain zuzen ere, haiek (% 76k) entzun dute gutxien erakundearen berri.

Iruña eta Iruñerria	Liza-rraldea	Goi Erribera	Tutera	Nafarroaren erdialdeko ekialdea	Mendi-aldea
% 92	% 92	% 91	% 89	% 89	% 89

Eskualdearen eta udalerrien biztanle kopurua arabera, aldeak ez dira esanguratsuak, nahiz eta badirudien ezagutza pixka bat eskasagoa dela udalerritik.

Iruña	>10.000	5.001-10.000	1.001-5.000	<1.000
% 93	% 92	% 91	% 88	% 88%

Lanbidearen arabera, ikasleek entzun duten gutxien erakundearen berri.

Besteren kontu	Norbere Langabe	Erretiro kontu	Etxeko-andreak	Ikasleak
% 94	% 94	% 93	% 91	% 74

BA AL DUZU ERAKUNDEAREN EGINKIZUNEN BERRI?

Ba al duzu erakundearen eginkizunen berri?	Nafarroa, guztira
Bai	% 63
Pixka bat	% 22
Ezer ez	% 6
Ez du erakundearen berri	% 9
Guztira	% 100

Herritarrek oro har entzun duten arren erakundearen berri, ez da gauza bera gertatzen haren eginkizunarekin, nahiko alde handiak daude eta.

Ildo horretan, inkesta erantzun duten herritarren % 63k haren eginkizunen berri dute; % 22k, berriz, zer edo zer dakite; eta, azkenik, % 15ek ez dakite ezer erakundearen eginkizunei buruz edo ez dute haren berri entzun.

Mendi-aldea	Liza-rraldea	Nafarroaren erdialdeko ekialdea	Goi Erribera	Tutera	Iruña eta-Iruñerria
% 50	% 64	% 66	% 47	% 66	% 67

Eskualdeen arabera, erakundearen eginkizunei buruzko ezjakintasuna handiagoa da Mendialdean eta Goi Erriberan (eta udalerritik), hurrenez

hurren, % 50ek eta % 47 baino ez baitute esan haien berri dutela.

Iruiña	>10.000	5.001-10.000	1.001-5.000	< 1.000
% 70	% 68	% 64	% 55	% 49

Adinaren eta sexuaren arabera, erakundearen eginkizunen gaineko ezagutza pixka bat handiagoa da gizonezkoen eta helduen artean eta, berriro ere, 25 urtetik beherakoek osatzen dute erakundearen eginkizunen berri gutxien dutenen multzoa.

Gizon	Emaku.	16-25	26-35	36-55	56-65	>65
% 64	% 61	% 38	% 65	% 72	% 75	% 56

Ogibidearen arabera, etxeko andreak eta ikasleek dute erakundearen eginkizunen berri gutxien, hurrenez hurren, % 57k eta % 36k soilik eman baitute baiezkua.

Norbere kontu	Besteren kontu	Langabe	Erretiro dunak	Etxeko-andreak	Etxeko-ikasleak
% 71	% 68	% 67	% 64	% 57	% 36

8.2. KOMUNIKABIDEETAN IZANDAKO PRESENTZIA

Komunikabideetan ohiko presentzia izatearen helburua erakundea ezagutarazi eta, batik bat, arartekoaren eginkizuna ulertaraztea da.

Ildo horretan, arartekoak 21 prentsa ohar, zazpi prentsaurreko, bederatzirratsaio eta hiru elkarrizketa egin ditu 2005. urtean.

Batetik, prentsaurrekoak 2005-2007 aldirako plan estrategikoa, prostituzioari buruzko txosten berezia, zaharrei buruzko txosten berezia, haurrak Interneten aurka babesteko kanpaina, bizikidetasunean hezteko lantegia eta Herritarren Eskubideei buruzko Toki Planean parte hartzen duten udalekin sinatutako hitzarmenak aurkezteko eman dira.

Bestetik, irratsaioak SER irrati katean, Nafarroako Unibertsitateko irrati katean, Nafarroako COPEN, RNE eta Onda Ceron eman dira, eta elkarrizketak, berriz, Canal 6 Navarran, ETBn eta Popular TVn.

Azkenik, lehenengo aldiz erakundea abian jarri zenetik, arartekoak toki erakundeekin batera lan egiteari ekin dio 2005eko azken hiru hilabeteetan, eta aldizka eta hilero parte hartzen hasi da bi irratsaiotan, Onda Ceron eta Nafarroako COPEN. Bi irratsaiook ordu erdi irauten dute gutxi gorabehera, antzeko egitura dute eta honako hauek lantzen dituzte:

- Erakundearen gaineko ezagutza orokorra: Zertarako balio du? Zertan dihardu? Kexa asko hartzen al ditu? Zer erakunderen aurrean aurkez daitezke kexak? Zer egin behar da kexa aurkezteko? Egiten al diete administrazioek jaramon arartekoaren gomendioei? Zer iritzi dute herritarrek arartekoari buruz? Zer kexa mota hartzen dira sarrien?
- Herritarren eskubideekin zerikusia duten berriak: Genero Indarkeriaren aurkako Eguna, Haurrei buruzko Legea onartzea, Patxi Larrainzar ikastetxeko barrakoiak jendaurrean salatzea, Adimen Osasuneko Nafarroako Elkarteak gaixok errehabilitazio psikosozialeko zentro berriak erabiltzeagatik ordaindu beharra salatzea, Saharaz azpiko etorkinak...
- Gai nagusi bat zabaltzea: haurrak Interneten aurka babestea, etxebizitza arloko eskubideak, etab.
- Hartzen diren kezarik ohikoenen eta kexa hartu berrien adibideak
- Doako telefono zenbakia (900 702 900 telefono zenbakia) zabaltzea

Alde horretatik, eskertzekoa da bi irrati kate horiek ematen diguten laguntza eskuzabala, hilabete batzuk besterik pasatu ez diren arren, eragin handia izaten ari baita antza.

8.3. "EGIN" KANPAINA

Aurreko urteetan erakundearen doako telefono zenbakia (900 702 900 telefono zenbakia) ezagutarazteko antolatuta den kanpaina indartze aldera, publizitate kanpaina jarri dugu abian. Kanpaina horretako leloa "Egin" izan da, eta Kukumuxu enpresa entzutetsuak eskuzabaltasun osoz guretzat egin duen diseinu grafiko batean oinarritu da.

Kanpaina horrek hiru hilabete iraun du, eta kostu osoa 21.000 eurokoa baino pixka bat handiagoa izan da. Zehatz-mehatz, honako hauek egin ditugu kanpainaren esparruan:

- Erakundeari buruzko informazio orokorra ematen duten 4.000 liburuxka argitaratu ditugu (horietako 1.000, euskaraz).
- 1.500 kartel plazaratu ditugu (horietako 500, euskaraz).
- 30 iragarki argitaratu ditugu guztira tokiko prentsan hiru hilabeteetan barrena.
- Telebista pantailaren beheko aldean zehar mugitzen den iragarkia eman dugu 190 aldiz.
- 295 iragarki eman ditugu irratan.

Prentsarako iragarkia



Liburuxka, zabalik (kanpoko aldea)

<p>Defensora del Pueblo Ararteko Navarra-Nafarroa</p> <p>Enblea Artea: 12 31002 Iruña Tel: 900 702 900 Fax: 948 033 549 Posta elektronikoa: info@defensora-navarra.com www.defensora-navarra.com</p> <p>900 702 900</p> <p>Zure eskubideen alde</p>	<p>Horrela, EZ</p> <p>Zer da Auzartekoak?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erakunde independentea da, eta herriaren interesak du helburu; administrazio publikoak egindako gertuekiren edo zurraketen aurkari. • Nafarroako Parlamentuak erabakitako erakundea da, kezak inertzia, gehiegikeriak, salatu, gomendioak eman, ditzarkearizta lana egin eta erabakiak aldatzeko proposatzen ditu. • Dagozko zerbitzua da, arreta pertsonalerako. 	<p>Horrela, BAI</p> <p>Zer egingen du Auzartekoak?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Herriaren babestu Nafarroako administrazio publikoaren aurkari. • Bideratzen du lana, herriaren eta administrazioaren artean. • Herriaren eskubideen kontuak egin dituzten egonez irengulak berri eta horien aurka egin. • Gomendioak proposatu eta, beharrezkoa bada, eskubide horiek kaltetzen dituzten arauak aldatu. • Nafarroako Parlamentuak bere jardueran bertan eman. 	<p>ez egon zain...</p> <p>ekiozu</p>
---	---	---	--------------------------------------

Liburuxka, zabalik (barneko aldea)

<p>Horrela, EZ</p> <p>Auzartekoak zain kasutan ezin du esku hartu?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Partikularen arteko gatazka izan eta tartean administrazio publikoaren bati tartuta ez dagoelarik. • Ararake erabakidaren dagueraren. 	<p>Horrela, BAI</p> <p>Noiz jo dezaket edo jo behar dut Auzartekoarengana?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Edozein administrazio edo zerbitzu publikoaren konpondu gabeko arazoren bati auzarari. • Erreklamazioa egin arren, zure arazoari erantzune eman ez diotenean. 	<p>Defensora del Pueblo Ararteko Navarra-Nafarroa</p> <p>Enblea Artea: 12 31002 Iruña Tel: 900 702 900 Fax: 948 033 549 Posta elektronikoa: info@defensora-navarra.com www.defensora-navarra.com</p> <p>900 702 900</p> <p>Zure eskubideen alde</p>	<p>Horrela, EZ</p> <p>Zer da Auzartekoak?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erakunde independentea da, eta herriaren interesak du helburu; administrazio publikoak egindako gertuekiren edo zurraketen aurkari. • Nafarroako Parlamentuak erabakitako erakundea da, kezak inertzia, gehiegikeriak, salatu, gomendioak eman, ditzarkearizta lana egin eta erabakiak aldatzeko proposatzen ditu. • Dagozko zerbitzua da, arreta pertsonalerako.
---	---	---	---



“Egin” kanpainako kartela



“Egin” kanpainaren esparruan telebistan emandako iragarkiko azken fotograma

8.4. SARTZEN ERRAZA DEN WEB GUNE BERRIA

Ezintasunen bat duten pertsonak zailtasunak izan litzakete web guneak erabiltzeko, hainbat oztopo dela medio, eta, oztopo horien ondorioz, ezinduek berez pairatzen duten diskriminazio areagotu egiten da gehienetan, ezin dituztelako aprobetxatu sareak eskaintzen dituen izugarritzko komunikazio aukerak hezkuntza arloko programak, lan munduarekin harremana duen informazioa, jardueri eta programei buruzko informazioa, Interneteko informazio orokorra... eskuratzeko.

Hain zuzen ere, honako hauek dira, besteak beste, web guneetan sartzeko arazorik ohikoena:

- Irudiek testurik ez izatea
- Klik egin daitekeen mapetan testurik ez izatea

- Guneetako egiturazko elementuak oker erabiltzea
- Entzunezkoek azpitolurik ez izatea eta irudiak ez deskribatzea
- Markoak eta programa kapsulatuak erabili ezin dituztenentzako informaziorik ez izatea
- Lerrokatu egiten direnean interpretatzen zailak diren taulak
- Koloreen arteko kontraste txikiko web guneak

Horregatik guztiagatik, indarrean dagoen araudiak euren web orrialdeak egokitu eta sarean ibiltzeko estandarrak 2005eko abenduaren 31 baino lehen betetzera behartzen ditu administrazio publiko guztiak. Betebehar hori arartekoaren erakunde-ari ere dagokio eta, hori dela-eta, kanpoko enpresa bat alokatu du, bere web orria eskakizun tekniko horietara egokitzearen.

The screenshot shows the website of the Defensora del Pueblo Ararteko Navarra-Nafarroa. The header includes navigation links: Contacto, Euskara, Mapa del sitio, and Buscador. The main content area features a navigation menu on the left with items like Inicio, Defensora del Pueblo, Atención al Ciudadano, Actualidad, Resoluciones, Publicaciones, and Enlaces. The central part of the page displays a portrait of María Jesús Aranda Lasheras, the Defensora del Pueblo de Navarra, with a welcome message and a description of the institution's role. Below this, there are several icons representing different areas of focus: MUJERES, DISCAPACIDADES, INMIGRACIÓN, WEB DEL MENOR, TERCERA EDAD, FORD DERECHOS CIUDADANOS, RED DE ASOCIACIONES COLABORADORAS, and MUNICIPIOS COLABORADORES. The footer contains legal information, including a Privacy Policy, Legal Notice, Accessibility, and Copyright notice, along with the contact address: C/ Emilio Arrieta, 12 31002 Pamplona Tfno. 948 20 35 71 Fax 948 20 35 49. Copyright © 2006 Defensora Navarra.

Web gunea egokitze horren ondorioz, ikusizko irudia ere aldatu da.

Zoritxarrez, atzerapen txiki bat dela-eta, gure web gunea abenduaren 31ra arte ez da egon abian baina, azkenean, 2006ko lehenengo hiru hilabeteetan jarri da martxan:

www.defensora-navarra.com

8.5. GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO MASTERRA ALCALÁ DE HENARESKO UNIBERTSITATEAN

Nafarroako arartekoa Giza Eskubideen Babesari buruzko II. Masterrean txostengile gisa parte hartzera gonbidatu dute azaroan. Master hori Alcalá de Henaresko Unibertsitateak antolatzen du, Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko eta Europako Zuzenbidean Espezializatzeko Ikastaroaren esparruan, Espainiako arartekoarekin, Espainiako Herri Administrazioaren Institutuarekin eta Espainiako Atzerri Arazoetako eta Lankidetzako Ministerio-ko Giza Eskubideetako Bulegoarekin batera.

Txostenaren edukia eskualdeetako arartekoen aurrean kexak aurkezteari buruzkoa izan da, eta hiru atalek osatu dute: atal teorikoak, batetik; atal praktikoak, erakundearen aurrean aurkezten diren kexen edukiari buruzkoak, bestetik; eta jardunaldi-eta bertaratutakoekiko solasaldiek, azaldutako alderdiei buruzko iritzi eta galdera trukeak, azkenik.

Azalpenaren atal teorikoari dagokionez, erakundearen antolamenduarekin berarekin eta erakundeak herritarrek planteatzen dituzten kexen ondorioz egiten duen ikuskatze lanarekin aparteko harremana duten hiru multzo egituratu dira funtsean:

a) Nafarroako arartekoari buruzko arauzko xedapenak, Nafarroako Arartekoa sortzeko prozesuari buruzko aipamen laburra, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeari buruzko aipua eta haren ezaugarri batzuk

- Nafarroako arartekoa eta beste autonomia erkidego batzuetako arartekoak sortzeko prozesua
- Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen ezaugarri batzuek, batik bat, honako hauek ikuskatzeko xedapenek
 - Beste batzuek kudeatzen dituzten zerbitzuak edo, zerbitzu publiko baten mende aritzen direnez gero, administrazioak nolabait kontrolatu edo babesten dituen erakundeen jarduna
 - Foru Komunitateak udal araubidearen alorrean izan dituen eskumen historikoak direla-eta, Nafarroako toki erakundeak

b) Arartekoei helarazten zaizkien kexen biderapena oinarritzen duten printzipioei buruzko aipamena, faseen azterketa eta fase bakoitzean kontuan hartu beharrekoak

- Faseak
 - Hasiera ematea

- Ikerkuntza
- Amaitutzat eman edo ebazpena ematea
- Arartekoen ikerkuntza lanaren eta jardunaren laburtasuna eta formaltasunik eza
 - Administrazioarengandik erantzuna hartzeko epea
 - Administrazioaren ikerkuntza lana hasteko unea
 - Informazio eskaria bideratzea eta administrazioarekiko bitartekotza lana
- Administrazioak arartekoei laguntza eman beharra
- Norbere iritzia eta jarrera arrazoitu beharraren garrantzia
- Ebazpenak
 - Gomendioak
 - Iradokizunak
 - Ohartarazpenak
 - Legezko betebeharren gogorarazpenak
- Ombudsmanen jardunaren ezaugarri nabarmengarri bat bitartekotza lana delako aipamen laburra

c) Arartekoen eta administrazioaren arteko harremanak kexen bitartez bideratzeko prozedurari buruzko hausnarketak

- Kexak bideratzeko prozedura benetako prozedura den gogoetak
- Administrazio prozedura oinarritzen duten printzipioen azterketa, kexa espedienteak eta ofiziozko jarduna bideratzeko prozedura osatzen duten printzipioak ondorioztatze aldera
 - Kontraesan printzipioa
 - Prozesuaren ekonomiaren printzipioa
 - In dubio pro actione printzipioa
 - Ofizialtasun printzipioa
 - Zilegitasuna galdatzeko printzipioa
 - Alderdikeriarik ezaren printzipioa
 - Gardentasun printzipioa vs. isilpekotasun printzipioa eta arartekoak zuhurrak izan beharra. Balizko egoerak
 - => Kexa sustatzen duenak bere espedienteak eskatzea
 - => Administrazioa erreklamatzaillearen edo kexaren edukiaren berri jakin nahi izatea

=> Parlamentuko batzordeek, taldeek eta kideek informazioa eta dokumentuak eskatzea arartekoari

=> Parlamentuko batzordeek, taldeek eta kideek informazioa eta dokumentuak eskatzea arartekoari

– Prozedura doakoa izateko printzipioa

- Administrazioarekiko harremanaren beste esparru batzuk

Kexen biderapenari aparteko garrantzia eman ostean lehenengo zatian, atal honen bigarren zatian azalpenak erakundeak egiten dituen beste jardura batzuk argitu ditu batez ere, eskubideak bermatzeko eginkizuna duen erakunde orok berezkoa duen aurrea hartu eta eskubideak sustatu beharra islatzearen:

d) Erakundeak aurrea hartzeko gauzatzen duen jardunari buruzko aipamenak eta alor honetan gauzatutako ekimenei (txosten bereziei, eskubideak sustatzeari, elkarteekiko eta udalekiko harremanei...) buruzko aipu laburra

- Erakundeak gauzatzen dituen ekimenetan esperientziaren ondorioz jarraitzen duen ildoak
 - Aurrea hartzea
 - Kalitatea eta gardentasuna
- Alor honetako jarduna eta ekimenak
 - Nafarroako Parlamentuarentzako urteko txostenak
 - Nafarroako Parlamentuarentzako txosten bereziak

– Eskubideak sustatzeko beste jardura batzuk: ofiziozko ekimenak eta lana, kanpainak, udalekiko hitzarmenak, elkarte laguntzaileak...

– Argitalpenak

- Hiru urteko planaren arabera, erakundeak 2005.-2007. urteetan jarraituko dituen ildo estrategikoak

– Erakundearen jardunari buruzko aurreikuspenak eta erantzuna

– Hazi eta egitea

– Herritarren eskubideak babestu eta eskubideok gauzatu eta sustatzea

– Erakundearen eragingarritasuna

=> Herritarrekiko harremanak

=> Nafarroako administrazio publikoekiko harremanak

Lehen esan bezala, atal teorikoaren ondoren, atal praktikoaren muina erakundearen aurrean aurkezten diren kexek planteatzen dituzten egoerak osatu dute, eta estatistikarik esanguratsuenak aipatu eta funtsean administrazioaren zerbitzuko alderdiarekin (gizarte ongizatearekin, hezkuntzarekin, eta abarrekin) zerikusia duten alorretan eman diren gomendio, legezko betebeharren gogorazpen eta iradokizun batzuk aztertu dira.

Azkenik, azalpenean azaleratutako alderdi batzuk argitu ditugu solasaldiaren bitartez.

8.6. ARARTEKOAREN BESTE HITZALDI PUBLIKO BATZUK

Urtean barrena, arartekoak hainbat gairi buruzko hitzaldi publikoak eman ditu hainbat bileratan:

- Estatutuen erreformak. Baeza (Jaen). Maiatzak 5-6. Arartekoak Koordinatzeko Ohiz Kanpoko Jardunaldiak

- Zaharren mendekotasunari eta eskubideei buruzko txostena. La Ribera Erretirodunen eta Pentsiodunen Elkarte, Tuter. Maiatzak 26

- Zaharren mendekotasunari eta eskubideei buruzko txostena. Tuter. Maiatzak 31. Zaharreko solasaldiak zaharrei buruzko txosten berezia dela eta

- Gaixoen eskubideak. Iruña Park Hotela (Iruña). Ekainak 1. Marga Irabururen Con voz propia liburuaren aurkezpena

- Zaharren mendekotasunari eta eskubideei buruzko txostena. Erretirodunen Elkarte, Lekunberri. Ekainak 24

- Kudeaketa publikoaren gardentasuna eta kontrola. San Lorenzo del Escorial. Uztailak 27. Unibertsitate Konplutentseko Udako Ikastaroak

- Pobrezia eta bazterketa forma berriak. Barzelona. Ekaina. Kataluniako Síndic de Greuges erakundeari buruzko legearen XX. urteurrena ospatzeko jardunaldiak

- Zaharren mendekotasunari eta eskubideei buruzko txostena. Erretirodunen Elkarte, Arguedas. Azaroak 30

- Adimen Osasuneko Nafarroako Elkartearen XIV. Jardunaldien amaierako ekitaldia. Iruña. Urriak 6

- Alcalá de Henaresko Unibertsitateko Giza Eskubideei buruzko Masterra. Alcalá de Henares. Azaroak 24

- Eskola porrota. Benjamín Tudela Bigarren Hezkuntzako Institutuko Guraso Elkarte, Tuter. Azaroak 25

- Arartekoaren erakundea legez arautzea. Asturietako Printzerriko Biltzar Nagusia, Oviedo. Irailak 14

- Bigarren hezkuntzan balioak eta eskubideak txertatzeko estrategiak. Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruña. Ekainak 17

- Gizarteak bizikidetzan heztearen alde egiteko estrategia. Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruña. Azaroak 22


- Haurrak Interneten aurka babestea. Iruña Park Hotela, Iruña. Abenduak 20

- Eskolako eta familiarteko indarkeria. Alacant. Urriak 17-19. Espainiako Arartekoak Koordinatzeko XX. Jardunaldiak

- Genero indarkeria. Burlata. Azaroak 22. Genero Indarkeriari buruzko Astea

Halaber, betetzen duen kargua dela-eta, arartekoa xehetasunez azaltzea beharrezko ez deritzogun erakunde ekitaldi ugaritan izan da.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete	43,95 euro
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko	1,15 »
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko	1,30 »



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko ekainaren 13a

58-3. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeak 2005. urtean egindako lanari buruzko txostena
(2. or.).

(Txostena Aldizkari Ofizialaren hiru aletan argitaratzen da, 58-1, 58-2 eta 58-3. zenbakietan).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeak 2005. urtean egindako lanari buruzko txostena.

58-3 ALEKO AURKIBIDEA

9. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA JARDUERAK (4. or.).
- 9.1. Autonomia erkidegoetako arartekoak koordinatzeko jardunaldiak: "Administrazioak eta haurren zein gazteen arazoak" (4. or.).
- 9.1.1. Ondorio orokorrak (5. or.).
- 9.1.2. Gazteen osasunaren alorreko erronka berriei buruzko lantegiko proposamenak (6. or.).
- 9.1.3. Haurrei eta errealitate teknologiko eta mediatiko berriei buruzko lantegiko proposamenak (8. or.).
- 9.1.4. Justizia administrazioari eta haurrei buruzko lantegiko proposamenak (10. or.).
- 9.2. Estatutuen erreformei, gizarte eskubideei eta autonomia erkidegoetako arartekoei buruzko ohiz kanpoko jardunaldiak (13. or.).
- 9.3. Herritarren eskubideak aldizkaria argitaratzea (15. or.).
- 9.4. Arartekoek elkarrekin egindako beste jardura batzuk (16. or.).
- 9.4.1. Autonomia erkidegoetako arartekoak koordinatzeko ohiko bilerak (16. or.).
- 9.4.2. Arartekoek elkarrekin egindako adierazpena giza eskubideei eta migrazio fluxuen kontrolari buruz (16. or.).
- 9.4.3. Autonomia erkidegoetako arartekoen eta Espainiako Gobernuko presidentearen arteko elkarrizketa (17. or.).
- 9.5. Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioko batzarrean parte hartzea, Paraguain (18. or.).
- 9.6. Arartekoaren agerraldia Asturietako Printzerriko Biltzar Nagusian (Parlamentuan) (18. or.).
- 9.7. Nafarroako Unibertsitate Publikoarekiko lankidetzaren hitzarmena gizarte eskubideei buruz eztabaidatzeko lantegiak antolatzeke (19. or.).
- 9.8. Toki erakundeekiko hitzarmenak (20. or.).
10. ARARTEKOAK NAFARROAKO PARLAMENTUAN IZANDAKO PRESENTZIA (23. or.).
- 10.1. Txostenen aurkezpena Foru Araubideko Batzordean (23. or.).
- 10.1.1. 2004ko urteko txostenaren aurkezpena (23. or.).
- 10.1.2. Giza eskubideei eta Nafarroako prostituzioari buruzko txosten bereziaren aurkezpena (24. or.).
- 10.1.3. Nafarroako zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntzari buruzko txosten bereziaren aurkezpena (24. or.).
- 10.2. Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeko Legea erreformatzeari buruzko proposamen txostena Autogobernu Batzorde Txostengilearentzat (24. or.).
- 10.2.1. Testuaren proposamena (25. or.).
- 10.2.2. Arartekoaren hausnarketak erakunde gisa (26. or.).
- 10.3. Haurrak babesteko legeari buruzko proposamen txostena (34. or.).
- 10.4. Arartekoari buruzko Foru Legearen aldaketak (35. or.).
- 10.5. Antolakuntzari eta funtzionamenduari buruzko arautegiaren onarpena (35. or.).
11. KALITATEAREN EBALUAZIOA ETA HOBEKUNTZA (37. or.).
- 11.1. Herritarrentzako Laguntza Hobetzeko Taldearen proposamenak (37. or.).
- 11.2. Zerbitzuen Gutuna (38. or.).
- 11.3. Bekaduna Hartzeko Eskuliburua (38. or.).

- 11.4. Barne komunikazioaren hobekuntza (38. or.).
- 11.5. Kexak bideratzeko epeen murrizketa (38. or.).
- 11.6. Erakundearen baliagarritasunaren eta erakundeari buruzko iritziaren ebaluazioa (39. or.).
- 12. INFORMAZIO EKONOMIKOA (42. or.).
 - 12.1. 2005eko aurrekontuaren likidazioa (42. or.).
 - 12.2. Comptos Ganberaren txostena (46. or.).
 - 12.3. 2006ko aurrekontua (50. or.).
- 13. LANGILEEI BURUZKO INFORMAZIOA (56. or.).
 - 13.1. Plantila organikoa (56. or.).
 - 13.2. Bulegoan lan egiten duten pertsonen zerrenda (56. or.).
- 14. 2006. URTEKO PLANGINTZA ETA HELBURUAK (58. or.).
 - 14.1. Antolakundearen misioa, ikuspena eta balioak (58. or.).
 - 14.2. Ildo estrategikoak (59. or.).
 - 14.3. 2006ko helburuak (60. or.).
- 15. ERANSKINAK (66. or.).
 - I. ERANSKINA: ARARTEKOARI BURUZKO FORU LEGEAREN ALDAKETA (66. or.).
 - II. ERANSKINA: ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDU ERREGELAMENDU BERRIA (67. or.).
 - III. ERANSKINA: KEXARIK ESANGURATSUENEN AURKIBIDEA (73. or.).

09 ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA JARDUERAK

Erakundeen arteko lankidetzak jarduerak arartekoaren ezaugarrietako bat dira, are gehiago 2005. urtean; orduan, antzeko erakundeekiko jardueren kopuruak gora egin du, Foru Komunitateko bi unibertsitate nagusiekiko lankidetzak areagotu egin da, Nafarroako toki erakundeekiko eta elkarteekiko koordinazio lanean jarraitu da, etab.

9.1. AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO ARARTEKOAK KOORDINATZEKO JARDUNALDIAK: "ADMINISTRATIOAK ETA HAURREN ZEIN GAZTEEN ARAZOAK"

Berriro ere, Autonomia Erkidegoetako Arartekoak eta Espainiako Arartekoa Koordinatzeko Jardunaldiak erakunde horietako buruen eta laguntzaileen eta erakundeetako aholkularien arteko bilgune izan dira. Hain zuzen ere, Autonomia Erkidegoetako Arartekoak eta Espainiako Arartekoa Koordina-

tzeko XX. Jardunaldiak Alacanten antolatu dira, 2005eko urriaren 17tik 19ra bitartean.

Lehenengo aldiz, ordea, talde jakin bat estutzen duten arazoak soilik jorratu dira Jardunaldiotan. Izan ere, hurrek eta gazteek ahultasun handiko taldea osatzen dute eta, horrenbestez, arartekoek lehentasunezko arreta ematen diete.

Jardunaldiak Valentziako Generalitateko Kontseiluko lehendakariorde Víctor Campos Guinot jaunak inauguratu ditu, eta Valentziako Gorteetako lehendakari Julio de España Moya jauna izan da amaiera ekitaldiko buru.

Jardunaldiak egin baino hilabete batzuk lehenago, ohikoa denez, Andaluziako arartekoek, Kanarietako diputado del común delakoak eta Aragoiko justiziak eztabaida egin eta adostasuna lortzeko lantegiak antolatu dituzte Jardunaldietan jorratu diren gai nagusiei buruz, nor bere egoitzan:

Lantegiaren izenburua	Erakunde arduraduna	Udalerrria
"Haurrak eta errealitate teknologiko eta mediatiko berriak"	Andaluziako arartekoa	Sevilla
"Gazteen osasunaren alorreko erroka berriak"	Aragoiko Justizia	Zaragoza
"Justizia administrazioa eta haurrak"	Kanarietako Diputado del Común	Santa Cruz de Tenerife

Aurretiko lantegi horien helburua gai jakin bat sakonki aztertzea izan da, oinarritzko adostasuna lortu eta gomendio orokorrak emateko, administrazio publikoekiko harremanetan bat eginik jardun ez ezik, ararteko bakoitzaren lanean oso erabilgarriak suertatuko zaizkigun printzipio eta irizpide komunen ondarea osatzen laguntze aldera.

Ildo horretan, gori-gori dauden eta protagonizatzen haurrak dituzten gaiak aukeratu dira programaren esparruan eta, aipatu gaiez gain, Jardunaldietan indarkeriari ere eman zaio lehentasunezko arreta, bai haurrak eta gazteak subjektu pasibotzat dituen aldetik, bai hainbatetan subjektu aktibotzat dituen aldetik:

JARDUNALDIETAN LANDUTAKO GAIK

- "Haurrak eta errealitate teknologiko eta mediatiko berriak" (lantegian ateratako ondorioen aurkezpena)
- "Justizia administrazioa eta haurrak" (lantegian ateratako ondorioen aurkezpena)
- "Gazteen osasunaren alorreko erroka berriak" (lantegian ateratako ondorioen aurkezpena)
- "Interneteko delituzko edukiak eta eduki kaltegarriak" (txostengileak: Delitu Telematikotarako Guardia Zibileko Taldeko komandante

Juan Salom Clotet jauna eta PROTÉGELES elkarteko lehendakari Guillermo Cánovas Gaillemín jauna)

- “Eskolako eta familiarteko indarkeria” (txostengileak: Kataluniako síndic de greuges delakoa, Euskadiko arartekoa eta Nafarroako arartekoa)
- “Haurrak babesteko sistema eta indarkeriari aurrea hartzea” (txostengileak: Galiziako valedor do pobo delakoa eta Gaztela-Mantxako arartekoa)
- “Hiriko tribuak eta indarkeria” (txostengileak: Espainiako arartekoa eta Valentziako síndic de greuges delakoa)
- “Gazteria eta genero indarkeria” (txostengileak: Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Hezkuntzaren Psikologiako katedradun María José Díaz-Aguado Jalón andrea)

Nafarroako arartekoaren parte hartzea oso aktiboa izan da, beti bezala, proposamenak egin eta proposamenok lantegi bakoitzaren esparruko ondorioztat hartu baitira. Gainera, arartekoak “Eskolako eta familiarteko indarkeria” izeneko txostena aurkeztu du Jardunaldietan. Txostenak eta ondotik sortu den eztabaidak gizarteak bizikidetzan heztearen alde egin dezan lortzeko ekimena ekarri dute baina, ekimen hori urteko txosten honetako 4.1.6. atalean aipatu dugunez gero, ez dugu berriro ere azalduko.

Besterik gabe, Jardunaldietako ondorio orokor nagusiak eta aipatu hiru lantegietako ondorio espezifikoak laburbilduko ditugu jarraian.

9.1.1. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN HAURRENGAN ETA GAZTEENGAN ERAGINA DUTEN FENOMENOEN ETA ARAZOEI EMATEN DIETEN ERANTZUNARI BURUZKO ONDORIO OROKORRAK

Pertsona guztien eskubideak babesteko eginkizuna egokitu zaien erakundeak diren aldetik, arartekoek aparteko arreta ematen diete ahulak direla eta aparteko babes behar duten gizarteko sektoreei eta, ildo horretan, euren jardunaren lehentasunezko helburuetako bat haurren eta nerabeen eskubideak babestea da.

Izan ere, errealitatea aldatu egiten ari da etengabe. Aldaketa horrek biztanleriaren sektore honetan ere du eragina eta, hainbatetan, gizartea kezkatu ere egiten du. Gazteak errealitatearen aldaketa horrek, hezkuntza ingurune berriek (gizarte globalizatuak, komunikazioaren gizarteak, sareek) dakartzaten egoera zailetan daude batzuetan, eta aukera eta arrisku berriak egin behar diete aurre. Errealitate konplexua da

eta, horrexegatik, konplexua dela onartu eta guztiek (eskolak, familiak, kulturgileak, komunikabideak, botere publikoak, eta abarrek) esku hartu behar dute; gizarte osoak erantzun behar du egokiro.

Hori dela-eta, Alacanten Arartekoak Koordinatutako XX. Jardunaldien kariatara bildu diren arartekoek beharrezko jo dute Jardunaldietan errealitate horri buruz gogoeta eta ebaluazioa egitea, nolabaiteko adierazpena eman eta haurren eta gazteen eskubideak areago bermatzen lagunduko duten elementuei bide ematearren.

Ildo horretan, honako hau ADIERAZI dugu mandatariorik:

- Haurrek eta nerabeek bizikidetzako ingurunean pertsona giza garatzen lagunduko dien gizartean bizitzeko eskubidea dute, eta garapen horretan lagunduko dituzten helduen babesa izatekoa, erkidego bateko kide direla ulertaraziko dieten eta, horrenbestez, bizikidetasun arauak eta mugak irakatsiko dizkietenena.
- Protagonistatzat haurrak eta nerabeak dituzten eta gizartea kezkatzen duten gatazka izan arren, ezin dugu alde batera utzi haurrak eta nerabeak guztiok osatzen dugun eta guztion ardurapekoa den gizarteko kide direnik.

- Haurrei eta nerabeei euren bizitzaren kudeaketan eta familiarean, eskolan eta gizartean parte hartzeko bide eman ezin da bermatu zuzeneko esku-hartze hori, ezinbestekoa dena zuzen garatuko badira. Izan ere, haurrak eta nerabeak babesteko modurik onena bizitzea suertatu zaien gizartearen arriskuak eta konplexutasuna behar bezala kudeatzeko beharrezko baliabideak ematea da.

- Babes sistemak norbere egoerara egokitutako konponbideak eskainiko badizkie babesten dituen haurrei, sistemaren jarduna eta lana zaluki, banan-banan, objektiboki eta malguki antolatu behar da.

Behar horiei guztiei erantzute aldera, honako PROPOSAMEN hauek egin ditugu:

1. Haurrak eta nerabeak laguntzeko zerbitzu publikoak euren behar berriei egokiro erantzuten ari zaizkien ebaluatu eta aztertu behar da. Alde horretatik, berebiziko garrantzia du babes eta erreforma sistemak sakonki aztertu eta euren lorpenak eta zailtasunak ebaluatzea, baita aparteko ahultasun egoeran dauden gizarteko sektore jakin batzuei erantzuten dieten modua ere.

2. Haurrei buruzko Legearen erreformaren kariatara hartzen diren neurriak gorabehera, hobekuntza proposamen orok egungo arau esparruaren,

arau esparru horren zerbitzura jarritako baliabideen eta nerabeek euren jarreraren gaineko erantzukizuna onar dezaten lortzeko neurrien eragingarritasunaren ebaluazioan eta neurketan oinarritu behar du.

3. Indarkeriaren adierazpen guztiak direla-eta, ezinbestekoa da administrazio publikoek, maila eta sistema guztien esparruan, euren jarduerak eta programak koordinatzeko planak susta ditzaten adierazpen horiek azaleratzen diren alor guztietan, gizarte fenomeno horri aurrea hartu eta aurre egiteko. Alde horretatik, gazteen arteko genero indarkeria nabarmendu beharra dago, haren proportzioa helduen artekoarenaren antzekoa baita.

4. Botere publikoek teknologia berrien aukera guztiak aprobetxa daitezene bultzatu behar dute, haurrak hezi eta hurrek aisialdia emateko bitartekoak diren neurrian; teknologia horien legez kontrako edukiek, eduki kaltegarriek eta eduki arrisku-tsuek dakartzaten arriskuak desagerraraziko dituen arautegia xedatu behar da; eta haurrak erabilera arduratsu eta seguruan hez daitezene bultzatu behar da.

5. Administrazioek lehentasuna eman behar diete ikastetxeetako bizikidetzari, unean-unean existitzen diren jokabide zuzenak zabaldu behar dituzte, eta aparteko arreta eman behar diete antolakuntzari, ikasleen banaketari eta familiari hezkuntzan esku harrarazteari.

6. "Hiriko tribu" izeneko talde fenomenoak direla-eta, nerabeen eta gazteen izaeraren eta norbere burua talde jakin bateko kide sentitu behararen berezko adierazpenaren eta gizartearen baitako bizikidetzari eten eta neurri egoki eta eragingarriak hartzera behartzen duten adierazpenen artean bereizi beharra dago. Horregatik, administrazioek (batik bat, tokikoek) hezkuntza eta gizarte arloan kalean, bertatik bertara lan egiteko sistema landu behar dute, errealitatearen berri izan eta, zailtasunak azaleratzen direnean, zailtasunoi aurre egitearren.

7. Gizarte eragileek (erkidegoak, eskolak, familiak, komunikabideek) erantzun oso, koherente eta kontraesanik gabekoa eman behar diote gai toxikoen zein narkotikoen, alkoholaren eta tabakoaren kontsumo goiztiar eta kaltegarriari, osasun publikoaren alorreko arazotzat hartu behar da eta.

Espainiako ararteko guztiek Alacanten, 2005eko urriaren 19an onetsitako adierazpena

9.1.2. GAZTEEN OSASUNAREN ALORREKO ERRONKA BERRIEI BURUZKO LANTEGIKO ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Gazteen osasunaren alorreko erronka berriei buruzko lantegia Aragoiko Justiziak antolatu du, Zaragozan. Autonomia erkidegoetako ararteko guztien erakundeetako eta Gorte Nagusietako arartekoaren erakundeko ordezkariak hartu dute parte bertan, eta honako ondorio hauek atera eta honako proposamen hauek egin dira:

1. Orokorrak

Kontuan izanik askotariko faktoreek izan dezaketela eraginik arazo honetan, ezinbestekoa da lurralde esparru mugatuan landuko diren, etengabe eguneratuko diren eta norentzaketzat gazte eta nerabe taldeak izanen dituzten planak prestatzea.

Argi eta garbi dago drogazaletasuna eta bestelako mendekotasunak osasun publikoaren alorreko arazoak direla eta, horregatik, gizarte osasunaren alorrean erabili izan diren teknika eta bitarteko guztietara jo behar da eta, jakina, gizarteak prozesuaren fase guztietan modu aktiboan esku hartzea bultzatu behar da.

Antza, argi dago lan ildo horiek askotariko esparruetakoak izan behar dutela: gizartearen, eskolaren eta familiarren baitakoak, leku arriskutsuetan eta aisialdia emateko guneetan gauzatu beharrekoak, eta baita laguntza arlokoak ere; nolahi ere, lan ildook aplikatzeaz gain, nabarmenki eskasak diren baliabideak indartu eta osatu ere egin behar dira laguntza arloan.

2. Eskumenen eta esku-hartze osoaren alorrekoak

Alor honetan esku hartu behar duten administrazio publikoen eskumenak zehatz-mehatz finkatu behar dira, nor bere gain eskumen horiek betetzeko erantzukizuna har dezan eskatuz baino ezin baitzaio sakoneko arazoari heldu. Halaber, administrazio publikoak elkarren artean koordinatzeko beharrezko neurriak ere zehaztu behar dira, auzia zeharkakoa denez gero, arazoari ikuspegi eta alde guztietatik heldu behar zaiolako erantzun osoa emanen bazaio.

Orobat, baterako planak antolatu behar dira zaletasuna sortzen duten gaien (drogen, alkoholaren, tabakoaren...) kontsumo kaltegarriari aurre egiteko, gai bakoitzaren kontsumoaren ezaugarriak antzekoak direlako azken batean.

3. Plangintza arlokoak

Drogazaletasunei buruzko planen oinarritzko alderdiak araz finkatu behar dira eta, hartara,

- Gai honi buruz egin beharreko azterketak eta irtenbideak aurkitzeko hartu beharreko neurriak sistematizatu eta homogeneizatu behar dira, arazoaren jarraipena aldizkakoa dela, arazoaren bilakaeraren berri izan badela eta administrazioak gauzatzen dituen planak eta ekimenak zinez eragingarriak direla bermatzearen;
- Kalitate arloan lortu beharreko helburuak (zaletasunekin lotutako kalteak txikiagotzea, gazteak eta nerabeak halako gaiak kontsumitzen hasten diren adina atzeratzea, kontsumoa murriztea, gizarteak kontzientzia hartzea, aisialdiko aukerek fruituak ematea, etab.) eta ebaluazio jarraitua egiteko formak zehaztu behar dira, ekimenak haien erabilgarritasuna inola ere ebaluatu gabe gauzatzera ez mugatzeko, horixe baita administrazioak konpontzeke duen arazorik handiena;
- Planak behar adina finantzatu behar dira, argi baitago, drogak hartzearen aurkako plan asko eta asko autonomia erkidegoen finantziarioari esker gauzatzen direnez gero, beharrezkoa dela ekimenok finantzatzeko bideak berriro aztertzea, udalek finantziario hori errespetatu egiten dutela bermatzeko.

Azken batean, drogei buruzko planak jarraituki eta elkarren artean koordinatuta funtzionatzen duten zerbitzu, programa eta neurri multzoak sustatu, programatu eta ebaluatzeko bitartekotzat hartzen sakondu beharra dago, eskaintza kontrolatu eta eskaria murrizte aldera.

4. Prebentzio arlokoak

Esku hartzeko estrategia guztiak (batik bat, tabakoaren kontsumoaren alorrean bezala, prebentzio eta kontrol arlokoak) areagotu egin behar dira, gizarteak kontsumo ohitura osasuntsuak hartzearen alde egin dezan eta, ondorioz, estigmatizazioan erori gabe, herritarrek onartu egin behar ez den faktore kaltegarritzat izan dezaten legezko eta legez kontrako drogen kontsumoa, gizartean onartu egiten den baliotzat izan ordez.

Horretarako, prebentzio arloko ekimenak sistema normalizatuen (hezkuntzaren, osasun sistemaren, gizarte zerbitzuen, kultur ekimenen, kirol programen, komunikabideen, eta abarren) bitartez bideratu beharko lirateke gure ustez, jarraituak izan eta ahal bezainbat pertsonarengana hel zitezten.

a. Familia arlokoak

Familiak lagundu egin behar dira, onartu beharra baitago ezin eztabaidatzekoa dela prebentziorik onena familiarrean jazotzen dela. Hau da, anto-

lamendu juridikoak eta administrazio publikoek babes handiagoa eman behar diete gurasoei lana eta familia uztartu, behar adinako baliabideak eta aholkularitza izan eta seme-alabak hezteko aukera izateko, orain arte horretarako xedatutako neurriak eskasak izan dira-eta nabarmen.

Alde horretatik, ezin ahaztuzkoa da gurasoak direla seme-alaben hezkuntzaren eta jarreraren erantzule nagusiak eta, horregatik, hurrek esku hartzen duten gatazkaren bat edo hurrek gai toxikoak eta narkotikoak kontsumitzeagatik arrisku egoerak jazotzen direnean, gurasoak berehala ohartarazi behar direla, dagokien eginkizuna euren gain har dezaten, gertatutakoa esparru publikoan edo pribatuan, kalean edo eskolan gertatu den.

b. Eskola arlokoak

Elikagaien eta mendekotasuna sortzen duten gaien kontsumoa DBHko, LHko eta Batxilergoko ikasketa planetan sartu behar da, ezinbestekoa delako jarrera osasuntsuak izan ditzaten laguntzen duten ezagutzak transmititzea gazteei. Areago, elikagaien eta mendekotasuna sortzen duten gaien kontsumoa, osasunerako hezkuntzaren atal bat den neurrian, berriaz sartu behar da curriculumean, zerikusia duten ikasgai guztietan eta tutoretza planetan, curriculumeko gainerako edukiekin batera irakats dadin.

c. Erkidegoaren baitakoak

Erkidegoaren baitako prebentzioan sakondu beharra dago, eragile eta erakunde kaltetu guztiek (hala publikoek, nola pribatuek) esku har dezaten lortzeko. Horretarako, ordea, administrazio publikoek hezkuntzarekin eta gizarte arloko esku-hartzearekin lotuta dauden profesional espezializatuak izan behar dituzte eskura, alor honetan modu eragingarrian esku hartu eta hurrei eta gazteei aisia emateko beste aukera batzuk susta ditzaten.

Orobat, administrazio publikoek euren buruak arautzeko kodeak ezarri eta publizitate arloan indarrean dagoen araudia ekintzaren bitartez betetzeko galdatu behar diete enpresei eta gizarte komunikabideei.

d. Aisia arlokoak

Gazteentzat aisiaren eta aisialdiaren alorrean egiten diren prebentzio programen estaldura izugarri handiagotu bada ere azken urteotan, halako programak ez daude gazte guztientzat eskuragarri oraindik ere.

Horregatik, alkoholduen edariei eta tabakoari buruzko publizitateak bete behar duen araudia zinez betearazi behar da. Ildo horretan, neurri bat

tokian-tokian alkohol gehiegi edateari aurrea hartzeko mahaiak sortzea izan liteke, ostalariek, edari banatzaileek, komunikabideek eta udal ordezkariak osatutakoak.

Gainera, administrazio publikoen eta ostalari-tza enpresen arteko koordinazioa sustatu behar da, haurrei mendekotasuna sortzen duten produktuak ez emateko, baina, horretarako, ostatuen eta ikuskizun publikoen gaineko kontrolak handiagotu behar dira, langileek prebentzioan lagundu eta mendekotasuna sortzen duten gaiak axola gabe banatzeari utzi behar diote eta zehapen araubidea zorrotz aplikatu behar da legedia urratuz gero.

Era berean, administrazioak ostatuen arauzko ordutegiak gai kaltegarri ororen gehiegizko kontsumoan duen eragina aztertu ere egin beharko luke.

5. Laguntza osoa

Berriro ere, informazioa eta kontzientzia hartzeak droga (batik bat, gehien kontsumitzen direnak: alkohola eta cannabisa) gehiegi hartzeak dakartzan arazoak identifikatzeko duen garrantzia nabarmendu beharra dago, baita gizarteak droga-zaleen eta haienzako laguntza zerbitzuen inguruan duen ikuskera normalizatu beharra ere.

Hori dela-eta, gure ustez, droga gehiegi hartzen direla eta drogazaletasuna dagoela adierazten duten sintomak eta irizpideak jakinarazi beharko litzaizkieke herritarrei eta droga gehien kontsumitzen duten taldeei, eta arazoak konponbiderik izan baduela eta, zenbat eta lehenago esku hartu, pronostikoa orduan eta hobea dela azaldu beharko litzaieke; berebat, halako arazoei heltzeko aplikatzen diren metodologia terapeutikoen eduki nagusiak ere jakinarazi beharko litzaizkieke, eta tratamendu zentroek drogazaletasun orori aurre egiten laguntzen dutela nabarmendu.

Ildo berean, aurrera egin beharko litzateke osasun sistema normalizatuen eta gizarte zerbitzuen alorrean dauden zerbitzuak eta programak bat egiten, ematen den laguntza sistema horien esparruko beste zerbitzu bat dela antzeman dezaten herritarrek, eta indarrean dagoen legediak drogazaleek gainerakoek dituzten eskubide eta betebeharrak berberak dituztela onartu eta, zerbitzurik egokienak familiak bilatu beharrik gabe, berehalako laguntza bermatzen duela. Gainera, estrategia terapeutikoen malguagoak izan beharko lukete, laguntza nerabeei ere eman diezaieten bermatzeko, arazoa goiz identifikatu eta familiek laguntza terapeutikoa izatea bermatuz.

Zehapen araubidea

Gure ustez, gazteek aisialdian eta aisia emateko guneetan alkohola edateak eta alkohol gehiegi

edateak osasun eta gizarte arloan dituen ondorioak dira kalterik larrienak eta, hori dela-eta, argi eta garbi dago gazteak alkohola kontsumitzen hasten diren adina atzeratzea izan behar duela helburuetako batek, litekeena baita helduagoak direnean tinkotasun eta indar handiagoa izatea alkohola eta beste gai batzuk kontsumitzeko aukerari aurre egiteko. Ildo horretan, honako ekimen hauek iradoki dizkiegu administrazioei:

- Tabakoaren eskuragarritasuna murriztu eta norbere ingurunean alkohola bidegabeki eta gehiegi edan dadin saiheste aldera, udal guztiek esparru hau arautuko duen ordenantza onartzea
- 18 urtetik beherakoei alkohola eta tabakoa banatu eta saltzeagatiko arau-hausteen gaineko zehapen araubidea bete egiten dela bermatu eta erabilera publikoko hainbat guntan tabakoa, alkohola eta beste droga batzuk kontsumitzea galarazten duten arauak bete egiten direla bermatzea, ikuskatze eta zehatze mekanismoak areagotuz
- Alkoholdun edariak eta tabakoa saltzeko mugez ohartarazten duten kartelak ematea produktu horiek saltzen dituzten ostatu eta saltoki guztiei

Edonola ere, ziur gaude administrazio guztiei eta gu guztioi dagokigun arazoa dela hau.

9.1.3. HAURREI ETA ERREALITATE TEKNOLOGIKO ETA MEDIATIKO BERRIEI BURUZKO LANTEGIKO ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Haurrei eta errealitate teknologiko eta mediatico berriei buruzko lantegia Andaluziako arartekoak antolatu du, Sevillan. Autonomia erkidegoetako ararteko guztien erakundeetako eta Gorte Nagusietako arartekoaren erakundeko ordezkariak hartu dute parte bertan, eta honako ondorio hauek atera eta honako proposamen hauek egin dira:

1. Internet arloko proposamenak

- Botere publikoek haurrak hezi eta haurrek aisialdia emateko egokiak diren edukiak prestatu eta halako edukiak haurrak erraz sar daitezkeen gaikako atarietan bil daitezzen bultzatu behar dute.
- Komunikabideen bitartez, botere publikoek herritarrek informatu eta ohartarazteko kanpainak egin behar dituzte, haurrek Internet jakinaren gainean, seguru eta arduraz erabil dezaten bultzatzearen.
- Haurrek Internet jakinaren gainean, seguru eta arduraz erabil dezaten lortzeko eduki didaktiko

espezifikoak txertatu behar dira ikasketa planen barnean.

- Internet bidez haurren eskubideen aurka egiten diren delituak aztertu behar dira, haurren eskubideen aurkako delituak egitera bultzatzen duten edo haien apologia egiten duten edukiak tipifikatuz besteak beste, indarrean dagoen zigor legedia bitarteko teknologiko berri honek ekarri dituen delitu mota berrietara egokitzearen.

- Interneteko legez kontrako eta delituzko edukiei buruzko salaketak aurkeztu eta bideratzeko bitarteko eragingarriak ezarri, bitarteko horien existentzia jendartean azaldu eta herritarrek bitarteko horiek erabiltzeko bide eman behar da.

- Nazioarteko lankidetzaren mekanismoak sortu behar dira, estatuetak zigor legediak bat egin eta haurren eskubideen aurka egiten duten legez kontrako eta delituzko edukiei jazarazteko.

- Estatuko segurtasun indarren eskura jarritako giza baliabideak eta baliabide materialak lehenbait lehen sendotu behar dira, Internet bidez edo bitarteko teknologiko hori erabiliz haurren eskubideen aurka egiten diren delituak antzeman eta jazarazteko.

- Botere publikoek haurrentzat desegoki edo kaltegarri jotzen diren Interneteko edukiak behar bezala katalogatu eta etiketatzeko arautegia xeda dadin bultzatu behar dute Europan eta nazioartean, edukiak bahetu eta aukeratzen dituzten programek zuzen identifika ditzaten.

- Botere publikoek Internet zerbitzuen hornitzaileek euren buruak arautzeko akordioak sustatu behar dituzte, hornitzaileok haurrentzat desegoki edo kaltegarri jotzen diren Interneteko edukiak behar bezala katalogatu eta etiketatzeko sistemak ezartzeko eska diezaieten bezeroei eta alor honetan onartzen diren arauak betetzeko erantzukizuna har dezaten euren gain.

- Botere publikoek pizgarriak eman behar dituzte eragingarriak eta erabiltzen errazak diren iragazkiak lantzeko, haurrek eurentzat desegoki edo kaltegarri jotzen diren Interneteko edukiak eskuratzeko mugak izan ditzaten.

- Botere publikoek arautegia xeda dadin bultzatu behar dute, Internet zerbitzuen hornitzaileak bezeroei eragingarriak eta erabiltzen errazak diren iragazkiak ematera behartzeko.

- Botere publikoek kanpainak egin behar dituzte familiak haurrek Interneten sartzeko erabiltzen dituzten ordenagailuetan edukiak bahetzeko programak instalatu beharrez ohartarazteko.

- Haurrak bulego publikoetako eta lokal pribatuetako ordenagailuen bidez Interneten sartzeko aukera arautu behar da eta haurrek edukiak bahetzeko programak piztuta dituzten ordenagailuak bakarrik erabili ahal izatea ezarri behar da.

- Haurrei Interneten sartzeko uzten dieten bulego publikoetako eta lokal pribatuetako jabeek haurrei bitarteko teknologiko hau seguru eta arduraz erabiltzeko oinarritzko arauak buruzko informazioa eman beharra arautu behar da.

- Botere publikoek Espainia osoan eta autonomia erkidegoetan arituko diren eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak aztertu, ikuskatu eta kontrolatuko dituzten erakunde beregainak sor daitezkeen bultzatu behar dute, teknologia horiek arautzeko proposamenak egin eta haien gaineko araudien urratzeak zehatzeko ahalmena dutenak.

2. Komunikabideen (telebistaren) alorreko proposamenak

- Botere publikoek haurrentzako edukiak prestatzeko pizgarriak eman behar dituzte eta kalitatea, balio egokien transmisioa eta alderdi didaktikoa eduki horien alderdi ludikoarekin eta norentzakoarentzat erakargarri gertatu behar diren uztar daitezkeen bermatu behar dute.

- Telebista kateek programazioaren gutxieneko zati bat haurrentzako eduki espezifikoak ematen erabil dezaten arautu behar da.

- Ikus-entzunezko komunikabideen gaineko araudiek haurrak eurentzako saioetan desegoki edo kaltegarri zaizkien edukiak ematearen aurka babesteko xedapenak ere eman behar dituzte.

- Espainia osoan haurrentzako saioen ordutegia arautu eta haurrak babesteari buruz hartu zen erabakiak autonomia erkidegoetara ere hedatu behar du, tokiko telebistak eta telebista formatu berriak (ordainpeko telebista kateak, Internet bidezko telebista zerbitzuak, etab.) ere arautzeko.

- Ikus-entzunezkoen kontseiluak sortu behar dira Espainian eta autonomia erkidegoetan, zehatzeko benetako ahalmena duten erakunde beregain gisa.

- Familiak eta haurrak hezi eta ohartarazteko kanpainak egin behar dira, telebista arduraz eta egokiro erabil dezaten bultzatzearen.

- Ikasleek telebista arduraz, kritikoki eta jakinaren gainean erabiltzen ikasteko eduki didaktikoak txertatu behar dira ikasketa planen barnean.

- Haurrak euren heziketarentzat eta garapenerentzat arriskutsuak diren edukien aurka babeste-

ko arauak xedatu behar dira komunikabideak arautzeko legedien eta haurrak babesteko legedien esparruan.

- Botere publikoek telebistako edukiak bahetu eta mugatzeko sistema teknikoak sustatu behar dituzte, familiak dagokien kontrola errazago erabil dezaten, eta familiak sistema horien berri izan eta sistema horiek erabil ditzaten bultzatu behar dute.

- Haurrentzako saioen eta Espainia osoan haurrentzako saioen ordutegia arautu eta haurrak babesteari buruz hartu zen erabakiak zehazten dituen saioen ordutegian ematen diren iragarkiak mugatu eta kontrolatzeari buruzko arautegiak bete egin daitezten eta erabaki hori lurralde esparruko gainerako telebista kateetara eta telebista formatu berrietara hedatu dadin baldintzatu behar da.

- Ikus-entzunezko komunikabideek euren buruak arautzeko kodeak osa ditzaten bultzatu behar da, haurrek elikagai kaltegarriak kontsumitu eta elikadura arloko ohitura txarrak hartzea bultzatzen duten iragarkiak eman ez ditzaten, eta kode horiek ikus-entzunezko komunikabide propioak dituzten Espainiako gainerako lurraldeetara hedatu behar dira.

3. Bideo jokoan eta ordenagailu jokoan alorreko proposamenak

- Botere publikoek haurrentzako bideo jokoak eta ordenagailu jokoak, eduki hezitzailekoak egiteko pizgarriak eman behar dituzte eta ikastetxeek baliabide pedagogiko gisa erabil ditzaten bultzatu behar dute..

- Norbere burua arautzeko kodeen jarraipena egiteko batzordeak kontrol eta ikuskatze lanak aragoitu behar ditu, adinaren arabera gomendioei dagokienez batez ere.

- Irizpide komunak onartzen sakondu behar da, software interaktiboaren edukien sailkapena berraztertu.

- Internet bidezko informazioa ematen duten hornitzaileekiko eta telefonia mugikorrekiko enpresekiko akordioak sustatu behar dira, Internet bidezko bideo jokoan eta sakelako telefonoetarako jokoan edukiak sailkatzeko.

- Behar bezala sailkatuta eta behar bezala, adinaren arabera gomendioei jarraiki etiketatuta ez dauden aisialdiko produktu interaktiboan banaketa eta salmenta galaraziko duen arautegia onartu behar da eta zigorrek ezarri behar dira arau horiek hausten dituztenentzat.

- Haurrek aisialdiko software interaktiboaren etiketaren arabera ez dagozkien produktuak erosi eta eskura ditzaten galaraziko duen arautegia

onartu behar da eta zigorrek ezarri behar dira arau horiek hausten dituztenentzat.

- Aisialdiko produktu interaktiboak erakutsi eta iragartzeko baldintzak finkatuko dituen araudia onartu behar da, haurrek euren adinari ez dagozkion edukiak eskuratzeko aukerarik izan ez dezaten, eta zigorrek ezarri behar dira arau horiek hausten dituztenentzat.

- Botere publikoek familiak ohartarazteko kanpainak egin behar dituzte, haurrek aisialdiko produktu interaktiboak egokiro eta seguru erabiltzeko erantzukizuna euren gain har dezaten.

- Botere publikoek haurrak aisialdiko produktu interaktiboak arduraz eta seguru erabiltzen hez daitezten bultzatu behar dute.

9.1.4. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOARI ETA HAURREI BURUZKO LANTEGIKO ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Justizia administrazioari eta haurrei buruzko lantegia Kanarietako Diputado del Común erakundeak antolatu du, Santa Cruz de Tenerifen. Autonomia erkidegoetako ararteko guztien erakundee-tako eta Gorte Nagusietako arartekoaren erakundeko ordezkariak hartu dute parte bertan, eta honako proposamen hauek egin dira:

Administrazioek eta epaileek haurrak direla-eta gauzatzen duten jarduna oinarritu behar duen printzipioa haurren interesa denez gero, haurren eta justizia administrazioaren arteko harremanek haurrentzako justiziaren izaeran oinarritu behar dute eta, gainera, beharrezkoa da esku hartzen duten eragile guztiak hartan espezializatzea, parlamentuetako ordezkarien ustez; izan ere, haurrentzako justizia ezberdina eta berezia da helduentzako justiziaren aldean.

1. Haurrak arau haule

Haurren zigor erantzukizuna arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak eta hura garatzeko onartu den arautegiak oso esparru juridiko egokia osatzen dute arauak hausten dituzten haurrak tratatzeko, hezkuntzako neurriak xedatu eta aukera ugari proposatzen baitituzte inongo zentrotan sartzearen ordez.

Haurren alorreko jurisdikzioa behar bezain zalua izanen bada, ostera, ezinbestekoa da hura aplikatzeko beharrezko azpiegiturak eta baliabide materialak antolatu eta behar adinako langileak izatea. Azken hori, ordea, konpontzeke dagoen arazoa da haurrek gero eta arau gehiago hausten duten zenbait autonomia erkidegotan.

lido horretan, baliabiderik eza dela-eta jazotzen diren atzerapenek hainbat ondorio negatibo dakarte: segurtasunik juridiko eza eta herritarren segurtasunik eza, ezartzen den neurriaren hezkuntzako helburuaren porrota eta haurrak gero eta gehiago sartzea zentroren batean erresalbuz.

Horregatik guztiagatik, honako hau proposatu dugu:

- Haurrentzako epaitegietako eta ministerio publikoetako langileen kopurua behar adina-koa izatea
- Gaixotasunagatik edo lekuz aldatzeagatik hutsik geratzen diren postuak betetzen ez atzeratzea
- Zuzemenak bizkortzea, arau-hauste arinak eta konplexuak ez diren egoerak azkar epaituz haurrentzako justiziaren alorrean, Haurren zigor erantzukizunari buruzko Legea oinarritzen duten printzipioei jarraiki
- Haurrentzako epaitegien zein ministerio publikoen eta haurrak atxilotzeko bulegoen antolamendua egokitzea, pribatutasuna eta laguntza bermatzearen hurrei

Talde teknikoak aparteko garrantzia duela-eta epaileak eta fiskalak aholkatu eta haurraren eta biktima edo kaltetuaren artean bitarteko aritzeko, beharrezkoa da

- Lan taldea behar adinako izatea (ahal dela, fiskalak, psikologo batek, gizarte langile batek eta hezitzaile batek osatutako lan talde tekniko osoa izatea);
- Bitartekotza arloan espezializatutako langile bat sartzea taldeotan;
- Lan taldea egonkorra izatea, erreferentziazko pertsonak diren aldetik haurrarekiko lanean;
- Bitartekotza (adiskidetzea eta ordaina) lantzeko aukerak handitzea, zigor arloko esku-hartzea ahal bezainbat mugatuz.

Autonomia erkidegoei neurriak betearazteko egokitu izan zaizkien eskumenak direla-eta, norbere esparruan eskumen horiek betearazteko eman dituzten xedapenak eguneratu eta 5/2000 Lege Organikoa indarrean sartu denetik indarrean dauden arauetara egokitu behar dituzte.

lido berean, haurrentzako justiziaz arduratzen den administrazio departamentu bat baino gehiago dagoenez gero autonomia erkidego gehiengotan, alor honetako eskumen guztiak bilduko dituen erakunde bat sortu beharko litzateke berariaz halakorik ez dagoen erkidegoetan baina, edonola ere, beharrezkoa da

- Haurrak zentzatzear arduratzen diren departamentuak koordinatzeko mekanismoak xedatzea, baterako irizpideetan eta helburuetan adostearren;
- Koordinazio handiagoa izatea babes eta zentzatzear alderdien artean, besteak beste, babespean dagoen haurraren espedientea lekualdatuz.

Haurren zigor erantzukizunari buruzko Legeak xedatzen dituen neurriak betearazteko baliabide eskasia dela-eta, autonomia erkidegoek

- Behar adinako ahalegin ekonomikoa egin behar dute arauak xedatzen duen neurri bakoitza gauzatzeko beharrezko baliabideak abian jartzeko;
- Behar bezainbat langile tekniko bideratu behar dituzte neurriak betearazteko eskumena duen administraziora, haur bakoitzeko langile kopurua dela-eta hobesten diren ratioak errespetatu egin daitezzen;
- Abian dauden bitartekoak eta baliabideak sendotu eta askatasuna galtzea dakarten neurriak ahal bezainbat murriztu behar dituzte, bai erabilera aldetik, bai denbora aldetik;
- Kaleko bitartekoak talde espezializatuz eta eragingarriak izateko behar adina baliabidez hornitu behar dituzte;
- Hitzarmenak sinatu behar dituzte erakunde publikoekin, xedatzen diren neurriek erkidegoan izan dezaten eragina;
- Euren lurralde esparruko baliabideak sendotu eta udaletako gizarte zerbitzuek esku har dezaten lortu behar dute;
- Udaletako gizarte zerbitzuekin batera jardun behar dute, haiek familientzako laguntza kaleko neurriekin konbinatzen duten aldi berean.

Neurriak betearazten dituzten zentroen kudeaketa eskasa dela-eta, beharrezkoa da

- Zentroak behar adina azpiegituraz eta giza baliabidez zein baliabide materialez hornitzea, neurriak betearazteko hainbat zentrotan haur pila dagoela-eta duten arazoa konpon-tzen laguntzeko;
- Arau-haustea egin duen gazte bakoitzari ezartzen zaion neurria haren arabera egokitztea;
- Komunikazio ona egotea babes arloan esku hartzen duen sarearekin;
- Arau-hausleak zentzatzeko eskumena duen erakunde publikoak eta hezkuntza eta osasun

arloko kudeaketaz arduratzen diren erakunde publikoek elkarrekin lan egitea, administrazioen arteko hitzarmenen bitartez, hurrek osasun laguntza egokia eta hezkuntza edo lanbide heziketa eskuratzeko eskubidea bermatzearen;

- Aparteko arreta ematea haurren eskolatzeari, kaleko oinarrizko hezitzailearekin batera;
- Neska-mutilek laneratzeko programetan sartzeko aukera osoa izatea;
- Komunikazioei, bisitei eta irtenaldiei dagokienez, Haurren zigor erantzukizunari buruzko Legeko arautegi berrira egokitutako irizpideetan oinarritutako protokoloak ezartzea, era berekoak eta lotesleak direnak zentro guztietan;
- Zentroen barneko zaintzari eta segurtasunari dagokienez, zentroetako langileek eurek arduratzea;
- Arau-hausleei eusteko bitartekoak xedatutakoetara eta arauz ezarritako egoeretara mugatu eta zentroak presondegi ez bihurtzea;
- Neurriak betearazteko zentroetako profesionalak alor espezializatuetan trebatu eta jarraituki heztea eta haiei dagokien estatutu juridikoa behar bezala arautzea;
- Langileak ahal bezain gutxien aldatzea lekuz, hurrek erreferente egonkorra izan ditzaten;
- Administrazio autonomiko eskudunak zentroen kudeaketa modu eragingarrian kontrolatzea, beti berdina diren irizpideen bitartez;
- Autonomia erkidego bakoitzeko parlamentuko ordezkari zentroetako erregistroak eta haurren espedienteak begiratzeko aukera ematea.

Arrazoi terapeutikoen ondorioz arau-haustea egin duen haurra ospitaleratzea erabakitzen dela eta, administrazioak dagokion erantzukizuna hartu behar du bere gain, beharrezko laguntza edo esku-hartze terapeutikoa ematearren:

- Banan-banan esku hartu behar du, zentro eta profesional espezializatuen bitartez;
- Ahal dela, haurrak dituzten adimen edo mendekotasun arazoaren arabera hezkuntza proiektuak lantzen dituzten zentro normalizatuetan ospitaleratu behar dira.

Helduen laguntzarik ez duten haur atzeritarrak direla eta,

- Babes arloan esku hartzeko sarearen eragingarritasuna aztertu eta sare horretako bitartekoak sendotu behar dira;
- Gobernu ordezkari bitartez, lankidetzazaluagoa izan behar da autonomia erkidegoetako administrazioen eta administrazio nagusiaren artean, haur hauen agiriak modu aktiboan kudeatzearen.

Zentroen egitura dela eta,

- Kartzela bihur daitezen ekidin behar da, presondegietakoa estetika alde batera utziz;
- Zentro txikiak jo behar da ahal dela, tratamendua norbere neurri eman ahal izan dadin;
- Zentro erdi-irekiak zentro itxi bihur daitezen saihestu behar da;
- Zentroak haurrak modulutan eta adinaren arabera bana daitezen bermatuko duten beharrezko azpiegituz hornitu behar dira;
- Ahal dela, zentroek banakako gelak izan behar dituzte.

Zentroen kokalekua dela eta,

- Autonomia erkidegoetako administrazio eskudunek, arau-hausteari dagokion araubideari jarraiki, haurra etxetik hurbilen duen zentroan sartzeko eskubidea bermatu behar dute, familiarik deserro ez dadin eta bere inguruko hezitzailearekin harremanetan jarrai dezan, hezitzaileak haurren jarraipena egite aldera zigorra bete ostean;
- Beharrezkoa bada, hitzarmena sinatu behar da Justizia Ministerioarekin, Auzitegi Nagusiko Haurren Epaitegi Nagusiak erabakitako neurriak betearazteko;
- Zentroek hirigunean egon behar dute.

Komunikabideek epaileen zigorrak betetzen dituzten haurrak tratatzen dituzten modua dela eta, ikuskera okerra ematen dute hainbatetan Haurren zigor erantzukizunari buruzko Legearen aplikazioaren eta aplikazio horren eragingarritasunaren inguruan eta, horregatik, honako hauek dira gure proposamenak

- Komunikazio dossier edo protokoloa prestatzea
- Komunikabideak zentroetan sartzea
- Komunikazio arloko profesionalak haurrak babestu eta zentratzearekin lotuta dauden auzietan espezializatzea pixkana-pixkana

- Haurren inguruko ikuspegi normalizatua ematea gizarteari

2. Haurrak biktima

Haurrek epaitegietako prozeduretan esku hartzeak, hala delitu baten biktima izan direlako, nola banandu edo dibortziazten ari den bikote baten seme-alabak direlako, inola ere ezin die kalte handiagoa egin hurrei baina, horretarako, beharrezkoa da

- Haurrek ahal bezainbat gutxien esku hartzea prozeduretan;
- Esku hartze hori beharrezkoa izanez gero, ahal bezain txikiena izatea, jokoan dauden bi printzipioak bateratuz: kontraesan printzipioa eta haurren eskubidea.
- Ministerio publikoak ekainaren 9ko 14/1999 Lege Organikoak (Prozedura Kriminalari buruzko Legea aldatu zuenak) haurren eta erasotzailearen arteko aurrez aurrekoak direla-eta ematen dituen xedapenak betearazteko eskatzea, haurren interesa babesteko;
- Haurrak prozesuetan barrena babesteari buruzko erakunde arteko protokoloak prestatzea esku hartzen duten profesional guztientzat;
- Senar-emazteen arteko prozedurei dagokienez, haurren iritzia euren egoeraren arabera bitartekoen bidez entzutea, alderdi batek eskatutako adituak txostenik egin beharrik gabe;
- Haurrengan eragina duen zigor auzirik badago ebazteke, indarrean dagoen araudiarekin bat haurrak babesteko beharrezkoak diren neurriak lehenbailehen hartzea;
- Erabateko lehentasuna ematea haurrengan eragina duten espedienteak bideratu eta ebazti eta ezartzen diren epeak betetzeko beharrezko baliabideak ezartzeari.

9.2. ESTATUTUEN ERREFORMEI, GIZARTE ESKUBIDEEI ETA AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO ARARTEKOEI BURUZKO OHIZ KANPOKO JARDUNALDIAK

Maiatzaren 5ean eta 6an arartekoak koordinatzeko ohiz kanpoko jardunaldiak egin dira Baezan estatutuen erreformei, gizarte eskubideei eta autonomia erkidegoetako arartekoei buruz.

Alde horretatik, gogoan izan beharra dago jardunaldi horiek izan dutela aurrekaririk; hain zuzen ere, 2005eko urtarrilaren 28an Sevillan egin den ohiko koordinazio bileraren harira, lan saioa anto-

latu da Andaluziako Parlamentuan, eta ararteko bakoitzak bere autonomia erkidegoko estatutuaren erreforma prozesuaren egoeraren berri eman du. Gaiaren garrantzia eta egoeren arteko heterogeneotasuna azaleratu da bertan eta, hori dela-eta, egoki iritzi zaio Espainiako arartekoak koordinatzeko ohiz kanpoko jardunaldietara deitzeari.

Andaluziako arartekoak antolatu ditu jardunaldiok, eta autonomia erkidegoetako arartekoen ikuspegiak eta konstituzio zuzenbidean adituak diren zenbait ikasirenak trukatu dira bertan. Zehatz-mehatz, bi ildo nagusi landu dira:

- Autonomia erkidegoetako arartekoak eta estatutuen erreformak
- Estatutuen erreforma, gizarte eskubideak areago bermatzeko bide gisa

Berlaratu diren erakundeetako ordezkariak hala Sevillako bileran, nola Baezako jardunaldietan egin dituzten agerraldien karietara, honako hau izan da atera den lehenengo ondorioa: autonomia erkidegoetan autonomia estatutuak erreformatzeko gauzatzen ari diren prozesuak eta eztabaidak oso ezberdinak eta heterogeneoak dira elkarren artean. Esaterako, zenbait autonomia erkidegotako (hala nola, Andaluziako, Valentziako eta Kataluniako) parlamentuek iritzia emateko eskatu diete formalki bertako arartekoei, baina gainerakoei, aldiz, ez dute agerraldi hori eskatu eta, are gehiago, batzuek ez dute estatutuaren balizko erreforma aztertuko duen mekanismorik (batzorde txostengile edo batzorde parlamentario) sortu ere egin; hala ere, orain arte prozesuan parte hartzerik izan ez duten ararteko gehienek adierazi dute estatutuaren erreformari buruz duten iritzia helaraziko diotela euren autonomia erkidegoko parlamentuari.

Jardunaldietan, erakunde batzuek autonomia estatutuen balizko erreformari buruzko proposamen zehatzak aurkeztu ere egin dituzte.

Proposamen horien edukia dela-eta, Andaluziako arartekoak egin duena hartuko dugu oinarri, parlamentura igorri den lehenengoa izan denez gero. Harekin bat, arartekoak autonomia estatutuan Andaluziako herritarren eskubideei, askatasunei eta betebeharrei buruzko idazpurua (I.a) sartzeko proposatu du funtsean, baita herritarrek autonomia erkidegoko administrazioarekiko harremanetan dituzten eskubideei buruzko kapitulu bat ere. Halaber, Estatutuko 12.3. atalak aipatzen dituen oinarritzko helburuen artean beste bi helburu txertatzea proposatu du: beste herri batzuekiko lankidetzeta eta herritar guztiek informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeko aukera izatea.

Hain zuzen ere, delako idazpuruaren helburua gizarte eskubideak estatutu bidez xedatzea da, autonomia erkidegoko botere publikoak areago lot dakizkien lortu nahian, erdietsi beharreko helburuak eta horretarako beharrezko bitartekoak zehazkiago finkatuz. Era berean, idazpuru horretako artikulua bat arartekoari buruzkoa da. Arartekoaren berezko ezaugarri guztiak biltzen ditu, eta herritarren eskubideen gaineko babesa bermatzen duen erakundea dela dio.

Ildo berean, Valentziako *síndic de greuges* delakoak Valentziako estatutuan bertako herritarren eskubideei, askatasunei eta betebeharrei buruzko idazpurua (I.a) txertatzeko proposatu du. Haren edukia Andaluziako arartekoak proposatutakoarenaren antzekoa da, eta arartekoari buruzko artikulua bat ere badu, bere oinarritzko ezaugarriak azaltzen dituena.

Valedor do pobo delakoak, berriz, arartekoari berari buruzko estatutuko artikuluen idazkera hobetu beharra besterik ez du jorratu.

Kataluniako *síndic de greuges* delakoak, aurrekoek gain, beste idazpuru bat ere proposatu du, autonomia erkidegoetako arartekoak erakundeen artean duen eginkizunari (arartekoaren eta Parlamentuaren arteko harremanak berriro finkatzeari eta, batez ere, arartekoaren eskumeneko esparrua nabarmenki aldatzeari) buruzkoa; zehazki, toki administrazioa eta autonomia erkidegoko administrazioa arartekoak bakarrik ikuskatzeko proposatu du, eta arartekoak administrazio nagusira jotzeko aukera izateko informazioa behar izanez gero.

Gaztela eta Leongo *procurador del común* delakoa, bestalde, estatutua eta arartekoaren gaineko autonomia estatutuetako legeak aldatu beharri buruz jardun da, autonomia erkidegoetako arartekoek toki erakundeen jarduna ikuskatzeko eskumena dutela xeda dezaten.

Euskal Autonomia Erkidegoko arartekoak, atzera, kezka adierazi du Euskadin jazo litekeen egoera dela-eta; izan ere, giza eskubideen gaineko behatokia sortzeko proposamena aurrera ateratzen bada, behatoki horrek egun arartekoari dagozkion eskumenak eta eginkizunak bereganatuko ditu argi eta garbi. Horregatik, estatutuak erreformatzeko prozesuek, gutxienez, estatutuetan autonomia erkidegoetako arartekoei buruzko artikulua bat txertatzeko balio behar dutela adierazi du, erakunde hauen oinarritzko ezaugarriak taxutu eta, hartara, balizko aldaketak ez daitezen gera legegile arruntaren esku. Gainera, bat egin du Andaluziako arartekoaren planteamenduari, alegia, gizarte eskubideei buruzko idazpuru bat txertatu behar delako iritziarekin.

Nafarroako arartekoak egindako ekarpena dela-eta, azkenik, jardunaldian bertan banatu den dokumentua azter daiteke; hain zuzen ere, dokumentu hori Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeko Lege Organikoa erreformatzeari buruzko txostena eginen duen autogobernu batzordeari Nafarroako arartekoaren eskumeneko gaiei buruz eman zaion proposamen txostenaren oinarria izan da, eta sakonago jorratuko dugu, urteko txosten honetako 10.2. atalean.

9.3. HERRITARREN ESKUBIDEAK ALDIZKARIA ARGITARATZEA

2005. urtean Herritarren eskubideak aldizkaria osatu eta argitaratu da, autonomia erkidegoetako arartekoen adierazpide gisa.

Luzaroan izan dugu gogo hori eta, azkenean, aldizkaria prozesu neketsu baten ondoren plazara-

tu da. Nafarroako arartekoaren laguntza erabakigarria izan da prozesu horretan.

Aldizkariaren zero zenbakia etorkinei buruzkoa besterik ez da izan.

Aldizkaria Toledon aurkeztu da jendaurrean, 2006ko otsailaren 3an.



9.4. ARARTEKOEK ELKARREKIN EGINDAKO BESTE JARDUERA BATZUK

Autonomia erkidegoetako arartekoek eta Espainiako arartekoak elkarrekin egiten dituzten jarduerak eta koordinaziozko jarduerak ugaritu egin dira 2005.urtean. Alacanteko eta Baezako koordinazio jardunaldiez gain, ohiko hainbat koordinazio bilera antolatu da urte honetan barrena eta ararteko guztiek pobreziari eta immigrazioari buruzko baterako adierazpena eman dute eta Espainiako gobernuburuarekin bildu dira.

9.4.1. AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO ARARTEKOEK KOORDINATZEKO OHIKO BILERAK ETA HAIEKIN ZERIKUSIA DUTEN ERAKUNDE EKITALDIAKIZAN ERE, AURREKO URTEETAN BI BILERA EGIN IZAN BADIRA ERE, ARARTEKOEK KOORDINATZEKO LAU BILERA ANTOLATU DIRA 2005. URTEAN.

Hain zuzen ere, honako leku eta data hauetan antolatu dira bilerok:

- Sevillan, urtarrilaren 28an
- Bartzelonan, ekainaren 7an
- Alacanten, urriaren 19an
- Leonen, abenduaren 12an

Bilera horietan jorratu diren gairik esanguratsuenak, berriz, honako hauek izan dira:

- Herritarren eskubideak aldizkariaren argitalpena, autonomia erkidegoetako arartekoen adierazpide gisa.
 - Aldizkariaren zero alea immigrazioari buruz bakarrik jardutea erabaki da, eta baita jendaurreko aurkezpena egitea ere, Toledon, 2006ko urtarrilaren bigarren hamabostaldian.
- Arartekoak Koordinatzeko XXI. Jardunaldien antolakuntza, gaia eta metodologia
 - Arartekoek hurrengo jardunaldiak 2006ko urriaren 16an eta 17an, Leonen egingen direla erabaki dute, Gaztela eta Leongo Arartekoaren Bulegoak antolatuko dituela eta gai bakarra landuko dela bertan: hirigintza lanak gizartean eta ingurumenen duen eragina.
- Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioko batzarra, Paraguain
- Herritartasun saria
 - Autonomia erkidegoetako arartekoek Herritartasun saria banatzen duen epaimahaia osatu dute, Zerbitzu Publikoen Kalitatearen

Behatokiarekin eta Espainiako Administrazio Publikoen Ministerioarekin batera.

Bestalde, betetzen duen kargua dela-eta, arartekoa autonomia erkidegoetako ararteko guztientzat aparteko esangura eta hunkigarritasuna duen hainbat ekitalditan izan da:

- Javier Amoedo jaunak procurador del común kargua hartzeko ekitaldia. Fuensaldañako gaztelua, Valladolid. Azaroak 2
- Enrique Múgica Herzog jaunak Espainiako ararteko kargua bigarren aldiz hartzeko ekitaldia. Dioputatuen Kongresua, Madril. Ekainak 30.
- Kanarietako Diputado del Común erakundeari buruzko legearen XX. urteurrena ospatzeko ekitaldiak. Kanariar Uharteak. Otsailak 25-27
- Kataluniako Síndic de Greuges erakundeari buruzko legearen XX. urteurrena ospatzeko ekitaldiak eta jardunaldiak. Bartzelona. Urtarrilak 10, ekainak 7 eta 8 eta irailak 29 eta 30

9.4.2. ARARTEKOEK ELKARREKIN EGINDAKO ADIERAZPENA GIZA ESKUBIDEEI ETA MIGRAZIO FLUXUEN KONTROLARI BURUZ

Urriaren 17an Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Eguna ospatu dela-eta, Ceutan eta Melillan jazotako gertaera lazgarrien kariatara, honako hau ADIERAZI dugu Alacanten, Arartekoak Koordinatzeko XX. Jardunaldietan bildu garen arartekook:

1. Egun honen bitartez lortu nahi diren helburuak lortu beharra berretsiko dugu, pobrezia desagerrarazi eta Nazio Batuen Erakundeak finkatutako milurtekoko garapen helburuak erdietsi beharrez kontzientzia handiagoa har dadin bultzatzearen. Hartara, pobrezian bizi diren pertsonen kopurua erdira jaitsiko da 2015. urterako, eta erabateko pobrezia eta gosea desagertu egingen dira munduan.

2. Biztanleriaren mugimenduak giza bizikidetzaren berezko fenomeno dira, eta gizadiaren aldi guztietan existitu dira. Bizi baldintza duinak lortzea dute helburu eta, sarri, munduko pertsona askok pairatzen duten indarkeriaren, jazarpenaren, bidegabekeriaren, pobreziaren eta gosearen ondorio dira. Alde horretatik, Saharaz azpiko afrikarren pobrezia egoera bereziki kezkarri eta moralgabea iruditzen zaigu, jasangaitz bilakatu baita munduaren orekaren, zuzentasunaren eta justiziaren aldeetatik, eta Ceutan, Melillan eta Marokon jazotzen ari diren gertaera lazgarriak horren ondorio ere badira.

3. Europar Batasuneko estatuak giza eskubideen alorreko nazioarteko betebeharrak betetzera behartuta daude. Betebehar horiek hainbat hitzarmenen berrespenak dituzte jatorri, hala nola, Iheslarien Estatutuari buruzko Genevako Hitzarmenarena, Giza Eskubideei buruzko Europako Hitzarmenarena, Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunarena eta Eskubide Ekonomikoei, Sozialei eta Kulturei buruzko Itunarena. Munduko migrazioak eta pobrezia eta batakezin besteak milioika pertsonen bizitzan dituzten ondorio bidegabeek, baina, ezbaian jartzen dituzte 1948tik, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartu zutenetik izan diren aurrerapenak.

4. Estatuak eta Europar Batasunak migrazio fluxuak kudeatu eta kontrolatzeko eskumenak erabiltzen dituzten moduak giza eskubideei buruzko aipatu nazioarteko konpromisoak errespetatu behar ditu.

5. Era berean, estatuak kontuan izan behar dute giza eskubideak errespetatu behar dituztela legez kanpoko egoeran dauden pertsonak egotzi eta euren herrietara itzultzeko neurriak aplikatzen dituztenean, neurri horiek automatikoki aplikatzearen ondorioz izan litezkeen jazarpena eta tratu txarrak saihesteko. Izan ere, egozpenek eta itzulketek pertsonen duintasuna bermatuko duen prozedura bidezkoa errespetatu behar dute, eta ezinbestekoa da etorkinek dagozkien eskubideen (besteak beste, babesa eskatzeko eskubidearen) berri xehe-xehe emanen dieten legegarien laguntza izatea.

6. Beste herrialde batzuekin egotzitako etorkinak atzera onartzeko sinatzen diren hitzarmenek giza eskubideen errespetuaren inguruko nazioarteko estandarrak bete egiten direla bermatu behar dute. Horretarako, ordea, lankidetzeta eta garapen hitzarmenak ere sinatu behar dira herrialde horiekin (geurean, Marokorekin batez ere), euren garapen soziala eta ekonomikoa bermatzeko. Halaber, legez kanpo dauden etorkinak atzera onartzeko hitzarmenek sinatzen dituzten herrialdeekin lankidetzeta eta garapen proiektuak lantzeko aukera ere hartu behar lukete barne. Azken batean, helburua Nazio Batuek finkatutako milurtekoko garapen helburuak lortu eta, hartara, pertsonak samaldaka mugitu behar izan ez daitezten ekiditea da. Bitartean, ordea, ezinbestekoa da giza eskubideak bermatzeko nazioarteko konpromisoak errespetatu eta konpromiso horiek eragingarriak izateko kontrol mekanismoak abian jartzen aurrera egitea, azken asteotan Marokon gertatu den giza tragediaren antzekoak berriro gerta ez daitezten.

Alacanten, 2005eko urriaren 17an

Honako erakunde hauek onartu dute adierazpen hori: Euskal Autonomia Erkidegoko Arartekoak, Andaluziako Arartekoak, Gaztela-Mantxako Arartekoak, Nafarroako Arartekoak, Espainiako Arartekoak, Kanarietako Diputado del Común erakundeak, Aragoiko Justiziak, Kataluniako Síndic de Greuges erakundeak, Valentziako Síndic de Greuges erakundeak eta Valedor do Pobo erakundeak.

9.4.3. AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO ARARTEKOEN ETA ESPAINIAKO GOBERNUKO PRESIDENTEAREN ARTEKO ELKARRIZKETA

Lehenengo aldiz, Espainiako gobernuburu José Luis Rodríguez Zapaterok autonomia erkidegoetako ararteko guztiak hartu ditu Moncloako jauregian, Madrilen, 2005eko maiatzaren 24an. Pentsatzekoa denez, Foru Komunitateko arartekoa ere bertan izan da.

Bileraren bitartez, autonomia erkidegoetako arartekoek estatutuak erreformatzeko prozesuei buruzko ekimenak (9.2. atalean aipatu ditugunak) helarazi dizkiote gobernuburuari, eta gizarte eskubideak maila guztietan bermatzeko sistema eragingarriak ezarri beharra nabarmendu diote, eskubideok herritarrek galdatzeko moduko bihurtzeko daitezten.

Era berean, bi alderdiak bat datozela ikusi da bilerari esker, ados daude eta mendekotasunari aurre egiteko laguntzari, haurren babesari, etorkinen babesari eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzeko politikei (batik bat, genero indarkeriaren alorreko) eman behar zaie la lehentasuna.

Ildo horretan, ararteko batzuek mendekotasunari aurre egiteko arau esparrua autonomia erkidegoekin ahal bezainbat hitzartu beharra nabarmendu dute, haiexek arduratuko diren neurrian arau esparru horren kudeaketaz.

Orobat, arartekoek kezka adierazi diote gobernuburuari, administrazio publikoek erantzun eskasa ematen dietelako haurrengan eta gazteengan eragina duten fenomeno eta arazo berriei, eta konpromisoa hartu dute 2005eko urriaren 17tik 19ra bitartean Alacanten egin diren hurrei buruzko jardunaldi monografikoetako ondorioak helarazteko.

Azkenik, arartekoek ontzat eman dute oro har etorkinak legeztatze prozesua, baina bat etorri dira oraindik ere asko dagoela egiteko legeztatutako etorkinak zinez gizarteratu bitartean.

9.5. IBEROAMERIKAKO OMBUDSMANEN FEDERAZIOKO BATZARREAN PARTE HARTZEA

2005eko azaroaren 14tik 17ra, arartekoa Espainiako autonomia erkidegoetako arartekoen ordezkari aritu da Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioko X. Batzarrean eta Biltzarrean; hain zuzen ere, bilera Asuncionen egin da, Paraguain.

Batzarraren muina Espainian eta Iberoamerikako hainbat herrialdetan haurren eskubideak babesteko aplikatzen diren sistemak izan dira funtsean, baina Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioak egin duen III. txostena, Iberoamerikako haurren egoerari buruzkoa ere aurkeztu da bertan.

Biltzarrean, berriz, erakundeak 2003-2005 aldiko kudeaketari buruz egin duen txostena aurkeztu da, giza eskubideen Iberoamerikako egoeraz eztabaidatu da eta 2005-2007 aldirako zuzendaritza batzordea aukeratu da; hain zuzen ere, Espainiako ararteko Enrique Múgica Herzog jauna izanen da batzorde horretako buru berria.

Berebat, Asunciongo adierazpena ere onartu da, hainbat eskari egin eta hainbat aholku ematen duena. Hain zuzen ere, honako hauek dira eskari eta aholku horietako batzuk:

- Giza eskubideen sustapenean eta babesean jarduten diren nazio erakundeak beregainki aritzeko bermeak lantzea
- Haurren eskubideak sustatu eta babestea
- Kontuak eman eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko neurriak hartzea lehenbailehen
- Haurren lan eta sexu esplotazioaren aurkako borroka eta GIBaren eta hiesaren aurkako borroka

Gainera, Adierazpenak gomendio espezifikoak egiten dizkie estatu eta herrialde jakin batzuetako gobernuari, besteak beste,

- Ombudsmanen osasun fisikoa eta morala babesteko neurriak hartzeko lehenbailehen, El Salvadorri eta Guatemalari;
- Droga trafikoaren aurka borrokatu, herri indigenak babestu, gizarte asimetrien kontra borrokatu eta nazio adiskidetzaren alde egiteko, herrialde jakin batzuei.

Europako arartekoei halako ekitaldietan parte hartzea oso lagungarria eta indargarria zaie moraliki Iberoamerikan sortzen ari diren ombudsman erakundeei, oso ingurune soziopolitiko konplexuan egiten baitute lan eta, batzuetan, baita ingurune arriskutsuan ere.

9.6. ARARTEKOAREN AGERRALDIA ASTURIETAKO PRINTZERRIKO BILTZAR NAGUSIAN (PARLAMENTUAN)

2005eko irailaren 14an Asturietako Printzerriko Biltzar Nagusiak Asturietako Printzerriko arartekolari buruzko lege proiektua aztertzen duen parlamentuko batzordearekin lan egitera gonbidatu du Nafarroako arartekoa, proiektu hori onartze aldera, berau osatzen duten ataletan eta xedapenetan sakondu eta erkidego horretan sortu beharreko erakunde berria hobeto antolatu eta aritzeko beharrezko aldaketak eta hobekuntzak egitearren.

Lehenik eta behin, iritzia ematera gonbidatu dituzten gainerako arartekoei bezala, Nafarroako arartekoak eskerrak eman ditu gonbitagatik, abian hain denbora gutxian izan den erakunde bat ezagutu egiten dela eta egonkor bihurtu dela adierazten duelako. Jarraian, Nafarroako ararteko kargua hartu zuenean esan zituen hitz batzuk errepikatu ditu; haiekin bat, arartekoen erakundeak sortzea “guztiok ohoratzen gaituen ausardia demokratikozko ekintza” da, “norbere autonomia erkidegoko erakunde sarea sendotzea dakarrelako eta gure autogobernuaren eragingarritasunaren gaineko konfiantzaren adierazgarri delako”.

Ondoko agerraldian, halako erakundeen funtzionamenduan hasiera batean dauden zailtasunak eta halako erakundeek ordezkatzeko dituzten parlamentuen babesaren garrantzia laburbildu ostean, arartekoak erakunde esanguratsu hau gidatu behar duten oinarritzko ezaugarri batzuk aztertu ditu, aztertu egin duten aditu guzti-ek nabarmendu dituztenak ia:

- Lehenik eta behin, legediak halako erakundeei euren buruak antolatu eta funtzionatzeko autonomia handia dutela onartu behar du; hau da, erakundeetako buruei dagokie, bestak beste, aurrekontuei, langileei, kontratuei, barne antolamenduari, lan programak osatzeari eta txostenak egiteari buruz erabakitzea.
- Bigarrenik, gehiago sendoaren botoa lortu beharra ezarri behar da erakundeetako buruak aukeratzeko; izan ere, eskubideak eta eskubideak babestu beharra egokitzen zaie ombudsmanei, bai eta horretarako beharrezko baliabideak esleitu ere, eta hori nahikoa arrazoi da arartekoak Parlamentuko botoen gehiago soilaren bitarteko ezin bihurtzeko.
- Hirugarrenik, bateraezintasun araubide berezia xedatu behar da. Jakina, bateraezintasun horrek zorrotzagoa izan behar du arartekoa bera eta, halakorik badago, arartekoaren laguntzailea direla-eta baina, behar bezala egokituta bada ere, gainerako aholkulariei ere

aplikatu behar zaie, arartekoak egin behar duen lanaren garrantzia dela eta.

- Laugarrenik, arartekoen lanak eta jarduerak zehatzak izan behar dute teknikoki, eta kalitatekoak. Eskakizun hori agerikoa da bere buruzaz harrotu nahi duen erakunde ororentzat, baina askoz ere gehiago eskatu behar zaio herritarren eskubideak bermatzeko eginkizuna duen baina loteslea ez den erakunde bati (Arartekoari), ikuskatzen duen administrazioaren aurrean erakusten duen sinesgarritasunean eta limurmenean oinarritzen delako.

Ombudsmanen antolamenduari buruzko lau ohar horiek egin ostean, arartekoak halako erakundeei egokitzen zaizkien helburuak behar bezala betetzeko esanguratsutzat dituen beste alderdi batzuei buruzko iritzia eman du; izan ere, honako bi alderdi hauen inguruan ardatzen du bere jarduna, eta 2001-2004 eta 2005-2007 aldiatarako presatu diren plan estrategikoetan ageri dira:

- Batetik, erakundearen lanaren funtsezko ardatzetako bat AURREA HARTZEA izatea, alegia, herritarrek aurkezten dituzten kezak eta kontsultak hartzeaz gain (ardatz nagusiaz gain), norbere ekimenez eta aurrea hartuz ere jokatzeko, banakako herritarrengan eta biztanleriako sektore jakin batzuetan eragina duten eta administrazio publikoak hobeto edo bestela funtzionatuz konpon daitezkeen alderdiak eta gizarte egoerak aztertzeke prest egonik;
- Bestetik, kalitatearen eta gardentasunaren alde egitea argi eta garbi erakundearen barne funtzionamendua dela-eta, gero eta baliagarri eta eragingarriagoak izateko etengabeko kezaren eta gizartearen alde lan egin eta sinesgarriagoak izateko konpromisoa gero eta handiagoa izatearen ondorio.

Eskumenei eta funtzionamenduari dagokienez, bestalde, arartekoak Nafarroako erakundea arautzen duen foru legea aztertu du, eta Nafarroako toki erakundearen jarduna ikuskatzeke eginkizunari buruz xedatzen duena nabarmendu du; ikuskatze hori dela-eta, aparteko arreta eman dio Foru Komunitateko antolamendu bereziari eta Nafarroak historian barrena udal esparruan izan dituen berezitasunei.

Azkenik, arartekoen bitartekotza lana analizatu du, eta haren helburua administrazio jardunaren alor jakin batean elkarren aurka egiten duten interesak bateratzen ahalegintzea baino ez da.

Zehatz-mehatz, bitartekotza lan hori ombudsmanen bereizgarrietako bat dela nabarmendu du, doktrinak behin baino gehiagotan erakutsi duenez, eta

adierazi du arartekoak botere publikoen eta herritarren arteko bitarteko bihurtzen direla horren ondorioz, batzuek eta besteak elkar hurbil eta komunika daitezkeen bultzatzen dutelako gatazkak konpontzeko. Alde horretatik, kontuan izan beharra dago autonomia erkidegoetako ia ararteko gehienek jardunean agertzen dela bitartekotza. Hain zuzen ere, kexen ebazpen positibo eta azkarra errazteko, adiskidetzeko eta adoste formulak proposatu ahal direla aipatzen da haiei buruzko araudietan. Beste batzuetan, berriz, halako adoste formulak berariaz aipatu ez arren, tankera horretako ekimenak barnean har ditzaketan bestelako xedapenak daude.

Edonola ere, bitartekotza lana ombudsmanen berezko eginkizuntzat hartzeko arrazoiak erakundearen prestigioa eta jatorria direla aipatu da funtsean; batetik, prestigioa oso mekanismo malguaren ondorio da eta, bestetik, jatorria erakundearen arteko lankidetzan oinarritzen da, eta ez, ordea, berarekin harremanetan dauden administrazio publikoekiko aurrez aurrekoan.

9.7. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREKIKO LANKIDETZA HITZARMENA GIZARTE ESKUBIDEEI BURUZ EZTABAIDATZEKO LANTEGIAK ANTOLATZEKO

2001eko abenduaren 17an, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Nafarroako arartekoak lankidetzarako esparru hitzarmena formalizatu zuten, elkarrekin lan egin eta biltzarrak, mintegiak, jardunaldiak, bilerak eta bestelako jarduerak batera antolatzeke, oinarritzeko eskubideak eta askatasun publikoak sustatzearren funtsean; hain zuzen ere, sustapen hori hitzarmen espezifikoen bitartez gauzatzeko zen.

Esparru hitzarmenaren ildoan, bi erakundeek egoki iritzi diote 2005. urtean herritarren eskubideei buruzko hiru lantegi elkarrekin antolatu eta egiteari, herritarren eskubideak sustatu eta babesteko, eta baita lantegi horien edukiak eta emaitzak erregistratu eta barnera eta kanpora zabaltzeari. Hiru lantegiek izen bakarra izan dute, "Herritarren eskubideei buruzko lantegia"; eta euren helburua kasuan-kasuan aukeratutako gaiekin lotura profesionala edo pertsonala zuten parte hartzaileek gogoeta egiteko bilgunea izatea izan da.

Lantegi bakoitzean jorratu diren gaiak Hitzarmenaren Jarraipena egiteke Batzordeak aukeratu eta planifikatu ditu, eta batzorde horrek berak onartu du egutegia eta aukeratu parte hartzaileak. Hain zuzen ere, honako gai hauek hautatu ditu:

- Balioetan hezteak
- Bizikidetasunean hezteak
- Pobrezia eta gizarte bazterketa

Proposamen hori lankidetzaz hitzarmen baten bidez gauzatu da, 2005eko otsailaren 23an, eta hitzarmena bi erakundeetako buruek sinatu dute: Nafarroako ararteko María Jesús Aranda Lasheras andreak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektore Pedro Burillo López jaunak.

Bilera hauen helburua arartekoak txosten berezien edo ofiziozko jardunaren bitartez lantzen ez dituen baina alor jakin batean edo biztanleriako talde jakin baten baitan eskubideak sustatzearen aldetik analizatzeko modukoak diren gaiak jorratzea izan da, oro har, askotariko parte hartzaileen bitartez.

Azken batean, funtsezko helburua gune bat elkarrekin sortu eta mantentzea izan da, gizartearen aparteko esangura duten auziez eztabaidatu eta bi erakundeak gizarteari helarazteko baterako bidea urratzeko, zuzenbidearen esparruan duten presentzia publikoa areagotuz.

Horretarako, hitzarmena izenpetu zuten erakundeek jarraian ageri diren eginkizunak betetzeko konpromisoa hartu dute, eta honako ekarpen hauek egiteko:

Nafarroako Unibertsitate Publikoak

- Lantegietako parte hartzaileak deitzea
- Lantegien bilakaera koordinatzea
- Lan saioak transkribatu eta itzultzea
- Lantegiak egiteko guneak eta baliabide teknikoak hornitzea
- Egoki jotzen den komunikazio plana onartu eta gauzatzeko lantegien edukiak eta ondorioak barnera eta kanpora zabaltzeko

Nafarroako arartekoak

- Lantegien irudi korporatiboari buruzko alderdi oro hornitzea
- Lantegiei buruzko kaierak argitaratu eta banatzea, lantegien alderdirik esanguratsuenak eta, baldin badagokio, eztabaiden transkripzioa eta emaitzak edo, bestela, dena delako lantegiko ondorioz esanguratsuenak biltzeko
- Parte hartzaileak etortzeko beharrezko gastuak ordaintzea
- 4.000 € esleitzea Nafarroako Unibertsitate Publikoak hitzarmen honen esparruko hiru lantegiak egiteko onartu dituen jarduerak eta eginkizunak finantzatzeko

Horren guztiaren ondorioz, balioetan hezteari eta bizikidetasunean hezteari buruzko lantegiak egin dira, 2005eko ekainaren 17an eta 2005eko azaroaren 22an hurrenez hurren, eta herritarren eskubideak sustatzeko ekimen esanguratsuak sortu dira, hain esanguratsuak direnak 4.1. atalean azaldu baitira berariaz.

Pobreziari eta gizarte bazterketari buruzko lantegia, berriz, 2006ko otsailaren 9an egin da azkenean eta, horrenbestez, 2006ko urteko txostenean emanen ditugu haren ondorioak.

9.8. TOKI ERAKUNDEEKIKO HITZARMENAK

Aurreko urteetan finkatutako joeraren ildoan, Nafarroako toki erakundeekin elkarlanean aritzeko hamahiru hitzarmen formalizatu dira 2005. urtean barrena. Hitzarmenok aurrez izenpetutakoei gehitu zaizkie eta, egun, 94 ditugu guztira. Hain zuzen ere, honako hau da orain arte halako hitzarmenak sinatu dituzten udal guztien zerrenda:

2003**Udalak**

Ablitas
 Oibar
 Altsasu
 Antsoain
 Arguedas
 Arroitz
 Artaxoa
 Azagra
 Barañain
 Bera
 Berriozar
 Buñuel
 Burgi
 Burlata
 Cadreita
 Castejón
 Cintruénigo
 Corella
 Cortes
 Baztan (Elizondo)
 Lizarra
 Faltzes
 Garde
 Uharte
 Irurtzun
 Izaba
 Lekunberri
 Leitza
 Lesaka
 Lodosa
 Los Arcos
 Martzilla
 Mendabia
 Monteagudo
 Otsagabia
 Erriberri
 Gares
 Erronkari
 Zare
 Zangoza
 Doneztebe
 Tafalla
 Tuterá
 Urzainki
 Uztarroze

Viana

Bidankoze

Atarrabia

Esa

Zizur Nagusia

Bestelako erakundeak

Erronkaribarko Batzarra

2004**Udalak**

Allo
 Andosilla
 Arantza
 Cabanillas
 Caparroso
 Cascante
 Deikaztelu
 Etxalar
 Etxarri Aranatz
 Fitero
 Igantzi
 Irunberri
 Murchante
 Murillo el Cuende
 Nabaskoze
 Oteitza
 Ribaforada
 San Adrián
 Valtierra


Bestelako erakundeak

Jurramendiko Mankomunitatea

2005**Udalak**

Agoitz
 Aritzala (Deierrri)
 Beriain
 Berriobeiti
 Larraga
 Lerin
 Miranda Arga
 Olatzagutia
 Orkoién
 Eguesibar
 Esteribar
 Oltza
 Villafranca

2005 URTEKO BUKAERA ARTE SINATURIKO HITZARMENAK



10 ARARTEKOAK NAFARROAKO PARLAMENTUAN IZANDAKO PRESENTZIA

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundea Foru Parlamentuak sortu zuen, eta Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da Espainiako Konstituzioak eta Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoak babesturiko eskubideak eta askatasunak defendatu eta hobeto babesteko.

Arartekoa ez dago inongo aginduren mendean, bere egitekoa autonomia osoz eta bere irizpideei jarraiki gauzatzen du eta inongo agintarik ezin dio ezer agindu.

Arartekoak egindako zuzemenen berri ematen dio urtero Nafarroako Parlamentuari, urteko txostenaren bitartez; hain zuzen ere, ohiko bileretan aurkezten du berau. Gai jakin batzuk garrantzi handikoak edo larriegiak izanez gero, ostera, litekeena da txosten bereziak, ohiz kanpokoak edo monografikoak ere aurkeztea. Zehatz-mehatz, arartekoa hiru aldiz agertu da 2005. urtean Parlamentuan, honako txosten hauek aurkezteko:

- 2004ko urteko txostena
- Prostituzioari buruzko txostena
- Zaharrei buruzko txostena

Urteko txostena eta ohiz kanpoko txostenak zein txosten monografikoak jendaurrekoak dira beti eta, gainera, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dira.

Bestalde, arartekoak sustatu dituen bi ekimen esanguratsu aipatu beharrean gaude atal honetan. Foru Parlamentua izan dute hartzaile, eta honako hauek izan dira zehatz-mehatz:

- Arartekoak Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeko Lege Organikoa erreformatzeari buruzko txostena eginen duen autogobernu batzordeari Nafarroako arartekoaren eskumeneko gaiei buruz eman dion proposamen txostena

- Arartekoak haurrak babesteko legea bideratzearen kariatara egin duen proposamen txostena

Bestalde, Foru Parlamentuak 2005. urtean hartu dituen bi erabakik berebiziko garrantzia izan dute erakundearen etorkizunean, legezko eta arauzko aldaketa esanguratsuak onartu baitira honako alor hauetan:

- 3/2005 Foru Legearen xedapena, Foru Komunitateko arartekoa hautatzeko sistema aldatzen duena

- Arartekoaren erakundearen antolakuntzari eta funtzionamenduari buruzko arautegia onarpena

Ondoko ataletan helduko diogu gai bakoitzari.

10.1. TXOSTENEN AURKEZPENA FORU ARAUBIDEKO BATZORDEAN

Esan bezala, arartekoak aipatu bi txostenen laburpena egin du ahoz Parlamentuaren aurrean.

Zehatz-mehatz, erakundea sortu zenetik, arartekoak Foru Araubideko Batzordearen aurrean aurkeztu ditu urteko txostenak eta txosten bereziak baina, 2006. urtetik aurrera, Arartekoaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko arautegia onartu berri dela-eta, arartekoak Parlamentuko osoko bilkuraren aurrean azalduko du urteko txostenaren laburpena. Hartara, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 36.1. artikulua gai honi buruz xedatzen duena beteko du, kontraesanik gabe, eta antzeko erakundeek alor honetan duten ohiturari jarraituko zaio.

10.1.1. 2004ko URTEKO TXOSTENAREN AURKEZPENA

Esan bezala, arartekoak 2004ko urteko txostena aurkeztu du ekainaren 21ean Foru Araubideko Batzordearen aurrean.

Agerraldi horren bitartez, urte hartako gertaerarik esanguratsuenak azaltzeaz gain, arartekoak 2005-2007 aldirako plan estrategikoaren ildo nagusien berri eman ere egin du; hain zuzen ere, plan estrategiko horrek erakundearen lehentasuneko alorrek eta hobetu beharreko esparru nagusiak argitzen ditu. Gainera, arartekoak bere kezka nagusiak helarazi dizkie parlamentariei, besteak beste, haurren hezkuntzari eta babesari, indarkeriari aurrea hartzeari, gizarte bazterketa ororen kontrako borrokari, etorkinen gizartratzeari eta, batez ere, mendekotasunari aurre egiteko sistema berri bat itxuratu eta zaharrei, adimen gaixoei, ezinduei, eta abarri laguntza egokia emateko berehalako premiari buruzkoak.

Halaber, arartekoak kezka adierazi du herritarren eskubideak kontrolatzerik ez dagoelako, araubide juridiko publikoari itzurtzen zaizkion "enpresa eta sozietate publikoak" ugaritu egin direla eta. Ildo horretan, jabetza publikoko zerbitzu guztiak modernizatu eta desburokratizatzearen alde egin du, baina administrazio publiko zuzenaren printzipioak eta herritarren eskubideen errespetua bermatzeko funtsezko prozedurei inola ere itzuri gabe, eta gogora ekarri du erantzukizun publikoa ezin dela utzi besteren esku, aplikatu beharreko araubide juridikoa dena delakoa ere.

10.1.2. GIZA ESKUBIDEEI ETA NAFARROAKO PROSTITUZIOARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIAREN AURKEZPENA

2005eko apirilaren 13an, arartekoak giza eskubideei eta Nafarroako prostituzioari buruzko txosten berezia aurkeztu du Foru Araubideko Parlamentuko Batzordean.

Ekitaldiak oihartzun handia izan du komunikabideetan, lehenik eta behin, gaiarengatik berarengatik eta, bigarrenik, polemika piztu duelako prostituzio etheen gaineko kontrol eta zerga ikuskatze eskasa dela eta.

Agerraldian, alor honetan lan egin beharri lehentasuna emanarazteko arrazoiak argitu ditu arartekoak, eta gai honi buruzko gomendio nagusiak zerrendatu ditu.

Txostena 2005. urtean aurkeztu bada ere Parlamentuan, 2004. urtean egin zen berez eta, horregatik, eman genuen haren berri urte hartako txostenean. Edonola ere, egokiagoa iruditu zaigu txosten hori 4. kapituluari aipatzea, emakumezkoen eskubideen zeharkako defentsari buruzko atalean, eta, horregatik, ez dugu berriro ere errepikatuko.

Txostena Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu da, 2005eko ekainaren 30ekoan (72. zenbakian), eta gure web gunearen bitartez eskura daiteke:

www.defensora-navarra.com/espanol/publicaciones.html

10.1.3. NAFARROAKO ZAHARREN MENDEKOTASUNARI AURRE EGITEKO LAGUNTZARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIAREN AURKEZPENA

2005eko apirilaren 19an, arartekoak Nafarroako zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntzari buruzko txosten berezia aurkeztu du Foru Araubideko Batzordean.

Aurreko txostena bezala, txosten hau ere nahiago izan dugu 4. kapituluari laburbildu, zaharren eskubideen zeharkako defentsari buruzko atalean, eta, horregatik, ez dugu berriro ere errepikatuko.

Txosten berezia hiru liburukitan banatuta argitaratu da Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, 2005eko irailaren 28koan (94.1., 94.2. eta 94.3. zenbakietan), eta gure web gunearen bitartez ere eskura daiteke:

www.defensora-navarra.com/espanol/publicaciones.html

10.2. ARARTEKOAK NAFARROAKO FORU ERAENTZA BERREZARRI ETA HOBETZEKO LEGE ORGANIKOA ERREFORMATZEARI BURUZKO TXOSTENA EGINEN DUEN AUTOGOBERNU BATZORDEARI NAFARROAKO ARARTEKOAREN ESKUMENEN GAIEI BURUZ EMAN DION PROPOSAMEN TXOSTENA

Hainbat autonomia erkidegotako parlamentuetan autonomia estatutuen barnean aldatu egin litezkeen alderdiak aztertzeke arduraren duten batzorde txostengile edo lan taldeak eratu dira, eta batzorde edo lan talde horiek adituen, elkarten, eta abarren bitartekotza ere eskatu dute alor jakin batzuetan.

Autonomia erkidegotako arartekoak ere ez dira ekimen horretatik kanpo geratu, eta proposamenak egin ere egin dituzte; areago, Andaluziako, Kataluniako eta Valentziako arartekoen proposamenak bertako parlamentuetan aurkeztu dira, parlamentuen euren eskariari jarraiki.

2005eko urtarrilaren 28an, arartekoak alor honetan prestatutako proposamenen berri eman diote elkarri Sevillan egin diren koordinazio bilertan, baina bururatzea Baezan izan da, maiatzaren 5ean eta 6an, estatutuen erreformari, gizarte eskubideei eta autonomia erkidegotako arartekoei buruzko ohiz kanpoko koordinazio jardunaldien esparruan (ikus 9.2. atala).

Ingurumari horretan, arartekoak egoki iritzi dio, gainerako arartekoei egin dituzten proposamenen ildoan, gure ustez erakunde honi egokitu zaizkion helburuak lortzen lagunduko lukeen hainbat proposamen Nafarroako Parlamentuan eratutako batzordearen aurrean azaltzei.

Jakina, halako aldaketak Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeko 10/1982 Lege Organikoan txertatzea lege testua bera berriro ere aztertzea egoki jotzearen arabera da batez ere.

Alde horretatik, apirilean Nafarroako Parlamentuko lehendakariari, Nafarroako Gobernuko lehendakariari eta Nafarroako Parlamentuko taldeetako ordezkariari banatu zaizkien proposamenak bi ildo nagusik laburbiltzen dituzte:

- Gure oinarrizko legeak foru erakundeek nafarrei bermatu behar dizkieten eskubideak eta askatasunak berriaz aipatzeko aukerak, nahi bezainbeste sakondu eta Espainiako Konsti-

tuzioko xedapen orokorrak (batik bat, gizarte eskubideei buruzkoak) osatze aldera

- Delako testuak Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa bera eta, gutxienez, arartekoaren eskumenak azaltzeko komenigarritasunak

Nabarmendu beharra dago gai bakoitzari zein sakon heltzen zaion eztabaidatzeko modukoa dela eta, zalantzarik gabe, sakontasun hori estatutuak erreformatzeko prozesuaren beraren inguruko ikuspegi orokorraren arabera dela.

Nolanahi ere, egoki iritzi diogu testu berriaren zirriborro bat proposatzeari, aukera objektiboa izanez gero, gure ustez egin beharko liratekeen erreformak ikusgarriagoak izan daitezten.

Azkenik, jarraian emanen dugun testu zirriborroari egin ditugun proposamenak arrazoitzen dituen dokumentu tekniko bat erantsi diogu, arartekoak aipatu jardunaldien esparruan egin dituen gogoetak biltzen dituenak eta ondoan transkribatuko dugunak.

10.2.1. TESTUAREN PROPOSAMENA

Zehatz-mehatz, honako testu zirriborro proposatu dugu:

NAFARROAKO HERRITARREN ESKUBIDEEI, ASKATASUNEI ETA BETEBEHARREI BURUZKOA

. artikulua

1. Nafarroako herritarrak Europako Konstituzioak, Espainiako Konstituzioak eta Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoak onartzen dituzten eskubideen, askatasunen eta betebeharren jabe dira, baita nazioarteko itunek eta hitzarmenek eta, batik bat, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak aitortzen dituztenenak ere.

2. Nafarroako Foru Komunitateko botere publikoari dagokien, nork bere esparruan, eskubide, askatasun eta betebeharrak horiek egokiro bete daitezten bermatu eta zaintzea.

. artikulua

Herritarrei onartzen zaizkien gizarte eskubideak guztiz erabiltze aldera, Nafarroako Foru Komunitateak honako helburu oinarritzko hauek lortzeko beharrezko politikak eta neurriak sustatu eta hartu behar ditu:

1. bizi eta lan baldintzak hobetzea, lan munduan berdintasunezko egoeran sartu eta lanpostu duin eta kalitatekoa izatea bultzatuz

2. osasunerako eskubidea modu eragingarrian babestea, kalitateko osasun sustapena, preben-

tzioa eta laguntza emanez pertsonen bizitzako aldi guztietan barrena

3. kalitateko hezkuntza eta lanbide heziketa iraunkorra eskaintzea norbere garapenaren aldi guztietan barrena, pertsonak osoki hez daitezten

4. etxebizitza duina eskaintzea, etxebizitza horretaz gozatzeko beharrezko neurriak har daitezten bultzatuz

5. behar eta, batez ere, mendekotasun egoeran daudenak hainbat zerbitzuren bitartez babestu eta laguntzea

6. familiak eta gainerako bizikidetzak ereduak alor sozialean, ekonomikoan eta juridikoan babestea, lana eta familia uztartzeko aukerak sustatuz

7. kultura eskaini eta Nafarroako ondare historiko, kultural eta artistikoa osatzen duten ondasunak kontserbatu eta babestea

8. baliabide naturalak eta ingurumena babestu eta haien kalitatea hobetzea, prebentzioaren eta garapen iraunkorraren printzipioei jarraiki

9. kontsumitzaileak eta erabiltzaileak modu eragingarrian babestea

10. gizarteak zientzia arloko aurrerapenetan eta garapen teknologikoan parte hartzeko aukera izatea

. artikulua

Pertsona eta talde jakin batzuen egoera pertsonalaren edo sozialaren ondorioz jazo litezkeen ezberdintasunak eta diskriminazioa gainditze aldera, Nafarroako Foru Komunitateak honako hauek bermatzeko politikak sustatu behar ditu besteak beste:

1. emakumezkoek eta gizonezkoek eskubide berberak izatea alor guztietan eta genero indarkeria desagerrarazteko beharrezko neurriak har daitezten sustatzea

2. haurrak osoki lagundu eta babestu eta ongi izateko behar dituzten zainketa guztiak bermatzea, haurren interesari erreparatuz betiere

3. zaharrek autonomia eta bizi baldintza duinak izatea eta euren ongizatea hobetzea

4. ezinduek ezintasunik ez dutenek dituzten aukera berberak izatea, ezinduak normalizatu eta gizarteratzea eta ezinduek erkidegoan parte hartzea

5. talderik ahulenak eta, batez ere, etorkinak eta gutxiengo etnikoak, kulturalak eta erlijiosoak zein bestelako gutxiengoak gizarteratzea

6. inor baztertzeko arriskua dakarten egoerei aurrea hartu, egoera horiei aurre egin eta baztertu egiten diren pertsonak eta taldeak barneratu eta gizarteratzeko beharrezko politikak sustatzea

. artikulua

1. Herritar guztiei gutxieneko bizi baldintza duinak eta kalitatekoak bermatze aldera, Nafarroako Foru Komunitateak oinarrizko zerbitzuak bermatu behar ditu gizarte babeseko sistema publikoen bitartez, herritarrek osasunerako, hezkuntzarako, etxebizitzarako eta gizarte zerbitzuetarako eskubidea erabiltzea izan dezaten. Era berean, gutxieneko baliabideak eta zerbitzuak, edo beharrezko osagarriak, eskaini behar ditu, bizitzeko oinarrizko beharrei erantzutearren

2. Legediak Nafarroako herritarren gizarte eskubideen gutuna arautu behar du, eta gutun horrek idazpuru honetan ageri diren gizarte eskubideak direla-eta bermatu behar diren zerbitzuen zerrenda finkatu behar du; zerbitzuok bermatzeko, baina, finantza askitasuna eta gauzatzen diren ekimenen eragingarritasuna ere bermatu behar da

. artikulua

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da, eta Nafarroako Parlamentuak Espainiako Konstituzioak eta Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoak babesturiko eskubideak eta askatasunak defendatu eta hobeto babesteko hautatzen du.

2. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren funtsezko eginkizuna herritarren administrazioaren balizko gehiegikeriaren eta utzikeriaren aurka babestea da eta, horretarako, Nafarroako administrazio publikoen eta haien mendeko erakundeen jarduna ikuska dezake besteak beste, erakundea arautzen duen foru legeari jarraiki; gainera, ikuskatze lan horren berri eman behar dio Nafarroako Parlamentuari urteko txostenen eta ohiz kanpoko txostenen bitartez.

3. Era berean, eginkizun hori betetze aldera, Nafarroan egoitzarik duten gainerako administrazio publikoetako agintariengana eta erakundeetara ere jo dezake.

4. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak beregainki eta autonomoki bete behar ditu dagozkion eginkizunak, eta indarrean dagoen legediak xedatzen duen berme sistema eta, zehazkiago, Nafarroako Parlamentuko kideei dagokiena aplikatu behar zaio, lege organiko honekin bat.

10.2.2. ARARTEKOAREN HAUSNARKETAK ERAKUNDE GISA NAFARROAKO FORU ERAENTZA BERREZARRI ETA HOBETZEARI BURUZKO LEGE ORGANIKOAREN BALIZKO ERREFORMA DELA ETA

Esan bezala, txosten bat erantsi diogu testu proposamenari, Nafarroako arartekoak Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren balizko erreformari buruz egin duen hainbat hausnarketa biltzeko. Hain zuzen ere, hausnarketa horiek erakundearen lanaren emaitza izan dira, eta gainerako arartekoei jakinarazi zaizkie, Sevillan eta Baezan antolatutako jardunaldien esparruan (ikus 9.2. atala, estatutuen erreformei, gizarte eskubideei eta autonomia erkidegoetako arartekoei buruzko ohiz kanpoko jardunaldiei buruzkoa).

Zehatz-mehatz, honako hau izan da testu zirriborroa osatu duen txostena:

1. Sarrera

Konstituzioaren egungo testua eta, aldi berean, autonomia estatutuak aldatzeko zenbait planteamendu azaleratzen ari dira azken hilabeteotan Espainian, eta planteamendu horien muina Espainiako lurraldea antolatzeko ereduaren elementu batzuk eta elementu horiek autonomia erkidegoetan duten eragina dira funtsean; izan ere, 1978ko Konstituzioko VIII. idazpuruko xedapenen ondorioz, Espainia autonomia erkidegotan egituratu da.

Eztabaida honen garrantzia dela-eta, hainbat autonomia erkidegotako parlamentuek autonomia estatutuen barnean aldatu egin litezkeen alderdiak aztertzeko ardura duten batzorde txostengile edo lan taldeak eratu dituzte, eta arduradun publiko, aditu, elkarte... ugariaren bitartekotza ere eskatu dute alor jakin batzuetan, iritzia eman dezaten.

Nafarroa ez da inolako salbuespena izan, eta Nafarroako Parlamentuak halako eginkizunak betetzeko batzorde txostengile bat eratu du, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 10/1982 Lege Organikoaren balizko aldaketa analiza dezan; hain zuzen ere, horixe da Foru Komunitateko erakunde arau nagusia eta, autonomia estatutuen antzeko eginkizuna betetzeaz gain, izenak berak dioenez, Nafarroako berezko foru araubidearen eguneratzea ere bada, Espainiako Konstituzioko lehenengo xedapen gehigarriak berak babestu eta errespetatzen duenarena.

Autonomia erkidegoetako arartekoak eurak ere ez dira ekimen horretatik kanpo geratu eta, ondori-

oz, zenbait proposamen landu dituzte, norik bere parlamentuan aurkeztu eta, funtsean, euren ustez egokitu zaizkien helburuen lorpenean aurrera egiten lagunduko luketen alderdietan sakontzearren.

Arartekoek egin dituzten proposamen horietako batzuk norbere parlamentuan aurkeztu dira dagoeneko, hala nola, Andaluziako arartekoak eta Valentiako *síndic de greuges* delakoak egindakoak, eta beste batzuk, berriz, parlamentuan aurkeztu daude, hala nola, Kataluniako *síndic de greuges* delakoak egindakoa. Nolanahi ere, autonomia erkidegoetako arartekoek urtarrilaren 28an, Sevillan egin dituzten jardunaldietan guztiak ezagutarazi dira, autonomia erkidegoetako arartekoen eskumeneko esparruari eta autonomia estatutuen erreformari eta gizarte eskubideen onespenerari buruzkoetan.

Ingurumari horretan, gure erakundeak jardunaldietan estatutuaren balizko aldaketaren kariatara egin dituen hausnarketak bildu ditugu jarraian; alde horretatik, kontuan izan beharra dago erakunde nahiko berria dela foru araubidearen bilakaeraren eta autonomia erkidegoetako gainerako arartekoen aldean, 2000. urtean sortu eta urtebete geroago jarri zelako abian, baina, hala ere, oso eginkizun garrantzitsua duela, Arartekoari buruzko Foru Legeak berak dioenez: Espainiako Konstituzioak eta Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoak babesturiko eskubideak eta askatasunak defendatu eta hobeto babestea.

Gogoeta hauek Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak hain eginkizun garrantzizkoan aplikatu behar duen erantzukizunaren emaitza dira eta, erakundearen antolamenduari berarekin bat, bi alderdi jakini buruzkoak dira funtsean, eta ezinbestean: batetik, kontuan izanik oinarrizko helburua herritarren eskubideak eta askatasunak modu eragingarrian bermatzea dela baina, gainera, eskubideok eta askatasunok sustatu ere egin behar dituela, arartekoak eskubide eta askatasun horiek ezinbestean aipatzeko proposatu du, haien erabileraren hedadura eta bermean areago sakontzearren; bestetik, aipatu lege testuan Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa aipatzeko komenigarritasuna planteatu du, baita aipamen hori egiteko modurik egokiena ere.

Hala ere, bada beste alderdi bat, berez Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren balizko aldaketaren barnean sartu ez arren, alde batera utzi ezin dena: gogoeta egin beharra dago Espainiako arartekoaren eta autonomia erkidegoetako arartekoen arteko harremanen egungo antolamendua aldatzeko

aukerari buruz, urte hauetan guztietan bi erakundeok izanik eskuratu dugun esperientzia ikusita.

Dena dela, auzi horiek guztiak jorratu aurretik, ezinbestekoa da Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoak hogeitaka urte hauetan izan duen garrantzia aipatu eta ezagutzea, gure foru araubidea eguneratu, gure erakunde tradizionalak demokratizatu eta Nafarroako Espainiako Konstituzioak xedatzen duen batasunarekin bateragarriak diren eskumenak eta ahalmenak bere gain hartzeko balio izan baitu; hain zuzen ere, batasun hori da Nafarroaren eta Espainiaren arteko harremanen benetako muga eta ohiko erreferentzia.

Era berean, ezin ahaztu dugu arau horrek 1978tik aurrera ezarritako Konstituzioaren esparruan herritarrei onartzen zaizkien eskubideen eta askatasunen aurrerapenean eta lorpenean izan duen eragina, Nafarroak garapen eta ongizate maila esanguratsua lortu baitu horri esker. Horrek ez du esan nahi, ostera, atseginkerian erori eta eskubideok eta askatasunok hedatu eta eragingarriagoak izateko aurrera egiten jarraitu behar ez dugunik.

Alde horretatik, gure esperientzia laburrari esker, administrazioek halako eskubideak (batik bat, gizarte eskubideak) zinez gauzatzeko jardun dezaten eskatzera datozkigun herritarrak izozmendiaren muturra besterik ez direla ohartu gara, nahiz eta batzuetan gordintasun osoz planteatzen diren banakako egoerak baino ez izan, egin izan ditugun urteko txostenek eta txosten berezietan argi eta garbi adierazten dutenez. Iozmendi horrek azaleratu gabe jarraitzen du oraindik ere eta, horregatik, egokitu zaizkigun eginkizunak bete eta izozmendi hori nabarmendu eta azalertzera behartuta gaude arartekook; gainera, administrazio eskudunek behar bezainbesteko arreta eman diezaioten galdatzeko betebeharra ere badugu.

Azken batean, analisi hau garrantzi handiko eginkizun baten barnean dago, eta eginkizun horren abiapuntuak egungo egoeraren gaineko ezagutza eta, horrenbestez, erreforma planteamendu orok Espainiako Konstituzioak eta Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoak xedatzen duten arau esparruan oinarritu beharra izan behar du. Hala ere, horrek ez du esan nahi bazter utzi behar denik aurrerapausoak eman behar direla ezinbestean alor honetan, badagoelako gure gizartean funtsean Konstituzioak onartzen dituen printzipioak eta eskubideak guztiz erabili ezin dituen sektorerik.

2. Oinarrizko eskubideen eta askatasunen erabileraren hedadura eta bermean sakontzea

Jakin badakigu Espainiako Konstituzioko I. idazpuruak onartzen dituen oinarrizko eskubideen eta askatasunen inguruko ikuskera ezberdina dela, haien babes maila zenbaterainokoa den.

Batetik, idazpuru horretako II. kapituluaren ageri diren oinarrizko eskubideak eta askatasunak ditugu: askoren ustez, egiazko eskubidetzat baino ezin dira hartu horiek guztiak eta, horregatik, epaileen eta auzitegien aurrean zuzenean eta berehala galda daitezkeela esaten da, eta legegileen jarduna mugatzeko benetako zedarria dira.

Bestetik, idazpuru horretako III. kapituluaren ageri direnak ditugu: politika sozial eta ekonomikoa zuzentzen duten printzipioak dira eta programatikoak dira zinez, aurreko kapituluakoa ez bezala, eskubide hauen eragingarritasuna berehalakoa ez den arren, legedi positiboa, epaileen jarduna eta botere publikoen jokaera taxutzen dutelako; hala ere, euren galdagarritasuna garatzen dituzten legeen arabera da.

Hau da, norentzatzat botere publikoak dituzten arau juridikoak diren arren, eskubide horiek ez dute Konstituzioko 53. artikulua onartzen duen babesa edo bermea eta, horrenbestez, balizko eskubideak baino ez dira egiaz, Konstituzioa bera ondoko arautze prozesuari lotzen zaion neurrian haien eragingarritasuna eta galdagarritasuna direla eta.

Bestalde, zein alorri buruzkoak diren erreparatzen badiogu, esan liteke eragina Konstituzioko 1.1. artikulua ezartzen duen zuzenbide estatu sozial eta demokratikoaren gizarte edo laguntza alderdian dutela funtsean; hain zuzen ere, konstituziogileak gizarte demokratiko aurreratua ezarri eta herritar guztien arteko funtsezko berdintasuna lortzeko oinarrizko helburua egokitu zion gizarte estatuari forma historikoaren beraren bereizgarritzat.

Hala eta guztiz ere, Konstituzioa 25 urtetik gora egon da indarrean, eta esperientziak erakutsi du zailtasunak egon daudela gizarte eskubideak erabat bermatzeko. Alde horretatik, Konstituzioaren arauzkotasuna argudiatzea ez da nahikoa; aitzitik, arauzkotasuna alde batera utzi eta nahitaezkotasunari heldu behar zaio, "askatasunezko" dei genitzakeen eta funtsean I. idazpuruaren II. kapituluaren ageri diren eskubideen gaineko bermearen antzekoa lortzeko.

Izan ere, dagoeneko "hirugarren belaunaldiko" deritzen eskubideez (elkartasun kontzeptuari buruzko) hitz egiten den honetan, oraindik ere asko dago egiteke gizarte eskubide edo bigarren

belaunaldiko eskubideak (funtsean, Konstituzioak arautzen duen gizarte eta ekonomia arloko politika zuzentzen duten printzipioen bitartez gauzatzen direnak) zinez erabili eta bete daitezten.

Eskubide horien eragingarritasuna botere publikoen esku dago berez, eta haiei dagokie eskubideok zilegitzeko beharrezko neurriak hartzea, baina, hala ere, alor juridikotik kanpo bada beste faktore bat, erabakigarria dena gizarte eskubideak benetakoak izan daitezten: eskubideok erabiltzea ahalbidetuko duten egiturak eta baldintzak izatea gizarte eta ekonomia arloan.

Horren arrazoa eskubide hauetako gehienak zerbitzuen alorrekoak izatea besterik ez da, hori dela-eta, ezinbestekoa baita, lege arautzeaz gain, eskubideok egiaz eta modu eragingarrian erabiltzeko aukerak izatea. Bestela, legedia gizartearen onerako xedatu beharra beteko ez luketen (eta, hortaz, Konstituzioko 9.2. artikulua aurka-koak izanen lirakeen) arau programatiko multzoa besterik ez genuke berriro ere.

Horregatik guztiatik, hasiera batean aipatu dugun Nafarroako foru eraentzari buruzko Lege Organikoaren balizko erreforma prozesuak botere publikoen (besteak beste, Nafarroako) konpromiso maila handiagoa lortzeko balio behar duela uste dugu. Horretarako, erdietsi beharreko helburuak eta helburuok erdiesteko beharrezko bitartekoak zehazkiago finkatu behar dira. Hartara, Konstituzioak adierazten duen norabide berean eta ezartzen duen gizarte estatuaren benetako esanahian aurrera eginen genuke, eta gizarte eskubideak teorikotzat hartzeari utzi eta benetako eskubide bihurtuko lirake.

Ildo horretan, Nafarroako foru eraentzari buruzko Lege Organikoak horri buruzko aipamenik egiteak botere publikoek hori guztia lortzeko egiten dutena sendotu eta botere publikoak konpromiso handiagoa hartzea bultzatzea, are gehiago arau horrek Foru Komunitatean indarrean dagoen antolamendu juridikoan duen garrantzia eta eginkizun esanguratsua kontuan izanik.

Edonola ere, Lege Organikoaren egungo testuaren edukiari dagokionez, ez da ageri bertan alor honetan erdietsi beharreko helburuak aipatzen dituen inolako arau programatikorik, beste autonomia estatutu batzuetan (hala nola, Andaluziakoan -12. artikulua-, Extremadurakoan -6. artikulua-, Gaztela eta Leongoan -8. artikulua-, Asturiaskoan -9. artikulua- eta Gaztela-Mantxakoan -4. artikulua-) ez bezala; 6. artikulua bakarrik bermatzen du zer edo zer, laburki bada ere: nafarrek gainerako espainiarrek dituzten oinarrizko eskubide, askatasun eta betebeharrak izan behar dituztela.

Hortaz, halako atal edo aipamenik txertatuko balitz, bi helburu lortuko lirateke: batetik, esan bezala, halako eskubideek babes handiagoa izanen lukete eta lotesleagoak izanen lirateke eta, hartara, herritarrek zinez erabili ahal izanen lituzkete; bestetik, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeko Lege Organikoak hasiera batetik izan duen hutsune garrantzitsu bat beteko litzateke.

Ildo berean, ezin dugu alde batera utzi, une honetan berretsi eta indarrean sartzen ari den arren, Europako Konstituzioaren testuak kutsu sozial nabarmeneko eskubideen zerrenda luze bat (II.61.-II.114. artikulua) ematen duela, Oinarritzko Eskubideen Gutunean ageri diren eskubideek osatutakoa; izan ere, Europar Batasuneko kide diren estatuak eskubide horien onspena eta garapena sustatu behar dute.

Hain zuzen ere, gizarte arloko eskubide edo helburu ugari aipa litezke (enplegu betea eta lanpostuen kalitatea sustatzea, gizarte justizia, garapen iraunkorra, gizarte babes handia, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna, haurren eskubideak, osasun sistema publiko ona, gizarte zerbitzu eta interes orokorreko zerbitzu eragingarri eta kalitatekoak...) baina, horien artean, gure erakundearen jardunaren helbururik nabarmengarrietako bat ahulenak diren eta, beraz, babes handiagoa behar duten taldeen (emakumezkoen, zaharren, haurren, atzeritarren eta ezindu fisikoekin zein psikikoekin) eskubideen babesari aparteko arreta ematea izan da hasiera batetik.

Horiez gain, baina, pertsona asko eta asko oraindik dagoen egoera ezinbestean aipatu beharrean gaude, pertsona horiek ez dituztelako baliabide nahikoak bizi baldintzen gutxieneko duintasuna bermatzeko, eta pobrezia atalasetik behera ere bizitzera behartuta daudelako.

Ongizate estatuaren ezaugarrietako bat da "estatuak gutxieneko bizi mailari eusteko duen erantzukizuna, eskubide soziala den aldetik; hau da, ez da gutxiengoarentzako karitate publikotzat hartu behar, erkidego moderno eta demokratikoetako herritar guztiekiko erantzukizun kolektibotzat baizik?"

Hori dela-eta, beharrezkoa da botere publikoek konpromiso irmoa hartzea halako egoerak desagerrarazten saiatzeko eta, horretarako, zerbitzu material nahikoak bermatu behar dituzte, egoera zail honetan dauden pertsonen oinarritzko beharrei erantzuteko.

Azkenik, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoak aipatu behar dituen gizarte eskubideak zehazterakoan,

lehen aipatu talde batzuek (zehatz-mehatz, etorkiniek) azken urteotan izan duten bilakaera izan behar da gogoan; lehenik eta behin, kopuru handi bat osatzen dutelako eta horrek ondorioak dituelako gizarte, kultur eta ekonomia arloan –hurrenkera horretan–; eta, bigarrenik, euren eskubideen babesaren garrantziagatik, guztiok gaudelako euren eskubideak babestera behartuta.

Ildo horretan, egungo Konstituzioak hainbestetan aldarrikatzen duen berdintasuna forma hutsa izan ez dadin lortzeko ahalegina biztanleria osoaren baina, batez ere, aipatu taldeen (emakumezkoen, zaharren, haurren, atzeritarren eta ezinduen edo mendekoekin) baitan egin behar da eta, horretarako, berdintasun hori erreala eta egiazkoa izateko beharrezko neurriak hartu behar dira; gure betebeharra eta konpromisoa da horiei guztiei erantzun zuzena ematea.

Horregatik guztiagatik, badirudi egokia dela eskubide hauei guztiei buruzko idazpuru bat txertatzea Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren egungo testuan, hainbat arau programatikoren bitartez, gizarte eskubideok egiaz erabil daitezzen bermatzeko.

Zehatz-mehatz, proposatu dugun testuak, Nafarroako herritarrek Espainiako Konstituzioan, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoan eta nazioarteko itunetan eta hitzarmenetan ageri diren eskubideak, askatasunak eta betebeharrak dituztela onartzeaz gain, gizarte arloko hainbat eskubide ere aipatzen du; hain zuzen ere, Nafarroako Foru Komunitateak bermatu behar du eskubideon erabilera osoa, beharrezko politikak sustatuz eta beharrezko neurriak hartuz. Politika eta neurri horiek batik bat pertsona eta talde jakin batzuen egoera pertsonalaren edo sozialaren ondorioz jazo litezkeen ezberdintasunak eta diskriminazioa gainditu eta herritar guztiek gutxieneko bizi baldintza duinak eta kalitatekoak izateko beharrezko zerbitzu oinarritzkoak bermatzen ahalegindu behar dute.

Azkenik, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko artikulua bat txertatzea proposatu dugu. Ondoan azalduko dugu arrazoibidea baina, funtsean, haren oinarria da Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa Espainiako Konstituzioak eta Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoak onartu eta babesten dituzten eskubideak eta askatasunak defendatu eta hobeto babesteko sortu den erakundea dela.

3. Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoak Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa aipatzea

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa arautzen duen uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea xedatzearen eta urtebete geroago erakundea abian jartzearen ondorioz, Nafarroa antzeko erakundeak (herritarren eskubideak eta askatasunak norbere lurraldean babesteko eginkizuna dutenak) dituzten autonomia erkidegoen multzoari batu zitzaion.

Izan ere, norik bere autonomia legeak onartu ostean, Andaluziak, Kataluniak, Galiziak, Aragoik, Kanariar Uharteek, Euskadik, Valentziak, Gaztela eta Leonek eta, berrikiago, Gaztela-Mantxak gauza bera egin zuten; alegia, hurrenez hurren, Andaluziako Arartekoa, Síndic de Greuges, Valeador do Pobo, Justizia, Diputado del Común, Arartekoa, Síndic de Greuges, Procurador del Común eta Gaztela-Mantxako Arartekoa erakundeak sortu zituzten.

Horien guztien artean, Gaztela-Mantxako Autonomia Estatutuak soilik ez du erakunde hau berariaz aipatzen. Gaztela eta Leongoak ere ez zuen inolako aipamenik hasiera batean baina, urtarrilaren 8ko 4/1999 Lege Organikoak bertako autonomia estatutua erreformatu duela-eta, hutsune hori bete egin da.

Era berean, bada, autonomia estatutuek antzeko erakunderen bat xedatzen duten arren, oraindik ere hura sortu eta arautzeko legea eman ez duen autonomia erkidegorik, hala nola, Kantabria, Errioxa eta Extremadura. Are gehiago, Balear Uharteetan 1993. urteaz geroztik existitzen da lege hori, baina oraindik ere ez zaio ekin erakundea martxan jartzeari.

Azken batean, Espainiako lurralde egituraren oinarria xedapen printzipioa denez gero, Espainiako Konstituzioak berak autonomia erkidego bakoitzeko erakunde egitura autonomia erkidego bakoitzeko bertako autonomia estatutuaren bitartez finkatzea ahalbidetu du. Ikusi dugunez, autonomia erkidego gehienek baliatu dute bitarteko hori, eta norbere autonomia erkidegoko arartekoa txertatu dute euren antolamenduan.

Hala ere, aukera hori ez da estatutuetara bakarrik mugatzen, autonomia erkidegoek euren autogobernu erakundeak antolatzeko eskumenak ere hartu baitituzte euren gain. Hain zuzen ere, horregatik onartu da autonomia erkidegoetako legegileek, euren erakundeak euren kabuz antolatzeko eskumena dutela-eta, euren antolamenduan erakunde hau txertatzeko ahalmena dutela. Areago, erakunde hauek parlamentuen mandatariak dira, hots, parlamentuen existentziaren beraren emaitza

dira berez eta, horrenbestez ez da beharrezkoa autonomia estatutuak erreformatzerik.

Ildo horretan, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeko Lege Organikoak ez du inolako aipamenik egiten arartekoari buruz, baina uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen bitartez ez ezik, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeko 13/1982 Lege Organikoko 49.1.a) artikulua Foru Komunitateari onartzen dion eskumen historikoa erabiltzearen ondorioz ere sortu da; hain zuzen ere, eskumen hori foru erakundeen osaera, eginkizunak, antolamendua, funtzionamendua eta araubidea arautzeari dagokio.

Formula hori baliozkoa izan arren, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeko Lege Organikoa erreformatzeko aukera dugu orain, baita arartekoen erakundeak abian izan diren urte hauean guztietan eskuratu dugun esperientzia eta egonkortasuna ere. Horregatik, baliteke parada hau testu horrek Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa egokiro aipatzeko aprobetxatu behar izatea, arartekoak Foru Komunitateko erakundeen artean duen presentzia egonkortu eta sendotzeaz gain, bere funtzionaltasuna eta egokitu zaizkion helburuak betetzeko bermeak hobetu eginen liratekeelako hartara.

Guk geuk proposatu dugun artikulua erakundearen berezko ezaugarriak islatzen ditu, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa sortzeko 4/2000 Foru Legeak berak aipatzen dituen batzuk hartuta oinarri eta, hartara, legegileak arartekoaren erakundea itxuratzerakoan izan zuen borondatea errespetatu. Zehazki, erakundearen izaera eta eginkizunak, eta jardunaren beregaintasuna eta beregaintasun hori bermatzen duten baldintzak dira proposamenaren oinarritzko ildoak.

Alde horretatik, oinarritzko ezaugarriari dagokienez, alde batera utzi da erakundeko burua aukeratzeko beharrezko gehiengoari buruzko aipamen espezifiko oro, beste autonomia erkidego batzuetako arartekoek egin dituzten proposamenek halakorik izan arren. Horren arrazoia da Parlamentuak gai horri buruzko ekimena (martxoaren 7ko 3/2005 Foru Legea) onartu berri duela eta, horrenbestez, Legeak xedatzen duenari lotu behar gatzazkiola alor honetan.

Ildo horretan, nabarmentzekoa da Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren oinarritzko ezaugarriak Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren bidez islatzea berez komeni dela, baina baita beste abantaila bat dakarrelako ere. Izan ere, hori eginez gero, ezaugarriok Lege Organikoa erreformatuz bakarrik

aldatu ahal izanen lirateke eta, horretarako, Nafarroako Parlamentuan ordezkariak duten alderdi politikoek adostasun handia lortu beharko lukete alor honetan; hau da, hizpide dugun erakunde esparrua egonkorragoa izanen litzateke.

Eskumen esparruari (batik bat, ikuskatze lanaren eskumen esparruari) dagokionez, berriz, proposamenak "administrazio oker" dei genezakeenari aurre egin beharra xedatzen du Nafarroako arartekoaren eginkizun esanguratsuenetakotzat; alegia, arartekoak botere publikoak, nahitaez errespetatu behar dituzten arauekin eta printzipioekin bat ez jokatzeagatik, gehiegikerian edo utzikerian eror litezkeen egoerei aurre egin behar die. Hala ere, 4/2000 Foru Legeko 1.3. artikuluko bidei ere jarraitzen zaie arartekoak bere helburuak betetzeko ikuska ditzakeen administrazioak edo erakundeak direla-eta, eta Nafarroako administrazio publikoak eta haien mendeko erakundeak aipatzen ditu, oro har.

Alde horretatik, Konstituzio Auzitegiak gai honi buruz eman dituen ebazpenak ikusirik, nabarmendu beharra dago, 4/2000 Foru Legeak berriaz hartzen dituen modu berean, proposamenak Nafarroako toki erakundeak ere hartzen dituela barnean.

Izan ere, udal edo toki araubidearen alorrean kontuan izan behar da Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 46. artikuluko 1.a) atalak funtsean 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduak eta 1925eko azaroaren 4ko Errege Lege Dekretu Itunduak xedatzen zituzten ahalmen eta eskumen historiko berberak egokitzen dizkiola Nafarroari. Hain zuzen ere, testu horiek ahalmen esanguratsuak egokitzen zizkioten orduan Diputazioa zenari eta, horri esker, hark udaletako administrazio osoa ikuska zezakeen ia, eta baita udalen jardunaren legeztatuna zinez kontrolatu ere.

Nafarroako udal administrazioaren 1928ko otsailaren 3ko arautegia dugu araubide horren adierazgarri garbia, hainbatek Nafarroako udal araubideari buruzko egiazko tratatutzat duena eta 1925eko azaroaren 4ko Errege Lege Dekretutik eratorri zena.

Arautegi horrek Diputazioak Nafarroako toki erakundearen gainean aplikatu zitzaizkeen zenbait kontrol, esku-hartze eta babes neurri xedatzen zituen eta, ondoan beste araudi batzuk onartu eta araudi horiek alor batzuetan ordezkariak duten arren, arautegi horren testua Nafarroako toki administratioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea onartu arte egon zen indarrean. Tartean, aldaketarik esanguratsuenetako bat Nafarroako Gobernuak

Nafarroako toki erakundearen jardunaren legezkotasunaren eta interes orokorraren gainean aplikatzen zuen kontrola arautzen zuen apirilaren 17ko 2/1986 Foru Legearen onarpena izan zen.

Funtsean, arau horren helburua Espainiako Konstituzioak aldarrikatzen duen udal autonomiaren printzipioa gauzatzeko izan zen eta, horretarako, erakunde horien jardunaren gaineko aurretiko hainbat neurri deuseztatu zuen, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren (gure toki araubidearen berezko erakunde baten) aurrean gorako errekurtsioa aurkezteko aukera xedatu zuen eta Foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 46. artikuluko 2. atalak Foru Diputazio edo Nafarroako Gobernuari egokitzen zion legezkotasunaren eta interes orokorraren gaineko kontrola udal autonomiaren printzipio horretara egokitu zuen.

Espainiako Konstituzioko lehenengo xedapen gehigarriko lehenengo paragrafoak eskumen historiko horien erabilerak errespetatu egin behar direla arautzen du, eta errespetu hori Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 46. artikuluko eta toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak eta Toki ogasunak arautzen dituen Legeak) ere islatzen dute, ikusi dugunez. Horrenbestez, errespetu horrek berak oinarritu eta zilegitzen ditu uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 1.3.b) artikuluko xedapenak, eta baita guk proposatu dugun testuak ere, Nafarroako toki erakundeak ikuskatzea Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren eskumenen esparruko delatzenak.

Arrazoibideak eta hausnarketak ezberdinak badira ere, beste autonomia erkidego batzuk ere neurri hori bera aplikatzen ari dira, eta joera zuzena da hori gure ustez. Esaterako, Kanariar Uharterek Diputado del Común erakundearen erreformatu berri dute, eta autonomia estatutuen balizko erreformatuak ere halako planteamenduak azaleratzen ari dira.

Azkenik, egunerokoan baliatu baliatzen den aukera bat (norbere eskumen esparrua errespetatuz betiere, Nafarroan egoitzarik duten gainerako administratioei alor jakin batzuetan laguntza eskatzea) onartu eta karguan jarduteko beharrezko bermeak behar bezala, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoa bezain garrantzitsua den arau baten bitartez islatzea dira Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruz proposatutako testuak aipatzen dituen azken bi auziak.

4. Espainiako arartekoaren eta autonomia erkidegoetako arartekoen arteko harremanak bestela antolatuta beharra

Gure erakundearen helburua ez da auzi honetan eginkizun nagusia edo protagonismoa gure gain hartzea, are gutxiago kontuan izanik oso ibilbide laburra egin dugula beste autonomia erkidego batzuetako antzeko erakundeen esperientziaren eta egonkortasunaren aldean. Alabaina, behatutakoaren eta hainbatetan gai honi buruz egin ahal izan dugun analisi orokorraren ondorioz, egungo egoeraren inguruko ikuspegi kritikoa emateko moduan gaude eta, asko jota, desegokia eta nabarmenki hobetzeko modukoa dela esan beharrean gaude.

Ikuspuntu honen bitartez, gure helburua gure harri koskorra ekarri eta, hausnarketaren bidez, harreman hauen egungo antolamendua gainditzen laguntzea da, halako erakunde guztiei egokitzen zaien eginkizuna ahal bezain hobekien bete dadin bermatuko duen konponbidea bilatzearen; azken batean, horixe da garrantzitsuena: herritarren eskubideak eta askatasunak babestea.

Espainiako Konstituzioa indarrean egon den ia 30 urteetan gertatutakoak ikusirik, Konstituzioa xedatu zenean onartu ziren ikuskera jakin batzuei buruz gogoeta egin eta ikuskera horiek berriro aztertzeaz gain, urteotan gauzatu den dezentralizaziorantzko joerak banakoengan eragina duten eskubide asko eta asko (gure erakundeei dagokienez, gizarte arlokoak) autonomia erkidegoetako botereen esku utzi dituela jabetu gara.

Ondorioz, Estatuak alor jakin batzuetan dituen eskumenak hainbat autonomia erkidegotako autonomia estatutuek xedatzen dituzten eskumenen bitartez gauzatu behar izan dira: etxebizitza, hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak...

Ingurumari horretan, badirudi arrazoizkoa dela, arartekoen erakundeak askotara antolatzea ez ezik, baita antolamendu hori autonomia estatuaren ezaugarrietara egokitzea ere, alegia, lurralde egitura administratibo askotarikoak izatera autonomia erkidegoetako egitura politikoen artean.

Izan ere, arautegi jakin bat zegoen alor honetan hasiera batean: Arartekoari buruzko Lege Organikoa. Lege hori, baina, osatu egin behar izan zen berehala, arartekoen erakunde ugari izateari zentzuz heltzen saiatzearen, eta, gainera, orduan ez genuen egun izan badugun ikuspegi historikoa. Horrek guztiak harreman hauen bilakaera Espainiako Konstituziotik ondorioztatzen den lurralde antolamenduaren eredu berrira areago egokitzea galarazi du nolabait.

Azken batean, autonomia erkidegoen estatua eratu izanaren eta, Arartekoari buruzko Lege Organikoa onartu zenean, autonomia estatutuek antzeko erakundeak sortzea aurrez ikusi izanaren (eta gauzatu egin den aukera baten: halako erakundeak sortu eta ugaritzearen) ondorioz, konponbideak bilatu beharrean jarraitzen dugu, hala norbere eskumenak mugatzeko, nola erakundeek elkarrekin lan egiteko bideak aurkitzeko, herritarren eskubideak babesteko sistema koherente eta eragingarria antolatze aldera.

Alde horretatik, ez dirudi beharrezkoa denik gai honi buruz izan diren iritziak berriro ere errepikatzea, esan bezala, elkarren kontrakoak izan baitira, Espainiako Konstituzio 54. artikulua inter-pretazioagatik funtsean, baina baita bertako xedapenak indarrean dagoen Arartekoari buruzko Lege Organikoaren bitartez garatzeko moduagatik; are gehiago, ez dirudi egokia denik eztabaida horretako argudio batzuk edo besteak errepikatzea ere. Nahikoa ezagunak dira honezkerok.

Aitzitik, gure ikuspuntuari eta egoerari esker, gai honen inguruko ikuskera askoz ere aberasgarriagoa eta, seguru asko, zuzen eta errealagoa emateko moduan gaude, gure ekarpenak eta iritziak gure erakundeen jardunaren (hainbatetan, urte luzeetakoaren) ondorioz eskuratu dugun esperientziaren fruitua direlako hain zuzen ere.

Ildo horretan, nabarmentzekoa da, erakundeotako batean izan duen esperientzia luzea dela-eta, Enric Barlett i Castellá jaunak Síndic de Greuges erakundeari buruz argitaratu duen lanean (zehazki, Espainiako arartekoarekiko harremanei buruzko atalean) esandakoa. Izan ere, erakunde horretan eman dituen urteetan ikusi duena xehe-xehe eta zehatz-mehatz azaldu du, joera dogmatiko edo teorikoagoek alderdi praktikoko hori alde batera uzten duten arren hainbatetan, eta, gainera, hainbat proposamen egin du, Espainiako arartekoaren eta autonomia erkidegoetako arartekoen eskumenak (batak zein besteak dituztenak) bestela banatzeko.

Egungo egoeraren arazoei buruz eman dituen argudio eta arrazoibide batzuk aipatzeko modukoa dira, egiazkoak dira eta.

Batetik, gure erakundeen aginpidea oso kalte-tua suerta daiteke Espainiako arartekoak euren eskumeneko esparruetan esku hartzen badu. Autonomia erkidegoetako arartekoen lana gutxietsi edo gaitzestetzat har lezakete hori bai ikuskatu beharreko administrazioek, bai babesten ditugun eskubideen jabe diren herritarrek, baina, aldi berean, Espainiako arartekoarentzat ere litzateke hori kaltegarria, arazo eta interferentzia horiek haren

aginpideari eginen lioketelako kalte herritarren eta administrazioen aurrean zilegitasun handiko arartekoa duten autonomia erkidegoetan.

Bestetik, ez da logikoa eta zentzuzkoa Espainiako arartekoak, Gorte Nagusietako mandatariak, bere eskumenak bere eskumeneko esparruaz harago hedatzea. Izan ere, mandatarien ikuskatze lanaren eta Parlamentuen kontrol politikoaren artean dagoen loturaren ondorioz, komenigarria da arartekoa duten autonomia erkidegoetako parlamentuek hark txostena aurkezten duenean jardutea politikoki dena delako administrazioa zuzentzen duen gobernuaren aurka.

Horretatik guztitik, eta botere publikoei berrikiago eskatzen hasi zaizkien printzipioetatik eta ikuskeretatik (hala nola, eragingarritasuna, dezentralizazioa, hurbiltasuna, berehalakotasuna, zalutasuna, malgutasuna eta arrazoizkotasun burokratikoak –Espainiako Konstituzioak horietako batzuk aldarrikatzen ditu– eskatzetik eta berrikiago sortu den beste batetik, ordezkapenetik, Batasuneko zuzenbideak erabakitzeko mailarik eragingarri eta komenigarriena aukeratzekoan ahalik eta eragingarritasun eta proportzionaltasun handiena lortzeko ezarri duenetik) ondorio bakarra atera daiteke, Konstituzioko 2. artikulua interpretazio sistematikoari jarraiki: Arartekoa hain neurri txikian arautuz, konstituziogileak irekita utzi zituen erakundea dena delako lege organikoaren bitartez garatzeko bide guztiak.

Ikuspegi horrekin bat, gogoan izan beharra dago, Espainiako Konstituzioak bermatzen dituen eskubideak urratzea dela eta, autonomia erkidegoetako arartekoek ere izan behar dutela Konstituzioa jakin eta aplikatzeko betebeharra eta, horrenbestez, Konstituzioak herritarrei bermatzen dizkien eskubideak babesteko; izan ere, urratze horiei Espainiako arartekoak bakarrik egin diezaiekeela aurre esan izan da orain arte.

Horregatik guztiagatik, gogoeta egin behar dugu Espainiako arartekoa izaten jarraitzea merezi duen, eskumen orokorrak eta autonomia erkidegoetako arartekoaren eskumenekin bat egiten duten baina haien eraginik ez duten eskumenak dituela eta, edo Espainiako arartekoaren eta, halakorik dagoen autonomia erkidegoetan, autonomia erkidegoetako arartekoaren arteko harremana eskumen printzipioaren edo, areago, lurraldearen gaineko ombudsman sistemaren inguruan ardaztu ez ote beharko litzatekeen. Azken batean, Espainiako Arartekoa Gorte Nagusien erakunde osagarria da eta autonomia erkidegoetako arartekoak autonomia erkidegoetako parlamentuenak dira, eta euren kontrol funtzioa erakunde horien eginkizun nagusien osagarria da; beraz, lotune berbera izan behar-

ko lukete agian ordezkatzeko dituzten biltzarren eta lantoki dituzten lurraldeetako eskumenekin.

Arartekoari buruzko apirilaren 6ko 3/1981 Lege Organikoa alferrik galdutako aukera izan zen alde horretatik, hasieran azaldu dugunez seguru asko, orduan ez genuelako egun izan badugun ikuspegi historikoa eta Espainiako arartekoaren eta autonomia erkidegoetako antzeko erakundearen arteko harremanak arautzen dituen azaroaren 6ko 36/1985 Legeak ere ez zituelako konpondu planteatutako arazoak. Hori dela eta, Enric Barlettek aipatu lanean egiten dituen hausnarketei jarraiki, aztergai dugun auzi hau konpontzeko, arautegi hori (batik bat, 12. artikulua) aldatu egin behar da ezinbestean edo, bestela, aldaketa hori posible ez bada azkenean, bat egiten duten eskumenak behar bezala banatu behar dira, lankidetzaren bitartez betiere.

Lehenengo proposamenaren helburua Espainiako arartekoak arartekoa duten autonomia erkidegoetan autonomia erkidegoetako eta toki administrazioen jarduna ikusatzeko eskumenak betetzeari uztea da, Konstituzio Auzitegiaren aurrean bere jurisdikzioaren zilegitasuna babestu arren, eta, hartara, Espainiako Konstituzioak Estatuaren eta autonomia erkidegoen artean banatzen dituen eskumenak errespetatzea.

Funtsean, Arartekoari buruzko Lege Organikoa ekarri zuen lege proposamenak gai honi buruz hasiera batean xedatzen zuena berreskuratuko litzateke horrela, Parlamentuko zuzemenek nabarmen aldarazi eta gaur egun dagoen moduan utzi zutena.

Uste dugu horixe dela irtenbiderik zuzen eta eragingarriena edo, bestela esan izan denez, biribilena, baina, azkenean aurrera eramanez ezin bada, ez litzateke baztertu behar eskumenak beste modu batera (baina antzera) banatzeko aukera. Horretarako, lankidetzaren bitartez esparrua erabili beharko litzateke, eta Espainiako arartekoak autonomia erkidegoetako arartekoaren esku utzi beharko luke hainbat eskumen baina, era berean, Espainiako arartekoaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko erregelamenduko 24. artikulua ezabatu beharko litzateke aurrez, berriaz debekatzen duelako halakorik.

Are gehiago, lankidetzaren bitartez, Estatuak ararteko propioa duten autonomia erkidegoetan dituen administrazioen jarduna ikuskatzea dela eta ere ezar liteke lankidetzaren bitartez.

Edonola ere, planteamendu horien helburua, eta alor honetan egin litekeen planteamendu ororen, egungo egoera gainditzea baino ez da, arartekoaren askotariko erakundeak daudela, erakunde-

on baliabideak eta, are, elkarrekin lan egiteak sortzen dituen sinergiak ahalik eta modu eragingarrienean aprobetxatuz.

Azkenik, auzi hau konpontzeko bide bat aurkitzeko azken ekarpena egin nahian, badirudi ego-kia dela Kontu Auzitegiak autonomia erkidego bakoitzean dauden kanpoko kontrol erakundeekin dituen harremanen alorrean hartu diren neurriak ere aipatzea; izan ere, arazo hauek ez dagozko arartekoen erakundeen funtzionamenduari soilik, ikusiko dugunez.

Alde horretatik, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 18. artikuluko Comptos Ganbera arautzen du, Nafarroan mendeetako tradizioa duen eta oso sustraituta dagoen erakundea, eta, haren bitartez, Foru Komunitateak arrazionaltasun handiagoa egokitu dio nolabait Kontu Auzitegiaren eta autonomia erkidegoetako kontrol erakundeen arteko harreman funtzionamendu ereduari.

Lehenik eta behin, esan beharra dago Comptos Ganbera izan zela, zalantzarik gabe, gairik polemikoenetako bat Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoa negoziatzeko prozesuan barrena, eta Espainiako eta Nafarroako negoziazio batzordeek hura lantze-ari eman behar izan ziotela denbora gehien Lege Organikoaren testua idazterakoan. Izan ere, bi batzordeak bat bazetozen ere kontabilitatearen gaineko erantzukizuna epaitu edo jurisdikzioa finkatzea Kontu Auzitegiari dagokiola, Estatuko ordezkariak ez zeuden ados foru sektore publikoko kontuen gaineko kontrola Comptos Ganberari bakarrik egokitzearekin.

Desadostasun hori Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 18. artikuluko hirugarren paragrafoaren bidez gauzatu zen konpromisozko formula baten bitartez gaudituz. Harekin bat, kontuak kontrolatzeko eskumenari kalterik egin gabe, Comptos Ganberak "bere jarduna Kontu Auzitegiari helarazi behar dio eta, era berean, Kontu Auzitegiak irizpena eta dagokion espedienteak igorri behar dizkio Nafarroako Parlamentuari, hark egoki deritzen neurriak har ditzan beharrezkoa izanez gero".

Formula horri esker, Kontu Auzitegiaren jarrera babestu zen batetik, Kontu Auzitegia Estatuko eta sektore publikoko kontuen kontrol erakundea dela onartu baitzen Comptos Ganberak bere jarduna hari helarazi beharra ezarri eta Auzitegiari jardun horri buruzko irizpena emateko aukera eskainiz.

Bestetik, Comptos Ganberaren eskumena ere babestu zen, foru sektore publikoko kontuak eta kudeaketa ekonomikoa kontrolatzekoa, Kontu

Auzitegiari haren jardunari buruzko irizpena emateko aukera eman baitzitzaien azkenean, baina ez, ordea, foru sektore publikoa zuzenean kontrolatzekoa. Gainera, Kontu Auzitegiak Nafarroako Parlamentuari igorri behar dio ematen duen irizpena –bide batez, esan beharra dago urte hauetan gutietan ez duela behin ere eman– eta, horrenbestez, hari besterik ez dagokio beharrezko jotzen dituen neurriak hartzeko eskumena.

Esan bezala, formula hori Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeko Lege Organikoko 18. artikuluan islatu da eta, gehiengoak baliozko eta onargarritzat hartu ostean, Kontu auzitegiaren funtzionamenduari buruzko apirilaren 5eko 7/1988 Legeko II. kapituluko (Kontu Auzitegiaren eta autonomia erkidegoetako kanpoko kontrol erakundeen arteko harremanei buruzko kapituluko) 29.2. artikulua neurri batean xedatu du.

Azken batean, ondorio bakarra atera daiteke ohar horretatik, eta aurrez Espainiako arartekoaren eta autonomia erkidegoetako arartekoen harremanen egungo antolamenduari buruz egin ditugunetatik: beharrezkoa da neurriak hartzea eskumenak modu eragingarrian banatu eta, euren eginkizunak betetzeko, arartekoen artean lan-kidetza eragingarria sortzeko.

Era berean, erakundeei buruzko arautegirik esanguratsuenak erreformatzeko abiatu den hausnarketak gure eta Espainiako arartekoaren arteko harremanaren alderdi jakin batzuk hobetzeko balio beharko luke; izan ere, gaur egun dugun ikuspuntuarekin bat, esan liteke alor honetako arautegiak ez diela behar bezala heldu alderdi horiei eta ez dituela behar bezala konpondu.

Helburu hori lortu eta herritarren eskubideak babesteko eginkizun garrantzitsua ahalik eta modu eragingarrienean betetzearren egin dugu txosten edo hausnarketa hau azken gai honi buruz. Xumea da, baina edukiaz ziur gaude, eta espero dugu ahal bezain irtenbiderik onena aurkitzen lagunduko digula, gure erakundearen alderdi esanguratsu hau konpontzeko.

10.3. HAURRAK BABESTEKO LEGEARI BURUZKO PROPOSAMEN TXOSTENA

Abian jarri zenetik, arartekoak aparteko arreta eman dio hurren babesari eta, horregatik, haurrak laguntzeko foru legea osatzeko proposatu zuen 2004. urtean, eta haren oinarritzko ildoak buruzko proposamen zehatzak egin zituen.

Azkenean, 2005. urtean, Gobernuak foru legearen behin betiko proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Lege proiektuaren berebiziko garrantzia ikusirik, arartekoak egoki jo du erakundeak gaiari buruz duen iritzia ematea, eta zuzemenak egin ere egin ditu, ahalik eta adostasun handiena lortzeko haurrak babesteko lege proiektua onartzerakoan; izan ere, lege proiektua bideratu egiten ari zen orduan. Hori dela-eta, idatzia bidali dio Nafarroako Parlamentuko lehendakari Rafael Gurrea Induráin jaunari, zuzenean esku har dezan eskatzeko, Parlamentuko taldeek azken ahalegina egin eta euren iritziek bat egin zezaten, ahal bezain legerik onenean adoste aldera. Edonola ere, ekimen honi buruzko xehetasun gehiago 4. atalean eman ditugu, haurren eskubideen zeharkako defentsari buruzkoan, eta, horregatik, ez ditugu berriro ere errepikatuko.

10.4. ARARTEKOARI BURUZKO FORU LEGEAREN ALDAKETA

Esan bezala, Foru Komunitateko arartekoa arautzen duen uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 2. artikulua aldatu da 2005. urtean eta, gure ustez, aldaketa hori funtsezkoa izan da, erakundeko burua aukeratzeko prozesuan du-eta eragina.

Izan ere, orain arte, Parlamentuko kideen hiru bosten behar ziren arartekoa izendatzeko baina, martxoaren 7ko 3/2005 Foru Legeak ekarri duen aldaketaren ondorioz, lehenengo bozketan gehiengo osoa izatea besterik ez da beharko aurrerantzean. Bigarren aldiz bozkatu behar izanez gero, berriz, nahikoa izanen da, hautagai bakarra badago, gehiengo soila izatea eta, bi hautagai badaude, besteak baino boto gehiago lortzea. Nolanahi ere, lege testu osoa I. eranskinean irakur daiteke.

10.5. ANTOLAKUNTZARI ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ARAUTEGIAREN ONARPENA

Arartekoaren beraren proposamenari jarraiki, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren antolakuntzari eta funtzionamenduari buruzko erregelamendua onartu da 2005eko azaroaren 21ean egindako lan saioan eta, ondorioz, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari ofizialean argitaratu da, 2005eko abenduaren 5ekoan (128. zenbakian), eta baita Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere, 2005eko abenduaren 23koan (153. zenbakian). Edonola ere, urteko txosten honetako II. eranskinean txertatu dugu testu osoa.

Hartara, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko lehenengo xedapen gehigarria bete da, Nafarroako arartekoaren proposamenari jarraiki, Nafarroa-

ko Parlamentuko Mahaiak Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren antolakuntzari eta funtzionamenduari buruzko erregelamendua onartu behar duela dioena.

Izan ere, erakundea martxan izan den lehenengo urteotan Arartekoari buruzko Foru Legeak egokitzen dizkion eginkizunak behar bezala betetzeko gutxieneko antolakuntzaren berri izan dugu eta, horri esker, antolakuntzari eta funtzionamenduari buruzko erregelamendua proposatzeko moduan egon gara, hasiera bateko antolakuntza eta funtzionamendu egitura ezarri ostean, egitura hori erakundeko buruak unean-unean egokien jotzen dituen ezaugarrietara egokitzearen, edozein aldaketa egiteko arautegia ere aldatu beharrik gabe.

Zehatz-mehatz, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari proposatu zaion eta hark onartu egin duen eredia hainbat kapitulu osatzen dute: lehenengo xedapen orokorrekin eratzten dute, eta Arartekoari buruzko Foru Legeak erakundearen antolakuntzari buruz xedatzen dituen alderdirik esanguratsueni buruzkoa da; bigarren kapituluak haren eginkizunak eta eskumenak lantzen ditu, eta 4/2000 Foru Legeko aurreikuspenak zehaztu; jarraian, erakundearen egiturari (laguntzaileari, Koordinazioko eta Barne Araubideko Batzordeari, kexak bideratzeko prozedurari eta erakundearen zerbitzura dauden langileei) buruzko hainbat kapitulu ageri dira; eta, azkenik, arartekoaren araubide ekonomikoari buruzko bat.

Arartekoari buruzko Foru Legeak xedatzen duenaren aldean berrizailatzat jo litekeen alderdiei dagokienez, arautegiko 8. artikulua ezartzen duena aipa liteke lehenik eta behin; izan ere, arartekoak Parlamentuko osoko bilkuraren aurrean urteko txostenaren laburpena aurkeztu behar duela dio. Hartara, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 36.1. artikuluko xedapenak gauzatzen ditu, haiei kontra egin ezean, eta antzeko erakundeetan jarraiki ohi zaion bidea ezarri.

Era berean, aipatzekoa da arautegiak Koordinazioko eta Barne Araubideko Batzordea izan beharra xedatzen duela, antzeko beste erakunde batzuetakoa bezalakoa; hain zuzen ere, Koordinazioko eta Barne Araubideko Batzordea Nafarroako arartekoa aholkatzeko erakundea da, eta erakundeko kargurik esanguratsuenak dituzten kideek osatzen dute, erantsi dugun testuan ageri denez.

Halaber, kexak bideratu edo ofizios jardutea dela-eta, aipatu lege testuak xedatzen duen hainbat alderdi zehatzago finkatzen da, hala nola, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren ebaz-

penek forma aldetik bete beharreko baldintzak eta forma batzuen eta besteen arteko aldeak.

Alde horretatik, nabarmentzekoa da arautegiak adiskidetze edo adoste formulak proposatzeko aukera ematen duela, kexak bizkor eta positiboki ebazte aldera, eta baita bitartekotza lanak egitekoa ere; izan ere, egiteko horiek guztiz barneratuta daude arartekoen lan esparruan, arartekoak funtsean erakundeen arteko lankidetzan oinarritzen diren erakunde beregain eta prestigiozkoak diren neurrian.

Azken bi atalak langileei eta araubide ekonomikoari buruzkoak dira, baina araubide ekonomikoa arautzen duen atalak ez dakar inolako berrikuntzarik, Nafarroako Parlamentuari aplikatu beharreko araubide berari lotzen zaiola eta.

Aitzitik, erakundeko plantilako langileen eta langile funtzionarioen aukeraketari eta izendapenari buruzko atalak planteatu planteatzen du berrikuntzarik. Izan ere, 4/2000 Foru Legearekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeko plantilako langileek eta langile funtziona-

rioek Nafarroako Gorteetako edo Nafarroako Parlamentuko plantilako langileen artean egon behar dute, eta arartekoari dagokio euren lanpostuak esleitzea.

Arautegiak, berriz, Nafarroako Parlamentuak erakundean lan egiten duten plantilako langileen eta langile funtzionarioen aukeraketa eta izendapen prozesuak Nafarroako arartekoaren esku utz ditzakeela dio, baina arartekoak prozesuon berri eman behar diola Parlamentuari, eginkizun horiek ordezkaritzaazkoak direla eta alor honetan koordinazioa izan behar dela eta.

Ildo horretan, kontuan izan beharra dago arartekoak unean-unean behar dituen baliabide materialak (aurrekontua) eta giza baliabideak (langileak) erakundeko urteko aurrekontu proiektua Nafarroako Parlamentura igortzen duenean eskatu behar dituela. Horregatik, aurrekontu proiektuarekin batera erakundearen zerbitzura dauden langile guztien zerrenda ere bidali behar da, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak bertako langileekin batera onar dezan.

11 KALITATEAREN EBALUAZIOA ETA HOBEKUNTZA

2003. urtean, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeko kalitate plana osatzeko lehenengo urratsak eman ziren eta, plan horren ondorioei jarraiki, honako ekimen hauek gauzatu ditugu aurten, gure zerbitzuak hobetze aldera:

Bulegoko Kalitate Batzordeak bilera egin du otsailean, eta hobekuntza talde biek 2004ko apirila eta ekaina bitartean egin zituzten lanak onartu ditu:

- Kexa espedienteak bideratzeari buruzkoa
- Herritarrak laguntzeari buruzkoa

Era berean, honako dokumentu hauek ere onartu dira:

- Lanpostuen zerrenda
- Baimenak, lanak, etab. bideratzeko orriak
- Bekaduna Hartzeko Eskuliburua (behin-behinekua)
- Harrera eta laguntza fitxa

Halaber, Batzordeak Bulegoak jorratzen dituen prozesuetan lan egiten jarraitzea erabaki du, eta honako alor hauei heltzea planteatu:

- Zerbitzuen inbentarioa egin eta erakundeko zerbitzuen gutuna osatzeari
- Ebaluazio galdeketa berriro diseinatu eta hobetzeari
- Kexak eta iradokizunak aurkezteko sistema ezartzeari
- Inguruneak eta gizartea osatzen dituzten sektoreak identifikatzeari

Zuzendaritza Batzordeak, ordea, inguruneak eta gizartea osatzen dituzten sektoreak identifikatzea atzeratu eta beste esparru batzuei ekitea erabaki du ondoan:

- Herritarrak Laguntzeko Taldea sendotu eta hobekuntza proposamenak egiteari
- Barne komunikazioa hobetzeari

11.1. HERRITARRENTZAKO LAGUNTZA HOBETZEKO TALDEAREN PROPOSAMENAK

2005eko azken hiru hilabeteetan Herritarrentzako Laguntza Hobetzeko Taldea sortu da, ematen dugun laguntzaren kalitatea hobetu eta herritarrak erakundera errazago jo dezaten bideratzearen. Taldeak proposatu dituen ondorio eta neurri batzuk abian daude jada, eta beste batzuk 2006. urtean jarri dira martxan.

Hobekuntza taldeak eginiko proposamenak

- Atea zabalik utzi eta inor sartu ahala hots egitea
- Ordutegia eta egutegia sarreran (eta web gunean) azaltzea
- Hautsontzia izatea sarreran
- Erantzungailu automatikoa izatea
 - Ordutegiari buruzko informazioa ematea, doakoa izatea, etab.
 - Izena eta telefono zenbakia emateko aukera eskaintzea, deia bihurtze aldera
 - Deiak departamentuetara desbideratzeko sistema izatea
- Zuzenean Laguntzeko Bulegoa seinalatzea
- Berehalako laguntza ematea (lanpetuta egonez gero, aholkulariari deitzea)
- Langileen izen-abizenak adieraztea norbere mahaian
- "Herritarrak Zuzenean Laguntzeko Bulegoa" izena aldatzea
- Euskaraz laguntzea
- Liburuxka orokorra hobetzea
 - Nahitaez sinatu behar izatea
 - Zer dokumentu aurkeztu behar diren argitzea
 - Kexak posta elektronikoko bidez aurkeztea
 - Urtebete baino gehiago igaro ez izatea
 - Telefono deia doakoa izatea, etab.
- Arartekoarekiko elkarrizketa eskatzeko prozedura argitzea
 - Banakakoak kexa gisa eta aholkulariaren bitartez bideratzea
 - Taldekakoak Kabinete Batzordearen bitartez bideratzea
- Kexak onartzeko irizpide homogeenak ezartzea
 - Sinadurarik ez dutenak direla eta
 - Posta elektronikoko bidez aurkezten direnak direla eta
 - NAREN fotokopia eranstea dela eta
- Arartekoarekiko elkarrizketak jakinaraztea
 - Aurrez ikusi direnak, espedientea ateratzea dela eta

- Egindakoak, jardun gisa erregistratzea dela eta (nork?)
- Idatzien formatua hobetzea
 - Letra handitzea, tarte handiagoak uztea, etab.

11.2. ZERBITZUEN GUTUNA

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren zerbitzuen gutuna osatzen hasi gara, erakundeak erabiltzaileei bermatu behar dien gutxieneko kalitatea eta zalutasuna ezartzeko: erantzun bitartean gehienez igaro daitekeen tarte, bana-banako laguntza, etab. Espero dugu 2006ko azken sei hilabeteetan beteko dugula helburu hori.

11.3. BEKADUNA HARTZEKO ESKULIBURUA

Bekaduna Hartzeko Eskuliburuaren behin-behineko bertsioa osatu dugu, erakundera biltzen diren langile berriei emateko. Dokumentu horren bitartez, erakundearen eginkizunak eta prozedurak zein diren argitzeaz gain, langileen organigrama eta aplikazio informatikoari buruzko eskuliburua azaltzen dira.

11.4. BARNE KOMUNIKAZIOAREN HOBEKUNTZA

2005. urtearen amaieran, albisteak emateko barne sistema sortu da Bulegoko langileentzat.

Sistema horren helburua erakundeko langileen eta Zuzendaritza Batzordearen arteko elkarriketa birtuala bideratzea da, haiek egoki jotzen dituzten irizkiak eta iradokizunak azal ditzaten.

Albisteak emateko barne sistema Intranet sistema da, eta ezagutza banatu beharraren ikuspegiari jarraiki antolatu da; hau da, guztiak dira informazio hartzaile eta igorle eta, horrenbestez, guztiak argitara ditzakete interesgarri jotzen dituzten gertakariak eta, baldin badagokio, banatzea merezi duten dokumentuak.

Gainera, sistema hau erakundeak epe laburrean eta epe luzean finkatzen dituen helburuak jakinarazteko bitarteko eragingarria ere bada, hiru hilean behin helburuei buruz egiten diren bilerak osatzen dituena.


11.5. KEXAK BIDERATZEKO EPEEN MURRIZKETA

Ondoko taulak erakusten duenez, 2005. urtean amaitutzat eman diren kexak bideratzeko batez besteko epea nabarmen hobetu da 2004. urtean amaitutzat eman ziren kexak bideratzeko batez besteko epearen aldean. Zehatz-mehatz, espediente bat abiatzen denetik amaitu egiten den arte igaro den denbora 77,3 egunekoa izan da batez beste; hau da, aurreko urtekoa baino % 31 laburragoa:

	2004	2005	05/04 aldaketaren %
KEXAK BIDERATZEKO DENBORA			
HASIERATIK herritarrak hartze AGIRIA hartzen duen arte	7,7	3,3	% -57
HASIERATIK kexa bideratzeko ONARTZEN den arte	21,6	21,6	% 0
Administrazioaren TXOSTENA hartzen denetik espedientea AMAITUTZAT ematen den arte	41,9	18,3	% -56
Espedientea HASI egiten denetik AMAITUTZAT ematen den arte	112,5	77,3	% -31

Adierazle horiek nahiko egonkorak izan dira urtean barrena kexak bideratzeko batez besteko epeak direla-eta, baina tarteko epeak (kexak bideratzeko onartu eta azken txostena egitekoak) luza-

tu egin direla antzematen da. Luzapen hori ez da kezagarria, baina bada zaintzeko modukoa eta, hain zuzen ere, urteko azken hiru hilabeteetan kexa gehiago hartzearen ondorio izan da.



11.6. ERAKUNDEAREN BALIAGARRITASUNAREN ETA ERAKUNDEARI BURUZKO IRITZIAREN EBALUAZIOA

Aurrez ikusitakoari jarraiki, Informazio Bulegoak hartzen dituen pertsonak eta kexak aurkezten dituztenek betetzen dituzten galdeketak berriro ere diseinatu ditugu, herritarrek erakundeak ematen dituen zerbitzuei buruz duten iritzia ebaluatze aldera.

Bi inkesta anonimo egiten dira horretarako:

- Informazio Bulegora jotzen duten herritarrei
- Administrazioaren aurkako kexaren bat formalizatzen dutenei

Informazio Bulegoak hartzen dituen herritarrentzako inkesta

Inkesta hau Informazio Bulegoan hartzen diren herritar guzti-guztiei eskura ematen zaien galdeketaren bitartez egiten da, eskaintzen diren zerbitzuen kalitateari buruzko iritziaren berri izatearen.

Intimitatea eta anonimotasuna bermatze aldera, gune jakin bat egokitu da inkesta betetzeko, eta postontzi bat inkesta uzteko.

Informazio Bulegoaren helburua herritarrek planteatzen dituzten galdera eta zalantza guztiak erantzutea da, eskubideak jakinaraztea, erakundeak esku hartzeko aukeren berri ematea eta, beharrezkoa bada, kexa idazten laguntzea.

Administrazioaren aurkako kexaren bat formalizatzen dutenentzako inkesta

Aurrekoaz gain, inkesta egiten zaie arartekoaren aurrean administrazioaren aurkako kexak aurkezten dituzten herritarrei, euren iritzia eman dezaten.

Inkesta hau posta bidez helarazten da kexa espedientea amaitutzat eman ostean, hots, Arartekoaren Bulegoak dena delako ebazpena eman eta kexa aurkeztu duenari administrazioak ebazpen hori onartu egin duen ala ez jakinarazi ondoren.

Inkestaren emaitzak hobeto ulertzeko, kontuan izan beharra dago arartekoak hainbat ebazpen mota eman dezakeela kexa baten ondorioz. Bate-tik, kexa funsduna edo funsgabea den erabaki behar du; funsduna bada, gomendioa edo legezko betebeharren gogorarazpena egin diezaioke administrazioari.

Era berean, gogoan izan behar da arartekoaren ebazpenak ez direla lotesleak berez eta, horrenbestez, administrazioek onartu edo ezetsi egin ditzaketela.

Nola izan duzu Nafarroako arartekoaren erakundearen berri?

Erakundera jo duen herritar kopuruaren erdiak ia (% 48k) komunikabideen bitartez izan du haren berri, eta % 17k, senitartekoaren edo ezagunen bidez.

HERRITARREK ERAKUNDEAREN BERRI IZAN DUTEN BIDEA	
Komunikabideak (prentsa, irratia, telebista...)	% 48,0
Senitartekoak eta ezagunak	% 17,3
Administrazioaren baten aholkua	% 7,8
Lehenago ere Erakundearekin harremanetan izana	% 5,6
Bestelakoak	% 21,2
Guztira	% 100,0

Nafarroako Arartekoaren Bulegoak emandako informazioa baliagarria dela uste al duzu?

Nafarroako Arartekoaren Informazio Bulegoak hartu dituen pertsonen % 96,4k eman dieten informazioa baliagarria edo oso baliagarria izan zaiela uste dute.

INFORMAZIOAREN BALIAGARRITASUNA	Informazio Bulegoa
1. Oso baliagarria	% 50,9
2. Baliagarria	% 45,4
3. Ez oso baliagarria	—
4. Batere baliagarria ez	—
Zuri	% 3,6
Guztira	% 100,0

Informazio Bulegora jo ondoan, aldatu al da Nafarroako arartekoak esku hartzeko aukerei buruzko zure iritzia?

Informazio bulegora jo dutenen erdiak (% 50,9k) ikusi dute Nafarroako arartekoaren aukerak aurrez uste baino handiagoak direla, baina % 12,7ri kontrakoa gertatu zaie, arartekoak esku hartzeko aukerak uste baino txikiagoak direla ohartu baitira.

ESKU HARTZEKO AUKERAK	Informazio Bulegoa
Espero baino handiagoak	% 50,9
Espero baino txikiagoak	% 12,7

Eginkizunak ezagutzen zituen	% 14,6
Eginkizunak ez zituen ezagutzen	% 18,2
Zuri	% 3,6
Guztira	% 100,0

Zer moduzkoak iruditu zaizkizu Nafarroako Arartekoaren Bulegoak emandako tratua, adierazitako interesa eta egindako zuzemenak?

Arartekoaren aurrean kexaren bat bideratu duten pertsonen % 79,8k "ontzat edo oso ontzat" jo dute Arartekoaren Bulegoak eman dien tratua eta adierazi duen interesa, eta proportzio hori % 100ekoa ere izan da Informazio Bulegoan bertan izan direnen artean.

EMANDAKO TRATUA	Informazio Bulegoa	Amaitutzat eman diren kexak
1. Oso ona	% 81,8	% 50,4
2. Ona	% 18,2	% 29,4
3. Hala-moduzkoa		% 9,2
4. Txarra		% 6,1
5. Oso txarra		% 3,8
Zuri		% 1,5
Guztira	% 100,0	% 100,0

Argi eta modu ulerterrazean informatu zaituztela uste al duzu?

Arartekoaren aurrean kexaren bat bideratu duten pertsonen % 80,2k "argitzat edo oso argitzat" jo dute Arartekoaren Bulegoak eman dien informazioa, eta proportzio hori % 98,2koa ere izan da Informazio Bulegoan bertan izan direnen artean.

EMANDAKO INFORMAZIOA	Informazio Bulegoa	Amaitutzat eman diren kexak
1. Oso argia	% 70,9	% 38,2
2. Argia	% 27,3	% 42,0
3. Ulertzeko modukoa	% 1,8	% 6,1
4. Ez oso argia ez		% 9,2
5. Batere argia		% 3,1
Zuri		% 1,5
Guztira	% 100,0	% 100,0

Zer moduzkoa iruditu zaizu kexa aurkeztu zenuenetik prozesua amaitu den arte igaro den denbora?

Herritarren % 56,5ek "arrazoizkotzat" dute euren kexa espedientea bideratzen eman den denbora; % 25,2k, "laburtzat edo oso laburtzat"; eta % 16,8k, "luzetzat edo oso luzetzat".

KEXAK BIDERATZEKO DENBORA	Amaitutzat eman diren kexak
1. Oso luzea	% 6,9
2. Luzea	% 9,9
3. Arrazoizkoa	% 56,5
4. Laburra	% 18,3
5. Oso laburra	% 6,9
Zuri	% 1,5
Guztira	% 100,0

Otik 10era, nola kalifikatuko zenuke oro har erakundeak zure arazoa dela-eta esku hartu duen modua?

Erakundearen esku-hartzeari buruz duten iritzia Otik 10era bitarteko nota baten bitartez kalifikatzeko eskatzen zaie herritarrei, eta honako hau izan da emaitza:

KALIFIKAZIO OROKORRA (Otik 10era)	Informazio Bulegoa	Amaitutzat eman diren kexak
1. Oso argia	8,2	6,8

Pentsatzekoa denez, kexa aurkeztu dutenek ematen duten nota orokorra oso baldintzatuta dago azken ebazpenak arrazoa ematen dien ala ez. Ildo horretan, ondoko taulak erakusten duenez, administrazioak arazoi ematen badio erreklamatazailari erakundeak esku hartzearen ondorioz, erakundeari buruzko nota oso ona (8,5 puntukoa) da. Legezko eskakizunak betetzen ez dituztela edo erakundeko zerbitzu juridikoek administrazioak inolako irregulartasunik egin ez duela antzematzen dutela-eta, kexa onartu egiten ez bada, berriz, nota oso eskasa (4,9 puntukoa) da. Beste egoera batzuen gaineko kalifikazioa, azkenik, tartekoa da.

KALIFIKAZIO OROKORRA, KEXARI BURUZKO AZKEN EBAZPENAREN ARABERA	Amaitutzat eman diren kexak
Administrazioak erreklamatazailaren argudioak onartu ditu arartekoak esku hartu ondoren	8,5
Administrazioak arazoa konpontze-bidean dagoela jakinarazi dio arartekoari	6,8
Kexa aztertu ostean, arartekoak erabaki du ez dagoela irregulartasunik, edo administrazioak ez du onartu	5,5
Arartekoak ez du kexa bideratzeko onartu, ez duelako igarri irregulartasunik edo ez direlako bete legezko eskakizunak	4,9
Guztira	6,8

Alde horretatik, gogoan izan beharra dago legediak xedatzen duela Nafarroako arartekoak ezin duela esku hartu partikularren arteko auzietan, administrazioako agintarien aurrean azalduta-koetan, agintarion eskumenekoetan eta epaileen esku daudenetan. Halaber, ezin ditu onartu egilearen datuak ageri ez dituzten kexak.

Arartekoak esku hartzeak arazoa konpontzen lagundu duela uste al duzu?

Herritarren % 59,5ek arartekoaren esku hartzea arazoa konpontzeko "nahiko edo oso baliagarria" izan dela uste dute; % 33,9k, aldiz, uste dute ez dela oso baliagarria izan edo, are, ez dela baterere baliagarria izan.

ESKU-HARTZEAREN BALIAGARRITASUNA	Amaitutzat eman diren kexak
Oso edo nahiko baliagarria	% 61,3
Ez oso baliagarria edo baterere ez	% 33,9

Gomendatuko al zenuke Nafarroako arartekoarengana jotzeko?

Kexaren bat aurkeztu duten pertsonen % 75,6k Nafarroako arartekoarengana jotzeko aholkatuko liekete beste pertsona batzuei, baina % 21,4k, berriz, ez;

Informazio Bulegora jo duten pertsonen artean, bestalde, % 98,2k zerbitzua erabiltzeko gomendatuko liekete beste pertsona batzuei.

GOMENDATU EGINEN LUKE	Informazio Bulegoa	Amaitutzat eman diren kexak
1. Bai	% 98,2	% 75,6
2. Ez		% 21,4
Zuri	% 1,8	% 3,1
Guztira	% 100,0	% 100,0

12 INFORMAZIO EKONOMIKOA**12.1. 2005eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA****2005eko EKITALDIKO AURREKONTUEN BETETZEA AGERTZEN DUEN TXOSTENA**

Nafarroako Arartekoaren 2005eko ekitaldiko aurrekontuen likidazioa dela-eta, honako hau adierazi beharrean gaude:

1. 2005. urterako hasierako kredituak 977.590,00 eurokoak izan dira eta, 26.513,25 euroko aurrekontu aldaketak (2004ko ekitaldiko kredituen soberakinak) gehituz gero horri, 1.004.103,25 euroko behin betiko aurrekontua edo aurrekontu bateratua dugu.

Kredituen soberakinen % 21,64 ekitaldiko gastu arruntak finantzatzeko erabili dira, eta % 73,42, berriz, altzariak eta leihoak erosteko.

2. Gastuen aurrekontua (aitorturiko betebeharrak) 810.861,71 eurokoa izan da. Hau da, betetze maila % 80,75koa izan da.

3. Diru sarreraren aurrekontua (aitorturiko eskubi-de garbiak) 980.943,17 eurokoa izan da, eta errealizazio maila, % 97,69koa.

4. Aurrekontuaren likidazioak 196.594,71 euroko finantziazio superabita eman du.

2005eko ekitaldian zehar eginiko gastuak honako aurrekontu egiturari jarraiki sailkatzen dira, euron:

Eragiketa mota	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebeharrak	BETETZEAREN %
Eragiketa arruntak	884.572,53	777.436,39	% 87,89
Kapital eragiketak	119.530,72	33.425,32	% 27,96
GUZTIRA	1.004.103,25	810.861,71	% 80,75

2005eko ekitaldian, eragiketa arruntaren aurrekontu betetzearen maila % 87,89koa izan da –gastuen egoera orriko I.-V. kapituluak– eta kapital eragiketen betetzeak % 27,96 egin du.

Eragiketa mota	Behin betiko kredituak (1)	Hitzartutako kredituak (2)	(1)/(2)
Eragiketa arruntak	884.572,53	884.459,71	% 99,99
Kapital eragiketak	119.530,72	119.530,72	% 100,00
GUZTIRA	1.004.103,25	1.003.990,43	% 99,99

2005eko ekitaldian, eragiketa arruntak egiteko hitzartutako kredituen ehunekoa % 99,99koa izan da –gastuen egoera orriko I.-V. kapituluak–, eta kapital eragiketak egiteko hitzartutakoa, % 100ekoa

Aurrekontuaren betetzea aztertuko dugu jarraian, kapitulu ekonomikoen arabera.

A) GASTUEN EGOERA

I. KAPITULUA. LANGILERIA GASTUAK

Aurrekontu bateratua 528.955,63 eurokoa izan da, hots, gastuen egoera orriaren % 65,23. Aitorturiko betebeharrak 528.955,63 eurokoak izan dira, eta aurrekontu betetzearen mailak aurrekontu bateratuaren % 100 egin du.

II. KAPITULUA. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Aurrekontuan gastu hauek bideraturiko diru kopurua 333.039,75 eurokoa izan da, hots, gastuen aurrekontuaren % 33,17. eta betetzea % 68,43koa izan da. 2005eko ekitaldian II. kapituluaren hitzartutako kredituen ehunekoa kapitulu horretako aurrekontu bateratuaren % 99,97koa izan da.

Erakundearen funtzionamendurako beharrezkoak diren zenbait gastu sartzen dira kapitulu honen barnean, hala nola, bulegoko materiala, komunikazioak, beste enpresa batzuek eginiko lanak, askotariko gastuak, etab.

IV. KAPITULUA TRANSFERENTZIA ARRUNTAK

Behin betiko kredituak 22.577,15 eurokoak izan dira, hots, gastuen aurrekontuaren % 2,25. Errealizazio maila, berriz, % 91,14koa izan da, praktikan diharduten ikasleei dagozkien kopuruengatik gehienbat, Nafarroako Unibertsitateko Praktika Juridikoko Eskolarekin eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Universidad-Sociedad Fundazioarekin sinaturiko lankidetzak hitzarmenei jarraiki.

VI. KAPITULUA. INBERTSIO ERREALAK

Aurrekontu bateratua 54.820,58 eurokoa izan da eta, hortaz, kapitulu honek gastuen aurrekontuaren % 5,46 hartu du.

Betetzea % 60,97koa izan da. 2005eko aurrekontuan sartu beharreko kapitulu honetako kredituak 21.395,26 eurokoak izan dira. 2005eko ekitaldian VI. kapituluaren hitzartutako kredituen ehunekoa kapitulu horretako aurrekontu bateratuaren % 100ekoa izan da.

Kapitulu honetako kreditu gehienak arartekoaren bulegoak egokitzeko eta zenbait altzari, informazioa prozesatzeko tresneria eta liburuak erosteko erabili dira.

VII. KAPITULUA KAPITAL TRANSFERENTZIAK

Aurrekontuaren betetzea ikusirik ekitaldiaren amaieran, eta Toki Administrazioari Departamentuarekin bi erakundeon egoitza girotzeko lanak egiteko sinatutako hitzarmena ikusirik, 2005eko sobekaren transferentziak egin behar izan dira, 2006ko ekitaldi ekonomikoko aurrekontuko aurreikuspenekin (42.000 euroekin) batera, lanen kostuari aurre egiteko; izan ere, diru kopuru osagarri bat bideratu behar izan da 2006. urtean egitekoak diren lanen kostua (116.769 euro) ordaintzeko.

Aurrez, "Kapital transferentziak" izeneko 7000 saila sortu behar izan da 2005eko ekitaldiko aurrekontuan, transferentzia horiek hartzeko. Hain zuzen ere, zenbateko bateratua 64.710,14 eurokoa izan da, eta zenbateko horren % 100 2006ko aurrekontuan txertatu da.

B) DIRU SARRERAK

Arartekoaren diru sarrerak, aurrekontuaren likidazioari buruzko tauletan ikus daitekeenez, Foru Ogasunetik jasotako transferentzien ondorio dira nagusiki: ekitaldian izandako diru sarrera guztien % 98,89 osatzen dute.

Egiaztatu dugu arartekoaren aurrekontuaren betetzearen inguruko egoera orriak eta aurrekontuz kanpoko eragiketek 2005eko ekitaldiko jardue-ra guztia islatzen dutela.

GASTUEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

2005eko ekitaldia

	HASIERA BATEKO AURREIKUSPENAK	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK	AITORTURIKO BETEBEHAR GARBIAK
Kapitulua: 1. LANGILERIA GASTUAK	581.990,00	528.955,63	528.955,63
Kapitulua: 2. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK	330.000,00	333.039,75	227.903,61
Kapitulua: 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	24.000,00	22.577,15	20.577,15
Kapitulua: 6. INBERTSIO ERREALAK	35.500,00	54.820,58	33.425,32
Kapitulua: 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK	0,00	64.710,14	0,00
Kapitulua: 8. AKTIBO FINANTZARIOAK	6.000,00	0,00	0,00
Kapitulua: 9. PASIBO FINANTZARIOAK	100,00	0,00	0,00
GUZTIRA	977.590,00	1.004.103,25	810.861,71

DIRU SARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

2005eko ekitaldia

Kapitulua	Deskripzioa	HASIERA BATEKO AURREIKUSPENAK	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK	AITORTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK
3	TASAK ETA BESTELAKO DIRU SARRERAK	100,00	100,00	1.229,43
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	935.740,00	935.740,00	935.742,00
5	ONDAREZKO DIRU SARRERAK	150,00	150,00	21,36
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	39.002,00	39.002,00	39.000,00
8	AKTIBO FINANTZARIOAK	2.498,00	29.011,25	4.950,38
9	PASIBO FINANTZARIOAK	100,00	100,00	0,00
	GUZTIRA	977.590,00	1.004.103,25	980.943,17

GASTUEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIO XEHEA

2005eko ekitaldia

I. kapitulua

LANGILERIA GASTUAK	Hasierakoak	Behin betikoak	Aitortutako betebehar garbiak
ARARTEKOAREN ORDAINSARIA	68.980,00	69.676,59	69.676,59
BEHIN-BEHINEKO LANGILEEN ORDAINSARIAK	229.043,00	229.377,59	229.377,59
FUNTZIONARIOEN ORDAINSARIAK	113.764,00	114.190,39	114.190,39
KONTRATUDUN LANGILEEN ORDAINSARIAK	39.229,00	37.346,32	37.346,32
ENPRESAREN KONTURAKO GIZARTE SEGURANTZA	110.738,00	78.364,74	78.364,74
1. KAPITULUKO FUNTSA	20.236,00	0,00	0,00
I. kapitulua, guztira	581.990,00	528.955,63	528.955,63

II. kapitulua

ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK	Hasierakoak	Behin betikoak	Aitortutako betebehar garbiak
HARI MUSIKALA	500,00	470,42	470,42
ERAIKINEN ETA BESTE ERAIKUNTZA			
BATZUEN KONP., MANT. ETA KONTS.	14.000,00	32.641,22	29.829,65
MAKINEN ETA INSTALAZIOEN KONP., MANT. ETA KONTS.	3.500,00	4.172,50	3.705,94
INFORMAZIOA PROZESATZEKO			
TRESNERIAREN KONP. ETA KONTS.	6.000,00	6.400,00	6.245,83
BESTE IBILGETU BATZUK KONP. ETA KONTS.	750,00	750,00	750,51
INBENTARIATU EZIN DEN BULEGO MATERIALA	18.000,00	10.200,00	16.343,07
BULEGOKO TRESNERIA, MATERIAL ORDEZGARRIA	1.500,00	1.500,00	253,25
PRENTSA, ALDIZKARIAK ETA BESTELAKO ARGITALPENAK	4.700,00	4.700,00	3.841,21
TELEFONO BIDEZKO KOMUNIKAZIOAK	12.000,00	11.324,50	11.324,50
POSTA ETA TELEGRAFO BIDEZKO KOMUNIKAZIOA	4.900,00	4.900,00	8.301,21
ASEGURU PRIMAK	5.000,00	5.000,00	4.442,36

ARARTEKOA	4.000,00	1.942,85	1.925,45
ORDEZKATZE LANETAKO ETA PROTOKOLOKO EGINKIZUNAK	6.600,00	5.518,84	2.037,34
ARARTEKOAREN BIDAIA OFIZIALAK	9.200,00	9.180,92	9.180,92
EKIMEN OROKORRAK ETA ZABALKUNDEKOAK	36.800,00	39.549,79	9.209,32
BILERAK ETA HITZALDIK ANTOLATZEA	44.100,00	43.509,79	7.568,51
LIBURUAK ETA BESTELAKO ARGITALPENAK			
ARGITARATZEKO GASTUAK	35.000,00	37.987,00	24.337,71
INFORMAZIO AGENTZIAK	500,00	500,00	0,00
GARBIKETA ZERBITZUAK	13.600,00	13.600,00	11.837,40
TREBAKUNTZA IKASTAROA	3.000,00	1.600,00	0,00
NPAO EUSKARATZEKO LANAK	30.000,00	25.440,24	16.409,38
EGINDAKO BESTE LAN BATZUK	50.100,00	50.100,00	40.146,12
HORNIGAIK	10.000,00	10.000,00	7.207,77
ORDEZKO MATERIALAK	500,00	500,00	522,02
GARBIKETARAKO MATERIALA	1.000,00	1.000,00	1.275,09
JANTZIAK	750,00	750,00	0,00
BESTELAKO GASTU ARRUNTAK	1.500,00	1.500,00	2.436,95
ZERBITZUKO LANGILEEN DIETAK ETA BIDAIA GASTUAK	11.000,00	6.801,68	6.578,08
LANPOSTUAK BETETZEKO SARIAK ETA GASTUAK	1.500,00	1.500,00	1.723,60
II. kapitulua, guztira	330.000,00	333.039,75	227.903,61
IV. kapitulua			
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	Hasierakoak	Behin betikoak	Aitortutako betebeharrak
PARTIKULARRENTZAKO KALTE-ORDAINAK ETA GASTUAK	1.000,00	0,00	0,00
BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HITZARMENAK	22.500,00	22.577,15	20.577,15
IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEENTZAKO TRANSFERENTZIAK	500,00	0,00	0,00
IV. kapitulua, guztira	24.000,00	22.577,15	22.577,15
VI. kapitulua			
INBERTSIO ERREALAK	Hasierakoak	Behin betikoak	Aitortutako betebeharrak
ERAIKINAK	7.500,00	15.395,51	9.834,69
MAKINAK ETA INSTALAZIOAK	2.000,00	2.000,00	0,00
BULEGOKO ALTZARIAK	7.500,00	18.925,07	14.425,07
INFORMAZIOA PROZESATZEKO TRESNERIA	12.000,00	12.000,00	2.867,01
LIBURUAK ETA BESTELAKO ARGITALPENAK EROSTEA	6.500,00	6.500,00	6.298,55
VI. kapitulua, guztira	35.500,00	54.820,58	33.425,32
VII. kapitulua			
KAPITAL TRANSFERENTZIAK	Hasierakoak	Behin betikoak	Aitortutako betebeharrak
KAPITAL TRANSFERENTZIAK	0,00	64.710,14	0,00
VII. kapitulua, guztira	0,00	64.710,14	0,00
VIII. kapitulua			
AKTIBO FINANTZARIOAK	Hasierakoak	Behin betikoak	Aitortutako betebeharrak
ETXEBIZITZARAKO MAILEGUAK	3.000,00	0,00	0,00
SOLDATA AURRERAKINAK	3.000,00	0,00	0,00
VIII. kapitulua, guztira	6.000,00	0,00	0,00
IX. kapitulua			
PASIBO FINANTZARIOAK	Hasierakoak	Behin betikoak	Aitortutako betebeharrak
FIDANTZAK ETA GORDAILUAK ITZULTZEA	100,00	0,00	0,00
IX. kapitulua, guztira	100,00	0,00	0,00
GUZTIRA	977.590,00	1.004.103,25	810.861,71

12.2. NAFARROAKO COMPTOS GANBERAREN TXOSTENA

Arartekoaren kontu orokorra (2005eko ekitaldia)
2006ko apirila

AURKIBIDEA

- I. Helburua eta norainokoa.
- II. Iritzia.
 - II.1. 2005eko aurrekontuaren betetze maila.
 - II.2. Ondare-egoera.
 - II.3. Legezkotasuna.
- III. Finantzen egoera-orriak.
 - III.1. 2005eko ekitaldiko gastuen eta dirusarren aurrekontuaren likidazioa.
 - III.2. Egoeraren balantzea 2005eko abenduaren 31n.
 - III.3. Emaizten kontua eta emaitzen banaketa.

I. Helburua eta norainokoa

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, 2006ko jarduketa-programaren barruan sartu da arartekoaren fiskalizazio txostena egitea, 2005eko ekitaldiari buruzkoa.

Lan horrek ondoko helburuak ditu:

- 1. helburua. Arartekoaren gastuen eta dirusarren aurrekontuaren betetze mailak 2005eko ekitaldian egindako eragiketak behar bezala islatzen dituela egiaztatzea.
- 2. helburua. Ondare-egoeraren agerpena 2005eko abenduaren 31ko datan.
- 3. helburua. Fiskalizazioaren xede den jarduerari aplikatzekoa zaion legezkotasun printzipioa bete ote den egiaztatzea.

Metodologiari dagokionez, lortu nahi diren helburuak aintzat harturik, Comptos Ganbera honek erabili ohi dituen auditoria prozedurak eta programak erabili ditugu, bere Auditoria Gidan jasota

dituenak eta Espainiako estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak sektore publikoaren auditoriarako onetsiriko arau eta printzipioei jarraituz garatuta daudenak.

Azterketa-lana 2006ko martxoan egin zuten auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan laguntzarekin.

Eskertu nahi dugu arartekoaren bulegoko langileen laguntza, lan hau egitea erraztu duelako.

II. Iritzia

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, arartekoaren 2005eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria aztertu dugu. Haren ardurapean egina da, eta txosten honetako III. atalean jaso dugu.

Eginiko azterketan oinarrituz, hona gure iritzia:

II.1. 2005eko aurrekontuaren betetze maila

2005eko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriak behar bezala jasotzen du ekitaldi horretan egindako jarduera.

II.2. Ondare-egoera

Egoera-balantzeak behar bezala agertzen du finantza eta ondare-egoera 2005eko abenduaren 31n.

II.3. Legezkotasuna

Oro har, arartekoaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da.

Auditore Jesús Muruzabal Lerga jauna da lan hau egitearen arduraduna, eta berak proposaturik eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria,

Luis Muñoz Garde

III. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK

III.1. 2005eko EKITALDIKO GASTUEN ETA DIRUSARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Gastuen kapitulu ekonomikoen arabera

	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko betebeharrak	Ordaindurikoa	Ordaintzeke (emaitzak)
1. Langileria gastuak	581.990,00	-53.034,37	528.955,63	528.955,63	528.955,63	0,00
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	330.000,00	3.039,75	333.039,75	227.903,61	210.225,67	17.677,94
4. Transferentzia arruntak	24.000,00	-1.422,85	22.577,15	20.577,15	19.177,15	1.400,00
6. Inbertsio errealak	35.500,00	19.320,58	54.820,58	33.425,32	29.938,12	3.487,20
7. Kapital-transferentziak	0,00	64.710,14	64.710,14	0,00	0,00	0,00
8. Aktibo finantzarioak	6.000,00	-6.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9. Pasibo finantzarioak	100,00	-100,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Gastuak, guztira	977.590,00	26.513,25	1.004.103,25	810.861,71	788.296,57	22.565,14

Dirusarrerren kapitulu ekonomikoen arabera

	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko eskubideak	Kobratuturikoa	Kobratzeke
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	100,00	0,00	100,00	1.229,43	1.229,43	0,00
4. Transferentzia arruntak	935.740,00	0,00	935.740,00	935.742,00	935.742,00	0,00
5. Ondare-dirusarrerak	150,00	0,00	150,00	21,36	21,36	0,00
7. Kapital-transferentziak	39.002,00	0,00	39.002,00	39.000,00	39.000,00	0,00
8. Aktibo finantzarioak	2.498,00	26.513,25	29.011,25	4950,38	4950,38	0,00
9. Pasibo finantzarioak	100,00	0,00	100,00	0	0	0,00
Dirusarrerak, guztira	977.590,00	26.513,3	1.004.103,3	980.943,17	980.943,17	0,00

III.2. EGOERAREN BALANTZEA 2005eko ABENDUAREN 31n

AKTIBOA

Kt.	Kontzeptua	2005	2004	10> >
	IBILGETUA	251.779,82	222.644,88	29.134,94
	IBILGETU MATERIALA	243.360,24	211.434,92	31.925,32
202	Eraikuntzak	40.791,27	30.956,58	9.834,69
203	Makinak, instalazioak eta tresneria	38.487,17	38.487,17	0,00
205	Altzariak	76.258,97	61.833,90	14.425,07
206	Informazioa prozesatzeko tresneria	69.438,67	68.071,66	1.367,01
208	Bestelako ibilgetu materiala	18.384,16	12.085,61	6.298,55
	IBILGETU EZ-MATERIALA	8.419,58	8.419,58	0,00
215	Aplikazio informatikoak	8.419,58	8.419,58	0,00
	IBILGETU FINANTZARIOA	0,00	2.790,38	-2.790,38
254	Epe luzera emandako maileguak	0,00	2.790,38	-2.790,38
	AURREKONTUKOAK EZ DIREN ZORDUNAK	0,00	2.160,00	-2.160,00
561	Aurrerakinak eta epe motzeko maileguak	0,00	2.160,00	-2.160,00
	FINANTZA- KONTUAK	253.217,56	89.502,01	163.715,55
570	Kutxa	234,99	297,40	-62,41
571	Bankuak eta kreditu-erakundeak	252.982,57	89.204,61	163.777,96
	AKTIBOA, GUZTIRA	504.997,38	314.306,89	190.690,49

PASIBOA

Kt.	Kontzeptua	2005	2004	Aldaketa,
	ONDAREA ETA ERRESERBAK	444.908,54	251.318,13	193.590,41
100	Ondarea	251.779,82	224.804,88	26.974,94
1291	Atxikitako funtsak, sartzeko daudenak (Aplikatzeko)	193.128,72	26.513,25	166.615,47
	EPE LABURREKO ZORRAK	60.088,84	62.988,76	-2.899,92
400	AITORTURIKO BETEBEHARREN HARTZEKODUNAK, INDARREKO EKITALDIA	22.565,14	24.030,48	-1.465,34
401	Aitorturiko betebeharren hartzekodunak, ekitaldi amaitua	0,00	0,00	0,00
	ZORRAK ENTITATE PUBLIKOekin	37.523,70	38.958,28	-1.434,58
4750	PFEZgatik hartzekodun den Ogasun Publikoa	25.105,80	0,00	25.105,80
4751	Eskubide pasiboengatik hartzekodun den Ogasun Publikoa	473,48	0,00	473,48
4759	Foru Ogasun publikoa, kreditu itzulketako hartzekoduna	3.465,99	30.867,27	-27.401,28
477	Gizarte Segurantza hartzekoduna	8.478,43	8.091,01	387,42
	JASOTAKO GORDAILUAK ETA FIDANTZAK	0,00	0,00	0,00
520	Epe laburreko fidantzak	0,00	0,00	0,00
	PASIBOA, GUZTIRA	504.997,38	314.306,89	190.690,49

III.3. EMAITZEN KONTUA ETA EMAITZEN BANAKETA

2005eko ekitaldiko emaitza arrunten kontua (eurotan)

Gastuak	2005	2004
Langileen gastuak	541.699,67	531.471,7
Kanpoko lan, hornikuntza eta zerbitzuak	215.159,57	292.838,7
Transferentzia arruntak	20.577,15	26.909,5
Ekitaldiko emaitza arruntak (etekin arrunta)	198.556,40	56.021,5
Guztira	975.992,79	907.241,5

Dirusarrerak	2005	2004
Interesak	21,36	23,8
Kapital-transferentziak	39.000,00	51.230,00
Transferentzia arruntak	935.742,00	855.381,00
Bestelako ohiz kanpoko dirusarrerak		0,4
Bestelako dirusarrerak	1.229,43	606,10
Guztira	975.992,79	907.241,38

2005eko ekitaldiko emaitzen banaketa

Kontzeptua	Euroak
Ekonomia eta ondare emaitza (1)	198.556,40
(+) Kreditu sarrerak (2)	26.513,25
(-) Ondare-gehikuntzak (3)	-28.474,95
Inbertsioak:	33.425,32
Aktibo eta pasibo finantzarioen alde garbia:	-4.950,38
EKONOMIA ETA ONDARE EMAITZA DOITUA (4)	196.594,72
(-) Atxikitako funtsak, 2006an sartzeko daudenak	193.128,72
OGASUN PUBLIKOARI ITZULI BEHARREKO FUNTSAK	3.465,99

(1) Ekitaldiko emaitza arruntak, kontu horretara doazen gastuen eta dirusarrearen arteko aldea

(2) 2005eko kreditu-gehikuntzak, kreditu-gerakinaren bidez finantzatuak.

(3) Ondare-gehikuntzak, ekitaldiko inbertsioen zenbatekotik heldu direnak, eta aktibo eta pasibo finantzarioen aldaketa garbiak

(4) Ekitaldiko finantza-superabita, aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriarena

12.3. 2006ko AURREKONTUA

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 43. artikulua, erakundearen aurrekontuari dagokionez, xedatzen du erakundeko buruak aurrekontu proiektu edo proposamen bat prestatu behar duela urtero, Parlamentuaren aurrekontu g

Ildo horretan, erakundeak 2006ko ekitaldirako aurrekontu proiektua prestatu du, 1.047.367 euro egiten duena guztira gastuak eta diru sarrerak barne.

Dokumentuak erakundearen seigarren aurrekontu aldiko jardunaren jarraibide izatea du xede, eta aurreko ekitaldiko garapenaren azterketan eta 2005-2007 hiru urteko planeko xedapenetan oinarrituta egin da batik bat.

Besteak beste, honako hauek dira ildo nagusiak:

– Erakundearen egoitza hartzen duen eraikina girotzeko beharrezko inbertsioari aurre egiteko aurreikuspenak xedatzen ditu.

Behin hasiera bateko hazkundearen (dela langileen kopuruarenaren, dela baliabide materialen kopuruarenaren) eta erakundea hartzen duten bulegoak egokitu ostean, 2006ko aurrekontu proiektuaren arabera, gastua % 4,31 handituko da 2005eko aurrekontu bateratuaren aldean, inbertsio errealei buruzko atalean (VI. kapituluaren) 42.000 euro esleitu direla-eta erakundearen egoitzako girotze sistema berritzeko lanei aurre egiteko; bederen, horixe erabaki du eraikinaren jabeak, Nafarroako Gobernuak (zehazkiago, Toki Administrazio Departamentuak).

Zenbateko hori erakundeak eraikineko bi solairu hartzen dituela-eta ordaindu behar duen inbertsioaren zatiari aurre egiteko erabiliko da eta, oraingoan, behin-behinekoa baino ez da, Departamentuak lan osoak hainbat urtetan barrena eginen direla ikusi baitu aurrez.

Alde horretatik, zenbateko hori aurkezten ari garen aurrekontu proiektutik kanpo utziko bagenu, aurrekontua 2005. urteko aurrekontuaren antzekoa izanen litzateke; izan ere, 2005. urtean ez da hazkunderik izan gastuen alorrean 2004ko aurrekontu bateratuaren aldean.

– Erakundean lan egiten duten pertsonen kopurua berbera izanen da

Aurreko proiektuaren ildo berean, orain aurkezten dugunak langileei buruzko I. kapituluaren dagozkion aurreikuspenak, eta asmoa II. kapituluaren gastuak bateratzea da. Bi kapituluak oso gutxi hazi dira aurreko ekitaldiko aurrekontuaren aldean,

eta hazkunde hori langileen ordainsariak handiagotzeko aurreikuspenaren eta hornitzaileek ematen dituzten zerbitzuen eta hornigaien prezioak handitu izanaren ondorio izan da.

I. kapituluari, langileria gastuei dagokionez, langile kopurua ez da handitu, eta langileen kostuak 2006ko ekitaldirako aurrez ikusitako lansarien hazkundera adina bakarrik handiagotuko dira. Hau da, egun erakundean lan egiten duten pertsonen kopuruak berbera izaten jarraituko du.

– Gastu arrunten kapituluak berdintzen jarraituko dute

Ondasun arrunten eta zerbitzuen alorreko gastuei buruzko II. kapituluari dagokionez, arartekoak aurrera egiteko beharrezko gastuak finkatu eginen direla iragarri da. Izan ere, eraikina mantentzearekin lotutako gastuek (komunitateko gastuek) gora eginen dute 2006. urtean, Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamentuak (eraikinaren jabeak) egin dituen lanen eta lan horiek egungo auzo komunitateko gastuen banaketan duten eraginaren ondorioz.

II. kapitulu honetako 2265 –zenbait gastu–, 2266 –jarduera orokorrak eta zabalkundeak–, 2266 –bilerak eta hitzaldiak antolatzea– eta 2267 –liburuak eta bestelako argitalpenak argitaratzeko gastuak– sailetan esleitutako zenbatekoek, aurreko urteetan bezala, agertzen dute zer kopuru bidertzen diren erakundeak egiten dituen jardueren artean kanpoan oihartzunik handiena dutenei aurre egiteko. Hain zuzen ere, ordezkartza gastuen zenbatekoak 2005eko ekitaldiko zenbatekoen berberak izanen dira; alegia, ez dira handiagotuko.

2271 –garbiketa zerbitzuak– eta 2279 –eginiko beste zenbait lan– sailei dagokionez, berriz, kontratatutik ditugun zerbitzuei aurre egiteko zenbatekoak ematen dituzte, hala nola, garbiketa, aholkularitza eta plangintza orokorra, itzulpen arruntak eta laguntza informatikoa.

– Diru sarrerak

Diru sarrerei dagokionez, Nafarroako Gobernua hartutako transferentziak (bai gastu arruntetarakoak, bai kapital gastuetarakoak) nabarmendu behar ditugu, bai eta arartekoaren erakundeko zenbait langileri emandako maileguen kuotak itzultzeko aurreikuspena ere.

– Plantila organikoa

Azkenik, langileei dagokionez, esan dugu dagoeneko ez dela hazkunderik izan egun erakundean lan egiten duten pertsonen kopuruan. Hala ere, aurrekontu proiektuei erakundeko plantila organikoari buruzko proposamena eranstean diegu

la-eta, berau osatze aldera, esparru juridikoko goi mailako teknikari postua txertatu dugu bertan; hain zuzen ere, postu hori aldizka agertu izan da arartekoak 2002tik 2005era aurkeztu dituen aurrekontuetan, kontratudun langileei buruzko atalean bada ere.

Laburbilduz, erakundearen beharretara egokitutako aurrekontu proiektu edo proposamena planteatu dugu, erakundeak 2005-2007 aldirako presatutako hiru urteko planeko xedapenei jarraiki.

2006ko GASTUEN AURREKONTUA KAPITULUEN ARABERA

AZALPENA	2003ko PROIEKTUA	%, GUZTIRA
I. KAPITULUA – LANGILERIA GASTUAK	603.314	% 57,60
II. KAPITULUA – ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK	345.920	% 33,03
IV. KAPITULUA – TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	27.333	% 2,61
VI. KAPITULUA – INBERTSIO ERREALAK	64.700	% 6,18
VIII. KAPITULUA – AKTIBO FINANTZARIOAK	6.000	% 0,57
IX. KAPITULUA – PASIBO FINANTZARIOAK	100	% 0,01
GUZTIRA	1.047.367	% 100,00

2006ko GASTUEN AURREKONTU XEHEA

KODE EKONOMIKOA				IZENDAPENA		SAILA	AZALPENA	GAIA	KAPITULUA
C.C.	Kap.	Gaia	Azalp.	Saila		GUZTIRA	GUZTIRA	GUZTIRA	GUZTIRA
1000	1				LANGILERIA GASTUAK				603.314
		10	100	1000	GOI KARGUDUNAK Goi kargudunen lansariak Arartekoaren lansariak	71.116	71.116	71.116	
		11	110	1100	BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK Behin-behineko langileen lansariak Behin-behineko langileen lansariak	237.112	237.112	237.112	
		12	120	1230	FUNTZIONARIOAK Funtzionarioen lansariak Funtzionarioen lansariak, guztira	123.274	123.274	123.274	
		13	131	1310	KONTRATUDUN LANGILEAK Aldi baterako kontratudun langileak Aldi baterako kontratudun langileen lansariak	42.219	42.219	42.219	
		16	160	1600 1604	GIZARTE SEGURANTZAKO KUOTAK, PRESTAZIOAK ETA GASTUAK Kuotak Gizarte segurantza I. kapituluko funtsa	112.508 17.086	129.594	129.594	
1000	2				ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK				345.920
		20	203	2032	ERRENTAMENDUAK Makineriaren eta instalaz. errentamendua Hari musikala	515	515	515	
		21	212	2120	KONPONKETAK ETA KONTSERBAZIOA Eraikinen eta beste eraikuntzen konp.eta konts. Eraikinen konp., konts.eta mant.	15.500	15.500	27.105	
			213	2130	Makinen, instalazioen eta tresnen konp.eta konts. Makinen, instalazioen eta tresnen konp.eta konts.	3.605	3.605		
			216	2160	Informazioa prozesatzeko tresneriaren konp. eta konts. Informazioa prozesatzeko tresneriaren konp. eta konts.	7.000	7.000		
			219	2190	Beste ibilgetu material batzuen konp. eta konts. Beste ibilgetu material batzuen konp. eta konts.	1.000	1.000		
		22	220	2200 2201 2202 222 2220 2221 224 2243 226 2262 2263 2264 2265 2266 2267 2268	MATERIALA, HORNIGAIK ETA BESTE. Bulegoko materiala Inbentariatu ezin den bulegoko materiala edo bulegoko material arrunta Bulegoko tresneria, material ordezgarria Prentsa, aldizkariak eta aldizkako bestelako argitalpenak Komunikazioa Telefono bidezko komunikazioa Posta eta telegrafo bidezko komunikazioa Aseguru primak Aseguru primak Zenbait gastu Arartekoa Gizarte eta protokolo lanak Arartekoaren bidaia ofizialak Ekimen orokorrak eta zabalkundekoak Bilerak eta hitzaldiak antolatzea Liburuak eta bestelako argitalpenak argitaratzeko gastuak Informazio agentziak	18.000 1.600 4.850 12.360 7.000 8.000 8.000 4.000 6.600 35.000 30.000 36.050 1.000	24.450 19.360 8.000 121.850	305.800 9.200	

KODE EKONOMIKOA				IZENDAPENA		SAILA	AZALPENA	GAIA	KAPITULUA
C.C.	Kap.	Gaia	Azalp.	Saila		GUZTIRA	GUZTIRA	GUZTIRA	GUZTIRA
				227	Beste enpresa batzuek egindako lanak		117.930		
				2271	Garbiketa zerbitzuak	14.000			
				2272	Trebakuntza ikastaroak	3.000			
				2278	NPAO euskaratzeko lanak	31.000			
				2279	Egindako beste lan batzuk	69.930			
				228	Hornigai osagarriak		14.210		
				2280	Hornigaiak	10.000			
				2282	Ordezko materialak	515			
				2284	Garbiketarako materiala	1.400			
				2285	Jantziak	750			
				2287	Beste gastu batzuk	1.545			
		24		240	BESTELAKO KALTE-ORDAINAK			12.500	
				2401	Zerbitzuetako langileentzako kalte-ordainak	11.000	12.500		
				2402	Lanpostuak betetzeko sariak eta gastuak	1.500			
1000	4				TRANSFERENTZIA ARRUNTAK				27.333
		48		481	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			27.333	
				4810	Partikularrentzako kalte-ordainak eta gastuak	1.000	1.000		
				482	Beste erakunde batzuekiko hitzarmenak		25.833		
				4820	Beste erakunde batzuekiko hitzarmenak	25.833			
				483	Beste erakunde batzuei egindako transferentziak		500		
				4830	Irabazi asmorik gabeko erakundeei egindako transferentziak	500			
1000	6				INBERTSIO ERREALAK				64.700
		60		602	INBERTSIO BERRIKO PROIEKTUAK			64.700	
				6020	Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	1.000	1.000		
				603	Eraikinak		43.000		
				6031	Makinak, instalazioak eta tresnak	1.000			
				6032	Instalazioak eta makinak	42.000			
				605	Egoitza (Nafarroako Gobernuaren eraikina)		2.000		
				6050	girotzea	2.000			
				606	Altzariak eta lanabesak		12.000		
				6060	Bulegoko altzariak	12.000			
				608	Bulegoko altzariak		6.700		
				6083	Informazioa prozesatzeko tresneria	6.700			
				6083	Informazioa prozesatzeko tresneria				
				6083	Bestelako ibilgetu materiala				
				6083	Liburuak eta bestelako argitalpenak erostea				
1000	8				AKTIBO FINANTZARIOAK				6.000
		82		822	MAILEGUAK EMATEA			6.000	
				8224	Epe ertainera eta luzera emandako maileguak eta aurrerakinak		6.000		
				8225	Etxebizitzarako maileguak	3.000			
				8225	Soldata aurrerakinak	3.000			
1000	9				PASIBO FINANTZARIOAK				100
		93		930	ITZULKETAK			100	
				9300	Fidantzak itzultzea		100		
				9300	Hartutako fidantzak eta gordailuak	100			
					GASTUEN AURREKONTUA, GUZTIRA	1.047.367	1.047.367	1.047.367	1.047.367

2006ko GASTUEN AURREKONTUA, KAPITULUEN ARABERA

AZALPENA	2005eko PROIEKTUA	%, GUZTIRA
III. KAPITULUA – TASAK ETA BESTELAKO DIRUSARRERAK	100	% 0,01
IV. KAPITULUA – TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	976.317	% 93,22
V. KAPITULUA – ONDAREZKO DIRUSARRERAK	150	% 0,01
VII. KAPITULUA – KAPITAL TRANSFERENTZIAK	68.202	% 6,51
VIII. KAPITULUA – AKTIBO FINTZANTZARIOAK	2.498	% 0,24
IX. KAPITULUA – PASIBO FINANTZARIOAK	100	% 0,01
GUZTIRA	1.047.367	% 100

2006ko DIRU SARREREN AURREKONTU XEHEA

KODE EKONOMIKOA		IZENDAPENA			AZPIAZALPENA	AZALPENA	GAIA	KAPITULUA
C.C.	Kap.	Gaia	Azalp.	Azpiazal.	GUZTIRA	GUZTIRA	GUZTIRA	GUZTIRA
1000	3							100
		39	399				100	
				3990	100	100		
1000	4							976.317
		40	400				976.317	
				4000	976.317	976.317		
1000	5							150
		52	520				150	
				5200	150	150		

KODE EKONOMIKOA		IZENDAPENA			AZPIAZALPENA	AZALPENA	GAIA	KAPITULUA
C.C.	Kap.	Gaia	Azalp.	Azpiazal.	GUZTIRA	GUZTIRA	GUZTIRA	GUZTIRA
1000	7							68.202
				KAPITAL TRANSFERENTZIAK				
		70		NAFARROAKO GOBERNUAREN			68.202	
			700	KAPITAL TRANSFERENTZIAK				
				Nafarroako Gobernuaren		68.202		
			7000	transferentzia arruntak				
				Gastuen kap. (VI+VIII+IX) –	68.202			
				diru sarrerren kap. (VIII+IX)				
1000	8							2.498
				AKTIBO FINANTZARIOAK				
		82		EMANDAKO MAILEGUEN ITZULKETAK			2.398	
			821	Epe ertainera eta luzera				
				emandako maileguak itzultzea		2.398		
			8214	Etxebizitza maileguen kapital itzulketak	670			
			8215	Soldata aurrerakinen itzulketak	1728			
		87		DIRUZAINZAKO SOBERAKINAK			100	
			870	Diruzaintzako soberakinak		100		
			8700	Diruzaintzako soberakinak	100			
1000	9							100
				PASIBO FINANTZARIOAK				
		93		HARTUTAKO GORDAILUAK			100	
				ETA FIDANTZAK				
			931	Hartutako fidantzak eta gordailuak		100		
			9310	Hartutako fidantzak eta gordailuak	100			
				DIRUSARREREN AURREKONTUA, GUZTIRA	1.047.367	1.047.367	1.047.367	1.047.367

13. LANGILEEI BURUZKO INFORMAZIOA

13.1. ARARTEKOAREN BULEGOKO PLANTILA ORGANIKOA 2005. URTEAN

2005. urtean Nafarroako Arartekoaren Bulegoan lan egin duten langileen plantila organikoaren osaera aurreko urteetako berbera izan da; hau da, lau aholkulariz eta arartekoaren beraren idazkari batez osatuta egon da. Lanpostu horiek guztiak

izendapen librekoak dira, eta funtzionarioei gorde-tako postuak, berriz, administrazio kudeaketako teknikari bat, bi administrari eta gelazain bat dira.

2005eko langileen plantila organikoa Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakiaren bidez onartu da, 2005eko urtarrilaren 24ko bilkuran, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu, 2005eko urtarrilaren 26an (4. zenbakian).

LANPOSTUA	KOPURUA	ARAUBIDE JURIDIKOA	MAILA	IZENDAPEN LIBREA	BATERA-EZINTASUNA	LAN-POSTUA	MAILARENGATIKO OSAGARRIA
Arloko aholkulari arduradunak	2	C	-	X	-	-	-
Aholkulari teknikoak	2	C	-	X	-	-	-
Arartekoaren idazkaria	1	G	-	X	-	-	-
Administrazio kudeaketako teknikaria	1	F	B	-	35	24	-
Administraria	2	F	C	-	-	39,18	12
Gelazaina	1	F	D	-	-	29,5	15

F: funtzionarioa

C: arartekoaren bulegoko behin-behineko kargua, izendapen librekoa

G: kabineteko behin-behinekoa, izendapen librekoa

2005. urtean langile finkoek betetzeke egon diren postuei dagokienez, administrazio kudeaketako teknikariarena eta gelazainarena izan dira, behin-behinean kontratatutako langileek bete baituzte 2003ko uztailaren 1etik behin betiko bete artean.

Dena dela, abenduaren 23an, Nafarroako Arartekoaren Bulegoan lan egin behar duen administrazio kudeaketako teknikariaren lanpostua betetzeko oposizioko ariketak amaitu ostean, oposizioko epaimahaiak Jorge Balduz Gil jauna proposatu du lanpostu hori betetzeko, hautagai horrek lortu duela-eta notarik onena, eta pentsatzekoa da 2006ko lehenengo hiru hilabeteetan hasiko dela lanean.

13.2. 2005eko ABENDUAREN 31n ARARTEKOAREN BULEGOAN LAN EGITEN ZUTEN PERTSONEN ZERRENDA

Langileen zerrenda hau 2005eko abenduaren 31n egin dela-eta, Nieves Sáinz de Vicuña andrea ageri da bertan administrazio kudeaketako teknikari gisa baina, ordutik aurrera, Jorge Gil Balduz jauna arituko da lanpostu horretan.

Era berean, Inés Monreal Azkarate andrea ageri da, goi mailako teknikari gisa, baina postu hori ez da 2005eko plantila organikoaren barnean sartzen; gainera, Ines Monreal andrea zerbitzuaren beharrei erantzuteko sinatutako kontratuaren ondorioz jardun da lanpostu horretan. Azkenean, postu hori 2006ko plantila organikoaren barnean txertatu da; hain zuzen ere, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak finkatu du, 2006ko urtarrilaren 23ko lan saioan.

ERAKUNDEAN LAN EGITEN DUTEN PERTSONEN ZERRENDA

Arloko aholkulari arduradunak	Enrique Mateo Sanz Luis Gabilondo Pujol
Aholkulari teknikoak	Gloria Arancón Largo Julián Manteca Pérez
Arartekoaren idazkaria	Luis Fernández Paredes
Goi mailako teknikaria	Inés Monreal Azcárate
Administrazio kudeaketako teknikaria	Nieves Sáinz de Vicuña Gil
Administrariak	Celina Echeverría Uhalte Mar Laínez Gil
Gelazaina	Javier Larraya Reta

14. 2006. URTEKO PLANGINTZA ETA HELBURUAK

2001. urtean abian jarri zenetik, lan ildo askotan aritu da erakunde gazte hau, eta lorpen batzuk ere erdietsi ditu, baina hobetu beharreko alorrak nabarmengarriak dira. Alde horretatik, herritar askok eta askok (batik bat, ahulenek) ez dute haren berri, eta beste askok ez dakite zer espero harengandik. Horrenbestez, beharrezkoa da gure gizarte sarea hedatzea, herritarren eskariak gehiago eta hobeto antzeman eta gure eragingarritasuna eta prozedurak hobetzeko, herritarren eskubiak hobeto babeste aldera.

Batetik, gauzatu dugun hiru urteko planak, "Hazi eta aritu" lelokoak, hainbat ekimen ikusten ditu aurrez, arartekoarengana jotzeko aukerak (batez ere, ahulenenak) benetakoak izan daitezten.

Hiru urteko plan horrek barne arloan ere proposatzen du hainbat ekimen erakundearen eragingarritasuna handiagotu eta kalitate plana gauzatzeko, herritarren iritzia hobetzearren, eta, horretarako, erakundea osatzen dugun guztion esku-hartzean oinarritu gara.

Bestetik, txosten bereziak egin eta ofizios jarri dutea bere burua aurreranzkotzat duen erakundeak jarraitu behar duen oinarritzko beste ildoetako bat da, halako erakundea ezin baita zain egon; aitzitik, kexak aurkezteko mugak ere dituzten taldeengan eragina duten aparteko babesgabetasun egoerei aurrea hartu eta egoerok ikertu egin behar ditu. Hain zuzen ere, horixe da haurren, ezinduen, mendekotasun egoeran dauden zaharren, eta abarren egoera.

Illo horretan, haurren babesari ematen diogun garrantzia berebizikoa dela nabarmendu beharrean gaude, uste baitugu egungo gizarteak "ez duela errespetatzen haurrek gizarte ingurune hezitzaile eta segurua izateko eskubidea" eta guztion erantzukizuna dela egoera hori aldatzea, eta, hori dela-eta, 2006ko helburu askok eta askok talde hori izanen dute norentzako. Izan ere, gure kezka helarazi behar diogu gizarteari komunikabideetako eduki jakin batzuek haurrengan duten eragina dela-eta; guraso asko seme-alaben hezkuntza prozesuan parte hartzen ez dutela ohartarazi; gure ardura adierazi bizikidetasunaren egungo egoera dela eta haurrek indarkeria eta drogak gero eta lehenago erabiltzen dituztela eta... Haurrak arriskuan jartzen dituzten egoerei aurrea hartzeko beharrezko politikak ezarri eta beharrezko neurriak hartzea administrazio publikoei dagokiela nabarmendu behar dugu eta, azken batean, haiei dago kiela haurren babesa bermatzeko gizarte baliabideak ezartzea familiarterako euskarriak huts egiten

ditutenean. Zoritxarrez, gero eta berri gehiago helitzen zaizkigu alor honetako baliabideen eta kontrol sistemen eskasiaz, baina gaiari buruzko txosten bereziaren egiaztatu beharko dugu hori.

Azkenik, arartekoaren beste ildo estrategikoe-tako bat herritarren eskubideak sustatu eta zabal-tzea da. Izan ere, gure ustez, eginkizun aktiboa bete behar dugu alor honetan, gizarteak eta, baldin badagokio, administrazioek eurek gai honen kontzientzia har dezaten laguntzen duten ekime-nak sustatuz eta babestuz, sortzen ari diren esku-bideen benetako erabilerari eusten dioten kultur balioak aplikatzen hasteko. Hori dela-eta, bizikide-tasunaren aldeko eta diskriminazio ororen aurkako ekimenak sustatuko ditugu gizarteko beste talde batzuekin batera.

Illo berean, behar bezainbat ekimen eginen ditugu balio demokratikoak sustatzeko eta, zehatz-mehatz, jokabide zuzenaren kodeak eta eskubide-en gutunak osatzea eta gardentasun eta erantzukizun publikoaren alde egiten duen ekimen oro bultzatuko dugu. Horregatik, erakundeak bide berri bat urratuko du, halako gaiak ebaluatzeko bitarteko berriak landuz eta kanpoko kontrol jarduerak aplikatuz pixkana-pixkana.

14.1. ANTOLAKUNDEAREN MISIOA, IKUSPENA ETA BALIOAK

Antolakundeek inola ere ezin dute ahaztu zein den izateko euren arrazoia, eta etengabeko auto-kritika egin behar dute, euren misioa (euren izateko arrazoia) zenbateraino betetzen duten neurtzeko.

Era berean, zein norabidetan egiten ari den jakin behar du; zer helburu lortu nahi duen (antolakundearen epe ertaineko eta epe luzeko ikuspena) finkatu.

Azkenik, bidaia honetako ezinbesteko osagarri gisa, antolakundearen kultura osatzen duten balio-en multzoa esplizitu bihurtu behar dira.

MISIOA

"Herritarren eskubideak eta askatasunak defendatu eta hobeto babestea, eskubideok eta askatasunok administrazioaren balizko gehiegikeriaren eta utzikeriaren aurka babestea eta sortzen ari diren eskubideekiko eskariak bideratzen laguntzen duten ekimenak sustatzea"

IKUSPENA

- Administrazioek herritarren eskubideak urratzeagatik kexak aurkezteko hurbileko erakundea izatea

- Herritar guztien (besteak beste, talderik ahulenen) eskura dagoen erakundea izatea
- Arazoei aurrea hartzen dien eta arazoan sustraietan sakontzen duen erakunde sentibera izatea
- Pixkana-pixkana zerbitzu publikoen funtzionamendua ikuskatzeko kanpoko sistemak erabiltzen hasi den erakundea izatea
- Erakunde beregain eta sinesgarria izatea, herritarrei erreferentetzat balio dieten eta, gehienetan, administrazio publikoek aintzat hartzen dituzten irizpenak ematen dituen

BALIOAK

- Herritarren itzaropenei ahal bezainbat erantzuteko joera
- Herritarren behar inplizituei erantzuteko sentiberatasuna
- Arazo orokorrak antzeman eta, baldin bada-gokio, ofiziozko kexak egiteko sentiberatasuna
- Isilpekotasunarekiko erabateko errespetua
- Etengabeko kezka antolakundearen baliagarritasuna eta eragingarritasuna dela eta
- Balio demokratikoen eta bizikidetasunaren sustapena gizar-tean
- Gardentasun eta erantzukizun publikoaren aldeko apustu garbia
- Sortzen ari diren eskubideen erabileran aurrera egiten laguntzen duten ekimenen sustapena
- Guztion esku-hartzea, hobetzeko aukerak antzeman eta jakinarazi eta akatsetatik ikasketeko

14.2. ILDO ESTRATEGIKOAK

Lortu nahi dugun antolakunde eredu gaiztatze aldera, egoki iritzi diogu honako ildo estrategiko hauek lantzerai:

- Kalitate politika, herritarrentzako laguntza eta, zehazki, honako hauek etengabe hobetzeko
 - Herritarrek arartekoarengana jo eta kexak aurkezteko bide ematea
 - Herritarren iritzia eta erakundearen baliagarritasuna hobetzea (neurtzea)
 - => Ofiziozko kexen ehunekoa handitzea
 - => Onartzen ez diren kexen ehunekoa txikiagotzea

=> Administrazioak gure proposamena onartzen duen kexen ehunekoa handitzea

=> Kexak bideratzen zaluagoak izatea

- Erakundeko langileen iritzia eta barne komunikazioa hobetzea
- Administrazio prozesuen kudeaketa hobetzea
- Txosten berezien eta ofiziozko kexen muina bereziki ahulak diren taldeak eta lehentasuneko zerbitzuak izatea
 - Protección de Menores.
 - Atención a los Mayores.
 - Discapacitados Físicos.
 - Discapacitados Psíquicos.
 - Abusos y violencia.
 - Discriminación por género, raza o religión.
 - Conciliación de la vida familiar y social.
 - Pobreza y exclusión social.
 - Integración social de inmigrantes.
 - Acceso y libertad de elección de centro educativo (incluido modelo lingüístico, etc).
 - Convivencia en centros escolares.
 - Educación infantil.
 - Confidencialidad y protección de datos.
 - Reinserción Social.
 - Protección medioambiental. (Derecho de información, Protección frente a la contaminación acústica y otras actividades molestas, etc.)
 - Derecho de acceso a la vivienda.
 - Garantía de acceso a las prestaciones sanitarias. (Lista de espera, etc)
- Gizartea eta, baldin badagokio, administrazio publikoak herritarren eskubideak eta gardentasun publikoa sustatu beharraz ohartarazteko ekimenak gauzatzea
 - Bizikidetzaren (batez ere, haurrak eta nerabeak bizikidetasunean heztearen) aldeko ekimenak
 - Balio demokratikoen sustapena gizar-tean
 - Jokabide zuzenaren kodeen, eskubideen eta zerbitzuen gutunen eta gardentasun eta erantzukizun publikoaren alde egiten duen ekimen ororen sustapena
 - Gizartea talde jakin batzuen (emakumezkoen, zaharren, etorkinen, eta abarren) diskriminazioaren aurka eta talde horien eskubideen alde egiteko ohartarazteko ekimenak
 - Sortzen ari diren eskubideen erabileran aurrera egiten laguntzen duten ekimenen sustapena

- Herritarrei aparteko esangura duten alorretan dituzten eskubideak jakinaraztea hainbat bitartekoren bidez
- Elkaratekiko lankidetzaren sustapena arazoak hobeto antzemateko
 - Gizarteko elkarte eta talde guztiekiko etengabeko elkarrizketa eta informazio trukea bideratzea
 - Gizarteko taldeei laguntzeko eskatu eta haien iritzia biltzea txostenak egiteko
- Administrazio publikoekin elkarlanean aritzea kexak kontrolatu eta ebazteko prozeduren eragin-garritasuna eta baliagarritasuna handitzeko
 - Administrazio publikoko arduradunek erakundearen eginkizunari eta mugei buruz jakin eta ulertzen dutena hobetzea
 - Informazioa helarazi eta kexak ebazteko prozedurak hobetu eta zaluago bihurtzea
 - Alderdien arteko elkarrizketa hobetzea, administrazioak gure proposamena onartzen duen kexen ehunekoa handiagotzeko
 - Alderdi bakoitzaren beregaintasunarekiko eta eskumen esparruarekiko erabateko errespetua bermatzea
- Komunikazio eta irudi plana prestatzea, erakundea ezagutarazi eta herritar guztiek haren eginkizunei buruz dakitena hobetzeko
 - Herritarrek erakundeari buruz dakitena eta haren inguruan duten iritzia hobetzea (neuritzea)
 - Komunikabideekiko komunikazio bide arinak ezartzea
- Jarraipena egitea gure proposamenak bete egiten direla bermatzeko
 - Erakundeak egiten dituen gomendioak zenbateraino betetzen diren etengabe analizatzen laguntzen duen informazio sistema sortzea

14.3. 2006KO HELBURUAK

2006. urtean, hiru urteko planean ezarritako ildo estrategikoekin bat datorren hainbat ekintza egin eta hainbat helburu lortzeko asmoa dugu.

2006ko helburuak finkatzerakoan, kontuan izan dugu egungo arartekoaren agintaldia 2007ko otsailean amaituko dela. Hori dela-eta, erakundearen erabateko jarraitutasuna eta normaltasuna bermatzearen, zehaztu dugun plangintza 2007. urtearen erdialdera bitartean gauzatu beharko dela kalkulatu dugu.

Hain zuzen ere, honako helburu hauek lortu nahi ditugu 2006. urtean:

1. KEXEI EMATEN ZAIEN ERANTZUNA HOBETZEA

Ezinbestean, herritarrentzako laguntzaren kalitatea hobetzea da gure helburu nagusia eta, Herritarrentzako Laguntza Hobetzeko Taldeak 2005. urtean barrena egin duen lanari esker, hainbat hobekuntza proposamen zehatz dugu, onartu eta 2006. urtean barrena jarri nahi duguna martxan:

- Erakundearen bulegoetan hasiera batean ematen den laguntza hobetzeko neurriak jartzea abian
 - Erakundearen egoitzan sartzeko aukerak hobetzea
 - Seinaleak eta identifikazioa hobetzea
 - => “Zuzeneko Laguntza eta Informazio Bulegoa” izena aldatzea
 - => Ordu-tegiari eta jai egunei buruzko sarrerako errotuluetako eta web guneko informazioa egokitzea
 - => Langileen izen-abizenak agertzea
 - Berehalako laguntza bermatzeko konpromisoa
 - Euskarazko laguntza ematea, posible bada betiere
- Kexak bideratzeko tartea gutxienez % 10 murriztea
- Prozedurak normalizatzea
 - Kexak onartzeko irizpide homogeenok ezartzea
 - Idatzien formatua hobetu eta normalizatzea
 - Arartekoarekiko elkarrizketak antolatu eta jakinaraztea
- Erakundearekin aritzeko erraztasunak handitzea
 - Telefono bidezko komunikazio sistema hobetzea: erantzungailu automatikoa, ordu-tegiari buruzko informazioa, doakotasuna eta, deia bihurtze aldera, izen-abizenak eta telefono zenbakia emateko aukera
 - Kexak teknologia berrien bitartez aurkez daitezkeen bultzatzea: posta elektronikoko bidez, mezularitza bidez, IP bidez, bideo konferentzia bidez...
 - Esperientzia pilotu bat (bulego birtuala) jartzea martxan Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin batera

- Aholkulariek eta arartekoak in situ, herritarren kekek aipatzen dituzten zentroetan eta zerbitzuetan bertan egiten dituzten ikuskatze lanen eta bisiten kopurua handitzea
- Informazio eta erregistro sistemak hobetzea
 - Txosten berezien jarraipena egiteko informazio sistema berria jartzea martxan
 - Kexa guztiak (ahozkoak, idatzizkoak eta Internet bidezkoak) era berean erregistratzea
 - Kexen laburpena erregistratzea
- Erakundeko zerbitzuen karta osatzea, herritarrekiko kalitate konpromisoak arautzearen
- Herritarren iritzi orokorra eta erakundearen baliagarritasunaz duten iritzia ebaluatzea
 - Euren iritzia neurtzeko inkesta anonimoa egitea sistematikoki Informazio Bulegoak hartzen dituen pertsona guztiei
 - Euren iritzia neurtzeko inkesta anonimoa egitea sistematikoki kekek aurkezten dituzten pertsona guztiei (idatziz, espedientea amaitutzat eman ostean)
 - Erakundearen gaineko ezagutzari eta iritzitari buruzko telefono bidezko inkesta diseinatzea

2. TXOSTEN BEREZIAK

Esan bezala, gure baliabide teknikoak eskasak direla-eta, xehe-xehe ebalua ditzakegun alorrak zehaztera behartuta gaude eta, horregatik, txosten berezien eta ofiziozko kexen muina bereziki ahulak diren taldeak eta kexa ugari sorrarazten duten arazoak izanen dira.

Halaber, egoki iritzi diogu 2006. urtean ofiziozko txosten txikiak egiteari; haien bitartez, lehentasunekoak diren baina oso sakonki ikertu behar ez diren alorrak landuko ditugu eta, hartara, analizatzen ditugun gaien kopurua handituko dugu.

Bestalde, poliki-poliki eskubide jakin batzuk babesteko berme sistema berriak sor daitezten bultzatzeko ekimenak sustatuko ditugu.

Hain zuzen ere, honako txosten hauek egin nahi ditugu 2006. urtean:

Eremu publikoan ibiltzeko aukerei buruzko txosten berezia

Lehenengo hiru hilabeteetan barrena, erabilera publikoko eraikinetan, instalazioetan eta zerbitzuetan ibiltzeko aukerei buruzko txosten berezia amaitzeko asmoa dugu. Txosten hori 2005. urtean hasi

dugu, eta administrazio publikoek indarrean dagoen araudia zenbateraino betetzen duten aztertzen du zerbitzu eta zentro publikoetan ibiltzeko dauden aukerak eta oztopo arkitektonikoak direla eta.

Zaratari buruzko txosten berezia

Zaratari buruzko txosten bereziaren helburua Foru Komunitateko administrazioek zaratagatiko eragozpenak eragin ditzaketen jardueren gainean egiten duten zaintza eta kontrol lana egokia den analizatzea da. Zehazki, honako hauek dira txosten horren helburu espezifikoak:

- Administrazio publikoek zaratagatiko eragozpenak eragin ditzaketen jarduerak zaindu eta kontrolatzen dituzten eta horretarako beharrezko baliabide teknikoak dituzten ebaluatzea
- Egoera kaltegarriak behar bezala egiaztatzen direnean, administrazio publikoek legezko betebeharrak bete daitezten galdatzeko aplikatu ditzaketen arauzko bitartekoak egokiro erabiltzen dituzten ebaluatzea
- Egungo arautegi orokorra eta udal bakoitzeko ordenantza espezifikoak nahikoak eta egokiak diren aztertzea

Haurrak babesteari buruzko txosten berezia

Haurrak babesteari buruzko txosten bereziaren bidez, administrazio publikoek babes gabe dauden haurren babesa nola bermatzen duten jakin nahi dugu. Zehatz-mehatz, honako hauek dira txosten horren helburu espezifikoak:

- Nafarroako administrazio publikoek babesgabetasun egoerei aurrea hartu eta egoera horiek goiz antzemateko egin beharrezkoa egokiro egiten duten ebaluatzea
- Nafarroako administrazio publikoek haurrak babesteko prozedurak irauten duen bitartean egiten duten lana ebaluatzea
- Nafarroako administrazio publikoek haurrak epaileen zigorren bitartez nola laguntzen dituzten ebaluatzea
- Nazioarteko adopzioaren eta helduen laguntzarik ez duten haur atzerritarren egoerara hurbiltzea

Ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko eskubideari buruzko ofiziozko txostena

Herritarrek gero eta hertsikiago eskatzen dute administrazio publikoek ingurumen arloan duten informazio guztia eskuratzeko eskubidea, baina administraziook ukatu egiten diete sarri eta, horregatik, maizko kekek aurkezten dituzte erakundearen aurrean. Beraz, txostenaren helburua arazoak

planteatzen dituen egoera juridikoak aztertu eta beharrezko gomendioak egitea da, gardentasun publikoa eta herritarren eskubideekiko errespetua bultzatzearen.

Erradiazioei eta telefonia mugikorrari buruzko ofiziozko txostena

Txostenaren helburua erradiazioen eta telefonia mugikorraren Nafarroako egungo egoera aztertea da, baita erakundeak egin dituen gomendioak zenbateraino betetzen diren ere.

Osasun arloko eskubideen babesa bermatzeko sistemari buruzko txostena

Txosten honen bitartez, bide berri bati ekin nahi diogu herritarren eskubideak bermatzeko sistemen sustapenean. Hain zuzen ere, halako txostenen helburua eskubideei buruzko araudiak zenbateraino zehazten diren aztertea da, herritarrek zenbateraino galda ditzaketan, eskubideok guztiz erabil daitezten bermatzeko sistema eragingarririk existitzen ote den eta, baldin badagokio, zer ordain ezarri beharko lirakekeen, eta, ildo horretan, osasun arloko eskubideen gaineko bermearen egoerari helduko diogu 2006. urtean.

3. HERRITARREN ESKUBIDEAK SUSTATU ETA ZABALTZEA

Esan bezala, erakundearen ildo estrategikoetako bat herritarren eskubideak sustatu eta zabaltzea da, gizarteak eta administrazio publikoek herritarren balio eta eskubide berriak erabili behar diren kontzientzia har dezaten. Ildo horretan, gizarteak hainbat talderekin batera, honako ekimen hauek sustatu nahi ditugu 2006. urtean:

Bizikidetasunean hezteko ekimenak

Gizartea kezkatuta dago gazteen arteko indarkeria hazi egin delako, eta ekimen hauen helburua kezka horri erantzutea da. Izan ere, aditu guztiak bat datoz hezkuntza proiektu osoa aplikatu behar dela indarkeria horri aurre egiteko eta, horretarako, erakundeek euren jarduna koordinatzeko gomendatzen dute, gizarte osoak hezkuntzan duen erantzukizuna bere gain hartzeko beharrezko giroa sortzearen gizartean. Alde horretatik, irakasleek gizartearen zilegitasun eta babes moralak behar dute, eta gurasoek, irakasleek eta komunikabideek mezu koherenteak helarazi behar dituzte.

Behar hori ikusirik, arartekoak baterako ekimena jarri du abian 2005. urtearen amaieran, gizarte osoak bizikidetzan heztearen aldeko gizarte proiektuan parte har dezaten lortzearen, eta Hezkuntza kontseilariak, Parlamentuko lehendakariak, Udalen Federazioko lehendakariak, Prentsaren Elkarteak lehendakariak, guraso elkarteetako

lehendakariak, institutuetakozuzendariek, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak, Eskola Kontseiluko lehendakariak eta Gazteriaren Kontseiluko lehendakariak esku hartu dute bertan.

Ekimen horren helburua gizarte eragile guztiek aipatu xedearen aldeko baterako jarduerak egiteko konpromisoa hartzea da eta, horregatik, ekimenaren berri eman zaie Parlamentuko taldeei eta komunikabideei, euren lankidetzaz ezinbestekotzat dugun neurrian.

Edonola ere, 2006. urtean barrena proiektu honi jarraitutasuna emateko asmoa dugu eta, hori dela-eta, honako alderdi hauetan sakonduko dugu:

- Gizarteak bizikidetzan heztearen alde egiteko erakunde adierazpenean
- Prozesuaren bilakaera ebaluatzeko jarraipen bilerarako deian
- Irakasleak eta komunikabideak elkarrekin eztabaidatzeko lantegiaren antolaketan
- Udalek bizikidetzan heztearen aldeko ekimenak bultzatzen lortzeko mintegiaren sustapenean

Zaharren eskubideen aldeko ekimenak

Zaharrek protagonismoa galdu dute egungo gizartean, eta euren eskubideak ez dira beti errespetatzen; ildo horretan, ez da batere arraroa zaharrak haurrak bailiran tratatzea, inolako muga psikikorik izan ez arren, eta bestek erabakitzea euren ordean.

Gure ustez, ez da zilegi zaharrak ikusezinak izatea gizartean, ezta gizarteak diskriminatu egin ditzan, nahiz eta normaltzat ditugun adinagatik diskriminazio forma askotarikoak besterik ez diren egoera asko eta asko, iraganean izan diren sexuagatik diskriminazio formen antzekoak diren arren.

Horri guztiari aurre egiteko, zaharrek eurek aldatu behar dute euren pentsaera eta jokaera, eta gizartean dagokien eginkizuna erreklamatu, baina, horretarako, erakundeek eta gizarteko talderik engaiatueneren babesa behar dute. Hori dela-eta, honako ekimen hauek sustatzeko asmoa du arartekoak:

- Zaharren eskubideen gutuna egin eta gutuna zahar elkarrekin eta taldeekin hitzartzea. Helburua gutunak Zaharren Giza Eskubideei buruzko Nazio Batuen Adierazpenak onartzen dituen oinarrizko eskubideak (independentzia, duintasuna, norbere burua errealizatzea, laguntza eta parte hartzea) bildu eta garatzea da eta, horretarako, beste erakunde batzuek finkatu duten bideari jarraituko gaitzaizkio eta

partaidetzazko prozesu dezentralizatua sustatuko dugu Nafarroako udalerrri nagusietan.

- Inkesta egitea zaharrak nola sentitzen diren jakiteko. Zahar elkarteetan eta taldeen laguntzaz, nola sentitzen diren, gizarteak euren eskubideak errespetatzen dituen moduari buruz zer pentsatzen duten jakin nahi dugu; zer alderdiri ematen dieten garrantzia eta epe ertainera zer eskubide bereganatzea espero duten jakin nahi dugu.
- Adinagatiko diskriminazioari buruzko lantegia antolatu eta gai honetan adituak diren espezialistek eta zaharren ordezkariak parte hartzea bertan.
- Herritarrek adinagatiko diskriminazioaz ohartarazteko kanpaina sustatzea komunikabideetan.

Gardentasun publikoaren aldeko ekimenak

Indarrean dagoen araudiaren arabera, eragin-garriak eta zuzenbidearen mendekoak izateaz gain, administrazio publikoek interes orokorren alde objektiboki lan egin behar dute eta gardentasun eta parte-hartze printzipioekin bat jardun behar dute.

Arauzko printzipio orokorrak asmo onekoak dira eta ildo zuzenetik jotzen dute baina, alor honetan, bada garaia hitza ekintza bihurtzeko, beste edozein alorretan baino gehiago agian. Maiz gertatzen denez, printzipio horien aplikazioa printzipiook gizarte eta administrazio egituran zinez barneratzearen arabera da, beharrezko kultur aldaketa jazo dadin; finean, kontzientzia kolektibok galdatu behar du (edo ez) printzipio horiek garatu eta martxan jar daitezkeen eta, alde horretatik, berebiziko garrantzia duen aldaketa gertatzen ari da gizartearen baitan azkenaldian.

Kontuan izan behar dugu, gizartearen kultur mailak gora egin izanaren eta, batik bat, informazioaren eskuragarritasunaren globalizazioaren ondorioz, administrazioaren eta administratuen arteko harreman paternalista errotua behin betiko amaitzen ari dela. Egungo herritarra trebatuago dago, eta areago parte hartu nahi du berarengan zuzeneko eragina duten erabakiak hartzeko prozesuetan eta, batez ere, informazioa eskuratzeko aukera gehiago izateko eskatzen du.

Ikuspegi honek, baina, kultur aldaketa dakar zinez. Herritarrekiko harreman eredu berria sustatu behar da, eta boterearen erabileraren inguruko ikuskera demokratikoagoa bultzatu gizarteko alor guztietan.

Horretarako, kargu publikodun gehienek oraindik ere duten beldurra (gardentasunak erasotzen errazago bihurtzen dituelakoa) gainditu behar dugu eta, hain zuzen ere, boterearen erabilera gardentasunak zilegitzen duela eta epe ertainean emaitzarik hoberenak gardentasunak ematen dituela onartu.

Zerbitzari publikoek herritarren iritzia entzuteko prest egon behar dute, baita talde gutxituenak ere, euren behar eta gogo errealean berri izatearren, eta, horretarako, herritarrek zuzenean parte hartzeko neurriak hartu behar dira, gizarte arloan aurreratuago dauden herrialdeetan daudenak bezalakoak.

Alde horretatik, administrazio sistema gardena ezin da funtsean gehiegikeria eta interesen arteko gatazkak saihesteko xedatzen den legezko arautzean bakarrik oinarritu; aitzitik, printzipioak eta bitartekoak ere eman behar ditu, erabakiak hartzeko prozesuen gardentasuna sustatu eta informazio publikoa askatasunez eskuratzeko aukerari eta kontuak jendaurrean emateari bide emateko.

Ildo horretan, administrazio jokabide zuzenaren kodeak, eskubideen eta zerbitzuen gutunak, norbere burua ebaluatu eta barne funtzionamendua kontrolatzeko sistemak sendotzea eta guztiz beregainak diren kanpoko ikuskatze mekanismoen aldeko apustu garbia ere sustatu behar dira.

Hain zuzen ere, honako hauek dira alor honetan finkatutako helburuak:

- Gardentasun publikoaren aldeko estrategiak sustatu eta hobetzeko ekimenei buruzko proposamen txostena egitea
- Gardentasun publikoari buruzko lantegia antolatu eta gai honetan adituak diren espezialistek eta erakundeetako ordezkariak parte hartzea bertan

Herritarren eskubideei buruzko toki plana

Europako Parlamentuak Administrazio Jokabide Zuzenaren Europako Kodea onartu zuen 2001. urtean, eta Kodea zenbateraino betetzen den neurtu eta administrazio publikoek bertako balioak eta printzipioak aplikatzeko beharrezko ekimenak sustatzeko agindu zion Europako arartekoari eta, horrenbestez, herrialdeetako arartekoei.

Ekimen horren harira, Nafarroako arartekoak prozesu bat jarri zuen abian 2003. urtean. 300 elkartek baino gehiagok hartu zuten parte bertan eta, azkenean, Nafarroako Foru Komunitateko Herritarren Eskubideen Gutuna osatu zen.

Eskubideen Gutuna egin ostean, arartekoak erronka bota zion Nafarroako administrazio publi-

koei, eskubideen eta zerbitzuen euren gutunak egin zituzten; gutun horiek konpromiso zehatzak adierazi behar zituzten kalitate arloan. Ekimen hori hasi da ematen fruiturik, eta Nafarroako hainbat administrazio eskubideen gutunak onartzen hasi dira, edo zerbitzuen gutunak egiteko prozedurak arautzen.

Herritarren Eskubideei buruzko Toki Planaren helburua da “udalek herritarren eskubideak etengabe hobetzeko estrategia aplikatzea, Administrazio Jokabide Zuzenaren Europako Kodean oinarrituta”.

Horretarako proposatutako metodoa “etengabe hobetzeko ziklokako metodoa” da; funtsean, metodo hori unean uneko egoera ebaluatu, hobetu beharreko alorrak zein diren antzeman eta alor horiek (herritarren eskubideak) hobetzeko ekintzak lehenetsi eta antolatzean datza eta, hartara, administrazioek zerbitzu publikoen kalitateari eta gardentasunari buruzko konpromisoak har ditzaten bultzatzen da.

Hasiera bateko ebaluazioa Arartekoaren Bulegoak egiten du eta, horretarako, telefono bidezko inkesta anonimoa egiten die parte hartzen duen udal bakoitzeko 400 bat herritarri; gainera, inkesta egiten die udalerrri horretan dauden herritar elkarte eta talde guztietako ordezkarierei ere.

Prozesua eragingarria izan dadin bermatze aldera, lankidetzaz hitzarmena formalizatzen da euren borondatez ekimen honetan parte hartzen duten udalekin, hartara, etengabeko prozesuari jarraitutasuna emateko konpromisoa har dezaten lortzen da eta.

Hain zuzen ere, honako hauek dira alor honetan finkatutako helburuak:

- Dagokion hitzarmena formalizatzea 10.000 biztanletik gorako udalekin. Orain arte, Tuterako, Lizarrako, Burlatako eta Zizur Nagusiko udalekin formalizatu da.
- Gutxienez sei udali buruzko ebaluazio txostenak aurten amaitzea.
- Zerbitzuen gutunei buruzko jardunaldiak antolatzea udalentsat, alor honetako adituekin eta erakundeetako ordezkariekin batera

Herritarren eskubideak zabaltzea

Herritarren eskubideak sustatzeko estrategiarekin bat, herritarrei guk oinarritzotzat ditugun baina, halere, haiek behar bezainbat ezagutzen ez dituzten eskubideen berri emateko hainbat argitalpen plazaratzen hasteko asmoa dugu aurten.

Argitalpen horiek dibulgaziozkoak izanen dira eta, gutxienez, honako hauek kaleratu nahi ditugu urtean barrena:

- Eskuorria: herritarrek administrazio publikoen aurrean dituzten eskubide orokorrak
- Eskuorria: osasun zerbitzuak eskuratzeko eskubideak

Eskubideak sustatzeko beste ekimen batzuk

- Pobreziari eta gizarte bazterketari buruzko lantegia antolatzea

Lantegi hori arartekoak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak gizarte eskubideei buruzko lantegiak egiteko sinatutako hitzarmenaren esparruan antolatuko da.

Helburua pobreziaren eta gizarte bazterketaren aurka borrokatzeko politiken egungo bilakaerari buruzko eztabaida sustatzea baino ez da, oso arazo korapilatsua den arren, bizkar emateko joera baitugu guztiok.

- Haurrak Interneten aurka babesteari buruzko hitzaldi kanpaina egitea eskoletan

Kanpaina honen helburua gurasoak haurrak Interneteko eduki desegokiak aurka babestu beharraz ohartaraztea da eta, horretarako, haurrak Interneten aurka babesteari buruzko dibulgaziozko hitzaldiak emanen dira Nafarroako hainbat ikastetxetan.

Hitzaldiak Nafarroako institutu eta ikastola nagusietako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleentzat eta euren gurasoentzat izanen dira, eta kanpainen parte hartzea borondatezkoa izanen da.

Hain zuzen ere, dibulgaziozko kanpaina hau Nafarroako arartekoak Protégeles elkartearekin batera abenduaren amaieran hasi duen kanpainen jarraipena izanen da.

4. URTEKO TXOSTENA

Parlamentuko Mahaiak Arartekoaren barne araubideari buruzko arautegia onartu berri izanaren ondorioetako bat erakundearen urteko txostena Parlamentuko osoko bilkuraren aurrean aurkeztu beharra da, Foru Araubideko Batzordearen aurrean soilik aurkeztu ordez. Oso gertakari esanguratsua da hori gure antolamenduaren esparruan baina, gainera, are gehiago nabarmentzen du txosten horren garrantzia eta oihartzun politikoa.

Aldaketa hori aprobeztatu eta gure helburua urteko txostenean balio erantsiko beste osagai batzuk txertatzea da, hala nola, alor eta talderik

ahulenen arabera gomendioak eta aurreko txosten berezietan egindako gomendioen jarraipena.

5. BARNE KOMUNIKAZIOA

Nafarroako Arartekoa bezain txikiak diren erakundeetan ere, barne komunikazioa hobetzeak kalitateari buruzko politika orokorraren oinarritzko helburuetako bat izan behar du. Hori dela-eta, aparteko arreta eman diogu azken hilabeteotan gai honi, eta barne informaziorako sistema berriak ezartzekotan gara, ezagutza banatzeko premisa abiapuntu hartuta. Horrenbestez, honako hauek dira 2006. urterako proposatu ditugun helburuak:

- Barne komunikaziorako sistema sortzea
 - Intranet
 - iradokizunak egiteko postontzia
 - etab.
- Sistema hobetu eta barne bileren eta helburuen jarraipena egiteko bileren maiztasuna handiagotzea

6. KANPO KOMUNIKAZIOA

Batez ere, Arartekoaren Bulegoa herritarrengandik hurbil dagoen erakundea da, eta horixe izan behar du, baina, horretarako, ezinbestekoa da herritarrek berezki ezagutu eta balioets dezaten.

Erakundea duela bost urte sortu zenez gero, kanpo komunikazioak ezinbestekoa izaten jarraitzen du oraindik ere herritarrei ezagutarazi eta herritar guztiek arartekoarengana berdintasunezko baldintzetan, gizarte edo kultur oztoporik gabe jotzeko aukera izan dezaten bermatuko badugu.

Eskura ditugun datuen arabera, herritarrek oro har entzun duten arren erakundearen berri, ez da gauza bera gertatzen haren eginkizunarekin, nahiko desberdintasun handiak daude eta. Alde horretatik, ezjakintasuna handiagoa da mendialdean eta goi eriberan, eta udalerririk txikienetan. Era berean, datu horiek erakusten dute ikasleek eta, oro har, 25 urtetik beherakoek, zaharrek eta etxe-koandreek ez dutela behar bezainbat ezagutzen erakundea.

Alde horretatik, ez dugu faktore sozioekonomikoaren arabera ezagutzari buruzko daturik, baina pentsatzekoa da egoerarik okerrean dauden gizarteko taldeak alor honetan ere daudela egoerarik okerrean. Hau da, beharrezkoa izaten segi-

tzen du ahalegin osagarriak egitea talde horiengana hurbiltzeko.

Bestalde, web gune berria abian jartzen amaitzeko asmoa dugu. Gune berri horrek eremu publikoan nornahi ibiltzeko aukeren alorrean indarrean dagoen araudia beteko du, eta teknologia berriak baliatu eta erakundea hurbilagoa (batik bat, gazte-erengandik hurbilagoa) bihurtzeko bide emanen du.

Horren guztiaren kariatara, honako hauek dira komunikazio arloan 2006. urterako finkatutako helburuak:

- Erakundeari buruzko informazio orokorra ematen duen eskuorri berria argitaratzea
- Herritar elkarteekiko eta taldeekiko bilera kopurua handitzea
- Autonomia erkidegoetako arartekoen aldizkaria egonkortzea
- Herritarren eskubideei buruzko buletinaren bizi bizi argitaratzea urtean
- Komunikabideetan agertzea
- Erakundearen web gune berria abian jartzen amaitzea
 - Web gunea bertan nornahi ibiltzeko moduan diseinatzea
 - Arartekoarengana Internet, posta elektronikoko eta bideo konferentzia bidez jotzeko aukera iragartzea
 - Datuak erdiautomatikoki eguneratzea

7. ANTOLAKUNTZA ETA ADMINISTRAZIO KUDEAKETA HOBETzea

Antolakuntza arloan, administrazio kudeaketako prozedurak egonkortu nahi ditugu, eragingarritasuna handiagotzearen.

Hain zuzen ere, honako barne helburu hauek erdietsi nahi ditugu:

- Informazio Bulegoko prozedurak berrantolatzea
- Administrazio lanak banatzea
- Estatistikak: aginte mahai osoa
- Liburutegia ordenatzea
- Aurrekontuaren gaineko kontrola eta jarraipena hobetzea
- Argitalpenak kaleratzeko prozesuak hobetzea

15. ERANSKINAK

1. ERANSKINA

MARTXOAREN 7KO 3/2005 FORU LEGEA, ONDOKO FORU LEGEAK ALDATZEKO: ESPAINIAKO IRRATI-TELEBISTAREN NAFARROAKO KONTSEILU AHOIKU-EMAILEA SORTU ETA ERREGULATZEARI BURUZKO MARTXOAREN 4KO 2/1985 FORU LEGEA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ARARTEKOAREN UZTAILAREN 3KO 4/2000 FORU LEGEA ETA NAFARROAKO IKUS-ENTZUNEZKOEN JARDUERA ARAUTU ETA NAFARROAKO IKUS-ENTZUNEZKOEN KONTSEILUA SORTU ZUEN UZTAILAREN 5KO 18/2001 FORU LEGEA

Zaila izaten da gehiengo parlamentario oso zabalak lortzea, batzuetan eskatzen diren portzentajeetara ezin izaten baita iritsi, Nafarroako Parlamentuak sortu eta haren menpekoak diren organoetako kideak edo titularrak hautatu edo izendatzeko, eta zaila da, halaber, hautatuek edo izendatuek karguan aritu beharreko aldi osoan gehiengo horiei eustea; egoera horren ondorioz, beharrezkoa da gehiengo horiek berrikustea, eta halaber haiekin loturik egon litezkeen beste betebeharrak ere, unean uneko egoera edo politikoak galaraz ez dezan dena delako hautaketa edo izendapena.

Alde batetik, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa, zeina legeak --Arartekoa arautzen duen uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea-- Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria dela baitio 1. artikuluan. Bigarrenik, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua, uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeak sortu zuena Nafarroako Parlamentuak hautatu beharreko organo independente gisa, zioen azalpenean adierazten denez. Azkenik, Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea, martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legeak sortua.

Foru Komunitateko arartekoaren kasuan, hura arautzen duen foru legearen 2. artikulua Parlamentuko kideen hiru bostenek osaturiko gehiengo eskatzen du izendapenerako; gehiengo hori Comptos Ganberako lehendakariaren izendapenerako eskatzen dena baino askoz handiagoa da.

Gauza bera esan daiteke Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaz, hura arautzen duen foru legearen 23.1 artikulua xedatzen baitu organoak dituen zazpi kideetatik bost Nafarroako Parlamentuak hautatuko dituela, parlamentarien bi herenek osaturiko gehiengoaz, hau da, Foru Komunitateko arartekoaren izendapenerako behar dena baino gehiengo kualifikatuagoaz.

Gaur egun, Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailean gehienez ere

hamaika kide egonen dira, eta osaketa hori eserlekuen banaketaren proportzionaltasunaren isla izan beharko da, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran parlamentu-talde bakoitzak dituenena; talde bakoitzak kide bat izan beharko du, gutxienez, kontseilu horretan, eta kontuan harturik zein den gaur egun, 2003ko hauteskudeez geroztik, Parlamentuaren osaketa, ia ezinezkoa da agindu hori betetzea.

Horregatik guztiagatik, aipatutako hiru foru lege horiek aldatzeko foru lege bat onestea proposatzen da, testu honekin:

1. artikulua. Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legearen aldaketa.

Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legeko 4. artikuluko 1. eta 4. idatz-zatien edukia hauxe izanen da aurrerantzean:

1. Nafarroako Parlamentuko batzorde arruntek zenbat kide dituzten, beste horrenbeste izanen ditu Kontseilu Aholku-emaileak, eta haiek osatuta dauden proportzio berean osatuko da. Nafarroako Gobernuak lehendakariak izendatuko ditu kide horiek, Parlamentuko taldeek proposatuta.

4. Hutsunerik sortzen bada, kargua utzi duen pertsona proposatu zuen parlamentu-talde berak izangai bat proposatuko du, eta Nafarroako Gobernuak lehendakariak huraxe izendatuko du, betiere kargua hutsik dagoela deklaratu eta hurrengo hilabetean, gehienez ere.

2. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen aldaketa.

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 2. artikulua-
ren edukia hauxe izanen da aurrerantzean:

2. artikulua.

1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa Nafarroako Parlamentuak hautatuko du; sei urterako, hain zuzen. Arartekoak Parlamentura jotzen badu, Parlamentuko lehendakariaren bidez eginen du.

2. Foru Araubide Batzordea arduratuko da Nafarroako Foru Komunitateko arartekoarekin harremanak izateaz, eta, halaber, batzorde horren ardura izanen da Osoko Bilkurari behar diren guztiak jakinaraztea.

3. Parlamentuko Osoko Bilkurak Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa hautatzeko gehiengo

osoa eskatuko da lehen bozketan. Hautagaietako batek ere ez badu gehiengo hori lortzen, bigarren bozketa egingen da, baina parte hartuko dute soilik lehen bozketan boto gehien eskuratu dituzten bi hautagaiek. Boto kopuru handiena eskuratzen duen hautagaia hautatuko da. Hautagai bakarra dagoen kasuan, bigarren bozketa gehiengo soilaren bidez ebaztuko da.

4. Aurreko idatz-zatian aipatutako gehiengoa lortuz gero, hautagaia Nafarroako Foru Komunitateko ararteko izendatuko da.

3. artikulua. Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legearen aldaketa.

Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeko 23. artikuluko 1. idatz-zatiaren a) letrak eduki hau izanen du aurrerantzean:

a) *Bost kide Nafarroako Parlamentuak hautatuko ditu. Horretarako, parlamentu-taldeek hautagaiak aurkez ditzakete, bost gehienez, ikus-entzunezkoen, kulturaren, unibertsitatearen edo elkarteen arloan merezimendu aitortuak dituzten eta Nafarroako aniztasun ideologikoaren isla diren pertsonen artean; hala ere, foru parlamentari bakoitzak gehienez horietako hiruri eman ahalko die botoa; botorik gehien lortutakoak izanen dira hautatuak.*

Berritze partzialetan foru parlamentari bakoitzak gehienez ere izangai baten aldeko botoa eman ahal izanen du, eta boto gehien lortu dituzten pertsonak hautatuko dira.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauen indargabetzea.

Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten xedapen guztiak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Nik Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 22. artikuluan xedatutakoa bete dadin, foru lege hau B.M. Erregearen izenean aldarrikatzen dut, Nafarroako Aldizkari Ofizialean berehala argitara eta "Estatuko Aldizkari Ofizialera" igor dadila agintzen dut eta herritar eta agintariei bete eta betearaz dezaten manatzen diet.

Iruñean, 2005eko martxoaren 7an

Nafarroako Gobernuako lehendakaria,

Miguel Sanz Sesma

2. ERANSKINA

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ARARTEKOAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDU ERREGELAMENDUA

I Xedapen orokorrak

1. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da, eta Konstituzioak eta Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoak babesturiko eskubide eta libertateak defenditzeko eta hobeki babesteko hautatuko du Nafarroako Parlamentuak. Herritarrak administrazioaren balizko abusu eta akatsen aurrean babes-tea izango du eginkizun nagusi.

2. Esleitu zaion egitekoa betetzeko, arartekoaren legeak eman dizkion eginkizunak beteko ditu, eta, horretarako, behar diren giza eta gauza bitartekoak izanen ditu eskura, bere aurrekontuan horri begira baliatu ziren kontu-sailekin bat.

3. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa ez zaio inongo aginduri lotuko. Ez du inongo agintariren jarraibiderik jasoko, eta eginkizunak autonomiaz beteko ditu eta bere irizpide propioei jarraikiz.

2. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak behar diren abantailak eta bermeak izanen ditu bere eginkizuna betetzeari begira, indarra duen legediak dioenarekin bat.

2. Nafarroako Parlamentuak ziurtagiri ofizial bat emanen du arartekoaren nortasuna eta kargua frogatzeko.

3. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa bere kudeaketaren erantzule izanen da soilik Nafarroako Parlamentuaren aurrean.

4. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren hautaketa egingen da arartekoaren legean bertan eta, hala bada, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoari jarraikiz. Aipatutako legeak ezartzen du zein arrazoi dela medio utziko duen kargua arartekoak.

2. Nafarroako Foru Komunitateko ararteko izendatzeak, funtzionario publikoa bada, berekin ekarriko du zerbitzu berezien egoerara pasatzea karguan dagoen bitartean.

5. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundea zuzendu eta administrazioa bere titularrari dagokio.

2. Dituen eginkizunak betetzeko, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari laguntza ematen ahalko dio koordinazio eta barne araubide batzorde batek.

6. artikulua. 1 Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak bere maila instituzionalari dagokion tratamendua izanen du.

2. Ekitaldi ofizialetan parte hartzeari eta lehen-tasunei dagokienez, Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzekoa den araudiak xedatutakoari jarraituko zaio.

II

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak

7. artikulua. 1. Legeak ematen dizkion eskumenez gain, hauek ere badagozkio Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari:

- a) Erakundearen ordezkari izatea.
- b) Erakundera kexak edo kontsulta egitera jotzen duten herritarrekin zuzeneko harremana izatea.
- c) Autonomiako, nazioko eta nazioz gaindiko botere publikoekin, administrazio organoekin eta tankera bereko organoetako titularrekin zuzeneko harremanak izatea.
- d) Legeak aurreikusten dituen urteko txostenak eta txosten bereziak Nafarroako Parlamentuan aurkeztea.
- e) Arartekoaren ondokoa izendatu eta kargutik kentzea, betiere Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordeak onespena eman ondotik, arartekoaren legeak aurreikusi bezala.
- f) Erakundeko langileei dagokienez:
 1. Langileen plantilla proposatzea, betiere Nafarroako Parlamentuak xede horretarako onesten dituen aurrekontuetako diru-kopuruei jarraikiz.
 2. Aholkulariak eta erakundearen gainerako behin behineko langileak izendatu eta kargutik kentzea, bai eta erakundeko funtzionarioak izendatzea ere. Azken kasu horretan, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak eskuordeturik; hori dela eta, horren berri eman beharko dio Mahaiari.
 3. Idazkari nagusia izendatu eta kargutik kentzea.
 4. Langileen buru izatea eta diziplina ahalmena erabiltzea.
 - g) Koordinazio Batzordearen bilkurak deitu, gai-zerrenda finkatu eta eztabaidak zuzentzea.
 - h) Barne jarraibideak onestea, erakundearen zerbitzuak hobeki antolatzeko.
 - i) Erakundearen funtzionamendua gainbegiratzea.

j) Aurkeztutako kexen eta ofiziozko jarduketaren egiaztapena eta ikerketa zuzentzea.

k) Kexak tramitera onartu edo ez onartzearen gainean erabakitzea, bai eta ikerketen azken ebazpenen gainean ere.

l) Ofiziozko jarduketaren gainean erabakitzea, bai eta egin beharreko txosten berezien gainean ere; betiere, bi kasuetan aukera izanen du haien betekizuna langile egokien esku uzteko, gaiaren, espezialitatearen edo beste inguruabar batzuen arabera.

m) Erakundearen lanaren izaera, ikerketak eta txostenak jendarteratzea.

n) Urtero, bere Bulegoaren aurrekontuen aurre-proiektua Nafarroako Parlamentuari proposatzea eta urteko aurrekontuaren likidazioa aurkeztea.

o) Bere aurrekontua betetzeko jarraibideak finkatzea, betiere aplikatzekoa zaion aurrekontuen gaineko legediaren arabera.

p) Kontratazio organoaren ahalmenak erabiltzea.

q) Gastuak baimendu eta erabakitzea, bai eta ordainketak agintzea ere, espresuki beste organo batzuetan eskuordetu ez denean, betiere erregelamendu honetan xedatutakoari jarraikiz.

r) Espresuki beste organo bati ematen ez zaizkion beste eskumen guztiak.

2. Bere lana egiteko, kabinete baten laguntza izaten ahalko du, zuzenean Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren mendean egonen dena, eta arartekoak berak ere zehaztuko ditu kabinetearen eginkizunak.

8. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak urtero Nafarroako Parlamentuari aurkeztuko dio bere jarduketei nahiz kudeaketei buruzko ohiko txostena, legeak aurreikusitako moduan eta epeetan. Betiere, aurretik ohiko txosten hori Foru Araubideko Batzordearen eskuetan jarriko da.

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak txosten horren laburpen bat ahoz azalduko du Parlamentuaren Osoko Bilkuran, eta, jarraian, parlamentu-taldeek parte hartzeko aukera izanen dute beren jarrera adierazteko.

2. Arartekoak aurkeztutako txosten monografiko edo bereziak Foru Araubideko Batzordean tramitatuko dira.

3. Arartekoak Nafarroako Parlamentuari epe jakin batean edo gai zehatz batean eginikoen berri eman nahi izanez gero Nafarroako Parlamentuari,

eskatu eginen dio, eta horren ardura, Foru Araubideko Batzordeak, Eledunen Batzarrak edo Mahaiak hartuko du, Mahaiak nork erabakitzen duen.

III

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren ondokoa

9. artikulua. Hona hemen Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren ondokoari dagozkion eskumenak:

a) Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari laguntza ematea erakundearen lanetan.

b) Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren eginkizunak betetzea, hark eginkizunak betetzerik ez duenean edo aldi baterako kanpoan dagoenean.

c) Kexa edo espedienteak ebazteko Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak ematen dizkion ikerketa eginkizunen izapideak eta betetzea gainbegiratzea.

d) Urteko txostena egiten laguntzea, bai eta Nafarroako Parlamentuari aurkezten zaizkion txosten bereziak ere.

e) Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak zer gairen ardura eman dion, horien gaineko erabakiak proposatzea.

f) Koordinazio Batzordearen bilkuretan kide gisa parte hartzea eta, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa ez badago, bilkura haietan buru izatea.

g) Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak ematen dizkion eskumenak, betiere lege honekin eta erregelamendu honekin bat.

10. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak izendatu eta kenduko du kargutik ondokoa, betiere Nafarroako Parlamentuak onespena eman ondotik, legean xedatutakoarekin bat.

2. Ondokoa karguaz jabetuko da Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren aurrean eta Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren aurrean, eta, ekitaldi horretan, Nafarroako foru eraentza errespetatu, Espainiako Konstituzioari eta legeei men egin eta kargua zintzo beteko duela zin egin edo hitz emanen du.

3. Ondokoa zuzenean da bere kudeaketaren erantzule Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren abantaila eta berme berak zaizkio aplikatzeak bere eginkizunak betetzeari dagozkionez.

4. Ondokoa kargua utziko du legean ezarritako zioengatik eta, halaber, Parlamentuak Nafarro-

ako Foru Komunitateko ararteko berria izendatu eta hura karguaz jabetzearekin bat.

IV

Koordinaketa eta Barne Araubide Batzordea

11. artikulua. 1. Koordinazio eta Barne Araubide Batzordea Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak duen kontsulta eta aholkularitza organoa da; bere eginkizunak betetzeko, hain zuzen, bai eta antolaketa, administrazioa eta barne araubiderako ere.

2. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa da Koordinazio eta Barne Araubide Batzordeko burua. Alorreko arduradun aholkulariak ere kide izanen dira, eta hori ez da eragozpen izanen erregelamendu honetan balizko beste kargu batzuetarako ezarritakoetarako.

3. Nafarroako arartekoak espresuki deitu ondoren, aholkulariak eta arartekoak egoki jotzen duen pertsona oro joaten ahalko da Koordinazio Batzordeko bilkuretara, informazioa jasotzeko.

12. artikulua. 1. Koordinazio Batzordea gutxienez hilean behin bilduko da, eta, horrez gain, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak batzordea deitzea egoki ikusten duen aldi oro ere bai.

2. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak gai-zerrendan ezarriko ditu, edozein batzordekidek proposaturik, eztabaidatu beharreko gaiak.

3. Bilkuren edukia aktan jasoko da, eta hartutako erabakiak espresuki islatuko dira.

4. Koordinazio eta Barne Araubide Batzordeko kideek, bai eta hartan parte hartzen duten gainerrako pertsonak, isilpean gordeko dituzte eztabaiden edukiak.

13. artikulua. Hona hemen Koordinazio eta Barne Araubide Batzordearen eginkizunak:

a) Plantillari dagozkion gaiez txostena egitea, bai eta erakundearen zerbitzuan ari diren behin behineko langileen izendatzeaz eta kargutik kentzeaz, bidezkoa denean.

b) Konstituziokontarakotasuneko errekurtsua jartzeko aukera aztertzea eta horri buruzko txostena egitea; errekurtsua jartzea erabakiz gero, Gorte Nagusietako arartekoari eskatzea errekurtsua jar dezan.

c) Erakundearen aurrekontu proiektuen prestatetari, exekuzioari eta likidazioari loturiko gai oroz arduratzea eta haietaz txostenak egitea, aurrekontua Nafarroako Parlamentura igorri baino lehen.

d) Obra, zerbitzu eta hornidura proposamenei buruzko txostena egitea, bai eta horiek kontratazko oinarrii buruz ere.

e) Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari laguntzea alorretako jarduerak koordinatzen eta zerbitzuen antolaketa hobetzen.

f) Nafarroako Parlamentura igortzen diren urteko txostenek edo txosten berezietz arduratzea eta haietaz txostenak egitea.

g) Erregelamendu hau aldatzeko proiektuaz txostena egitea eta aholkatzea.

h) Beste entitate edo erakundeekin sinatu beharreko hitzarmenez eztabaidatzea.

i) Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari aholku ematea, arartekoak batzordearen eskuetan jartzea egoki ikusten duen gai orotan.

V

Funtzionamendua

14. artikulua. 1. Bere eskumenez baliatzean, bai eta kexak izapidetzean eta ikertzean, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren funtzionamendua legean eta erregelamendu honetan ezarritakoari lotuko zaio.

2. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoan kexa aurkezteak, eta, bidezkoa bada, hura onartzeak inola ere ez ditu bertan behera utziko legeetan errekurtsioa aurkezteko aurreikusiak dauden epeak, hala administrazio bidean nola jurisdikzionalen. Orobat, ez du etenen kexak ukituriko ebazpenaren edo egintzaren betearaztea.

15. artikulua. 1. Edozein bide erabiltzen ahalko da kexa Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari aurkezteko, baldin eta aukera ematen badu interesdunaren edo aurkeztu duen pertsonaren nortasuna frogatzeko. Betebehar bakarrak izanen dira erakundea arautzen duen legean ezarritakoak.

2. Orobat, hala norbaitek aurkeztutako kexetan nola ofiziozko espedienteetan, izapideak funtsean berdinak izanen dira, baina aintzat hartuko dira jarduketa bakoitzak dituen berezitasunak.

16. artikulua. 1. Kexen onarpena ala ez onarpena, azterketa eta ebazpena Nafarroako Foru Komunitatearen arartekoa arautzen duen legearekin bat eta bere irizpideei jarraikiz eginen da.

2. Era berean, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren jarduketek laburtasuna izanen dute oinarri eta ez dute prozedura arautua izanen, salbu eta arartekoa arautzen duen legeak horri buruz xedatutakoa.

17. artikulua. 1. Administrazio publikoei zuzentzen zaizkien informazio eskariek argi eta labur adieraziko dute erantzuna zer alderdiri lotu behar zaion.

2. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak administrazio publikoei eskatzen ahalko die ikerketa xede den aferei loturiko espedienteen eta agiriaren kopiak igortzeko.

18. artikulua. 1. legearen 17. artikulua ondo-riotarako, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak, bai eta erakundeko langile kreditatuek ere, behar adina jarduketa egiten ahalko dituzte agintarien eta funtzionarioen aurrean, ikertzen ari diren gaiak ezagutu eta argitzea.

2. Aipatu zereginak betetzean, administrazio publikoen espediente eta agiriak eskatzen ahalko dituzte, ikertzen ari direnari loturik badaude, eta, era berean, haien kopiak eta ziurtagiriak ere lortzen ahalko dituzte.

3. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak edo haren mendeko langileek egindako jarduketak eta ikerketak, betiere, isilpekoak izanen dira; hori, hala ere, ez da eragozpen izanen arartekoak, Nafarroako Parlamentura igortzen dituen txostenetan, egoki jotzen dituen azalpenak sartzeko, betiere legea betez.

19. artikulua. 1. Soilik Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak ezagutuko ditu ofizialki sekretutzat edo isilpekotzat sailkaturik dauden agiriak

2. Aipatu agiriak behar bezala zainduko dira eta horri buruzko erantzukizun zuzena izanen du Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak.

3. Ezin izanen da inola ere agiri sekretuen edukien aipamenik egin Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren txostenetan edo kexa aurkeztu edo haren esku-hartzea eskatu duen pertsonari emaniko erantzunean.

4. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak bidezkoa dena aginduko du barne agiriak "isilpeko" moduan sailkatzeari begira.

5. Nafarroako Parlamentuari igorritako txostenetan, ofizialki sekretu edo isilpeko gisa sailkatutako agirien aipamena egin ala ez, zuhurki juzkatuko du Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak.

20. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren ebazpenek legean aurreikusitako forma izanen dute, kasuaren arabera. Zehazki:

a) Gomendioa ebazpen forma bat da eta haren bidez administrazioari edo agintari eskudunari halako jarduketa jakin bat egiteko komenigarritasun-

na adierazten zaio, akats edo irregulartasun bati akabera emateko.

b) Legezko betebeharren gogorazpena ebazpen forma bat da eta, haren bidez, administrazioari gogorazten zaio tankera orokorreko legezko arau edo administrazio xedapen jakin batera moldatzeko duen betebeharra.

c) Iradokizuna administrazioari edo agintari eskudunari zuzendutako ebazpen forma bat da eta haren bidez adierazten da jarduketa mota jakin bat hasi edo hura zuzentzeko komenigarritasuna, betiere legeak erakundeari ematen dizkion eginkizunen barnean.

d) Oharpena ebazpen forma bat da eta, haren bidez, administrazioari, agintariari edo funtzionarioari jakinarazten zaio erakundearen ikerketa ahalmena eragozten duen portaera jakin bat aldatzeko beharra, eta, halaber, aditzera ematen zaio zer neurri zuzentzaile har daitezkeen delako portaera hari eusten dionaren aurka.

2. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak, indarrean dagoen legediarekin bat, adiskidetze edo akordio formulak ere proposatzen ahalko dizkio ukituriko departamentuari, organismoari edo erakundeari, kexen ebazpen positiboa eta azkarra errazteko.

3. Bereziki, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak bitartekari lanak egiten ahalko ditu, horrela eskatzen zaionean eta ukituriko alderdiak esku-hartzearekin eta haren baldintzekin ados badaude.

4. Modu berean, Nafarroako arartekoak egoki ikusten dituen txostenak igortzen ahalko dizkio ikuskaturiko administrazio publikoari bere funtzionamenduari buruz.

21. artikulua. 1. Bere eskumenen betekizunean, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak bere eginkizunak koordinatuko ditu Gorte Nagusietako arartekoarekin eta beste autonomia erkidego batzuetako antzeko instituzioekin, erakundea arautzen duen legearen V. tituluak aurreikusitakoari jarraikiz.

2. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak komenigarri ikusten dituen hitzarmenak eta akordioak sinatzen ahalko ditu estatuz gaindiko, estatu nahiz autonomia mailako antzeko instituzioekin, legeek, hala bada, aurreikusitakoari jarraikiz.

VI Langileak

22. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko Foru Legean ezarritakoaren

arabera, arartekoaren langileak hauek dira: alorreko arduradunak, aholkulari teknikoak eta konfiantzako langileak, bai eta arartekoari atxikitako Nafarroako Parlamentuko plantillako langileak -- horiei, betiere, Nafarroako arartekoak esleituko die erakundean izanen duten destinoa--.

23. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak libreki izendatu eta kargutik kenduko ditu bere eginkizunak betetzeko behar dituen aholkulariak eta konfiantzako langileak. Nolanahi ere, kargua utziko dute erakundearen titular berriak karguan hartzen duen unean bertan. Horiek, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan behin-behineko langileendako ezarrita dagoen araubideari lotuko zaizkio.

2. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren zerbitzuko langileen araubidea lotuko zaio Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuari, baina Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren mende egonen dira organikoki eta funtzionalki.

24. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak onetsi dezan igortzen duen aurrekontuaren aurreproiektuan, bere zerbitzuko langile guztiak hartuko dituen plantilla proposamena egingen du, aholkulariak eta konfiantzako langileak barne direla, bai eta lanpostu bakoitzaren ezaugarriak eta betetze sistema ere.

Era berean, erakundearen Bulegoaren plantilla proposamena Parlamentuko Mahaiari igorriko dio, Nafarroako Parlamentuko langileen plantillarekin batera onetsi dezan.

2. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak bere plantillako langileei dagozkien lanpostuak aukeratu eta beteko ditu, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak eskuordeturik eta hari jakinarazirik, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan xede horretarako ezarriak dauden prozeduren bitartez eta langileen plantillan aurreikusitakoarekin bat.

25. artikulua. 1. Nafarroako arartekoak libreki izendatuko du bere Idazkari Nagusia.

2. Idazkari Nagusiak, Koordinazio Batzordeko kidea izateaz gain, aholkulari lana ere egiten ahalko du eta Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak ematen dizkion eginkizunak beteko ditu.

26. artikulua. 1. Aholkulariek eta konfiantzako langileek erabateko dedikazioko araubidea izanen dute zerbitzuak emateari dagokionez.

Plantillako langileek plantilla organikoan agerian dedikazioa izanen dute, eta erakundeak ezar-

tzen duen lanaldiaren erregulazioaren ondoriozkoa.

2. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren aholkulari izatea bateraezina da edozein ordezkartzarekin, edozein kargu politikorekin edota alderdi politiko, sindikatu, elkarte edo fundazio orotan zuzendaritza eginkizunak betetzearekin, eta haien zerbitzuan lan egitearekin, bai eta edozein lanbide, jarduera liberal, merkataritza-jarduera edo lan jardueratan aritzearekin ere. Soilik bateragarri izanen da, izatekotan, irakasle lanarekin, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak askatasunez eta espresuki oniritzia eman ondoren, betiere bateraezintasunei buruzko legediak ezarritakoarekin bat.

3. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak erakundetik kanpoko profesionalekin txostenak eta azterlanak kontratatzen ahalko ditu oro harreko prezioaren bidez, baina horrek ez du berekin ekarriko lan, funtzionario edo behin-behineko harremanik erakundearekin, ezta Nafarroako Parlamentuarekin ere.

4. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak lankidetzaz edo praktika akordioak edo hitzarmenak egiten ahalko ditu egoki ikusten duen erakunde publiko eta pribatu guztiekin. Era berean, bekak ematen ahalko ditu interesekoak jotzen dituen jarduerak egiteko, hori guztia bere aurrekontuen mugen barnean eta aurreko idatz-zatian ezarritakoarekin bat.

27. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren zerbitzuko langile orok isilpean gorde beharko ditu erakundearen izapidetutako gaiak. Betebehar hori ez betetzeari zehapena egokituko zaio, erregelamendu honetan xedatutakoarekin bat.

28. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren plantillako langileei zehapenak ezarriko zaizkie, diziplinazko hutsegiteengatik, betiere Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren VIII. kapituluak xedatutakoarekin bat, eta hartan ezarritako prozedurari jarraikiz.

2. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari egokituko zaio hutsegite arinak zehatzea, bai eta espedientea irekitzea, instrukzio-egilea izendatzea eta hutsegite larriak eta oso larriak zehatzea ere, salbu eta ondoko idatz-zatian aurreikusitako kasuetan.

3. Diziplina zehapena zerbitzutik kentzea bada, Parlamentuko Langileen Estatutuak eskuduntzat jotzen duen Parlamentuko organoak soilik ezartzen ahalko du. Dena dela, halakoetan, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari egokituko zaio

espedientea ireki, ordenatu eta bultzatzea, bai eta zehapena proposatzea ere.

4. Diziplina araubidearen arloan esleitu zaizkion eskumenez baliatuta Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak ematen dituen zehapen ebazpenek administrazio bidea itxiko dute. Ebazpen horien kontrako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezten ahalko da, jurisdikzio horri buruzko araudiari jarraituz.

VII

Araubide ekonomikoa

29. artikulua. 1. Erakundeko zerbitzuek aurrekontuen aurreproiektuaren aurrerapena egiten dute eta Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren eskuetan jarriko dute, onetsi dezan.

2. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak aurrekontuen aurreproiektua onetsi eta Parlamentuko lehendakariaren bidez Eledunen Batzarrari helaraziko dio, aurrekontuen proiektua onetsi dezan.

3. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak, Eledunen Batzarrak aurrekontuen aurreproiektuari buruz erabakirik hartu aurretik, agerraldia egitea eska dezake Eledunen Batzarrean, aurreproiektua egiteko erabili diren irizpideak azaltzeko.

4. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren zuzkidura ekonomikoa Nafarroako Parlamentuaren aurrekontuko kontu-sail bat izanen da. Dena dela, Nafarroako aurrekontu orokorretan sartzeari begira, zuzkidura sailkatuko da kapitulu ekonomikoen arabera: transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak.

30. artikulua. 1. Kontabilitaterako, kontu-hartzailetzarako, gastuak baimentzeko, kontrataziorako eta ondasun eta eskubideak eskuratzeko, Nafarroako Parlamentuak duen araubide bera izanen du Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak.

2. Bere aurrekontua betetzeak dakartzan gastuak baimendu eta ordainketak agintzeko eskumenak ditu Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak.

3. Orobat, arartekoak egiten ditu aurrekontu kontzeptuen arteko kreditu-transferentziak, eta, horretarako, Nafarroako Parlamentuan indarra duten arauak aplikatuko dira.

31. artikulua.- 1. Legeko 45. artikuluekin bat, aurrekontuan kontu-sail bat sartuko da partikularren gastuak ordaintzeko; hain zuzen ere, erreklamazioa aurkeztu gabe edo kexaren egileak izan gabe Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak deitu dituenen gastuak ordaintzeko.

2. Xede horretarako, joan-etorriko gastuak ordainduko dira, behar bezala frogatu ondoren, bai eta lan orduak galtzetik eratorritako gastuak ere, beharrezkoa denean.

32. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak, dagozkion xehetasunak urteko txostenean sartzeari utzi gabe, urtero aurrekontuaren likidazioa helaraziko dio Eledunen Batzarrari Parlamentuko lehendakariaren bidez, onetsi dezan.

2. Halaber, aurrekontuaren likidazioaren berri edo hura zertan den jakinaraziko du, hala eskatzen dionean Nafarroako Parlamentuko organo eskudunak.

Azken xedapena

Erregelamendu hau Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta indarra hartuko du azken horretan argitaratu eta biharamunean.

3. ERANSKINA

KEXARIK ESANGURATSUENEN AURKIBIDEA

(Txostenari erantsi diogun CDan daude osorik)

1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

NEKAZARITZA ETA ABELTZAINNTZA

– Abere taldeak Genevillako kaleetan barrena etengabe ibiltzeagatik zikinkeria

– Murillo el Frutoko herri lur zatiak mugarriztatzeari buruzko informazio eskaria

MERKATARITZA ETA KONTSUMOA

– Salaketa bideratzea Kontsumo Zerbitzuaren aurrean autoak konpontzeko lantegi baten jarreragatik

2. GIZARTE ONGIZATEA

EZINDUAK

– Leringo eraikin eta eremu publikoetan ibiltzeko aukerak

– Lanerako prestatzeko zentroetako toki eskasia

– Cortesetik Iruñeko Carmen Aldave Erietxera joateko garraio zerbitzu egokitua eta lagundua izateko eskaria

– Enplegu zentro berezien funtzionamendua ikuskatzea

– Ustez adimen gaixotasunak jotako pertsonen arteko bizikidetasuna

ZAHARRAK

– Etxeko laguntza zerbitzua bertan behera geratzea Murillo el Cuenden

BESTELAKOAK

– Familia ugariak Tuterako Udal Dantza Eskolan izen emateko kuotak ordaintzeko hobariak

3. KULTURA, KIROLA ETA ELEBITASUNA

KIROLA

– Azkoiengo udal kiroldegia erabiltzeagatik ezarritako zigorrarekiko eta alegazioei ez erantzuteagatik desadostasuna

ELEBITASUNA

– Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko zabalguneko barne errotulazioa

– Nafarroako Zerga Ogasunak herritarrak euskaraz ez erantzun eta hartzea

– Gaztelaniako eta euskarazko izen ofiziala duten udalerrien izena eremu mistoko errepedeetako seinaleetan ageri den modua

4. HEZKUNTZA

– Ikasleak onartzeko irizpide osagarriak

– Uharteko haur eskolako hainbat elementuren egoera

– Zizur Nagusiko bigarren hezkuntzako institutuko ikasleei ezarritako diziplinazko zigorra

– Ikastetxean Gorputz Hezkuntzako irakaslea jardunean egin dituen ekintzak direla-eta irmo zigortu izateagatik sortu den egoera

– Hezkuntzako premia bereziak dituzten ikasleak: D ereduko curriculum aniztasuna

– Eunate bigarren hezkuntzako institutuko instalazioen eskasia

– Hezkuntzako premia bereziak dituzten ikasle- en fitxategia osatzeko beharrezko datuen bilketa prozedura

– Iruñeko Patxi Larrainzar ikastetxeko instalazio berrien eraikuntzaren atzerapena

– Hezkuntzako premia bereziak dituzten ikasleak: haur hezkuntzako zikloan ikasteko gehieneko adina

5. FUNTZIO PUBLIKOA

– Bulegoburuaren eta haren mendeko irakasle aholkulari baten soldaten arteko aldea

– Epaileek Nafarroako Gobernuko zaintzaile izateko oposizioa baliogabetu izana eta baliogabe-

tze horrek parte hartzaileengan izan dituen ondorioak

– Lanbide Heziketan, zaintzaile izateko goi mailako ikastaroetan sartzeko zailtasunak

6. OGASUNA

– Hiri kontribuzioaren sortzapen data

7. BARNEA

ZIRKULAZIOA

– Gertatutakoa ikusi ez duen agente batek herritar bati ezbeharrak gertatu den lekutik bere datuak utzi gabe alde egiteagatik jarri dion zigorra

8. INGURUMENA

– Atarrabiako igarobide bateko garajeetako ateek eragindako zarata

– Barañaingo ostatu bat baimenik gabe aritzea

– Zuñigan ahate hazkuntzan aritzeko baldintzak

– Nafarroan genetikoki eraldatutako aldaerak hazten dituzten lursailei buruzko informazioa eskuratzeko eskaera

– Azkoiengo taberna batek eragiten dituen eragozpenak eta kutsadura akustikoa

– Nafarroako arroketako harraparien zentsuei buruzko informazioa eskuratzeko eskaera

– Iruñeko argi kutsadurari buruzko informazioa eskuratzeko eskaera

– San Adriánko Udalak baimenik ez duen beilatokiaren jarduna dela-eta egindakoa

– Herritarrei aireko ozono troposferikoaren kopuruari buruz ematen zaien informazioa

– Berriozarko sakelako telefono deien oinarriko estazio baten kokalekua

9. HERRI LANAK ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

HERRI LANAK

– Errepideko akatsek eragindako ezbehar baten gaineko ondarezko erantzukizunari buruzko espedientearen izapidetzea

– Andosillako zeharbidea berritzeko lanek etxebizitza batean izan duten eragina

– Aramendiako Kontzejuak lanak egiteko ordaindutako dirua ez itzultzea

ZERBITZU PUBLIKOAK

– Leitzako hodi biltzailearen funtzionamendu eskasaren gaineko ondare erantzukizuna galdatzea

– Arlegiko Kontzejuko kideei eman izan zaien informazioa

– Mendillorriko ikastetxe publikoko jolastokian sartzeko zailtasunak

10. OSASUNA

– Osasunbideko Ginekologia Zerbitzuak kisteak ez detektatzeagatik erantzukizuna nori dagokion argitzea

– Adimen gaixo bat erietxean laguntzeko tokia lortzeko eskaria

– 60/2003 Foru Aginduaren bidez sortutako Garuneko eta Bizkarrezur Muineko Gaitzen Unitatea abian jartzen atzeratzea

– Guardiako farmazien sistemak mendialdean dituen ondorioak

– Ezegonkortasun emozionaleko nortasun arazoa duen gaztea erietxean laguntzeko tokia lortzeko eskaria

– Bideko Ama Ospitaleko Psikiatria Zerbitzuak hurrengo egunean gazte bat hil duen pertsonari eman dion laguntza

– Dietetika espezialitateko itxaron zerrenda

– Ebakuntza egiten atzeratzea

– Adimen gaixotasun larriak dituzten pertsonak laguntzeko errehabilitazio psikosozialeko zentroak abian jartzea

– Altsasuko Josefina Arregui Klinikako errehabilitazio tratamendua

– Nafarroan haurdunaldia norbere borondatez etetea

– Neuropediatria Zerbitzuak emandako laguntzarekiko desadostasuna

– Oftalmologiako itxaron zerrenda

– Adimen gaixo bati bizilekua eman beharra

– Azterketa onkologikoak egiten atzeratzea

11. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

HIRIGINTZA

– Garesko eraikin bateko lanak hirigintza arloko udal araudiari lotu gabe egin izana

– Elizondoko lerrokatzeen xehetasunei eta antolamenduari buruzko azterketa

– Murugarrenen hirigintza zerbitzuak gauzatze-ko hirigintza hitzarmena onartzen atzeratzea

– San Martin Unxeko errepide edo kale baten bide eskasa

– Noingo etxebizitza batzuen atzealdeko pasabide bat erabiltzeko baldintzak beste eraikin bat eraikitzen ari direla eta

ETXEBIZITZA

– Babes ofizialeko etxebizitzaren zentsuari buruzko informazioa eta zentsua martxan jartzea

– Babes ofizialeko etxebizitza bat deskalifikatzeko eskariari ez erantzutea

– Babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko maileguren interesak ordaintzeko diru laguntzak luzatzeko eskaera bideratzea

– Babes ofizialeko etxebizitza eskuratzegatik diru laguntza emateko eskariari ezezkoa ematea

– Iruñeko Udalaren zortzi orube enkante bidez esleitzea etxebizitzak egiteko

12. BESTELAKOAK

– Auzo elkarte batek Olatzagutiko Elkarteen Udal Erregistroan izena emateko eskaria

– Castejónko Udalak mugarriztatze prozesua geldiaraztea

– Zergadun batek ordaintzeke dituen tasei eta zergeri buruzko informazioa eskatzea



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefona *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	